

Gran Vía 81, 7 - 48011 Bilbao

Tlf: 944792150 - cesegab@cesegab.com

 www.cesegab.com -   @cesegab



Ziurgabetasuna etorkizunean

Memoria honen orrialdeetan kontsulta daiteke Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak pandemiaren bigarren urtean Euskadik izan duen errealitate soziala eta ekonomikoa aztertzeko egin duen azterketa zehatza. Txertoa iritsita, itxaropena zabaldu zen COVID-19a atzean uzteko eta etorkizunari begira nolabait baikor izateko, baita maila ekonomikoan ere. Hala ere, EAEko ekonomiak hazkundea izan bazuen ere, pandemiaren seigarren boladak, energiaren prezioaren igoerak eta 2021eko amaierako hornidura eskasiak susperraldiaren indarra mugatu zuten.

2022an eta pandemiak aurrera egin ahala, ziurgabetasunez beteta jarraitzen du etorkizunak. Testuinguru horretan, uste dugu krisitik irtetea aprobetxatu behar dela hobetzeko, eta formula ekonomiko eta sozial berritzaile, iraunkor eta inklusiboen alde egin dezaten bultzatu nahi ditugu administrazio publikoak, elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa sustatzeko eta lankidetzaren harremanen alde egiteko.

Memoria honetan agerrarazi dena ikusita, egiazta daiteke ezen, pandemiaren aurreko jarduera ekonomikoaren mailara iritsi ez bada ere, ekonomia eta enplegu adierazleak nabarmen hobetu zirela Euskadin 2021ean (BPGd-aren % 5,6ko igoera eta enpleguaren % 1,5eko hazkundea izan ziren). Gogorarazi behar da politika monetarioak eta fiskalak jarduera ekonomikorako euskarri erabakigarriak izaten jarraitu zutela, baita aldi baterako lan erregulazioko espedienteek ere, aurreko urtean baino gutxiago izanik ere, nabarmen murriztu baitzuten lanpostuen galera. Era berean, gure kezka nabaria da egungo inflazioagatik, eta akordioak lortzeko eta sortutako egoera ahalik eta ondoen gainditzeko aukera emango duten neurriak hartu behar direla uste dugu.

Pandemiaren ondoriozko erronkez gain, Euskadik aurre egin behar die sistema ekonomikoaren eraldaketa global sakonaren ondoriozko erronka berriei, eta horrek aukera berrietarako ateak ere irekitzen ditu. Hori dela eta, Kontseiluak Europako Next Generation funtsek eskaintzen dituzten aukerak baliatu eta zuhur jokatzeko deia egiten dugu, trantsizio teknologiko-digitala, energetiko-ingurumenekoa eta demografiko-soziala bultzatuko duten estrategiak ezartzeko. Etorkizunaren diseinua trantsizio horiek zehaztuko dute, eta funtsek, bai kantitatean bai diseinuan aurrekaririk ez duen Europako erantzunak, trantsizio horiek erraztuko dituzten errailak jartzea lortu behar dute, baita ezinbestean ekarriko dituzten doikuntzengatik gizartearen zati bat ahaztea eragotzi ere.

Oro har gertatutakoaren ildotik, eta hainbat eremutan datuak gogorak izan arren, demografikoa nabarmendu nahi nuke batez ere. Pandemiaren giza eragina hain handia izaten ari da, ezen denbora bat igaro ondoren bakarrik izango baikara gai pandemiaren ondorioak lasaitasunez ebaluatzeko, eta ezin izango dira estatistiketan bakarrik neurtu. Heriotzen zifra berriez gain, jaiotza-tasa txikiaren eta biztanleriaren zahartze progresiboaren ondoriozko erronka demografikoa ere gehitu behar da. Horregatik, ezinbestekoa da demografia eta migrazioarako eredu orokorra, politika publikoak zeharka eta modu koordinatuan orientatzea ahalbidetuko duena. Horrekin lotuta, erronkari heltzeko tresnak zehazten hasi dira.

Gizartearen egoerari dagokionez, 2021. urteak agerian utzi du gizarte-babeseko sistema sendoa izateak duen garrantzia, gure gizarteak dagoeneko bere gain hartutako erronkei, gero eta behar handiagoi eta erronka eta errealitate berri posiblei aurre egiteko. Azpimarratzekoa da, COVID-19ak eragindako krisia hasi zenean, EAE abiapuntu onean zegoen erronka berriei aurre egiteko, eta, beraz, pandemiaren hasieratik ez da bizi-maila orokorra nabarmen jaitsi.

Amaitzeko, memoria hau irakurtzen jarraitzera gonbidatzen zaituztet, eta Euskadiko EGAB osatzen dugun eragile sozial eta ekonomikook identifikatu ditugun erronkak, eta horri buruz ditugun gogoetak ere proposamenak ezagutzera. Gure zeregina da iturri ofizialek argitaratutako estatistikei eta informazioei balio erantsia ematea, haien bilakaera denboran testuinguruan jarrita, aurrerapenak eta atzerapausoak egiaztatuta, eboluzioei aurrea hartuta eta oharrak eta gogoetak txertatuta, modu kontrastatuan eta adostuan.

Eskerrak eman nahi dizkiet, besterik gabe, memoria hau egiteko ardura duen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kideei eta Kontseiluko langileei. Eskerrik asko, bene-benetan, egindako lanagatik eta inplikazioagatik.



Emilia M. Málaga Pérez
Presidentea

AURKIBIDEA MSE 2021

I.KAPITULUA DEMOGRAFIA EAE-N	1
1. OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA	4
1.1. BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA	4
1.1.1. Jaiotzak	
1.1.2. Heriotzak	
1.1.3. Migrazio-mugimenduen estadistika	
1.2. EZKONTZAK	11
1.2.1. Ezkontzak	
1.2.2. Ezkontzak-desegiteak	
2. INMIGRAZIOA EAE-N	15
2.1. TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUROPAR BATASUNEAN	15
2.2. IMMIGRAZIOAK EAE-KO DINAMIKA DEMOGRAFIKOAN DUEN ERAGINA	16
2.3. GIZARTEAK IMMIGRAZIOAZ DUEN IRUDIPENA: 2021EKO IKUSPEGIREN BAROMETROA	19
3. DEMOGRAFIAREN ERRONKA EUSKADIN. AURRERAPAUISOAK 2030EKO ESTRATEGIA EGITEKO PROZESUAN, 2021-EAN	22
4. LABURPENA ETA GOGOETAK	26

II. KAPITULUA EKONOMIA EAE-N 33

1. KANPOALDEKO INGURUNE EKONOMIKOA	33
1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK	33
1.2. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA	35
1.3. ESPAINIAKO EKONOMIA	38
1.3.1. Espainiako ekonomia	
1.3.2. Autonomia-erkidegoak: BPG eta per capita BPG	
2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA	42
2.1. BILAKAERA OROKORRA	42
2.2. ESKAINTZAREN ETA BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK	44
2.3. KANPO-ESKARIA	46
2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA	48
2.4.1. Atzerriko inbertsioa EAEn	
2.4.2. Euskal Inbertsioa atzerrian	
2.5. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK	55
2.5.1. Kontsumoko prezioak (2016ko oinarria)	
2.5.2. Errentaren banaketa funtzionala, laneko kostuak eta produktibitatea	
2.6. ERRENTA PERTSONALA, SEXUAREN ETA ERRENTA-SEGMENTUEN ARABERA. 2019KO DATUAK	58
3. SEKTORE PRODUKTIBOAK	61
3.1. ENPRESA-DEMOGRAFIA ETA EGITURA	61
3.1.1. EAEko empresa-egitura	
3.1.2. Empresen demografia	
3.1.3. Gizarte Segurantzaren izena emandako enpresak	
3.2. EAEren EKOIZPEN-EGITURA	67
3.3. LEHEN SEKTOREA	68
3.4. INDUSTRIA	69
3.4.1. Industria-sektorearen bilakaera orokorra	
3.4.2. Industria Produkzioaren Indizea eta Industriako Prezioen Indizea. 2021	
3.4.3. Estatistika industrialaren emaitza nagusiak. 2020ko datuak, pandemiaren hasiera-urtea	
3.5. ERAIKUNTZA	75
3.5.1. Eraikuntzaren sektorearen bilakaera	
3.5.2. Eraikuntza kostuen indizea	
3.6. ZERBITZUAK	75

- 3.6.1. Zerbitzu-sektorearen bilakaera orokorra
- 3.6.2. EAEko zerbitzu-sektorearen egitura
- 3.6.3. Merkataritza
- 3.6.4. Turismoa eta ostalaritza
- 3.6.5. Finantza sektorea

4. SEKTORE PUBLIKOA	87
4.1. DIRU-SARRERAK	87
4.2. GASTUAK	91
4.3. AURREKONTUKO SALDOA	93
4.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA	94
4.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK	95
4.6. ENPLEGUA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN	98
5. PRODUKZIO-AZPIEGITURAK	100
5.1. GARRAIOA	100
5.1.1. Europa Barneko Garraio Sarea (EBG-S)	
5.1.2. Euskadiko garraio-sistemaren deskribapen orokorra	
5.1.3. Estatuko erakunde publikoek ingeniarietza zibilean egindako esleipenak	
5.1.4. Errepide bidezko garraioa	
5.1.5. Trenaren bidezko garraioa	
5.1.6. Ireko garraioa: azpiegitura eta aireko trafikoa	
5.1.7. Itsas garraioa: azpiegitura eta aireko trafikoa	
5.1.8. EAEko plataforma logistikoak	
5.2. ENERGIA	111
5.2.1. 2021-2024 aldirako Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana	
5.2.2. Energiaren produkzioa eta kontsumoa	
6. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA	117
6.1. I+G+B jarduerak	117
6.1.1. Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana	
6.1.2. I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak	
6.1.3. I+G jarduerak	
6.1.4. Berrikuntza-jarduerak	
6.1.5. EAE Europako berrikuntza-adierazleen paneletan	
6.1.6. Eusko Jaurlaritzaren Euskadi 2014-2020 ZTBPrek jarraipena	
6.2. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOEN TEKNOLOGIAK	135
6.2.1. Euskal herritarrek eta enpresek Internet erabiltzea	

6.2.2. EAEko enpresetako ekipamenduak: Industria 4.0

6.2.3. Telelana euskal enpresetan

6.2.4. Merkataritza elektronikoa EAE-N

6.2.5. Administrazio Elektronikoa EAE-N

6.2.6. Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizea (DESI) 2020

6.2.7. Euskadiko eraldaketa digitalerako estrategia 2025 (EEDE 2025)

7. “NEXT GENERATION EU” (NGEU) EUROPAKO FUNTSAK: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) 147

7.1. ESPAINIAKO ERRESUMAREN SUSPERTZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA

7.2. SUSPERTZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA GAUZATZEA

7.3. SEM-AA-EE.en banaketa EAE-K SARTUTAKO ZENBATEKOA

7.4. EUSKADI NEXT 2021-2026 PROGRAMA. SAILEN ARABERAKO MRR PROIEKTUAK. EGOERA 2021EKO ABENDUAREN 31N

8. EKONOMIA EAEN: LABURPENA ETA ONDORIOAK 154

III. KAPITULUA EMPLEGUA ETA LAN HARREMANAK EAE-N 171

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA	173
1.1. JARDUERA	173
1.2. OKUPAZIOA	175
1.2.1. Okupazioaren datuak	
1.2.2. Gizarte Segurantzako afiliazioa	
1.3. LANGABEZIA	182
1.3.1. Langabeziaren datuak	
1.3.2. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua: Langabezia eta lan-eskatzailleak	
2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK	191
2.1. KONTRATAZIOAREN EGOERA	191
2.2. KALERATZEEN ETA ERREGULAZIO ESPEDIENTEEN BILAKAERA	199
2.2.1. Kaleratzeak	
2.2.2. Enplegua Erregulatzeko Espedienteak	
2.2.3. Iraizpenen urteko bilakaera agregatua	
3. LAN-HARREMANAK	205
3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATA IGOERA, LANALDIA ETA LAN ETA FAMILIA BIZITZA BATERAGARRI EGITEA	205
3.2. LAN GATAZKAK	207
3.3. LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA	209
3.4. TELELANA	211
4. SOLDATAK EAE-N	213
4.1. SOLDATA EGITURARI BURUZKO 2019KO INKESTAREN EMAITZAK	213
4.2. LAN KOSTUARI BURUZKO INKESTEN EMAITZAK	215
4.2.1. Lan-kostuei buruzko urteko inkesta, 2020. urtean	
4.2.2. Lan-kostuen Hiruhileko Inkesta. 2021. urtea	
4.3. LANEKO PREZIOEN INDIZEAREN EMAITZAK (LPI) 2019	217
4.4. SOLDATEN BANAKETA: 2020KO BAI-REN EMAITZAK	218
5. ENPLEGU POLITIKAK	220
5.1. ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK	220
5.1.1. Enplegurako Euskal Estrategia 2030	
5.1.2. 2017-2020ko Enplegu Plana. Ebaluazioa	
5.1.3. LANBIDEren (Enplegurako Euskal Zerbitzua) jarduera	
5.1.4. Enplegurako prestakuntza, landunei lehentasunez zuzendutakoa	

5.2. ENPLEGU POLITIKA PASIBOAK	230
5.2.1. Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak	
5.2.2. Langabeziaren babeseko gastua eta diru-sarrera	
5.3. DESGAITUEN ETA BAZTERTZEKO ARRISKUA DUTEN PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNERAKO ETA GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO POLITIKAK	234
5.3.1. Ezinduen enplegu arrunta	
5.3.2. Enplegurako zentro bereziak	
5.3.3. Laneratzeko enpresak	
6. LANEKO OSASUNA	239
6.1. LAN ISTRIPUEN ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEN URTEKO BILAKAERA	239
6.2. COVID-19AREN ERAGINA LAN-OSASUNEAN	241
7. ENPLEGUA ETA LAN HARREMANAK: LABURPENA ETA ONDORIOAK	243

IV. KAPITULUA BIZI-BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA-EAEN

1. BIZI-BALDINTZAK	255
1.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK EUROPAKO TESTUINGURUAN: "AROE" TASA	257
1.1.1. Pobrezia-atalasearen azpitik dauden biztanleak	
1.1.2. Gabezia material larria	
1.1.3. Lan-intentsitate osoko txikiko biztanleria	
1.2. BIZI-BALDINTZEI BURUZKO 2020KO INKESTAREN EMAITZAK	261
1.2.1. Errenta	
1.2.2. Gabezia Materiala	
1.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE ARLOKO DESBERDINTASUNEN INKESTA (PGDI) 2020: EMAITZA NAGUSIAK	265
1.3.1. Pobreziaren eta prekarietatearen eragin orokorra	
1.3.2. Pobrezia-arrisku handiena duten eremuak eta gizarte-taldeak	
1.4. FAMILIAK ETA LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIA BATERATZEA	274
1.4.1. Bateratzeko beharrak	
1.4.2. Familiei laguntzeko politika publikoak	
1.5. BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIA. ETXERIK GABEKO PERTSONAK	281
1.5.1. Etxerik gabeko pertsonen egoera eta premiak Euskadin	
1.5.2. Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia 2018-2021	
2. GIZARTE BABESA	289
2.1. GIZARTE BABESAREN KONTUA. 2020KO AURRERAPENA	289
2.2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK	291
2.2.1. Transferitu gabeko kudeaketa duten prestazioak	
2.2.2. Kudeaketa transferitua duten prestazioak: Kotizazio gabeko prestazioak	
2.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N	296
2.3.1. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren prestazioak	
2.3.2. Bizitzako Gutxieneko Diru-sarrera	
2.3.3. Gizarteratzea errazteko programak: Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak, gizartean esku hartzeko esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko	
2.4. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA	305
2.4.1. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019. Ebaluazioa	
2.4.2. EUSTATen Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistikaren emaitzak	
2.4.3. 39/2006 Legearen Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) emaitzak	

2.5. GIZARTE AURREIKUSPENENKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N 312

2.5.1. Magnitude nagusiak

2.5.2. Zerga aruabide

3. GIZARTE BABESA: LABURPENA ETA ONDORIOAK 317

V. KAPITULUA BIZI KALITATEA EAE-N

333

1. HEZKUNTZA ETA KULTURA	333
1.1. UNIBERTSITATETIK KANPOKO IRAKASKUNTZAK	333
1.1.1. Araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak	
1.1.2. Batxilergoa: modalitateen arabera matrikulatutako ikasleak	
1.1.3. Erdi eta goi mailako Lanbide Heziketa: lanbide-arloaren eta ikasleen laneratzearen arabera matrikulatutako ikasleak	
1.2. UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZA	341
1.2.1. Unibertsitateko irakastuntzak	
1.2.2. Unibertsitateko tituluak lortzea	
1.2.3. Ikasleak laneratzea. Graduatutako graduaren promozioa 2017an	
1.3. HEZKUNTZA-ADIERAZLEAK	345
1.3.1. Eskolaratze eta hezkuntza ingurune adierazleak	
1.3.2. Hezkuntza finantzaketaren adierazleak	
1.3.3. Hezkuntza emaitzen adierazleak	
1.3.4. Unibertsitateko adierazleak	
1.4. KULTURA	365
1.4.1. Kultura ohiturak eta praktikak	
1.4.2. Kultura enpresak eta enplegua	
1.4.3. Kulturako gastu publikoa	
1.4.4. Familien gastua kulturaren kontsumoan	
1.5. EUSKARAREN EGOERA EAE-N	372
2. NATURA INGURUNEAREN EGOERA	374
2.1. FAMILIEI EGINDAKO INGURUMENARI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK: 2020KO INGURUMEN-ADIERAZLEA 2020	374
2.2. AIREAREN KALITATEA	378
2.2.1. Lurraldearen zonakatzea airearen kalitatea ebaluatzeko	
2.2.2. Lurraldearen zonakatzea airearen kalitatea ebaluatzeko	
2.2.3. Airearen kalitatearen indizea eta iraunkortasun-adierazlea. 2020	
2.3. KLIMA-ALDAKETA. BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETAK. 2019	383
2.4. UR GEZA HARTZEA ETA KONTSUMITZEA	387
2.5. EKONOMIA ZIRKULARRA. HONDAKINAK SORTZEA ETA KUDEATZEA	388
2.5.1. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia zirkularren eta bioekonomiaren 2024ko Plana	
2.5.2. Hondakinak kudeatzea	
2.6. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFATURA-INDUSTRIA. 2019	395

3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA	397
3.1. OSASUN EGOERA	397
3.1.1. COVID-19aren memoria Euskadin: epidemia boladak	
3.1.2. Bizi-itxaropena jaiotzean (BI) eta Bizitza Urte Osasuntsuak jaiotzean (BUO)	
3.1.3. Ospitaleko erikortasuna. 2019	
3.1.4. Heriotzak-tasa	
3.2. OSASUNAREN DETERMINANTE EZ-MEDIKOAK: ingurumen-determinanteak	406
3.2.1. Zarata	
3.2.2. Berdeguneak	
3.3. OSAKIDETZAREN LAGUNTZARAKO JARDUERA	409
3.3.1. Baliabideen erabilera: batez besteko egonaldia eta txandaketa-indizea	
3.3.2. Itxaron-zerrendak kanpoko kontsultetan eta kirurgia programatuan	
3.4. OSASUN-LAGUNTZA PRIBATUARI BURUZKO ESTADISTIKA: ASEGURU LIBREKO ENTITATEAK	413
3.5. OSASUN-SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAKETA	413
3.5.1. EUSTATen Osasunaren kontua	
3.5.2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gastua	
3.5.3. Osakidetzaren gastua	
3.6. JARRAIPENA EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN PLANA 2013-2020	416
4. ETXEBIZITZA	427
4.1. ETXEBIZITZA ESKAINTZA	427
4.1.1. Jaurlaritzako Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estadistika Estadística del Mercado del Alquiler (EMAL) del Gobierno Vasco	
4.1.2. Eusko Jaurlaritzako Alokairu-merkatuaren Estadistika (AME)	
4.1.3. Etxebizitzaren salerosketa prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera	
4.1.4. Etxebizitzaren bizitegi-alokairuko errenten konparazioa autonomia-erkidegoen arabera	
4.2. ETXEBIZITZAK ERAIKITZEA	437
4.3. ETXEBIZITZEN ESKARIA	438
4.3.1. Etxebizitza beharrak eta eskaria 2019	
4.3.2. Familien finantza ahalegina	
4.3.3. Etxebiden, Euskal Etxebizitza Zerbitzuan, erregistratutako etxebizitza babestuen eskaria	
4.4. HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZEN SALEROSKETAK	444

4.5. HIPOTEKA EGIKARITZEAK, BOTATZEAK ETA KALERATZEAK	446
4.5.1. Hipoteka egikaritzeak	
4.5.2. Botatzeak eta kaleratzeak	
4.6. ETXEBIZITZA POLITIKA	448
4.6.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika	
4.6.2. Foru-aldundien etxebizitzarako zerga-politika	
5. BIZI KALITATEA EAEN: LABURPENA ETA ONDORIOAK	458
VI. KAPITULUA ARAUGINTZA EAE-N	483
DEFINIZIOEN ETA KATEGORIZAZIOEN GLOSARIOA	491

Kapitulu honek EAEko biztanleriaren berezko mugimenduari (jaiotzak eta heriotzak), migrazio-mugimenduei eta ezkontzei (ezkontzak eta desagiteak) buruzko adierazle demografikoen datu nagusiak ematen ditu, betiere Estatuan eta Europar Batasunean izandakoarekin erkatuta. Ondoren, Euskadiko atzerritarren azken zifrak emango dira (demografikoak eta gizarteak atzerritarrei buruz duen ikuspegia nagusiki). Era berean, COVID-19aren inpaktu demografikoari buruzko zifrak ematen dira, zehazki EAEn gertatutako heriotzak, planeta mailan borrokatzen jarraitzen dugun gaixotasun larri horren ondorioz.

Lehenik eta behin, pandemia horren giza kostua aipatu behar dugu. 2020ko hasieran lehenengo kasuak agertu zirenetik, birusa mundu osoan zabaldu da eta kutsatu eta hildako lagunak milioika dira. Aldi berean, mundu osoan birusa geldiaraz dezaketek txertoak azkar sortzeko egindako ahalegin zientifiko eta ekonomiko handiak eta 2020. urtearen amaieratik txertaketa-kanpainak abian jarri izanak, gutxienez mundu garatuan, aurrekaririk gabeko mundu-pandemia honen aurreko bizimodura itzultzeko itxaropena dakarte.

Gure planetak diagnostikatutako 300 milioi COVID kasu baino gehiagorekin eta ia 5 milioi hildakorekin amaitu zuen 2021. urtea, eta pandemiaren seigarren bolada bati aurre eginez. Europan, gaixotutakoak 150 milioi inguru ziren ia, eta zendutakoak ia 2 milioi. Espainian, agintariek 10 milioi pertsona diagnostikatu (PCR) eta ia 100.000 hildako zenbatu zituzten. Euskadin, kalkulatu da 2021eko abenduaren 31n (Osakidetzaen datuak) ia milioi erdi pertsona hil direla gaixotasun horren eraginpean (horietatik 367.000 2021ean), eta 8.137 hil direla (5.000 azken urtean).

Datu demografiko orokorretara itzuliz, Nazio Batuen arabera, munduko populazioa 7.700 milioi pertsonatik gorakoa izan zen 2019an. Bestalde, EUROSTATEk kalkulatu du 447 milioi lagun bizi direla Europar Batasunean, 2021eko urtarrileko erreferentzia hartuta, urtebete lehenago baino 300.000 milioi gutxiago. Milako 0,7ko beherakadak (milako +1,9 aurreko urtean) eten egin du 1960tik gertatzen ari zen joera positiboa, gaur egungo Europar Batasuneko biztanleria 354,5 milioi biztanlekoa baita. Izan ere, immigrazioaren bilakaera positiboak (milako +1,8) ez du lortu, pandemiaren urte honetan, milako -2,5eko saldo begetatiboa (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) itzultzea, aurreko urtean baino 534.000 heriotza gehiago izan baitira.

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak emandako 2021eko urtarrilari buruzko azken datuen arabera¹, EAEko biztanle kopurua zertxobait handitu da azken urtean, % 0,29 (6.511 biztanle gehiago) eta 2.213.993 biztanle ditu. Lurrealde historikoei buruzko datuen Bizkaia batez ere gutxitu da biztanleria (-% 0,44, 5.109 biztanle), eta zertxobait gutxiago Gipuzkoan (-% 0,5, 1.088 biztanle) eta Araban (-% 0,09, 314 biztanle).

I.0.1. TAULA EAEko BIZTANLERIAREN EGUNGO BILAKAERA 2018-2021.						
	2018	2019	2020	2021	Ald. 20-21	20/21 %
ARABA	325.739	327.682	333.940	333.626	-314	-0,09
BIZKAIA	1.134.848	1.137.190	1.159.443	1.154.334	-5.109	-0,44
GIPUZKOA	710.281	713.007	727.121	726.033	-1.088	-0,15
EAE	2.170.868	2.177.879	2.220.504	2.213.993	-6.511	-0,29

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda. Berrikusitako zifra ofizialak.

2021eko biztanleriaren zifrekin batera, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen %11,1eko portzentajea dago, eta %10,9koa, berriz, 2020ko urtarrilaren 1ean. Atzerriko jatorriko biztanleen pisuak ere gora egin du Estatu osoan, % 15,4raino (+2 hamarren). Hala ere, EAEko datua orain ere oso urruti dago Espainiako batez bestekotik –errodaren azken eguneratzearen arabera, atzerritarrek 7,2 milioi inguru dira-.

¹ Udal errolda administrazio-erregistro bat da eta horren eraketa, mantentzea eta kudeaketa Espainian dauden 8.000 udal baino gehiagori dagokio. Datuen bidez frogatzen da herritarra benetan udalerrian bizi dela eta aipatu erroldako egiaztapenek izaera publikoa eta fede-emailea dute administrazioaren ondorio guztietarako.

1 OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA

1.1 BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA

2020rako behin-behineko datuek adierazten dute berezko hazkundera (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) negatiboa izan dela EAEn zortzigarren urtez jarraian, bilakaera positiboa izan duten aurreko 9en ondoren: urte honetan 14.739 jaiotza erregistratu dira, aurreko urtean baino % 4,4 gutxiago, eta 24.247 heriotza, 2019an baino % 12,5 gehiago. Kopuru handi horretatik, heriotzen % 12,8 COVID-19aren ondorio izan ziren, eta gai hori aurrerago aztertuko dugu berariaz.

I.1.1. TAULA EAE-KO BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA*						
	BIZIRIK JAIOTZAK	TASA	HERIOTZAK	TASA	HAZK BEGETATI BOA	TASA
2013	19.118	8,8	19.692	9,0	-574	-0,2
2014	19.378	8,9	20.157	9,3	-779	-0,4
2015	18.851	8,7	21.509	9,9	-2.658	-1,2
2016	18.240	8,4	21.223	9,8	-2.983	-1,4
2017	17.076	7,8	21.632	9,9	-4.556	-2,1
2018	16.090	7,4	21.745	10,0	-5.655	-2,6
2019	15.418	7,0	21.560	9,8	-6.142	-2,8
2020	14.739	6,7	24.247	11,1	-9.508	-4,3

* Mila biztanleko tasak.
Iturria: EUSTAT. Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika eta guk geuk egindakoa.

Zifra horien ondorioz, hazkunde begetatiboa -9.508koa izan da, hots, milako -4,3koa. Saldo negatibo hori serie historiko osoko handiena da, heriotza kopuruak gora egin duelako.

Bilakaera hori hiru lurraldeetan gertatu da: Bizkaian 4.241 biztanle galdu ziren 2019an, eta 5.925 2020an. Bestalde, Arabak 2019an 172 biztanle galdu zituen, 862, eta Gipuzkoak 2.714 (-1.729 2019an) saldo negatiboa du.

1.1.1 Jaiotzak

EUSTATen "Jaiotzei buruzko Inkesta"ren arabera, jaiotzak hiru lurraldeetan jaitzi dira: 2020an, EAEn % 4,4 jaitzi ziren batez beste; Araban 2.397 haur jaio ziren (2019an baino -% 6,5 gehiago); Bizkaian 7.318 jaiotza erregistratu ziren (-% 5,2); Gipuzkoan, azkenik, jaiotzen kopurua 5.024 (-% 2,1) izan zen.


Emaitza horiek, EAE osorako, milako 7,4ko jaiotza-tasa erakusten dute (7 2019. urtean). 1975ean ratio hori milako 19,1 zen eta estatuko batez bestekoaren gainera zegoen. Gaur egun, EAEk estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 7,1 eta 9,1 EBn) baino txikiagoak dauzka. Lurraldez lurralde, Arabak milako 7,2ko jaiotza-tasa du -hiru lurraldeetatik handiena-, Bizkaiak 6,4koa -txikiena- eta Gipuzkoak milako 7koa.

I.1.2. TAULA JAIOTZA- ETA HERIOTZA-TASAK EBn MILA BIZTANLEKO 1975 eta 2020 ARTEKO ERKAKETA						
	JAIOTZAK			HERIOTZAK		
	1975	2019	2020	1975	2019	2020
EB	14,7	9,3	9,1	10,7	10,4	11,6
ALEMANIA	9,9	9,4	9,3	12,6	11,3	11,9
AUSTRIA	12,4	9,6	9,4	12,7	9,4	10,3
BELGIKA	12,2	10,2	9,9	12,2	9,5	11,0
BULGARIA	16,6	8,8	8,5	10,3	15,5	18,0
ZIPRE	16,3	10,8	11,1	9,8	7,1	7,2
DANIMARKA	14,2	10,5	10,4	10,1	9,3	9,4
ESLOVAKIA	20,6	10,5	10,4	9,5	9,8	10,8
ESLOVENIA	16,6	9,3	8,9	10,1	9,9	11,4
ESPAINIA	18,8	7,6	7,1	8,4	8,8	10,4
ESTONIA	14,9	10,6	9,9	11,6	11,6	11,9
FINLANDIA	13,9	8,3	8,4	9,3	9,8	10,0
FRANTZIA	14,1	11,2	10,9	10,6	9,1	9,9
KROAZIA	14,9	8,9	8,9	10,1	12,7	14,1
GREZIA	15,7	7,8	7,9	8,9	11,7	12,2
HERBEHEREAK	13,0	9,8	9,7	8,3	8,8	9,7
HUNGARIA	18,4	9,5	9,6	12,4	13,3	14,5
IRLANDA	21,1	12,0	11,2	10,4	6,3	6,4
ITALIA	14,9	7,0	6,8	10,0	10,6	12,6
LETONIA	14,2	9,8	9,2	12,2	14,5	15,2
LITUANIA	15,7	9,8	9,0	9,5	13,7	15,6
LUXENBURGO	11,1	10,0	10,2	12,2	6,9	7,3
MALTA	18,8	8,6	8,6	9,5	7,3	7,9
POLONIA	19,0	9,9	9,4	8,7	10,8	12,6
PORTUGAL	19,8	8,4	8,2	10,8	10,9	12,0
TXEKIA	19,1	10,5	10,3	12,4	10,5	12,1
ERRUMANIA	19,6	10,3	9,2	9,3	13,4	15,4
SUEDIA	12,6	11,1	10,9	10,8	8,6	9,5
EAE	19,1	7,0	6,7	7,1	9,8	11,1
ERRESUMA BATUA	12,4	10,7	:	11,8	9,0	:


Iturriak: Eurostat (21/11/11n ateratako datuak) eta EUSTAT.

Bestalde, EUROSTATEk 2020an guztira 4 milioi jaiotza aipatu ditu EBn (9,1 mila biztanleko), aurreko urtean baino 900.000 inguru gutxiago. Jaiotza-tasarik handienak Irlandan (milako 11,2) Zipren (milako 11,1), Suedian eta Frantzian (milako 10,9) gertatzen dira, eta txikiak, aldiz, Italian (milako 6,8), Espainian (milako 7,1) eta Grezian (milako 7,9).

Bestalde, jaiotzak bilakaera desberdina du amaren herritartasuna kontuan hartzen bada. Espainiako nazionalitatea duten amen artean, jaiotza kopurua % 5,9 jaitsi zen 2020an Euskadin. Atzerritarren artean, berriz, % 0,4ko jaitsiera gertatu zen (aurreko urtean % 3,5 handitu ziren). 2020. urtean bizirik jaio ziren 14.739 haurretatik 4.207k ama atzerritarra dute, alegia, jaiotakoan % 28,5ek (% 27,4 2019an), herritartasun atzerritarra duten biztanleen proportzioa nahikoa txikiagoa denean, dagoeneko ikusi den moduan. Jatorriko herrialderik ohikoenak Maroko (750 ama), Kolonbia (355) eta Nikaragua (299) dira.



Beste urte batez azpimarratu behar da ama ezkongabearengandik jaiotakoan portzentajea gero eta handiagoa dela². 2020an ezkontzatik kanpoko 6.914 jaiotza egon ziren, guztien % 46,9 (% 45,1 aurreko urtean) eta 2019an baino % 0,5 gutxiago. Oraingo datua duela hamar urtekoarekin erkatuta (% 31,2 2009an), ama ezkongabearengandik jaiotako umeen ratioa nabarmen igo dela ikusten da.



² Ama ezkongabearengandik / ezkontzatik kanpoko amengandik izandako jaiotzek ez dakarte, ezinbestean, bikoterik eza, zeren eta ezkontzarik izan gabe eta ezkontzatik kanpora izan baitaiteke bikotea.

Herrialdeka, ezkondata ez dauden amengandik jaiotako pertsonen ehunekoak hauexen artekoak dira: Bulgarian eta Frantzian (% 60 inguru) eta Grezian (% 12,4) edo Kroazian (% 21,2). Batasuneko batez bestekoa % 42,7 da, eta bertatik kanpo, nabarmentzekoa da Islandiako Tasa. Bertan, 2019an jaiotakoen % 69,4en amak ezkongabeak izan ziren. Espainian, ehuneko hori, erreferentziako urtean, % 48,4ra igo da.

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2020an joera bera egon da, eta gure erkidegoan haurrak izan zituzten emakumeen % 79,5ek 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik jendetsuena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien % 35 hartzen baitu.

Ondoren, 35-39 urteko amek izandako haurren jaiotza kopurua dator (% 33,7), eta 25 eta 29 urte arteko taldea (% 13,8) nabarmen gaintitzen du. Ama nerabeak guztizkoaren % 1,1 dira. Espainiar nazionalitateko amen batez besteko adina 34,3 urtekoa izan zen. Ama atzerritarrena, berriz, 31,1 urtekoa (33,4 emakume guztiak hartuta). Halaber, lehen haurra izan duten amen batez besteko adina, 2020an, 32,4 urtekoa da.


Jaiotzetatik 7.300 (% 49,5) lehen seme-alabak izan ziren, 5.518 (% 37,4) aurretik beste seme-alaba zegoeneko familietara iritsi ziren eta hirugarren seme-alabak eta ondorengoak 1.921 izan ziren (% 13).

EUSTATen "Inkesta Demografikoa"ren (bost urtean behin egiten da) 2021eko datuek honako emaitza hauek erakusten dituzte, Jaiotzen Inkestaren ildo beretik:

Lehenik eta behin, joan den mendeko 50eko hamarkadatik aurrera jaiotako emakumeen belaunaldien azken ondorengotza beherantz joan da, eta 1,3 seme-alaba izatera iritsi dira 1976 eta 1980 bitartean jaiotako emakumeen kasuan; azken horien ugalkortasun-historia osotzat har daiteke. Izan ere, 40ko hamarkadaren bigarren erdian jaiotako emakumeek lortu zuten belaunaldi-ordezkapena, hau da, 2,1 seme-alaba izan zituzten batez beste.

Bigarrenik, azken belaunaldien amatasunaren batez besteko adina zaharrenen antzekoa da (75 urte eta gehiago dituztenak, 30 urtetik gorakoak), baina azken kasu horretan, hirugarren eta ondorengo seme-alabak seme-alaba guztien % 35 ziren; aldiz, 40-50 urte bitarteko emakumeen artean, 2021ean hirugarren edo ondorengo seme-alabak % 8 baino ez dira. Belaunaldirik berrietan, lehenengo haurra jaiotzeko adina 31 urteen ingurukoa da, eta belaunaldirik zaharrenean, ia-ia 28 urtekoa. Bestalde, gizonen artean, aita izateko batez besteko adina 33 urtetik gorakoa da 1966an jaiotakoen artean.

I.1.3. GRAFIKOA. 40 URTE ETA GEHIAGOKO EMAKUEN SEME-ALABAK ETA HORIEN BATEZ BESTEKO ADINA JAIOTZEAN, JAIOTZE-URTEAREN LERRUNAEN ARABERA. EAE, 2021.




Bestalde, 2021ean 40 urtetik beherako emakumeen belaunaldien azken ondorengotza ez dirudi berreskuratuko denik; izan ere, adierazi dutenaren arabera, bizitzan izatea espero duten seme-alaben kopurua 1,3 da batez beste, eta 2000. urtetik aurrera jaiotakoak nabarmentzen dira, 1,1 seme-alaba izatea aurreikusten baitute.

1.1.2 Heriotzak

EUSTATen Heriotzei buruzko Estatistikaren (EDEF) 2020rako behin betiko zifrek erakusten dutenez, urte horretan 24.247 heriotza gertatu ziren EAEn, aurreko urtean baino % 12,5 gehiago, ia % 50ean banatuta gizonen eta emakumeen artean (12.056 gizon eta 12.191 emakume).

2020an zendutakoen % 25,7 tumoreengatik hil ziren. Ondoren, zirkulazio-sistemako gaixotasunak daude, % 23,1ekin, eta hirugarren postuan COVID-19, % 12,8rekin (3.096 heriotza)³. Buruko eta portaerako nahasmenduak laugarren kausa dira, heriotzen % 7,3 eragin baitituzte. Lurraldeka, 3.266 pertsona hil ziren Araban (+% 19,3, 2019. urtearen aldean), 13.243 Bizkaian (+% 10,7) eta 7.738 Gipuzkoan (+% 12,8, aurreko urtearen aldean).



Hilabeteka, nabarmentzekoak dira martxoan eta apirilean izandako igoera handiak, % 39,2 eta % 56,2 gehiago, hurrenez hurren, 2019ko hilabete berberetan eta, berriz ere, igoera txikiagoekin bada ere, irailean eta azaroan baino (+% 17 eta +% 16,3), 2019ko irailaren eta azaroaren aldean (ikus I.1.5 grafikoa).


2020an hildakoen batez besteko adina 81 urtekoa da gure erkidegoan, 77,8 gizonentzat eta 84,2 emakumeentzat; gehiago bizi dira emakumeak. Azken hamarkadan, gure erkidegoan 3,2 urte luzatu da bizi-itzaropena gizonentzat eta 2,3 emakumeentzat (+2,9 urte biztanle guztientzat).

Azkenik, 2020an EAEn hildako pertsonetatik 409k 100 urte edo gehiago zituzten (2019an baino 31 gehiago), eta horietatik % 82,4 emakumeak ziren. 100 urte beteta hiltzen diren pertsonen ehunekoa, % 1,7, bikoiztu egin da azken hamarkadan.

Europar Batasunerako zifrei dagokienez, 2020ko datuen arabera, 5,2 milioi heriotza izan ziren, aurreko urtean baino 534.000 pertsona gehiago (heriotza-tasa milako 11,6 izan zen). Beraz, hazkunde begetatiboa edo naturala (jaiotzak ken heriotzak) negatiboa izan zen Batasunean, eta -1,1 milioi pertsona inguru (milako -2,5). Bestalde, EUSTATen Heriotzen estatistikak erakusten du EAEn heriotza-tasa, 2020an, milako 11,1 zela (9,8 2019an).

³ Memoria honetako "Osasuna eta osasun sistema" deritzon V.3. kapituluari zehatz aztertzen dira euskal biztanleriaren heriotzaren kausak.

I.1.5. GRAFIKOA. HERIOTZEN HILEKO BILAKAERA EAE-N. 2018-2021 URTEAK ETA 2010-2019KO BATEZ BESTEKOA.



Iturria: EUSTAT. Heriotzen inkesta. Datu-bankua. Geuk egina.

* 2021eko datuak behin-behinekoak dira

COVID-19aren eragin demografikoa (I.1.3 koadroan 19/20 aldakuntza gehitu)

Esan dugunez, 2020ko heriotza guztietatik 3.096 COVID-19ak eragin zituen (% 12,8); horietatik 2.775 analisi espezifiko batek berretsi zituen, eta 321 COVID-19 probabletzat diagnostikatu ziren.

2021ean (behin-behineko datuak), Euskadin COVID-19aren ondoriozko 1.666 heriotza gertatu ziren (heriotza guztien % 7,2), hau da, 2020an baino 1.430 heriotza gutxiago (-% 46,2);

horietatik, 1.631 analisi espezifiko batek berretsi zituen, eta 35 kasutan COVID-19 probablea diagnostikatu zen. COVIDak eragindako heriotza gehienak ospitaleetan gertatu ziren (% 85,4), ondoren, etxeetan (% 7,6) eta egoitza soziosanitarioetan (% 6,7).

Era berean, nabarmendu behar da COVID-19a hilabete horietako beste 159 kasutan ere izan zela, baina ez zela kausa nagusia izan, heriotzaren mediku-ziurtagirietan agertzen denarekin bat eta OMEren heriotza-kausak koordinatzeko irizpideak aplikatuta. Gainera, 2021ean hildako 389 pertsonak COVID-19a izan zuten, baina heriotza gertatu zenean infekzioa igaroa zela iritzi zitzaion.

I.1.3. TAULA. COVID-19AREN ONDORIOZKO HERIOTZAK EAEN, LURRALDEAREN ETA 40.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIEN ARABERA, SEXUA ETA ADINA. 2020-2021.

	2020		2021		% 20/21 GUZTIRA COVID-19
	GUZTIRA COVID-19	COVID-19 BAIEZTUTA	COVID-19 GERTAGARRI	GUZTIRA COVID-19	
EAE GUZTIRA	3.096	1.631	35	1.666	-46,2
ARABA	595	191	6	197	-66,9
BIZKAIA	1.629	909	23	932	-42,8
GIPUZKOA	872	531	6	537	-38,4
MUNICIPIOS > 40.000 H.					
BARAKALDO	161	58	1	59	-63,4
BASAURI	99	22	0	22	-77,8
BILBAO	626	362	13	375	-40,1
DONOSTIA-SN. SN.	252	128	1	129	-48,8
GETXO	46	70	2	72	56,5
IRUN	92	48	0	48	-47,8
PORTUGALETE	48	28	1	29	-39,6
SANTURTZI	57	37	0	37	-35,1
VITORIA-GASTEIZ	496	148	5	153	-69,2
SEXUA					
GIZONAK	1.582	898	16	914	-42,2
EMAKUMEAK	1.514	733	19	752	-50,3
ADINA					
40 URTE BAINO GUTXIAGO	10	7	0	7	-30,0
40 urtetik 59 urteraino	78	80	1	81	3,8
60 urtetik 79 urteraino	755	552	8	560	-25,8
80 baino gehiago	2.253	992	26	1.018	-54,8

Iturria: EUSTAT. EDEF. Gu egindakoa


1.1.3. Migrazio-mugimenduen estatistika

EUSTATen 2020. urteko “Migrazio Mugimenduen Estatistikak” (MME) COVID-19aren pandemiaren eragina nabarmentzen du, migrazioak, barnekoak zein kanpokoak, nabarmen murriztu baitira. Hala eta guztiz ere, gure erkidegoak 4.512 pertsona irabazi zituen urte horretan (2019an baino % 76,8 gutxiago, urte hartan 19.468 irabazi baitzituzten). Lurraldean arabera, Bizkaia 1.583 lagun gehiago ditu, Arabak 799 eta Gipuzkoak 2.130.

I.1.4. TAULA MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N						
	ATZERRIKO HERRIALDEEKIN	ESTATUKO GAINERAK OEKIN	MIGRAZIO-SALDOA*			
			EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2014	-2.207	5.809	3.602	1.326	81	2.195
2015	2.415	947	3.362	555	970	1.837
2016	6.897	1.974	8.871	1.474	4.320	3.077
2017	10.005	720	10.725	2.349	5.461	2.915
2018	14.642	82	14.724	2.870	7.019	4.835
2019	18.133	1.335	19.468	2.862	11.217	5.389
2020	5.245	-733	4.512	799	1.583	2.130

(* Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batura.
Iturria: EUSTAT. “Migrazio Mugimenduen Estatistika”.

EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean gertatzen diren mugimenduei dagokienez, 2020an 733 pertsonako saldo negatiboa izan da, hau da, sarrerak baino irteera gehiago izan dira haietarantz (Euskadin 2007tik ez zen horrelakorik gertatu), aurreko urtean datua positiboa izan zen arren (+1.335). Bestalde, atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoa positiboa izan zen, 5.245 pertsona; 2019an, berriz, +18.133 ziren (-% 71,1).




EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, EUSTATen datuek erakusten dute, 90eko hamarkadan jaitsiera handia izan ondoren, nazioarteko migrazio-fluxuen saldo positiboa EBn datu positiboan egonkortu zela 2003tik hona, finkaturiko datuen arabera.

2020an, migrazio-saldo positiboa 827.000 pertsonakoa da (2019ko erdia); migrazio-tasa gordina milako 1,8koa da, eta 2019an milako +3koa. Saldo positibo horren % 26 Espainiari dagokio eta % 24,2 Alemaniari. Gainera, Batasuneko hiru herrialdek (Italia, Letonia eta Errumania) migrazio-saldo negatiboak dituzte.

Bestalde, 2020. urtean, 205.575 lagunek, aurreko urtean baino % 14,5 gutxiagok, bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen % 9,3k); aipaturiko mugikortasun horren % 43,2 udal beraren barruan izan zen (88.891 joan-etorri guztira).

I.1.7. GFAFIKOA. EAE-KO IMMIGRAZIOEN ETA EMIGRAZIOEN BILAKAERA INDIZE ZENBAKIJETAN. OINARRIKO URTEA: E 1988=100.



Iturria. EUSTATen datuekin eginikoa. Migrazioen inkesta

Kanpoko edo Erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoari dagokionez, 2020an EAEko mila biztanletik 30i eragin die (Arabari, milako 34,6; Bizkaian, milako 29; eta Gipuzkoan, milako 29,5). Tasa horiek nahiko txikiak dira gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz gero; batez beste, mila biztanletik 35 mugitu ziren. Autonomia-erkidego desberdinekiko migrazio-mugimenduak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu autonomia-erkidego gehienekin EAEk migrazio-saldo positiboa izan zuela, eta horietako 4rekin soilik izan zela negatiboa: Kantabria, Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Galizia; beraz, lau erkidego horiek gure erkidegoa beste erkidego batzuetara joan ziren pertsonen % 90 baino gehiago dira.

Bestalde, atzerriko nazionalitatea duten etorkinen immigrazioak 20.955 izan ziren 2020an. Horietatik, 6.433 beste autonomia-erkidego batzuetatik datoz (Madril, Katalunia eta Andaluzia batez ere) eta 14.522 zuzenean atzeritik. Atzeritarren emigrazioak, bestalde, 13.193 izan ziren 2020an, guztizkoaren % 43.


Azkenik, Migrazio Mugimenduen Estatistikak agerian uzten duenez, etorkinen eta migratzaileen batez besteko adina desberdina da (33,7 eta 37,3 urte hurrenez hurren), baina kasu bietan 21-39 urtekoek migrazioen erdia egiten dute, eta mugimenduak egiten dituzten biztanleen generoa kontuan hartuz gero, etorkinen % 52 gizonezkoak dira (% 48 emakumezkoak). Emigrazioetan, berriz, % 54 gizonezkoak eta % 46 emakumezkoak.

I.1.5. TAULA GOI-MAILAKO TITULAZIOA DUTEN PERTSONEN MIGRAZIO-MUGIMENDUEN BILAKAERA, ETA 5 URTEK GORAKO GUZTIZKO BIZTANLERIAREKIN ALDERATZEA. EAE.

	GOI-MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN HERRITARRAK			5 URTEZ GORAKOAK GUZTIRA		
	IMMIGRAZIOA	EMIGRAZIOA	SALDOA	IMMIGRAZIOA	EMIGRAZIOA	SALDOA
2010	2.814	1.963	851	36.345	32.091	4.254
2011	1.655	1.211	444	38.513	31.405	7.108
2012	5.463	3.930	1.533	32.358	33.080	-722
2013	3.736	3.886	-150	31.765	34.031	-2.266
2014	4.086	4.213	-127	33.101	30.384	2.717
2015	3.772	4.677	-905	33.655	31.178	2.477
2016	3.793	4.288	-495	37.650	29.722	7.928
2017	4.223	4.428	-205	39.490	29.686	9.804
2018	5.351	4.532	819	44.377	30.628	13.749
2019	5.123	4.758	365	49.538	31.200	18.338
2020	4.480	4.802	-322	33.476	29.476	4.000

Iturria: EUSTAT. "Migrazio Mugimenduen Estatistika". Guk geuk egina.

Migratzaileen titulazioari dagokionez, EUSTATen estatistikak erakusten du 2020an EAEko migrazio-saldoa positiboa dela (gure erkidegorako etorkin gehiago erregistratu dira aldi horretan emigratuak baino) ikasketeta-maila guztietan, goi-mailako titulazioetan izan ezik (graduak, lizentziaturak, gradu-ondoak, masterrak, doktoretzak eta espezializazioa) eta maila ertain-gorenetan. Edozelan ere, urte atipikoa da, bizitza egokitu zaigun pandemiagatik, eta, beraz, oraingoz ezin dugu horri buruzko ondorioak atera.



I.1.8 grafikoan ikus daitekeenez, aztertutako seriean, migrazio-mugimenduen zati handi batean lehen mailako ikasketak (osoak edo osatugabeak) dituzten pertsonak daude, eta, gainera, bilakaera oso aldakorra eta ziklo ekonomikoaren mendekoa markatzen duen bilakaera da (saldo positibo handiak krisiaren aurreko urteetan eta beherakada handiak gure ekonomian datu okerrearen urteetan).

Saldo hori zifra positiboetara itzuli da azken zazpi urteetan, migrazio-mugimenduen joera orokorraren ildotik, migratzaile guztien gaineko emaitzetan ikusi den bezala. 2020an, aldeko migrazio-saldoaren % 51,7 izan dira.

Datu absolutuetan, 5 urtetik gorako pertsonen migrazio-saldoa +4.000 pertsonakoa da; horietatik 2.067k lehen mailako ikasketak zituzten (osoak edo amaitu gabeak), 2.279k bigarren mailako ikasketak zituzten eta 28k lanbide-ikasketak zituzten. Bestalde, saldo negatiboa da (irteerak sarrerak baino gehiago) goi-mailako ikasketak (-52) eta unibertsitate-titulak (-322, aurreko urteko +365 zifren aldean) dituztenentzat.


Azken urtean goi-mailako tituladunen 4.802 emigratio erregistratu ziren (5 urtetik gorakoaren emigratio guztien % 16,3) eta 4.480 immigratio (guztizkoaren % 13,4); esan bezala, -322 pertsonako saldoa izan zen.

1.2 EZKONTZAK


1.2.1 Ezkontzak

“Ezkontzen Estatistika”, Jaiotzenarekin eta Heriotzenarekin batera, Biztanleriaren Berezko Mugimendua da. EUSTATen datuen arabera, 2020an 4.057 ezkontza egin ziren EAEn, 2019an baino % 45,7 gutxiago. Horietatik, 3.911 lotura sexu desberdineko pertsonen artean egin ziren (-% 46,2) eta 146 sexu bereko pertsonen artean (-% 29,1), 96 emakumeen artean eta 50 gizonen artean.

Zifra horiekin, EAEko ezkontza-tasak 2020an lortu du gutxieneko historikoa: 1.000 biztanleko 1,7 ezkontza (3,2 2019an). Ratio hori Estatukoa (1,9 milako) eta Europar Batasunekoa (4,3 milako 2019an) baino txikiagoa da (azken datu eskuragarria eta, beraz, pandemiaren aurrekoa). 2019an, ezkontza-tasa handienak izan zituzten Europako herrialdeak Zipre (milako 8,9) eta Lituania (milako 7) izan ziren; ratio txikiak, berriz, Italia (milako 3,1), Portugal eta Eslovenia (1.000 biztanleko 3,2 loturarekin biak).



Adierazle horren hileko bilakaerari buruzko I.1.9 grafikoan ikus daitekeenez, ezkontzei dagokienez, COVID-19ak eragin handia izan zuen 2020an. Ezkontza-kopuruaren beherakadak oso garrantzitsuak izan dira hilabete guztietan: -% 96 apirilean (16 zeremonia baino ez ziren ospatu, eta 2019an, berriz, 422) eta -% 88 maiatzean (89 ezkontza eta 755 2019ko maiatzean). Kapitulu hau egin den egunean (urtarriletik irailera) eskuragarri dauden 2021eko datuek adierazten dute nabarmen berreskuratu dela loturen kopurua, nahiz eta oraindik ez diren pandemiaren aurreko zifretara iritsi.




Urteko serieari helduz, nabarmentzekoa da, beste urte batez, sexu desberdineko pertsonen arteko elkartze zibilen proportzioak gora egin duela: 1990ean % 23 ziren, eta 2020an, berriz, % 93,6 2020an⁴. Lurraldeka, Bizkaian eta Araban izan zen ezkontza zibil gehien (% 95,2 eta % 94,8, hurrenez hurren), eta ondoren Gipuzkoan (% 93). Guztira, EAEn 2020an 3.442 elkartze zibil egon dira, 44 ezkontza katoliko eta beste erlijio batzuetakoak, berriz, 2 izan dira.

Gainera, nabarmentzekoa da ezkontzeko adina atzeratzeko joerak dirauela. Izan ere, erreferentziako urtean, ezkondu ziren gizonen batez besteko adina 39,2 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 37,1. Azken 25 urteotan, ezkontideen batez besteko adinak 8,9 urte egin du gora, eta egonkor iraun du bien arteko urte biko aldeak. Eta, ezkondu aurreko egoera zibila kontuan hartuta, aurretik dibortziatuta zeuden gizonak senarren % 19,4 izan ziren, eta emazteen % 18,6 dibortziatuak ziren (+4,2 eta +4,0 puntu 2019. urtearekiko, hurrenez hurren).

1.2.2 Ezkontza-desegiteak

“Estatistikako Institutu Nazionalaren baliogabetzeen, banantzen eta dibortzioen estatistika”ren arabera⁵, dibortzio eta banantzeen kopuruak beherakada handia izan du gure erkidegoan 2020an (-% 19,9), Estatu osoan gertatu den bezala (% 16,1 jaitsi da). Urte horretan, guztira, 3.348 dibortzio eta 105 banantze izan ziren EAEn. Baliogabetzeen urteko kopurua 5 ingurukoa zen batez beste informazioa dugunetik, eta 1 izan da 2020an.



Laburbilduz, 2020an ezkontzen desegiteak 3.454 izan ziren, 2019an baino % 19,9 gutxiago. Datu horren arabera, mila biztanleko desegite-ratioa 1,6 izan zen, eta Estatuan, berriz, mila biztanleko 1,7. Tasa handienak izan zituzten autonomia-erkidegoak Ceuta (2,1 desegite mila biztanleko) eta Valentziako Erkidegoa eta Katalunia (biak milako 1,9rekin) izan ziren. Haustura-tasa txikienak Aragoian (milako 1,3) eta Gaztela eta Leonen, Extremaduran, Galizian eta Madrilgo Erkidegoan (guztiek 1,5 disoluzio dituzte mila biztanleko).

Nazioarteko konparazioei dagokienez, dibortzioen tasa gordina milako 2 ingurukoa da azken urteotan Europar Batasun osoan (milako 1,8 2019an, azken datu eskuragarria); Maltan, milako 0,7tik milako 3,1era artekoa da Luxenburg, Letonia eta Lituania (EUROSTATen datuak).

⁴ Eta sexu bereko bi pertsonen arteko loturak ere kontuan hartzen baditugu (nahitaez zibilak), ratio hori % 97,2raino igotzen da.

⁵ Banantzeen, Dibortzioen eta Baliogabetzeen Estatistika” lehen auzialdiko, instrukzioko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren epaitegiek emandako informazioaren bidez egiten da; informazio hori ezkontza bidezko loturaren baliogabetze-prozesuari buruzkoa da.

EAEn banantzen edo dibortzitzen diren pertsonen profilari dagokionez, EINen datuek erakusten dute gehienak 40 eta 49 urte bitartekoak direla gizonezkoetan eta 30 eta 39 urte artekoa emakumezkoetan, eta emakumeen batez besteko adina 45,8 urtekoa izan zen. Gizonena, berriz, 48,2 urtekoa.

Gainera, desagindako ezkontzen batez besteko iraupena 16,6 urtekoa da, eta kasuen % 58an seme-alabak dituzte ezkontideek, % 46 adingabeak.


I.1.6. TAULA EUOPAR BATASUNeko EZKONTZAK.						
ADIERAZLE NAGUSIAK.						
	EZKONTZAK 1.000 BIZTANLEKO			DIBORTZIOAK 1.000 BIZTANLEKO		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
EB	4,4	4,5	4,3	1,9	1,8	1,8
ALEMANIA	4,9	5,4	5,0	1,9	1,8	1,8
AUSTRIA	5,1	5,3	5,2	1,8	1,8	1,8
BELGIKA	3,9	3,9	3,9	2,0	2,0	2,0
BULGARIA	4,0	4,1	4,2	1,5	1,5	1,6
ZIPRE	6,8	7,8	8,9	2,2	2,4	2,6
DANIMARKA	5,5	5,6	5,3	2,6	2,6	1,8
ESLOVAKIA	5,8	5,7	5,4	1,8	1,8	1,7
ESLOVENIA	3,1	3,5	3,2	1,2	1,1	1,2
ESPAINIA	3,7	3,5	3,5	2,1	2,0	1,9
ESTONIA	4,9	5,0	5,0	2,5	2,4	2,1
FINLANDIA	4,8	4,3	4,0	2,4	2,4	2,4
FRANTZIA	3,5	3,5	:	:	:	:
GREZIA	4,7	4,4	4,4	1,8	:	:
KROAZIA	4,9	4,9	4,9	1,5	1,5	1,5
HERBEHEREAK	3,8	3,7	3,7	1,9	1,8	1,7
HUNGARIA	5,2	5,2	6,7	1,9	1,7	1,8
IRLANDA	4,6	4,3	4,1	0,7	:	:
ITALIA	3,2	3,2	3,1	1,5	1,5	1,4
LETONIA	6,8	6,8	6,7	3,1	3,1	3,1
LITUANIA	7,5	7,0	7,0	3,0	3,1	3,1
LUXENBURGO	3,2	3,1	3,5	2,0	2,0	3,1
MALTA	6,3	5,8	5,3	0,7	0,7	0,7
POLONIA	5,1	5,1	4,8	1,7	1,7	1,7
PORTUGAL	3,3	3,4	3,2	2,1	2,0	2,0
TXEKIA	5,0	5,1	5,1	2,4	2,3	2,3
ERRUMANIA	7,3	7,4	6,6	1,6	1,6	1,6
SUEDIA	5,2	5,0	4,7	2,4	2,5	2,5
EAE	3,4	3,3	3,2	1,8	2,0	2,0

Iturriak: EUROSTAT (21/11/11n ateratako datuak), EUSTAT eta EIN.

2 IMMIGRAZIOA EAE-N

2.1 TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUROPAR BATASUNEAN

Nazioarteko migrazioak, denbora laburrean, nazioarteko agenda politikoaren eta garapenaren funtsezko gaietako bat da; izan ere, gizarte eta ekonomia globalen egungo berezitasunetako bat da.



Aurreko atalean ikusi den bezala, Europar Batasuneko biztanleria etengabe hazi da 2019ra arte (+1,1 milioi urte horretan, +1,9 milako), migrazio-saldo positiboak hazkunde begetatiboa konpentsatzen zuelako (jaiotzak ken heriotzak), 2015etik negatiboa dena hain zuzen. 2020an, positiboa izan arren (milako +1,8), azken hamarkadako txikiena da, eta, aldi berean, berezko saldoa milako 2,5 jaitsi da, pandemiak eragindako heriotzen zifra altuen ondorioz, 5,2 milioi (2019an baino milioi erdi gehiago), 4 milioi jaiotzen aldean. Edozelan ere, urte atipiko honetan ere migrazio-mugimenduak funtsezkoak dira Batasuneko herrialdeen dinamika demografikoetan.

Eusko Jaurlaritzako Immigrazioaren Euskal Behatokiak (IKUSPEGI) 2018ko abuztuko buletinean, 70. zenbakian, agerian utzi zuen 2017an EBn (28) bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak (atzerrian jaiotakoak) 57,3 milioi zirela, biztanle guztien % 11,2. Lurraldeen arabera, Luxenburgok zeukan atzerritarren tasarik handiena (% 45,7), ondoren Ziprek (% 20,3) eta Austriak (% 18,8). Nolanahi ere, nabarmentzekoa da ezen, hiru herrialdeetako tasa handiak gorabehera, atzerritar guztien batura EB bizi diren atzerritarren % 3,7 besterik ez zela. EBn, atzerritar jatorriko pertsonen % 73 bost herrialdetan bizi ziren 2017an: Alemanian, Erresuma Batuan, Frantzian, Espainian eta Italian. Izan ere, Alemanian bizi ziren EBko atzerritar jatorriko pertsonen % 20tik gora⁶.

2019ko azaroaren 30ean Lehendakariak “Migraziorako Euskal Itun Soziala” aurkeztu zuen. Ituna euskal administrazio guztiek eta migrazio gertakariei lotuta diharduten gizarte erakunde gehienek sinatu zuten, adostasun eta batasuneko irudia emateko, mezu xenofoboak agertu diren testuinguru batean. Onartzen da, ordea, Euskadik, orain arte, elkartasunez eta batasunez erantzun duela beti migrazioaren erronkak izan dituen adierazpen guztien aurrean. Itun horrek “*Jaso nahiko genukeena eskaintzea*” du izenburu, onartuta edozein pertsona egon daitekeela migratzera

⁶ Xehetasun gehiago nahi izanez gero, 2019ko memoria sozioekonomikora jo daiteke.

behartuta eta migratzaile bagina jaso nahi genituzkeen duintasun baldintza unibertsal batzuk definitu behar direla, orain behar dutenei gauza bera eskaintzeko⁷.

2.2 IMMIGRAZIOAK EAE-KO DINAMIKA DEMOGRAFIKOAN DUEN ERAGINA


I.2.2. GRAFIKOA. ATZERRITARREN URTE-ARTEKO HAZKUNDE OSOA EAE-N. 1999-2021



Udal Erroldaren arabera, ostirala, 2021.eko urtarrilak 1 urtean 246.501 atzerritar bizi ziren EAEn. Bost urtez jarraian hazi da, 4.777 pertsona gehiago (+% 2), 2013-2014 biurtekoan jaitsiera txikia izan ondoren eta 90eko hamarkadaren amaieran hasitako igoera nabarmeneko aldia igarota.

Bizkaian bizi dira atzerritar gehien (121.737, guztizkoaren % 49,4), 2018an baino % 2 gehiago, eta ondoren Gipuzkoa dator 81.354 erroldaturekin (+% 2,7) eta Araban 43.410 (+% 1,9). Beraz, ikusten da, aurreko atzerritar jatorriko biztanleen kopuruak gora egin duela hiru lurraldeetan, aurreko urteetan baino askoz erritmo motelagoan bada ere.

I.2.3. GRAFIKOA. ATZERRITARREN EHUNEN BILAKAERA ESTATUAN ETA EAE-N



⁷ Itun horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, 2019ko Memoria Sozioekonomikora eta Eusko Jaurlaritzaren webgunera jo daiteke: https://bideoak2.euskadi.eus/2019/11/30/news_58860/Anexo_1_PACTO_ITUNA.PDF


Esan dugunez, 2021eko urtarrilean erroldatutako 246.501 atzerritar jatorriko pertsonak biztanleriaren % 11,1 dira, 2020an baino 2 hamarren gehiago; Estatuan, berriz, ratioa 2 hamarren igo da, % 15,4ra iritsi arte. Gainera, laugarren urtez jarraian gora egin du, 3 urtez zero hazi ondoren (2015 eta 2017 artean).

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) 2021eko abuztuaren 31. zenbakiko buletinean egiten duen erroldako datuen aurrerapenaren azterketak agerian uzten du Euskadik, autonomia-erkidegoen testuinguruan, Gaztela-Mantxarekin (% 11,3) eta Andaluziarekin (% 10,5) pareka daitekeen atzerritar jatorriko biztanleriaren pisua duela⁸.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da atzerritar jatorriko biztanleriak gure Erkidegoaren dinamika demografikoan duen eragina: 1998-2021 aldian, EAEk 113.933 biztanle berri gehiago izan ditu, eta hazkunde hori atzerritar jatorriko biztanleak iritsi izanari esker gertatu da; izan ere, aldi horretan 220.000 biztanle gehiago izan dira. Aldi horretan bertako biztanleria 103.577 pertsonatan murriztu da, ordea. Hortaz, Euskadin izandako biztanleriaren galerako dinamika iraultzea lortu du atzerritar jatorriko biztanleriak.

U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta antolamenduen jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioa guztira	1231422,2	3454646,1	3318337,7	22039167,5	100,0	15,1	180,5	-3,9

(*) Inbertsio osoa ABDE gabe. -b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa eta geuk egina

II.2.13. TAULA. EAE-K ATZERRIAN EGINIKO INBERTSIOA*, EREMUKA (milaka eurotan)

	2019		2020		2021	
	GUZTIRA	%, GUZTITIK	GUZTIRA	%, GUZTITIK	GUZTIRA	%, GUZTITIK
GUZTIRA	1231422,2	100,0	3454646,1	100,0	3318337,7	100,0
ELGA	1098787,3	89,2	3301513,1	95,6	3265780,6	98,4
EUROPA	755946,1	61,4	2487186,0	72,0	316828,3	9,5
14KO EB	723144,0	58,7	2376169,8	68,8	98438,9	3,0
27KO EB	728460,8	59,2	2482593,6	71,9	276331,7	8,3
IPAR AMERIKA	261137,9	21,2	4326,2	0,1	2682288,4	80,8
LATINOAMERIKA	147187,3	12,0	68271,9	2,0	151332,6	4,6
AMERIKAKO GAINERAKOAK	0,0	0,0	3230,6	0,1	0,0	0,0
ASIA ETA OZEANIA	67004,1	5,4	888486,4	25,7	152822,9	4,6
AFRIKA	146,8	0,0	3145,0	0,1	15065,4	0,5
ZERGA PARADISUAK	0,0	0,0	3230,6	0,1	0,0	0,0

(*) Inbertsio osoa ABDE gabe. bb: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta geuk egina

II.2.14. TAULA EAE-K 27KO EB ETA IPAR AMERIKAN EGINIKO INBERTSIO GORDINA*, INBERTSIOAREN BEREHALAKO HERRIALDEAREN ARABERA

	EAE			ESTATUA	EAE BANAKETA	ESTAT. %	ALDAKUNTZA (%) EAE	
	2019	2020	2021 bb	2021 bb	2021	2021	19-20	20-21
GUZTIRA	1231422,2	3454646,1	3318337,7	22039167,5	100,0	15,1	180,5	-3,9
27KO EB	728460,8	2482593,6	276331,7	5539798,3	8,3	5,0	240,8	-88,9
ALEMANIA	53,5	187948,0	825,0	342892,4	0,0	0,2		-99,6
AUSTRIA	6500,0	119458,1	4975,0	6118,5	0,1	81,3	1737,8	-95,8
BELGIKA	365,5	7,3	0,0	10078,7	0,0	0,0	-98,0	-100,0
DANIMARKA	2238,3	0,0	0,0	30300,8	0,0	0,0	-100,0	!
ESPAINIA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
FINLANDIA	0,0	0,0	0,0	4713,1	0,0	0,0		
FRANTZIA	27120,7	4945,6	2199,9	610110,3	0,1	0,4	-81,8	-55,5
GREZIA	5,0	0,0	0,0	76,3	0,0	0,0	-100,0	
IRLANDA	5000,0	5000,0	1364,3	7871,7	0,0	17,3	0,0	-72,7
ITALIA	86009,0	131559,8	0,0	231538,8	0,0	0,0	53,0	-100,0
LUXENBURGO	468,2	1164091,2	21784,5	2457862,4	0,7	0,9		-98,1
HERBEHEREAK	435918,2	0,0	783,0	334634,5	0,0	0,2	-100,0	
PORTUGAL	95760,0	1901,1	57225,8	609204,4	1,7	9,4	-98,0	2910,2
SUEDIA	63705,7	761258,8	9281,3	643251,1	0,3	1,4		-98,8
BULGARIA	0,0	0,0	0,0	2999,3	0,0	0,0		
TXEKIA	870,0	800,0	0,0	7394,1	0,0	0,0	-8,0	-100,0
ZIPRE	0,0	0,0	0,0	43403,5	0,0	0,0		
ESLOVAKIA	0,0	75003,8	0,0	0,0	0,0			-100,0
ESLOVENIA	0,0	0,0	0,0	18,0	0,0	0,0		
ESTONIA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
HUNGARIA	2862,3	0,0	0,0	0,0	0,0		-100,0	
LETONIA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
LITUANIA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
MALTA	0,0	2316,9	0,0	6749,0	0,0	0,0		-100,0
POLONIA	1584,4	13493,1	177892,9	181294,2	5,4	98,1		
ERRUMANIA	0,0	14810,0	0,0	7873,8	0,0	0,0		-100,0
KROAZIA	0,0	0,0	0,0	1413,5	0,0	0,0		
IPAR AMERIKA	261137,9	4326,2	2682288,4	4966107,6	80,8	54,0	-98,3	
KANADA	888,8	120,0	250,0	143081,5	0,0	0,2	-86,5	108,3
ESTATU BATUAK	260249,2	4206,2	2682038,4	4823026,1	80,8	55,6	-98,4	

(*) Inbertsio osoa ABDE gabe. bb: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta geuk egina

2.5. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK

2.5.1. Kontsumoko prezioak (2016ko oinarria)¹⁰

2021eko abenduko KPIaren urte arteko tasa % 6,4 izan zen, azken hogeita hamar urteetako baliorik handiena. Ratio hori Estatu osoko ratioaren antzekoa da (% 6,5). Igoera horren arrazoi nagusia energia garestitzea da (elektrizitatea, gasa, erregaia).


Urtearen barruan prezioek goranzko joera argia izan dute. Hala, indize negatiboarekin 2020 itxi ondoren, pandemiaren murrizketek kontsumoan eragin handia izan zutelako, urtarrilean eta otsailean atonia horri eutsi zitzaion, martxoan etengabe gora egiten hasi zen eta urteko azken hiru hilabeteak nabarmen igo ziren.

Urtearen lehen erdian KPIaren igoera produktu energetikoen prezioen igoeraren emaitza izan zen, baina azken hilabeteetan bigarren fasera igaro zen, eta bigarren fase horretan igoera gainerako produktuetan gertatu zen, bereziki elikagaietan eta industria-ondasunetan, azpiko inflazioak izandako goranzko joerak islatzen duen bezala¹¹.

Azpiko inflazioa + % 2,2koa izan zen 2020ko abenduan. Talde horren barruan, prestatutako elikagaien KPIa % 3,4 hazi zen, industria-ondasunena % 2 eta zerbitzuena egonkor mantendu zen.

Bestalde, hondar-inflazioak, energiaren prezioaren igoeraren ondorioz, % 23,5eko igoera izan zuten.

II.2.6. GRAFIKOA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA. 2016 OINARRIA. EAE ETA ESTATUA



Iturria: EIN eta geuk egina.

¹⁰ 2021eko oinarria duen lehen KPI 2022ko urtarrilean argitaratu da.

¹¹ Azpiko inflazioa kontsumo-prezioen aldakortasuna guztizko inflazioa baino modu zehatzagoan erakusten duen adierazle da. Produktu energetikoei eta elaboratu gabeko elikagaiei (frutak, barazkiak ...) dagokien zatia kenduta kalkulatzen da, hondar-inflazioa osatzen baitute. Beraz, prezioen joera erakusteko adierazle egokiagoa da.

**II.2.15. TAULA. KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEA TALDE NAGUSIEN ARABERA 2016KO OINARRIA
URTEKIK URTERAKO ALDAKUNTZA-TASA.**

	EAE			ESTATUA		
	2020	2021		2020	2021	
	Abendua	Abendua	Urteko b.b.	Abendua	Abendua	Urteko b.b.
00 INDIZE OROKORRA	-0,3	6,4	3,1	-0,5	6,5	3,1
1. ELIKAGAIK ETA ALKOHOLIK GABEKO EDARIAK	1,8	4,7	2,0	1,1	5,0	1,8
2. EDARI ALKOHOLDUNAK ETA TABAKOA	-0,1	1,7	0,4	0,3	1,6	0,3
3. JANTZIAK ETA OINETAKOAK	0,7	1,1	1,0	0,9	1,0	1,0
4. ETXEBIZITZA, URA, ELEKTRIZITATEA, GASA ETA BESTE ERREGAI BATZUK	0,2	24,1	11,3	-0,1	23,3	11,1
5. ALTZARIAK, ETXEKO ARTIKULUAK ETA ETXEKO MANTENTZE-LANETARAKO ARTIKULUAK	0,5	3,2	1,9	0,4	2,1	0,9
6. OSASUNA	0,1	1,3	0,8	0,5	0,9	0,7
7. GARRAIOA	-4,1	10,2	7,3	-4,4	10,9	7,4
8. KOMUNIKAZIOAK	-4,0	-0,3	-2,9	-4,1	-0,3	-3,0
9. AISIALDIA ETA KULTURA	-2,2	1,5	-0,1	-1,6	1,7	0,2
10. IRAKASKUNTZA	0,4	1,6	0,9	-0,2	1,2	0,2
11. JATETXEAK ETA HOTELAK	1,0	3,0	1,2	0,3	3,1	0,9
12. BESTELAKO ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK	0,8	2,3	1,3	1,2	1,5	1,0

Iturriak: *Estatistika Institutu Nazionala*

**II.2.16 TAULA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKAPENA. 2016KO OINARRIA
URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. ABENDUA**

	2017	2018	2019	2020	2021
INFLAZIO OSOA (% 100)	1,1	1,0	1,2	-0,3	6,4
AZPIKO INFLAZIOA (% 82,6)	0,7	0,7	1,3	0,2	2,2
- LANDUTAKO ELIKAGAIEN KPIa (% 13,6)	0,8	-0,1	1,3	1,0	3,4
- INDUSTRIARIKO ONDASUNEN KPIa (% 27,7)	-0,5	-0,1	0,5	0,1	2,0
- ZERBITZUEN KPIa (% 41,9)	1,3	1,5	1,8	0,0	1,9
HONDAR-INFLAZIOA (% 17,4)	2,8	2,1	0,5	-2,3	23,5
- LANDU GABEKO ELIKAGAIEN KPI (% 6,8)	3,3	2,1	2,8	2,6	6,1
- ENERGIAREN KPIa (%10,5)	2,3	2,1	-1,1	-5,7	40,0

Iturria: *EUSKO JAURLARITZA, Abagunea klik batean*

Bestalde, EBko Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH)¹² datuek Estatu osorako erakusten dutenez, % 6,6ko igoera gertatu zen 2020ko abenduaren aldean. 27KO EBn, bestalde, +% 5,3ko igoera izan zen prezioetan. Euro gunean +% 5,1eko ratioa izan zen eta, beraz, gure Erkidegoak EBBren aldean duen aldea +% 1,3koa da.

**II.2.17. TAULA KPIH. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK.
2015EKO OINARRIA (2015=100)**

	2020KO ABE	2021EKO ABE
27KO EB	0,2	5,3
EUROGUNEA	-0,3	5,1
ESPAINIA	-0,6	6,6

Iturria: *Eurostat. Harmonised Index of Consumer Prices (HICP) - monthly data*

Produktibitatea EBrekin, Estatuarekin eta EBko estatuarekin konparatzeko azterketen eta KPIHren gaineko informazio gehiago izateko, jo beza irakurleak kapitulu honetara: *"II.1. Kapitulu. Kanpoko Ingurune Ekonomikoa"*.

2.5.2. Errentaren banaketa funtzionala, laneko kostuak eta produktibitatea

Gure ekonomian sortutako balio erantsia, hasieran, balio hori sortzeko lagungarriak izan diren ekoizpen-faktoreen artean banantzen da, honelaxe: soldatapeko lanaren ordainsaria, soldatapekoa ez den lanerako ustiapeneko soberakin garbia, kapital finkoko kontsumoa urtean zehar ekoizpen-ekipamenduan izandako balio-galeragatik eta, azkenik, herri administrazioari dagozkion ekoizpenarekin eta inportazioarekin (diru-laguntzenak, garbiak) loturiko zergak. Bigarren

¹² Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) UE gauzatzeari dagokiona Nazioartea inflazioaren batez besteko komuna ematen du.

Europar Batasuneko (EB) estatu kide bakoitzeko Kontsumoko Prezioen Indize bakoitzaren alderdi metodologiko garrantzitsuenak homogeneizatzaren emaitza da, alderagarriak izan daitezzen.

mailan, errenta hori pertsonen eta familien artean banantzen da ekoizpen-faktore horien eta jasotako errentetan duten jabetzaren partaidetzaren arabera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, EUSTATen "Kontu Ekonomikoetan" eskuragarri dauden azken datuek, lehenengo urte pandemikoari (2020) buruzkoek, agerian uzten dute erreferentzia gisa prezio arrunteko BPGd-aren % 10,1eko jaitsiera hartuta (behin-behineko datuak), zerga garbiak % 15 jaitsi zirela, ustiapeneko soberakin garbia % 14, kapital finkoaren kontsumoa % 10,2 eta soldatapeko pertsonen errenta % 6,3.

Estatuko errenten bilakaera aztertuz gero (2020an BPGd-ak behera egin zuen, prezio arruntetan, % 9,8), ikusten da aurten diru-laguntzen zerga garbiak (BPGd-aren gaineko proportzioa EAEkoa baino pixka bat txikiagoa dutenak: % 9,1 eta % 9,9, hurrenez hurren), % 20,3 jaitsi dira ustiapen-soberakinaren eta errenta mistoaren baturak % 11,9 egin du behera, eta soldata-errentek ere bai, baina proportzio txikiagoan, -% 5,6.

II.2.18. TAULA. ERRENTAREN BANAKETA FUNTZIONALA EAE-N ETA ESTATUAN. 2015EKO OINARRIA										
	Milioika eurotan				% bertikala			% urteko aldakuntza		
	2017	2018	2019	2020 bb	2018	2019	2020 bb	17/18	18/19	19/20
EAE										
1. SOLDATAPEKOEN ORDAINSARIA	34894	36095	37434	35094	46,9	47,1	49,1	3,4	3,7	-6,3
2. USTIAPENAREN SOBERAKIN GARBIA	23719	24869	25797	22192	32,3	32,4	31,0	4,8	3,7	-14,0
3. KAPITAL FINKOAREN KONTSUMOA	7435	7764	7961	7152	10,1	10,0	10,0	4,4	2,5	-10,2
4. DIRU-LAGUNTZEN ZERGA GARBIAK	7650	8160	8345	7091	10,6	10,5	9,9	6,7	2,3	-15,0
BPGd MERKATUKO PREZIOAK	73697	76888	79537	71528	100,0	100,0	100,0	4,3	3,4	-10,1
ESTATUA										
1. SOLDATAPEKOEN ORDAINSARIA	523665	545718	575889	543856	45,4	46,3	48,5	4,2	5,5	-5,6
2. + 3. USTIAPEN-SOBERAKIN GORDINA GEHIENEN ERRENTA GORDINA*	518424	531360	540907	476416	44,2	43,5	42,5	2,5	1,8	-11,9
4. DIRU-LAGUNTZEN ZERGA GARBIAK	119778	126181	127579	101676	10,5	10,3	9,1	5,3	1,1	-20,3
BPGd MERKATUKO PREZIOETAN	1161867	1203259	1244375	1121948	100,0	100,0	100,0	3,6	3,4	-9,8

bb: behin-behinekoa
Iturria: EUSTAT, "Kontu Ekonomikoak", eta EIN, "Espainiako Kontabilitate Nazionala" eta geuk egina
** Ustiapeneko Soberakin Gordina edo Errenta Misto Gordina Soberakin garbiaren gehi kapital finkoaren kontsumoaren batura da.*
EAEren kasuan, EUSTATEk bi aldagaiak ematen ditu, baina ez EINek Estatuarentzat.

Laneko kostuei dagokienez, EINren "Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. LKHI" ¹³ delakoak erakusten duenez, EAEn, % 3,4 egin zuen gora enpresen ¹⁴ laneko kostuak 2021eko laugarren hiruhilekoan 2020ko epealdi beraren aldean (Estatuan % 4,4 handitu da), eta 3.383 euroan kokatzen da langileko eta hileko, hots, 508,4 euro gehiago Estatuan baino.

II.2.19. TAULA. LANEKO KOSTUEN BILAKAERA. KOSTUA LANGILEKO ETA HILEKO (LAUGARREN HIRUHILEKOAK)		
	EAE	ESTATUA
2018	3.211,0	2692,5
2019	3258,0	2755,2
2020	3273,2	2752,3
2021	3383,0	2874,6
% 20-21	3,4	4,4

Iturria: EIN, Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkesta.

¹³ Inkesta hau oinarri hartuta, Laneko Kostuaren Indize Harmonizatua lantzen da, hain zuzen ere EB osorako laneko kostuen neurri alderagarria.

¹⁴ Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeen enplegatzaile jarduerak eta lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak izan ezik).

Azkenik, laneko itxurazko produktibitatea¹⁵, hain zuzen ere BPGd-aren bilakaeraren (2021ean % 5,6 hazi zen) eta lanaldi osoko lanpostu baliokideetako batez besteko enpleguaren (EUSTATen HEKen arabera % 5,5 hazi zen) arteko erlazio gisa kalkulatu, hazi egin zen, zeren eta ekoizpenak enpleguak baino gehiago egin baitzuen gora, % 0,1 kopuru errealetan 2021ean¹⁶. Igoera horren arrazoa da lehen sektorean eta industrian produktibitateak gora egin duela; izan ere, eraikuntzan eta zerbitzuetan % 2,9 eta % 1,1 egin dute behera, hurrenez hurren.

II.2.20. TAULA. LANEKO ITXURAZKO PRODUKTIBITATEAREN BILAKERA EAEn* (BOLUMEN KATEATUA)


	2018	2019	2020	2021*
GUZTIRA	0,8	0,7	-2,2	0,1
LEHEN SEKTOREA	-0,4	8,7	-12,2	0,7
INDUSTRIA	0,3	0,6	-3,1	4,8
ERAIKUNTZA	0,3	-1,7	-4,3	-2,9
ZERBITZUAK	0,8	0,9	-1	-1,1

Iturria: EUSTATen Hiruhilekoetako Ekonomia Kontuak eta norberak egina
(* Behin-behineko datuak.)

2.6. ERRENTA PERTSONALA, SEXUAREN ETA ERRENTA-SEGMENTUEN ARABERA. 2019KO DATUAK

EUSTATen Errenta Pertsonal eta Familiakoaren Estatistikaren azken datuen arabera, EAEn bizi den 18 urteko edo gehiagoko biztanleriaren batez besteko errenta pertsonala (gutzizko errenta) % 5,3 hazi da 2018 eta 2019 artean, 22.601 €-ra iritsiz. % 60 lanaren errentetatik dator, 13.563 € batez beste (+% 4,6 aurreko urtearen aldean), % 26,7 gizarte transferentzia edo prestazioetatik¹⁷, 6.033 € batez beste (+% 5), % 8,6 kapital higiezin zein higigarriaren errentetatik (1.949 €) eta % 4,7 ekonomia-jardueren errentetatik (1.056 €).

II.2.7. GRAFIKOA. BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALAREN BILAKERA EAE-N, ERRENTA MOTA BEREIZITA. EUROAK



Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiakoren estatistia.

¹⁵ Produktibitatea kontzeptua ekoizpenaren eta ekoizpena lortzeko erabilitako baliabideen arteko erlazioan datza, eta garrantzitsua da ekonomiaren lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da, baina bere kalkulua zaila, zeren eta askotariko faktore determinanteak baitaude (landunen gaitasuna, kapitaleko ondasunen zuzkidura, baliabideen erabilera eraginkorra eta beste faktore batzuekin uztartuta erabiltzea hala nola erakundeen ingurukoak, legearen ingurukoak, etab.). Horregatik, hurbiletara jotzen da lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptua erabiliz, hainbat ikuspegitatik neurtua.

¹⁶ Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATen datuetatik abiatuz kalkulatu.

¹⁷ Pentsioak eta hartzeko pasiboak, langabezia-prestazio edo -subsidiok, ekintza terroristen ziozko prestazio publikoak, giza immunoeskasiaren birusak erasandakoek jasotako laguntzak eta ezintasun iraunkorren ziozko prestazioak eta Gizarte Segurantzaren ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazioak.

Sexuaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko banaketa desberdina da, eta agerian geratzen da dagoen genero-aldea. Hala, gizonek, batez beste (guztira), 27.885 €-ko errenta du. Emakumeek, berriz, 17.731 € batez beste, hots, lehenbizikoek emakumeek baino 10.100 eurotik gorako errenta pertsonala jasotzen dute. EUSTATen arabera, alderik handiena 70 eta 74 urte bitarteko adin-tartean dago; adin-tarte horretan, gizonen batez besteko errenta emakumeena baino 16.000 €handiagoa da. Desberdintasun esanguratsuak egon arren, 2019an 360 €murriztu dira aurreko urtearekin alderatuta, eta 135 €, berriz, emakumeen lan-errentek gizonekin alderatuta izan duten igoera handiagoaren ondorio dira.

Bestalde, batez besteko errenta pertsonal erabilgarria, honela kalkulaturik: errenta osoa ken errentaren gaineko zerga eta langileen konturako gizarte-kotizazioak, % 5,4 igo da 2019an, eta 18.821 eurora iritsi da; hau da, errenta osoaren % 83,3.

Aldeak ikusten dira lurraldeen artean. Hala, errenta pertsonala nahiz errenta pertsonal eskuragarria, zergen ondoren, handiagoak dira Gipuzkoan.

- Errenta pertsonala: Gipuzkoan 23.759 €, Bizkaian 22.059 € eta Araban 21.994 €.
- Errenta pertsonal erabilgarria: Gipuzkoan 19.751 €, Bizkaian 18.387 € eta Araban 18.323 €.

II.2.21. TAULA. EAE-KO BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA, ERRENTA MOTAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA (EUROTAN)										
	2017	2018	2019							ALD. 2018-19
	GUZTIRA	GUZT.	GUZT.	% BERTIKALA	SEXUA		LL.HH.			
					GIZONAK	EMA-KUMEAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	
ERRENTA, GUZTIRA	21083	21458	22601	100,0	27885	17731	21994	22059	23756	5,3
LANEKO ERRENTA	12681	12966	13563	60,0	16876	10510	13405	13320	14029	4,6
KAPITAL HIGIGARRIAREN ERRENTA	1290	1253	1448	6,4	1736	1184	1273	1288	1788	15,6
KAPITAL HIGIEZINEN ERRENTA	454	464	501	2,2	462	536	456	458	591	8,0
JARDUERA EKONOMIKOEN ERRENTA	995	1029	1056	4,7	1467	676	982	1037	1119	2,6
TRANSFERENTZIAK	5662	5747	6033	26,7	7344	4825	5878	5955	6229	5,0
ERRENTA ERABILGARRIA	17615	17860	18821	83,3	22934	15030	18323	18387	19751	5,4


Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika.

Errenta (errenta osoa) biztanleriaren artean banatzeari dagokionez, 1,6 milioi baino gehiago dira errenta motaren bat jasotzen duten 18 urteko eta gehiagoko pertsonak, hau da, % 86,5, eta adin-talde horietako biztanleriaren % 13,5ek ez du inolako diru-sarrerarik 2019an. Gainera, 18 urteko eta gehiagoko biztanleria egoiliarren % 60k EAEko batez bestekoa (22.601 €) baino errenta pertsonal txikiagoa du, baina kontuan izan behar da talde horretan sartuta daudela 2019an errentarik jaso ez duten pertsonak (% 13,5); beste muturrean, biztanleria horren % 10ek batez bestekoaren ia bikoitza duen errenta du, hau da, 43.790 € baino pixka bat gehiago.

Aldi berean, biztanleen % 37,1ek 12.000 eurotik beherako errenta pertsonala dute, eta % 43,7k 15.000 baino gutxiagokoa (kasu bietan errentarik ez dutenen % 13,5).

Mediana, biztanleria bi zati berdinetan banatzen duen errenta zein den ezartzen duen adierazlea, 17.888 €-koa da, hau da, 2019an, adin nagusiko biztanleriaren erdiak urteko 17.888 €-tik gorako batez besteko errenta pertsonala du, eta beste erdiak, berriz, kopuru horretatik beherako errenta.

II.2.8. GRAFIKOA. EAE-KO 18 URTE ETA GEHIAGOKOAK, ERRENTA PERTSONALEKO ESTRATUAREN ARABERA, 2019



Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika

Ondoko taulan ageri denez, batez bestekoa baino errenta txikiagoa duten deziletan (2-5 dezilak) emakumeen ratioa gizonena baino handiagoa da: % 66,9 2. dezilean, eta % 33,1 gizonetan. Bestalde, errenta-dezil altuenean, emakumeen ratioa % 35,2 eta % 64,8 da, hurrenez hurren.

II.2.22. TAULA. EAE-KO 18 URTE ETA GEHIAGOKOEN ERRENTA PERTSONALAREN 9 DEZILEKO, SEXUAREN ARABERA (ehunekoak) 2019

	EHUNEKO BERTIKALAK			EHUNEKO HORIZONTALAK		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
GUZTIRA	100	100	100	100	48	52
2 DEZILA	20	13,8	25,7	100	33,1	66,9
3 DEZILA	10	7,2	12,6	100	34,7	65,4
4 DEZILA	10	7,2	12,5	100	34,7	65,3
5 DEZILA	10	8,7	11,2	100	41,9	58,1
6 DEZILA	10	10,8	9,3	100	51,6	48,4
7 DEZILA	10	12,4	7,8	100	59,5	40,5
8 DEZILA	10	13,1	7,2	100	62,6	37,4
9 DEZILA	10	13,2	7	100	63,5	36,5
10 DEZILA	10	13,5	6,8	100	64,8	35,2

Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika.

ITURRIAK

1. **ESPAINIAKO BANKUA.** Aldizkari estatistikoa. 2021.
2. **EUROSTAT.** Datu-basea 2021.
3. **EUROSTAT.** News release euroindicators.
4. **EUSTAT.** Hiruhileko Ekonomia Kontuak. 2022.
5. **EUSTAT.** Ekonomia Kontuak. 2021 (n-2 urterokoa).
6. **EUSTAT.** Kanpoko Merkataritzako Estatistika-ECOMEX. 2021.
7. **EUSTAT.** EAeko Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika. 2020.
8. **EUSKO JAURLARITZA.** Ogasun eta Ekonomia Saila. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Abagunea klik batean. 2022ko urtarrileko eta martxoko buletinak
9. **EIN.** Espainiako Hiruhileko Nazio Kontabilitatea. 2021 (n-2 urterokoa).
10. **EIN.** Espainiako Hiruhileko Nazio Kontabilitatea. 2022.
11. **EIN.** Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. 2021.
12. **EIN.** Kontsumoko Prezioen Indizea. 2021.
13. **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA.** Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. 2021.

3. SEKTORE PRODUKTIBOAK

II. Kapituluaren -“EAEko ekonomia”- hirugarren atal hau sei epigrafe handitan banatzen da. Lehenik eta behin, enpresen Egitura eta Demografia aztertuko da, eta horri esker, informazioa lortu ahal izango da enpresetatik, jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik. Bigarren epigrafeak EAEko ekoizpen-egitura aurkezten du. Hirugarrenak lehen sektoreko magnitude batzuk ditu. Laugarrenean, sakon aztertuko da industriaren sektorea, eta horretarako, Kontu Ekonomikoez gain, koiunturako beste adierazle batzuk erabiliko dira hala nola Industri Produkzioaren Indizea (IPI), Industri Prezioen Indizea (IPRI) eta EUSTATen Industria Estatistikako hainbat magnitude. Bosgarren puntuak eraikuntzaren sektorea aztertzen du, Kontu Ekonomikoen, Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen (EKI) eta Eraikuntzaren Kostuen Indizearen (EEKI) bidez. Eta azkenik, seigarren atalak zerbitzuen sektorearen analisia jasotzen du, merkataritza, ostalaritza eta turismo azpisektoreei eta finantza-sektoreari buruzko azterlan zehatzekin.

Merkataritzaren azpisektorearen kasuan, txikizkako merkataritzaren indizearen eta azalera handietako eta elikadurakate handietako merkataritzaren indizearen bilakaera aztertzen dira. Ostalaritzari eta turismoari dagokienez, EUSTATen Establezimendu Turistiko Hartzailen Inkestaren adierazle batzuk aztertzen dira. Eta, amaitzeko, finantza-azpisektorea hainbat adierazleren bidez aztertzen da: banku zentralen esku-hartze motak, interes-tasak, kredituak eta hipotekak, gordailuak eta burtsa-merkatuaren ikuspegia.

3.1. ENPRESA-DEMOGRAFIA ETA EGITURA

3.1.1. EAEko enpresa-egitura

EUSTATen “Jarduera Ekonomikoen Direktorioak (JEGID)” establezimendu eta enpresa guztien informazioa biltzen du, EAEn jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik; jarduera ekonomikoei buruzko oinarritzko informazio estrukturala ematen du, eta erreferentzia da sektoreko zentsuak eta inkestak egiteko; gainera, Erkidegoko establezimenduetako langileei buruzko azterketa ere ahalbidetzen du. Gaur egun, ez ditu biltzen etxeko langileei lana ematen dieten familien jarduerak, ezta lurraldez kanpoko erakundeak ere.

2021eko urtarrilaren 1ean, JEGIDen datuek EAEko 152.554 enpresa¹⁸ aktibok 909.442 pertsonari ematen zieten lana, eta, beraz, batez besteko tamaina 5,96 enplegukoa zen enpresako. 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko urtarrilaren 1era, enpresen kopurua % 0,9 jaitsi zen (1.417 enpresa gutxiago). Establezimendu horietako langileek behera egin zuten, lehen aldiz bost urtean (-% 1,3), COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak eta enpleguaren arloan abian jarritako euste-neurriek markatutako urtean.

Egoitza soziala EAEn zuten enpresa horien ehunekoa % 97,2koa zen.

50 enplegu edo gehiagoko enpresen ratioa egonkor mantendu zen guztizkoaren % 1,3an, hau da, 462.822 pertsonari lana ematen zieten 1.998 enpresatan, hau da, enplegu guztiaren % 50,9. Aitzitik, 114.324 enpresa, guztien % 74,9, ez zen iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 15,1 baino ez zuten hartzen.

¹⁸ Enpresa: Establezimenduen jarduerari legezko euskarria ematen dien unitate juridikoa, hau da, beregaineko lege-nortasuna duen edozein elkarte, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo edozein erakunde publiko edo pribatu, zeinaren ardurapean eta zuzendaritzapean jarduerak egiten baitira. 2012tik aurrera, EUSTATen estatistikak lehen sektoreko enpresak hartzen ditu barne.

II.3.1 LAUKIA. ENPRESAK* EAEN, EGOITZA SOZIALAREN ETA ENPLEGUAREN ARABERA

	1/1/2017	1/1/2018	1/1/2019	1/1/2020	1/1/2021	18-19 (%)	19-20 (%)	20-21 (%)
ENPRESAK GUZTIRA (EAE ETA ESTATUA)	158.086	156.528	157.358	153.971	152.554	0,5	-2,2	-0,9
EGOITZA EAE-N	154.301	152.637	153.267	149.720	148.324	0,4	-2,3	-0,9
--ARABA	21.462	21.204	21.596	21.279	20.858	1,8	-1,5	-2,0
--BIZKAIA	79.911	79.118	79.454	77.770	77.151	0,4	-2,1	-0,8
--GIPUZKOA	52.928	52.315	52.217	50.671	50.315	-0,2	-3,0	-0,7
EGOITZA ESTATUKO GAINERAKO LEKUETAN	3.785	3.891	4.091	4.251	4.230	5,1	3,9	-0,5
EGOITZA EAE-N (%)	97,6	97,5	97,4	97,2	97,2			
EGOITZA ESTATUKO GAINERAKO LEKUETAN (%)	2,4	2,5	2,6	2,8	2,8			
ENPLEGUA GUZTIRA	874.241	889.853	911.267	921.525	909.442	2,4	1,1	-1,3
BATEZ BESTEKO NEURRIA	5,53	5,68	5,79	5,99	5,96			

* Salbuesten dira etxeetako jarduerak, etxeko langileen enplegatzaile gisa eta norberaren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizle gisa, eta lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak.


Iturria: EUSTAT. JEGID

II.3.2. TAULA. EAE-KO ENPRESEN EGITURA, ENPLEGUAREN ARABERA

	1/1/2020				1/1/2021				ALDAKETA 2020-21	
	ENPRESAK (A)		ENPLEGUA (B)		ENPRESAK (A)		ENPLEGUA (B)		Enpresak	Enplegua
	k	%	k	%	k	%	k	%		
GUZTIRA	153.971	100	921.525	100	152.554	100	909.442	100	-0,9	-1,3
=<2	115.122	74,8	139.406	15,1	114.324	74,9	137.456	15,1	-0,7	-1,4
3-5	19.940	13,0	73.425	8,0	19.498	12,8	71.835	7,9	-2,2	-2,2
6-9	7.672	5,0	54.913	6,0	7.605	5,0	54.398	6,0	-0,9	-0,9
10-14	3.617	2,3	42.235	4,6	3.612	2,4	42.114	4,6	-0,1	-0,3
15-19	1.955	1,3	32.833	3,6	1.850	1,2	31.001	3,4	-5,4	-5,6
20-49	3.645	2,4	109.673	11,9	3.667	2,4	109.816	12,1	0,6	0,1
50-99	1.075	0,7	74.728	8,1	1.074	0,7	74.731	8,2	-0,1	0,0
100-249	644	0,4	99.975	10,8	629	0,4	97.697	10,7	-2,3	-2,3
250-499	175	0,1	60.649	6,6	168	0,1	57.833	6,4	-4,0	-4,6
>= 500	126	0,1	233.688	25,4	127	0,1	232.561	25,6	0,8	-0,5


Iturria: EUSTAT. JEGID.

II.3.1. GRAFIKOA. ENPRESEN BANAKETA ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA, 2021



Iturria: EUSTAT

II.3.2. GRAFIKOA. ENPLEGUAREN BANAKETA ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA, 2021



Iturria: EUSTAT

II.3.3 Taulak erakusten duen bezala, 27-EBn enpresa-sarearen batez besteko tamaina 5,1 enplegukoa zen enpresa bakoitzeko (2019ko datuak), EAEn erregistratutakoa baino pixka bat txikiagoa (6 enplegu). Batez besteko horien gainera zeuden Alemania (11,5 lanpostu), Luxenburgo (8,3), Danimarka (7,6), Austria (7,1) eta Kroazia (6,1).

II.3.3. LAUKIA. ENPRESEN BATEZ BESTEKO TAMAINA HANDIENA DUTEN EB-KO ESTATUAK				
	2016	2017	2018	2019
27KO EB	5,0	5,0	5,1	5,1
ALEMANIA	10,4	10,6	11,6	11,5
LUXENBURGO	8,2	8,2	8,3	8,3
DANIMARKA	7,6	7,6	7,8	7,6
AUSTRIA	6,7	6,9	7,0	7,1
KROAZIA	6,8	6,9	6,6	6,1
BULGARIA	5,6	5,7	5,7	5,8
LETONIA	5,5	5,6	5,8	5,7
IRLANDA	5,5	5,4	5,6	
ERRUMANIA	5,5	5,5	5,4	5,5
FINLANDIA	5,0	5,0	5,1	5,1

Iturria: EUROSTAT.

Enpresa gehien dituzten jarduera ekonomikoak (II.3.4 Taula) honako hauek dira: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (enpresa guztien % 20,1, % 2,3ko murrizketarekin); Jarduera profesional zientifiko eta teknikoak (enpresen % 13,8, % 1eko jaitsierarekin); eta Eraikuntza (% 13, % 0,9ko igogerarekin). Bestalde, enplegu-bolumen handiena duten jarduera ekonomikoak honako hauek dira: Manufaktura-industria (% 19, % 2,9ko jaitsierarekin), Handizkako eta txikizkako merkataritza, Motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (% 14,1, % 1,3ko jaitsierarekin) eta Osasun-jarduerak eta Gizarte-zerbitzuak (% 10,5, % 1,6ko hazkundearekin).

Enpresako batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 6 enplegukoa zen. Administrazio publikoa eta defentsa eta gizarte segurantza alde batera utzita (176,1 enplegurekin), enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur-hornidura; saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa (24,4), Manufaktura-industria (17,2) eta Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura (16,1).

Enpresa horien nortasun juridikoa kontuan hartuta¹⁹, eta enpresa txikienak alde batera utzita (pertsone fisiko bat zutenak, batez beste 1,4 pertsona enpresa bakoitzeko), batez besteko tamaina 12,5 pertsonakoa zen (12,6 pertsona aurreko urtean). Sozietate anonimoek 42,4 langile dituzte batez beste, eta kooperatibek 29,7.

EAEko enpresa-jardueraren % 58,9 "pertsone fisikoen" estaldura juridikoarekin egiten zen, baina enpleguaren % 14,1 baino ez zuen biltzen. Horrenbestez, "pertsone juridikoen" estaldura juridikopean egiten zen enpresa jarduera % 41,1koa zen, eta enpresa horiek enpleguaren % 85,9 biltzen zuten.

Pertsone fisikoak kontuan hartzen ez badira, enpresa-jardueraren % 75,6 Sozietate anonimoen eta Erantzukizun mugatuko sozietateen artean banatzen zen. % 7,8 Sozietate Anonimoaren forma juridikoarekin (enpleguaren % 26,4) eta % 67,8 Erantzukizun Mugatuko Sozietatearen forma juridikoarekin egiten zen (enpleguaren % 38,9). Sozietate kooperatiboak enpresen % 2,9 eta enpleguaren % 6,9 dira.

¹⁹ Titularren edo enpresaren izaera juridikoa (IFK, IFZ, NAN), kategorian hauen arabera: pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, beste sozietate eta elkarte batzuk (ohiko elkarte kolektiboak, elkarte komanditarioak, elkarrekin, gizarte zibila eta zehaztu gabeko beste sozietate mota batzuk), ondasun-erkidegoak, sozietate kooperatiboak eta beste forma juridiko batzuk (tokiko korporazioak, erakunde autonomoak edo antzekoak, erlijio-kongregazio edo -erakundeak eta estatuko eta autonomia-erkidegoetako organoak). EUSTAT (Metodologia, Definizioak).

II.3.4. TAULA. EAE-KO ENPRESA ETA ENPLEGU KOPURUJAREN EBOLUZIOA, JARDUERA ADARRAREN ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	ENPRESAK				ENPLEGUA				LANPOSTUA, BATEZ BESTE	
	1/1/2020	1/1/2021	PISUA	ALD. 202/21 (%)	1/1/2020	1/1/2021	PISUA	ALD. 2020/21 (%)	1/1/20	1/1/21
GUZTIRA	153.971	152.554	100,0	-0,9	921.525	909.442	100,0	-1,3	6,0	6,0
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, BASOZAINZA ETA ARRANTZA	6.152	5.512	3,6	-10,4	12.001	10.832	1,2	-9,7	2,0	2,0
B. ERAUZKETA-INDUSTRIAK	39	38	0,0	-2,6	385	387	0,0	0,5	9,9	10,2
C. MANUFATURA-INDUSTRIA	10.234	10.062	6,6	-1,7	178.087	172.974	19,0	-2,9	17,4	17,2
D. ENERGIA ELEKTRIKOAREN, GASAREN, LURRUNAREN ETA AIRE GIROTUAREN HORNIDURA	131	129	0,1	-1,5	2.011	2.076	0,2	3,2	15,4	16,1
E. UR HORNIDURA, SANEAMENDU-JARDUERAK, HONDAKINEN KUDEAKETA ETA KUTSADURA GARBITZEA	253	248	0,2	-2,0	6.016	6.056	0,7	0,7	23,8	24,4
F. ERAIKUNTZA	19.596	19.769	13,0	0,9	52.956	52.865	5,8	-0,2	2,7	2,7
G. HANDIZKAKO MERKATARITZA, TXIKIZKAKOA, IBILGAILU MOTORDUNEN ETA MOTORREN KONPONKETA	31.436	30.717	20,1	-2,3	129.850	128.225	14,1	-1,3	4,1	4,2
H. GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	10.109	10.153	6,7	0,4	43.206	43.452	4,8	0,6	4,3	4,3
I. OSTALARITZA	12.600	12.390	8,1	-1,7	63.144	60.474	6,6	-4,2	5,0	4,9
J. INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	3.334	3.385	2,2	1,5	22.660	22.991	2,5	1,5	6,8	6,8
K. FINANTZA- ETA ASEGURU- ARLOKO JARDUERAK	2.844	2.836	1,9	-0,3	17.032	16.536	1,8	-2,9	6,0	5,8
L. HIGIEZINEN JARDUERAK	2.824	2.959	1,9	4,8	5.044	5.138	0,6	1,9	1,8	1,7
M. JARDUERA PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	21.328	21.118	13,8	-1,0	61.190	61.213	6,7	0,0	2,9	2,9
N. JARDUERA ADMINISTRATIBOAK ETA ZERBITZU LAGUNGARRIAK	5.366	5.261	3,4	-2,0	70.042	67.607	7,4	-3,5	13,1	12,9
O. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA DEFENTSA; DERRIGORREZKO GIZARTE SEGURANTZA	438	435	0,3	-0,7	76.240	76.607	8,4	0,5	174,1	176,1
P. HEZKUNTZA	5.205	5.152	3,4	-1,0	47.353	46.916	5,2	-0,9	9,1	9,1
Q. OSASUN-JARDUERAK ETA GIZARTE-ZERBITZUETAKO JARDUERAK	9.276	9.359	6,1	0,9	94.203	95.701	10,5	1,6	10,2	10,2
R. ARTE, AISIALDI ETA ENTRETENITZEKO JARDUERAK	3.752	3.811	2,5	1,6	15.888	15.788	1,7	-0,6	4,2	4,1
S. BESTELAKO ZERBITZUAK	9.054	9.220	6,0	1,8	24.217	23.604	2,6	-2,5	2,7	2,6
PERTSONA FISIKOA	91.017	89.896	58,9	-1,2	130.699	127.877	14,1	-2,2	1,4	1,4
SOZIEATE ANONIMOAK	5.027	4.870	3,2	-3,1	210.882	206.586	22,7	-2,0	41,9	42,4
ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIEATEA	42.438	42.490	27,9	0,1	307.942	303.661	33,4	-1,4	7,3	7,1
BESTE SOZIEATE ETA ELKARTE BATZUK	14.382	14.382	9,4	0,0	130.451	129.448	14,2	-0,8	9,1	9,0
BESTE SOZIEATE BAT*	6.971	6.971	4,6	0,0	58.776	58.354	6,4	-0,7	8,4	8,4
ONDASUN ERKIDEGOA	5.603	5.603	3,7	0,0	18.040	17.417	1,9	-3,5	3,2	3,1
SOZIEATE KOOPERATIBOAK	1.808	1.808	1,2	0,0	53.635	53.677	5,9	0,1	29,7	29,7
BESTE FORMA JURIDIKO BATZUK	916	916	0,6	0,0	141.551	141.870	15,6	0,2	154,5	154,9
TOKIKO KORPORAZIOAK	359	359	0,2	0,0	29.958	30.007	3,3	0,2	83,4	83,6
ERAKUNDE AUTONOMOAK EDO HAREN PAREKOAK. ERLIJO ERAKUNDEAK	517	517	0,3	0,0	29.042	27.982	3,1	-3,6	56,2	54,1
ESTATUKO ETA AAEeetako ADMINISTRAZIOEN ORGANOAK	40	40	0,0	0,0	82.551	83.881	9,2	1,6	2063,8	2097,0

(Erregular kolektiboa, komandita, elkarteak, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk).

Iturria: EUSTAT, JEGID

3.1.2. Enpresen demografia

Enpresa-txandakatzeari buruzko azterlana (altak, bajak eta saldoa) funtsezkoa zen enpresen dinamismoari buruzko ezaugarriak ondorioztatzeko, hots, enpresa berriak sortzeko ahalmenari buruzkoak²⁰.

EUSTATen “*Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estaitistika*”ri esker, sortzen eta denborarekin desegiten diren enpresen kopurua zenbatetsi daiteke. Informazio demografiko hori zuzenean lortzen da JEGIDetik, eta gainera, iraupenari eta galerari buruzko tasak ere lor daitezke.

EAEko enpresa-kopuruak behera egin du (2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko urtarrilaren 1era) 12.693 enpresa berriren jardueraren hasieraren eta 14.110 enpresa uztearen ondorioz. Horrela, saldo garbia -1.417 enpresakoa zen. Beste alde batetik, enpresak sortzeko tasa gordina, dena delako urteko enpresa sortu berrien kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua, % 8,3koa zen; itxitako²¹ enpresa-tasa, aldiz, % 9,2koa izan zen.

II.3.5. TAULA. EAE-KO ENPRESEN ALTAK, BAJAK ETA SALDO GARBIA					
	1/1/2017	1/1/2018	1/1/2019	1/1/2020	1/1/2021
AURREKO URTEAN ZEUDEN ENPRESEN KOPURUA*	158.436	156.528	157.358	153.971	152.554
ALTAK	15.015	13.550	16.472	14.445	12.693
BAJAK	15.296	15.094	15.550	17.832	14.110
SALDO GARBIA	-281	-1.544	922	-3.387	-1.417
ENPRESEN SORRERA-TASA GORDINA (%)	9,5	8,7	10,5	9,4	8,3
ENPRESEN GALERA-TASA GORDINA (%)	9,7	9,6	9,9	11,6	9,2

* Aurreko urtearen amaieran eta hurrengoaren hasieran kontabilizatuak
Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

II.3.6 Taulak 2016ko hasieran alta emanda zeuden eta hurrengo bost urteetan jardunean jarraitzen duten enpresen bilakaera jasotzen du. Egoitza EAEn duten enpresei dagokionez, 2016an sortutako enpresen % 44k (17.052 guztira) aktibo jarraitzen zuten bost urteren ondoren (7.499), eta alderantziz, % 56 desagertu egin ziren (9.553). Enpleguan izandako eragina ere negatiboa izan zen, baina enpresa-kopuruan erregistratutakoa baino txikiagoa: bizirik atera ziren enpresak hasierako enpleguaren % 72,2 dira; hau da, enplegua galdu zen arren (30.406 enplegutik 22.945 enplegura igaro zen), galera-ehunekoa (-% 27,8) argi eta garbi txikiagoa zen enpresa-kopuruan erregistratutakoa baino (-% 56).

Lurralde historikoen arabera, Araban 2016an alta emandako enpresen % 44,3 zeuden aktibo (hasierako enpleguaren % 80,6), Bizkaian % 43,8 (hasierako enpleguaren % 69,2) eta Gipuzkoan % 44,2 (hasierako enpleguaren % 73).

Emaizta zen 2016an alta emandako enpresek (egoitza EAEn zutenek) 1,8 pertsonako batez besteko enplegua izan zutela eta gaur egun 2,9 pertsona direla.

EUSTATen datuen arabera, txandakatzeko handiena Merkataritza, garraio eta ostalaritza, Eraikuntza eta Jarduera profesional eta lagungarriak adarretan gertatzen da berriro. Demografia nortasun juridikoaren arabera aztertzean, Pertsona fisikoaren formularekin sortutako establezimenduak nabarmentzen dira.

²⁰ Kontuan hartu behar da jardueren alta eta bajako egoeren zati bat ondokoan ondorioz gertatzen direla: erregistroko aldaketa, izen-aldaketak, bategiteak, erosketa-eragiketak... Alta edo bajaren arrazoia ez baita jasotzen.

²¹ Galera-tasari dagokionez, zatidura baje arabera kalkulatu da.

II.3.6. TAULA. ENPRESEN ETA ENPLEGATUEN ALTA 2016/01/01EAN AKTIBOAK HURRENGO BOST URTEETAN

	2016ko urtarrilaren 1ean ALTA EMANDA ZEUDEN ENPRESAK		AKTIBOAK URTE HAUETAN									
			2017		2018		2019		2020		2021	
	ENPRESAK	ENPLEGUA	ENPRESAK	ENPLEGUA	ENPRESAK	ENPLEGUA	ENPRESAK	ENPLEGUA	ENPRESAK	ENPLEGUA	ENPRESAK	ENPLEGUA
GUZTIRA	17.485	34.784	14.695	32.889	12.383	31.811	10.116	29.786	8.709	27.134	7.708	25.632
EGOITZA EAE-N	17.052	30.406	14.316	28.728	12.069	27.630	9.852	25.724	8.477	23.449	7.499	21.945
ARABA	2.472	4.345	2.095	4.330	1.786	4.237	1.428	3.855	1.267	3.615	1.095	3.502
BIZKAIA	8.929	15.202	7.428	14.071	6.262	13.729	5.152	12.859	4.416	11.402	3.907	10.517
GIPUZKOA	5.651	10.859	4.793	10.327	4.021	9.664	3.272	9.010	2.794	8.432	2.497	7.926
BIZIRAUPEN-TASA												
GUZTIRA	100	100	84,0	94,6	70,8	91,5	57,9	85,6	49,8	78,0	44,1	73,7
EGOITZA EAE-N	100	100	84,0	94,5	70,8	90,9	57,8	84,6	49,7	77,1	44,0	72,2
ARABA	100	100	84,7	99,7	72,2	97,5	57,8	88,7	51,3	83,2	44,3	80,6
BIZKAIA	100	100	83,2	92,6	70,1	90,3	57,7	84,6	49,5	75,0	43,8	69,2
GIPUZKOA	100	100	84,8	95,1	71,2	89,0	57,9	83,0	49,4	77,6	44,2	73,0

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

3.1.3. Gizarte Segurantzaren izena emandako enpresak

2021eko abenduaren amaieran, langileak zituzten enpresak 58.145 izan ziren, hau da, 2020ko aldi beraren aldean % 1,1 gehiago (623 enpresa gehiago).

2020ko otsailarekin alderatuta, hau da, pandemia hasi aurretik, 748 enpresa gutxiago zenbatu dira (-% 1,3). Eta aldi horretan EAE eta Estatua alderatuz (2020ko ots. - 2021eko abe.) ikusi da Estatuan igoera txiki bat izan dela (% 0,6).

2021eko abendura arte 2020ko martxoa eta apirila bitartean galdutako enpresen % 64 suspertu dira.

Jarduera-sektoreen arabera, 2020ko abendutik 2021eko abendura enpresa kopuruak behera egin zuen lehen sektorean (-% 1,4) eta industrian (-% 1,1), eta eraikuntzan (+% 0,7) eta zerbitzuetan (+% 1,5) hazi zen.

Azkenik, 2021. urtearen amaieran 169.680 autonomo izan ziren, 2020ko abenduan baino 61 gehiago.

II.3.7. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAN IZENA EMANDAKO ENPRESAK

		EAE		ESTATUA	
		ENPRESA KOP.	ALD. URTETIK URTERA	ENPRESA KOP.	ALD. URTETIK URTERA
2020	URTARRILA	58.437	-0,5	1.318.325	-0,7
	OTSAILA	58.893	-0,1	1.324.427	0,0
	MARTXOA	57.125	-3,7	1.238.554	-7,4
	APIRILA	56.786	-3,9	1.233.187	-7,9
	MAIATZA	57.409	-3,4	1.259.417	-6,3
	EKAINA	57.346	-3,5	1.273.339	-5,6
	UZTAILA	57.234	-1,9	1.282.346	-3,5
	ABUZTUA	56.876	-1,9	1.276.979	-3,5
	IRAILA	57.778	-1,7	1.286.659	-3,1
	URRIA	57.954	-1,6	1.286.436	-2,5
	AZAROA	57.460	-3,0	1.287.803	-3,4
	ABENDUA	57.522	-2,4	1.295.656	-3,3
2021	URTARRILA	57.275	-2,0	1.282.944	-2,7
	OTSAILA	57.424	-2,5	1.276.090	-3,6
	MARTXOA	57.386	0,5	1.275.175	3,0
	APIRILA	57.704	1,6	1.285.054	4,2
	MAIATZA	58.007	1,0	1.298.848	3,1
	EKAINA	57.894	1,0	1.306.988	2,6
	UZTAILA	57.702	0,8	1.312.466	2,3
	ABUZTUA	56.944	0,1	1.296.788	1,6
	IRAILA	57.946	0,3	1.309.569	1,8
	URRIA	58.341	0,7	1.318.777	2,5
	AZAROA	58.196	1,3	1.322.440	2,7
	ABENDUA	58.145	1,1	1.332.390	2,8
OTS. 2020-ABE. 2021	-748	-1,3	7.963	0,6	

Iturria: INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

II.3.8. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAN IZENA EMANDAKO ENPRESAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. EAE.

	ENPRESA-KOPURUA				
	GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
2019	58.958	871	6.608	4.947	46.532
2020	57.522	876	6.511	4.945	45.190
2021	58.145	864	6.438	4.980	45.863
ALDAKUNTZA (ABE. 19-ABE. 20)	-2,4	0,6	-1,5	0,0	-2,9
ALDAKUNTZA (ABE. 20-ABE. 21)	1,1	-1,4	-1,1	0,7	1,5

Iturria: INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

3.2. EAE-REN EKOIZPEN-EGITURA

EUSTATen “Hiruhileroko Kontu Ekonomiko”en arabera (2022ko martxoan argitaratuak), 2020tik 2021era bitarte, agregatu ekonomiko handi guztiek BEGa handitu zuten, bai termino korranteetan, bai enpleguan, eta euskal ekonomia osoaren BPG % 8,1 hazi zen termino korranteetan, eta enplegua (dedikazio osoko baliokidetzan neurtuta) % 5,5.

Egiturari dagokionez, 2021ean lehen sektoreak, 521,5 milioi euroko BEGarekin eta 12.186 lanaldi osoko lanposturekin, BPG osoaren % 0,7 hartzen zuen uneko prezioetan, eta enplegu osoaren % 1,3 dedikazio osoko baliokidetzan. Industriaren sektoreak 16.824,5 milioi euroko BEGarekin eta 198.341 lanposturekin BPG osoaren % 21,8 eta guztizko enpleguaren % 20,9 osatzen zuen. Eraikuntza 4.024,4 milioi euroekin eta 61.295 lanposturekin BPG osoaren % 5,2 eta enplegu osoaren % 6,5 zen. Zerbitzu-sektorean 48.080,1 milioi euro eta 676.740 lanpostu zeuden, hau da, BPG osoaren % 62,2 eta enplegu osoaren % 71,3.

II.3.9. TAULA. BEG-REN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA EAE-N. AGREGATU MAKROEKONOMIKOAK										
	2020				2021				ALDAKUNTZA (%)	
	BPGd		ENPLEGUA		BPGd		ENPLEGUA		BPGd	ENPLEGUA
	MILA EURO	% BERTIKALA	PERTSONAK	% BERTIKALA	MILA EURO	% BERTIKALA	PERTSONAK	% BERTIKALA		
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	511.193	0,7	12.058	1,3	521.532	0,7	12.186	1,3	2,0	1,1
INDUSTRIA ETA ENERGIA	14.926.395	20,9	191.188	21,3	16.824.524	21,8	198.341	20,9	12,7	3,7
ERAIKUNTZA	3.872.257	5,4	58.235	6,5	4.024.395	5,2	61.295	6,5	3,9	5,3
ZERBITZUAK	45.426.222	63,5	637.960	70,9	48.080.092	62,2	676.740	71,3	5,8	6,1
BALIO ERANTSI GORDINA, oinarritzko prezioetan	64.736.067	90,5			69.450.543	89,8			7,3	
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	6.792.060	9,5			7.849.685	10,2			15,6	
BARNEKO PRODUKTU GORDINA merkatuko prezioetan	71.528.127	100,0	899.441	100,0	77.300.228	100,0	948.561	100,0	8,1	5,5

Iturria: EUSTAT, Hiruhileko Kontu Ekonomikoak. 2021eko martxoa

“Kontu Ekonomiko”en arabera, produkzioari eta enpleguari dagokionez, honako hauek dira industria-sektorearen adar nagusiak: metalurgia eta produktu metalikoak (2020ko BPGaren % 5,4 eta 2019ko enpleguaren % 7,4), garraio-materiala (% 2,5 eta % 2,1, hurrenez hurren) eta makineria eta ekipoa (% 2,4 eta % 2,4, hurrenez hurren).

Zerbitzuen sektorearen barruan, honako hauek nabarmentzen dira: ibilgailuen merkataritza eta konponketa (BPGren % 9,8 eta enpleguaren % 13,8), Garraioa eta biltegiatzea (% 4,3, eta % 4,7), Ostalaritza (% 3,1 eta % 6,3), Aholkularitza eta Jarduera teknikoak (% 4,2 eta % 4,7), Administrazio publikoa eta defentsa (% 5 eta % 6), Hezkuntza (% 5,3 eta % 7,8), Osasun-jarduerak (% 5,8 eta % 5,2).

Higiezin jarduerak BPGari egindako ekarpenetatik nabarmentzen dira (% 11,2), baina ez enpleguari egindako ekarpenetatik (% 0,6).

II.3.10. TAULA. EAren EKOIZPEN-EGITURA: JARDUERAK BPGd-an ETA GUZTIZKO ENPLEGUAN DUTEN PISUA						
		BPG 2020		ENPLEGUA 2019		
		MILA €-tan	% BERTIKALA	MILA €-tan	% BERTIKALA	
LEHEN SEKTOREA	1.	NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ARRANTZA	511.193	0,7	12.400	1,3
INDUSTRIA	2.	ERAUZKETA-INDUSTRIAK	29.921	0,0	400	0,0
	3.	ELIKAGAIEN INDUSTRIAK, EDARIAK, TABAKOA	980.687	1,4	14.808	1,5
	4.	EHUNGINTZA, EBAKETA, LARRUGINTZA ETA OINETAKOAK	81.237	0,1	2.146	0,2
	5.	ZURA, PAPEREA ETA ARTE GRAFIKOAK	678.481	0,9	11.191	1,2
	6.	KOKE-GAIK ETA PETROLIO-FINTZEA	52.134	0,1	899	0,1
	7.	INDUSTRIA KIMIKOA/8. FARMAZIAKO PRODUKTUAK	576.634	0,8	4.871	0,5
	8.	KAUTXUA, PLASTIKOAK ETA METALEZKOAK EZ DIREN BESTE PRODUKTU BATZUK	1.212.687	1,7	19.275	2,0
	9.	METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK	3.836.339	5,4	71.168	7,4
	10.	PRODUKTU INFORMATIKO ETA ELEKTRONIKOAK	430.558	0,6	7.405	0,8
	11.	MATERIAL ETA EKIPAMENDU ELEKTRIKOAK	585.618	0,8	9.247	1,0
	12.	MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	1.681.714	2,4	22.917	2,4
	13.	GARRAIORAKO MATERIALA	1.818.604	2,5	20.176	2,1
	14.	ALTZARIAK ETA BESTE MANUFATURA BATZUK	766.540	1,1	15.118	1,6
	15.	ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	1.712.282	2,4	2.063	0,2
	16.	UR-HORNIDURA ETA SANEAMENDUA	482.959	0,7	6.358	0,7
	ERAIKUNTZA	17.	ERAIKUNTZA	3.872.257	5,4	60.615
ZERBITZUAK	18.	MERKATARITZA; IBILGAILUEN KONPONKETA	7.043.054	9,8	132.317	13,8
	19.	GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	3.047.225	4,3	45.166	4,7
	20.	OSTALARITZA	2.197.537	3,1	60.586	6,3
	21.	EDIZIOA, IRUDIA, IRRATIA ETA TELEBISTA	316.498	0,4	5.472	0,6
	22.	TELEKOMUNIKAZIOAK	849.257	1,2	1.997	0,2
	23.	INFORMATIKA	898.200	1,3	14.789	1,5
	24.	FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	2.886.481	4,0	15.463	1,6
	25.	HIGIEZIN-JARDUERAK	8.018.605	11,2	5.514	0,6
	26.	AHOLKULARITZAK ETA BESTE JARDUERA TEKNIKO BATZUK	2.983.260	4,2	45.153	4,7
	27.	IKERKETA ETA GARAPENA	493.787	0,7	7.902	0,8
	28.	BESTE JARDUERA PROFESIONAL BATZUK	425.517	0,6	12.236	1,3
	29.	ZERBITZU OSAGARRIAK	1.914.644	2,7	64.917	6,8
	30.	ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA DEFENTSA	3.578.214	5,0	57.796	6,0
	31.	HEZKUNTZA	3.813.061	5,3	75.100	7,8
	32.	OSASUN-JARDUERAK	4.179.892	5,8	50.286	5,2
	33.	GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO JARDUERAK	788.203	1,1	29.977	3,1
	34.	AISIALDI- ETA KULTURA-JARDUERAK	652.838	0,9	15.132	1,6
	35.	BESTE ZERBITZU BATZUK	837.275	1,2	23.828	2,5
	36.	ETXEEN EKITALDIAK	502.674	0,7	30.123	3,1
	37.	LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	-	0,0	-	0,0
BEGa OINARRIZKO PREZIOETAN		64.736.067	90,5		0,0	
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK		6.792.060	9,5		0,0	
GUZTIRA		71.528.127	100,0	960.396	100,0	

Iturria: EUSTAT. Kontu ekonomikoak

3.3. LEHEN SEKTOREA

EUSTATen "Hiruhileroko Kontu Ekonomiko" en arabera, lehen sektoreko BEGaren batez besteko hazkundera, balio errealetan, 2020tik 2021era bitartean +% 1,8 izan zen, aurreko urtean izandako % 15eko jaitsieraren aldean.

Bestalde, enpleguak (dedikazio osoko baliokidetzan neurtua) % 1,1 egin zuen gora eta aurreko urtean % 2,8 egin zuen behera.

II.3.11. TAULA. ADIERAZLEAK LEHEN SEKTOREAN				
	2018	2019	2020	2021
BPG UNEKO PREZIOETAN (MILAKOTAN)	603.464	630.417	511.193	521.532
ENPLEGUA LOBetan	12.761	12.400	12.058	12.186
BEG ALDAKUNTZA (ERREALA)	5,9	-15,0	-15,0	1,8
ENPLEGUAREN ALDAKUNTZA	2,1	-2,8	-2,8	1,1

*Lanaldi osoaren baliokideak
Iturria: EUSTAT, Hiruhileko Kontu Ekonomikoak. 2022ko martxoa

3.4. INDUSTRIA

3.4.1. Industria-sektorearen bilakaera orokorra

EUSTATen “Hiruhileroko Kontu Ekonomikoek” erakusten dutenez, balio errealetan industriako BEGa murriztu egin zen, % 1,1, 2021eko lehen hiruhilekoan 2020ko hiruhileko beraren aldean, eta une horretatik aurrera suspertzen hasi zen. Horrela, 2021eko bigarren hiruhilekoan, 2020ko aldi beraren aldean (konfinamendu zorrotza eta funtsezkoak ez diren jardueren etetea) % 30eko hazkundera izan zen, hirugarrenean % 5,5ekoa eta laugarrenean % 4,3koa.


II.3.12. TAULA. INDUSTRIA-SEKTOREKO ADIERAZLEAK. EAE.					
	PREZIO ARRUNTEN BEGa (MILIOIAK)	BOLUMEN- INDIZEA KATEATUA BASE 2015	ENPLEGUA LOBetan	BEG	ENPLEGUAREN
				ALDAKUNTZA (ERREALA)	ALDAKUNTZA
				URTE ARTEKO	ALDAKUNTZA
2019	17.080.632	110,6	208.042	1,4	0,8
2020	14.926.395	98,2	191.188	-11,2	-8,1
2021	16.824.524	106,6	198.341	8,5	3,7

**Lanaldi osoaren baliokideak
Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak. 2022ko martxoa*

2020tik 2021era bitartean, industriako BEGak % 8,5eko batez besteko hazkundera izan du, balio errealetan, aurreko urtean izandako % 11,2ko jaitsieraren aldean. Manufaktura-industriaren batez besteko hazkundera are handiagoa izan zen (+% 9,2).

EAEko industriako BEGaren urteko batez besteko hazkunde hori Estatuan erregistratutakoa baino handiagoa zen; izan ere, EINn arabera, % +5,2ra iritsi zen.

Enpleguari dagokionez, dedikazio osoko baliokidetzan neurtuta, % 3,6 jaitzi zen, urte artean, 2021eko lehen hiruhilekoan, eta une horretatik aurrera hazten hasi zen: % 15,6, bigarren hiruhilekoan; % 2,5, hirugarrenean; eta % 2,3, laugarrenean, Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera. Urte osoan, batez beste, % 3,7ko hazkundera izan zen, eta aurreko urtean, berriz, % 8,1ekoa.




3.4.2. Industria Produkzioaren Indizea eta Industriako Prezioen Indizea. 2021

EUSTATen “Industri Produkzioaren Indizea” (IPI) koitunturazko adierazlea da, eta BEG Industrialaren bolumenak faktoreen kostuan izandako bilakaera neurtzen saiatzen da.

Pandemiaren ondorioz 2020an gertatutako egoeraren ondoren, EAEko industria-jarduerak gora egin zuen 2021eko martxoan, eta % 12,8 hazi zen 2020ko martxoarekin alderatuta, II.3.4 GRAFIKOan erakusten den bezala. Kontuan izan

behar da 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera ezarri zela COVID19aren pandemiari aurre egiteko, industria-jardueraren zati handi baten garapena mugatu baitzuen²².



Horrela, 2021eko abenduan, EAEko industria-jardueraren hazkundera, 2020ko abenduaren aldean, +%10,5ekoa izan zen; aurreko aldian, aldiz, -%13,4koa izan zen. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak izan zuen hazkunderik handiena (+%12,9), ondoren Bizkaia (+%9,5) eta ondoren Araba (+%8).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera²³, hazkundera (abendua-abendua) % 13,3koa izan zen Ekipo-ondasunetan, % 10,4koa Bitarteko ondasunetan eta % 0,3koa Energian. Kontsumo-ondasunek, bestalde, % 11,9ko igoerarekin itxi zuten urtea; Kontsumo-ondasun iraunkorren kasuan % 33,1eko igoera izan zen, eta Kontsumo-ondasun ez iraunkorren kasuan % 7,5ekoa.

Sektoreen araberrako azterketak erakusten zuen igoerarik handienak Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoetan (% 33,3), Altzariak eta bestelako manufakturretan (% 27,3) eta Farmazia-produktuetan (% 15,1) izan zirela.

EAEko hiru azpisektore industrial garrantzitsuenek aldakuntza positiboak zituzten, baina zenbateko desberdinekoak. Hala, Makinak eta ekipoen IPIa % 14,9 igo zen, Metalurgiarena % 12,3 eta Garraio-materialarena % 10,5. Lehenengo biak industria osoaren batez bestekoaren gainetik hazi ziren (% 10,5), baina garraioaren adar materialaren hazkundera batez bestekoan kokatu zen.

²² Egutegi-efektuak zuzentzeko eta serieak desestazionalizatzeke erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estadistika Bulegoak (Eurostat) "Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis" ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

²³ Kontsumo-ondasun iraunkorren fabrikazioa: altzarien, etxeko tresnen edo produktu elektronikoen fabrikazioa hartzen ditu. Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren fabrikazioa: besteak beste, elikagaiak fabrikatzea, prozesatzea eta kontserbatzea, garbiketarako eta higienarako produktuak fabrikatzea eta jantziak egitea. Ekipamendu-ondasunen fabrikazioa: ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialaren eraikuntza edo aeronautika- edo ontzigintza-eraikuntza. Bitarteko ondasunen fabrikazioa: metalurgiako eta metalezko produktuen fabrikazioko jarduerak, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa. Energia: jarduera aipagarrienen artean energia elektrikoaren hornidura eta petrolio finketa daude.

**II.3.13. TAULA. IPiren BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ETA ONDASUNEN DESTINO EKONOMIKOAREN ARABERA.
2015ko OINARRIA. DATU ZUZENDUAK. URTETIK URTERAKO GEHIKUNTZA METATUA. ABENDUKO DATUAK**

	EAE, GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOAK			ONDASUNEN XEDE EKONOMIKOA					
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	KONTSUMO-ONDASUNAK			EKIPAMENDU- ONDASUNAK	BITARTEKO ONDASUNAK	ENERGIA
					GUZTIRA	IRAUNKORRA	EZ- IRAUNKORRA			
2016-12	2,9	8,9	1,5	0,6	1,6	2,6	1,4	8,5	2,3	-3,6
2017-12	5,9	5,6	6,3	5,8	5,4	12,1	4	3,2	7,8	3
2028-12	2,2	-0,8	0,9	5,5	4,9	4,1	5,1	4,2	0,5	1,4
2019-12	1,6	-1,6	4,4	0,9	2,8	2,9	2,8	2	0,1	5,6
2020-12	-13,4	-13,4	-15,9	-10,7	-6,6	-13,3	-5,1	-12,5	-15,4	-11,9
2021-12	10,5	8	9,5	12,9	11,9	33,1	7,5	13,3	10,4	0,3

Iturria: EUSTAT IPI (2022ko martxoko datuak)

II.3.14. TAULA. IET-REN BILAKAERA JARDUERA-ADARREN ARABERA

2015ko OINARRIA. DATU ZUZENDUAK. URTETIK URTERAKO GEHIKUNTZA METATUA. ABENDUKO DATUAK

	2016-12	2017-12	2018-12	2019-12	2020-12	2021-12
IPI	2,9	5,9	2,2	1,6	-13,4	10,5
02. ERAUZKETA-INDUSTRIAK	-18,9	-2,6	13,6	-2,5	2,3	4
03. ELIKAGAIEN INDUSTRIAK, EDARIAK, TABAKOA	0,9	5,9	7,2	0,1	-7,3	7,1
04. EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA, LARRUGINTZA ETA OINETAKOAK	3	2,8	-7,7	2,1	-20,9	33,3
05. ZURA, PAPEREA ETA ARTE GRAFIKOAK	0,4	1,5	0,5	3	-6,6	3,9
06. KOKE-GAIK ETA PETROLIO-FINTZEA	-0,5	2,3	9,7	-15,3	-15,9	-0,1
07. INDUSTRIA KIMIKOA	1,6	7,2	0,6	-2,7	-9,6	14
08. FARMAZIAKO PRODUKTUAK	6,2	-2,4	2,5	27,5	10,1	15,1
09. KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	4,7	8,6	0,1	1,8	-13,5	11
10. METALURGIA	1,9	8	0	0	-20,1	12,3
11. PRODUK. INFORMATIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK	-3,5	17,4	8,3	-3,4	-9,9	-4,1
12. MATERIAL ETA EKIPAMENDU ELEKTRIKOA	-2	2	6,4	5,6	-9,3	6
13. MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	2,3	0,4	4	1	-7,3	14,9
14. GARRAIORAKO MATERIALA	20,3	6,5	3,9	0,8	-15,3	10,5
15. ALTZARIAK ETA BESTE MANUFATURA BATZUK	6,3	3,1	3,3	3,9	-7,2	27,3
16. ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	-5,2	3,9	-1,5	14,7	-12	0,6
17. URA	-1,1	-0,2	0,5	1,5	-0,1	-2,8

Iturria: EUSTAT IPI (2022ko martxoko datuak)

EUSTATen “*Industria-prezioen Indizea*”, produktuen merkaturatzearen lehen urratsean industria-prezioen bilakaeraren koiunturazko adierazlea, hau da, ekoizleak transakzio batean benetan jasotako prezioen adierazlea, zeharkako zergak eta dirulaguntzen zerga garbiak, baleude, sartu gabe, gure erkidegoan % 12,7ko igoera izan zuen 2020ko abendutik 2021eko abendura bitartean (2015eko oinarria).

Hazkunderik handienak: Koke-gaiak eta petrolio fintzea (+% 37,4), Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (+% 28,4), Metalurgia eta produktu metalikoak (+% 16,1) eta Industria kimikoa (+% 13,6). Eta Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoetan (-% 3,4) eta Garraio-materialean (-% 2,3) beherakadak izan dira:

Manufaktura-industriaren barruan, eta EAEko hiru azpisektore nagusienetako bakoitzari erreparatuz, Metalurgia eta produktu metalikoak eta Makinak eta ekipoa azpisektoreen prezioek gora egin zuten, +% 16,1 eta +% 2,5 hurrenez hurren; Garraio-materialak % 2,3 egin zuen behera.

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, guztiek izan zituzten aldakuntza positiboak prezioetan, eta bereziki nabarmentzekoa zen energiaren prezioaren igoera (+%36). Ondoren, bitarteko kontsumo-ondasunak (+% 11), kontsumo-ondasunak (+% 2,3) eta ekipo-ondasunak (+% 1,8) zeuden.

II.3.15. TAULA. IPRI, ONDASUNEN DESTINO EKONOMIKOA ETA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA 2015ko OINARRIA. CNAE-2009 (AURREKO ABENDUAREKIKO ALDAKUNTZA)

	2016-12	2017-12	2018-12	2019-12	2020-12	2021-12
INDIZE OROKORRA	0,2	2,4	1,3	1,7	-1,9	12,7
ONDASUNEN XEDE EKONOMIKOA						
KONTSUMO-ONDASUNAK	2,2	-0,1	1,9	1,2	2,9	2,3
---KONTSUMO IRAUNKORREKO ONDASUNAK	-0,6	2,4	-0,2	2	0,9	2,2
---KONTSUMO EZ IRAUNKORREKO ONDASUNAK	2,7	-0,5	2,2	1	3,3	2,3
EKIPAMENDU-ONDASUNAK	1,1	2,8	1,3	1,7	0,6	1,8
BITARTEKO ONDASUNAK	-0,5	2,8	1,4	-0,2	0,9	11
ENERGIA	1,4	2,7	1	7,1	-12,9	36
JARDUERA SEKTOREAK						
-ERAUZKETA-INDUSTRIAK	-1,1	-4,5	6,4	3,4	1,1	3,9
--ERAUZKETA-INDUSTRIAK	-1,1	-4,5	6,4	3,4	1,1	3,9
-MANUFATURA-INDUSTRIA	1,5	2,5	1	1,8	-1,8	10,4
--ELIKAGAIEN INDUSTRIAK, EDARIAK, TABAKOA	2,2	-0,1	1,8	0,7	3	2,3
--EHUNGINTZA, EBAKETA, LARRUGINTZA ETA OINETAKOAK	1,3	-1	6,3	0,9	-4,2	-3,4
--ZURA, PAPERA ETA ARTE GRAFIKOAK	-0,5	2,7	3,9	-0,8	-2,9	12,4
--KOKE-GAIK ETA PETROLIO-FINTZEA	11,8	2,9	-1,1	11,1	-20,5	37,4
--INDUSTRIA KIMIKOA	0,8	2,8	5,6	-1,2	1,6	13,6
--FARMAZIAKO PRODUKTUAK	1,3	6,1	2,6	-1,4	1,3	2,3
--KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	-3,5	0,7	0,2	0,7	0,7	2,8
--METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK	-0,1	4,4	1,2	-0,7	1,6	16,1
--PRODUKTU INFORMATIKO ETA ELEKTRONIKOAK	2,3	1,8	-2,1	3	4,7	7,8
--MATERIAL ETA EKIPAMENDU ELEKTRIKOAK	0,4	0,4	0,1	2,4	1,5	2,5
--MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	0,9	3,2	2,1	0,7	-3,7	2,5
--GARRAIORAKO MATERIALA	1,6	0,8	0,1	2,2	3,2	-2,3
--ALTZARIAK ETA BESTE MANUFATURA BATZUK	-0,5	3,1	1,5	2,3	-0,2	2,9
-ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	-7,4	2	2,8	1,3	-2,9	28,4
--ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	-7,4	2	2,8	1,3	-2,9	28,4
-URA	3	2,3	3,2	0	4,8	1,5
--URA	3	2,3	3,2	0	4,8	1,5

Iturria: EUSTAT. IPRI. (2022ko maiatzeko datuak)

3.4.3. Estatistika industrialaren emaitza nagusiak. 2020ko datuak, pandemiaren hasiera-urtea

2020an, industriaren jarduerak eragin handia izan zuen. EUSTATen datuen arabera, Euskadiko industrian okupatutako pertsonen kopurua % 3 jaitsi zen aurreko urtearen aldean, eta azken urteetan mantendu zen joera positiboa eten egin zen. 200.699 pertsona enplegatu ziren guztira, 2019an baino sei mila pertsona pasatxo gutxiago, bost urteko hazkunde jarraituaren ondoren.

Negozio-zifra 49.005,7 milioi eurokoa izan zen uneko prezioetan 2020an. Diru-sarreraren bolumen hori 2019koa baino % 18,2 txikiagoa zen, eta kopururik txikiena 2005etik.

Faktoreen kostuko balio erantsi gordina (BEG fk)²⁴ 13.073 milioi eurokoa izan zen, 2019an lortutakoa baino % 14,5 txikiagoa, sei urteko hazkunde-aldia geldituz, eta adierazle hori 2015ean erregistratutakoaren antzeko zifretan kokatuz.

Zifra horiekin bat etorritik, ustiapenaren edo zerga aurreko mozkinaren emaitza 2.557,6 milioi eurotik 1.077,6 milioi eurora jaitsi zen. Kontzeptualki, ustiapen-emaitzak adierazten du ea enpresa batek galerak edo mozkinak dituen ekitaldi baten amaieran, bere jarduerari dagokionez. Nahiz eta handia izan, ustiapen-emaitzaren beherakada 2020an 2009an erregistratutakoaren antzekoa zen, edo berriagoa, 2013koa.

²⁴ Ondasunen eta zerbitzuen guztizko produkzioaren balio ekonomikoak adierazten duen adierazle makroekonomikoa, ekoizpen horretarako beharrezkoak izan diren inputak eta zeharkako zergak kenduta.

Manufaktura-industiaren barruan, eta EAEko funtsezko hiru industria-azpisektoreetako bakoitzari erreparatuta, honako hau dugu:

- Metalurgia eta produktu metalikoak (BEG fk-aren % 27,4, enpleguaren % 33,2 eta salmenten % 23,9), hurrenez hurren, % 14,5, % 4,4 eta % 25,1 jaitsi ziren, 2019. urtearen aldean.
- Garraio-materialak ere behera egin zuten (BEG fk-aren % 11,1, langileen % 9,7 eta salmenten % 15,3), bai BEG fk-a, bai enplegua eta inbertsioa, hurrenez hurren, % 17,2, % 4,4 eta % 41,5, 2019. urtearen aldean.
- Makineria eta ekipoa (BEG fk-aren % 11,1, langileen % 11,1 eta salmenten % 9,3), halaber, murriztu egin ziren BEG fk-an, enpleguan eta inbertsioan, hurrenez hurren, % 10,2, % 3,4 eta % 4,1 2019. urtearen aldean.


Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntzaren sektorea nabarmendu behar zen, industriaren balio erantsi osoaren % 10,1 baitzen, bertan lan egiten zuten pertsona guztien % 1,1 bakarrik; metalezko produktuen fabrikazioak eta makineriaren eta ekipoen fabrikazioak, berriz, beren balio erantsiarekin bat zetozen ehunekoak zituzten, enplegu guztien % 33,2 eta % 11,1, hain zuzen ere.

II.3.16. TAULA. INDUSTRIAREN SEKTOREKO MAGNITUDEAK ATALEN ARABERA

	Banaketaren % (Industria = 100) 2020					Zerga aurreko emaitzak*	Aldakuntza 2019/20				
	BEG ald.	Enplegua	Inbertsioa	Negozio-zifra			BEG ald.	Enplegua	Inbertsioa	Negozio-zifra	Zerga aurreko emaitzak
Industria, guztira	100	100	100	100	100	100					
Mila eurotan eta enplegua pertsonengan	13.073.105 Mila	200.699 pertsonak	1.781.312 Mila	49.005.694 Mila	1.077.627 Mila		-14,5	-3,0	-13,3	-18,2	-57,9
B atala	Erauzketa-industria	0,3	0,2	0,0	0,2	0,2	-8,7	-3,0	-1702,1	-27,5	-133,0
C atala. Manufaktura-industria	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	6,2	7,4	7,9	7,9	-0,4	-17,0	-3,2	-13,6	-19,1	97,0
	Ehngintza, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	0,5	1,2	0,4	0,4	0,3	-29,8	-1,8	174,9	-25,5	-70,4
	Zura, papera eta arte grafikoak	4,6	5,6	7,1	4,1	-0,5	-18,5	-2,8	25,9	-15,0	-132,4
	Koke-gaiak eta petrolio-fintzea	-0,8	0,5	0,8	7,1	1,1	-135,4	-1,0	-89,2	-40,0	-44,5
	Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoen fabrikazioa	4,2	2,4	5,6	3,2	1,7	4,5	3,3	63,7	-8,9	-66,1
	Kautxua eta plastikoa	7,4	6,8	6,7	6,0	9,8	-14,0	-3,6	-32,4	-15,2	-32,0
	Metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralak	2,5	2,4	3,0	1,9	1,1	-10,4	-2,2	6,6	-11,1	-44,6
	*Metalurgia eta metalezko produktuak	27,4	33,2	25,7	23,9	2,5	-14,5	-4,4	-25,1	-19,4	-41,1
	Produktu informatiko eta elektronikoak eta optikoak	2,5	3,3	1,8	1,9	5,7	-16,2	-5,3	-40,2	-16,7	-46,9
	Material eta ekipo elektrikoak, etxeko tresna (elektrikoak) barne	4,0	4,5	2,3	3,6	0,5	-0,2	-1,5	0,8	0,1	-73,6
	Makinak eta ekipamendua	11,1	11,1	7,8	9,3	-20,8	-10,2	-3,4	4,1	-12,7	-265,3
	Garraiorako materiala	11,1	9,7	6,8	15,3	5,9	-17,2	-4,1	-41,5	-17,4	-42,8
	Altzariak eta beste manufaktura batzuk	5,2	7,2	1,2	3,4	13,6	1,4	0,2	-37,6	1,7	20,5
D atala	Energia elektrikoak, gasa eta lurruna	10,1	1,1	12,1	9,5	11,2	-11,2	3,2	16,9	-18,8	-46,5
E atala	Ur-hornidura eta saneamendua	3,8	3,4	10,8	2,2	5,1	-7,6	2,1	80,3	-7,2	-30,8


*Operazio horien ustiapen eta finantza emaitza barne
Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika

II.3.5. GRAFIKOA. INDUSTRIAKO BEGAREN BANAKETA SEKTOREEN ARABERA, 2020



Iturria: EUSTAT

II.3.5. GRAFIKOA. INDUSTRIAKO BEGAREN BANAKETA SEKTOREEN ARABERA, 2020



Iturria: EUSTAT

II.3.17. TAULA. EAEKO MANUFATURA-INDUSTRIAKO HIRU JARDUERA-SEKTORE NAGUSIEN BEG FAKTOREEN ETA ENPLEGUAREN KOSTUAREN ARABERA

	ENPLEGUA			FAKTOREEN KOSTUAREN BEG		
	2019	2020	Ald.	2019	2020	Ald.
METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK	69.738	66.666	-4,4	4.185.179	3.576.649	-14,5
25/26 SIDERURGIA/BURDINAZKOAK EZ DIREN METALEN EKOIZPENA	9.753	9.296	-4,7	729.233	603.250	-17,3
27 - METALEN GALDAKETA	6.963	6.532	-6,2	429.968	359.140	-16,5
28 - METALEZKO ERAIKUNTZA	10.016	9.444	-5,7	486.801	429.214	-11,8
29 - FORJAKETA ETA ESTANPAZIOA	7.057	6.757	-4,3	467.685	429.295	-8,2
30 - INGENIARITZA MEKANIKOA	20.610	20.161	-2,2	1.154.476	964.775	-16,4
31 - METALEZKO ARTIKULUAK	15.339	14.476	-5,6	917.016	790.975	-13,7
MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	23.008	22.228	-3,4	1.609.467	1.444.763	-10,2
35 - ERABILERA OROKORREKO MAKINAK	18.794	18.129	-3,5	1.333.728	1.209.128	-9,3
36 - MAKINA-ERREMINTAK	4.214	4.099	-2,7	275.739	235.635	-14,5
GARRAIORAKO MATERIALA	20.397	19.551	-4,1	1.748.857	1.447.450	-17,2
37 - IBILGAILU MOTORDUNAK FABRIKATZEA	12.806	12.216	-4,6	980.273	822.015	-16,1
38 - ONTZIGINTZA	460	427	-7,2	20.328	14.062	-30,8
39 - GARRAIORAKO BESTELAKO MATERIALA	7.131	6.908	-3,1	748.256	611.373	-18,3

Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika

Maila teknologiko ertain eta altuko produktuen protagonismoa²⁵ etengabe hazi zen urteetan zehar, eta 2020an salmenten % 33,8, langile okupatuen % 32,1 eta balio erantsiaren % 33,9 bereganatu zituen. 2015ean, ehunekoak % 27 ziren salmentetan, eta % 30 inguru landunetan eta balio erantsietan.

²⁵ ELGEren sailkapenaren arabera (EUSTATEk erabiltzen duena), maila teknologiko altuak hartzen ditu 1. Farmazia-produktuen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa, eta 3. Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala. Maila ertain-altuan daude 4. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektronikoen fabrikazioa, makinaren eta ekipoen fabrikazioa, ibilgailuen fabrikazioa, 7. Beste garraio-material batzuen fabrikazioa, ontzigitza eta aeronautika-eraikuntza izan ezik, eta 8. Tresna eta hornidura mediko eta odontologikoen fabrikazioa. Ertain-baxuak hartzen ditu 9. Euskarri grabatuaren erreproduktzioa, 10. Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak, 11. Kautzuko eta plastikozko produktuen fabrikazioa, Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzigitza, eta 14. Makineria eta tresneria konpontzea eta instalatzea. Baxuak hartzen ditu 15. Elikagaien, edarien, tabakoaren, ehungintzaren eta jantzigintzaren industria. Larrugintza eta zapatagintza. Zuraren, paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarigintza, 18. Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19. Sailkatu gabe.

II.3.18. TAULA. INDUSTRIAK EAE-N DUEN EDUKI TEKNOLOGIKOEA ELGA-REN SEKTOREEN ARABERA.
(GUZTIZKOAREN GAINEAN DUTEN PISUA)

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
LANA DUTEN LANGILEAK						
GUZTIRA (KOPURUA)	194.458	198.141	203.497	206.349	207.004	200.699
TEKNOLOGI EDUKI HANDIA	4,8	4,7	4,8	4,9	5,1	5,0
TEKNOLOGI EDUKI ERTAIN-HANDIA	25,7	26,4	26,2	26,9	27,0	27,1
TEKNOLOGI EDUKI ERTAIN-TXIKIA	47,8	47,4	47,4	46,9	46,9	46,7
TEKNOLOGI EDUKI TXIKIA	17,3	17,0	16,9	16,8	16,6	16,6
SAILKATU GABE	4,4	4,5	4,6	4,5	4,4	4,7
BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREN ARABERA						
GUZTIRA (KOPURUA)	13.542.946	14.154.616	14.443.320	15.084.027	15.295.361	13.073.105
TEKNOLOGI EDUKI HANDIA	4,8	4,9	5,1	4,8	5,8	5,6
TEKNOLOGI EDUKI ERTAIN-HANDIA	25,9	26,1	26,4	26,5	26,4	28,3
TEKNOLOGI EDUKI ERTAIN-TXIKIA	42,5	42,5	42,5	42,4	41,3	39,1
TEKNOLOGI EDUKI TXIKIA	13,5	13,1	13,4	13,1	13,2	12,9
SAILKATU GABE	13,4	13,5	12,6	13,1	13,4	14,1
SALMENTA GARBIAK						
GUZTIRA (MILA EUROTAN)	54.890.865	53.574.121	56.490.135	60.308.597	59.903.623	49.005.694
TEKNOLOGI EDUKI HANDIA	3,5	4,0	4,2	4,0	4,6	4,3
TEKNOLOGI EDUKI ERTAIN-HANDIA	23,5	26,3	26,3	26,0	27,1	29,5
TEKNOLOGI EDUKI ERTAIN-TXIKIA	43,6	41,9	43,5	44,8	43,0	40,6
TEKNOLOGI EDUKI TXIKIA	13,6	13,6	13,7	13,4	13,5	13,7
SAILKATU GABE	15,8	14,2	12,4	11,7	11,8	12,0

Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika

3.5. ERAIKUNTZA

3.5.1. Eraikuntzaren sektorearen bilakaera


EUSTATen “Hiruhileroko Kontu Ekonomiko”ek erakusten dutenez, balio errealetan eraikuntzaren BEG murriztu egin zen, % 2,4 2021eko lehen hiruhilekoan 2020ko hiruhileko beraren aldean, eta une horretatik aurrera suspertzen hasi zen. Horrela, 2021eko bigarren hiruhilekoan, 2020ko aldi beraren aldean hazkundea % 11,5ekoa izan zen, hirugarrenean % 1,3koa eta laugarrenean % 0,5ekoa. 2021. urte osoan, balio errealetan, % 2,4ko batez besteko hazkundea erregistratu zen, aurreko urteko % 8,2ko jaitsieraren aldean.

Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko baliokidetzan neurtuta, % 1,2 jaitsi zen, urte artean, 2021eko lehen hiruhilekoan, eta produkzioaren kasuan bezala, hazten hasi zen une horretatik aurrera: % 17,8 bigarren hiruhilekoan, % 2,6 hirugarrenean eta % 3,1 laugarrenean, Hiruhileko Kontuen arabera. Urte osoan % 5,3ko batez besteko hazkundea izan zen, aurreko urteko % 3,9ko jaitsieraren aldean.

EUSTATen “Eraikuntzaren Koiunturako Indizea”²⁶ (EKI) izeneko urteko balantzeak, eraikuntzaren sektoreko produkzioaren eta enpleguaren bilakaera zenbatesten duen koiunturazko adierazlea, urte arteko % 7,2ko hazkundea erakusten du, lan-egutegiko termino homogeneoetan, eraikuntzan % 7,8 eta obra zibilean % 3,6.

²⁶ Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, berezia edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko —eskolak, siloak, eta abar— egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena).

II.3.7. GRAFIKOA. ERAIKUNTZA-SEKTOREAREN BILAKAERA



Iturria: CET. EUSTAT

II.3.19. TAULA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO ADIERAZLEAK

	HIRUHILEKOKO KONTU EKONOMIKOAK DATU ZUZENDUAK.					ERAIKUNTZAREN INDIZE KOIUNTURALA DATU ZUZENDUAK. EGUNEKO PREZIOAK. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA		
	PREZIO ARRUNTEN BEGa (MILIOIAK)	BOLUMEN- INDIZEA KATEATUA BASE 2015	ENPLEGUA LOBetan	BEG ALDAKUNTZA (ERREALA)	ENPLEGUAREN ALDAKUNTZA	GUZTIRA	ERAIKUNTZA	OBRA ZIBILA
				URTE ARTEKO ALDAKUNTZA				
2019	4.190.915	108,4	60.615	2,4	4,1	8,7	9,2	5,7
2020	3.872.257	99,5	58.235	-8,2	-3,9	-8,1	-8,4	-6,1
2021	4.024.395	101,9	61.295	2,4	5,3	7,2	7,8	3,6

**Lanaldi osoaren baliokideak*
Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta Eraikuntzaren Indize Koiunturala

3.5.2. Eraikuntza kostuen indizea

EUSTATen "Eraikuntzaren Kostuen Indizea" (Eeki) eraikuntzaren sektorearen kostu osoak jarraitutako bilakaera neurtzen du. Kostu hori bitarteko kontsumoen, langileen kostuen eta ustiapeneko soberakinaren baturatzat hartzen zen, eta bitarteko kontsumoen kostuaren indizearen eta lan-eskuaren kostuaren indizearen bilakaeraren bidez kalkulatzen da.

2020ko abendutik 2021eko abendura bitartean, eraikuntzaren kostuak % 5,6 gehitu ziren, lehengaienak % 6,8 eta lan-eskuarenak % 1,9.

Eraikuntza eta Obra Zibila bereizten baditugu, ikusiko dugu eraikuntzakoak % 5,2 gehitu zirela, eta obra zibilekoak, berriz, % 7,6.

II.3.20. TAULA. EAE-KO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA (AURREKO ABENDUAREKIKO ALDAKUNTZA)

	KOSTUAK			LEHENGAIEN PREZIOAK			LAN- ESKUAREN KOSTUA
	GUZTI- RA	ERAIKUN- TZA	OBRA ZIBILA	GUZTI- RA	ERAI- KUNTZA	OBRA ZIBILA	
2019-12	2,2	2	2,9	2,2	2	3,1	2,3
2020-12	1	1,3	-0,3	0,7	1,1	-1	1,8
2021-12	5,6	5,2	7,6	6,8	6,2	9,4	1,9

Iturria: EUSTAT. EKI

3.6. ZERBITZUAK


2021ean, izandako berragerraldien arabera, hainbat murrizketa-neurri hartu ziren, ekonomian eta, bereziki, zerbitzuen sektorean eragina izan zutenak. Horien artean aipatzekoak dira perimetro-itxiera, ostalaritzaren barruko ordutegi-murrizketak, kiroleko gehieneko multzoen murrizketa edo COVID pasaporteak²⁷.

3.6.1. Zerbitzu-sektorearen bilakaera orokorra

EUSTATen “Hiruhileroko Kontu Ekonomiko”ek erakusten dutenez, balio errealetan, zerbitzuen sektoreko BEG murriztu egin zen, % 3,5 2021eko lehen hiruhilekoan 2020ko hiruhileko beraren aldean, eta une horretatik aurrera suspertzen hasi zen. Horrela, 2021eko bigarren hiruhilekoan, 2020ko aldi beraren aldean hazkundea % 15,5koa izan zen, hirugarrenean % 4koa eta laugarrenean % 5,4koa.

Hala, urte osoan, balio errealetan, % 5eko batez besteko hazkundea erregistratu zen, aurreko urtean izandako % 9ko jaitsieraren aldean. Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuen taldeak barne hartzen dituen jarduerak % 2,5eko urte arteko hazkundea izan zuten (+%1,6 2020an). Jarduera pribatuak, bereziki Merkataritza, garraio eta ostalaritzako jarduerak, 2020an % 12,1 jaitsi zirenak, % 8,9 hazi ziren 2021ean, nahiz eta 2021ean jarduera murriztu egin zen izandako agerraldiak geldiarazteko hartutako neurrien ondorioz. Bestalde, Gainerako zerbitzuen adarreko jarduerak (higiezinen, profesionalen, zientifiko eta tekniko jarduerak, bai eta finantza- eta aseguru-jarduerak ere) % 4,1eko hazkundea izan zuten, 2020an izandako % 8,6ko jaitsieraren aldean.

Enpleguari dagokionez, urte osoan % 6,1eko batez besteko hazkundea erregistratu zen, aurreko urteko % 8ko jaitsieraren aldean.



²⁷ 2021ean izandako olatu pandemikoen eta neurri murriztaileen bilakaeraren ikuspegi lortzeko, ikus V.3 kapituluko (Osasuna eta osasun-sistema) 3.1.1 epigrafea - COVID-19aren memoria Euskadin: olatu epidemikoak.

II.3.21. TAULA. ZERBITZU-SEKTOREAREN BILAKAERA. EAE.								
	BEG EGUNEKO PREZIOAK	LANPOSTUAK (lanaldi osoaren baliokideak)	ZERBITZUEN BEGa BOLUMEN-INDIZEA URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. DATU ZUZENDUAK.				LANPOSTU-ALDAKUNTZA (lanaldi osoaren baliokideak)	
			GUZTIRA	MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA GARRAIOAK	AD. PUBLIKOA, HEZK., OSASUNA ETA GIZ. ZERB.	GAINERAKO ZERBITZUAK		
2019	49.629.954	693.754	2,5	2,2	3,2	2,4	1,6	
2020	45.426.222	637.960	-9,0	-12,1	1,6	-8,6	-8,0	
2021	48.426.222	676.740	5,0	8,9	2,5	4,1	6,1	

Iturria: EUSTAT. 2022ko martxoa


3.6.2. EAEko zerbitzu-sektorearen egitura

Atal honetan gure erkidegoko zerbitzuen sektorearen egitura aztertzen da. Kontuan izan behar da enpleguari dagokionez argitaratutako azken datuak 2019. urtekoak direla, eta 2020. urteko BEGari dagokionez (COVID-19 pandemiaren hasierako urtea).


BPG arruntari dagokionez, hauek nabarmendu ziren 2019an: Higiezinak jarduerak (EAEko zerbitzu-sektorearen % 16,6), Ibilgailuen merkataritza eta konponketa (% 15,2), Osasun-jarduerak (% 8,1), Ostalaritza (% 7,8), Hezkuntza (% 7,6) eta Garraioa eta biltegiatzea (% 7,3). Eta 2020an: Higiezinak jarduerak (% 17,7), Ibilgailuen merkataritza eta konponketa (% 15,5), Osasun-jarduerak (% 9,2), Hezkuntza (% 8,4), Administrazio publikoa (% 7,9) eta Garraioa eta biltegiatzea (% 6,7). Espero litekeen bezala, agerian geratzen zen ostalaritzaren BPGren pisu-galera, pandemian izandako murrizketen ondorioz.

Enpleguari dagokionez, honako hauek nabarmentzen ziren 2019an: Ibilgailuen merkataritza eta konponketa (zerbitzu-sektoreko enpleguaren % 19,1), Hezkuntza (% 10,8), Zerbitzu osagarriak (% 9,4), Ostalaritza (% 8,7), Administrazio publikoa eta defentsa (% 8,3) eta Osasun-jarduerak (% 7,2).

II.3.9. GRAFIKOA ZERBITZU-SEKTOREKO BPG-AREN BANAKETA SEKTOREEN ARABERA, 2020



II.3.10. GRAFIKOA ZERBITZU-SEKTOREKO ENPLEGUAREN BANAKETA SEKTOREEN ARABERA, 2019



2015 eta 2019 bitartean, BPGaren urteko batez besteko aldakuntza-tasa +% 2.9koa izan zen. Hona hemen BPGd-aren hazkunderik handienak: Ostalaritza (+% 5,3, urteko batez besteko tasa), Jolas- eta kultura-jarduerak eta Informatika (bi adarrak +% 4,9), Zerbitzu osagarriak (+% 4,7) eta I+G (% 4,2).

Enpleguari dagokionez, 2015 eta 2019 artean hauek izan zituzten hazkunderik handienak: Gizarte-zerbitzuetako jarduerak (+% 4,5, urteko batez besteko tasa), Jolas- eta kultura-jarduerak (+% 4,2), Informatika (+% 3,4) eta Zerbitzu osagarriak eta Hezkuntza (horietako bakoitza +% 3,3).

Zerbitzuen sektoreko prezioen urteko batez besteko aldakuntza, 2015 eta 2019 artean, % 1,2 izan zen.

II.3.22. TAULA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA EAE-N									
	BPG KORRONTEA (ZERBITZU-SEKTOREKO BEG-AREN GAINEKO %-A)			ENPLEGUA (ZERBITZU-SEKTOREKO ENPLEGUAREKIKO %-A)			BPG*	PREZIOAK	ENPLEGUA
	2018	2019	2020	2017	2018	2019	2016-20	2015-19	
9. MERKATARITZA; IBILGAILUEN KONPONKETA	15,5	15,2	15,5	19,5	19,3	19,1	2,5	-1,9	1,2
20. GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	7,3	7,3	6,7	6,5	6,5	6,5	4,1	-4,7	2,4
21. OSTALARITZA	7,7	7,8	4,8	8,6	8,7	8,7	5,3	-13,5	3,3
22. EDIZIOA, IRUDIA, IRRATIA ETA TELEBISTA	0,8	0,8	0,7	0,8	0,8	0,8	-0,1	-3,7	0,3
23. TELEKOMUNIKAZIOAK	1,9	1,8	1,9	0,3	0,3	0,3	0,9	-1,5	-4,6
24. INFORMATIKA	1,7	1,7	2,0	2,0	2,1	2,1	4,9	1,0	3,4
25. FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	5,6	5,6	6,4	2,4	2,4	2,2	3,1	0,8	-2,7
26. HIGIEZIN-JARDUERAK	16,6	16,6	17,7	0,8	0,8	0,8	2,1	0,0	1,6
27. AHOLKULARITZAK ETA BESTE JARDUERA TEKNIKO BATZUK	6,5	6,5	6,6	6,6	6,7	6,5	2,1	-1,7	2,8
28. IKERKETA ETA GARAPENA	1,0	1,0	1,1	1,1	1,1	1,1	4,2	0,0	2,9
29. BESTE JARDUERA PROFESIONAL BATZUK	1,1	1,1	0,9	1,8	1,8	1,8	2,3	-4,9	1,7
30. ZERBITZU OSAGARRIAK	4,5	4,5	4,2	9,3	9,3	9,4	4,7	-4,8	3,3
31. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA DEFENTSA	7,0	7,0	7,9	8,4	8,3	8,3	1,0	1,4	1,0
32. HEZKUNTZA	7,6	7,6	8,4	10,5	10,5	10,8	3,0	0,0	3,3
33. OSASUN-JARDUERAK	7,8	8,1	9,2	7,1	7,1	7,2	3,1	1,4	2,7
34. GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO JARDUERAK	1,5	1,5	1,7	4,1	4,2	4,3	2,6	1,5	4,5
35. AISIALDI- ETA KULTURA-JARDUERAK	2,4	2,4	1,4	2,1	2,1	2,2	4,9	-14,6	4,2
36. BESTE ZERBITZU BATZUK	2,2	2,1	1,8	3,5	3,5	3,4	1,5	-5,5	1,0
37. ETXEEN EKITALDIAK	1,4	1,4	1,1	4,6	4,5	4,3	1,8	-7,3	-0,1
38. LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
ZERBITZUAK GUZTIRA (BPG MILA EUROTAN ETA ENPLEGUA LANALDI OSOAN)	47.842.572	49.629.954	45.426.222	667.410	683.055	693.754	2,9	-2,1	2,1
EKONOMIA GUZTIRA (BPG MILA EUROTAN ETA ENPLEGUA LANALDI OSOAN)	76.888.235	79.537.107	71.528.127	938.892	960.396	974.811	2,9	-2,7	4,3

* BPG erreala (bolumen kateatuan)
Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak.

3.6.3. Merkataritza

EUSTATen txikizkako merkataritzaren salmenta-indizearen bilakaera

EUSTATen "Txikizkako Merkataritza Indizea (BMIT)" EAEko txikizkako merkataritzaren sektoreko merkataritzako eta laneko koiunturaren bilakaeraren zuzeneko adierazlea da, eta informazioa jaso deneko bi aldagaien jokabidearen azterketan du oinarria: "salmentak" eta "landunak".

EUSTATen "Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea"ren datuen arabera, 2020tik 2021era bitartean, txikizkako merkataritzaren salmentak % 3,6 igo ziren (lan-egutegiko baldintza homogeenetan eta prezio finkoetan). Gasolina-zerbitzuguneak alde batera utzita, salmentak % 3,3 hazi ziren.

Elikagaietan, edarrietan eta tabakoan espezializatutako merkataritzak (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) % 3,2 egin zuen behera salmentetan, eta gainerako produktuen merkataritzak portaera positiboa izan zuen, % 9,8 igo baitzen aurreko urtearen aldean. Automobilgintzarako erregaiaren salmentak, bestalde, % 8,2ko hazkundea izan zuen.

Elikagaien txikizkako merkataritzaren barruan, 2021ean merkataritza espezializatua % 0,8 igo zen 2020. urtearen aldean, eta elikadura nagusi duen ez-espezializatua % 4,9 jaitsi zen.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, portaera positiboa izan zen gehienbat. Etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritzako salmentak % 19,4 igo ziren, pertsonen ekipamenduetan espezializatutako merkataritzakoak % 7,3 eta bestelako kontsumo-ondasunetan espezializatutako merkataritzakoak % 5,8. Gainerako produktuetan nagusi den merkataritza ez-espezializatuaren sektorean, aldiz, salmentak % 0,1 jaitsi ziren 2021ean, aurreko urtearen aldean.

II.3.23. TAULA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMENTA-INDIZEAREN BILAKAERA. URTEK URTERAKO TASAK EGUTEGIAREN ERAGINAK ZUZENDUTA. PREZIO KONSTANTEAK. EAE.

	Indize orokorra	EAE									
		Elikagaiak			Gainerako produktuak					Automoziorako erregaiak	Indize orokorra gasolina-zerbitzugen erik gabe
		Guztira	Espezializatua	Espezializatu gabea	Guztira	Pertsonaren ekipamendua	Etxeko ekipamendua	Kontsumoko beste ondasun batzuk	Espezializatu gabea		
2019	0,9	1,5	0,3	2	-0,1	-2,2	1,4	0,5	1,7	3,3	0,7
2020	-4,9	3,2	-4,9	7,3	-10,3	-13,9	-2,9	-9,2	-15,7	-16,1	-3,9
2021	3,6	-3,2	0,8	-4,9	9,8	7,3	19,4	5,8	-0,1	8,2	3,3

Iturria: EUSTAT, Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMT).

EAEko txikizkako merkataritza-sektoreko langile okupatuen balantzeak % 0,9ko hazkundea erakutsi zuen 2021ean²⁸.

Enplegua hazi egin zen elikadura-produktuen saltokietan (+% 2) eta automobilgintzarako erregaien saltokietan (+% 2,6), eta egonkor mantendu zen gainerako produktuen saltokietan (% 0).

II.3.24. TAULA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAN LAN EGITEN DUTEN LANGILEEN INDIZEA. EAE, URTEK URTERAKO TASAK

	INDIZE OROKORRA	ELIKAGAIK	GAINERAKO PRODUKTUAK	AUTOMOZIORAKO ERREGAIA
2019	-0,1	0,5	-0,7	3,2
2020	-2,1	1	-4,6	-3,8
2021	0,9	2	0	2,6

bb: behin-behinekoa.

Iturria: EUSTAT, Txikizkako Merkataritzaren Indizea

EUSTATen azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizearen bilakaera

Orain EUSTATen "Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan" aztertuko dugu. Saltoki handietako eta elikagai-kateetako²⁹ merkataritzaren sektorearen salmenten bilakaera komertzialari eta langilei buruzko abagune-adierazlea da.

2020tik 2021era bitartean, indize orokorrak % 0,4ko beherakada erakusten zuen. Jaitsiera

II.1.25. TAULA. AZALERA HANDIKO SALTOKIETAKO ETA ELIKADURA-KATEETAKO MERKATARITZA-INDIZEA. EAE. URTEK URTERAKO TASAK

	EGUTEGIAREN ERAGINAK ZUZENDUTA. PREZIO KONSTANTEAK			LANGILERIA LANDUNAK (URTORORIK GABEKO DATUAK)
	INDIZE OROKORRA	SALMENTAK		
		ELIKAGAIK	GAINERAKO PRODUKTUAK	
2019	1,4	1,7	0,8	1,6
2020	3	8,4	-9,5	0,7
2021	-0,4	-3,9	8,6	3,9

Iturria: EUSTAT, Azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizea.

²⁸ Indize koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko batzuetan aintzat hartutako enplegatuen artean sartzen dira aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente (ABEEE) bati atxikitako pertsonak, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enplegatuen definizioari jarraituz.

²⁹ Azalera handikotzat hartzen dira 2.500 m²-ko edo gehiagoko salmenta-azalera duten merkataritza-establezimenduk; elikadura-kate esaten zaie, berriz, gutxienez hiru lokaleko enpresa guztiei, azalera handiak barne, halakorik izanez gero, eta 100 langile baino gehiago dituztenak. Informazioa lurralde historikoan zabaltzen zen 2015etik aurrera

horren jatorria elikagaien salmenten jaitsiera zen (-% 3,9, 2020an izandako % 8,4ko hazkundearen aldean). Aitzitik, gainerako salgaien salmentek % 8,6ko igoera izan zuten, eta 2020an % 9,5 jaitsi ziren.

Enpleguak, bere aldetik, % 3,9ko hazkundera erakutsi zuen 2020arekin alderatuta, aurreko urtean erregistratutako +% 0,7aren aldean.

3.6.4. Turismoa eta ostalaritza

Ostalaritzaren sektoreak garrantzi ekonomiko eta soziala lortu du gure erkidegoan. EUSTATen “Kontu Ekonomikoak” ataletik eskura dauden azken datuen arabera, ostalaritzaren sektorea EAEko BPG osoaren % 5 inguru zen 2018an eta 2019an (% 4,8 2018an eta % 4,9 2019an), eta enplegu osoaren % 6,3 2019an.

2020an, pandemiaren lehen urtean, BPGaren gaineko pisua % 3,1era jaitsi zen. Enplegu osoari buruzko datuak ez daude eskuragarri 2020rako.

Turismo-establezimenduak: hotel-establezimenduak, landa-ostatuak eta turismo-apartamentuak

EUSTATen “Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta”k informazio estatistikoa ematen du hotel-establezimenduen okupazioari buruz (hotelak eta pentsioak), bai eta EAEko landa-ostatuak (nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak) eta apartamentu turistikoak buruz ere. Honako hauek dira lortutako aldagai nagusiak: bidaiari-kopurua, ostatu-gauen kopurua, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak, plaza zein gelaren arabera, eta hotel-sektorearen errentagarritasun-adierazleak, hala nola eguneko batez besteko tarifa (ADR) edo gela eskuragarriko diru-sarrerak (REVPAR).

Inkesta horren arabera, 2021ean COVID-19aren pandemiak markatutako bigarren urtean, EAEko turismo-establezimenduetako sarreretan (+% 75,8) eta ostatu-gaueetan (% 73,3) 2020arekin alderatuta gorakada izan zen arren, oraindik ez ziren suspertu 2019. urtean lortutako zifrak.

2021ean 2.376.989 sarrera izan dira, guztira 4.886.776 ostatu-gau. Zifra horiek, hain zuzen ere, 2019an ikusitakoen % 68,2ra iristen ziren sarreraren kasuan, eta % 66,7ra ostatu-gauen kasuan.

Sarrera guztien % 91,4 hotel-establezimenduetan egiten direnez (2.172.927, 2.376.989tik), establezimendu horietako jarduerak zehatzago aztertuko ditugu.

II.3.26. TAULA. BIDAIRIAK, OSTATU-GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO MAILA EAE-KO TURISMO-ESTABLEZIMENDUETAN (hotel-establezimenduak, landa-ostatuak eta turismo-apartamentuak)				
	SARRERAK	OSTATU-GAUAK	BIDAIRIEN SARRERAK	OSTATU-GAUAK
2019	3.441.967	7.021.938	2,0	52,3
2020	1.351.804	2.820.063	2,1	30,1
2021	2.376.989	4.886.776	2,1	37,7
2019-20	-60,7	-59,8	2,5	-42,4
2020-21	75,8	73,3	-1,4	25,2

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta.

Ostalaritzako establezimenduak

2.172.927 sarrera horiek 4.178.716 ostatu-gau eragin zituzten guztira (ostatu-gauen guztizkoaren % 85,5 turismo-establezimenduetan). Zifra horiek 2019an ikusitakoen % 69,1era iristen ziren sarrerren kasuan, eta % 69,6ra ostatu-gauen kasuan; horrek esan nahi du 2019an lortutako zifrak ere ez zirela suspertu.

Hala ere, igoera esanguratsua izan zen, % 75,5 bidaiarien sarreretan eta % 73,4 ostatu-gauetan. Sarrerren kopuruaren igoera hori atzerritik zentozen bidaiarien (% 75,9) eta Estatutik zentozenen (% 75,4) hazkundearen ondorio zen.

2021eko batez besteko egonaldia 1,92 egunekoa izan zen, 2020ko 1,93 egunen eta 2019ko 1,95 egunen azpitik.

Plazako betetze-maila % 41,1ekoa izan zen 2021ean, eta gelako betetze-maila % 48,8koa; horrek esan nahi du 8,3ko eta 7,8ko igoera izan zela, hurrenez hurren, 2020. urtearekin alderatuta.

II.3.27. TAULA. EAE-KO HOTEL-ESTABLEZIMENDUETAKO BIDAIARIAK, OSTATU-GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA, OKUPAZIO-MAILA ETA ESKAINITAKO HOTEL-PLAZAK

	BIDAIARIEN SARRERAK				OSTATU-GAUAK	OKUPAZIO-MAILA		BATEZ BESTEKO EGONALDIA EGUNETAN	ESKAINITAKO HOTEL-PLAZAK
	GUZTIRA	JATORRIA				PLAZEN ARABERA	GELEN ARABERA		
		ESTATUKOA (EAErekin)	EAE	ATZERRIA					
2019	3.184.904	1.837.964	321.256	1.346.940	6.265.610	57,4	68,4	1,97	10.925.615
2020	1.238.100	876.196	211.616	361.904	2.409.708	32,8	41	1,95	7.356.784
2021	2.172.927	1.536.502	361.900	636.425	4.178.716	41,1	48,8	1,92	10.177.125
Ald. 17-18	-61,1	-52,3	-34,1	-73,1	-61,5				-32,7
Ald. 18-19	75,5	75,4	71,0	75,9	73,4				38,3

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta.

EUSTATen arabera, errentagarritasun-adierazleek hobera egin zuten 2021ean, aurreko urtean ikusitakoekin alderatuta, baina pandemia aurreko mailetara ere ez ziren iritsi.

Horrela, eguneko batez besteko tarifa edo eguneko batez besteko diru-sarrerak gela okupatu bakoitzeko³⁰ (ADR-Average Daily Rate) 84,6 eurotan kokatu zen, hau da, % 15,7ko igoera 2020arekin alderatuta, baina oraindik 2019ko 93,4 euroen azpitik.

Bestalde, gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak (RevPAR-Revenue Per Available Room) 41,3 eurokoak izan dira, hau da, % 37,7ko igoera izan zen 2020arekin alderatuta, nahiz eta 2019ko 63,9 euroen azpitik egon.

II.3.28. TAULA. EAE-KO HOTEL-ESTABLEZIMENDUETAKO EGUNEKO BATEZ BESTEKO TARIFA (ADR) LOGELAKO (ADR) ETA GELA ESKURAGARRIKO BATEZ BESTEKO DIRU SARRERAK (REVPAR)


	ADR	REVPAR
2019	93,4	63,9
2020	73,1	30,0
2021	84,6	41,3
2019-20	-21,8	-53,1
2020-21	15,7	37,7

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta.

II.2.11 GRAFIKOAn hotel-establezimenduetan ostatu hartutako bidaiarien kopuruaren bilakaera zehazten zen, taldeak zehaztuz eta EAEkoak direnak bereiziz. Ikus daitekeenez, atzerritik etorritako bidaiariak 362 mila izatetik 636 mila izatera igaro ziren (+% 75,9), Estatutik etorritakoak 665 mila izatetik 1.175 mila izatera (+% 76,7) eta EAEkoak 212 milatik 362 milara (+% 71).

³⁰ Bainugela duen gela bikoitz bati aplikatzen zaio, ostatu bakoitzeko, beste edozein zerbitzu edo zerga kenduta.

II.3.11. GRAFIKOA. BIDAIAIRIAK EA EKO HOTEL-ESTABLEZIMENDU ETAN SARTZEAREN BILAKAERA, JATORRIAREN ARABERA. (MILAKA PERTSONA)



3.6.5. Finantza sektorea

Espainiako Bankuaren “Estatistika Buletina”ren arabera, 2021ean, Europako Banku Zentralak, AEBetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak egun bateko interbentzio-tasei eutsi zieten, 2020an itxi zuten bezala: Europako Banku Zentralak % 0,00ean, Japoniako Bankuak % 0,10ean eta Erreserba Federalak % 0,25ean.

	II.3.29. TAULA. MONETA-MERKATUKO ESKU-HARTZE MOTAK ETA INTERES-TASAK							
	ESKU-HARTZE MOTA (*)				DIRUZKO MERKATUAREN EUROGUNeko INTERES-TASAK. GORDAILUAK. EURIBORRA			
	EDB	AEB	JAPONIA	ERRESUMABATUA	HILABETERA	3 HILABETERA	6 HILABETERA	URTEBETERA
2019	0,00	1,75	-0,10	0,75	-0,45	-0,36	-0,30	-0,22
2020	0,00	0,25	-0,10	0,10	-0,56	-0,43	-0,36	-0,30
2021	0,00	0,25	-0,10	0,25	-0,60	-0,55	-0,52	-0,49
2021eko abendua					-0,60	-0,58	-0,55	-0,50


* Aldiaren amaierako datuak
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina

Euroguneko diru-merkatuko interes-tasei dagokienez (gordailuak), berriz ere negatiboak ziren, urteko batez bestekoan, epe guztietan; zehazki, 2021eko abenduan Euriborra honela kokatu zen: hilabetera -% 0,60; 3 hilabetera -% 0,58; sei hilabetera -% 0,55; eta urtebetera -% 0,50.

Finantza-erakundeetako gordailuen analisiak erakusten duenez, Espainiako Bankuaren “Estatistika Buletina”ren datuen arabera, 2021eko itxieran, Euskal Autonomia Erkidegoan 9.345 milioi euroko saldoa izan zuten administrazio publikoek; hau da, urtean % 53,1 gehitu zen kopuru hori, eta Estatuko gordailuen % 9,7 osatzen zuten. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen (BSE) balioa 86.815 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 1,2ko igoera izan zuten aurreko ekitaldikoaren aldean, eta % 6,2ko ratioa estatuko guztizkoaren gainean.

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitateen arabera aztertzen baditugu (bista, epea eta aktiboen aldi baterako lagapenak (ALL)), ikusiko dugu ageriko gordailuak % 81,4 zirela, eperako gordailuak % 7,9 eta aldi baterako lagapenak % 1. Ageriko gordailuek gora jarraitzen zuten bitartean (+% 5,6), eperako gordailuek behera jarraitzen zuten. Hala izan zen, gordailuek ordainsari urria dutelako, edo batere ez.

II.3.12. GRAFKOA. ESTATUAN ETXEBIZITZA EROSTEKO HIPOTEKARITZA BERMEA DUTEN KREDITUAK (IV. hiruhilekoa). SALDO BIZIAK.



Iturria: Espainiako Bankua.

Bestalde, Espainiako Jabetza Erregistratzaileen, Merkataritzakoen eta Ondasun Higigarrien Elkargoaren datuek (EINen "Hipoteken Estatistika"n argitaratuak) adierazten dute EAEn eratutako hipoteken kopurua eta hipotekatutako finkaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa hazi zela 2020tik 2021era bitartean, lehenean % 5,6 eta bigarrean % 15,2. Hipotekatutako finkaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa 178.479 eurokoa zen.

Hipoteka-kopuruaren hazkunde hori landa-finken gaineko hipoteken hazkundeak (+% 8) eta hiri-finken gainekoak (+% 5,6) eragin zuten.

Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 7 igo zen, eta hipotekatutako etxebizitzaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa % 6,3, 147.927 eurotik 157.225 eurora.

II.3.33. TAULA. LANDA-FINKEN ETA HIRI-FINKEN HIPOTEKAK EAE-N

	2019			2020			2021 bb			ALDAKUNTZA 2020-21		
	Kopurua	Zenbatekoa (euroak, milakotan)	Batez besteko zenbateko a (€)	Kop.	Zenbatekoa (euroak, milakotan)	Batez besteko zenba- tekoa (€)	Kop.	Zenbatekoa (euroak, milakotan)	Batez besteko zenbate- koa (€)	Kop.	Zenbat ekoa	Batez besteko Zenbate- koa
HIPOTEKAK GUZTIRA	25.737	4.281.108	166.341	25.885	4.237.071	163.688	27.346	4.880.700	178.479	5,6	15,2	9,0
Landa-finkak	411	70.778	172.209	449	73.606	163.933	485	84.955	175.165	8,0	15,4	6,9
Hiri-finkak	25.326	4.210.330	166.245	25.436	4.163.465	163.684	26.861	4.795.745	178.539	5,6	15,2	9,1
Etxebizitzak	18.961	2.734.129	144.198	19.252	2.847.888	147.927	20.597	3.238.368	157.225	7,0	13,7	6,3
Orubeak	349	473.802	1.357.599	324	420.160	1.296.790	382	673.436	1.762.921	17,9	60,3	35,9
Beste hiri finka batzuk	6.016	1.002.399	166.622	5.860	895.417	152.802	5.882	883.941	150.279	0,4	-1,3	-1,7

bb: behin-behinekoa.

Iturria: EIN Hipoteken Estatistika (Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren "Estatistika Buletina" ren datuen arabera, IBEX-35 indizeak %7,9 egin zuen gora 2020ko abendutik 2021eko abendura bitartean.

Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa, 684.820 milioi euro 2021ean, % 10,3 hazi zen aurreko urtearen aldean eta batez besteko kontratazio bolumena, 378.141 milioi euro, % 11,1 jaitsi zen.

II.3.34. TAULA. BALOREEN BIGARREN MAILAKO MERKATUA. MADRILGO BURTSA			
	IBEX 35 Abendua	KAPITALIZAZIOA (sozietate egoiliarak, milioi euroak)	KONTRATAZIO-BOLUMENA (milioi euro)
2017	10.043,9	740.212	651.244
2018	8.539,9	630.628	587.203
2019	9.549,2	709.648	469.732
2020	8.073,7	620.715	425.170
2021	8.713,8	684.820	378.141
Var. 2020-21	7,9	10,3	-11,1

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa

Bestalde, Bilboko Burtsaren 2000 Indizeak 1.397,4 puntu izan zituen 2021eko abenduan, hau da, % 8,2 igo zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak), 2021an, 83.264,7 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 13,8 jaitsi egin zen 2020aren aldean.

II.3.35. TAULA. BILBOKO BURTSA		
	Burtsaren indizea XII/31n (Oinarria: 2000 1999/12/31an)	KONTRATAZIO-BOLUMENA (milioi euro)
2017	1.577,5	117.825,3
2018	1.330,1	112.921,6
2019	1.485,4	88.089,1
2020	1.291,2	96.625,4
2021	1.397,4	83.264,7
Ald. 2020-21	8,2	-13,8

Iturria: Bilboko Burtza.

ITURRIAK

1. **ESPAINIAKO BANKUA.** Estatistika aldizkaria. 2021eko datuak.
2. **BILBOKO BURTSA.** Datuen eskaera. 2021.
3. **EUROSTAT.** Datu-basea 2021.
4. **EUSTAT.** Ekonomia Kontuak. 2021.
5. **EUSTAT.** Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). 2021.
6. **EUSTAT.** Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta. 2021.
7. **EUSTAT.** Industria Estatistika 2020.
8. **EUSTAT.** Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika, 2021.
9. **EUSTAT.** Eraikuntzaren Koiuntura Indizea 2021.
10. **EUSTAT.** Azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizea. 2021.
11. **EUSTAT.** Eraikuntza kostuen indizea. 2021.
12. **EUSTAT.** Industriako Prezioen Indizea. 2021.
13. **EUSTAT.** Produkzio Industrialaren Indizea. 2021.
14. **EUSTAT.** Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea. 2021.
15. **EIN.** Eskualde-kontabilitatea. 2021.
16. **EIN.** Hipoteken estatistika. 2021.
17. **EIN.** IPI. 2021.
18. **EKONOMIA GAIETAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO MINISTERIOA.** Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta grafikoak. 2022ko otsaila. 2021eko datuak.

4. SEKTORE PUBLIKOA

COVID-19aren ondoriozko krisiak 2020an eragin handia izan du EAEko finantza publikoetan, eta 2021ean nabarmen suspertu dira, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezala. Bertan, erreferentziako urteko sektore publikoari buruzko zifra nagusiak aurkezten dira, diru-sarrera, gastu eta aurrekontu-saldoei dagokienez, baita zorpetzearen eta EAEko administrazio-mailen arteko transferentzien bilakaera ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak emandako informazioan eta EUSTATen estatistiketan oinarrituta. Halaber, berrikuntza legez, Herri Administrazioetako enpleguari buruzko azken atala sartu da.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da diru-sarrera publikoak % 11,7 hazi direla 2021ean, aurreko ekitaldiko +% 4,8aren aldean, zerga-bilketaren portaera onaren ondorioz (+% 14,4 zerga itunduak). Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren gastuak % 7,6 igo dira (-% 2,1 2019. urtean).

Diru-sarreraren eta gastuaren bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa % 302,3 hazi da (BPGd-aren % 2,7), eta 2020ko defizita 1.040,9 milioi euroko superabitean geratu da, hau da, EAEko 2021erako zenbatetsitako BPGd-aren % 1,3.

Superabit hori BPGd-aren % 0,84raino murrizten da, 602 milioi euro (2020ko % 1,03ko defizitaren aldean), Ogasun Ministerioaren eskualdeko administrazioen berronakarako plan ekonomiko-finantzarioetatik ondorioztatzen den defizitaren kalkulua kontuan hartzen badugu (EAEko Administrazio Orokorraz gain, erakunde autonomoen, LANBIDEn eta Osakidetzaren zifrak hartzen dituzte kontuan).

II.4.1. TAULA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.					
	ALDAK. % ZERGA ITUNDUENGATI KO BILKETA	ESP-REN BPGD-AREN GAINEKO AURREKONTU SALDOA		ESP-REN* ZORPETZEA	
		AURREZKI GORDINA	SUPERABITA / DEFIZITA	ALDAK . %	BPGD- AREN GAIN.%
2017	+11,8	2,1	+0,6	+2,3	15,5
2018	+3,5	2,6	+1,1	-0,2	14,9
2019	+3,3	2,4	+0,9	-6,1	13,5
2020	-9,8	0,7	-0,8	+15,3	17,2
2021	+14,4	2,7	1,3	+7,0	17,0

* Zor bizia epealdiaren amaieran.
Iturria: EUSTATen eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin landutakoa.

Hori da EBko erakundeei buruzko erreferentzia, EBk ezarritako helburuen jarraipena egiteko.

Bestalde, EAEko sektore publiko osoaren (toki entitateak kontuan izan gabe) zorpetze garbia gehitu da. Urtearen amaieran, zor bizia 13.136 milioi eurokoa zen (+% 7 2020aren aldean).

4.1. DIRU-SARRERAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren "Aurrekontu Betearazpenaren Estatistika"ren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek guztira likidatutako guztizko diru-sarrerak 20.282,9 milioi eurokoak dira 2021ean, % 11,7ko igoera dute aurreko urtearen aldean (+% 4,8 2020an). Izan ere, eragiketa arrunten bilakaera positiboa (% 8,8 igo da zuzeneko zergen bidez, eta % 18,9, berriz, zeharkako zergen bidez, eta transferentzia arrunten hazkundeari gehitzen zaizkio, % 71,4 hazi baitira), hain zuzen ere zati batean bakarrik konpentsatzen da finantza-pasiboen % 29,8ko beherakadarekin (2020an baino zorpetze txikiagoarekin lotuta, orduan % 156,5 hazi baitzen). Zorpetzearen jaitsiera hori Eusko Jaurlaritzaren finantzetan baino ez da gertatu (-% 44,3); izan ere, foru aldundietan gora egiten jarraitzen du (+% 38).

Diru-sarrerak igo egin dira, bai Eusko Jaurlaritzan (% 12), bai foru aldundietan (% 15,5). Esan bezala, gehitutako diru-sarrera % 11,7 izan da.

Balantze gisa, Euskal Sektore Publikoak Erkidegoko BPGrekiko dituen diru-sarreraren multzoa % 25,4 zen 2020an, eta 8 hamarren igo da 2021ean, % 26,2ra arte (behin-behineko datuak), BPGa diru-sarrera publikoak baino gutxiago hazi baita (% 8,1, termino arruntetan, behin-behineko datuen arabera).

II.4.2. TAULA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. EUROAK, MILAKOTAN.

	2020			2021			ALD. % 2020/21		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP
Zuzeneko zergak	-	7.161.973	7.161.973	-	7.794.880	7.794.880	-	8,8	8,8
Zeharkako zergak	2.364	6.855.081	6.857.444	3.149	8.152.068	8.155.217	33,2	18,9	18,9
Tasak eta bestelako diru-sarr.	138.540	224.510	363.050	168.735	242.185	410.920	21,8	7,9	13,2
Ohiko transferentziak	9.943.131	306.456	969.219	12.044.566	593.171	1.661.678	21,1	93,6	71,4
Ondare-sarrerak	26.950	3.713	30.663	1.756	3.425	5.190	-93,5	-7,8	-83,1
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZTIRA	10.110.985	14.551.732	15.382.348	12.218.215	16.785.729	18.027.884	20,8	15,4	17,2
Inbert. errealen bester.	1	5.257	5.258	2.866	5.223	8.088	286.500,0	-0,7	83,8
Kapital-transferentziak	69.940	28.415	97.835	341.598	49.867	388.209	388,4	75,5	296,8
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZTIRA	69.941	33.672	103.093	344.464	55.090	396.297	392,5	63,6	284,4
Aldakuntza: Finantza-aktiboak	48.606	83.218	131.824	73.533	2.928	76.461	51,3	-96,5	-42,0
Ald. Finantza-pasiboak (Zorra)	2.092.610	447.052	2.539.662	1.165.110	617.140	1.782.250	-44,3	38,0	-29,8
FINANTZA-SARRERAK, GUZTIRA	2.141.216	530.270	2.671.486	1.238.643	620.068	1.858.711	-42,2	16,9	-30,4
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	12.322.142	15.115.674	18.156.928	13.801.322	17.460.887	20.282.893	12,0	15,5	11,7
SARREREN % / BPGd-a	17,2	21,1	25,4	17,9	22,6	26,2			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.

Zerga itunduen ziozko bilketa 2021eko ekitaldian:

Zerga itunduek zuzeneko eta zeharkako diru-sarrera gehienak osatzen dituzte, eta guztizkoaren % 90 baino gehiago, eta 2021rako 15.963,2 milioi euro bildu dituzte, hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 14,4 gehiago. Zifra horiek aurreikuspen baikorrenak gainditzen dituzte, pandemiaren aurreko datuak ere gainditzen dituzten erregistroekin (2019an baino ia 511,7 milioi gehiago biltzen dira). Diru-bilketaren hazkunde hori ekonomiak hazten duena baino handiagoa da, baina kontuan hartu behar da bai inflazioak bai foru aldundiek enpresen diruzaintzako tentsioak arintzeko ezarritako ordainketa geroratzeko neurri jakin batzuek lagundu dutela diru-bilketa hori maximo historikoetan egiten.

II.4.3. TAULA. FORU ALDUNDIAK: ITUNDUTAKO ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ZERGENGATIKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. EUROAK, MILAKA


	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FFAA, GUZTIRA	
	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK
2017	1.028.748	1.265.395	3.513.024	3.919.666	2.074.124	2.566.173	6.615.897	7.751.233
2018	1.158.369	1.234.852	3.860.775	3.813.991	2.273.296	2.521.752	7.292.440	7.570.595
2019	1.146.601	1.293.223	3.919.587	4.009.178	2.340.954	2.650.369	7.407.142	7.952.770
2020	1.087.581	1.097.749	3.663.987	3.406.507	2.348.744	2.268.229	7.100.312	6.772.485
2021	1.165.410	1.313.878	3.996.277	4.084.205	2.573.653	2.738.253	7.735.340	8.136.336
18/19 (%)	-1,0	4,7	1,5	5,1	3,0	5,1	1,6	5,0
19/20 (%)	-5,1	-15,1	-6,5	-15,0	0,3	-14,4	-4,1	-14,8
20/21 (%)	7,2	19,7	9,1	19,9	9,6	20,7	8,9	20,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Ekonomia eta Ogasun Saila.

Biak hazi diren arren, 2021ean zeharkako zergen portaera hobea izan da (+% 20,1) zuzenekoarena baino (+% 8,9). Bilketa hori berdina da gure erkidegoko hiru lurraldeetan. Hortaz, hiru lurraldeetan zeharkako zergen bidez bildutakoa zuzenekoarena baino hobea da (ikus II.4.3 taula). Laburbilduz, Bizkaian 8.136,1 milioi euro bildu ziren (guztizkoaren % 51, 2020an baino % 14,2 gehiago), Gipuzkoan 5.340,1 (guztizkoaren % 33,5, +% 15,2) eta Araban 2.486,9 milioi (bilketaren % 15,5, +% 13,4).

Zuzeneko zergapetzean (+%8,9), pisurik handiena PFEZak du, % 8,2 hazi baita. Beste ekitaldi batzuetan bezala, laneko atxikipenengatikoko diru-sarreraren bilakaera bikainak aurrera egiteko elementu erabakigarria izaten jarraitzen du, hain zuzen ekonomia suspertzearen ondorioz enplegua berreskuratu delako. Sozietateen gaineko zergak ere hazkunde nabarmena izan du (% 10,8), baita susperraldi ekonomikoak ere, prezioen bilakaeraren ondorioz.

Zeharkako zergen atalean (+%20,1), BEZagatiko diru-sarrerak (+%21,2), sozietateen gaineko zergaren kasuan bezala, prezioen igoerak bilketan duen eragina nabaritzen dute. Gainera, pandemiak eragindako mugikortasunaren gaineko mugak apurka-apurka desagertu ondoren, haren diru-bilketa kontsumoaren hazkundeak mesede egin zion, 2020an zerga horri kalte handia egin baitzioten.



Azkenik, **zerga bereziak** dira, gora egin duten arren (+%14,6), pandemiaren aurreko mailetara iristen ez diren bakarrak. Zerga-bilketaren igoeran eragina izan du elektrizitatearen gaineko zergaren jaitsierak, argiaren prezioaren gorakadari aurre egiteko irailatik aurrera onartutako tarifaren beherakadaren ondorioz. Zerga-talde hori osatzen duten gainerako elementuen bilketak gora egin du, tabako-laboreen kasuan izan ezik, eta nabarmentzekoa da hidrokarburoen gaineko zerga. Izan ere, zerga horren bilakaerak eragina izan du Bizkaiko ogasunari egindako ezohiko transferentzia baten ondoriozko diru-sarreretan, merkaturatzeari buruzko auzi baten ondorioz.

II.4.4. TAULA EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOAK (EUROAK, MILAKA).

	EAE 2020	2021				ALDAK. (%) 19/20	ALDAK. (%) 20/21
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZUZENENKO ZERGAK	7.100.312	1.165.410	3.996.277	2.573.653	7.735.340	-4,1	8,9
PFEZ	5.650.225	932.039	3.125.421	2.056.934	6.114.393	-1,1	8,2
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.042.548	175.738	635.408	344.005	1.155.151	-20,0	10,8
EZ EGOILEEN ERRENTA GN. ZERGA	50.788	10.204	37.276	14.732	62.212	-2,0	22,5
OINORDETZAK ETA DOHAINTZAK	122.169	20.200	89.849	69.895	179.944	-0,1	47,3
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	177.197	19.481	81.157	70.818	171.456	5,7	-3,2
Kreditu-erak. gordailuen zerga	27.629	3.745	14.759	9.005	27.509	14,3	-0,4
Energia elektrikoaren gaineko zerga	29.756	4.002	12.408	8.263	24.673	25,6	-17,1
ZEHARKAKO ZERGAK	6.772.485	1.313.878	4.084.205	2.738.253	8.136.336	-14,8	20,1
BEZ	5.163.765	1.014.873	3.146.607	2.095.444	6.256.924	-14,3	21,2
- BEZ, berezko kudeaketa	3.534.767	673.461	2.088.060	1.390.517	4.152.038	-14,4	17,5
- BEZaren doiketa	1.628.998	341.413	1.058.547	704.926	2.104.886	-14,2	29,2
OEZ	140.473	25.537	82.388	74.515	182.440	-13,7	29,9
EJZ	35.831	6.551	19.879	14.515	40.945	-24,6	14,3
I.E. GARRAIOAREN GAINEKO Z.B.	16.063	3.643	9.545	7.091	20.279	-42,9	26,2
FABRIKAZIOAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAK, GUZTIRA	1.327.015	246.769	765.107	509.513	1.521.390	-17,1	14,6
ASEGURUEN PRIMEN Z.	79.761	14.997	56.224	33.416	104.638	1,1	31,2
TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERAK	76.905	7.673	55.654	28.206	91.533	-30,3	19,7
JOKO TASAK	26.777	3.993	16.912	9.050	29.955	-41,4	11,9
ERREKARGUAK, BERANDUTZAK ETA ZEHAPENAK	49.676	3.680	38.743	19.156	61.579	-22,4	24,0
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	13.949.250	2.486.961	8.136.137	5.340.112	15.963.209	-9,8	14,4

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Bilakaera horren ondorioz, zuzeneko zergen bidezko bilketa, 2021ean, guztizkoaren % 48,5 da, eta zeharkakoena, berriz, % 51 (tasen eta beste diru-sarrera batzuen % 0,5). Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, zuzeneko ezarpenak ehuneko 2,4 puntu galdu ditu, zeharkakoak irabazi dituen berberak.

Guztira, 15.963,2 milioi euro bildu dira, hau da, 2021ean EAEko BPGd arruntaren % 20,7, behin-behineko datuen arabera (% 19,5 2020an). Esan bezala, bilketa hori maximo historikoa da, eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2021eko urrian aurreikusitakoa baino % 2,5 handiagoa. Bildutako guztia % 38,3 PFEZari dagokio, % 39,2 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatiko eta aduanengatiko doikuntza), % 7,2 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, % 15,3, zenbait zerga bereziri.

II.4.5. TAULA. ZERGA NAGUSIEN BILKETAREN BILAKAERA, BPGd-aren GAINEKO EHUNEKOAN. EAE.				
	PFEZ	SOZIETATEEN Z.	BEZ	GUZTIRA
2014	6,6	1,7	7,2	18,6
2015	6,8	1,5	7,2	18,4
2016	6,8	1,4	7,0	18,2
2017	7,0	1,5	8,2	19,6
2018	7,1	1,9	7,6	19,6
2019	7,2	1,6	7,6	19,5
2020	7,9	1,5	7,2	19,5
2021*	7,9	1,5	8,1	20,7

*Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta EUSTATen datuak erabiliz egina.
* Behin-behineko datuak.*

II.4.6. TAULA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOAREN BILAKAERAREN AZTERKETA: URTEKO BILAKAERA ETA 2007KO EMAITZEKIKO ALDERAKETA (OINARRIZKO URTEA)									
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
ZENBATEKOA (EUROAK, MILAKOTAN)									
Zuzeneko zergak	5.793.064	5.864.350	5.958.577	6.168.926	6.615.897	7.292.440	7.407.142	7.100.312	7.735.340
Zeharkako zergak	5.845.450	6.351.443	6.538.776	6.661.099	7.751.233	7.570.595	7.952.770	6.772.485	8.136.336
Tasak eta beste	113.602	103.970	115.277	120.701	106.798	118.510	109.675	76.453	91.533
ZERGA-BILKETA	11.752.116	12.319.763	12.612.630	12.950.926	14.473.928	14.981.545	15.469.587	13.949.250	15.963.209
ALD. URTEAN (%)									
Zuzeneko zergak	1,7	1,2	1,6	3,5	7,2	10,2	1,6	-4,1	8,9
Zeharkako zergak	4,4	8,7	2,9	1,9	16,4	-2,3	5,0	-14,8	20,1
Tasak eta beste	3,5	-8,5	10,9	4,7	-11,5	11,0	-7,5	-30,3	19,7
ZERGA-BILKETA	3,0	4,8	2,4	2,7	11,8	3,5	3,3	-9,8	14,4
(2007= 100)									
Zuzeneko zergak	86,4	87,4	88,8	92,0	98,6	108,7	110,4	105,9	115,3
Zeharkako zergak	84,1	91,4	94,1	95,9	111,6	109,0	114,5	97,5	117,1
Tasak eta beste	95,9	87,8	97,3	101,9	90,2	100,0	92,6	64,5	77,3
ZERGA-BILKETA	85,3	89,5	91,6	94,0	105,1	108,8	112,3	101,3	115,9

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Sailaren datuekin Ogasuna EUSKO JAURLARITZA.

II.4.7. TAULA. GASTU FISKALAK EAE-N ZERGA ITUNDUENGATIK. EUROAK, MILAKOTAN.							
	2017	2018	2019				ALD. % 2018/19
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZ	1.762.508	1.804.546	282.328	980.133	669.022	1.931.483	7,0
SOZIETATEEN ZERGA	394.356	448.121	79.949	228.665	147.254	455.868	1,7
ONDAREAREN Z.	164.867	175.801	35.252	112.227	88.156	235.635	34,0
GUZTIRA* ZUZENKO ZERGAK	2.321.732	2.428.468	397.529	1.321.025	904.431	2.622.985	8,0
BEZ	3.365.330	3.312.977	549.694	1.691.701	1.114.489	3.355.884	1,3
OEEJDZ	135.052	136.861	51.496	79.916	38.456	169.868	24,1
GARRAIOAREN Z.B.	4.124	4.373	644	900	3.551	5.095	16,5
II.EE. FABRIKAZIOAREN Z.B.	162.542	173.302	32.528	100.104	65.948	198.580	14,6
ELEKTRIZITATEAREN Z.	2.068	1.732	272	836	551	1.658	-4,3
ASEGURUEN PRIMEN Z.	24.496	25.718	3.933	14.418	9.011	27.362	6,4
GUZTIRA ZEHARKAKO ZERGAK	3.693.612	3.654.963	638.566	1.887.875	1.232.005	3.758.446	2,8
GUZTIRA	6.015.344	6.083.431	1.036.095	3.208.900	2.136.436	6.381.431	4,9

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANUAN oinarrituta egina.

Diru-sarreraren murriztapena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera 2010erako **gastu fiskala**³¹ — urte hori baita informazio zehatza ematen duen azkena— (hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan

³¹ Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argituta eta denek onartutako definiziorik ogasunaren doktrinaren barruan. Hala ere, gastu fiskalaren aurrekontua honela defini dezakegu: zerga sarreraren murriztapenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura

kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengarriak, murriztapenak, kenkariak, hobariak, atzerapenak eta abar izan daitezkeenak) 6.381,4 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino % 4,9 gehiago, hau da, diru-sarrera teorikoen % 30 (aurrekontuan sartutako diru-sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu fiskalen % 43,8 (2.792,9 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei: PFEZ, sozietateen gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga (aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga Gipuzkoan) eta AJD.

4.2. GASTUAK

Eusko Jaurlaritzako *Ekonomia eta Ogasun Sailaren "Aurrekontu Betearazpenari buruzko Estatistika"*ren arabera, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua (tokiko erakundeak alde batera utzita) 18.627,9 milioi eurokoa izan da 2021ean, eta % 7,6 igo da 2020aren aldean, aurreko urteko – % 2,1aren aldean. Hala, magnitude horrek EAEko BPGd-aren gainean duen ehunekoa hamarren bat murriztu da, % 24,2tik % 24,1era, BPGd-aren bilakaera dela eta (% 8,1 hazi da uneko terminoetan, behin-behineko datuen arabera).

Gastuaren susperraldia bai Eusko Jaurlaritzan (+% 8) bai foru aldundietan (+% 14,1) gertatu da, eta +% 7,6ko agregatuaren aldakuntza gertatu da, partida batzuk erakundeen artean konpentsatzen direlako (transferentzien zati bat, adibidez).

II.4.8. TAULA EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. EUROAK, MILAKOTAN.									
	2020			2021			Aldak. % 2020/21		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FFAA	ESP
Langile-gastuak	2.242.129	404.333	2.646.462	2.359.681	413.499	2.773.180	5,2	2,3	4,8
Funtzionamendu-gastuak	3.958.282	609.925	4.568.207	4.226.198	640.018	4.866.216	6,8	4,9	6,5
Finantza gastuak (interesak)	146.018	33.048	179.066	147.559	28.540	176.100	1,1	-13,6	-1,7
Ohiko transferentziak	3.685.860	13.057.594	7.463.086	4.178.518	14.895.801	8.098.260	13,4	14,1	8,5
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZT.	10.032.289	14.104.900	14.856.820	10.911.957	15.977.858	15.913.755	8,8	13,3	7,1
Benetako inbertsioak	155.054	251.242	406.297	196.296	307.879	504.175	26,6	22,5	24,1
Kapital-transferentziak	685.017	133.964	818.461	751.650	216.997	965.391	9,7	62,0	18,0
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZT.	840.071	385.206	1.224.757	947.946	524.877	1.469.566	12,8	36,3	20,0
Aldakuntza finantza-aktib.	220.675	94.475	315.150	190.014	128.587	318.600	-13,9	36,1	1,1
Ald. finantza-pasib. (zor amort.)	686.639	222.372	909.011	668.066	257.895	925.961	-2,7	16,0	1,9
FINANTZA GASTUAK GUZTIRA	907.314	316.847	1.224.161	858.079	386.482	1.244.561	-5,4	22,0	1,7
GASTUA, GUZTIRA	11.779.674	14.806.953	17.305.739	12.717.982	16.889.216	18.627.882	8,0	14,1	7,6
LIKIDAT. GASTUA %/ BPGd-a	16,5	20,7	24,2	16,5	21,8	24,1			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetako aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero.

Lehenik eta behin, langile-gastuek aurreko urteetako joera positiboari eutsi diote, eta 2020an baino gehiago hazi dira (+% 4,8, aurreko urtean baino 1,2 puntu gehiago), eta proportzio txikiagoan aldundietan (+% 2,3) gobernuan baino (+% 5,2), eta, aldi berean, transferentzia arruntak finkatu dira (+% 8,5, 2020an baino 4,7 puntu gehiago). Funtzionamendu gastuak (ondasunak eta zerbitzuak erosteari buruzkoak), era berean, aurreko urteetako joerari eusten diote eta aurreko ekitaldian baino proportzio handiagoan hazi dira (% 6,5 igo dira, eta +% 6,1, berriz, 2020an).

Inbertsio errealei dagokienez, % 4,4 jaitsi ziren 2020an, baina % 24,1 nabarmenarekin suspertu ziren 2021ean, foru aldundiek (+% 22,5) eta Eusko Jaurlaritzak (+% 26,6) bilakaera positiboa izan zutelako.

fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGaren definizioaren arabera, zergaren egitura "arruntaren" edozein desbiderapen dira gastu fiskalak. Arruntak eta erabilienak zerga oinarrian egindako murriztapenak eta kuotako kenkariak dira.

Bestalde,
2020an ez bezala
(urte horretan %
45,9 jaitsi ziren),
2021ean pixka bat
handitu ziren
zorpetzearen
ondoriozko gastuak,
finantza-pasiboen
bilakaeraren
ondorioz (zorraren
amortizazioa), % 1,9

II.4.9. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUA URTEKO HAZKUNDE-TASAK INTERESEKO PARTIDETAN							
	LANGILEAK	FUNTZIONA- MENDUA	TRANSF. ARRUNTAK	INBERTSIO ERREALAK	ZORPETZEA	INTERESAK ZORRA	GUZT.
2012	-6,4	-2,2	-6,5	-12,1	1,7	22,3	-2,6
2013	4,3	-1,6	1,3	-9,6	8,3	9,4	-2,6
2014	1,3	2,7	3,4	-23,8	66,5	10,8	4,1
2015	2,0	1,1	3,9	-27,4	26,7	-12,8	1,9
2016	2,0	2,9	1,2	4,7	-11,6	-12,9	0,9
2017	2,5	2,4	7,3	-0,3	9,6	-8,1	5,3
2018	1,5	1,3	-1,4	7,1	63,4	-3,7	3,2
2019	5,6	4,9	3,4	0,6	13,2	-2,6	6,2
2020	3,6	6,1	3,8	-4,4	-45,9	-16,0	-2,1
2021	4,8	6,5	8,5	24,1	1,9	-1,7	7,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. Ekonomia eta Ogasun Saila.

igo baitziren. Susperraldi hori foru aldundietan baino ez da gertatu (+%16); izan ere, Jaurlaritzan bilakaerak joera negatiboari eusten dio, garrantzi txikiagokoa bada ere (-% 2,7). Finantza-gastuak (interesak), azkenik, % 1,7 hazi dira, eta negatiboak dira Jaurlaritzarentzat (% -5,4 eta % +22, hurrenez hurren).

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren gastuari erreparatu gero, 2021eko "EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpenari" buruzko datuen arabera, 2021eko azaroan eguneratutako aurrekontuko likidazioaren behin-behineko datuekin, Eusko Jaurlaritzaren gastua % 12 handitu da 2020ko datuekin alderatuta, urte horretan % 2,2 jaitsi baitzen aurreko urtearekiko. Gastu bolumenagatik, bi sail nagusiak Hezkuntza (% 24,4) eta Osasuna (% 32,1) dira orain ere. Azarora arte egindako gastuarekin eguneratutako aurrekontua 13.191,7 milioi eurokoa da, hau da, urte honetan gure erkidegoko BPGd-aren %17,1, behin-behineko datuen arabera betiere.

II.4.10. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA SAILKA. EUROAK, MILAKOTAN.

	EUROAK, MILAKOTAN			2021 BANAKETA %	% 18/19	19/20 (%)***	20/21 (%)
	Aurrek. 2019*	2020	2021 b**:				
00 LEGEBILTZARRA	31.100	31.950	31.500	0,2	2,8		-1,4
01. JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA	85.206	79.818	27.817	0,2	1,6		-65,1
02 GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	127.344	126.089	147.052	1,1	2,5		16,6
03 GARAPEN EKONOMIKOA ETA AZPIEGITURAK	760.285	402.441			-6,1		
04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	942.008	761.025			4,1		
05 INGURUMEN, LURRALDE P. ETA ETXEBIZITZA	312.761	125.907			34,5		
06 EKONOMIA ETA OGASUNA	55.556	77.165	368.469	2,8	3,1		377,5
07 HEZKUNTZA	2.944.662	3.047.202	3.216.024	24,4	5,2		5,5
08 OSASUNA	4.009.275	4.106.892	4.231.953	32,1	8,4		3,0
09 TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	39.240	68.515	112.631	0,9	2,1		64,4
10 KULTURA ETA HIZKUNTZA P.	268.236	277.265	314.572	2,4	3,9		13,5
11 SEGURTASUNA	591.485	643.117	697.620	5,3	2,3		8,5
12 LANA ETA JUSTIZIA	219.365	144.828	-	-	10,2		-
13 LANA ETA ENPLEGUA***		236.689	985.418	7,5			316,3
14. GARAP. EK. IRAUNKORT. ETA INGURUMENA***		504.835	850.334	6,4			68,4
15. PLANIF. LUR. PLAN., ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK***		155.730	559.077	4,2			259,0
16. BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA POLIT. SOZIALAK***		102.404	524.882	4,0			412,6
51 LAN HARREMANEN KONTSEILUA	2.454	2.574	2.610	0,0	0,0		1,4
52 EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA	1.390	1.458	1.479	0,0	0,0		1,4
53 KOOPERATIBEN KONTSEILU GORENA	942	1.051	1.065	0,0	0,0		1,3
54 EUSKAL KONTUEN AUZITEGIA	7.519	7.926	6.037	0,0	0,0		-23,8
55 DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGENTZIA	1.605	1.792	1.817	0,0	0,0		1,4
90 ZOR PUBLIKOA	1.538.027	832.106	983.214	7,5	10,3		18,2
95 ERAKUNDEEN BALIABIDE ETA KONPROMISOAK.	100.197	40.897	85.910	0,7	3,0		110,1
99 ZENBIAT SAIL			42.180	0,3	-		-
GUZTIRA	12.038.657	11.779.674	13.191.661	100,0	6,4	-2,2	12,0
BPGd % bb	16,7	16,5	17,1				

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko aurrekontu orokorren betearazpena.

* 2019ko gastuen aurrekontuaren luzapena gauzatzea.

** 2021eko azaroan eguneratutako aurrekontua.


*** Sail berriak, 2020ko uztailan izandako legegintzaldi-aldaketaren ondorioz.

**** Sailen arabera gastua ezin da 2019 eta 2020 artean konparatu, 2020an hasitako legegintzaldi berriaren ondorioz sailak berrantolatu egin direlako eta funtzionaliki berrantolatu direlako.

4.3. AURREKONTUKO SALDOA

2021ean, EAEko Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) ohiko sarrerek % 17,9 egin zuten gora, baina gastu horiek neurri txikiagoan hazi dira (% 7,1). Hori dela-eta, % 302,3ko hazkundea izan da aurrezpen gordinean, 2.114,1 milioi euro izan artean. Zenbateko honek gure erkidegoko BPGd-aren % 2,7 hartzen du (behin-behineko datuak). Horrez gain, 1.040,9 milioi euroko (BPGd-aren % 1,3) superabit publikoa izan da (finantzatzeko ahalmena), finantzakoak ez diren gastuak (ohikoak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako sarrerak baino. Aurreko ekitaldian, 596,1 milioi euroko superabita izana zen (BPGd-aren % 0,8).

II.4.2. GRAFIKOA. AURREZPENAREN ETA SUPERABIT/DEFIZIT PUBLIKOAREN BILAKAERA (FINANTZAKETA GAITASUNA/BEHARRA) (EAE-N. BPGd-AREKIKO).



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuek erabiliz egina.

Finantza-aldagaia sartuta, eta batez ere zorpetzearen ondorioz, 1.040,9 milioiko superabit publikoa 2.533,7 milioi euroko aurrekontu-superabita izan zen, BPGd-aren % 3,3, 2020an superabit hori 1.292,2 milioi eurokoa izan bazen ere (+% 96,1).

II.4.11. TAULA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA: AURREKONTU-MAGNITUDE BATERATUAK. EUROAK, MILAKOTAN.

	2019	2020	2021	19/20 (%)	20/21 (%)
1.- OHIKO SARRERAK	16.169.965	15.382.348	18.027.884	-4,9	17,2
2.- OHIKO GASTUAK	14.260.620	14.856.820	15.913.755	4,2	7,1
2.1.- PERTSONAL-GASTUAK	2.554.710	2.646.462	2.773.180	3,6	4,8
2.2.- FUNTZIONAMENDU GASTUAK	4.306.174	4.568.207	4.866.216	6,1	6,5
2.3.- FINANTZA GASTUAK	213.141	179.066	176.100	-16,0	-1,7
2.4.- OHIKO TRANSFERENTZIAK	7.186.595	7.463.086	8.098.260	3,8	8,5
3.- AURREZKI GORDINA (1-2)	1.909.346	525.528	2.114.129	-72,5	302,3
4.- KAPITAL SARRERAK	86.885	103.093	396.297	18,7	284,4
5.- KAPITAL GASTUAK	1.307.208	1.224.757	1.469.566	-6,3	20,0
5.1.- INBERTSIO ERREALAK	425.079	406.297	504.175	-4,4	24,1
5.2.- KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	882.129	818.461	965.391	-7,2	18,0
6.- FINANTZAZIO GAITASUNA (+) / BEHARRA (-) (3+4-5)	689.022	-596.136	1.040.861	-	-
7.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-351.352	-183.326	-242.139	-	-
7.1.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. SARRERAK	80.002	131.824	76.461	64,8	-42,0
7.2.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	431.355	315.150	318.600	-26,9	1,1
8.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-689.416	1.630.651	856.289	-	-47,5
8.1.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. SARRERAK	990.084	2.539.662	1.782.250	156,5	-29,8
8.2.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	1.679.500	909.011	925.961	-45,9	1,9
9.- AURREKONTU SUPERABITA / DEFIZITA (6+7+8)	-351.745	851.189	1.655.011	-	94,4
9.1.- ORDAINDU GABEKO OBLIGAZIOAK	1.304.860	1.232.434	1.652.917	-5,6	34,1
9.2.- KOBRATU GABEKO ESKUBIDEAK	587.495	791.464	774.192	34,7	-2,2
10.- AURREKONTUKO SUPERABITA /DEFIZITA, KUTXARI DAGOKIONEZ	365.619	1.292.159	2.533.736	253,4	96,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

4.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

Eusko Jaurlaritzaren “Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistikak” erakusten duenez, lehenik eta behin, EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak) zorpetze garbia (zorpetze gordinaren eta amortizazioaren arteko aldea), bost ekitalditan behera egin ondoren, 2020an handitu egin da (1.630 milioi eurotik gora); positiboa izaten jarraitzen du 2021ean, baina aurreko urtean baino txikiagoa da. Zehazki, 856,3 milioi eurora iritsi da, 2020an baino % 47,5 gutxiago.

Zorpetze gordina ere jaitsi egin da 2021ean, % 29,8, 1.782,3 milioi eurora iritsita. Horietatik 1.165,1 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-% 44,3, 2020ren aldean) eta gainerako 617,1 milioiak, berriz, foru aldundiei (azken horiek, zehazki, % 38 hazten jarraitzen dute).

II.4.12. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA. (EUROAK, MILAKA)							
	ZORPETZE GORDINA		AMORTIZAZIOA	ZORPETZE GARBIA		ZOR BIZIA URTE AMAIERAN	
	(1)	ALDAKUNTZA REN %	(2)	(1)-(2) = (3)	ALDAKUNTZA REN %	GUZTIRA	ALDAKUNTZA REN %
EUSKO JAURLARITZA							
2018	1.273.711	30,6	1.215.003	58.708	-81,7	9.491.653	0,6
2019	870.696	-31,6	1.359.776	-489.080	-	9.002.573	-5,2
2020	2.092.610	140,3	686.639	1.405.971	-	10.408.544	15,6
2021	1.165.110	-44,3	668.066	497.044	-64,6	10.905.588	4,8
FORU ALDUNDIAK							
2018	184.186	-1,7	268.447	-84.261	26,4	1.846.818	-4,4
2019	119.388	-31,6	319.724	-200.336	137,8	1.646.482	-10,8
2020	447.052	274,5	222.372	224.680	-	1.871.162	13,6
2021	617.140	38,0	257.895	359.245	59,9	2.230.407	19,2
EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA							
2018	1.457.897	25,4	1.483.450	-25.553	-	11.384.471	-0,2
2019	990.084	-32,1	1.679.500	-689.416	2.598,0	10.649.055	-6,1
2020	2.539.662	156,5	909.011	1.630.651	-	12.279.706	15,3
2021	1.782.250	-29,8	925.961	856.289	-47,5	13.135.995	7,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika. Guk geuk egina.


Zorpetze gordinaren beherakadarekin batera, gainera, dagoen zorraren amortizazioa 2020koaren antzekoa izan da, baina aurreko urteetako baino txikiagoa (926 milioi euro, eta horietatik 668,1 Eusko Jaurlaritzari dagozkio). Horren ondorioz, ekitaldiaren amaieran zor bizia % 7 igo da. Hala, ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 13.136 milioi euroko zorra aurkeztu dute (BPGd-aren % 17, behin-behineko datuen arabera; 2020an, berriz, % 17,2). Beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren % 83, % 84,8 aurreko urtean).

Beste alde batetik, EUSTAT erakundearen “Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika” delakoari esker (eskuragarri dugun azken informazioa 2019koa da), foru aldundien eta udal guztien zorpetzea zenbatekoa den jakin dezakegu, baita EAEko Administrazio osoaren (gubernua + aldundiak + udalak) zorpetzearen zenbatekoa ere.

Foru Aldundiei dagokienez, 2019an 214,3 milioi euroko zorra jaulki zuten (aurreko ekitaldian baino % 10,4 gutxiago). Horietatik 55 milioi Arabako Foru Aldundiari dagozkio, 40 Gipuzkoakoari eta gainerako 119,3ak Bizkaikoari. Horrez gain, 275,6 milioi euroko balioarekin amortizatzen dute, aurreko ekitaldian baino % 24,3 gutxiago. Amortizatutako kopurutik 160,1 milioi Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, 51,5 Gipuzkoakoari eta gainerako 63,9 milioiak Arabako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia, 1.944,1 milioi, % 2,8 txikitu da aurreko urtekoaren aldean. BPGd-arekiko erlazioan ere hala egin du: 2018an % 2,6 izan zen eta 2019an % 246.

EAEko udalei dagokienez, arestian aipatutako estatistikan oinarri harturik, badakigu 2019an 47,6 milioi euroko zorra jaulki zutela, eta 71,1 milioi euro amortizatu zutela. Beraz, ekitaldiaren amaieran, ordaindu gabeko zorra 23,5 milioi euro gutxitu zen eta 399,7 milioi eurokoa izan zen.

Guztira hartuta, EAEko herri-administrazio guztiek (gobernuak, foru-aldundiek eta udalek), 2019ko ekitaldian, 10.988,6 milioi euroko zor bizia izan zuten urtearen amaieran (hau da, 2018an baino % 5 gutxiago). Zenbateko hori aipatutako urteko BPGd-aren % 13,8koa izan zen (2018an, aldiz, % 15ekoa izan zen).



Guztizko zorraren % 78,7 Eusko Jaurlaritzari dagokio, % 10,6 Bizkaiko Foru Aldundiari, % 4,5 Arabakoari eta % 4,3 Araba Foru Aldundiari. Gainerakoa, 399,7 milioi euro, hain zuzen, EAEko udaletako finantza-zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren % 10 da (2018an % 3,7).

4.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK

EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. Kupoa deritzonaren bidez EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga-bilketa lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiek egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga-bilketa egiten dute.

EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen diete: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, Foru Aldundiek eta Udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatu Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionalatik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten eta akordioen ondorioz.

Lehenik eta behin, **Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak aipatu behar ditugu**, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin Foru Aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten Aldundiek Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru-sarreraren %90 baino gehiago ekarpen horietatik datoz).

II.4.13. TAULA. FORU ALDUNDIEK EAE-KO ERAKUNDE KOMUNEI EGITEN DIZKIETEN EKARPENEN (EUROAK, MILAKA)								
KONTZEPTUA	2016	2017	2018	2019	2020	2021	ALD. % 19/20	ALD. % 20/21
EK. OROKORRA	8.224.923	8.134.577	9.366.098	9.633.564	8.561.419	10.203.963	-11,1	19,2
EK. ESPEZIFIKOAK	509.580	1.698.393	631.329	738.100	656.394	625.790	-11,1	-4,7
EAE, GUZTIRA	8.734.503	9.832.970	9.997.427	10.371.664	9.217.813	10.829.753	-11,1	17,5
EK. ARABA	1.430.712	1.617.523	1.643.577	1.698.879	1.499.738	1.756.586	-11,7	17,1
EK. BIZKAIA	4.423.152	4.981.382	5.035.704	5.228.356	4.644.856	5.446.283	-11,2	17,3
EK. GIPUZKOA	2.880.639	3.234.064	3.318.146	3.444.429	3.073.219	3.626.884	-10,8	18,0
ARABAREN %	16,38	16,45	16,44	16,38	16,27	16,22		
BIZKAIAREN %	50,64	50,66	50,37	50,41	50,39	50,29		
GIPUZKOAREN %	32,98	32,89	33,19	33,21	33,34	33,49		

Iturria: . EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia eta Ogasun Saila. Kupoaren eta Finantza-Ekarpenen Zuzendaritza.

2021ean, ekarpen horiek 10.829,7 milioi euro izan ziren, 2020an baino %17,5 gehiago (hasierako aurrekontuan baino 1.210,6 milioi gehiago)

2007-2011 aldiko berrikuntza lege³², Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak hainbat aldaketa erabaki zituen baliabideak banatzeko eta aldundien ekarpenak zehazteko. Aldaketa horien artean, besteak beste, ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala % 70,44tik % 70,04ra jaitsi zen, toki erakundearen partaidetza areagotzeko; Foru Aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme mekanismo gisa; EAEko erakundearen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa % 0,75 izatetik % 1 izatera igaro zen.

II.4.14. TAULA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATUTAKO DIRU-SARRERAK (MILA EUROTAN).								
	2016	2017	2018	2019	2019ko BAN. (%)	17/18ko ALD. %	18/19ko ALD. %	
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	8.734.503	9.832.970	9.997.427	10.371.664	89,1	1,7	3,7	
. EKARPEN OROKORRA	8.224.923	8.134.577	9.366.098	9.633.564	82,8	15,1	2,9	
. BERARIAZKO EKARPENAK	509.580	1.698.393	631.329	738.100	6,3	-62,8	16,9	
2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU-SARRERAK	266.144	237.267	203.675	167.579	1,4	-14,2	-17,7	
. EUSKADIKO ERAKUNDEEN TRANSFERENTZIAK	2.725	3.500	518	19	0,0	-85,2	-96,3	
. ESTATUAREN TRANSFERENTZIAK	157.453	143.134	107.726	68.285	0,6	-24,7	-36,6	
. EUROPAR BATASUNAREN FUNTSAK	105.966	90.633	95.431	99.276	0,9	5,3	4,0	
- EGIF	9.296	1.479	788	16.257	0,1	-46,7	1963,1	
- EGEF	29.313	3.137	23.156	11.074	0,1	638,2	-52,2	
- LGENF*	5.448	18.707	20.422	11.885	0,1	9,2	-41,8	
- NBEUF*	57.541	57.715	50.677	51.076	0,4	-12,2	0,8	
-IFOR (FEP)	1.813	6.900	-	-	-	-	-	
- FEMP	-	2.438	-	8.111	0,1	-	-	
- BESTE FUNTS BATZUK	2.555	257	388	872	0,0	51,0	124,7	
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	1.405.625	1.194.227	1.489.928	1.095.173	9,4	24,8	-26,5	
- ZOR PUBLIKOA	1.106.042	975.047	1.273.711	870.696	7,5	30,6	-31,6	
- ZEHARKAKO ZERGAK	3.918	3.992	4.134	4.147	0,0	3,6	0,3	
- ONDAREKO SARRERAK	36.198	2.152	1.663	3.397	0,0	-22,7	104,3	
- INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEAK	946	177	12.074	47	0,0	6.721,5	-99,6	
- BESTE TRANSFERENTZIA BATZUK	36.198	2.152	4.888	16.349	0,1	127,1	234,5	
- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA	66.574	23.787	23.447	20.725	0,2	-1,4	-11,6	
- TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK	181.564	178.022	170.011	179.812	1,5	-4,5	5,8	
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	10.406.271	11.264.484	11.691.031	11.634.417	100,0	3,8	-0,5	

Iturria: ZERGA KOORDINATZEKO ORGANOAK
* 2017ko urtarrietik aurrera, ABFT (AEF) desagertu eta FEMP sortu zen.

Bestalde, Europar Batasunaren **fondoetatik datozen diru-laguntzak** aurrekontu konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daiteke, kasu bakoitzean araututa

³² 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Oraindik ere indarrean dago (2021). Arau hori eguneratu egin da, hasiera batean 2022-2026 aldirako, urriaren 7ko 4/2021 Legearen bidez (Baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa). Arau horren gaineko xehetasunak 2022ko Memoria Sozioekonomikoan jasoko dira.

dagoenaren arabera. 2019an (informazioa duen azken urtea) % 4 handitu dira, aurreko ekitaldian % 5,3ko igoera izan ondoren, Horrenbestez, 99,27 milioi eurokoak izan ziren.


Partida nagusia Bermerako Nekazaritzako Europako Funtsa da (2007. urtean sortua Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsarekin batera, nekazaritzarako Europako laguntzak kudeatzeko), 51,1 milioi euroekin, guztizkoaren % 51,4. Zenbateko horri LGENF funtsaren 11,9 milioi euro gehitzen badizkiogu, 63 milioi euro (Europako funtsen % 63,4) nekazaritzara bideratzen dira erreferentziako urtean.

Beste partida interesgarri bat **Estatuarentzako kupoa** da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2021. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 719,47 milioi eurokoa da. 2020. urtearen aldean % 30,4 murriztu da.

II.4.15. TAULA. EAE-K ESTATUARI ORDAINDUTAKO KUPOAREN BILAKAERA. EUROAK, MILAKOTAN.						
	2018	2019	2020	2021	19/20 (%)	20/21 (%)
SARTUTAKO KUPOA	1.028.790	1.021.640	1.107.908	791.495	8,4	-28,6
KONPENTSAZIOAK*	-82.226	-79.049	-73.947	-72.022	-6,5	-2,6
ORDAINDUTAKO KUPOA	946.564	942.591	1.033.961	719.473	9,7	-30,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia eta Ogasun Saila.
 (*) Finantza konpentsazioak fabrikazioaren gaineko zerga bereziengatik.

Amaitzeko, Estatuari egiten zaizkion ordainketa horiek ez ezik, zenbait zenbateko ere jasotzen dira; horietatik nabarmenena **Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan** (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik. Doikuntza hori Estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga-administrazioen artean zerga-bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga administrazio horiek beren lurraldean jarduten baitute muga fiskalik gabeko espazio batean. Doikuntza horiei zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek beharrezkoak dira honen ondoriozko distortsioa zuzentzeko: zerga horiek kargatzen dituzten produktuen behin betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egiten da.



2019an (informazioa duen azken urtea) BEZagatikoko doikuntza 1.899 milioi eurokoa izan zen EAEn. Kopuru hori % 6,9 handitu zen, aurreko urtekoarekin erkatuta. Partida horretan, % 63,7 aduanetako diru-bilketaren egokitzapenari dagokio, eta gainerako % 36,3 barne-eragiketei. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

4.6. ENPLEGUA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN

Eta euskal administrazio publikoek 142.526 langile zituzten 2021eko urtarrilaren 1ean³³, EUSTATen "Administrazio Publikoen Direktorio"ko datuen arabera. Kopuru hori aurreko urtean baino % 1,9 handiagoa da, eta 2021eko lehen hiruhilekoan EAEn okupatutako langile guztien % 15,4 (2020an baino 7 hamarren gehiago), BJAREN okupazio-zifrak kontuan hartuta.

Datu horiek ez dituzte kontuan hartzen Estatuko Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren Sistemaren mendeko langileak, baina Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak, 2021eko urtarrileko estatistika-buletinean, kalkulatu zuen Euskadiko Estatuko Administrazio Publikoko langileak 10.376 zirela data horretan (4.785 Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura eta 5.591 "beste batzuk" kategorian, Estatuko segurtasun indarrak eta kidegoak barne). Zenbateko biak batzen baditugu, lanpostu publikoak, 2021a hastean, 152.902 inguru lirateke (aurreko urtean baino % 1,8 gehiago). Edozelan ere, zenbatespen bat baino ez da zenbateko hori, erreferentzia-data eta metodologia desberdinak erabili baitira³⁴.

EUSTATen kopuruak berriz ere aztertuta, 2021eko urtarrilean ziren 142.526 enplegatu publikoetatik % 65,2 EAeko administrazioa zen, %18,8 tokiko erakundeetako, % 8,4 foru aldundietako eta gainerako % 7,6a unibertsitateko, fundazioetako eta beste erakunde publiko batzuetako.

II.4.16. TAULA. EAeko ADMINISTRAZIOETAKO ENPLEGATUEN BILAKAERA URTARRILAREN 1EAN								
	2016	2017	2018	2019	2020	2021	19/20 (%)	20/21 (%)
EUSKO JAURLARITZA	85.389	86.405	88.137	90.875	90.374	92.887	-0,6	2,8
FORU ALDUNDIAK	10.623	10.842	11.037	11.523	11.708	11.947	1,6	2,0
TOKIKO ERAKUNDEAK	25.593	25.800	26.114	26.818	27.170	26.826	1,3	-1,3
FUNDAZIOAK ETA ISAL*	2.515	2.594	2.754	3.304	3.555	3.824	7,6	7,6
BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUK	371	372	373	425	434	437	2,1	0,7
UPV/ EHU	6.425	6.429	6.510	6.624	6.644	6.605	0,3	-0,6
GUZTIRA	130.916	132.442	134.925	139.569	139.885	142.526	0,2	1,9

Iturria: EUSTAT. Administrazio publikoen direktorioa.
* Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

2020ko urtarrilarekin alderatuta, EAeko administrazioetako enplegua 2.641 pertsonatan hazi zen (% 1,9), eta modu positiboan nabarmendu zen Jaurlaritzaren eta foru-aldundien bilakaera: % 2,8 (+2.513) eta % 2 (+239). Aldiz, toki-erakundeena % 1,3 (-344) jaitsi zen.

II.4.17. TAULA .EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ENPLEGATUAK, ARAU-ESPARRUAREN ARABERA. 2021-1-1EKO DATUAK					
	GUZTIRA	EUSKO JAURLARITZA ETA MENDEKO ERAKUNDEAK	FORU ALDUNDIAK ETA MENDEKO ERAKUNDEAK	TOKI-ERAKUNDEAK ETA MENDEKO ERAKUNDEAK	GAINERAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK
GOI-KARGUAK	1.353	309	206	668	170
FUNTZIONARIOAK	88.022	62.774	7.062	14.950	3.236
-FINKOAK	62.450	47.019	4.379	8.656	2.396
-BARNEKOAK	25.572	15.755	2.682	6.294	840
LAN-ITUNPEKOAK	53.151	29.804	4.679	11.208	7.460
-FINKOAK	18.092	7.185	2.331	5.463	3.113
- ALDI BATERAKOAK	35.059	22.619	2.348	5.745	4.347
GUZTIRA	142.526	92.887	11.947	26.826	10.866

Iturria: EUSTAT. Administrazio publikoen direktorioa.


Bestalde, funtzionarioak langile guztien % 61,7 ziren, % 37,3 lan-itunpeko pertsonala zen, kasu bietan Osakidetzaren estatuetako pertsonala barne. % 0,9 goi-mailako kargudunak ziren. Gainera, langile finkoak (funtzionarioak, lan-kontratudunak eta estatutupekoak) langileen % 56,5 ziren (-1,2 puntu 2020an), % 17,9 bitarteko funtzionarioak ziren

³³ Lanaldi osoko langile landun baliokideak.

³⁴ Ministerioaren datuek egonkorra deritzon plantilla zenbatesten dute, 6 hiletik beherako aldi baterako kontratuak baztertuz.

(+1,1 puntu) eta % 24,6 aldi baterako lan-kontratudun langileak (2020ko ratio bera). Hala, bitartekotasun eta behin-behinekotasun maila % 42,5koa izan zen (%41,4koa aurreko urtean).

Sexuari dagokionez, 2021eko abenduaren 31n, euskal administrazio publikoetako enplegatu guztien % 36,2 gizonetzkoak ziren, eta emakumeak % 63,8 (+7 hamarren gehiago aurreko urtearen aldean). Emakumeen nagusitasun hori areagotu egin da urtean. Hala, 2011tik hasita, emakumeen kopurua % 16,4 hazi da, eta gizonena, berriz, % 2,4 gutxitu. Horrela, emakumeek 3 puntu irabazi dituzte guztizkoarekiko.



Feminizazio-tasa hori bereziki handia da Eusko Jaurlaritzan eta haren mendeko erakundeetan, emakumeen ehunekoa % 70 baita. Foru-aldundietan emakumeen partaidetza % 58,9koa da, eta toki-erakundeetan, azkenik, gizonen eta emakumeen pisua nahiko berdinduta dago: gizonen % 50,6 eta emakumeen % 49,4.

ITURRIAK

- EUSTAT (2021).** Administrazio publikoen direktorioa. 2021-1-1EKO DATUAK
- EUSTAT (2021).** Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika 2019
- EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2022).** EAEko aurrekontu orokorren betearazpena 2021. 2021eko azaroan eguneratutako aurrekontua
- EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2022).** Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika. 2021eko IV. hiruhilekoa
- EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2022).** Zergak Koordinatzeko Organoa. Euskal ogasunaren urteroko txosten integratua, 2019
- EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2022).** Zerga itunduen bilketa-zifrak. 2021eko abendua
- EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2022).** Foru Aldundien kupoari eta ekarpenei buruzko datuak 2021
- OGASUN MINISTERIOA (2022).** AA.EE.en defizit-zifrak 2021ean (behin-behinekoak).
- LURRALDE POLITIKAKO MINISTERIOA (2021).** Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Buletin Estatistikoa. Urtarrila 2021

5. PRODUKZIO-AZPIEGITURAK

Azpiegitura fisikoak oinarrizko elementua dira garapen ekonomikoa, ongizate orokorra eta edozein gizarteren kohesioa posible izan daitezen, eta herrialde baten ekonomia orokorraren jardunaren gainean eragin garrantzitsua dute. Zehazki, produktibitatea eta hazkundea areagotzen laguntzen dute.

Atal hau bi bloke handitan dago banatuta. Lehenbizikoa garraioari buruzkoa eta bigarrena energiaren ekoizpenaren eta kontsumoaren gainekoa. Garraioari dagokionez, lehenik eta behin, Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuak aztertuko dira eta, ondoren, errepideko garraioaren, trenbideko garraioaren airetiko garraioaren eta itsasoko garraioaren gaineko hainbat adierazle emango dira. Energiaren ekoizpenari eta kontsumoari buruzko atalean, barne kontsumo gordina edo energiaren eta azken kontsumoaren eskariaren bilakaera aztertuko da, baita energia primarioaren ekoizpenarena, energia intentsitatearena eta energiaren fakturarena ere.

5.1. GARRAIOA

5.1.1. Europa Barneko Garraio Sarea (EBG-S)

Europako erakundeek Europa barneko garraio sarea (EBG-S / TEN-T ingelesezko siglak) diseinatu eta garatu nahi dute, osoa eta integratua, estatu kide eta eskualde guztiak hartuko dituen, eta garraio modu guztien garapen orekaturako oinarria emango duena, sareak Europarentzat duen balio erantsia ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Europako Batzordeak ondorioztatu zuen EBG-S garatzeko modurik onena geruza bikoitzeko sistema bat zela, sare orokor batez eta oinarrizko sare batez osatua.

Sare orokorra lehendik dauden azpiegitura guztiak osatzen dute, EBko eskualde guztien irisgarritasuna eta konektibitatea planifikatzen eta bermatzen dute, eta beranduenez 2050eko abenduaren 31n amaituta egon behar du.

Oinarrizko sarea Europa barneko garraio sarearen garapen helburuak lortzeko garrantzi estrategiko handiena duten sare orokorreko zatiak osatuko dute. Sareak lotura estrategikoak ezarriko ditu hiri-nodo garrantzitsuenen eta beste nodo mota batzuen artean, hala nola portuen, aireportuen eta mugako pasabideen artean. Sarearen bi aldeek garraio bide guztiak eta interkonexioak jasoko dituzte, garraio-azpiegitura berriekin garatzeko eta lehendik daudenak modernizatzeko interes komuneko proiektuak sortu ahal izateko. Oinarrizko sareak 2030eko abenduaren 31n egon behar du amaituta.

Hala definitutako sarearen barruan, oinarrizko sareko **igarobide** multimodalak ezartzen dira. Ez dira sarearen hirugarren maila bat, baizik eta sarearen garapena eraginkorra eta koordinatua izan dadin bultzatzeko tresna bat. Atlantikoko eta Mediterraneoko igarobideen zati bat Espainiatik igarotzen da.

Atlantikoko igarobideak komunikazioak ezartzen ditu Europako hego-mendebaldeko eta erdialdeko eskualdeen artean, Iberiar Penintsulako portuak (Algeciras, Sines, Lisboa, Leixões (Oporto), Galizia eta Bilbo) Frantziaren, Parisen eta Normandiaren mendebaldeko aldearekin (Le Havre eta Rouen portuak) eta ekialdeko aldearekin (Estrasburgo eta Mannheim) lotuz.

Sarearen osaera	<ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura nodalak: Hiri-nodoak, portuak, aireportuak eta salgaien terminal multimodalak (Rail-Road Terminals, RRT), hala nola JLZak (Jarduera Logistikoen Zonak), portu lehorrak eta bestelako plataforma logistikoak. Azpiegitura linealak edo nodoen arteko loturakoak: trenbidea, errepidea, barneko bide nabigarriak, itsasoko autobideak.
Sarearen egituraketa	<ul style="list-style-type: none"> SARE OROKORRA edo osoa (COMPREHENSIVE Network), EBG-S sarearen kontzepturik zabalena da, interes komuneko elementu guztiak osatua. EBko eskualde guztietarako irisgarritasuna bermatzen du. Estatu kideek 2050ean amaitu beharko dute. OINARRIZKO SAREA (CORE Network) Batasuneko garraio politikaren helburuak lortzeko garrantzi estrategiko handiena duten sare orokorreko elementuek osatzen dute, eta lehenasuna ematen zaie Erkidegoaren laguntza duten jarduerari. 2030erako amaitu behar da.

II.5.1. TAULA. EAE-KO EBG-S NODOAK	
OINARRIZKO SAREKO HIRI-NODOAK	Bilbo
PORTUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko sarea: Bilbo • Sare orokorra: Bilbo eta Pasaia
ERREPIDE ETA TRENBIDEETAKO TERMINAL INTERMODALAK (PORTUETAN KOKATUTAKO EZ GAIN)	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko RRT: Bilbo. • RRT orokorra: Bilbo eta Gasteiz.
AIREPORTUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko sarea: Bilbo (hala ere, ez da erregistratzen 2030erako Erregelamenduko baldintzak bete beharra ezartzen duen trafiko bolumena) • Sare orokorra: Donostia eta Gasteiz

Iturria: Garraio Ministerioa

5.1.2. Euskadiko garraio-sistemaren deskribapen orokorra

Egoera estrategikoagatik nahiz industria jarduera handiagatik, era guztietako trafikoaren maila handienetakoa ageri duen Europako zona bat da EAE. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagokoak diren zerbitzu batzuk eskainita. Ondoko taulan, garraio-sistemaren osaera ageri da, azpiegituraren titulartasuna eta operadorea kontuan izanik betiere.

II.5.2. TAULA. EUSKADIKO GARRAIO-SISTEMA				
SISTEMA	AZPIEGITURA		ORGANO TITULARRA	ERAKUNDE OPERADOREA
BIDE SISTEMA	A-1	A-1. Iparraldeko autobia (Burgos-Armiñon)	Foru Aldundiak	Garraioaren Zerbitzu Publikoaren emakidaduna / hura ematen duena Erabiltzaile partikularra
		AP-1. Gasteiz-Eibar (ordainpekoa)		
	A-8/AP-8	A-8: Kantauriko autobia (Bizkaia-Kantabria probintzia-mugaraino)		
		AP-8: Kantauriko autobidea (Irun-Bilbo, ordainpekoa) Super hegoaldea ere sartzen da (baita ordainpekoa ere)		
	AP-68. Ordainpeko EAE-Aragoiko autobidea (zero KP, Bilbon, 77,5 kilometroraino, Araba eta Burgos arteko muga)			
	Artxandako tunelak (ordainpekoa)			
Errei anitzeko errepidea edo arrunta	Bi autonomia-erkidegoren artean.		Foru Aldundiak	
	Eskualdekoa		Foru Aldundiak	
	Hirikoa		Udalak	
TRENBIDE-SISTEMA	Europa Barneko Sarea Penintsulako Sarea		Estatua	ADIF ³⁵ (RENFE)
	Sare metrikoa		EAE	EUSKOTREN ETS ³⁶
			Estatua	ADIF
	Metro/tranbia		EAE	Metro Bilbao, EUSKOTREN ETS
	Zubi Esekia		Bilboko Portuko Agintaritza	Pribatua
PORTU SISTEMA	Interes Orokorreko Portuak: Bilbo eta Pasaia		Estatua	Portuko Agintaritza
	Erkidegoko Portuak		EAE	EAE
AIREKO SISTEMA	Interes Orokorreko Aireportuak: Gasteiz, Bilbo eta Donostia		Estatua	AENA
KABLE SISTEMA	Igogailuak eta funikularrak. Funikularren artean, Artxandako, Larreinetako, Igeldoko eta Mamarigako funikularrak daude, guztiak Bizkaian kokatuak, Igeldoko Funikularra izan ezik.		EAE	Pribatuak Publikoak
GARRAIO INTERMODALAREN SISTEMA	Garraio eta Logistika Zentroak: CTV Gasteiz, ZAISA Irun (Gipuzkoa), APARCABISA (Bizkaia)		Partzuergo/entitate publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

Iturria: Euskadiko garraioaren panoramika, Euskadiko Garraio Behatokia (OTEUS) eta geuk egina

³⁵ADIF, Trenbide Azpiegituren Administrazioa, Sustapen Ministerioaren menpeko enpresa-erakunde publikoa da.

Trenbide azpiegituren administrazioa (trenbideak, geltokiak, salgaien terminalak, etab.), trenen zirkulazioaren kudeaketa, tren operadoreen ahalmenaren esleipena eta azpiegitura, geltokiak eta salgai terminalak erabiltzeagatik kanonak hartzen ditu bere gain.

Trenbide jardueren gero eta espezializazio handiagoa dela eta, Sustapen Ministerioari atxikitako bi enpresa-erakunde publikotan banatu da ADIF : ADIF eta ADIF Abiadura Handia.

³⁶ETS, Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca EAEn eskumeneko trenbide azpiegituren administrazioaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da.

Haren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren menpeko trenbide azpiegiturak eraikitzea, artatzea, kudeatzea eta administrazioa da, trena garraio sistema modernoa, eraginkorra eta iraunkorra izan dadin.

5.1.3. Estatuko erakunde publikoek ingeniari-tza zibilean egindako esleipenak

Ingeniari-tza zibileko Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF eta PORTUAK eta RENFE) EAEn egindako esleipenei buruz Garraio Ministerioak argitaratutako datuek erakusten dute erakunde guztiak gora egin dutela, AENAK izan ezik, 2020tik 2021era. Hala, ADIFenak 62,8 milioitik 66,4 milioira igaro dira, postuenak 16 milioitik 47,5 milioira eta RENFE OPERADOREARENAK 10.000 eurotik 35.000 eurora. Bestalde, AENAK egindako esleipenak 12 milioi eurotik 6,2 milioi eurora jaitsi ziren.

II.5.3. TAULA. ESLEIPENAK ESTATUAN ETA EAE-N INGENIARI-TZA ZIBILEAN, SUSTAPEN MINISTERIOAREN ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ALDETIK (mila eurotan)

	EAE						ESTATUA			EAE/Estatua (%)	
	2017	2018	2019	2020	2021 bb	Aldak. 2020-21	2019	2020	2021 bb	2020	2021 bb
MINISTERIOA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK	51894	419212	133336	81170	110538	36,2	3680895	1465772	2263442	5,5	4,9
ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK	51894	419212	133336	81170	110538	36,2	3029874	1031708	2127261	7,9	5,2
AENA	20680	10391	15647	12036	6203	-48,5	454403	26948	272504	44,7	2,3
ADIF	16560	400873	131424	62836	66377	5,6	2596446	743122	1834489	8,5	3,6
PORTUAK	42205	11911	10128	15955	47517	197,8	65709	269726	288212	5,9	16,5
RENFE OPERADOREA	1218	408	9334	10	35	250,0	75519	30985	26744	0,0	0,1

bb: Behin-behinekoa

Iturria: Guk geuk egina, Garraio Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

5.1.4. Errepide bidezko garraioa

5.1.4.1. Azpiegitura: errepide-sarea

Errepideak, beren ezaugarriak direla eta, honela sailkatzen dira: autobideak, autobiak, errei anitzeko errepideak eta errepide arruntak (37/2015 Legea, Errepideei buruzkoa).

- Autobideak ezaugarri hauek dituzten errepideak dira: aldameneko jabetzak autobideetara ez sartzea; beste komunikazio-bide edo bide-zortasun batetik ere ez gurutzatzea, ezta maila berean gurutzatzea ere; eta zirkulazioaren noranzko bakoitzerako galtzada desberdinak izatea, zirkulaziorako ez den lur-zerrenda baten bidez edo, salbuespenezko kasuetan, beste bide batzuen bidez bereizita, salbu eta puntu berezietan edo aldi baterako.
- Autobiak dira autobideen betekizun guztiak betetzen ez dituzten errepideak, galtzada bereziak dituztenak zirkulazioaren noranzko bakoitzerako eta mugakide diren jabetzetara eta jabetzetatik sartzeko mugak dituztenak, eta gurutzagunerik ez dutenak.
- Errei anitzeko errepideak dira, autobide edo autobia izan gabe ere, noranzko bakoitzean zirkulaziorako gutxienez bi errei dituztenak, noranzko horietatik bereizita edo mugatuta daudenak, eta sestran sarbideak edo bidegurutzak izan ditzaketenak³⁷.
- Errepide arruntak dira aurrekoen ezaugarriak betetzen ez dituztenak.

Titulartasunari dagokionez, Espainiako Konstituzioak Estatuaren esku uzten du autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldetik igarotzen diren trenbideen eta lurreko garraioen gaineko eskumen eskusiboa. Hala ere, irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion EAeri errepideen alorreko eginkizunak eta zerbitzuak,

³⁷ Errepide horietako erriak zenbatzerakoan, ez dira kontuan hartuko errei gehigarriak, itxaroteko erriak, txirikorda-erriak eta abiadura-aldaketako erriak.

eta abenduaren 3ko 174/2018 Dekretuaren bidez zabaldu egin ziren EAeri eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak, eta, beraz, EAEko erakunde guztiak dira EAEko errepideen titularrak.

Zehatzago, 2019tik, bide-azpiegituren titulartasuna lurralde bakoitzeko foru aldundiei dagokie soilik, Artxandako tunelei izan ezik (Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate emakidaduna). Aurten, Estatuko Administrazioetik EAera errepideen arloko transferentziak egiteko prozesua amaitu da. AP-1 autobidea, hegoaldeko zatian Armiñoneraino, 2018ko abenduan eskualdatu zen, eta AP-68 autobidea, berriz, 2019ko apirilean. Ondoren, Bizkaiko eta Arabako foru aldundiei eskualdatzen zaie. A-8 autobidean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, hurrenez hurren, Bidegi eta Interbiak sozietateen esku uzten dute hura ustiatzeko kudeaketa; Arabako Foru Aldundiak, berriz, Arabat sozietate publikoaren esku AP-1 autobidearen Arabako zatia.

Zifrei dagokienez, argitaratutako azken datuek -2018koak- erakusten dute Euskadiko errepide-sareak 4.147 km-ko luzera duela, eta edukiera handiko 625 bide direla (autobideak, autobiak eta errei anitzeko errepideak), hau da, EAEko errepide-sarearen % 15 eta Estatuko errepide-sarearen % 10,4.

II.5.4. TAULA .ERREPIDE-SAREA BIDE MOTAREN ETA ALDIAREN ARABERA. (Km)					
	2014	2015	2016	2017	2018
ESTATUA					
ERREPIDEEN KM KOPURUA, GUZTIRA	165639	166003	165483	165686	165624
GALTZADA BATEKO ERREPIDEAK	148934	148982	148375	148523	148396
EDUKIERA HANDIKO BIDEAK, GUZTIRA	16705	17021	17108	17163	17228
EAE					
ERREPIDEEN KM KOPURUA, GUZTIRA	4169	4178	4180	4161	4147
GALTZADA BATEKO ERREPIDEAK	3567	3561	3556	3537	3522
EDUKIERA HANDIKO BIDEAK, GUZTIRA	602	617	624	624	625

Iturria: 2019. urtean argitaratutako Garraio Ministerioaren 2018ko urtekaria.

5.1.4.2. Errepideko salgaien trafikoa

Garraio Ministerioaren datuek erakusten dutenez, jatorria edo helmuga EAEn zuela garraiatutako salgaien bolumena 105,2 milioi tonakoa izan zen 2021ean (igarobideko nazioarteko trafikoa alde batera utzita), hau da, % 12ko igoera 2020. urtearekin alderatuta (pandemiaren lehen urtea). % 45,2, eskualde barruko trafikoa da; % 48,1, eskualde artekoa; eta % 6,7, nazioartekoa.


Izan ere, garraiatutako salgaien kopuruak gora egin du eskualde barruko joan-etorrietan (+% 10,6), eskualde artekoetan (+% 12,9) edo nazioartekoetan (+% 15,8).

II.5.5. TAULA. TONA GARRAIATUAK, JOAN-ETORRI MOTAREN ARABERA, ABIAPUNTUA EDO HELMUGA EAE-N IZANDA (milaka Tm)									
		2016	2017	2018	2019	2020	2021	% bertikala	Aldak. 2020-21
GUZTIRA		91691	97157	95738	102051	93902	105179	100	12,0
ESKUALDE BARRUKOA	GUZTIRA	42464	43859	44490	45954	42995	47544	45,2	10,6
	UDAL BARRUKOA	7229	7830	7953	5305	7623	10402	9,9	36,5
	UDAL ARTEKOA	35235	36029	36537	40649	35372	37142	35,3	5,0
ESKUALDE ARTEKOA	GUZTIRA	42751	46908	45157	49248	44806	50569	48,1	12,9
	JASOA	22219	24119	23717	24828	21589	27182	25,8	25,9
	BIDALIA	20532	22789	21440	24420	23218	23387	22,2	0,7
NAZIOARTEKOA	GUZTIRA	6477	6390	6092	6849	6101	7065	6,7	15,8
	JASOA	3405	3157	3070	3072	2983	3447	3,3	15,6
	BIDALIA	3071	3233	3022	3777	3118	3618	3,4	16,0

Iturria: Garraio Ministerioa. Datu-basea

Eskualdeen arteko eremuan, Euskadiko Garraio Behatokiaren 2020ko datuen arabera, Gaztela eta Leon da euskal ekonomiaren merkataritza-bazkide nagusia, zeren eta 9,9 milioi tona inguru trukatu baititu; hau da, EAEn eta gainerako erkidegoen arteko garraioaren % 22. Bigarrenik, Nafarroak 7,6 milioi tona ditu eta eskualdeen arteko trafikoaren % 17ko kuota. Hirugarren postuan Kantabria dago, 5 milioi tona salgai inguru baititu, eta errepideko salgaien garraioaren %11,1eko partaidetza du.

II.5.1. GRAFIKOA. ESKUALDE ARTEKO SALGAIEN GARAIOA EAE-REN ETA GAINERAKO AA.EE.EN ARTEAN. 2020



Iturria: Euskadiko garraioaren panoramía, EUSGB

5.1.5. Trenaren bidezko garraioa

5.1.5.1. Trenbide-sarea

Gaur egun, zabalera iberikoko (1.668 mm-ko burdinbide-zabalera), zabalera estandarreko (1.435 mm) eta zabalera metrikoko (1.000 mm) ³⁸ lineak ditu trenbide-sareak. Zabalera estandarra da zabalerrarik ohikoena eta lehenetsita aplikatzen dena linea berri gehienetan. Zabalera iberikoko sarea eta zabalera estandarrekoa zabalera-aldaketa automatikoko sistemen bidez daude konektatuta. Zabalera mistoko lineak ere badaude (1.435/1.668 mm), hirugarren erreiko sistemaren bidez.

II.5.6. TAULA. ADIF-EK EAE-N KUDEATUTAKO LINEEN ADIBIDEAK, BIDE-ZABALERAREN ARABERA

ZABALERA IBERIKOA (RENFE)	Bidaiariak	Aldiriko lineak: C1 Bilbo-Santurtzi C2 Bilbo-Muskiz C3 Bilbo-Urduña C1 Irun-Brinkola
	Salgaiak	Miranda de Ebro - Urduña
ZABALERA ESTANDARRA	Bidaiariak	Abiadura handiko sarea (Euskal Y-a)
	Salgaiak	
ZABALERA METRIKOA (LEHEN FEVE)	Mistoa	La Robla Bilbo (Concordia)-Leon
	Bidaiariak	Bilbo (Concordia)-Basurto
	Salgaiak	Basurto - Ariz adarra

Iturria: Geuk egina

Trafikoari dagokionez, sarearen zatirik handiena trafiko mistoko lineek osatzen dute (salgaiak eta bidaiariak).

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, bi administratzailek kudeatzen dituzte EAEko trenbide-azpiegiturak:

- Adif-Trenbide-azpiegituren administratzailea, zeinaren bidez RENFEko operadore nagusiak EAE Estatuko hiriburu nagusiekin lotzen baitu. 2013ko urtarrilaren 1ean, Ferrocarriles de Vía Estrecha (FEVE) integratuta geratu zen Adifen, trenbide-azpiegiturak mantentzeari eta eraikitzeari dagokionez, uztailaren 20ko 22/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritakoa betez. Egun horretatik aurrera, RENFE Operadoreak Kantauri isurialdeko zerbitzuak estaliko ditu.
- ETS-RFV (Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca). ETSren azpiegiturretako eragileak honako hauek dira: EuskoTren, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat udalerrri zeharkatzen dituen hiriarteko zerbitzuaren eskaintzan; Metro Bilbao, Bizkaiko hiriburuko eta metropoliko eremuan bidaiariak garraiatzen dituen; eta Euskotreneko tranbiak, Bizkaiko eta Arabako hiriburuak barne hartzen dituztenak, Bilboko tranbiaren eta Gasteizko tranbiaren zerbitzuen bitartez.

³⁸Bide zabaleko trenbideak dira estandarra baino zabalera handiagoa dutenak, zabalera iberikoa kasu, eta bide estua dutenak, berriz, zabalera estandarra baino txikiagoa dutenak, hala nola zabalera metrikoa.

Zabalera metrikoko sarea kantauriar erlaitzetik eta Murtziatik igarotzen diren hiriarteko lineen multzo batek osatzen du. Linea horietan bidaiarien eta salgaien trenak ibiltzen dira, Madrilgo Cercedilla-Cotos linearen ondoan (bidaiarientzat bakarrik).

Bestalde, Zubi Esekiaren (Bizkaiko Zubia) jardueraren kudeaketa honako sozietate honen erantzukizuna da: “Transbordador de Vizcaya SL.”

2019an, argitaratutako azken datuen arabera (EAEko Garraio Behatokia), EAEko trenbide-lineen kontzentrazioa Estatuan eta 28ko EBn erregistratutako dentsitatea baino handiagoa da. Zifretan, EAEko trenbide-sareak 549,44 kilometro ditu, eta ia guztiak elektrifikatuta daude (% 94). Estatuan eta EBn, elektrifikazio-maila txikiagoa da, % 64,3 eta % 54,6, hurrenez hurren. 549,44 km horietatik, % 64,7 ADIFena zen, eta gainerako % 35,3 Euskal Trenbide Sarearena (ETS).

2020an, Espainiako Trenbidearen Behatokiaren txostenaren arabera, ETSk kudeatutako sareak 213,2 km-ko luzera du. 213,2 km horietatik, 120,2 km elektrifikatutako bide bakarrek trazadurei dagozkie (% 56,4), 73,3 km elektrifikatutako bide bikoitzeko trazadurei (% 34,4) eta 19,8 km elektrifikatu gabeko bide bakarrari (% 9,3). Hala, sarearen zatirik handiena elektrifikatuta dago, Urolako trenbidea eta Ariz-Basurto eta Irauregi-Barakaldo tartek izan ezik.

5.1.5.2. Hegoaldeko trenbide-saihesbidea

2017ko martxoaren 15ean, Eusko Jaurlaritzak akordioa lortu zuen Espainiako Gobernuarekin Estatuko Administrazio Orokorraren, Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin eta EAEko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzaz hitzarmena sinatzeko, azken horri gomendiotan emateko hegoaldeko trenbide-saihesbidearen proiektuak eta obrak egitea. Ondoren, ekainaren 2an, Ministroen Kontseiluak onartu zuen Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea Euskal Autonomia Erkidegoari gomendiotan ematea, trenbide-azpiegituren garapena bultzatzeko.

Enkargua Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak berretsi zuen, eta honako hauek biltzen ditu: eraikuntza-azterlanak eta -proiektuak idaztea, obrak kontratatu eta gauzatea, desjabetze-espedituen administrazio-kudeaketa laguntzea, baita hegoaldeko trenbide-saihesbidearen lanek eskatzen dituzten obra-zuzendaritzak eta bestelako zerbitzuak ere. Jarduerak Estatu Administrazio Orokorraren eta EAEn arteko ekonomia-itunaren esparruan finantzatu dira (kupoa).

Konexio berriak Bilboko portua Europarekin zuzenean lotuko du, Atlantikoko trenbide-igarobidea osatzen duen Europa barneko sarearen bidez. Gaur egun portuak ez duen trenbide-lotura horrek lehiakortasuna hobetzen lagunduko du.


Horrela, Ezkerraldean trenbideko 100.000 edukiontzi baino gehiago eta trenez 800.000 tona inguru garraiatzen dituzten salgaien zirkulazioa kenduko da. Gaur egun, egunero 19 zirkulazio baino gehiago izaten dira, eta eskaria gero eta handiagoa da.

Era berean, konexioak Ezkerraldeko eta Meatzaldeko bizi-kalitatea hobetuko du; izan ere, martxan jarrita, egungo sareko salgaien trafikotik libre geratuko dira Ortuella, Trapaga, Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Barakaldo udalerriak.

Obraren aurrekontua, guztira, 548,7 milioi eurokoa da. Horietatik 464 hitzarmenean ezarritako bi jarduera faseetara bideratu dira, hau da, Serantes-Olabeagako tunelaren eta Barakaldo-Basauri tartearen idazkuntzara eta obrara. Bi fase horiek Eusko Jaurlaritzak gauzatu ditu, eta gainerako 84,7 milioiak gainegiturarako erabiliko dira. Gainegitura zuzenean Adifek gauzatu du.

5.1.5.3. Abiadura handia: Euskal Y-a

Hurrengo taulan, gaur egun Estatuan abiadura handiko (linea morea) eta distantzia luzeko (linea grisa) trenetan egin daitezkeen ibilbideak jasotzen dira. Urdinez, exekutatzen ari den euskal Y-a erakusten da.



Abiadura handiko linea (Gasteiz/Bilbo/Donostia/Frantziako muga) EBren lehentasunezko 3. proiektuaren adar atlantikoaren parte da, eta Espainiako lurraldean jarraipena ematen dio Madril Valladolid/Gasteiz/Frantziako muga lineari. Lisboa-Estrasburgo igarobide atlantikoan sartzen da, beraz, oinarritzko sarearen barruan, Europako proiektua baita, baina baita herrialde-proiektua ere, euskal hiriburuak intercity zerbitzu baten bidez batuko baititu eta Euskadi Penintsula osora eta Frantziara hurbilduko baitu.

Bi adar desberdinek osatzen dute: Gasteiz-Bilbo, 90,8 km-koa, eta Bergara-Donostia-Frantziako muga, 89,7 km-koa. ADIF arduratu da Gasteiz eta Bilbo arteko plataformaren proiektuak idazteaz eta egikaritzeaz. Gainera, Arrasate-Elorrio-Bergara trenbide-lotuneari dagozkion tarteen plataformaren proiektuak idatzi eta gauzatu ditu.

2006ko apirilean, Estatuako Administrazio Orokorrak, Eusko Jaurlaritzak eta ADIFek lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen, Estatuako Aurrekontu Orokorren kontura, Gipuzkoako adarrean plataformaren proiektuak idaztea eta plataforma eraikitzea, Bergarako 9,00 kilometro-puntutik Iruneraino, hirirako sarbidea barne (Donostia).

2017ko azaroaren 28an, Eusko Jaurlaritzak lankidetzak-hitzarmena aldatzea eta gomendioa eguneratzea onartu zuen, euskal administrazioen eta administrazio zentralaren artean lortutako akordioaren ondorioz. Aldaketak Atotxako geltokia (Donostia, gaur egun obretan dagoena), Ezkiokoa (berriki esleitu dena), Astigarragako geralekua eta Astigarraga-Oiartzun-Lezo tartearen egikaritzea sartu zituen enkarguan, baita Bergara eta Lezo arteko segurtasun-jarduketa berriak ere. ETSk hainbat eraikuntza-fasetan egiten dituen obrak dira guztiak.

Obren egoera eta kudeaketa-enkargu berriak

- Erdiko trazadura: hiru lurraldeen arteko erdiko trazadura 2026. urtearen amaierarako edo 2027. urtearen hasierarako bukatuta egongo dela aurreikusten da.
- Gipuzkoako adarra: 18 Hernani-Astigarraga tartea (II. fasea, azken-aurreko zatia) abiadura handia Donostiako ateetara utziko badu ere, aurreikusitakoaren arabera, ezin da ziurtatu 2026/27rako amaituta egongo direnik, ezta Donostiako geltokia (haren obrak 2020ko udan hasi ziren) eta hirugarren haria ere mugaraino. Izan ere, Astigarraga-Oiartzun-Lezo azken tartea, Donostiara sartzen ez diren baina trenak zirkulatzeko funtsezkoa ez den trenentzat eta pertsonentzat pentsatutako plataforma, informazio azterlanean dago.
- Bilbo/Abandoko eta Gasteizko sarbideak. Obren amaiera 2026/27 baino geroagokoa izango dela aurreikusten da.
 - 2021eko maiatzean, Adif Alta Velocidadek (Adif AV) Bilboko geltokira sartzeko igarobidea eraikiko den ingurunearen azterketa eta jarraipen hidrogeologikoa egiteko kontratua lizitatu zuen. Azterlana lizitatzeko zenbatekoa 871.369,28 eurokoa izan zen (BEZa barne).

Azterlanaren xede den trazadura bat dator Galdakao – Basauri abiadura handiko tarteari jarraipena emango dion eta Bilbo-Abandoko geltokira iristea ahalbidetuko duen trenbide-plataformarekin. Ibilbidea Nerbioi ibaiaren gaineko zubia igaro ondoren hasiko da (dagoeneko eraikita dago), eta 6 kilometro baino gehiago egingo ditu Bizkaiko Basauri, Arrigorriaga eta Bilboko udalerrietatik.

- 2021eko azaroan, Eusko Jaurlaritzak eta Garraio Ministerioak bi kudeaketa-enkargu berri gauzatu zituzten, Eusko Jaurlaritzak Gasteizen eta Bilbon abiadura handiko sarbideetako obrei aurre egin ahal izateko, Gipuzkoako adarraren zati batean egiten zuen bezala.
 - Lehenengoa Zaratamo-Cantalojasko tunela egiteko enkargua izango da. Tunel horretatik abiatuko da abiadura handia Bilbon.
 - Bigarrenari esker, Eusko Jaurlaritzak, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) bidez, Arkauteko (Araba) korapiloaren zati bat eraikitzeke proiektua eta obra egin ahal izango ditu. Euskal Y-aren puntu honek urrats berriak egingo ditu laster, ADIFek abiadura handiko trena Gasteizera iristeko oinarritzeko proiektua lizitatu ondoren. Proiektua, inplikaturako erakundeek beren erabaki-organoetan onartu duten protokoloari esker, informazio-azterlana garatzearekin batera jarri ahal izango da abian, eta ingurumenaren gaineko izapidetzea ebatzteke dago.

Gobernu zentralak zein autonomikoak nabarmendu dute oso garrantzitsua dela azpiegitura hori ahalik eta lasterren martxan jartzea, eta, horretarako, konponbideak prestatzen ari dira, Gasteizko eta Bilboko lurperatzeak egiten diren bitartean martxan jarri ahal izateko. Ministerioak hainbat aukera aztertzen ditu: Bilbora sartzeko behin-behineko geltoki bat, aldiriko konexioarekin, eta, Gasteizen kasuan, egungo geltokira sartzeko hainbat fase garatzea, lurrazalean iritsita integrazio-lanak egiten diren bitartean.

Amaitzeko, aurreikuspenen arabera, hiru lurraldeen arteko erdiko trazadura 2026. urtearen amaierarako edo 2027aren hasierarako bukatuta egongo da, baina ezin da ziurtatu ordurako amaituta egotea, ez Donostiako geltokia, ez hirugarren haria mugaraino; eta oraindik funtsezko zati bat falta da, trenaren Bilboko eta Gasteizko sarbidea.

5.1.6. Aireko garraioa: azpiegitura eta aireko trafikoa

EAEko airetiko sistema Bilbo, Donostia eta Gasteizko aireportuetako aireko azpiegiturek osatzen dute. Azpiegitura horiek guztiak estatuaren titulartasunekoak dira eta AENak kudeatzen ditu.

Hegazkintza zibilari buruzko datuen arabera, EAEko hiru aireportuetan 2.864 mila bidaiari izan ziren 2021ean (% 90,1 Bilboko aireportuan); beraz, % 57,4ko igoera izan zen 2020. urtearekin alderatuta. Bestalde, salgaien trafikoa % 12,8 gehitu zen, eta 72.995 tonakoa izan zen. (% 99,4 Gasteizko aireportuan erregistratu da).

Bilboko aireportuan 2.581 mila bidaiari egon ziren, hau da, % 52,7 gehiago 2020. urtearekin alderatuta. Salgaien trafikoari dagokionez, %22,9 hazi zen.

Gasteizko aireportuan salgaien trafikoa % 12,7 gehitu zen, hau da, 72.522 Tm³⁹. Hala, Gasteizko aireportuak 4. toki hartzen jarraitzen du aireportuen rankingean, AS Madril-Barajasen, Zaragozako eta Bartzelona-El Pratzen atzetik garraiatutako salgaien bolumenean. Bestalde, bidaiarien mugimendua 45 mila pertsonatik 128 mila pertsonara igaro zen.

Donostiako aireportuan, bidaiarien trafikoa 84 mila pertsonatik 155 mila pertsonara igaro zen.

II.5.7. TAULA. AIREKO TRAFIKO ZIBILAREN BILAKAERA, KONTZEUAREN ETA AIREPORTUAREN ARABERA

	EAE, GUZTIRA			Gasteiz			Bilbo			Donostia		
	Aire-ontziak	Pertsonak (milakoak)	Salgaiak (Tm)	Aire-ontziak	Pertsonak mila-koak)	Salgaiak (Tm)	Aire-ontziak	Pertsonak (milakoak)	Salgaiak (Tm)	Aire-ontziak	Pertsonak (milakoak)	Salgaiak (Tm)
2016	58.747	4.889	55.114	6.692	37	52.135	45.105	4.588	2.974	6.950	264	5
2017	62.348	5.340	62.444	8.434	84	60.484	46.989	4.974	1.956	6.925	282	3
2018	66.136	5.900	63.379	9.755	141	62.156	49.966	5.470	1.216	6.415	289	7
2019	68.861	6.400	65.443	10.797	174	64.463	51.591	5.906	980	6.473	320	0,4
2020	33.134	1.819	64.718	10.317	45	64.334	20.496	1.690	384	2.321	84	0,02
2021 bb	42.225	2.864	72.995	12.677	128	72.522	26.429	2.581	472	3.119	155	1,1
Aldak. 2019-20	-51,9	-71,6	-1,1	-4,4	-74,1	-0,2	-60,3	-71,4	-60,8	-64,1	-73,8	-95,0
Aldak. 2020-21	27,4	57,4	12,8	22,9	184,4	12,7	28,9	52,7	22,9	34,4	84,5	

bb: Behin-behinekoa

Iturria: Garraio Ministerioa. Hegazkintza zibila

5.1.7. Itsas garraioa: azpiegitura eta aireko trafikoa

Merkataritza-portu nagusiak Bilboko Portua eta Pasaiaiko Portua dira, interes orokorreko eta Estatuaren titulartasuneko bi portu bakarrak. Gainerako portu autonomikoen (15 guztira) euskal portu-sistema osatzen dute, eta Estatuako Administrazioak maiatzaren 14ko 2.380/1982 Errege Dekretuaren bidez Euskal Administrazioari transferitu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira.

Garraio Ministerioaren datuen arabera, 2020. eta 2021. urteen artean, Bilboko portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) % 5,6 hazi zen; guztira 31,3 milioi tona izan ziren, eta horietatik 22,4 milioi ontziratu gabeak ziren, eta % 79,3 (17,8 milioi tona) likidoak ziren. Bestela esanda, garraiatutako salgaien % 56,8 ontziratu gabeko likidoak dira, gehienbat petrolioaren produktuak. Bestalde, 331 ontzi gehiago daude, 2.338tik 2.669ra, eta bidaiari kopuruak ere gora egin du (+% 66,6); guztira 75.853 pertsona erregistratu dira.

Pasaiaiko portua askoz kopuru txikiagoak biltzen ditu, eta horietan igoera bat izan da salgaien trafikoaren aldetik (+% 16,4, guztira 3,5 milioi Tm. Ontzien kopurua 846tik 967ra igo zen, eta bidaiarien kopurua, berriz, 4tik 138 pertsonara.

³⁹Gasteizko aireportuak H24 kalifikazioa berreskuratu zuen 2018ko apirilaren 25etik, eta eguneko 24 orduetan jardun zuen berriro.

II.5.8. TAULA. ONTZIAK, BIDAIARIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA										
		2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021 bb	%	Aldakunt zaren %, 2020- 21
BILBO	PORTUKO GRAFIKOA, GUZTIRA (MILAKA TONA)	32875	32067	34308	35697	35562	29646	31299	100,0	5,6
	ONTZIRATU GABEKO LIKIDOAK	18200	18087	19784	20490	20821	18157	17765	56,8	-2,2
	SOLIDO SOLTEAK	4258	4362	4543	4758	4681	3668	4651	14,9	26,8
	SALGAIK ORO HAR	9672	9500	9870	10337	9945	7720	8763	28,0	13,5
	BESTELAKO TRAFIKOA	475	119	112	112	115	101	120	0,4	18,8
	ONTZIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	2816	2815	2855	2925	2818	2338	2669	8,5	14,2
	BIDAIARIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	165522	190626	186546	200631	160544	45538	75853	242,3	66,6
PASAIA	PORTUKO GRAFIKOA, GUZTIRA (MILAKA TONA)	3794	3458	2974	3139	3245	3037	3535	100,0	16,4
	ONTZIRATU GABEKO LIKIDOAK	0	0	0	0	0	0			
	SOLIDO SOLTEAK	1694	1099	834	996	1031	1009	1104	31,2	9,4
	SALGAIK ORO HAR	2044	2295	2085	2092	2167	1984	2388	67,6	20,4
	BESTELAKO TRAFIKOA	55	61	55	50	47	43	42	1,2	-2,3
	ONTZIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	991	994	865	911	933	846	967	27,4	14,3
	BIDAIARIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	0	758	813	1394	219	4	138	3,9	

*: Behin-behinekoa
Iturria: Garraio Ministerioa. Portuak

5.1.8. EAEko plataforma logistikoak

EUROPLATFORMSen arabera, plataforma logistikoa eremu mugatua da, eta horren barruan logistikako eta salgaien banaketako jardura guztiak egiten dituzte hainbat operadore logistikok, bai nazioarteko garraioetarako, bai garraio nazionaletarako. Monomodalak edo multimodalak diren kontuan hartuta, honelaxe sailkatzen dira: Salgaien Zentro Integratuak (SZI), Jardura Logistikoaren Zonak (JLZ) eta Portu lehorrak.

- Salgaien Zentro Integratuak (SZI): plataforma logistikoak modu bakarrean, errepidea, industria- eta kontsumo-eremu baten inguruan zerbitzua ematen dutenak.
- Jardura logistikoaren zonak (JLZ): portuetatik eta edukiontzien terminaletatik gertu daude, eta aireko garraioarekin ondo komunikatutako logistika intermodala eskaintzen dute, trenbidez edo errepez.
- Portu lehorrak: salgaien terminal intermodala, ondo komunikatutako erreferentzia-eremu baten barruan kokatu ohi dena, gertuen dauden portuekin trenbidearen edo errepideko garraioaren bidez konektatu ahal izateko.

Taula honetan, EAEn daudenak jasotzen dira, kokapena, tamaina eta titulartasuna deskribatuta.

II.5.9 TAULA. EAEN DAUDEN PLATAFORMA LOGISTIKOAK			
	KOKALEKUA	HEDADURA	TITULARTASUNA (AKZIODUNAK)
PLATAFORMA LOGISTIKO INTERMODALA, ARASUR (RIVABELLOSA, ARABA)	Hiru errepide garrantzitsu daude, N-1, A-68 eta A-1, eta hiru trenbide: <ul style="list-style-type: none"> • AP-1, AP-68 eta A-1erako sarbideak • Trenbide-ardatzen elkargunea <ul style="list-style-type: none"> ✓ Lisboa/Madril – Irun – Paris ✓ Madril - Bilbo ✓ Bartzelona - Bilbo • Forondako aireportua (20 km) • Bilboko portua (65 km) • 2021eko lehenengotik astero Bilboko Portuarekiko trenbide-konexioa du (horrek Arasur portu lehor bihurtzen du). 	200 ha parke logistiko eta industrial	Kutxabankek, Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Erribera Beitiako Udalak eta Merlin Parke Logistikoek partaidetutako sozietatea.
VITORIA-GASTEIZKO GARRAIO ETA LOGISTIKAKO ZENTRO INTERMODALA, GGZ (JUNDIZ, ARABA)	Gasteizko Jundizko Enpresa Parkean <ul style="list-style-type: none"> • A-68, A-1, N-1 eta N-240 errepideekin zuzenean lotzen duen saihesbidetik 500 bat metrora. • Gasteiz (3 km) • Forondako aireportua (4 km) • ADIFen karga-terminala kontaktu fisikoan dago GGZrekin 	718.141 metro koadro (120.000 m, biltegiarako trenbide-adarra duten lur-zati industrialak, bagoi-kamioi sarbide bikoitzarekin)	Kutxabank, Arabako Foru Aldundia, Arabako Garapen Agentzia, Arabako Merkataritza Ganbera, Eusko Jaurlaritza, Gasteizko Industria Lurra SA, GILSA; eta SEA
MUGAZ GAINDIKO PLATAFORMA LOGISTIKOA, ZAISA (IRUN, GIPIZKOA)	Irungo mugako hirian, ardatz atlantikoko funtsezko korapiloa <ul style="list-style-type: none"> • A-8 eta A-68 autobideen ondoan • Hondarribia-Donostia eta Biarritz-Parma aireportuetatik eta Pasaiaiko portutik gertu. 	400.000 metro koadro	Publikoa ehuneko handi batean
BIZKAIKO GARRAIO ZENTROA, APARCABISA (ZIERBENA, BIZKAIA)	<ul style="list-style-type: none"> • A-8/AP-8 autobidearen oinean • Bilbotik 7 minutura • Bilboko aireportutik 5 minutura • Bilboko portutik 3 minutura. 	312.560 metro koadro	Publikoa

Iturria: Geuk egina, WEBen plataformetako orrialdeetan oinarrituta

Aurreko taulan aipatu den bezala, 2021eko udaberriaz geroztik, Arasurrek astero trenbide-konexioa du Bilboko Portuarekin (horrek Arasur portu lehor bihurtzen du). Trena Bilboko portuko edukiontzi-terminaletik Aratrain izeneko Arasurreko tren-terminalera abiatzen da. Han, itsasontziz iritsitako salgaiak deskargatzen ditu, errepidez azken helmugara eramateko.

Tren horrek, gutxi gorabehera hiru orduko ibilbidearekin, Arasurreko lehiakortasuna hobetzen du, 60 TEU (edukiontzietan neurtzeko unitatea) ibilbide bakarrean garraiatzeko aukera ematen duelako, 20, 40 eta 45 oineko edukiontziak konbinatuz, eta negozio-aukera berriak irekitzen dituelako, bai logistika-eremu horretarako, bai porturako.

Aratrain Bilbaoport (Sibport) zerbitzu intermodalek kudeatzen dute, eta Jundiz eta Pancorboko (Burgos) tren-terminalak ere kudeatzen ditu. Eskaria handitu ahala, trenbide-zerbitzuaren maiztasuna handitzea aurreikusten du Sibportek.

5.2. ENERGIA

Industriaren, hazkunde ekonomikoaren eta herritarren ongizatearen eragile nagusia da energia. Hala ere, Euskadi defizitariora da baliabide propioetan, eta horregatik, duela lau hamarkadatik, planifikatutako energia politikak ezartzen dira, sektore guztietan efizientzia sartzeko eta erabilitako energia-iturriak dibertsifikatzeko.

Euskal eredu energetikoak aurrera egiten jarraitzen du, eredu iraunkorrago baterantz, iturri berriztagarrien gero eta ekarpen handiagoa eginez eta petrolioaren deribatuen erabilera minimizatuz, gas naturala bezalako energia garbiagoek ordezkatuta.

Azken urteotan, energia- eta klima-plangintza integratzeko joera du EBk, eta plangintza horri arau-esparru egokia emateko beharra ikusi da.

2021-2024 aldirako Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana eta Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Lege Aurreproiektua testuinguru horretan dauden funtsezko tresnak dira.

5.2.1. 2021-2024 aldirako Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana

2021-2024 aldirako Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planak, 2021eko urriaren 26an onartutakoak, helburu hauek ditu:

- Berotegi-efektuko gasen isurtzea % 30 murriztea.
- Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumoaren % 20 izatea lortzea.
- EAEko lurraldeak klima-aldaketaren aurrean duen erresilientzia ziurtatzea.

Gainera, Plana ezartzeak beste bi helburu lortzen lagunduko du:

- Langabezia % 10etik behera jaitea.
- I+G arloan Europako batez bestekoarekin konbergentzia lortzea.

Ardatzak, jarduketa-ildoak eta lan-eremuak taula honetan bildu dira:

ARDATZ ESTRATEGIKOAK	JARDUKETA-ILDOAK	LAN-EREMUAK
1. ARDATZA. Neutraltasunerako bidea	1. jarduketa-ildoak: Energia trantsizioko eredu baterantz	1. Energia-eraginkortasuna hobetzea, energia-eskaria kudeatzea eta klima-aldaketaren ondorioz energia sortzeko potentzialaren aldaketak prebenitzea
		2. Energia berriztagarrien garapena eta aprobetxamendua sustatzea
		3. Erregai berrien garapena eta erabilera sustatzea
		4. Emisiorik gabeko garraioa sustatzea eta automobil-parkea berritzea
		5. Eraginkortasun energetikoaren eta energia berriztagarrien irizpideak sustatzea hiri-ingurunean, birgaitzea bultzatuz eta «zero isuriko eraikuntzarantz» joz.
	2. jarduketa-ildoak: Ekonomia zirkularraren ezarpena sustatzea eta hondakinen sorrera eta tratamendua murriztea.	6. Ekonomia zirkularra modu integralean sustatzea
		7. Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta tratamendurik gabeko zero isurketa lortzea
	3. jarduketa-ildoak: Lehen sektoreko isurketak murriztea, nekazaritza-ekoizpen integratu, ekologiko eta lokala sustatuz, eta karbono-hustubide izateko potentziala handitzea	8. BEGen isurien murrizketa sustatzea lehen sektorean
		9. Karbono-hustubideen potentziala handitzea bultzatzea
2. ARDATZA. Erresilientzia areagotuz	4. jarduketa-ildoak: Lurraldearen kudeaketa egokitzailerantz	10. Klima-aldaketaren aldagaia natura-ingurunearen kudeaketan txertatzea eta ekosistema naturalen funtzio-aniztasuna sustatzea, prozesu biologikoak eta geologikoak arautzeko.
		11. Urrakortasun-irizpideak eta egokitzapen-irizpideak integratzea azpiegitura kritikoetan (energia, ura, osasuna, hezkuntza, IKTak, garraioa, industria) muturreko gertakarien aurrean

		12. Lurralde- eta hiri-egitura erresilientea eta mistoa sustatzea, klima-arriskua bere estrategian eta plangintzan txertatuko duen erabileretan.
		13. Klima-aldaketaren aldagaia kostaldeko eremuen kudeaketan txertatzea
		14. Baliabide hidrikoak eta uholde-arriskua modu integralean eta klima-aldaketaren testuinguruan kudeatzea eta naturan oinarritutako irtenbideak bultzatzea
		15. Lehen sektoreko (nekazaritza eta arrantza) praktikak eta kudeaketa klima-baldintza berrietara egokitzea
	5. jarduketa-ildoak: Arriskuei aurrea hartzea	16. Alerta goiztiarreko sistemak indartzea, larrialdien kudeaketa hobetzea eta eskura dauden baliabideak handitzea
		17. Babes zibileko baliabideak areagotzea eta larrialdietako gainerako agenteekiko koordinazioa hobetzea
		18. Klima-aldaketak giza osasunean dituen inpaktuen prebentzioa areagotzea eta erantzun azkarra eta eraginkorra ziurtatzea
3. ARDATZA. Klima-ekintzaren Zeharkakotasuna	6. jarduketa-ildoak: Klima-aldaketarekin lotutako kudeaketa-tresnak garatzea, eguneratzea eta hobetzea	19. Energia trantsizioaren eta klima-aldaketaren arloko legeria garatzea
		20. Energia trantsizioaren eta klima-aldaketaren arloko politikak eta plangintza egitea, arlo horretako legeria hedatu ahal izateko
		21. Energia trantsizioaren eta klima-aldaketaren arloko politikak eta plangintza hedatzea errazten duten tresnak eta tresnak diseinatzea
	7. jarduketa-ildoak: Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea	22. Klima-aldaketaren aukerak aprobetxatzea eta produktu berriak, produkzio-prozesu berriak eta egokitzapenera bideratutako zerbitzuak sortzera bideratutako industria sustatzea
		23. Ezagutza zientifikoaren sorrera eta transferentzia bultzatzea
	8. jarduketa-ildoak: Bidezko energia eta klima trantsizioa bermatzea	24. Laguntza teknikoa eta finantzarioa ematea pobrezia energetikoa saihesteko eta energia trantsizioa eta kohesio soziala babesteko
		25. Enplegu-aukera berrien garapena eta lurraldearen lehiakortasun ekonomikoa sustatzea
	9. jarduketa-ildoak: Euskal Administrazio Publikoa eta herritar arduratsuak eta eredugarriak	26. Energiari dagokionez, efizientea den Administrazio Publikoa bermatzea, klima-aldaketaren arloan eskumen handiak dituen eta nazioartean erreferentia dena
		27. Herritarrak klima-aldaketaren inguruan sentsibilizatzea, prestatzea eta informatzea

5.2.2. Energiaren produkzioa eta kontsumoa

Inportatutako energiaren eraldaketa EAEn jardura ekonomikoaren barruan pisu adierazgarria duen industria da, petrolioaren finantzeko eta energia elektrikoa sortzeko sektoreekin batera. Aldi berean, azken urteetan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriek izandako sarrerak energiaren euskal eskaintzaren kalitatea indartu du.


Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoa. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegitagatik, banaketagatik...) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.

EEEn *Euskadi Energia 2020* txostenak erakusten duenez, energia primarioaren edo energiaren barne-kontsumo gordinaren (hau da, ekoiztutako energia gehi inportatutako energia ken esportatutakoa) guztizko eskaria % 9,9 jaitsi zen 2020an (pandemiaren lehen urtea), eta 5.888 Ktep izatera iritsi zen.

Bestalde, energiaren azken kontsumoak % 10,4 egin zuen behera (4.472 Ktep), eta sektore guztietan egin zuen behera, lehen sektorean izan ezik. Industriaren sektorean izan zen jaitsierarik handiena (-% 12,7). Garraioaren sektoreak % 10,6 egin zuen behera, zerbitzuenak % 9,4 eta bizitegi-sektorearenak % 4,1.

Halaber, 2019 eta 2020 bitartean, oinarritako energiaren ekoizpena % 7,9 jaitsi zen, hain zuzen ere 655 Ktep-etik 603 Ktep-era; eta ekoizpen hori, nagusiki, energia berriztagarrietan (iturri propio nagusia) oinarritu zen, hain zuzen ere 6,4 jaitsita (623 Ktep-etik 583 Ktep-era).

II.5.3. GRAFIKOA. BARNE KONTSUMO GORDINA ETA AMAIERAKO ENERGIA KONTSUMOA



Iturria: EEE


II.5.10. TAULA. EAEren ENERGIA BALANTZEA (Ktep)*

	2020							2019- 20KO ALDAK.						
	Erregai solidoak	Petrolio a eta deribat.	Gas natural a	Energia deribat uak	Energia berrizta garriak	Argindarra	Guztira	Erregai solidoak	Petrolio a eta deribat.	Gas Naturala	Energia deribatu ak	Energia berriztaga rriak	Arginda rra	Guztira
LEHEN MAILAKO ENERGIAREN EKOIZPENA	0	0	0	20	583	0	603				-37,5	-6,4		-7,9
BARNE KONTSUMO OSO ESKURAGARRIA (ESKARIA)	17	2593	1993	20	576	688	5888	-26,1	-9,2	-16,8	-37,5	-4,6		-9,9
TRANSFORMAZIO SARRERAK	0	7603	907	8	129	0	8647		-8,5		-33,3	0,0	-100,0	-10,3
TRANSFORMAZIO SARRERAK	0	7427	0	1	0	495	7922		-9,1	875,3	0,0	-	-59,5	-11,4
AMAIERAKO ENERGIA KONTSUMOA	17	2036	914	13	382	1110	4472	-26,1	-10,9		-35,0	-6,8	60,2	-10,4
INDUSTRIA	17	110	595	12	189	607	1531	-26,1	1303,1	34,0	-36,8	-9,6	3946,7	-12,7
GARRAIOA	0	1796	1	0	125	14	1935		-98,2			-6,7		-10,6
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	0	36	1	1	1	5	43		-35,3		0,0	0,0	-98,3	2,4
ZERBITZUAK	0	22	88	0	20	265	395			-99,0		0,0	22,7	-9,4
BIZITEGIA	0	73	230	0	47	219	568		!	-64,7		2,2		-4,1

* Zenbateko horizontalak agian ez dira zehatzak izango biribiltzeagatik.

Iturria: EEE

II.5.4. GRAFIKOA. LEHEN MAILAKO ENERGIAREN EKOIZPENA (KTEP)



Oinarrizko energiaren ekoizpen propio horri esker (603 Ktep), EAEn energia-eskariaren (5.888 Ktep) % 10,2 baino ezin izan zen bete (barneko kontsumo gordina). Ondorioz, EAEn kanpoko mendekotasun energetikoa % 89,8koa izan zen, Estatuan baino handiagoa (% 72,8) eta EB28ko batezbestekoa baino handiagoa (% 54,9). Mendekotasun mailarik txikiena duten herrialdeak petrolio eta gas naturala (Erresuma Batua eta Danimarka), energia berriztagarriak (Herrialde Eskandinaviarrak) eta energia nuklearra (Frantzia eta Suedia) ekoizten dituztenak dira.


Iturri berriztagarrietan oinarritutako ekoizpenak (583 Ktep) azken kontsumoaren % 13 asetzera ahalbidetu zuen (4.472 ktps); hau da, energia berriztagarriek azken kontsumoan duten partaidetza-ratioa Euskadiko 2020rako Energia Estrategian (3E2030) gure erkidegoarentzat ezarritako % 21eko helburutik 8 puntura dago.

Izan ere, energia motaren arabera aztertzen badugu amaierako kontsumoa (oso interesgarria da ingurumenaren aldetik, energia mota bakoitzak eragin desberdinak baitakartza), hauxe ikusiko dugu: petrolioaren eta horren deribatuen kontsumoa orain ere nagusia da kontsumo horretan, % 45,5, eta gainera, igoera izan zen Ktep-etan aurreko urtearen aldean, % 10,9koa hain zuzen. Atzetik datoz, garrantziari dagokionez, energia elektrikoa (amaierako kontsumoaren % 24,8) eta gas naturala (% 20,4). Oso urruti energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatza eta deribatuak) eta energia deribatuak daude (horien barruan, gehienbat, industri prozesuetatik edo energia eraldatzeko prozesuetatik (baterako sorkuntza, adibidez) berreskuraturiko beroa sartzen da.


Intentsitate energetikoari dagokionez (ekonomia baten eraginkortasun energetikoaren adierazlea, BPGd-aren unitateko azken kontsumoa ktep gisa neurtzen dena), 2020an 19 puntu hobea izan zen (txikiagoa) 2010ekoa baino (Ikus II.5.5. eta II.5.6. grafikoak). 2019. urtearekin alderatuta, egonkor mantendu da; izan ere, kontsumoak 9 puntu egin du behera, eta BPGd-ak, berriz, 10 puntu.

Sektoreka, EEEn datuen arabera, energia-intentsitatea hobetu (murriztu) egin zen 2019tik 2020ra bitartean sektore guztietan; zehazki, puntu 1 bakoitzean.

II.5.5. GRAFIKOA. ENERGIA INTENSITATEAREN BILAKAERA



II.5.6. GRAFIKOA. ENERGIA INTENSITATEAREN BILAKAERA SEKTOREKA



Energia-faktura nabarmen jaitsi da 2020an aurreko urtearekin alderatuta (-% 17,7), eta 4.885 m €-koa da. Kostu horretatik, % 51,6 garraio sektoreari dagozkio, % 18,5 industriari, % 16,8 etxebizitzeari, % 12,1 zerbitzuei eta % 0,9 lehen sektoreari.

Etxebizitzen sektorean, etxeko fakturak % 9,8 egin zuen behera (905 euro) eta biztanleko fakturak % 9,7 egin zuen behera (374 euro biztanleko).


II.5.11. TAULA. ENERGIA-FAKTURAREN BILAKAERA SEKTOREEN ARABERA

	2019	2020	%-a GUZTIAREKIKO	ALD. (%)
INDUSTRIA	1128	904	18,5	-19,9
GARRAIOA	3148	2523	51,6	-19,9
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	59	44	0,9	-25,4
ZERBITZUAK	713	591	12,1	-17,1
BIZITEGIA	891	823	16,8	-7,6
GUZTIRA	5939	4885	100,0	-17,7

Iturria: EEE

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren % 91,3 dira. Industrian, argindarra fakturaren % 70,7 da eta gas naturala, berriz, % 27,1.

II.5.7. GRAFIKOA. ENERGIA FAKTURAREN BILAKAERA



Iturria: EEE

II.5.12. TAULA. ENERGIA-FAKTURAREN ADIERAZLEAK ETXEBIZITZEN SEKTOREAN

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
KONTSUMOA BIZTANLEKO (€ BIZTANLEKO)	394	440	432	408	421	370	395	446	414	374
KONTSUMOA ETXEKO (€ ETXEKO)	1008	1127	1081	1011	1037	906	962	1083	1003	905

Iturria: EEE

ITURRIAK

1. Bizkaiko Garraio Partzuergoa, APARCABISA. Web orria.
2. Gasteizko Garraio eta Logistikako Zentro Intermodala, GGZ Web orria.
3. EUSKO TRENBIDE SAREA. Web orria.
4. EEE. Euskadi Energia 2020. Energiari buruzko datuak 2020.
5. EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko Garraio Behatokia. Euskadiko garraioaren panoramika.
6. EUSKO JAURLARITZA. 2021-2024 aldirako Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana.
7. GARRAIO MINISTERIOA. Estatistika urtekaria 2019. 2019an argitaratua.
8. GARRAIO MINISTERIOA. Hegazkintza zibila. 2021eko datua.
9. GARRAIO MINISTERIOA. Datu-basea 2021eko datua.
10. GARRAIO MINISTERIOA. Portuak. 2021eko datuak.
11. Plataforma logistiko intermodala, ARASUR. Web orria.
12. Plataforma logistiko intermodala, ZAISA. Web orria.

6. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Kapitulu hau bi bloke handitan dago banatuta; alde batetik, I+G+b jarduerak aztertzen dira eta bestetik Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia (IKT).

I+G+b jardueren blokean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plan berriaren ildo estrategikoak eta ekonomikoak erakusten dira. Ondoren, I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak, enpresa-sarearen I+G jarduerak, berrikuntza-jarduerak eta EAEk Europako berrikuntza-adierazleen paneletan duen posizioa aztertzen dira. Eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2014-2020*(ZTBP) delakoaren jarraipena egiten da, EJK igorritako aginte-taula oinarri hartuta.

Bestalde, IKTei buruzko multzoan, herritarrek eta euskal enpresek Internet nola erabiltzen duten, enpresen eraldaketa digitalaren maila, telelana, merkataritza elektronikoa (herritarrena eta enpresena), administrazio elektronikoa, ekonomiaren eta gizarte digitalaren indizea aztertzen dira, eta, amaitzeko, 2025eko Euskadiko eraldaketa digitalerako estrategiaren ildo estrategikoak erakusten dira.

6.1. I+G+B JARDUERAK

6.1.1. Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana

Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP Euskadi 2030) Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2021eko otsailaren 23an. 2020ko Memoria Sozioekonomikoan adierazi genuen bezala, Planak hiru zutabe estrategiko ditu (I. Bikaintasun zientifikoa, II. Lidergo teknologiko industrial eta III. Berrikuntza irekia) eta elementu nagusi bat, talentua; baita lau helburu operatibo ere: 1. EAEko I+G+b emaitzetara ahalik eta gehien bideratzea; 2. I+G-ko eta berrikuntzako jarduera bultzatzea enpresetan, bereziki ETEetan; 3. Euskal I+G+b nazioartekotzea bultzatzea; eta 4. Ikerkuntzarako talentua sustatzea, batez ere emakumeen artean.

RIS3 Euskadi estrategia osatzen duten espezializazio-arloak 2030erako berrikusteak aurreko RIS3 Euskadi strategiaren bilakaera dakar berekin. Hala, lehentasun estrategikoen osagarri gisa (industria adimenduna, energia garbiagoak, eta osasun pertsonalizatua), aurreko ZTBP Euskadi 2020an definitutako aukera-eremuei jarraipena ematea proposatzen da, haien definizioa egokituz azken urteetan izandako bilakaera jasotzeko (elikadura osasungarria, ekoberrikuntza, hiri jasangarriak eta Euskadi sortzailea). Aldi berean, *Europa Helmuga* misioekin bat etorritik, lankidetzakimena eragileak (zahartze osasungarria, mugikortasun elektrikoa eta ekonomia zirkularra) deritzena sartu da. Gainera, oinarritzko teknologien mapa zehazten da, RIS3 estrategian zehaztutako espezializazio-arlo guztietarako zeharkakoagoa dena.

Argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak 2020ko gure Memoriara.

6.1.2. I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak

I+G-ko gastua. EUSTAT-en *“Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko Estatistika”*ren arabera, 2020an 1.490 m € inbertitu ziren EAEn, aurreko urtean baino % 0,6 gehiago; datu positiboa da, kontuan hartzen badugu 2020 COVID-19ak eragindako krisiak markatutako urtea izan zela⁴⁰.

⁴⁰Eusko Jaurlaritzak 2021. urterako ezarritako helburuaren arabera, inbertsioa % 6 handituko da.

II.6.1. TAULA EAEko ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
I+G+ arloko gastuak										
GUZTIRA (EUROTAN)	1.366,2	1.372,9	1.316,8	1.289,8	1.273,2	1.290,9	1.363,2	1.423,4	1.481,4	1.490,0
URTEKO IGOERA (%)	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6	4,4	4,1	0,6
BPGd-AREN GAINEAN (%)	2,04	2,09	2,03	1,94	1,86	1,81	1,85	1,85	1,86	2,08
LANGILEAK (AOB)										
GUZTIRA	17.879,2	18.681,9	18.279,5	18.535,4	18.217,1	17.898,0	18.577,3	19.274,1	19.618,5	19.510,9
URTEKO IGOERA	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7	-1,8	3,8	3,8	1,8	-0,5
LANGILE IKERTZAILEAK (AOB)										
GUZTIRA	11.283,1	11.771,7	11.959,3	12.030,3	12.089,1	11.915,5	12.607,9	13.165,1	13.520,4	13.628,7
URTEKO IGOERA (%)	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8	4,4	2,7	0,8

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika.

I+G-ko gastua BPGd-arekiko (ahalegina). 2020an, EUSTATen arabera, % 2,08 izan da (% 1,86 aurreko urtean). Aurreko urtearekin alderatuta, igoera handia izan da pandemiak eragin handiagoa izan zuelako BPGd-an I+Gko gastuan baino.

Ratio hori Estatuko batez bestekoa (% 1,41) baino handiagoa da, EINen datuen arabera, baina eurogunean ikusitakoa (% 2,36) baino txikiagoa, baita erreferentziako herrialdeetan arlo horretan izandakoa baino txikiagoa ere, ondoko taulan ikus daitekeen bezala. Bereziki aipagarriak dira Hego Korean (% 4,64, 2019ko datua), Belgikan (% 3,52), Suedian (% 3,51), Austrian (% 3,22) eta Japonian (% 3,2, 2019ko datua) ikusitako ratioak.

Ikerketari eta berrikuntzari lotutako helburua Ebn gastu publikoaren eta pribatuaren % 3 lortzea da, BPGd-aren ehuneko gisa. Ondorioz, gure erkidegoa 0,92 puntura dago Europako helburua lortu zenetik.

I+G arloko gastua biztanleko (intentsitatea). EINen datuen arabera, Euskadi da biztanleko gastu handiena duen autonomia-erkidegoa (674,5 euro), ondoren Madril (607,2 euro) eta Nafarroa (540,9 euro) daude. Estatuko batez bestekoa 328,6 eurokoa da.

II.6.2. TAULA I+G-KO AHALEGINAREN BILAKAERA ETA EUROPAKO HELBURUAK HERRIALDEKA. ERREFERENTZIAKO HERRIALDEAK, 27KO EB, EUROGUNEA ETA EAE

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2020KO HELBURUA
EAE- EUSTAT	1,86	1,81	1,85	1,85	1,86	2,08	
SUITZA	3,04	:	3,03	:	3,15	:	:
AEB	2,72	2,79	2,86	2,96	3,08	:	:
JAPONIA	3,24	3,11	3,17	3,22	3,2	:	:
HEGO KOREA	3,98	3,99	4,29	4,52	4,64	:	:
BELGIKA	2,43	2,52	2,67	2,86	3,17	3,52	3
SUEDIA	3,22	3,25	3,36	3,32	3,39	3,51	4
AUSTRIA	3,05	3,12	3,06	3,09	3,13	3,22	3,76
ALEMANIA	2,93	2,94	3,05	3,11	3,17	3,14	3
DANIMARKA	3,06	3,09	2,93	2,97	2,93	3,03	3
FINLANDIA	2,87	2,72	2,73	2,76	2,8	2,94	4
ISLANDIA	2,18	2,11	2,08	2	2,32	2,47	:
EUROGUNEA	2,14	2,14	2,18	2,22	2,26	2,36	:
FRANTZIA	2,23	2,22	2,2	2,2	2,19	2,35	3
27KO EB	2,12	2,12	2,15	2,19	2,23	2,32	3
NORVEGIA	1,94	2,04	2,1	2,05	2,15	2,3	:
HERBEHEREAK	2,15	2,15	2,18	2,14	2,18	2,29	2,5
ESLOVENIA	2,2	2,01	1,87	1,95	2,05	2,15	3
TXEKIAR ERREP.	1,92	1,67	1,77	1,9	1,93	1,99	1
ESTONIA	1,47	1,24	1,28	1,42	1,63	1,79	3
HUNGARIA	1,34	1,18	1,32	1,51	1,48	1,62	1,8
PORTUGAL	1,24	1,28	1,32	1,35	1,4	1,58	2,7
ITALIA	1,34	1,37	1,37	1,42	1,47	1,54	1,53
GREZIA	0,97	1,01	1,15	1,21	1,27	1,49	1,2
ESPAINIA	1,22	1,19	1,21	1,24	1,25	1,41	2

Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.

I+G arloko gastua egikaritze-sektorearen arabera⁴¹ I+G-ko gastuaren zatirik handiena, % 76,7 (1.143 m €), enpresek egin zuten; %17,4 (258,7 milioi) goi-mailako irakaskuntzak egin zuen, eta gainerako % 5,9 (88,3 milioi) Administrazioaren mendeko erakundeek. Enpresa-sektoreak egikaritzen du gastu handiena, eta, gainera, beste igoera txiki bat izan du partaidetza-ehunekoan (% 76,3tik % 76,7ra). Estatuan, enpresek partaidetza txikiagoa dute guztizkoarekiko, eta goi-mailako irakaskuntzak, berriz, txikiagoa (% 55,6 eta % 26,6, hurrenez hurren).

⁴¹Komeni da kontuan hartzea I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.

Aurreko urtearen aldean, enpresek eta goi-mailako irakaskuntzak % 1,2 eta % 1,9 egin dute gora barneko I+G-ko gastua, hurrenez hurren, eta herri-administrazioak % 9,9 egin du behera.

II.6.3. TAULA I+G ARLOKO BARNE-GASTUAK, DIZIPLINA ZIENTIFIKOAREN, EGIKARITUTAKO SEKTOREAREN ETA FUNTSEN JATORRIAREN ARABERA (EUROAK, MILAKA)												
	2020						ALDAKUNTZAREN % 2019- 20					
	GUZTIRA	FUNTSEN JATORRIA					GUZTIRA	FUNTSEN JATORRIA				
		ADMIN.	GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA	ENPR.	IAGEP	ATZER.		ADMIN.	GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA	ENPR.	IAGEP	ATZER..
GUZTIRA	1.490.038	509.663	33.910	812.860	7.663	125.941	0,6	1,8	-25,7	1,8	-2,0	-1,9
BETEARRAZPEN-SEKTOREA												
ENPRESAK ETA IAGEP	1.143.037	247.774	300	787.257	1.786	105.921	1,2	4,8	-88,4	0,8	-31,3	-1,1
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK	88.261	78.079	166	4.922	2.458	2.635	-9,9	-11,2	38,3	-0,5	2,8	-0,8
GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA	258.740	183.810	33.444	20.682	3.419	17.385	1,9	4,2	-22,1	60,2	21,0	-6,9
DIZIPLINA ZIENTIFIKOA												
ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	118.330	85.022	4.459	16.033	948	11.868	8,7	12,0	-17,1	1,2	-18,3	12,8
INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA	1.060.742	241.987	12.761	713.394	781	91.819	0,3	2,8	-47,9	1,6	-41,1	-1,7
MEDIKUNTZA ZIENTZIAK (FARMAZIA BARNE)	164.848	91.532	1.870	58.099	3.901	9.446	-3,6	-6,8	1,6	3,7	8,4	-16,1
NEKAZARITZA ZIENTZIAK (ABELTZAINZA, BASOGINTZA ETA ARRANTZA BARNE)	45.009	24.490	522	12.628	117	7.252	7,5	0,1	-21,3	26,6	-22,0	9,4
GIZARTE ETA GIZA ZIENTZIAK	101.109	66.632	14.298	12.707	1.916	5.555	-1,4	-0,1	7,8	-11,7	21,1	-15,4

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika.

I+G arloko gastuaren finantziarioa (funtsen jatorriaren arabera gastua).

Sektore pribatuak gastuaren finantzaketan duen partaidetza % 54,6 da (% 1,8ko hazkunderekin aurreko urtearen aldean),

Europako helburuaren 11,4 puntura (I+G-ko gastu osoaren % 66 funts pribatuen bidez finantzatzea), eta finantziario-iturri nagusia izaten jarraitzen du. Bestalde, administrazio publikoak barneko I+G-ko gastuaren % 34,2 finantzatzen du, % 1,8 hazi ondoren.

Gainerako funtsen jatorria goi-mailako irakaskuntzaren sektorea, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak (IPSFL) eta atzerria da; hiru kasutan, ekarpenek % 25,7ko, % 2,0ko eta % 1,9ko beherapenak izan dituzte, hurrenez hurren, aurreko urtearekin alderatuta.

Finantzaketa publikoaren jatorriari dagokionez, Administrazio Autonomoaren ekarpena da nagusi, % 0,9 igo baita aurreko urtearen aldean, eta Administrazio Publikoak 2020an finantzatutako guztizkoaren % 80,8 da. Bestalde, Administrazio Zentralaren finantzaketa % 8,1 hazi da aurtan, eta bere partaidetza guztizkoaren % 14,7koa da. Azkenik, aldundiek eta toki-administrazioek % 4,6ko partaidetza izan zuten, baina haien ekarpena % 1,9 murriztu zen aurreko urtearen aldean.

II.6.4. TAULA SEKTORE PRIVATUAK ETA SEKTORE PUBLIKOAK FINANTZATUTAKO I+G GASTUA (GASTU OSOAREN GAINEKO EHUNEKOA*)										
	SEKTORE PRIVATUAK FINANTZATUTAKOAK					HERRI-ADMINISTRAZIOAK FINANTZATUTAKOAK				
	2016	2017	2018	2019	2020	2016	2017	2018	2019	2020
EAE (EUSTAT)	55,7	54,7	54,2	53,9	54,6	33,5	33,6	33,1	33,8	34,2
ESTATUA (EIN)	46,7	47,7	49,5	49,1	49,2	40,0	38,9	37,6	37,9	38,5
EUROGUNEA (EUROSTAT)	58,3	59,5	59,6	59,4	dg	30,9	29,8	29,7	29,3	dg

** Ez dute 100 batzen, beste finantzabide batzuk daudelako*
Iturria: EUSTAT, EIN, EUROSTAT

Estatuan, 2020an, EINen arabera, sektore pribatuak gastuaren % 49,2 finantzatzan du (Europako % 66ko helburuaren 16,8 puntu azpitik dago) eta herri-administrazioak % 38,5. Eurogunean, EUROSTATen 2018ko datuen arabera, portzentajeak % 59,4 eta % 29,3 dira.

Herrialde hauetan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia izan da 2018an: Japonia (% 78,9), Hego Korea (% 76,9), Txina, Hong Kong izan ezik (% 76,3), Suitza (% 64,7), Alemania (% 64,5), Belgika (% 64,3), AEB (% 63,1), Irlanda (% 62,8), Suedia (% 62,4) eta Eslovenia (% 61,5).

I+G arloko gastua diziplina zientifikoaren arabera. Berrito nabarmentzen dira ingeniariak eta teknologia (gastu osoaren % 71,2), eta horren atzetik, alde handiarekin, medikuntza zientziak (% 11,1), zientzia zehatzak (% 7,9) eta gizarte-zientziak (% 6,8). Bestalde, nekazaritzakoak % 3 dira.

Nabarmentzekoak dira zientzia zehatzetako eta nekazaritza zientzietako gastuen igoerak, % 8,7 eta % 7,5, hurrenez hurren, eta medikuntza zientzietako gastuen murrizketa (% 3,6).

Funtsen jatorriaren arabera, ingeniarietako ikerketa enpresa-sektoreak finantzatzan du gehienbat, nahiz eta parte-hartze publikoa handitu egin den. Hala, % 67,3 sektore pribatuak finantzatzan du eta % 22,8 sektore publikoak. Medikuntza zientzietan, zientzia zehatz eta gizarte zientzietan eta nekazaritza zientzietan kontrako gertatzen da, herri-administrazioak gastuaren % 71,9, % 55,4 eta % 65,9 finantzatzan baitu.

I+G-ko langileak (aritze osoko baliokidetzan neurtua (AOB)). 19.510,9 pertsona dira (-% 0,5 aurreko urtearen aldean); egikaritze-sektoreen arabera, % 70,7 enpresei dagokie, % 23,3 goi-mailako irakaskuntzari eta % 6,0 Herri Administrazioari.

Okupazioa kontuan hartuta (ikertzaileak, teknikariak edo laguntzaileak), ikertzaileen kopurua 13.628,7 pertsonakoa da (guztizkoaren % 69,9), eta % 0,8ko igoera, langile guztien % 0,5eko jaitsieraren aldean.

Sexuaren arabera azterketak agerian uzten duenez, jarduera horietan diharduen langile % 36,5 emakumeak dira (aurreko urtekoaren antzekoa). Hala ere, EUSTATen arabera, denbora-perspektiba handiagoarekin, pisuak gora egin du, zehazki, ehuneko 3,1 puntu 2010. urtearekin alderatuta, eta 4,8 puntura arte 2005. urtearekin alderatuta.

II.6.5. TAULA I+G-KO EMAKUME LANGILEAK (AOB) EGIKARITZE-SEKTOREAREN ARABERA						
	GUZTIRA		EMAKUMEAK			
	BALIO ABSOLUTUAK		ABSOLUTUAK		% HORIZONTALAK	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
GUZTIRA	19.618,5	19.510,9	7.183,8	7.130,0	36,6	36,5
ENPRESAK ETA IAGEP	13.915,4	13.800,5	4.316,3	4.244,7	31,0	30,8
ADMINISTRATIO PUBLIKOA	1.303,1	1.164,2	715,4	648,5	54,9	55,7
GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA	4.400,0	4.546,2	2.152,1	2.236,8	48,9	49,2

Iturria: EUSTAT, I+G jarduerari buruzko estatistika.

I+G-ko egikaritze-sektorea kontuan hartuta, enpresen sektorean eta goi-mailako irakaskuntzan dago emakumeen presentzia kuantitatiboki nabarmenena: 4.244,7 eta 2.236,8 emakume, hurrenez hurren, eta 648,5 emakume Administrazio Publikoaren sektorean. Hala ere, Administrazio Publikoan, termino erlatiboetan, emakumeak langile guztien % 55,7 dira, goi-mailako irakaskuntzan % 49,2 eta enpresen sektorean % 30,8.

Ezagutza-aktiboak.

Geroago sakonago aztertuko den “Berrikuntza-adierazleen panela, IUS” deritzonak dakarren informazioan oinarrituta aurkeztuko dugu adierazle honen azterketa.

Datuek erakusten duten bezala, gure erkidegoak berrikuntzaren adierazle sintetikoaren balioa lortu du, 2021ekoa, 0,59koa, Estatuarena (0,45) eta 27ko EBrena (0,53) baino handiagoa, eta, halaber, “goi-mailako berrikuntza” duten herrialdeena baino handiagoa.

Hala ere, IUSen “Aktibo intelektualak” dimentsioak berrikuntza prozesuetan etekin gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubide moduak biltzen ditu, eta 0,26 da adierazlea, 28 EBko batez bestekoaren (0,42) eta are estatukoaren (0,33) azpitik.

Izan ere, beste lurralde eremuekin erkatuta, hau ondoriozta daiteke: 1,25 adierazlea du EAEK BPGko bilioi bakoitzeko EEP⁴² patenteen eskarrietan (EAP eurotan), 5,15 adierazlea BPGko bilioi bakoitzeko EBko merkataritza-marketan (EAP eurotan) eta 0,7koa PGB-ko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) EBko diseinuetan. Beraz, estatuko batez bestekoen (2,96/6,24/3,32) eta 28ko EBkoen (3,78/5,83/1,13) azpitik. Are gehiago, estatuko batez bestekoen azpitik.

Historikoki aztertuta, EAEK I+G jardueretan inbertsio handiak egin ditu, baina zailtasunak dauzka oraindik ere inbertsio hori emaitzetara eramateko, hain zuzen ere aktibo intelektualen adierazleak baxuak izan direlako; horrek efizientzia edo produktibitate txikiagoa erakusten du.

II.6.6. TAULA EZAGUTZA-AKTIBOEN ADIERAZLEAK 2021EKO IUS SISTEMAN						
		IUS 2019 SAILKAPENA	EZAGUTZA-AKTIBOAK			
			ADIERAZLE KONPOSATUA	PCT PATENTEEN ESKABIDEAK BPGd-ko BILIOIKO (EAP)	EBren MARKA KOMERTZIALAK BPGd-ko BILIOIKO (EAP)	EBk DISEIN. BPGd-ko BILIOIKO (EAP)
1	SUEDIA	0,73	0,69	8,92	9,26	4,11
2	FINLANDIA	0,71	0,70	7,55	8,72	4,59
3	DANIMARKA	0,69	0,73	5,84	8,89	7,77
4	BELGIKA	0,67	0,39	3,03	6,35	2,55
5	HERBEHEREAK	0,65	0,56	4,78	7,82	4,62
6	ALEMANIA	0,64	0,64	6,18	7,37	5,17
7	LUXENBURGO	0,64	0,61	1,65	21,01	5,84
8	AUSTRIA	0,62	0,66	4,69	10,63	6,28
9	ESTONIA	0,60	0,55	1,56	18,94	4,50
	EUSKADI	0,59	0,26	1,25	5,15	1,41
10	FRANTZIA	0,57	0,35	3,54	3,07	2,33
11	IRLANDA	0,57	0,26	1,68	3,89	1,66
	27KO EB	0,53	0,42	2,96	6,24	3,32
12	ITALIA	0,51	0,46	2,02	7,27	5,29
13	ZIPRE	0,50	0,23	0,53	3,39	2,41
14	MALTA	0,48	0,51	1,23	40,44	3,57
15	ESLOVENIA	0,47	0,38	2,39	8,38	2,06
16	ESPAINIA	0,45	0,33	1,28	7,58	2,40
17	TXEKIA	0,44	0,25	0,71	4,27	2,32
18	LITUANIA	0,43	0,27	0,51	8,01	1,43
19	PORTUGAL	0,42	0,32	0,85	7,08	2,78
20	GREZIA	0,41	0,20	0,56	5,03	0,76
21	KROAZIA	0,37	0,15	0,44	2,86	0,65
22	HUNGARIA	0,36	0,20	1,11	3,44	0,93
23	ESLOVAKIA	0,33	0,20	0,53	3,96	1,34
24	POLONIA	0,31	0,35	0,45	5,11	5,16
25	LETONIA	0,26	0,28	0,77	6,71	1,93
26	BULGARIA	0,23	0,37	0,51	7,58	4,40
27	ERRUMANIA	0,16	0,14	0,19	2,52	0,87

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza-adierazleen panela

II.6.7. TAULA AHALEGINA I+G-N ETA AKTIBO INTELEKTUALEN ADIERAZLEAK. EAE. 2010-2018								
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
AHALEGINA I+G-N (GASTUA BPG-AREN GAINEAN)	2,03	1,94	1,86	1,81	1,85	1,85	1,86	2,08
PCT PATENTEEN ESKBIDEAK BPGd-ko BILIOI BAKOITZEKO (EAP eurotan)	1,69	1,49	1,55	1,49	1,25			
EBren MARKA KOMERTZIALAK BPGd-ko BILIOI BAKOITZEKO (EAP eurotan)	5,49	5,05	5,32	5,40	5,51	5,27	5,53	5,15
EBren DISEINUAK BPGd-ko BILIOI BAKOITZEKO (EAP eurotan)	2,28	1,57	1,23	1,72	1,98	1,65	1,54	1,41

Oharra: Europako IUS 2021 eraikitzeke, letra lodiz erabili dira datuak

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza-adierazleen panela.

⁴²Patenteen gaineko Lankidetzeta Ituna.

6.1.3. I+G jarduerak

a) EAEko enpresen sektoreko I+G jarduerak, ZTEseko zentro teknologikoak alde batera utzita

EUSTATen datuen arabera, 2020an I+G-ko jarduerak egin zituzten enpresen kopurua 1.378 izan zen (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko teknologia-zentroak kontuan hartu gabe) (2019an baino % 5 gehiago). Horietatik, 571 industria-sektorekoak dira (2019an baino 37 gehiago, +% 6,9), 742 zerbitzuen sektorekoak (11 gehiago, +% 1,5), 50 eraikitze-sektorekoak (2019an baino % 38,3 gehiago), eta 50 eraikitze-sektorekoak (14 gehiago). Bestalde, enpresek jarduera horietan egiten duten gutzizko gastua % 1,9 igo da 2019tik 2020ra bitartean, eta 895.445 mila eurora iritsi da.

II.6.8. TAULA I+G ARLOKO ENPRESA- ETA LANGILE-KOPURUAREN BILAKAERA (ZTEseko ZTak gabe)

	GUZTIRA		NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA, ERAUZKETA-IND. ETA ENERGIA		INDUSTRIA		ERAIKUNTZA		ZERBITZUAK	
	Enpresa, guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresak guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresak, guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresak, guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresak, guztira	Gastua (mila eurotan)
2015	1.502	759.655	18	19.533	718	380.397	48	14.045	718	345.680
2016	1.254	761.561	13	21.785	577	376.978	26	7.154	638	355.644
2017	1.312	799.792	13	22.825	600	411.694	36	8.932	663	356.341
2018	1.334	853.873	12	18.819	607	401.200	41	10.672	674	423.182
2019	1.313	878.518	12	14.371	534	418.864	36	10.873	731	434.410
2020	1.378	895.445	15	16.900	571	414.817	50	9.130	742	454.598
Aldak. % 19-20	5,0	1,9	25,0	17,6	6,9	-1,0	38,9	-16,0	1,5	4,6
19-20 ald.	65	16.927	3	2.529	37	-4.047	14	-1.743	11	20.188

Iturria: EUSTAT

Jarduera horietan dedikazio osoa duten langileei dagokienez, jarduera horiek 10.953,6 pertsonatik 10.915,3 pertsonara jaitsi dira AOBen. Langile horiek gehienak industrian eta zerbitzuetan daude bilduta: % 44,4 industrian (4.850,3 AOBen) eta % 52,5 (5.725,7 AOBen) zerbitzuetan.

10.915,3 pertsona horiek enpresa-sektoreko (ZTBES zentro teknologikorik gabe) enplegu osoaren (AOB) % 1,2 dira, eta ratio hori egonkor mantendu da 2018tik. Adar handien arabera banakatuta, industriako enplegu osoaren % 2,8 I+G-ko jardueretan aritzen da (% 2,5 2019an); zerbitzuen sektorean % 0,9 (2019arekiko egonkorra) eta eraikuntzaren sektorean % 0,3 (azken urteetan egonkorra).

Termino nominaletan, “Kanpo-merkatariaren Estatistikak” (Aduanen Erregistroetan oinarritua) atzerriarekiko ondasunen kanpo-merkatariari buruz ematen dituen behin-behineko datuek erakusten dute 2021ean esportazioak % 23 hazi direla (25.665,4 milioi euro guztira). 2019. urteko metatua 179,6 milioitan gainditu da. Esportazio ez-energetikoak (guztizkoaren % 94,7) % 22 gehitu dira eta energetikoak % 43,5. Aldi berean, inportazioak % 34,1 hazi ziren 2021. urte osoan (21.059,9 milioi euro), eta ez-energetikoen (guztizkoaren % 78,3) eta energetikoen hazkundera % 28,8 eta % 57,6 izan zen, hurrenez hurren. Kanpoko saldoak 4.605,5 milioiko superabita du.

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek urte arteko aldaketa positiboak izan dituzte 2020 eta 2021 artean.

Termino errealetan, industriako BEGak % 8,5eko batez besteko hazkundera izan du. Aurreko urtean, aldiz, % 11,2ko jaitsiera izan zen. Manufaktura-industriaren batez besteko hazkundera are handiagoa da (+% 9,2). EAEko industriako BEGaren urteko batez besteko hazkunde hori Estatuan erregistratutakoa baino handiagoa da; izan ere, EINen arabera, Estatuan +% 5,2 da.

2021eko abenduko Industria Produzioaren Indizearen urte arteko aldakuntza metatua (datu zuzenduekin eta 2015eko oinarriarekin), 2020ko abenduarekin alderatuta, % 10,5koa izan da EAE osoan. Aurreko aldirian, berriz, % 13,4 jaitsi zen.

Maila teknologiko ertain eta altuko produktuen protagonismoa⁵⁶ etengabe hazi da urteetan, eta 2020an salmenten % 33,8, langile okupatuaren % 32,1 eta balio erantsiaren % 33,9 hartu ditu. 2015ean, ehunekoak % 27 ziren salmentetan, eta % 30 inguru landunetan eta balio erantsietan.

⁵⁵ Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak egin berri duen adierazle sintetiko bat da. EAEko BPGd-arekin korrelazio handia duten hileko ehun aldagai inguru konbinatzen ditu. Serieak moteldu egin dira, eta, beraz, haien ibilbidea aldagaiaren joeratzat har daiteke.

Beharpena: $x < 50$

Hazkunde txikia:

$50 < x < 100$

Hazkunde sendoa: $x > 100$

⁵⁶ ELGaren sailkapenaren arabera (EUSTATEk erabiltzen duena), maila teknologiko altuak 1 barne hartzen du. Farmazia-produktuen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa, eta 3. Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala. Erdi-altuan 4 daude. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektronikoen fabrikazioa, makineriaren eta tresneriaren fabrikazioa, ibilgailuen fabrikazioa, 7. Garraiorako beste material batzuen fabrikazioa, ontzigitza eta eraikuntza aeronautikoa eta 8 izan ezik. Tresna eta hornidura mediko eta odontologikoen fabrikazioa. Ertain-baxua 9 da. Euskarri grabatuen erreproduktzioa, 10. Koke-lantegiak eta petrolio fintzea, 11 Kautxuko produktuen eta plastikoen fabrikazioa, metalezkoak ez

Eraikuntzaren sektoreko portaera neurrizkoagoa izan da. Hala, 2021. urte osoan, batez besteko hazkundea, balio errealetan, % 2,4koa izan da. Aurreko urtean, aldiz, % 8,2 jaitsi zen. Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen urteko balantze erlatiboak % 7,2ko urte arteko hazkundea erakusten du, lan-egutegiaren baldintza homogeneotan: % 7,8 eraikuntzan eta % 3,6 obra zibilean.

Zerbitzuen sektoreak, balio errealetan, % 5eko batez besteko hazkundea izan du. Aurreko urtean, berriz, % 9ko jaitsiera izan zen. Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak taldeak barne hartzen dituen jarduerak urte arteko % 2,5eko igoera izan dute (+% 1,6 2020an). Bestalde, jarduera pribatuek, bereziki merkataritza, garraio eta ostalaritzako jarduerak, 2020an % 12,1eko jaitsiera izan baitzuten, 2021ean % 8,9 hazi ziren, nahiz eta 2021ean beren jarduera murriztu zuten, izandako agerraldiak geldiarazteko hartutako neurrien ondorioz.

Horrela, EUSTATen “*Txikizkako Merkataritzaren salmenta-indizeak*” erakusten du 2020-2021 aldian txikizkako merkataritzako salmentak % 3,6 igo direla (lan-egutegi homogeneoan eta prezio konstanteetan). Gasolindegia alde batera utzita, salmentak % 3,3 hazi dira.

EUSTATen “*Establezimendu turistikoko Hartzaileen Inkesta*”ko datuek erakusten dutenez, 2021ean, COVID-19aren pandemiak markatutako bigarren urtean, EAeko establezimendu turistikoen sarreretan (+% 75,8) eta gaudaldietan (% 73,3) 2020. urtearekin alderatuta igoera erregistratu bada ere, 2019an lortutako kopuruak ez dira berreskuratu. Guztira 2.376.989 sarrera izan dira, 4.886.776 gaudaldi orotara. Izan ere, kopuru horiek 2019an izandako sarreraren % 68,2ra eta gaudaldien % 66,7ra iristen dira.

Bestalde, Gainerako zerbitzuen adarrean sartutako jarduerak (higiezin-jarduerak, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak, eta finantza eta aseguru jarduerak) % 4,1eko urteko batez besteko hazkundea izan dute. 2020an, berriz, % 8,6ko jaitsiera erregistratu zen.

Finantzen arloari dagokionez, Espainiako Bankuaren datuen arabera, administrazio publikoen titulartasuneko gordailuen guztizko saldoa 9.345 m € izan zen EAEn 2021aren amaieran. Horrek esan nahi du urtean % 53,1eko igoera izan zela eta Estatuko gordailuen % 9,7 direla. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen (BSE) balioa 86.815 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 1,2ko igoera izan zuen aurreko ekitaldikoaren aldean, eta % 6,2ko ratioa estatuko guztizkoarekiko Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitate desberdinen arabera aztertzen baditugu (agerikoa, epera eta aktiboen aldi baterako lagapena), hau ikusiko dugu: % 81,4 ageriko gordailuak dira, % 7,9 eperako gordailuak eta % 1 aktiboen aldi baterako lagapenak (ALL). Ageriko gordailuek gora jarraitzen duten bitartean (+% 5,6), eperako gordailuek behera jarraitzen dute. Hala izan da, gordailuek ordainsari urria dutelako, edo batera ez.

Hala, moneta-merkatuko interes-tasak euro-gunean (gordailuak) negatiboak dira berriro, urteko batez bestekoan, epe guztietan.

Gordailu-erakundeek administrazio publikoen eta beste sektore egoiliar batzuen aurrean emandako kredituaren saldo bizia gutxi handitu da (70.155 izatetik 70 izatera igaro da). 253 M € (+% 0,1). Gehikuntza txiki horren arrazoia da administrazio publikoei emandako kredituaren saldoak gora egin duela (+% 15,8). Izan ere, sektore pribatuari emandakoa (guztizkoaren % 86,6) % 1,9 jaitsi da.

diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzizgintza, eta 14. Makineriaren eta tresneriaren konponketa eta instalazioa. Behekoa 15 da. Elikagaien, edarien, tabakoaren, ehungintzaren eta jantzigintzaren industria. Larruaren eta oinetakoaren industria. Zuraren eta paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarien fabrikazioa, 18. Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19a. Saikatu barik.

EINen datuen arabera, etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 7 igo da, eta etxebizitzaren hipotekatuen gainean emandako batez besteko zenbatekoa % 6,3 handitu, 147.927 eurotik 157.225 eurora, 2020 eta 2021 bitartean.

Bestalde, Bilboko Bursaren 2000 Indizeak 1.397,4 puntu izan zituen 2020ko abenduan, hau da, % 8,2 igo zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta. Bilboko Bursaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak), 2021ean, 83.264,7 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 13,8 jaitsi egin zen 2020aren aldean.

Inflazioari dagokionez, 2021eko abenduko KPIaren urte arteko tasa % 6,4 izan zen, azken hogeita hamar urteetako baliorik handiena. Ratio hori Estatu osoko ratioaren antzekoa da (% 6,5). Igoera horren arrazoi nagusia energia garestitzea da (elektrizitatea, gasa, erregaia). Urtearen lehen erdian KPIaren igoera produktu energetikoen prezioen igoeraren emaitza izan zen, baina azken hilabeteetan bigarren fasera igaro zen, eta bigarren fase horretan igoera gainerako produktuetan gertatu zen, bereziki elikagaietan eta industria-ondasunetan, azpiko inflazioak izandako goranzko joerak islatzen duen bezala⁵⁷.

EINen arabera “Hiruhilekoko Lan Kostuaren Inkesta, LKHI”, EAEn, % 3,4 egin zuen gora enpresen⁵⁸ laneko kostuak 2021eko laugarren hiruhilekoko 2020ko epealdi beraren aldean (Estatuan % 4,4 handitu da), eta 3.383 euroan kokatzen da langileko eta hileko, hots, 508,4 euro gehiago Estatuan baino.

Lanaren itxurazko produktibitateari dagokionez, ekoizpena enpleguak baino pixka bat gehiago hazi denez gero, % 0,1 igo da 2021ean termino errealean⁵⁹. Igoera horren arrazoiak da lehen sektorean eta industrian produktibitateak gora egin duela. Izan ere, eraikuntza eta zerbitzuetan % 2,9 eta % 1,1 egin dute behera, hurrenez hurren.

EAEn bizi diren 18 urteko edo gehiagoko biztanleen batez besteko errenta pertsonala (errenta osoa), EUSTATEko “Pertsonen Errentaren eta Familiakoen Estatistika”ren arabera, % 5,3 igo da 2018 eta 2019 artean, 22.601 €-ra iritsita. % 60 lanaren errentetatik dator, 13.563 € batez beste (+% 4,6 aurreko urtearen aldean), % 26,7 gizarte transferentzia edo prestazioetatik⁶⁰ 6.033 € batez beste (+% 5), % 8,6 kapital higiezin zein higigarriaren errentetatik (1.949 €) eta % 4,7 ekonomia-jardueren errentetatik (1.056 €).

Sexuaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko banaketa desberdina da, eta agerian geratzen da dagoen genero-aldea. Hala, gizonek, batez beste (gutxira), 27.885 €-ko errenta du. Emakumeek, berriz, 17.731 € batez beste, hots, lehenbizikoek emakumeek baino 10.100 eurotik gorako errenta pertsonala jasotzen dute.

Errentaren (errenta osoa) banaketari dagokionez, 18 urteko eta gehiagoko biztanleria egoiliarren % 60k EAEko batez bestekoa (22.601 €) baino errenta pertsonal txikiagoa du, baina kontuan izan behar da talde horretan sartuta daudela 2019an errentarik jaso ez dutenak (% 13,5). Beste muturrean, biztanleria horren % 10ek batez bestekoa ia bikoizten duen errenta du.

Aldi berean, biztanleen % 37,1ek 12.000 eurotik beherako errenta pertsonala dute, eta % 43,7k 15.000 baino gutxiagokoa (kasu bietan errentarik ez dutenen % 13,5).

Bestalde, Kanpo Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa % 75,6 hazi da EAEn 2020tik 2021era bitartean, ABEEak kenduta. Gutxira 1.537,5 milioi euro jaso zituen EAEk 2021ean. Hala, 2021ean EAE hirugarren postuan dago inbertsioen bolumenari dagokionez, Madrilen (20.943,9 milioi euro) eta Kataluniaren (2.968,8 milioi euro) atzetik. Sektoreka, inbertsio hauetan egindako inbertsioak bereziki nabarmenak dira, inbertsio osoan duten pisuagatik: energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua, metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa eta handizkako eta txikizkako merkataritza eskuratzeko, eta motordun ibilgailuak eta motozikletak konpontzea. Lurraldearen ikuspegitik, inbertsioen

⁵⁷ Azpiko inflazioa kontsumo-prezioen aldakortasuna gutzitiko inflazioa baino modu zehatzagoan erakusten duen adierazlea da. Produktu energetikoei eta elabortatu gabeko elikagaiei (frutak, barazkiak ...) dagokien zatia kenduta kalkulatzen da, hondar-inflazioa osatzen baitute. Hortaz, prezioen joera erakusteko adierazle egokiagoa da.

⁵⁸ Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeen enplegatzaile jarduerak eta lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak izan ezik).

⁵⁹ Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATEn datuetatik abiatuz kalkulatuta.

⁶⁰ Pentsioak eta hartzeko pasiboak, langabezia-prestazio edo -subsidiak, ekintza terroristen ziozko prestazio publikoak, giza immunoeskasiaren birusak erasandakoek jasotako laguntzak eta ezintasun iraunkorren ziozko prestazioak eta Gizarte Segurantzaren ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazioak.

azken titularra bizi den herrialdea % 99,6 da Europako herrialde batean eta, batez ere, 27ko EBn (% 98,1). EBko herrialdeen artean, aurten Alemania nabarmentzen da 411,2 m €-rekin, hain zuzen EAEn egindako inbertsio osoaren % 26,7 izanik.

Bestalde, atzerrian egindako euskal inbertsioa, ABEEak kenduta, % 3,9 jaitsi da 2020. urtearekin alderatuta, eta 3.318,3 m € zen 2021ean. Hala, EAE bigarren postuan dago autonomia erkidegoen sailkapena, atzerrian egiten duen inbertsioagatik, Madrilen atzetik. Sektoreen aldetik, hauexek nabarmentzen dira: energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua, metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa eta ibilgailu motordunen eta bestelako garraio-materialen fabrikazioa. Lurraldearen ikuspegitik, EAEko inbertsioa ELGAko herrialde batera bideratzen da kasuen % 98,4an. % 80,8k AEBra jotzen du, % 8,3k EB27ra (Poloniak % 5,4), % 4,6k Latinoamerikara eta % 4,6k Asiara eta Ozeaniara.

EAEko sektore publikoari dagokionez, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Aurrekontu Betearazpenaren Estatistikaren arabera, 2021ean Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek guztira likidatutako guztizko diru-sarrerak 20.282,9 milioi eurokoak dira, % 11,7ko igoera dute aurreko urtearen aldean (+% 4,8 transferentzia korrante eta % 18,8 gehiago, hurrenez hurren). Izan ere, eragiketa arrunten bilakaera positiboa (% 8 igo da zuzeneko zergen bidez, eta % 8,8, berriz, zuzeneko zergen bidez, eta transferentzia arrunten hazkundeari gehitzen zaizkio, % 71,4 hazi baitira), zati batean bakarrik konpentsatzen da finantza-pasiboen % 29,8ko beherakadarekin (2020an baino zorpetze txikiagoarekin lotuta, orduan % 156,5 hazi baitzen). Zorpetzearen jaitsiera hori Eusko Jaurlaritzaren finantzetan baino ez da gertatu (-% 44,3); izan ere, foru aldundietan gora egiten jarraitzen du (+% 38). Diru-sarrerak igo egin dira, bai Eusko Jaurlaritzan (% 12), bai foru aldundietan (% 15,5). Esan bezala, gehitutako diru-sarrera % 11,7 izan da.

Balantzea egite aldera, EAEko sektore publikoak Erkidegoko BPGd-aren gainean zituen diru-sarreraren multzoa, 2020an % 25,4 eta 2021ean 8 hamarren igo zen % 26,2ra arte (behin-behineko datuak). Izan ere, BPGd-a diru-sarrera publikoak baino gutxiago hazi da (% 8,1 termino arruntetan, behin-behineko datuen arabera).

Zerga itunduek zuzeneko eta zeharkako diru-sarrera gehienak osatzen dituzte, eta guztizkoaren % 90 baino gehiago, eta 2021rako 15.963,2 milioi euro bildu dituzte, hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 14,4 gehiago. Zifra horiek aurreikuspen baikorrenak gainditzen dituzte, pandemiaren aurreko datuak ere gainditzen dituzten erregistroekin (2019an baino ia 500 milioi gehiago biltzen dira). Diru-bilketaren hazkunde hori ekonomiak hazten duena baino handiagoa da, baina kontuan hartu behar da bai inflazioak bai foru aldundiek enpresen diruzaintzako tentsioak arintzeko ezarritako ordainketa geroratzeko neurri jakin batzuek lagundu dutela diru-bilketa hori maximo historikoetan egiten. Biak hazi diren arren, 2021ean zeharkako zergen portaera hobe izan da (+% 20,1) zuzenekoarena baino (+% 8,9).

Guztira, 15.963,2 milioi euro bildu dira, hau da, 2021ean EAEko BPGd arruntaren % 20,7, behin-behineko datuen arabera (% 19,5 2020an). Esan bezala, bilketa hori maximo historikoa da, eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2021eko urrian aurreikusitakoa baino % 2,5 handiagoa. Bildutako guztiaren % 38,3 PFEZari dagokio, % 39,2 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatik eta aduanengatik doikuntza), % 7,2 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, % 15,3, zenbait zerga bereziri.

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua (toki-erakundeak kontuan hartu gabe) 18.627,9 milioi eurokoa izan da 2021ean, eta % 7,6 igo da 2020rekiko, aurreko urteko -% 2,1aren aldean. Hala, magnitude horrek EAEko BPGd-aren gainean duen ehuneko hamarren bat murriztu da, % 24,2tik % 24,1era, BPGd-aren bilakaera dela eta (% 8,1 hazi da uneko terminoetan, behin-behineko datuen arabera). Gastuaren susperraldia bai Eusko Jaurlaritzan (+% 8) bai foru aldundietan (+% 14,1) gertatu da, eta +% 7,6ko agregatuaren aldakuntza gertatu da, partida batzuk erakundearen artean konpentsatzen direlako (transferentzien zati bat, adibidez).

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetak aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenik eta behin, langile-gastuek aurreko urteetako joera positiboari eutsi diote, eta 2020an baino gehiago hazi dira (+% 4,8, aurreko urtean baino 1,2 puntu gehiago), eta proportzio txikiagoan aldundietan (+% 2,3) gobernuan baino (+% 5,2), eta, aldi berean, transferentzia arruntak finkatu dira (+% 8,5, 2020an baino 4,7 puntu gehiago). Funtzionamendu gastuak (ondasunak eta zerbitzuak erosteari buruzkoak), era berean, aurreko urteetako joerari eusten diote eta aurreko ekitaldian baino proportzio handiagoan hazi dira (% 6,5 igo dira, eta +% 6,1, berriz, 2020an). Inbertsio errealei dagokienez, % 4,4 jaitzi ziren 2020an, baina % 24,1 berreskuratu ziren 2021ean, foru aldundiek (+% 26,6) eta Eusko Jaurlaritzak (+% 22,5) bilakaera positiboa izan zutelako.

Eusko Jaurlaritzaren gastuari erreparaturik gero, 2021eko "EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpenari" buruzko datuen arabera, 2021eko azaroan eguneratutako aurrekontuko likidazioaren behin-behineko datuekin, Eusko Jaurlaritzaren gastua % 12 handitu da 2020ko datuekin alderatuta, urte horretan % 2,2 jaitzi baitzen aurreko urtearekin alderatuta. Gastu bolumenagatik, bi sail nagusiak Hezkuntza (% 24,4) eta Osasuna (% 321,1) dira orain ere. Azarora arte egindako gastuarekin eguneratutako aurrekontua 13.191,7 milioi eurokoa da, hau da, urte honetan gure erkidegoko BPGd-aren % 17,1, behin-behineko datuen arabera betiere.

Bestalde, 2021ean euskal sektore publikoaren (governua eta foru aldundiak) diru-sarrera arruntak % 17,9 hazi dira, eta izaera bereko gastuak % 7,1. Horrek aurrezki gordina % 302,3, igotzea dakar, 2.114,1 milioi euroraino. Zenbateko honek gure erkidegoko BPGd-aren % 2,7 hartzen du (behin-behineko datuak). Horrez gain, 1.040,9 milioi euroko (BPGd-aren % 1,3) superabit publikoa izan da (finantzatzeko ahalmena), finantzakoak ez diren gastuak (ohikoak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako sarrerak baino. Aurreko ekitaldian, 596,1 milioi euroko superabita izana zen (BPGd-aren % 0,8).

Eusko Jaurlaritzaren "Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistikak" erakusten duenez, halaber, EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiak) zorpetze garbiak (zorpetze gordinaren eta amortizazioaren arteko aldea), bost ekitalditan behera egin ondoren 2020an handitu zenak (1.630 milioi eurotik gora), positiboa izaten jarraitzen du 2021ean, baina aurreko urtean baino txikiagoa da. Zehazki, 856,3 milioi eurora iritsi da, 2020an baino % 47,5 gutxiago. Zorpetze gordina ere jaitzi egin da 2021ean, % 29,8, 1.782,3 milioi eurora iritsita. Horietatik 1.165,1 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-% 44,3, 2020ren aldean) eta gainerako 617,1 milioiak, berriz, foru aldundiei (azken horiek, zehazki, % 38 hazten jarraitzen dute).

Zorpetze gordinaren beherakadarekin batera, gainera, dagoen zorraren amortizazioa 2020koaren antzekoa izan da, baina aurreko urteetako baino txikiagoa (926 milioi euro, eta horietatik 668,1 Eusko Jaurlaritzari dagozkio). Horren ondorioz, ekitaldiaren amaieran zor bizia % 7 igo da. Hala, ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 13.136 milioi euroko zorra aurkeztu dute (BPGd-aren % 17, behin-behineko datuen arabera; 2020an, berriz, % 17,2). Beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren % 83, % 84,8 aurreko urtean).

Eta, azkenik, enplegu publikoari dagokionez, euskal administrazio publikoek 142.526 langile zituzten 2021eko urtarilaren 1ean, EUSTATen "Administrazio Publikoen Direktorio"ko datuen arabera⁶¹. Kopuru hori aurreko urtean baino % 1,9 handiagoa da, eta 2021eko lehen hiruhilekoan EAEn okupatutako langile guztien % 15,4 (2020an baino 7 hamarren gehiago), BJAren okupazio-zifrak kontuan hartuta. Datu horiek ez dituzte kontuan hartzen Estatuko Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren Sistemaren mendeko langileak, baina Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak, 2021eko urtarrileko estatistika-buletinean, kalkulatu zuen Euskadiko Estatuko Administrazio Publikoko langileak 10.376 zirela data horretan (4.785 Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura eta 5.591 "beste batzuk" kategorian, Estatuko segurtasun indarrak eta kidegoak barne). Zenbateko biak batzen baditugu, lanpostu publikoak, 2021a hastean, 152.902 inguru lirateke (aurreko urtean baino % 1,8 gehiago). Edozelan ere, zenbatespen bat baino ez da zenbateko hori, erreferentzia-data eta metodologia desberdinak erabili baitira.

⁶¹ Lanaldi osoko langile landun baliokideak.

EUSTATen kopuruak berriz ere aztertuta, 2021eko urtarrilean ziren 142.526 enplegatu publikoetatik % 65,2 EAEko administrazioakoa zen, % 18,8 tokiko erakundeetakoa, % 8,4 foru aldundietakoa eta gainerako % 7,6a unibertsitatekoa, fundazioetakoa eta beste erakunde publiko batzuetakoa. Bestalde, funtzionarioak langile guztien % 61,7 ziren, % 37,3 lan-itunpeko pertsonala zen, kasu bietan Osakidetzaren estatutueta pertsonala barne. % 0,9 goi-mailako kargudunak ziren. Gainera, langile finkoak (funtzionarioak, lan-kontratudunak eta estatutupekoak) langileen % 56,5 ziren (-1,2 puntu 2020an), % 17,9 bitarteko funtzionarioak ziren (+1,1 puntu) eta % 24,6 aldi baterako lan-kontratudun langileak (2020ko ratio bera). Hala, bitartekotasun eta behin-behinekotasun maila % 42,5ekoa izan zen (% 41,4koa aurreko urtean) ⁶².

ekoizpenerako azpiegituri dagokionez, eta, zehazki, **garraioari** dagokionez, Estatuko Erakunde Publikoek (AENA, ADIF eta PORTUAK eta RENFE) EAEko ingeniari zibilean egindako esleipenei buruzko datuek erakusten dute gora egin dutela erakunde guztietan, AENAn izan ezik, 2020 eta 2021 artean. Hala, ADIFenak 62,8 milioitik 66,4 milioira igaro dira, PORTUETAKOAK 16 milioitik 47,5 milioira eta RENFE OPERADOREARENAK 10.000 eurotik 35.000 eurora. Bestalde, AENAK egindako esleipenak 12 milioi eurotik 6,2 milioi eurora jaitsi ziren.

Bide-azpiegiturari dagokionez, nabarmendu behar da EAEko errepide-sarea, 2018ko datuekin, edukiera handiko errepideek osatzen dutela, % 15 baino gehiago, eta Estatuan, berriz, % 10,4 baino gehiago.

Abiapuntua edo helmuga EAEn izanik (igarobideko nazioarteko trafikoa alde batera utzita) errepidez garraiatutako salgaien bolumena 105,2 milioi tonakoa izan zen 2021ean, hau da, % 12ko igoera 2020. urtearekin alderatuta. % 45,2, eskualde barruko trafikoa da; % 48,1, eskualde artekoa eta % 6,7, nazioartekoa. Eskualdeen arteko eremuan, trukeen bolumen handiena Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabriarekin egiten da.

Trenbide-azpiegiturari dagokionez, argitaratutako azken datuen arabera, EAEko trenbide-lineen kontzentrazioa Estatuan eta 28ko EBn erregistratutako dentsitatea baino handiagoa da. Zifretan, EAEko trenbide-sareak 549,44 kilometro ditu, eta ia guztiak elektrifikatuta daude (% 94). Estatuan eta EBn, elektrifikazio maila txikiagoa da, % 64,3 eta % 54,6, hurrenez hurren.

Euskal Y-ari dagokionez, 2021ko azaroan, Eusko Jaurlaritzak eta Garraio Ministerioak beste bi kudeaketa-gomendio egin zituzten, Eusko Jaurlaritzak Gasteizen eta Bilbon abiadura handiko sarbideen obrak egin ahal izateko, Gipuzkoako adarraren zati batean egiten zuen bezala.

Hiru lurraldeen arteko erdiko trazadura 2026. urtearen amaierarako edo 2027. urtearen hasierarako bukatuta egongo dela aurreikusten da, baina ezin da ziurtatu data horretarako amaituta egongo direnik, ez Donostiako geltokia, ez hirugarren haria mugaraino; eta oraindik funtsezko zati bat falta da, trenaren Bilboko eta Gasteizko sarbideak.

Aireko trafikoari dagokionez, abiazio zibilari buruzko datuen arabera, 2021ean EAEko hiru aireportuetan 2.864 mila bidaiari izan ziren guztira (% 90,1 Bilboko aireportuan), hau da, 2020rako baino % 57,4 gehiago. Bestalde, salgaien trafikoa % 12,8 gehitu zen, eta 72.995 tonakoa izan zen. (% 99,4 Gasteizko aireportuan erregistratu da).

Portuko trafikoari dagokionez (merkantziak, hornidura eta arrantza), 2020tik 2021era Bilboko Portuak % 5,6 egin zuen gora. Bestalde, Pasaiako portuan, askoz ere kota apalagoetan mugitzen baita, trafikoa % 16,4 igo zen.

⁶² Esaterako, Ministerioaren datuek egonkorra deritzon plantilla zenbatesten dute, 6 hiletik beherako aldi baterako kontratuak baztertuz.

Energiari dagokionez, lehenik eta behin adierazi behar da 2021eko urrian Euskadiko 2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana onartu zela. Plan horrek helburu hauek ditu:

- Berotegi-efektuko gasen isuriak % 30 murriztea.
- Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumoaren % 20 izatea lortzea.
- EAeko lurraldeak klima-aldaketaren aurrean duen erresilientzia ziurtatzea.

Zifretan emandako energiari dagokionez, Euskadi Energia 2020 txostena. *Energiari buruzko datuek* (EEEk argitaratuak), erakusten dute energia primarioaren edo energiaren barne-kontsumo gordinaren (gehien inportatutako energia ekoiztua ken esportatua) guztizko eskaria % 9,9 jaitsi zela 2020an (pandemiaren lehen urtea), eta 5.888 Ktep izatera iritsi zela. Bestalde, energiaren azken kontsumoak % 10,4 egin zuen behera (4.472 Ktep), eta sektore guztietan egin zuen behera, lehen sektorean izan ezik. Industriaren sektorean izan zen jaitsierarik handiena (-% 12,7).

Energia primarioaren produkzioa % 7,9 murriztu zen, 655 Ktep-etik 603 Ktep-era; eta ekoizpen hori, batez ere, energia berriztagarrietan oinarritu zen (iturri propio nagusia), % 6,4 murriztu baitziren (623 Ktep-etik 583 Ktep-era).

Lehen mailako energiaren berezko ekoizpen eskasak EAeko energia-eskariaren (barne-kontsumo gordina) % 10,2 soilik asetzea ahalbidetu zuen. Ondorioz, EAetik kanpoko mendekotasun energetikoa % 89,8koa izan zen, Estatuan baino handiagoa (% 72,8) eta EB28ko batezbestekoa baino handiagoa (% 54,9).

Iturri berriztagarrietan oinarritutako ekoizpenak (583 Ktep) azken kontsumoaren % 13 betetzea ahalbidetu zuen (4.472 ktep); hau da, energia berriztagarriek azken kontsumoan duten partaidetza-ratioa Euskadiko 2020rako Energia Estrategian (3E2030) gure erkidegoarentzat ezarritako % 21eko helburutik 8 puntura dago.

Intentsitate energetikoari dagokionez (ekonomia baten eraginkortasun energetikoaren adierazlea, BPGd-aren unitateko azken kontsumoa ktep gisa neurtzen dena), 2020an 19 puntu hobea izan zen (txikiagoa) 2010ekoa baino. 2019. urtearekin alderatuta, egonkor mantendu da; izan ere, kontsumoak 9 puntu egin du behera, eta BPGd-ak, berriz, 10 puntu. Sektoreka, energia-intentsitatea hobetu egin zen (murriztu egin zen) 2019tik 2020ra bitartean sektore guztietan; zehazki, puntu 1 bakoitzean.

Energia-faktura nabarmen jaitsi da 2020an aurreko urtearekin alderatuta (-% 17,7), eta 4.885 m €-koa da. Kostu horretatik, % 51,6 garraio sektoreari dagozkio, % 18,5 industriari, % 16,8 etxebizitzetara, % 12,1 zerbitzuetara eta % 0,9 lehen sektoreari. Etxebizitzaren sektorean, etxeko fakturak % 9,8 egin zuen behera (905 euro) eta biztanleko fakturak % 9,7 egin zuen behera (374 euro).

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren % 91,3 dira. Industrian, argindarra fakturaren % 70,7 da eta gas naturala, berriz, % 27,1.

Zientziari, teknologiarri eta berrikuntzari dagokienez, 2020an, EAEn I+G-ko jardueretan inbertitu ziren, EUSTATEN arabera, 1.490 m € (+% 0,6, aurreko urtearen aldean). Datu hori positiboa da, kontuan hartzen badugu 2020 COVID-19ak eragindako krisiak markatutako urtea izan zela. Ahaleginari dagokionez, BPGd-aren % 2,08 hartzen du (% 1,86, aurreko urtean), pandemiak BPGd-an eragin handiagoa izan zuelako I+G-ko gastuan baino. EINen arabera, Estatuko batez bestekoa % 1,41 da.

Ratio txikiagoa da eurogunean ikusitakoa baino (% 2,36), baita arlo horretan erreferentziazko herrialdeetako baino ere. Nabarmenezkoak dira Hego Korea (% 4,64, 2019ko datua), Belgika (% 3,52), Suedia (% 3,51), Austria (% 3,22) eta Japonia (% 3,2, 2019ko datua).

Gastua egikaritzeari dagokionez, % 76,7 enpresek egin zuten⁶³, % 17,4 Goi Mailako Irakaskuntzak eta gainerako % 5,9 Administrazioaren mendeko erakundeek. Hala, enpresa-sektoreak jarraitzen du gasturik handiena gauzaten, eta, gainera, haren pisua 4 hamarren igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Gastu horren finantzaketari dagokionez, sektore pribatuaren partaidetza % 54,6koa da, 2020rako Europako helburutik 11,4 puntura (I+G-ko gastu osoaren % 66 funts pribatuekin finantzatzea). Administrazio Publikoak gastuaren % 34,2 finantzatzen du. Euro-gunean, EUROSTATen 2018ko datuen arabera, portzentajeak % 59,4 eta % 29,3 dira. Herrialde hauetan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia izan da 2018an: Japonia (% 78,9), Hego Korea (% 76,9), Txina, Hong Kong izan ezik (% 76,3), Suitza (% 64,7), Alemania (% 64,5), Belgika (% 64,3), AEB (% 63,1), Irlanda (% 62,8), Suedia (% 62,4) eta Eslovenia (% 61,5). Euro-guneko ratioa % 59,4 da.

AOBko I+G-ko jardueretan enplegatutako langileak (19.510,9 pertsona) % 0,5 murriztu ziren aurreko urtearen aldean. Sexuaren araberako azterketak agerian uzten du jarduera horietan enplegatutako langile guztien % 36,6 soilik direla emakumeak. I+G-ko egikaritze-sektorea kontuan hartuta, enpresen sektorean eta goi-mailako irakaskuntzan dago emakumeen presentzia kuantitatiboki nabarmenena: 4.244,7 eta 2.236,8 emakume, hurrenez hurren, eta 648,5 emakume Administrazio Publikoaren sektorean. Hala ere, Administrazio Publikoan, termino erlatiboetan, emakumeak langile guztien % 55,7 dira, goi-mailako irakaskuntzan % 49,2 eta enpresen sektorean % 30,8.

Orain, enpresaren sektoreko I+G-ko adierazleak aztertuko ditugu, betiere Zientzia eta Teknologia Euskal Sareko zentroak alde batera utzita. Lehenik, 2020an 1.378 enpresak egin zituzten I+G-ko jarduerak, aurreko urtean baino % 5 gehiago da. Horietatik 571 industria-sektorekoak dira (2019an baino 37 gehiago, +% 6,9), 742 zerbitzuen sektorekoak (11 gehiago, +% 1,5), 50 eraikuntzakoak (14 gehiago, +% 38,9) eta 15 lehen sektorekoak (3 gehiago). Jarduera horietan dedikazio osoan (AOB) diharduten langileei dagokionez, 10.953,6tik 10.915,3ra jaitsi da, hau da, enpresa-sektoreko (ZTBeko zentro teknologikorik gabe) enplegu osoaren (AOB) % 1,2. Enpresek jarduera horietan egindako gastua ere igo egin da, % 1,9 hain zuzen ere, 895.445 mila eurora iritsita. Bukatzeko, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 70 langile dira, euskal enpresaren multzoaren batez besteko tamaina baino askoz handiagoa (6 lagunekoa).

Enpresen berrikuntza-jarduerari dagokionez, 2020an, EUSTATen arabera, 10 enplegu eta gehiagoko enpresen % 31,4 berritzaileak ziren, aurreko urtean baino ehuneko 0,4 puntu gehiago. Sektoreen aldetik, industria-enpresen % 40,6, zerbitzu-establezimenduen % 29,7 eta eraikuntza-enpresen % 16,2 dira berritzaileak.

2.379,2 M€ gastatzen dute jarduera berritzaileetan, BPGd-aren % 3,33. Gastu horretatik, gehiena barne I+G-ari dagokio.

Berrikuntza zailtzen duten faktoreei dagokionez, 9 lanpostu baino gehiago dituzten enpresen %65,3k uste du hiru faktore nagusiak hauek direla: “enpresaren barruan badira beste lehentasun batzuk”; “kostu handiegia” eta “merkatuaren eskariaren gaineko ziurgabetasuna”.

EINen datuen arabera, EAEn 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 28 dira berritzaileak, Estatuko batez bestekoa baino ratio handiagoa (% 22,6). Autonomia-erkidegoen rankingean, EAE lehena da, eta ondoren doaz Madril eta Katalunia.

⁶³ *Komeni da kontuan hartzea I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.*

"Europako Berrikuntza-adierazleen panelak (EIS) 2021" erakusten du EAE berriz ere "berrikuntza handiko herrialdeak" taldearen barruan kokatzen dela. Zehazki, sintesi-adierazleak 0,50eko balioa du, estatuaren gainetik (0,59), baina 27ko EBn baino ehunen bat azpitik (0,53). IUSen "Aktibo intelektualak" dimentsioak berrikuntza prozesuetan etekin gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubide moduak biltzen ditu, eta 0,26 da adierazlea, 28 EBko batez bestekoaren (0,42) eta are estatukoaren (0,33) azpitik. Historia aztertuta, EAEk I+G jardueretan inbertsio handiak egin ditu, baina zailtasunak dauzka oraindik ere inbertsio hori emaitzetara eramateko, hain zuzen ere aktibo intelektualen adierazleak baxuak izan direlako; horrek efizientzia edo produktibitate txikiagoa erakusten du.

Ildo horretan, berriz ere agerian utzi behar dugu ZTBP Euskadi 2030 berriak lau helburu operatibo planteatzen dituela, eta horien artean, hain zuzen ere, "Euskal I+G+b emaitzetara ahalik eta gehien bideratzea" dagoela.

Bestalde, "Eskualdeko berrikuntzaren adierazleak - Innovation Scoreboard (RIS), 2021" izeneko panelak erakusten du berrikuntzan aitzindariak diren eskualdeak, normalean, berrikuntzan aitzindariak edo berritzaile indartsuak diren herrialdeetan kokatzen direla EIS 2021ean; eta sortzen ari diren neurrizko berritzaile eta goranzko berritzaile gehienak EIS 2021ean neurrizko berritzaile eta goranzko berritzaile gisa identifikatutako herrialdeetakoak direla.

Hala ere, eskualde berritzaile indartsuak (edo berrikuntza handiko eskualdeak) aurki daitezke neurrizko berritzaileak edo goranzko berritzaileak diren herrialdeetan; eta Europako Batzordeak bikaintasun-polo deitzen die eskualde horiei. Horien artean dago Euskadi (baita Madril ere). Izan ere, Euskadik berreskuratu egin du berrikuntza handiko eskualdearen kategoria, 2019ko edizioan galdu zuena, eta RIS 2021ean eskualdeko bikaintasun-polo bihurtu da.

RIS 2021en arabera, gure erkidegoaren indargune nagusiak honako hauek dira: produktu berrien salmentari eta ezagutza intentsiboko sektoreetako enpleguari dagokienez berrikuntzak duen eragin handia, bai eta gazteen kualifikazio handia ere. Erronkei dagokienez, Euskadik eutsi egin dio ETE berritzaileen ehuneko handitzeko beharrari.

Azkenik, ZTBP Euskadi 2014-2020ren balantzeak honako hau erakusten du:

- a) Helburuak honela lortu dira: foku anitzeko teknologia-zentroen eta IKZen ikerketa-ehunekoak, RIS3ren lehen kuartilean indexatutako argitalpen zientifikoak, lehen kuartilean indexatutako argitalpenen ehunekoak, fakturazioan produktu berrien salmenten ehunekoak, atzerriko I+G+b-en finantzaketa-ehunekoak, euskal finantzaketaren ehunekoak esparru-programako funts guztiekiko eta nazioarteko urteko finantzaketa pribatua.
- b) Helburua ia lortu egin da hauexetan: I+G+b jardueren mixa (oinarrizko ikerketaren %-a / industria-ikerketaren %-a / garapen esperimentalaren %-a).
- c) Ez dira lortu hemen ezarritako helburuak: EPO patenteak eskatzea, 10 enplegu baino gehiagoko enpresa berritzaileen ehunekoan, doktoreen ehunekoan ikertzaile guztien gainean eta doktoreen ehunekoan enpresetako ikertzaile guztien gainean.

Finantzaketa-iturriaren arabera I+G-ko gastuari dagokionez, helburuak ez dira bete.

Eta, 2014-2020 aldiko inbertsio-aurreikuspenei dagokienez, % 96ra iritsi da finantzaketa publikoaren kasuan, % 105,8ra Eusko Jaurlaritzaren finantzaketan, % 80ra enpresa-finantzaketan eta % 97,1era nazioarteko finantzaketan.

EUSTATen "**Informazioaren gizarteari buruzko inkesta – IGI enpresak**" delakoak bederatzi adierazle darabiltza enpresen eraldaketa digitala aztertzeko (4.0 industria)⁶⁴. 2021ean, adierazlerik azpimarragarriena eta enpresa-tamaina alde batera utzita, enpresa-helburuetarako sare sozialak dira (establezimenduen % 51,5 eta 10 lanpostuko edo gehiagoko establezimenduen % 70,3). Gainerako adierazleetan, aldeak ikusten dira erabilera-rankinean, enpresaren tamainaren arabera. 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduen kasuan, horiek dira aldaketa-prozesu horiek azkarrago ezartzen

⁶⁴ Hauexek: sare sozialak enpresaren xedeetarako erabiltzea, "hodeiko" zerbitzu informatikoak erabiltzea, zerbitzu mugikorrek erabiltzea, gauzen internet (IoT) erabiltzea, zibersegurtasuneko jarduerak, makrodatuen analisia (big data), adimen artifizialeko sistemak erabiltzea, 3D inprimagailuak erabiltzea eta robotikaren erabilera.

ari direnak: zerbitzu mugikorren erabilera (% 46,3), cloud computing (% 46), zibersegurtasun-jarduerak (% 43,1), big data analisia (% 22,9) eta IoT % 21,1ekin. Urrunago daude: robotika (% 11,8), 3D-ko inprimagailuen erabilera (% 8,6) eta adimen artifizialeko sistemak (% 7,4).

Orain EAEko egoera estatukoarekin erkatuko dugu arlo horretan. Horretarako EINEk 2021eko lehen hiruhilekoari buruz argitaratutako *“Enpresetako IKTen eta merkataritza elektronikoen erabilerari buruzko inkesta”*ko datuak erabiliko ditugu. Euskadi estatuko batez bestekoaren gainetik dago enpresa-baliabideak planifikatzeko sistemen erabileran (izan ere, lehen postuan dago estatuko rankingean), cloud computing zerbitzuren baten erosketan (hirugarrena Ceutarekin batera rankingean, Kataluniaren eta Madrilen atzetik), adimen artifizialaren erabileran (laugarren rankingean, Madril, Kantabria eta Gaztela eta Leonen atzetik), datu-iturri handien erabileran (Big Data) (Bosgarrena estatuko rankingean, Andaluziaren, Kataluniaren, Extremaduraren eta Madrilen atzetik) eta Internet bidez urrunetik monitorizatu edo kontrolatu daitezkeen gailu interkonektatuen erabileran (IoT), nahiz eta azken kasu horretan zerrendaren erdialderantz jaitsi. Hala ere, sinadura elektronikoen eta gizarte-bitartekoen erabilera Estatuko batez bestekoaren azpitik dago, eta erdia inguru autonomia-erkidegoen rankingean.

Telelanari dagokionez, EUSTATen arabera, 2021ean langileen % 12k enpresaren lokaletatik kanpo egiten zuen lan modu erregularrean, eta, horretarako, sare telematikoak erabiltzen zituen IKT sistemekin konektatzeko. Hala, aurreko urtean lortutako ehuneko bikoiztu egiten da (% 5,4). Kontuan izan behar dugu informazio-bilketa batez ere urteko lehen hiruhilekoan egiten dela; beraz, COVID-19ak telelanean izan zuen eragina 2021ean ikusten da.

Transakzio elektronikoei dagokionez, EUSTATen datuen arabera, 2021ean, 15 urteko eta gehiagoko euskal biztanleen % 46,5ek erosi dituzte ondasunak eta zerbitzuak Interneten bidez, 2020an baino ehuneko 1,3 puntu gehiago. Interneteko erabiltzaileei dagokionez, % 54,7 dira. Sexuaren arabera bereiziz gero, aldeak ikusten dira erosketa-tipologian: emakumeen % 77,5ek kirol-materiala eta arropa erosten ditu (gizonek baino ehuneko 8,8 puntu gehiago), eta liburuak, aldizkariak edo egunkariak erosten ditu emakumeen % 29,4k (+4,1 puntu). Gizonen % 43,7k ekipamendu elektronikoa erosten du (emakumeek baino 16,4 puntu gehiago), % 29,8k ekipamendu informatikoa (+10,7 puntu) eta % 13,6k ordenagailuko edo bideo-konsoletoak jokoak eta horien eguneraketak (+9,8 puntu).

EUSTATen Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren datuen arabera, 2020an 43.000 establezimendu inguruk egiten dute merkataritza elektronikoa EAEn; hau da, establezimendu guztien % 26,9 (aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago). Jaitsiera hori gertatu da elektronikoki erosten dutenen ehunekoak behera egin duelako, aurreko urtean baino ehuneko 0,7 puntu gutxiago; izan ere, salmenta elektronikoki egiten dituztenen proportzioa 0,6 puntu igo bada ere, hazkunde horrek ez du konpentsatzen erosketen beherakada. Hala, establezimendu guztien % 24k elektronikoki erosten dute, eta % 7,6k salmenta elektronikoki egiten dituzte.

Kalkuluen arabera, salmenta eta erosketa elektronikoki guztizkoaren % 46,6 eta % 40,2 izan dira, hurrenez hurren, aurreko urteko ratioen aldean (% 43,7 eta % 38,4, hurrenez hurren).

Horrela, EAEko merkataritza elektronikoki berriro ere gora egin du zifra ekonomikoetan, aurreko urtearen aldean. Hala, sortutako negozio-bolumenak, sarean bidez edo bestelako sistema elektronikoen bidez (EDI, datu elektronikoen trukea, etab.), % 2,7 egin zuen gora salmenta elektronikoki dagokionez, eta orotara 22.092,4 M€ dira, eta % 5,9 erosketen aldetik, guztira 16.784,1 milioi euro.

EUSTATen eta EUROSTATen datuen arabera⁶⁵, online erosi edo saldu zuten 10 enplegu edo gehiagoko enpresen ehuneko (finantza-sektorerik gabe) handiagoa da EB27an eta eurogunean EAEn baino (aurrekontuaren % 1 gutxienez).

Hala, 2020an, erosketa elektronikoki egiten dituzten enpresen ratioa (10 enplegu edo gehiagokoak) % 28,9 da, eta salmentak egiten dituztenena, berriz, % 14,2. Bestalde, EUROSTATen datuen arabera, on line saldu zuten 10 lanpostu edo

⁶⁵ Datuak, ordea, ezin dira zuzenean erkatu, analisi unitatea desberdina delako: enpresa eta establezimendua. Gugi gorabeherako ikuspegia ematen dute.

gehiagoko enpresen ehunekoa (finantza-sektorerik gabe) (aurrekontuaren % 1 gutxienez) % 18 da 27en EBn eta eurogunean.

Administrazio elektronikoen erabilera aztertuko dugu orain.

EUSTATen arabera, enpresa-sare osoan (hirugarrenen bidez Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten establezimenduak eta Internet eduki ezin dezaketanak barne), 2021. urtean, enpresa guztien % 92,1 eta 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 95,9 izan ziren elektronikoki jarduten zutenak; aurreko urtean, berriz, enpresen % 93,5 eta % 96,7 izan ziren, hurrenez hurren. Izapidetze zuzena izan daiteke, hirugarrenen bitartez (aholkularitza-enpresak...) edo bi prozedurok erabiliz. Datuek erakusten dutenez, 10 langile edo gehiago dituzten enpresek, baliabide gehiago dituztenez, izapide gehiago egiten dituzte zuzenean. Enpresek Administrazioarekin egiten dituzten izapideei dagokienez, 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira: informazioa lortzea (tamaina horretako establezimenduen % 87,1), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 84,4), betetako inprimakiak eta formularioak itzultzea (% 80,3), langileen gizarte-kotizazioak aitortzea (% 78,1) eta BEZa aitortzea (% 76,9).

Izapide horiek elektronikoki zein administrazioarekin egiten dituzten aztertuz gero, 10 enplegu edo gehiagoko enpresen kasuan, foru-aldundiak nabarmentzen dira, tamaina horretako enpresen %85,8 baitira. Jarraian, hauexek ageri dira: Administrazio Zentrala (% 84,8), Eusko Jaurlaritza (% 78,6), tokiko erakundeak (% 49,2) eta, azkenik, EBrekin eta beste batzuekin (% 20,9).

Epigrafe hau amaitzeko, Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizearen (DESI)⁶⁶ emaitzak aztertuko ditugu. Bost dimentsiotan eraikitzen den indize konposatua da: banda zabaleko konektibitatea, herritarren gaitasun digitalak, herritarrek Internet zerbitzuak erabiltzea, enpresen digitalizazioa eta zerbitzu publiko digitalak. 2020rako datuek erakusten dute EAEk zazpigarren postua lortu duela 61,5 punturekin (ORKESTRAREN datuen arabera), eta ia ehuneko hamar puntuko abantaila du Europako batez bestekoarekin alderatuta (52,6 puntu) eta laukoa Estatuarekin alderatuta (57,5 puntu).

Finlandia, Suedia, Danimarka eta Herbehereak dira EBko herrialde aitzindariak esparru digitaleko errendimendu orokorrean; aldiz, Irlandak, Herbehereak, Maltak eta Espainiak azken bost urteetako aurrerapen garrantzitsuenak izan dituzte.

Azterketak agerian uzten du errealitate kezagarria: EBko ETE gehienek oraindik ez dute erabiltzen teknologia digitalik. Ahulezia hori, Europako biztanleen artean gaitasun digitalen eskasia bezala, areagotu egin da koronabirusaren krisian, teknologiak ezinbestekoak izan baitira, ez soilik osasun-arloan, baita lan-arloan ere.

8.2. ONDORIOAK

Maila globalean gertatutakoaren ildotik, EAEn COVID-19 gaixotasunari aurre egiteko neurriak pixkanaka kentzeak jarduera ekonomikoaren dinamismo handiagoa ekarri zuen, eta jarduera-sektore guztiak eta eskariaren osagaiak izan dira jarduera horren onuradun, baina esan bezala, oraindik ez da pandemiaren aurreko jarduera-mailara iritsi.

Hala ere, hornidura-kateen etenen eta lehengaien (bereziki energetikoen) prezioen igoeraren ondorioz, inflazioa handitu egin zen (harrigarria izan da zein intentsitate maila handiarekin) eta manufakturen berreskurapena geldiarazi zuen. Horregatik, gure kezka adierazten dugu inflazio-egoera berri honengatik, eragin negatiboak baititu ekoizpen-jardueraren errentagarritasunean eta herritarren erosteko ahalmenean, eta akordioak lortzeko eta neurriak hartzeko eskatzen dugu, ahalik eta ondoen gainditu ahal izateko sortutako egoera, inpaktu txikienekin, eta epe ertain eta luzera espiral inflazionista sortzea saihesteko.

⁶⁶ Bost dimentsiotan eraikitzen den indize konposatua da DESI: banda zabaleko konektibitatea, herritarren gaitasun digitalak, herritarrek Internet zerbitzuak erabiltzea, enpresen digitalizazioa eta zerbitzu publiko digitalak.

2020ko Memoriaren edizioan adierazi genuen bezala, pandemiaren eragin ekonomikoa askoz okerragoa izan zitekeen 2020an, politika ekonomikoaren erantzunik gabe. Eta 2021eko lehen erdian, diru-politikek eta zerga-politikek funtsezko euskarria izaten jarraitu zuten pandemiaren bolada berrien aurrean, baina txertaketa eta inflazioaren gorakada progresiboaren ondorioz, politika horiek normalizatu egin ziren. Hala ere, hedatzeko joerari eutsi diote.

EAEko sektore publikoari dagokionez, Kontseilu honek nabarmentzen du, lehenik eta behin, COVID-19ak eragindako krisi ekonomiko eta sozial larriaren ondoren, 2021ean finantza publikoak nabarmen berreskuratu direla, batez ere bilketaren bilakaera positiboari esker.

Era berean, inflazio handiari dagokionez pandemiak sortutako desorekak direla-eta, moneta-politikaren orientazioan aldaketa bat gertatu den uneraino, zerga- eta aurrekontu-politikak, funtsezko zerbitzu publikoak –batez ere osasuna eta gizarte-zerbitzuak–, hezkuntza eta ikerketa hobetzean zentratu behar du, eta laguntza-tresna gisa erabili behar du, kolektibo kalteberetan eta funtsezkoetan prezioak handitzearen presioa arintzeko, pixkanaka banatuz.

Gainera, inbertsio errealak funtsezkoak dira herrialdearen garapenerako, eta aurreko krisiaren ikur negatiboa berreskuratu dute. Edozelan ere, aurrekontu-ahalegin handia eta jarraitua egin beharko da etorkizunean inbertsio-maila onargarriei eusteko. Eta, ildo horretan, uste dugu "Next Generation" funts europarren aukera baliatu, funtsezko zerbitzuak eta sektore publikoaren nahiz pribatuaren inbertsioa indartzeko.

Era berean, ez da ahaztu behar aurreko guztia bateragarri egin behar dela finantza publikoen iraunkortasunarekin, testuinguru zail batean eta ziurgabetasunez jokatu beharko baitute.

Bestalde, enplegu publikoari dagokionez, Kontseilu honek ohartarazi zuen euskal administrazio publikoetan bitartekotasun- eta behin-behinekotasun-tasa handiak zuzendu behar zirela. Horregatik, administrazio guztiei eskatzen diegu onar ditzatela enplegu publikoa egonkortzeko prozesuak Europako Batzordeak ezarritako epeetan, egiturazko fenomeno bihurtutako irregulartasun bat zuzentzeko.

Energia berriztagarrien ekoizpena areagotu egin behar da Euskadin, ingurumenari dagokionez ez ezik, maila ekonomikoari eta mendekotasun energetikoari dagokionez ere abantailak dituelako. Horretarako, komenigarria litzateke abantaila horiek azaltzea eta herritarrak, enpresak eta administrazioak kontzientziatzeko lana egitea, lurraldean energia berriztagarrien arloko azpiegiturak eta proiektuak instalatzeko beharraz jabetu daitezen, baita horrek dakartzan kostuez ere, betiere ingurumenaren gaineko eraginaren nahitaezko kontrolari kalterik egin gabe.

Bizitako inguruabarren ondorioz, are garrantzitsuagoa da **zientzia eta berrikuntza funtsezkoak** izatea erronka sozial handiei aurre egiteko eta horiekin lotutako arazo konplexuei irtenbideak aurkitzeko, ezagutzaren mugan aurrera egiteko eta ekonomien lehiakortasuna bultzatzeko helburu klasikoetatik askoz harago joanda.

Ezagutza eta berrikuntza arma izango dira etorkizuneko shocken aurrean, baita gizarte-ongizatearen, oparotasun ekonomikoaren eta ingurumen-iraunkotasunaren arteko oreka lortzeko ere.

COVID-19aren egungo pandemiak agerian utzi du aktibo digitalek gure ekonomietarako duten garrantzia, baita sareek eta konektibitateak, datuek, adimen artifizialak eta superkonputazioak, bai eta oinarriko gaitasun digitalek eta aurreratuek ere, nola eusten dieten gure ekonomiei eta gizartei, aukera ematen baitute lanek jarraitzeko, birusaren hedapenaren jarraipena egiteko eta medikamentuen eta txertoen bilaketa bizkortzeko.

Digitalizazioak berebiziko garrantzia izango du susperraldi ekonomikoan; izan ere, Kontseilu Europarrak eta Batzordeak konpromisoa hartu dute susperraldiaren alde egiteko, klimaren aldetik neutroa eta erresilientea den eraldaketa digitalerako trantsizio bikoitzaren barruan. Testuinguru horretan, 5G eta gaitasun oso handiko (VHCN) sareen hedapena, gaitasun digitalak eta enpresen eta administrazio publikoaren digitalizazioa funtsezkoak dira susperraldi sendoa lortzeko.

Atseginez egiaztatzen dugu aztertzen ari garen eremuan gure erkidegoak konparaziozko abantailak dituela; izan ere, 2019ko edizioan eskualdeko *berrikuntza-adierazleen panelean* galdu zuen berrikuntza handiko eskualdearen kategoria berreskuratu du, eta eskualdeko bikaintasun-polo bihurtu da. Ezin dugu alde batera utzi gure enpresek, eta bereziki ETEek, jarduera berritzaileak oztokatzen dituzten hainbat faktore ikusten dituztela, batez ere, aldaketarako mesfidantza (beste lehentasun batzuk egotea, eskariari buruzko ziurgabetasuna) eta izaera ekonomikoa dutenak, bai eta I+G-n egindako inbertsioa emaitzetara eramatea zailtzen dutenak ere. Horregatik, bat gatoz ZTBP 2030en helburu operatiboetako bat euskal I+G+b emaitzetara bideratzea maximizatzearekin⁶⁷.

Ezin dugu ahaztu, halaber, gure enpresek hobetzeko aukera zabala dutela oraindik (zibersegurtasun-jarduerak, big-data, IoT, eta, neurri handiagoan, adimen artifizialean, robotikaren eta 3D inprimagailuen erabilera); eta Next Generation Europako funtsaren eskuragarritasunak aukera ematen duela ahalegin berritzaile disruptiboa handitzeko, berrikuntza sozialarekin koordinatuta; eta trantsizio teknologiko-demografiko eta demografiko hirukoitza bultzatzeko.

Hori dela eta, beharrezkoa da enpresa txiki eta ertainak sentsibilizatzea eta orientatzea datozen aldaketa eta trantsizioak saihestezinak izateaz. Aldaketen ondorioz, ezinbestekoa izango da horietara egokitzea, eta enpresek, tamaina edozein izanda ere, beren egunerokotasunean I+G eta berrikuntza txertatu beharko dituzte, etorkizuna ziurtatu nahi badute behintzat.

Ildo horretan, Europako Batzordeak bikaintasun-poloei buruz duen logikari jarraituz, interesgarria litzateke, halaber, aldaketaren eta egokitzapenaren kultura areagotzea, gizarte osoan eta operadore sozioproduktibo guztietan, besteak beste, EAEko bikaintasun-mikropolotzat hartuta⁶⁷.

⁶⁷ Europako Batzordeak eskualde-bikaintasuneko gune gisa deskribatu du Euskadi, eta berrikuntza handiko eskualde gisa kokatu du. Funtsezkoa da bultzada hori aprobetxatzea eta eragile sozioekonomikoetara hedatzea, batez ere, dimentsio txikia dutelako aldaketa eta egokitzapen formaleko testuinguruetatik kanpo daudenetara. Horretarako, erabilgarria izan daiteke fokua jartzea (Europako Batzordearen logika berari jarraituz) barne-dinamika oso berritzaileetako eta ingurune horiek indartzeko, mailakatu ahal izan daitezten. Ingurune horiek bikaintasun-mikropolo gisa defini daitezke (horietako batzuk gastronomiarekin eta sormenarekin lotuta daude, beste batzuk ukiezin-eduki handiko industria-prozesuekin...).

III. KAPITULUA

Enplegua eta lan harremanak EAEn



Kapitulu honetan enpleguaren hainbat alderdiren urteko bilakaeraren jarraipena emango da (okupazioa, langabezia, lan-merkatuko sarrera-irteerak, soldatak, lan-osasuna, politika aktiboak eta pasiboak), baita EAEko lan-harremanen jarraipena ere, intereseko beste aldagai batzuen artean. Zalantzarik gabe, COVID-19ak eremu horretan, beste askotan bezala, izan duen eragina hain handia izan da 2020an, ezen Memoria honek duela urte batzuetatik aztertzen dituen denbora-serieen haustura etengabea baita, eta sarritan azalpen argirik gabe, bai denbora ikuspegi nahikorik ez dagoelako, bai pandemiaren bilakaeraren dagoelako eta gure ekonomian eta lan-merkatuan dituen ondorioengatik.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen Behatokiak egindako 2021eko urriko **"COVID-19a eta lan mundua"** txostenak mezu hauek nabarmentzen ditu, pandemiak 2021ean izan duen bilakaerari eta munduko lan-merkatuan izan duen eraginari buruz:

1. Txertaketa prozesuan izandako aurrerapenak funtsezko faktorea izan dira lan-merkatua berreskuratzen laguntzeko. 2021eko urrian, munduan txertoa erabat jarrita zuten pertsonen proportzioa % 34,5koa izan zen, baina nabarmentzekoa da alde handia dagoela diru-sarrera handiko (% 59,8) eta diru-sarrera txikiko herrialdeen artean (% 1,6). Txertaketa-tasa handiagoek murrizketa txikiagoak eragin dituzte lantokian. Oro har, lantokiko murrizketek gero eta lotura handiagoa izan dute eremu eta sektore espezifikoekin.

2. Mundu osoan, pandemiaren ondorio kaltegarrien ondorengo lan-merkatuaren susperraldia gelditu egin da 2021ean, eta aurrerapen gutxi izan dira 2020ko laugarren hiruhilekotik. Eginiko zenbatespenen arabera, 2021ean mundu osoan lan egindako orduen kopurua 2019ko azken hiruhilekoan lortutakoa baino askoz txikiagoa da. Hauxe da aldea: -% 4,5 (lanaldi osoko 131 milioi enpleguren baliokidea) aurtengo lehen hiruhilekorako, -% 4,8 (lanaldi osoko 140 milioi lanpostu) bigarren hiruhilekorako eta -% 4,7 (lanaldi osoko 137 milioi enplegu) hirugarren hiruhilekorako. Hala ere, datu horiek herrialdeen arteko alde handiak dituzte atzean. Diru-sarrera altuak edo ertain-altuak dituzten herrialdeetan, kasu gehienetan 2021ean berreskuratu da lanorduen kopurua, baina diru-sarrera baxu edo ertainak dituzten herrialdeetan murrizten jarraitu du.


3. Pandemiak neurritz kanpo kaltetu zituela ekoizpen txikiagoko enpresak eta ordainsari okerrenak dituzten langileak kontuan hartuta, munduko lan-produktibitatea (lan-orduko ekoizpena) epe luzeko batez besteko balioaren bikoitza baino gehiago handitu zen 2020an. 2021ean, munduko lan-produktibitatea erritmo askoz txikiagoan hazi da, eta hazkunde negatiboa izan du diru-sarrera txikiak edo ertainak dituzten herrialdeetan. Ondorioz, gehitu egin da garapen bidean dauden ekonomien eta ekonomia aurreratuen arteko "produktibitate-arraila". 2020an, diru-sarrera handiko herrialdeetako langile bakoitzaren ordu-produkzioa, batez beste, diru-sarrera txikiko herrialde bateko langile bakoitzarena baino 17,5 aldiz handiagoa izan zen. Alde hori 18,0ra handitu da 2021ean, eta aldea handiena da 2005etik.

4. Etorkizunari dagokionez. Mundu mailako garapen ekonomikoaren gorakada gorabehera, lanorduen kopuruari dagokionez, susperraldi orokorra pandemiaren aurretik zeudenak baino askoz maila txikiagoetan gelditu da, eta alde handia dago herrialde aurreratuen eta garapen bidean dauden herrialdeen artean. Diru-sarrera txikiak edo ertainak dituzten herrialdeetan, zergen arloko mugek eta txertoa jartzeko prozesu ez-eraginkorrak zaildu egiten dute susperraldia, beste arrisku batzuek ere eragina baitute, bereziki zorpetzeak eta munduko hornidura-kateko murrizketek. Nazioarte mailako ekintza, finantzen eta teknikaren arloetako laguntza barne, funtsezkoa da gizakiarengan oinarritutako susperraldia errazteko.

Jarraian, EAEko enpleguaren eta lan-harremanen 2021eko bilakaerari buruzko zifra nagusiak emango dira. Lehenik eta behin, jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera aztertuko da, baita gure Erkidegoak Europa mailan aldagai horien inguruan duen egoera erlatiboa ere. Jarraian, lan-merkatuko sarreren eta irteeren balantzea eskainiko da (kontratazioak, aldi baterako kontratuen amaiera eta irazpenak), baita azken urtean EAEn izan diren laneko harremanen balantzea, soldaten zifrekin jarraituta, eta Estatu mailarekiko alderatzea ere.

Bigarren zatiaren ardatza enplegurako politika aktiboak dira: landunak, langabetuek lana eskuratzea lortzeko eta landunen enpleguari eusteko eta lanbidean promozionatu ahal izateko; politika pasiboak, berriz, langabetuen babes ekonomikora bideratuta, eta baztertuak izateko arriskuan daudelako edo ezintasunaren bat dutelako arreta berezia behar duten pertsonentzako bestelako politika guztiak. Kapituluaren amaieran, Euskadin erreferentziako urtean lan osasunak eman dituen kopuru nagusiak ageri dira.

III.0.1.GRAFIKOA. ENPLEGUAREN BILAKAERAREN ADIERAZLEAK EAE-N: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK.



Iturria: EUSTAT, EIN eta Gizarte Segurantzaren datuak erabiliz.

Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldiarekin murgildu zen EAE. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren 2013ra arte, guztizkoaren % 10. 2014an berriz hasi ziren tasa positiboak detektatzen, eta 2019ra arte mantendu zen joera hori. 2020an, 2019an sumatzen zen motelaldiaren ondorioz eta, batez ere, eragiten digun pandemiaren ondorioz, lan-merkatuak okupazio-galera handia izan du: aurten, BJArekin amaitzen zen –laugarren hiruhilekoa-, % 2,3ko jaitsierarekin, altako afiliazioaren oso antzeko datua (-% 2,2). BAIren Inkestak, bestalde, enpleguaren beherakada txikiagoa izan zela kalkulatu zuen, % 1,4koa.

2021ean, bigarren hiruhilekotik aurrera, lan-merkatuak okupazioaren susperraldi progresiboa izan du. Hala, urtearen amaieran BJAk laugarren hiruhilekoarekin amaitu du, % 1,5eko hazkundearekin. Afiliazioen kopuruak, aldiz, pixka bat handiagoak izan dira (+% 2,2), 4. hiruhilekoak abenduarekin alderatuta (abendutik abendura). Bestalde, Biztanleria Aktiboaren Inkestak % 4ko okupazio-irabazi handiagoa aurreikusten du, 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.


Era berean, kapitulu honen 2. atalean ikusiko den bezala, lan-kontratazioa, sei urtez bilakaera positiboa izan ondoren, behera egin zuen 2020an (-% 30,2), eta nabarmen berreskuratu zen 2021ean (+% 22,5). Bestalde, LANBIDEn erregistratutako langabeen kopurua % 11,1 jaitsi da 2021ean; 2020an, urte arteko +% 13,2 izan zen. Bilakaera horren ondorioz, 2021eko abenduan, ia 115.000 pertsona daude langabezian. Zifra hori BJAk metodologian izandako aldaketen ondoren zenbatetsitakora hurbiltzen da, eta pandemia hasi aurretik baino 700 inguru gehiago.

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

Atal honetan, gehienbat EUSTATen BJaren, LANBIDEn, EUROSTATen eta EEZPren datuak¹ erabili dira nazioarteko erkaketak egiteko eta Gizarte Segurantzakoak afiliarioi buruzko informaziorako. Era berean, iturri horietan garrantzitsutzat jotzen diren lan-merkatuaren adierazleei buruzko informaziorik ez badago, eta autonomia-erkidegoen arabera konparazioa egiten bada, EINen BJara jo da. Azkenik, ez dira kontuan hartzen EUSTATen Hileko Ekonomia Kontuetako (HEK) enpleguari buruzko datuak. Hori begiratzeko, jo beza irakurleak Memoria honetara: "II. Kapitulu. EAEko ekonomia".

1.1. JARDUERA

Lehendabizi, EUSTATen " Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren" (BJAI) datuen arabera, EAEko **biztanleria aktiboa 2021. urtearen amaieran 1.049.000 pertsonakoa zen**, eta horietatik, % 51,9, gizonak ziren (544.800) eta % 48,1, emakumeak (504.200). Bi hamarkada lehenago, 2000. urtean, sexuaren arabera banaketa 60/40 zen. Beraz, argi geratu da lan-merkatuan dagoen emakume kopurua handitu dela.



Gizonen biztanleria aktiboa nabarmen jaitsi zen 2008 eta 2012 bitartean, noiz-eta enplegurako aukerarik ezagatik lanerako adinean zeuden langabeen zati handi bat zuzenean joan zenean langabeziara. Emakumeek, ordea, 2011ra arte jarraitu zuten lan-merkatuan sartzen, eta aktibo kopuruak behera egin zuen 2012an eta 2016tik aurrera (ikus III.1.1 grafikoa). Bi bilakaera horien baturaren ondorioz, biztanleria aktiboa hazi egin zen Euskadin 2011ra arte. 2012tik 2017ra bitartean biztanleria aktiboa pixkanaka murriztu zen, zenbait intentsitaterekin. 2018an eta 2019an, aldiz, igoera txikiak izan ziren, eta biurteko horretan 14.000 aktibo irabazi ziren, kopuru absolututan.

2020an (berrikusitako datuak), biztanleria aktiboak 4.600 biztanle galdu zituen (-% 0,4), eta 2021ean eten egin zen beherakada hori, 100 pertsona aktibo apenas galdu baitziren urte hartan (% 0ko tasa). Sexuaren arabera, bilakaera desberdina da: emakumeak % 0,2 jaitsi ziren (+900, kopuru absolutuetan); gizonak, berriz, % 0,1 hazi ziren, edo, beste era batera esanda, -1.100². Horren ondorioz, emakumeek EAEko lan-merkatuan duten partaidetza 1 hamarretan handitu zen, pertsona aktiboen % 48tik % 48,1era, daborduko esan dugun moduan.

¹ EUSTATen BJaren 2015eko metodologiaren arabera, hiru datu lortzen dira hiruhileko bakoitzerako. Aribideko urteko datuak "behin-behinekoak" dira, eta aurreko urteko urtarillaren 1eko behin betiko biztanleria kontuan hartuz kalkulatu dira. Aurreko urteko datuak, urte horretako urtarillaren 1ean egindako aurreikuspenarekin "berrikusi" dira. Bestalde, aurreko urteetako datuak, "behin betikoak" dira, behin betiko biztanlerian oinarritzen direlako. Horiek guztiak aldatu egiten dira urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan aldatzen direnekin. Informazio gehiago izateko, [EUSTATen web gunera](#) jo daiteke.

² Sexuaren arabera aldaketan batura maiz ez dator bat saldo osoarekin, datuak milaka adierazita daudelako, eta BJAk datuak biribiltzen dituelako.

Halaber, demografiaren bilakaeraren eta jarduera-mailen ondorioz, azken urtean **pertsona ez-aktiboen** kopuruak gora egin du pixka bat (+% 0,1) 815.200 izateraino, hain zuzen ere 2020ko amaieran baino 700 gehiago +% 0,9 2019 eta 2020 bitartean). Horietatik % 42,9 gizonezkoak ziren eta % 57,1 emakumezkoak.

EAEko **jarduera-tasa** orokorra % 56,3 zen 2021. urtea bukatzean (2020ko ratio bera), eta emakumeak % 52 ziren (hori ere aldatu barik azken urtetan). Gizonezkoen


III.1.1. TAULA. JARDUERA-TASAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA ADIN TALDEEN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.									
		2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
GUZTIRA		57,5	57,7	56,8	56,6	56,9	56,6	56,3	56,3
SEXUA	GIZONAK	63,2	63,3	61,8	61,3	62,0	61,3	61,0	60,9
	EMAKUMEAK	52,3	52,4	52,1	52,0	52,2	52,3	52,0	52,0
ADINA	16 - 24	28,6	28,4	25,4	23,0	28,7	25,7	30,9	29,5
	25 - 44	91,6	90,4	89,3	89,7	90,4	90,7	89,3	88,2
	45 URTE ETA GEHIAGO	42,6	44,2	44,5	44,8	45,2	45,5	45,8	47,0

Iturria: EUSTAT. BJA. Datu-bankua.

bitzantleria, berriz, hamarren bat jaitsi da, % 60,9raino. EBn, 2021eko laugarren hiruhilekoaren batezbestekoa % 74,2koa da (% 79,2 gizonen kasuan; % 69,2, emakumeena), aurreko urtean baino puntu bat gehiago.

Jarduera-tasek bilakaera desberdina izan dute adin-taldearen arabera: aurreko urtearen aldean, 1,2 puntu igo da 45 urtetik gorakoaren artean (% 47ra arte), baina 1,1 puntu jaitsi da 25-44 urtekoaren artean (% 88,2) eta 1,4 puntu 25 urtetik beherakoaren artean (% 29,5eraino; ratio hori EBko batez bestekoa baino 10 puntu txikiagoa da, 2021eko laugarren hiruhilekoan % 39,5era iristen baita). Aurreko krisiaren hasierari dagokionez, gazteen jarduera-tasa ehuneko 2,1 puntutan murriztu da (2008an % 31,6 zen), eta 25-44 adin-taldean 6,5 puntu handitu da (% 81,7 2008an); 9,4 puntu, berriz, 44 urtetik gorakoetan (% 37,6 2008an).

Datuak sexuaren eta adinaren arabera gurutzatzen badira (III.1.2 grafikoa), ikus daiteke sexuaren araberako arrakala handitu egiten dela adinak gora egin ahala. Lehenik eta behin, gazteen artean, jarduera-tasa 4,5 puntu txikiagoa da emakumeen artean (% 27,2) gizonen artean baino (% 31,7). Tarteko adin-taldean (25-44 urte), bi sexuen arteko aldea handiagoa da: 5,9 puntu gehiago gizonen artean emakumeen artean baino (% 91,2 eta % 85,3, hurrenez hurren). Eta 45 urteko eta hortik gorako pertsonen kasuan, sexuaren arabera alde hori askoz ere handiagoa da: Gizonen jarduera-tasa % 52,3 da, eta emakumeena, berriz, % 42,3 (10 puntuko arrakala, baina 7 hamarren murriztu da azken urtean).




Azkenik, eginiko zenbatespenen arabera 2021eko 4. hiruhilekoan **902.300 familia inguru dauden EAEn**: horietatik 607.900ek pertsona aktiboren bat dute (% 67,4) eta % 32,6k ez dute pertsona aktiborik (294.400). Halaber, 527.000 familietan, pertsona horien guztien erdia baino gehiago lanean ari zen (% 59,3), eta pertsona guztiak lanean ari ziren familiak guztizkoaren % 4,2 ziren, 37.600 lagun.

1.2. OKUPAZIOA


1.2.1. Okupazioaren datuak

BJAren datuek erakusten dutenez, gure Erkidegoan 2021ean enpleguan izandako bilakaera **okupazio- edo enplegu-tasa**³ % 50,7an kokatu zen urte amaieran (% 55,1, gizonen kasuan, eta % 46,6, emakumeenean), aurreko urtean baino 7 hamarren gehiago.



Lurraldeka, tasarik handiena Arabakoa da (% 53, 6 hamarren handitu da azken urtean). Haren atzetik, Gipuzkoa dago, % 51,7rekin (+0,3 puntu), eta azkenik, Bizkaiak dauka ratorik murriztuena, % 49,5. 1,1 hamarren irabazi du 2020ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

Azken urtean, **2020ko abendutik 2021eko abendura bitartean** (IV. hiruhilekoa), enplegua % 1,5 hazi da Euskadin (+14.100 enplegu); aurreko urtean, ordea, % 2,3 jaitsi zen (berrikusitako datuak), eta emakume landunen kopurua 3.400 (hazkunde osoaren % 24,1) eta gizonena +10.800 (% 75,9) igo zen. Ondorioz, urtea 945.500 landunekin amaitzen da, 493.500 gizonekin eta 452.100 emakumerekin (% 52,2 eta % 47,8, hurrenez hurren).



³ Bestelakorik ez bada esaten, okupazio-tasak 16 urtetik gorakoentzat dira, goitik adin-mugarik zehaztu gabe.

Adinaren arabera, eta guztizkoa ez bezala (+% 1,5), 25 urtetik beherako enpleguak % 1,6 egin du behera azken urtean (-700 lanpostu). Hortaz, guztirakoan duten partaidetza % 4,7tik % 4,6ra igaro da. Era berean, 25-44 urteko pertsonen enpleguak jaitsi egin dira: -% 2,2 (8.600 lanpostu), okupazioaren % 41,2 izanik (1,6 puntu galdu dituzte enplegu osoaren aldean). 45 urtetik gorako okupazioa, aldiz, nabarmen hazi da, % 4,8 (+23.400 pertsona), eta enpleguaren % 54,2 izatera igaro da, 2020an baino 2 puntu gehiago.

Estatuaren testuinguruan, okupazioa % 4,3 hazi da batez beste (IV. hiruhilekoa, EInen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak), 2021aren amaieran erkidego guztiek berreskuratu dituzte 2019ko saldo positiboak, 2020ko enpleguaren beherakada handiaren ondoren. Aurreko urtean galera handienak izan zituzten erkidegoak izan ziren hazkundero buru (batez ere Kanariak, horien okupazioa % 13,4 hazi baitzen, 2020ko -% 12aren ondoren). Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, EAE batez bestekoa baino apur bat beherago dago, enplegua % 4 igo baita, 2020an % 1,4 jaitsi ondoren.

Jarduera-sektoreen araberako bilakaerari dagokionez, Euskadin azken urteko enpleguaren hazkundera batez ere zerbitzuetan gertatu da, 9.400 lanpostu irabazi baitituzte (+% 1,4), hau da, okupazio-irabazi osoaren % 66,7. Gainerako sektoreek bilakaera okerragoa izan dute, eraikuntzan izan ezik, 5.800 biztanle gehiago izan baitituzte, % 11,7 hazita. Industriak 3.700 lanpostu galdu zituen 2020an (-% 1,8), eta 1.100 gehiago galdu ditu 2021ean, -% 0,6ko tasarekin, gizonen enpleguaren datu negatiboaren (-% 1,5) eta emakumeen enpleguaren datu positiboaren (% +2,9) agregatu gisa, betiere 2021ean ere industriako enpleguaren % 76,7 maskulinoa dela kontuan hartuta. Azkenik, lehen sektoreak 8.000 efektibo eutsi die (0 hazkundera).

III.1.2. TAULA. OKUPAZIOAREN HAZKUNDEAREN ETA LANGABEZIA-TASEN BILAKAERA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.

	HAZK. % (OKUPAZIOA)			LANGABEZIA-TASA		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021
ANDALUZIA	1,5	-1,7	5,4	20,8	22,7	20,2
ARAGOI	2,5	-3,9	3,7	9,9	12,5	9,0
ASTURIAS	0,4	-1,9	3,1	13,1	13,5	10,0
BALEAR UHARTEAK	2,5	-8,1	2,5	9,9	17,3	14,9
KANARIAR UHARTEAK	2,9	-12,0	13,4	18,8	25,2	18,9
KANTABRIA	1,3	-3,0	2,1	11,2	11,8	11,5
GAZTELA ETA LEON	1,3	-2,7	1,2	11,2	11,6	10,3
GAZTELA-MANTXA	-0,7	-0,3	5,8	16,6	17,4	13,3
KATALUNIA	2,6	-4,0	4,7	10,5	13,9	10,2
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	2,1	-3,4	4,0	14,1	16,4	14,4
EXTREMADURA	-0,1	1,4	2,6	23,5	21,3	18,9
GALIZIA	0,7	-1,4	1,0	11,7	11,7	11,0
MADRIL	4,6	-3,4	3,5	10,0	13,5	10,1
MURTZIA	1,2	0,4	6,1	16,1	15,4	12,9
NAFARROA	1,0	-3,2	3,4	9,0	11,7	9,9
EAE	0,3	-1,4	4,0	9,1	10,0	8,4
ERRIOXA	1,3	0,3	0,1	9,9	10,4	10,5
CEUTA	1,1	-3,2	-1,1	27,6	26,7	26,9
MELILLA	-9,4	16,4	2,2	26,8	23,8	20,2
ESTATUA	2,1	-3,1	4,3	13,8	16,1	13,3

Iturria: EIN: EPA.

III.1.3. TAULA. OKUPAZIOAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.

		BATEZ BESTE (MILAKOTAN)				IGOERA (MILAKOTAN)		URTEK URTERAKO ALDAKETA TASA (%)	
		2018	2019	2020	2021	19-20	20-21	19/20	20/21
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	7,8	6,9	7,2	6,7	0,3	-0,5	4,3	-6,9
	INDUSTRIA	161,8	158,8	154,1	151,8	-4,7	-2,3	-3,0	-1,5
	ERAIKUNTZA	45,9	43,8	42,4	49,3	-1,4	6,9	-3,2	16,3
	ZERBITZUAK	276,7	289,9	278,9	285,6	-11,0	6,7	-3,8	2,4
	GUZTIRA	492,2	499,5	482,7	493,5	-16,8	10,8	-3,4	2,2
EMAKUMEAK	LEHEN SEKTOREA	2,6	1,6	0,9	1,3	-0,7	0,4	-43,8	44,4
	INDUSTRIA	42,9	43,8	44,7	46,0	0,9	1,3	2,1	2,9
	ERAIKUNTZA	5,1	5,6	7,0	5,9	1,4	-1,1	25,0	-15,7
	ZERBITZUAK	396,2	402,5	396,1	398,9	-6,4	2,8	-1,6	0,7
	GUZTIRA	446,8	453,5	448,7	452,1	-4,8	3,4	-1,1	0,8
GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	10,4	8,5	8,0	8,0	-0,5	0,0	-5,9	0,0
	INDUSTRIA	204,7	202,6	198,9	197,8	-3,7	-1,1	-1,8	-0,6
	ERAIKUNTZA	51,0	49,5	49,4	55,2	-0,1	5,8	-0,2	11,7
	ZERBITZUAK	673,0	692,4	675,1	684,5	-17,3	9,4	-2,5	1,4
	GUZTIRA	939,1	953,0	931,4	945,5	-21,6	14,1	-2,3	1,5

Iturria: EUSTAT. "BJA". Datu bankua.

Lanaldi motari dagokionez, EAEko lanaldi partzialeko enpleguaren ratioa % 16,7 zen 2021eko 4. hiruhilekoan aurreko urtearen aldean. Estatukoa, berriz, % 13,6koa (% 13,4 EUROSTATen arabera). Bai gure erkidegoan, bai Estatuan, alde handia dago sexuaren arabera: EAEn, lanaldi partzialeko enplegu-tasa laurden bat baino gehiago da emakumeen artean (% 26,2); gizonen artean, berriz, % 7,6 da. Espainian (batez beste), emakumeen ratioa % 22,1 da eta gizonena, berriz, % 6,2. Lanaldi partzialeko enpleguaren ratioa azken urtean soilik handitu da EAEn gizonen artean (+0,9 puntu batez beste, eta +1,4 puntu gizonetan; emakumeen tasa ez da aldatzen). Hortaz, sexuaren araberako aldea murriztu egin da, 2020an 20 puntukoa izatetik 2021ean 18,6koa izatera.

EBn, lanaldi partzialeko enplegu-tasa, 2021ean (IV. hiruhilekoa), % 17,8 da (% 21 eurogunean), halakorik ia existitzen ez den herrialdeekin (% 1,6 Bulgarian, % 3,1 eta % 3,2 Eslovakian, eta % 3,2 Errumanian), eta % 25 gainditzen duten beste batzuekin: Austria (% 29,2) eta Alemania (% 28,7) eta, bereziki, Herbehereak (% 28,2). Gainera, EBko herrialde guztietan, EAEn bezala, emakumeen lanaldi partziala gizonezkoena baino askoz handiagoa da (batez beste % 28,9, gizonezkoen % 8,1aren aldean), eta % 40 gainditzen da herrialdeetako hirutan: Alemania, Austria eta Herbehereak.

Behin-behinekotasun maila dagokionez, 2021eko 4. hiruhilekoan aldi baterako lan-kontratua zuten soldatapeko pertsonen portzentajea Euskadin % 25,3 zen, aurreko urtean baino 2,7 puntu gehiago. Estatuko batez bestekoa, berriz, % 25,4 (% 25,5 EUROSTATen arabera) zen, 8 hamarreneko igoerarekin.

Sexuaren arabera, % 28,6ko tasa da Euskadin emakumeentzat, gizonezkoen tasa baino 6,7 puntu handiagoa. Arrakala hori hamarren bat murriztu da azken urtean (III.1.5. taula).

Behin-behinekotasun maila handi horiek, Espainian ez ezik, Herbehereetan ere gertatzen dira (% 27,5), eta horien atzetik daude Italia, Portugal eta Frantzia (% 16 inguru hiruretan). Europar Batasun osoan, batez bestekoa % 14 da (gizonen % 13,3 eta emakumeen % 14,8), eta euro-gunean % 15,5koa (gizonen % 14,7 eta emakumeen % 16,3, hurrenez hurren). EUROSTATen datuak 2021eko laugarren hiruhilekorako dira.

III.1.4. TAULA. LANALDI PARTZIALEKO OKUPAZIOAREN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA IV HIRUHILEKOAK.							
		2018	2019	2020	2021	ALD. 19-20*	ALD. 20-21*
EAE	GUZTIRA	16,4	17,5	15,8	16,7	-1,7	0,9
	GIZONAK	7,1	7,3	6,2	7,6	-1,1	1,4
	EMAKUMEAK	26,5	28,5	26,2	26,2	-2,3	0,0
ESPAINIA	GUZTIRA	14,8	14,7	14,5	13,6	-0,2	-0,9
	GIZONAK	6,9	7,0	6,9	6,2	-0,1	-0,7
	EMAKUMEAK	24,2	23,8	23,5	22,1	-0,3	-1,4
27KO EB	GUZTIRA	18,2	18,3	18,1	17,8	-0,2	-0,3
	GIZONAK	8,3	8,4	8,4	8,1	0,0	-0,3
	EMAKUMEAK	29,9	29,9	29,4	28,9	-0,5	-0,5

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina (22/04/22ko datuak).
*Aldaketa ehuneko puntuetan.

III.1.5. TAULA. ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN SOLDATAPEKO BIZTANLEEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.							
		2018	2019	2020	2021	ALD. 19-20*	ALD. 20-21*
EAE	GUZTIRA	26,5	24,0	22,6	25,3	-1,4	2,7
	GIZONAK	24,0	21,3	19,2	21,9	-2,1	2,7
	EMAKUMEAK	29,2	26,7	26,0	28,6	-0,7	2,6
ESPAINIA	GUZTIRA	26,9	26,1	24,6	25,4	-1,5	0,8
	GIZONAK	26,2	24,9	22,8	23,1	-2,1	0,3
	EMAKUMEAK	27,6	27,4	26,6	27,8	-0,8	1,2
27KO EB	GUZTIRA	15,4	14,8	13,6	14,0	-1,2	0,4
	GIZONAK	14,8	14,3	12,8	13,3	-1,5	0,5
	EMAKUMEAK	16,0	15,4	14,4	14,8	-1,0	0,4

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina (22/04/22ko datuak).
*Aldaketa ehuneko puntuetan.

III.1.6. TAULA. SEKTORE PUBLIKOAN ETA PRIBATUAN ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN SOLDATAPEKO BIZTANLEEN EHUNEKOAAREN BILAKAERA. EAE ETA ESTATUAREN ARTEKO ALDEA IV. HIRUHILEKOAK.						
	GUZTIRA		SEKTORE PRIBATUA		SEKTORE PUBLIKOA	
	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA
2016	23,4	26,5	21,8	27,4	31,5	22,8
2017	26,1	26,7	24,2	27,3	34,6	24,1
2018	26,5	26,9	24,3	27,0	35,6	26,3
2019	24,0	26,1	20,5	25,7	39,1	27,8
2020	22,6	24,6	18,4	23,2	40,2	29,9
2021	25,3	25,4	23,2	23,9	44,6	31,0
19- 20 ALD.*	-1,4	-1,5	-2,1	-2,5	1,1	2,1
ALD. 20-21*	2,7	0,8	4,8	0,7	4,4	1,1

Iturria: EIN. EPA.
*Aldaketa ehuneko puntuetan.

Sektore pribatuko eta sektore publikoko soldatapekoen behin-behinekotasun tasak alderatuta ikusten denez, alde nabarmena dago Estatuko kopuruaren eta EAEkoaren artean. EAEn, nabarmen handiagoa da behin-behinekotasun tasa sektore publikoan sektore pribatuan baino, eta alde horri eusten zaio, zenbait gorabeherarekin, azken hamarkadan baino denbora luzeagoan.

2021eko laugarren hiruhilekoan, sektore publikoko behin-behinekotasun tasa EAEn % 44,6 izan zen sektore pribatuaren % 23,2aren aldean. Horrenbestez, 21,4ko puntu daude sektore publikoaren alde. Estatuko batez bestekoan, aldiz, % 31ko eta % 23,9ko ratioak ziren hurrenez hurren, eta, beraz, 7,1 puntu positiboko diferentzia dago.

III.1.7. TAULA. ENPLEGU ADIERAZLEAK EB-N. IV HIRUHILEKOAK.						
	L. PARTZIALEKO ENPLEGUAREN			ALDI BATERAKO ENPLEGUA		
	%			%		
	2020	2021	20-21*	2020	2021	20-21*
27KO EB	18,1	17,8	-0,3	13,5	14,0	0,5
EUROGUNEAK	21,3	21,0	-0,3	14,4	15,5	1,1
BELGIKA	24,1	24,2	0,1	10,0	10,3	0,3
BULGARIA	1,6	1,6	0,0	3,2	3,7	0,5
TXEKIAR E.	5,5	5,9	0,4	7,2	5,8	-1,4
DANIMARKA	23,1	24,3	1,2	10,5	11,6	1,1
ALEMANIA	:	28,2	:	:	11,3	:
ESTONIA	12,8	12,4	-0,4	3,0	:	:
IRLANDA	17,8	20,8	3,0	9,1	8,7	-0,4
GREZIA	7,7	9,0	1,3	9,6	9,2	-0,4
ESPAINIA	14,3	13,4	-0,9	24,7	25,5	0,8
FRANTZIA	16,8	17,0	0,2	15,3	15,7	0,4
KROAZIA	4,8	4,6	-0,2	15,5	12,5	-3,0
ITALIA	18,1	18,5	0,4	15,5	17,2	1,7
TXIPRE	10,3	10,1	-0,2	13,1	12,4	-0,7
LETONIA	9,2	6,9	-2,3	3,0	2,8	-0,2
LITUANIA	6,1	5,9	-0,2	1,1	1,7	0,6
LUXENBURGO	17,6	17,6	0,0	8,0	7,7	-0,3
HUNGARIA	4,4	4,5	0,1	5,6	5,5	-0,1
MALTA	10,9	10,1	-0,8	9,3	8,1	-1,2
HERBEHEREAK	51,2	42,7	-8,5	17,9	27,5	9,6
AUSTRIA	27,5	29,2	1,7	8,1	8,7	0,6
POLONIA	5,6	4,9	-0,7	17,6	14,4	-3,2
PORTUGAL	7,3	7,1	-0,2	17,6	16,2	-1,4
ERRUMANIA	5,4	3,2	-2,2	1,1	2,0	0,9
ESLOVENIA	8,2	9,6	1,4	9,7	12,5	2,8
ESLOVAKIA	4,4	3,1	-1,3	5,8	4,5	-1,3
FINLANDIA	15,7	17,6	1,9	13,7	15,2	1,5
SUEDIA	22,4	20,4	-2,0	14,5	13,5	-1,0
EAE	15,8	16,7	0,9	22,6	25,3	2,7

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina (22/04/26ko datuak).
*Aldaketa ehuneko puntuetan.


1.2.2. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2019aren amaieran, EAEk 980.592 afiliatu zituen (abenduko batez besteko datua). 2020an sortutako pandemiaren ondorioz, afiliazioa % 2,2 jaitsi zen, eta urte hartako abenduan 959.132 pertsona zeuden. Hala, 21.460 afiliatu galdu ziren altan, sei urtez jarraian bilakaera positiboa izan ondoren.

Urtebete geroago, **2021eko abenduan, 980.022 pertsona afiliatu ziren alta emanda Euskadin**; horietatik % 48,1 emakumeak ziren, eta % 51,9 gizonak (aurreko urteko antzeko ratioak). Zifra hori % 2,2 igo da aurreko urteko hil beraren aldean (+% 4,1, batez beste, Estatuan), eta altan afiliatutako 20.890 pertsona irabazi ditu, 2019ko abenduko zifrak ia berreskuratuta, pandemiaren aurrekoak, III.1.5 grafikoan ageri denez. Gainera, 2021. urtearen amaieran, 2008ko uztailleko maximo historikotik 2.913 pertsona baino ez zeuden afiliatuta Euskadin, eta urte horretan 982.935 pertsona zeuden afiliatuta.

Estatuan, bestalde, 2021eko abenduan, 19,84 milioi afiliazio daude alta emanda, pandemia hasi aurretik baino milioi erdi gehiago.

III.1.5. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIAZIOA EAE-N SEXUAREN ARABERA. ABENDUAN.



Iturria. INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA.

Lurraldeka, Arabak izan du bilakaerarik onena (+% 2,8), 4.342 afiliatu irabazi baititu alta emanda; Bizkaiak eta Gipuzkoak, berriz, gora egin dute, baina batez bestekoa baino gutxiago (% 2,2): 7.561 afiliazio (+% 1,6) eta 5.616 afiliazio (+% 1,7) irabazi dituzte, hurrenez hurren, 2020ko abenduarekin alderatuta. Azken urte honetan, EAE da afiliatuen kopuruaren hazkunde erlatibo txikiena izan duen autonomia-erkidegoa (Ceuta eta Melilla izan ezik, guztiak hazi dira). Hazkunderik handiena Kanarietan izan da (+% 6,4), gero Balearretan eta Madrilgo Erkidegoan (+% 5,5 eta +% 5, hurrenez hurren).

III.1.8. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZATZAILEAK*, LURRALDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA⁴.
ABENDUKO BATEZ BESTEKO DATUAK.

		ABENDUKO BATEZ BESTEKO DATUAK					19- 20KO ALDAK.		20-21EKO ALDAK.	
		2017	2018	2019	2020	2021	Abs.	%	Abs.	%
ARABA	GIZONAK	85.743	86.418	87.466	84.524	86.261	-2.942	-3,4	1.737	2,1
	EMAKUMEAK	70.568	72.258	74.028	71.762	74.367	-2.266	-3,1	2.605	3,6
	GUZTIRA	156.311	158.676	161.494	156.286	160.628	-5.208	-3,2	4.342	2,8
GIPUZKOA	GIZONAK	167.374	170.784	172.561	168.064	170.714	-4.497	-2,6	2.650	1,6
	EMAKUMEAK	147.435	150.732	155.155	153.228	156.195	-1.927	-1,2	2.967	1,9
	GUZTIRA	314.809	321.516	327.716	321.293	326.909	-6.423	-2,0	5.616	1,7
BIZKAIKA	GIZONAK	245.332	249.422	251.749	246.458	248.334	-5.291	-2,1	1.876	0,8
	EMAKUMEAK	227.535	232.490	239.632	235.094	240.780	-4.538	-1,9	5.686	2,4
	GUZTIRA	472.867	481.912	491.382	481.553	489.114	-9.829	-2,0	7.561	1,6
EAE, GUZTIRA	GIZONAK	498.442	506.624	511.776	499.047	508.322	-12.729	-2,5	9.275	1,9
	EMAKUMEAK	445.538	455.480	468.815	460.085	471.700	-8.730	-1,9	11.615	2,5
	GUZTIRA	943.987	962.104	980.592	959.132	980.022	-21.460	-2,2	20.890	2,2

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.

Sexuaren arabera, emakumeen afiliazioa askoz ere hobea izan da, % 2,5 handitu baita; gizonena, berriz, % 1,9. Bestela esanda, urtean 9.275 gizon afiliatu gehiago daude alta emanda Gizarte Segurantzaren (igoera osoaren % 44,4) eta 11.615 emakume afiliatu gehiago (% 55,6).

Araubideen arabera, 10 afiliatuetatik, 8 (% 82,3) altan zeuden 2021eko abenduan, Araubide Orokorrean. Horrez gain, guztizko datuek baino bilakaera hobea izan du, azken urtean % 2,7 handitu baita, batezbestekoaren +% 2,2aren aldean. Bigarrenik, afiliazioaren % 17,3 langile autonomoek dagokie, eta 2021ean kopuru horrek bere horretan jarraitzen du, 2020an % 0,8ko murrizketa izan ondoren. Azkenik, itsasoko afiliazioaren araubideak kopuru osoaren % 0,3 barne hartzen du (-% 4,1, aurreko urtearen aldean).

⁴ Guztizkoa, batzuetan, ez dator bat gizon eta emakumeen baturarekin, zenbait erregistrotan ez delako jasotzen afiliatuaren sexua.

III.1.9. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA EAE-N, ARAUBIDE ETA LURRALDEEN ARABERA.
ABENDUKO BILAKAERA 2019-2021.

		2019	2020	2021				Ald. % (19/20)	Ald. % (20/21)
				ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE		
ARAUBIDE OROKORRA	OROKORRA	775.296	756.010	136.746	251.083	389.025	776.853	-2,5	2,8
	S.E. NEKAZARITZAKO A.B.	2.149	2.118	678	541	890	2.109	-1,4	-0,4
	S.E. ETXEKO A.B.	28.640	27.872	2.888	9.628	15.492	28.008	-2,7	0,5
	GUZTIRA	806.085	785.999	140.312	261.252	405.407	806.971	-2,5	2,7
AUTONOMOAK		170.967	169.618	20.316	65.657	83.707	169.680	-0,8	0,0
ITSASOA		3.541	3.515	0	677	2.694	3.371	-0,7	-4,1
GIZARTE S. SISTEMA GUZTIRA		980.592	959.132	160.628	327.586	491.808	980.022	-2,2	2,2

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantzeta Migrazio Ministerioa. GSDN. Guk geuk egina.

Eta, **arabide orokorreko kontratu motaren arabera** (nekazaritzako eta etxeke kontratu bereziak alde batera utzita), guztiek bilakaera positiboa izan dute, eta afiliazioaren gorakadarik handiena aldizkako langile finkoen artean gertatu da (+% 12), guztizkoaren % 1,9 baino ez badira ere. Bigarrenik, afiliazio mugagabea ere batez bestekoaren ginetik hazi da (+% 3,3), eta, bereziki, lanaldi partzialeko afiliazio mugagabea (+% 5,6; lanaldi osoko afiliazio mugagabea, berriz, +% 2,8).

Aldi baterako kontratudun altako afiliazioak, bestalde, guztizkoak baino gutxiago egin du gora (% 1,9), eta lanaldi osoko aldi baterakoak (+% 0,6) eta lanaldi partzialekoak (+% 4,2) gora egin dute.

Jarduera-sektore handien arabera, lehen sektoreak % 3,1 egin zuen behera, eta eutsi egin zion alta emanda dituen afiliatuen guztizko kopuruarekiko pisuari (% 1,2). Bestalde, industria, % 0,9 hazi da, +% 2,2ko batez bestekoaren ginetik, eta afiliazioaren gainean duen pisua % 18,2raino murriztu da (-3 hamarren). Eraikuntza

batez bestekoaren azpitik jaitzi da, % 0,9, 2019ko enplegua berreskuratuta, eta afiliazioaren % 5,8 dauka (hamarren bat gutxiago). Azkenik, zerbitzuen sektoreak batezbestekoa baino portaera hobea izan du, % 2,7 igo baita. Bestalde, alta egoeran dagoen afiliazioa % 74,8raino handitu da (+4 hamarren).

Produktzio-adarren arabera⁵, ia afiliazio guztiek gora egin dute 2020ko abenduarekin alderatuta, bi salbuespenekin: finantza-jarduerak (-% 2,4) eta lehen sektorea (-% 3,1). Honako hauek nabarmentzen dira: ostalaritza (+4.643 afiliazio alta, % 7,6ko hazkundea), hezkuntza (+3.709 afiliazio, +% 4,9), arte, jolas eta entretenimendu jarduerak (+2.220, hau da, +% 14,2), jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+2.136, % 3,7ko igoera orokorra), eta jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrietako jarduerak (+1.625, % 2,4ko hazkundearekin), horiek guztiak % 2,2ko hazkunde orokorraren ginetik.

III.1.10. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA, KONTRATU MOTAREN ARABERA
(ARAUBIDE OROKORRA) EAE-N. Batez besteko datuak, 2019-2021 abenduko hilabeteak.

	ABE. 2019	ABE. 2020	ABE. 2021	Ald. % (19/20)	Ald. % (20/21)
MUGAGABEA, LANALDI OSOA	385.969	388.385	399.452	0,6	2,8
MUGAGABEA, LANALDI PARTZIALA	73.789	73.216	77.308	-0,8	5,6
MUGAGABEAK, GUZTIRA	459.758	461.601	476.760	0,4	3,3
ALDIZKAKO LANGILE FINKOAK	13.446	12.890	14.432	-4,1	12,0
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK, LANALDI OSOA	138.297	132.049	132.841	-4,5	0,6
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK, LANALDI PARTZIALA	86.597	74.726	77.875	-13,7	4,2
BEHIN-BEHINEKOAK, GUZTIRA	224.894	206.775	210.716	-8,1	1,9
BESTERIK*	77.197	74.744	74.951	-3,2	0,3
GUZTIRA	775.296	756.010	776.859	-2,5	2,8

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantzeta Migrazio Ministerioa. GSDN. Guk geuk egina.

*Kontraturik gabeko afiliatuak, funtzionarioak, profesionalak ez diren zaintzaileak, prestakuntza-programak eta enpresako lanekoak ez diren praktikak, eta akatsengatik edo omisioagatik fitxategian kontratu-motarik ez dutenak.

⁵ Hiruhilekoetako Ekonomia Kontuek informazio osagarria ematen dute ekoizpenaren eta enpleguaren bilakaerari buruz, ekoizpen-adarren arabera. Ikusi Memoria honetako kapitulu hau: "II. EAEko ekonomia"

III. 1.11. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA, PRODUKZIO ADARREN ARABERA. Abenduan neurtutako datuak.

	2019	2020	2021	ALD. %. 19/20	ALD. %. 20/21	ALD. ABS. 20-21
LEHEN SEKTOREA, GUZTIRA	11.781	11.722	11.354	-0,5	-3,1	-368
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, BASOGINTZA, ARRANTZA*	9.632	9.604	9.245	-0,3	-3,7	-359
NEKAZARITZAKO SISTEMA BEREZIA	2.149	2.118	2.109	-1,4	-0,4	-9
INDUSTRIA GUZTIRA	183.437	176.969	178.571	-3,5	0,9	1.602
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	566	552	553	-2,5	0,2	1
MANUFATURA-INDUSTRIA	175.063	168.494	169.893	-3,8	0,8	1.399
ENERGIA ELEKTRIKOAREN, GASAREN, LURRUNAREN HORNIKUNTZA	1.502	1.577	1.589	5,0	0,8	12
URAREN HORNIKUNTZA, HONDAKINEN KUDEAKETA	6.306	6.346	6.536	0,6	3,0	190
ERAIKUNTZA	57.092	56.624	57.154	-0,8	0,9	530
ZERBITZUAK, GUZTIRA	728.282	713.817	732.943	-2,0	2,7	19.126
MERKATARITZA ETA KONPONKETAK	138.906	136.136	136.897	-2,0	0,6	761
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	43.145	42.621	43.175	-1,2	1,3	554
OSTALARITZA	68.088	61.007	65.650	-10,4	7,6	4.643
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	23.275	23.571	24.500	1,3	3,9	929
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	17.795	17.352	16.941	-2,5	-2,4	-411
HIGIEZINEN ALORREKO JARDUERAK	4.157	4.132	4.194	-0,6	1,5	62
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	57.301	57.009	59.145	-0,5	3,7	2.136
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	66.735	66.784	68.409	0,1	2,4	1.625
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK	49.243	48.530	49.517	-1,4	2,0	987
HEZKUNTZA	75.999	75.349	79.058	-0,9	4,9	3.709
OSASUN-JARDUERAK ETA GIZARTE-ZERBITZUETAKO JARDUERAK	107.646	110.636	111.418	2,8	0,7	782
JARDUERA ARTISTIKOAK, JOLASERAKO ETA ENTRETENIMENDURAKO JARDUERAK	17.517	15.626	17.846	-10,8	14,2	2.220
BESTELAKO ZERBITZUAK	28.709	26.131	27.128	-9,0	3,8	997
LANGILEEN ENPLEGATZAILE GISAKO ETXEAK	1.069	1.004	979	-6,1	-2,5	-25
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK ETA ORGANISMOAK	57	57	78	0,0	36,8	21
ETXEKO LANGILEAK	28.640	27.872	28.008	-2,7	0,5	136
GUZTIRA	980.592	959.132	980.022	-2,2	2,2	20.890

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa. GSDN. Guk geuk egina.

* Itsasoko araubide berezia barne Esp. Mar.

Azkenik,
Euskadiko
kotizatzaile
atzeritarrak

Euskadiko afiliazio guztiaren % 7,6 ziren 2021eko abenduan (aurreko urtean baino 4 hamarren gehiago) % 8,8 egin zuen gora azken urtean, aurreko urtekoaren oso gainetik (% 2,2).

III.1.12. TAULA GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZATZAILE ATZERRITARRAK*, JATORRIAREN ETA SEXUAREN ARABERA.									
ABENDUKO BATEZBESTEKOAK.									
		ABENDUKO KOTIZATZAILEAK				ALDAKETA 19/20		ALDAKETA 20/21	
		2018	2019	2020	2021	ABS.	%	ABS.	%
EUROPAR BATASUNA	GIZONAK	12.388	13.120	12.241	12.391	-879	-6,7	150	1,2
	EMAKUM EAK	7.908	8.272	7.503	8.021	-769	-9,3	518	6,9
	GUZTIRA	20.296	21.391	19.744	20.412	-1.647	-7,7	668	3,4
BESTELAKOAK	GIZONAK	22.328	24.990	25.693	28.471	703	2,8	2.778	10,8
	EMAKUM EAK	20.587	22.989	23.218	25.808	229	1,0	2.590	11,2
	GUZTIRA	42.915	47.979	48.911	54.279	932	1,9	5.368	11,0
GUZTIRA	GIZONAK	34.716	38.110	37.934	40.862	-176	-0,5	2.928	7,7
	EMAKUM EAK	28.495	31.260	30.721	33.829	-539	-1,7	3.108	10,1
	GUZTIRA	63.210	69.371	68.655	74.691	-716	-1,0	6.036	8,8

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.

Bilakaera positiboa da bi sexuetan: gizonen artean % 7,7 hazi da, eta emakumeen artean % 10,1. Gainera, hobekuntza are handiagoa da EBtik kanpotik etorritakoen artean, afiliazio horiek % 11 egin baitute gora, eta EBko beste herrialde batzuetatik etorritakoen artean, berriz, % 3,4.

1.3. LANGABEZIA

1.3.1. Langabeziaren datuak

EAEn 2021. urtean lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitza gisa, BJaren **langabezia-tasa orokorra** % 9,9koa⁶ izan da urtearen amaieran (4. hiruhilekoan), aurreko urtean baino 1,3 puntu handiagoa. Beraz, Europar Batasunaren batez bestekoa gainditu da (EBn % 6,5koa izan da eta Eurogunean % 7,2koa).


III.1.13. TAULA. LANGABEAK EAE-N. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA. MILAKOTAN (IV. HIRUHILEKOAK)													
	PERTSONA KOPURUA (MILAKOTAN)				ALDEA (MILAKOTAN)			ALDAKUNTZAREN %			LANGABEZIA-TASA		
	2018	2019	2020	2021	18-19	19-20	20-21	18/19	19/20	20/21	2019	2020	2021
GUZTIRA	110,0	100,8	117,7	103,5	-9,2	16,9	-14,2	-8,4	16,8	-12,1	9,6	11,2	9,9
GIZONAK	56,7	48,9	63,2	51,4	-7,8	14,3	-11,8	-13,8	29,2	-18,7	8,9	11,6	9,4
EMAKUMEAK	53,3	51,9	54,5	52,1	-1,4	2,6	-2,4	-2,6	5,0	-4,4	10,3	10,8	10,3
ADINA: 16-24	9,4	10,1	13,4	11,4	0,7	3,3	-2,0	7,4	32,7	-14,9	22,2	23,3	20,9
ADINA: 25-44	57,0	51,7	60,0	50,0	-5,3	8,3	-10,0	-9,3	16,1	-16,7	10,6	13,1	11,4
ADINA: +45	43,5	39,0	44,4	42,0	-4,5	5,4	-2,4	-10,3	13,8	-5,4	7,5	8,3	7,6

Iturria: EUSTAT, BJA. Datu bankua.

Sexuaren arabera, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino handiagoa izan da (% 10,3 eta % 9,4 hurrenez hurren). Bestalde, adin-taldeen arabera, 25 urtetik beherako gazteengan izan du eraginik handiena (% 20,9), eta 45 urteko eta hortik gorakoengan txikiena (% 7,6). 2020ko amaierari dagokionez (berrikusitako datuak), langabeziaren eragina murriztu egin da bi sexueta (neurri handiagoan gizonen kasuan, -2,2 puntu, emakumeen kasuan baino, puntu erdi) eta adin-talde guztietan. Hala, gazteen langabezia-tasa 2,4 puntu jaitsi da eta, esan bezala, % 20,9an kokatu da; bitarteko taldean, berriz, langabezia 1,7 puntu jaitsi da, e% 11,4aino, eta 45 urtetik gorakoen artean, ratioa 7 hamarretan jaitsi da, % 7,6 hori izan arte).

Europar Batasunean, oso zabala da langabeziaren balio-sorta. Kopuru handietatik, adibidez, Grezian (% 16,4) eta Espainian (% 13,4), % 3-4 inguruko ratio txikiak, esaterako Txekiar Errepublikan Polonia eta Maltan. Zipre, Finlandiak eta Eslovakiak EBko batez bestekoaren inguruko langabezia-tasak dituzte (% 6,5 laugarren hiruhilekoan). AEBk % 3,9ko langabezia-tasarekin bukatu zen 2021. urtea, eta Japoniak, berriz, % 2,8rekin, erreferentziako beste herrialde batzuk aipatzearen.

III.1.6. GRAFIKOA. LANGABEZIA-TASA EAE-N, ADIN-TALDEEN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.



⁶ Ikus kapitulu honetako 1. orri-oina.

Estatuaren testuinguruan, okupazioa % 13,4 hazi da batez beste (IV. hiruhilekoa, EInen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak), 2021aren amaieran erkidego guztiek berreskuratu dituzte 2019ko, 2020ko enpleguaren beherakada handiaren ondoren. Iturri horrekin, EAEk % 8,4ko langabezia-tasa du (-1,6 puntu 2020ko IV. hiruhilekoarekin alderatuta), Estatuko txikiena, eta horren atzetik Aragoi eta Nafarroa datoz, hurrenez hurren, % 9ko eta % 9,9ko langabezia-tasa hurrenez hurren (ikus kapitulu honetako III.1.2 taula).

III.1.14. TAULA. EB-KO LANGABEZIA: ADIERAZLE NAGUSIAK. IV HIRUHILEKOAK.															
	LANGABEZIA TASA OROKORRA			GIZONAK			EMAKUMEAK			LANGABEZIA TASA GAZTEAK (< 25 URTE)			IRAUPEN LUZEKO % LANGABEZIA % (> 1 URTE)		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021
27KO EB	6,7	7,4	6,5	6,4	7,1	6,3	7,0	7,7	6,7	14,8	16,9	14,4	41,7	38,1	41,4
EUROGUNEA	7,5	8,2	7,2	7,2	7,9	7,0	7,9	8,6	7,4	15,5	17,5	14,5	43,7	40,3	42,8
BELGIKA	5,2	5,8	5,8	5,7	6,1	6,9	4,6	5,5	4,5	14,6	15,9	15,4	42,7	46,5	42,9
BULGARIA	4,1	5,3	4,6	4,4	5,4	4,9	3,8	5,2	4,2	9,1	14,1	15,9	53,2	49,7	55,2
TXEKIAR E.	2,1	3,1	2,3	1,8	2,5	1,9	2,4	3,8	2,7	5,3	9,6	7,3	28,6	21,8	32,0
DANIMARKA	5,1	5,9	4,4	4,8	5,7	4,4	5,3	6,1	4,4	9,6	11,8	9,5	19,3	17,7	21,0
ALEMANIA	3,1	:	3,2	3,5	:	3,6	2,7	:	2,7	5,1	:	5,2	36,7	:	33,5
ESTONIA	4,3	7,8	5,4	3,7	7,9	6,0	5,0	7,8	4,8	8,5	22,6	17,7	17,6	18,6	28,5
IRLANDA	4,6	5,9	5,0	4,8	6,1	5,1	4,3	5,6	4,9	9,6	13,8	10,2	36,6	26,7	36,4
GREZIA	16,9	16,4	13,4	14,0	13,4	9,9	20,7	20,1	17,7	34,0	35,3	31,8	71,8	66,1	65,0
ESPAINIA	13,9	16,3	13,4	12,3	14,3	11,9	15,6	18,5	15,2	30,5	40,1	30,7	37,0	35,5	42,8
FRANTZIA	8,5	8,3	7,7	8,6	8,4	7,8	8,3	8,2	7,5	21,1	19,6	16,6	39,4	39,2	28,5
KROAZIA	7,3	9,2	6,3	7,4	9,8	5,7	7,1	8,6	7,1	21,6	22,0	20,3	34,2	31,8	40,0
ITALIA	10,1	9,7	9,2	8,9	9,1	8,7	11,7	10,5	9,9	29,4	31,0	28,0	57,0	55,1	60,8
ZIPRE	6,5	8,2	6,4	6,0	8,6	6,1	7,1	7,8	6,8	16,0	19,9	17,4	30,4	29,7	36,1
LETONIA	6,2	8,2	7,5	6,5	8,8	8,0	5,8	7,6	6,9	10,1	11,3	11,3	30,7	27,3	32,4
LITUANIA	6,6	9,4	7,2	7,6	10,0	8,3	5,6	8,7	6,2	14,3	19,2	11,2	32,5	27,3	42,8
LUXENBURGO	5,8	6,6	4,3	5,7	5,8	4,4	5,9	7,5	4,2	16,4	25,7	17,1	19,6	29,8	40,9
HUNGARIA	3,4	4,2	3,7	3,2	4,0	3,5	3,5	4,5	4,0	12,2	11,5	12,5	27,4	30,3	34,9
MALTA	3,6	4,5	3,0	3,4	4,4	3,4	3,9	4,6	2,6	8,9	10,9	10,5	44,4	26,1	26,6
HERBEHEREAK	3,3	4,0	3,7	3,4	3,9	3,4	3,2	4,3	4,0	6,9	9,4	7,8	28,7	24,4	21,4
AUSTRIA	4,2	5,5	5,1	4,3	5,6	4,9	4,1	5,5	5,3	8,3	9,4	8,9	25,5	27,1	31,0
POLONIA	2,9	3,2	2,9	2,7	3,1	2,9	3,2	3,2	3,0	7,9	12,8	9,0	22,9	21,0	28,6
PORTUGAL	6,9	7,5	6,5	6,2	7,3	6,4	7,7	7,6	6,6	19,5	24,3	23,4	41,6	34,6	47,7
ERRUMANIA	4,0	5,4	5,9	4,6	5,5	6,5	3,3	5,3	5,1	18,5	17,1	23,4	40,5	32,4	38,0
ESLOVENIA	4,0	5,1	4,5	3,6	4,6	4,1	4,6	5,7	4,9	8,7	15,2	10,2	43,2	39,4	50,5
ESLOVAKIA	5,7	7,0	6,6	5,4	6,4	6,7	6,1	7,8	6,5	17,1	20,8	19,2	58,8	45,2	68,2
FINLANDIA	6,2	7,6	6,4	6,7	7,9	7,0	5,6	7,2	5,8	13,9	18,4	11,5	21,4	18,7	26,7
SUEDIA	6,5	8,1	7,6	6,5	8,2	7,1	6,5	8,1	8,1	17,1	20,4	20,8	16,5	15,2	28,3
EAE (EUSTAT)	9,6	11,2	9,9	8,9	11,6	9,4	10,3	10,8	10,3	22,2	23,3	20,9	:	:	:
EAE (EIN)	9,1	10,0	8,4	8,6	8,6	8,9	9,6	11,4	7,9	25,5	35,7	27,2	:	:	:
ERRESUMA BATUA	3,7	:	:	3,8	:	:	3,5	:	:	10,8	:	:	23,7	:	:

Iturria: EUROSTATen, EInen eta EUSTATen datuekin guk geuk egina (22/04/28ko datuak).

2020an, sei urtez behera egin ondoren, langabeen kopurua % 16,8 igo zen Euskadin (berrikusitako datuak). **2021ean berriz ere behera egin du, eta, kalkuluaren arabera, urtea** 103.500 langaberekin amaitu zen, duela urtebete baino % 12,1 gutxiago (-14.200 pertsona, horietatik % 83,1 gizonak eta % 16,9 emakumeak).

Langabezia % 18,7 murriztu da gizonen artean eta % 4,4 baino ez emakumeen artean. Horren ondorioz, urte amaieran sexuaren arabera langabezia-tasetan 9 hamarreko alde egon da: emakumeen kasuan % 10,3koa izan delako; gizonen kasuan, berriz, % 9,4koa. Adinaren arabera, langabeen kopurua batez ere erdiko taldean (25-44 urtekoak) murriztu da (-% 16,7, hau da, -10.000 pertsona), % 14,9 25 urtetik beherakoetan (-2.000) eta, neurri txikiagoan bada ere, baita 45 urtetik gorakoetan ere (-% 5,4, -2.400 pertsona).


Ondorioz, **gazteen langabezia-tasa** beste taldeetan baino gehiago jaitsi da, % 20,9 (-2,4 puntu). EBn, gazteen langabezia-tasa % 14,4an kokatu da 2021aren amaieran, Europar Batasun osoan, eta % 14,5ean eurogunean, % 30 inguruko balioekin, besteak beste Grezia eta Espainian (% 31,8 eta % 30,7 hurrenez hurren). Beste muturrean, % 5-7 inguru Alemania, Txekia eta Herbehereak daude.

Sektoreka, 2021eko laugarren hiruhilekokoan, langabeen % 66,5 zerbitzuen sektorekoak dira, eta sektore horretan % 8,1 murriztu da langabezia (-6.100 pertsona, horietatik % 59 gizonak). Bestalde, industrian, 2021. urtearen amaieran langabezia osoaren % 16,7 izanik, langabezia % 10,4 murriztu da (-2.000 pertsona), sektore horretan⁷ gizon langabeen kopurua (-3.000) eta emakume langabeen kopurua (+900) jaitsi izanaren ondorioz. Eraikuntzan, bestalde, langabetuen kopurua % 32,1 murriztu da (-3.500 pertsona garbi).

III.1.15. TAULA. LANGABEEN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.											
		BATEZ BESTE (MILAKOTAN)				ALDAKETA (MILAKOTAN)			URTEK URTERAKO ALDAKETA TASA (%)		
		2018	2019	2020	2021	18-19	19-20	20-21	18/19	19/20	20/21
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	1,3	1,2	1,1	1,5	-0,1	-0,1	0,4	-7,7	-8,3	36,4
	INDUSTRIA	11,5	10,8	15,2	12,2	-0,7	4,4	-3,0	-6,1	40,7	-19,7
	ERAIKUNTZA	9,7	8,8	9,9	6,1	-0,9	1,1	-3,8	-9,3	12,5	-38,4
	ZERBITZUAK	29,6	24,2	32,2	28,6	-5,4	8,0	-3,6	-18,2	33,1	-11,2
	1. LANAREN BILA	4,6	3,9	4,9	2,9	-0,7	1,0	-2,0	-15,2	25,6	-40,8
	GUZTIRA	56,7	48,9	63,2	51,4	-7,8	14,3	-11,8	-13,8	29,2	-18,7
EMAKUM EAK	LEHEN SEKTOREA	0,0	0,4	0,1	0,0	0,4	-0,3	-0,1	400,0	-75,0	-100,0
	INDUSTRIA	5,7	5,3	4,1	5,0	-0,4	-1,2	0,9	-7,0	-22,6	22,0
	ERAIKUNTZA	1,0	0,4	1,0	1,3	-0,6	0,6	0,3	-60,0	150,0	30,0
	ZERBITZUAK	40,7	42,1	42,7	40,1	1,4	0,6	-2,6	3,4	1,4	-6,1
	LAN BILA	5,8	3,7	6,7	5,6	-2,1	3,0	-1,1	-36,2	81,1	-16,4
	GUZTIRA	53,3	51,9	54,5	52,1	-1,4	2,6	-2,4	-2,6	5,0	-4,4
GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	1,3	1,6	1,2	1,5	0,3	-0,4	0,3	23,1	-25,0	25,0
	INDUSTRIA	17,2	16,1	19,3	17,3	-1,1	3,2	-2,0	-6,4	19,9	-10,4
	ERAIKUNTZA	10,7	9,2	10,9	7,4	-1,5	1,7	-3,5	-14,0	18,5	-32,1
	ZERBITZUAK	70,3	66,3	74,9	68,8	-4,0	8,6	-6,1	-5,7	13,0	-8,1
	LAN BILA	10,4	7,6	11,5	8,5	-2,8	3,9	-3,0	-26,9	51,3	-26,1
	GUZTIRA	110,0	100,8	117,7	103,5	-9,2	16,9	-14,2	-8,4	16,8	-12,1

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta". Datu bankua.

Azkenik, **lehen enplegua bilatzen ari direnen kolektiboa** 3.000 pertsonatan murriztu da (-% 26,1), eta 8.500 zenbatu dira hiruhilekokoan batez beste; horietatik % 65,9 emakumeak dira eta % 34,1 gizonak.




Lurraldeka, langabezia-tasa guztiek egin dute behera 2020ko 4. hiruhilekoarekin alderatuta. Intzidentziarik txikiena, urtebete gehiago, Gipuzkoan izan da, % 7,7 eta % 1,7, hurrenez hurren (-1,7 puntu 2020rako); Bizkaia du altuena (% 11,3), eta behera egin du (-1,3 puntu). Azkenik, Arabak bitarteko posizioari eutsi dio eta langabezia-tasa % 9,6 da, urtebete lehenago baino 8 hamarren gutxiago.

⁷ Ikusi kapitulu honetako 2. orri-oina.

1.3.2. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua: Langabezia eta lan-eskatzaileak

Gure erkidegoak 2019aren amaieran 114.162 langabe zeuzkan (abenduko batez besteko datua). 2020ko martxoan hasi zen pandemiaren eta jarduera ekonomikoaren geldialdiaren ondorioz, LANBIDEN 129.240 langabetu erregistratu ziren urtean (+% 13,2).



Urtebete geroago, **2021. urtea amaitzean, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak 114.845 langabetu** erregistratu zituen, 2020an baino 14.395 gutxiago, -% 11,1 (Estatuko batez bestekoaren -% 20,1, non erregistratutako langabezia 3,1 milioi pertsonatik gorakoa baita). Aurreko atalean ikusi den bezala, urteko laugarren hiruhilekoan 103.500 pertsona erregistratu zituen EUSTATEN Biztanleria Jardueraren Arabera Inkestak. Beraz, 683 pertsonatan baino ez da gainditzen 2019ko abenduko kopurua, III.1.16. taulan ikus daitekeen moduan.

III.1.16. TAULA. EAE-N ERREGISTRATUTAKO LANGABEAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUA

		ABENDUKO LANGABEAK					19- 20KO ALDAK.		ALDAKETA 20-21	
		2017	2018	2019	2020	2021	ABS.	%	ABS.	%
< 25 URTE	GIZONAK	3.482	3.789	4.161	5.730	4.639	1.569	37,7	-1.091	-19,0
	EMAKUMEAK	3.591	3.650	3.718	4.978	4.179	1.260	33,9	-799	-16,1
	GUZTIRA	7.073	7.439	7.879	10.708	8.818	2.829	35,9	-1.890	-17,7
25 - 44 URTEKOAK	GIZONAK	25.072	22.374	21.035	24.309	19.402	3.274	15,6	-4.907	-20,2
	EMAKUMEAK	32.555	29.410	27.045	33.430	25.826	6.385	23,6	-7.604	-22,7
	GUZTIRA	57.627	51.784	48.080	57.739	45.228	9.659	20,1	-12.511	-21,7
45 URTE ETA HORTIK GORAKOAK	GIZONAK	28.182	26.854	25.972	28.859	27.190	2.887	11,1	-1.669	-5,8
	EMAKUMEAK	34.661	33.592	32.231	31.934	33.609	-297	-0,9	1.675	5,2
	GUZTIRA	62.847	60.446	58.203	60.793	60.799	2.590	4,4	6	0,0
GUZTIRA	GIZONAK	56.740	53.017	51.168	58.898	51.231	7.730	15,1	-7.667	-13,0
	EMAKUMEAK	70.807	66.652	62.994	70.342	63.614	7.348	11,7	-6.728	-9,6
	GUZTIRA	127.547	119.669	114.162	129.240	114.845	15.078	13,2	-14.395	-11,1


Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

Lurraldeka, Arabak izan du beherakada txikiena urte arteko saldoan, batez bestekoa baino txikiagoa: -% 10,6 (-2.313 pertsona eta 19.414 langabe urtearen amaieran); Gipuzkoa eta Bizkaia, berriz, batez bestekoa baino pixka bat gehiago jaitsi dira: Gipuzkoan % 11,3 jaitsi da (-3.880 eta 30.553 langabetu), eta Bizkaian % 11,2 jaitsi da (-8.202 eta 64.878 langabe urtearen amaieran).

Langabezia murriztu egin da **bi sexuetan**, eta gehiago gizonen artean (-% 13) emakumeen artean baino (-% 9,6). Bilakaera horren ondorioz, langabetuen % 54,4 emakumeak dira (2020an baino puntu 1 gehiago).

Adinaren arabera, erregistratutako langabeziak behera egin du talde guztietan, adin handieneko emakumeen taldean izan ezik. III.1.16 koadroan ikusten den bezala, 45 urteko eta gehiagoko emakumeen kasuan gorakada gertatu da, tarte bereko gizonen kasuan izandako beherakadaren baliokidea, hain zuzen ere. Horrenbestez, adin-talde horretan langabezia 6 pertsona gehiago dira. Langabezia murriztu egiten da, bereziki, tarteko adin-taldean, 25-44 urtekoen taldean (-% 21,7), bai gizonen artean (-% 20,2), bai emakumeen artean (-% 22,7). Azkenik, 25 urtetik beherakoen artean ere batez bestekoa baino gehiago jaitsi da langabezia (% 17,1), eta berriro ere bi sexuetan: -% 19, gizonentzat, eta -% 16,1, emakumeentzat.

III.1.9. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEEN BANAKETAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. ABENDUAN.



Ikasketa mailaren arabera, behera egin zuen langabeziak 2020ko abenduaren aldean (aurreko urtean gertatu bezala) maila guztietan. Jaitsiera handienak, batez bestekoaren gaineratik, ikasketa-maila handienak dituzten pertsonen artean gertatu dira, batez ere bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak dituztenen artean (% -15,5 bigarren eta hirugarren ziklotan, -% 14,6 lehen zikloko ikasketak dituztenen artean eta -% 13,3 goi-mailako teknikari profesionalen artean) eta bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, bai LHkoak (-% 11,2) bai hezkuntza orokorrekoak (-% 12,1). Lehen mailako ikasketak –osoak zein osatugabeak– dituzten langabeen zifrak ere murriztu egin dira, batez bestekoa baino gutxiago bada ere (-% 10,1 eta -% 0,6, hurrenez hurren).


III.1.17. TAULA. EAE-KO LANGABEAK IKASKETA MAILAREN ARABERA. ABENDUKO HILABETEAK.

		ABENDUKO LANGABEAK					ALDAKETA 20-21	
		2018	2019	2020	2021	2021 (%)	ABS.	%
LEHEN IK.	IKASKETARIK GABE, ETA LEH. MAILAKOAK AMAITU GABE	10.356	10.050	12.634	12.561	10,9	-73	-0,6
	OSORIK AMAITUTA	16.348	15.677	16.976	15.258	13,3	-1.718	-10,1
BIGARREN IK	LANBIDE HEZIKETA	10.419	10.110	11.567	10.269	8,9	-1.298	-11,2
	HEZKUNTZA OROKORRA	57.329	53.643	58.844	51.731	45,0	-7.113	-12,1
BIG. HEZK. OSTEKOAK	GOI MAIL IKAST TEKN.	10.872	10.620	12.890	11.179	9,7	-1.711	-13,3
	LEHEN ZIKLOA	3.828	3.587	3.910	3.339	2,9	-571	-14,6
	BIGARREN ETA HIRUGARREN ZIKLOA	10.331	10.293	12.189	10.298	9,0	-1.891	-15,5
	BESTELAKOAK	191	182	230	210	0,2	-20	-8,7
Gainera, 2021ean aurreko ekitaldiarekin alderatuta **lanaldia murriztu** duten hitzarmenen proportzioa pixka bat jaitsi da 2019an eta 2020an indarrean dauden hitzarmenekin alderatuta. Hitzarmen horien % 10,4k murriztu dute (2019an % 11,4 eta 2020an % 12,7). Ratio horiek, 2009an lanaldia murrizten zuten hitzarmenen % 22,9tik oso urruti jarraitzen dute.

III.3.2. GRAFIKOA. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAK ERAGINDAKO LANALDI MURRIZKETA EAE-N: LANALDIA MURRIZTEN DUTEN ETA APLIKATZEKOAK DIREN HITZARMENEN EHUNEKOA ETA MURRIZTUTAKO URTEKO ORDUAK.




Iturria: LHK. Guk geuk egina.

EAEn eragina duten hitzarmen berrituen multzoan, urteko batez besteko murrizketa 0,52 ordukoa izan da (-0,66 aurreko urtean). EAEn erregistratutako hitzarmenak soilik kontuan hartuz gero, murrizketa 0,77 ordukoa izan da, eta Euskadin eragina duten estatu-mailako hitzarmenak kontuan hartuz gero, 0,02 ordukoa. Ondorioz, hitzarmenetan 2021erako itundutako (indarrekoak nahiz luzatuak) batez besteko lanaldia 1.669 ordukoa izan zen EAEn (1.730 batez besteko ordu kopurua Estatuan), EAEn erregistraturiko hitzarmenetan eta 1.696 ordukoa EAEn eragina duten Estatuan erregistraturiko hitzarmenetan.

LHKren txostenak aukera ematen du jakiteko, halaber, EAEn 2021eko abenduaren 31n zenbat hitzarmen kolektibotan dauden indarrean **lana eta familia bateragarri egiteko neurriak**: guztira 297 dira, guztizkoaren % 48,7 (% 47,2, 2020an). Hitzarmen horietako gehienetan bildutako neurriek edoskitzarorako eskubidea lanaldi osoetan metatzeko aukerarekin dute zerikusia, baita indarreko legerian ezarrita dauden eta familiaren edo norberaren inguruabarren zioz ordaindutako zenbait baimenekin ere.

Indarreko enpresa-hitzarmenetatik, % 48,8k bateragarri egiteko neurriak txertatzen dituzte; sektorekoetan, berriz, % 47,6 murriztu dira. Lurraldeka, EAEn negoziatutakoetan, % 43,7k mota horretako neurriak erregulatzen dituzte; Estatuan negoziatutakoetan, berriz, ratioa % 61,4 da. Kasu honetan, tamaina handiko enpresen hitzarmenak edo estatu mailako sektoreko hitzarmenak dira, Estatuan eragindako langile kopuru handiarekin hain zuzen.



Azkenik, 2019an (azken datu eskuragarria), Euskadin indarrean zeuden enpresa-hitzarmen kolektiboen kopurua 179 da (**berdintasun-planak** dituztenak), eta 44.177 langileei eragiten zien. Hortaz, indarreko enpresa-hitzarmenen % 28,4k, eta mota horretako hitzarmen motari atxikita dauden langileen % 51,6k, berdintasun-planak dituzte. Tamaina handiko enpresek, legez, hitzarmen horiek izan behar dituzte, eta horiek dira hain zuzen mota horretako planak barne hartzen dituztenak beren hitzarmen kolektiboetan.

3.2. LAN GATAZKAK

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren informazioaren arabera, 2020an, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko jarduera ekonomikoaren murrizketa garrantzitsuarekin batera, lan gatazken murrizketa nabarmena gertatu zen gure Erkidegoan. 2021ean, behin-behineko datuekin, greba kopuruak eta lan egin gabeko lanaldiek gora egin zuten, baina ez langile parte-hartzaileen kopuruak.

EAEn, aurtan, 248 greba erregistratu dira, 14.848 parte-hartzaile izan dituztenak, eta guztira 140.775 lanaldi sortu dituzte lan egin gabe. Kopuru horiek 2020. urtearekiko % 30,5 eta % 135,6 arteko igoerak dakartzate greben kopuruari dagokionez, eta lan egin gabeko lanaldiei dagokienez, berriz, % 42,1 murriztu dira parte-hartzaileak.


III.3.4. TAULA. LAN GATAZKAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA

	GREBAK	PARTAIDEAK	LAN EGIN GABEKO EGUNAK	PARTAIDEAK GREBAKO	LAN EGIN GABEKO EGUNAK GREBAKO	LAN EGIN GABEKO ORDUAK GREBAN EGONDAKO LANGILEKO
2017	208	59.485	96.371	286	463	13
2018	264	48.696	110.838	184	420	18
2019	308	79.860	391.830	259	1.272	39
2020	190	25.642	59.741	135	314	19
2021	248	14.848	140.775	60	568	76
18/19 (%)	16,7	64,0	253,5	40,8	203,0	115,6
19/20 (%)	-38,3	-67,9	-84,8	-48,0	-75,3	-52,5
20/21 (%)	30,5	-42,1	135,6	-55,6	80,5	306,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin guk geuk egina. Lan eta Enplegu Saila.

Datu horiekin, 60 langilek hartu dute parte greban (-% 55,6, 2020. urtearekin alderatuta), grebagatik lan egin gabeko egunen kopurua 568 (+% 80,5) eta greban izan den langile bakoitzeko lan egin gabeko orduak, berriz, 5) eta 76k (+ % 306,9, 2020rekin alderatuta).

III.3.4. GRAFIKOA. LAN-GATAZKAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: LHKren eta EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina.

Sektoreka, greba kopuru handiena zerbitzuetan metatu zen (2021eko urtarriletik azarora bitarteko datuak), 122 grebarekin (guztizkoaren % 55,2), baina soilik 5.753 langilerekin (guztizkoaren % 42,2) eta lan egin gabeko 20.950 lanegunekin (% 15,6). Industrian, berriz, greben % 39,4 izanik (87), langile gehien daude (7.396, % 54,3) eta lan egin ez den lanegunen % 82,3 (110.334). Eraikuntzan 12 greba erregistratu ziren (% 5,4), eta bat ere ez lehen sektorean. Eta, aurreko urteetan bezala, negoziazio kolektiboa nabarmentzen da gatazkaren lehen arrazoi gisa: greben % 57 eta eraginpeko langileen % 52,7.

Lurraldeka, Bizkaian izan ziren greba gehienak 2021ean (153), 10.409 parte-hartzaile eta 39.087 lanegun lanik gabe. Araban, 32 greba egon ziren, 2.578 partaide eta lan egin gabeko 96.718 egunekin. Gipuzkoan, 63 greba izan ziren, 1.861 partaide eta lan egin gabeko 4.970 egun.

Estatu osoan, 2021erako behin-behineko datuekin, greben eta parte-hartzaileen kopuruak gora egin du (606 greba, 2020an baino % 24,4 gehiago, eta 199.026 parte-hartzaile, +% 31,4), eta lan egin gabeko lanaldiak murriztu egin dira (% -21,8), 422.815eraino.

3.3. LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA

Baliagarria da langileek benetan eginiko lan egunak eta enpresarekin hitzarturikoarekin duen erlazioa zein den jakitea, baita lan egin gabeko egunak eta kasuen banakapena ere. EINEk, “*Lan Kostuen Hiruhilekoetako Inkestak*”, informazio zabala ematen du horren inguruan, eta horri esker, jarraipena egin daiteke denboran, kopuru absolutuetan (lan egindako eta lan egin gabeko orduen kopuruaren bilakaera) nahiz estatu mailako kopuru erlatiboetan (lan egin gabeko orduen banaketa), eta xehetasun maila txikiagoarekin, autonomia erkidegoka.

Hona hemen aintzat harturiko aldagai nagusiak (xehetasun handiagoa nahi bada, begiratu Memoria honetako glosarioa, amaieran):

- Benetako orduak: benetan lan egindako orduak dira. Hitzartutako orduen (hitzarmenen, hitzezko akordioaren edo banako kontratuaren bidez ezarritakoak) eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak (horietatik aparte gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetan lan egindako ordutzat hartzen baitira),. Kopuru erlatiboetan, hitzartutako orduen gaineko proportzioa aztertzen da.
- Lan egin gabeko orduak: ordaindutakoak (oporrak, jaiak, aldi baterako ezintasuna, amatasunaren ziozko baimena eta antzekoak, aparteko orduak konpentsazioaren ziozko atsedendialdiak, sindikatu-ordezkaritzako orduak, azterketak, medikuaren kontsultara joatea...) edo ordaindu gabeak izan daitezke (lan-gatazka, ugazaben itxiera, legezko zaintza –zaintzarako lanaldi murrizketak-, etab.). Kopuru erlatiboetan, benetan lan egindako orduen gaineko proportzioa aztertzen da.

Lehenik eta behin, ***Estatuan lan egindako eta lan egin gabeko orduen*** xehetasuna ageri da, betiere aldiko urteko batez bestekoak kontsideraturik. Estatuko langileek 2021ean lan egin zuten, batez beste, 125,35 ordu hilean, 2020an baino % 6,1 gehiago. Urte horretan, aurrekaririk gabeko beherakada bat gertatu zen, pandemiaren eta horrek jardueran duen eraginaren ondorioz (-% 8). 2021ean lan egindako orduak (benetako orduak) enpresarekin itundutakoen % 82,9 dira (hitzarmen, kontratu eta abarren bidez), eta ratio hori 2020koa baino 4,2 puntu handiagoa da.

III.3.5. TAULA. LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA. BANAKAPENAREN BILAKAERA ESTATUAN							
ORDU KOPURUA, LANGILEKO ETA HILEKO. URTEKO BATEZ BESTEKOAK							
	2018	2019	2020	2021		ALD. % 2019/20	ALD. % 2020/21
				ABS.	BERT. %		
1. HITZARTUTAKO ORDUAK	149,45	149,48	150,08	151,18	120,6	0,4	0,7
2 ORDU ORDAINDUTA	149,85	149,90	150,33	151,53	120,9	0,3	0,8
3. BENETAKO ORDUAK	128,73	128,33	118,10	125,35	100,0	-8,0	6,1
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	21,45	21,93	32,58	26,45	21,1	48,6	-18,8
- LAN EGIN GABEKO ORDUAK ETA ORDAINDUTAKOAK	21,15	21,58	32,25	26,18	20,9	49,4	-18,8
Oporrak	7,83	7,93	7,18	7,65	6,1	-9,5	6,5
Jaiegunak	6,48	6,43	6,43	6,50	5,2	0,0	1,1
ABE	5,18	5,60	6,68	6,70	5,3	19,3	0,3
Amatasuna	0,90	0,88	0,93	1,10	0,9	5,7	18,3
Ordaindutako baimenak*	0,48	0,48	0,80	0,50	0,4	66,7	-37,5
Arrazoi tekniko edo ekonomikoak	0,10	0,08	10,00	3,53	2,8	12.400,0	-64,7
Aparteko orduen konpentsazioa	0,05	0,08	0,05	0,00	0,0	-37,5	-100,0
Lantokian galdutako orduak**	0,00	0,00	0,03	0,00	0,0	-	-
Beste batzuk	0,23	0,20	0,15	0,20	0,2	-25,0	-
- LAN EGIN GABEKO ORDUAK ETA ORDAINDU GABEKOAK	0,30	0,30	0,33	0,30	0,2	10,0	-9,1
Lan-gatazka	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	-	-
Beste batzuk	0,30	0,30	0,33	0,30	0,2	10,0	-9,1
5. APARTEKO ORDUAK	0,68	0,73	0,55	0,63	0,5	-24,7	14,5
BENETAKO / HITZARTUTAKO ORDUEN %	86,1	85,9	78,7	82,9			
LAN EGIN GABEKO / BENETAKO ORDUEN %	16,7	17,1	27,6	21,1			

Iturria: EIN. Laneko Kostuen Hiruhilekoetako Inkesta. Guk geuk egina.
**Sindikatuaren ordezkatzea, azterketak, medikuaren kontsultak, eta abar.*
*** Lege ondorioetarako, lan egindako ordutzat hartzen dira.*

Horrez gain, batez beste lan egin gabeko 26,45 ordu zenbatetsi dira langileko eta hileko, horietatik 26,18 (% 99) ordaindutakoak izan ziren. Lan egin gabeko orduak % 18,8 jaitsi dira azken urtean, 2020an ia % 50 hazi ondoren.

Lan egin gabeko orduetan, kategoria nagusia (ikus III.3.5 taulako xehetasuna) 2021ean oporrei dagokie (7,65 ordu), ondoren gaixotasunagatik lan egin gabeko orduak daude (AE), 6,70 langile eta hilabeteko, eta jaiegunak (6,50). Laugarren lekuan daude arrazoi tekniko edo ekonomikoak (hilean 3,53 ordu langile bakoitzeko, 2020an batez beste 10 ordura iritsi zirenean). Lau kategorien artean, lan egin ez diren orduen % 93,1 eta benetako orduen % 19,4 dira. Kopuru erlatibotan, 2021ean lan egin gabeko orduak benetako (lan egindako) orduen % 21,1 dira, 2020an baino 6,5 puntu gutxiago.

Bigarrenik, **autonomien arteko** erkaketa ageri da, baina horien gaineko lan egin gabeko orduen xehetasunik ez dugu. Benetan lan egindako orduak hitzarturiko eta lan egin gabeko orduak benetan lan egindako orduen gainean izan dituzten ratioak kalkulatu dira 2018tik 2021era, baina interpretazio zehatzagoa egiteko, beste aldagai batzuk aztertu beharko liriteke hala nola ekoizpenaren egitura edo lanaldi partzialaren pisua (Memoria honen helburuetatik harago doaz).

2021ean, benetan lan egindako orduen ehunekorik handiena, itundutako aldean, Madrili eta Andaluziari dagokie (% 83,9 eta % 83,8), eta txikiak Kanariei eta EAeri (% 79 eta % 80,8, hurrenez hurren). Estatuko batezbestekoa, ikusi denez, % 82,9 da.


Lan egin ez diren orduak dagokienez, benetako orduen gaineko proportzioa hauexen artekoa da: Kanarietan % 27 eta Madrilen % 19,6. EAEk % 24 du (-7 puntu 2020ko batez bestekoarekin alderatuta), Estatuko batez bestekoaren gainetik (% 21,1).

III.3.6. TAULA. LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO ORDUAK, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA: ALDAGAI ERLATIBOEN BILAKAERA

	BENETAKO ORDUEN %, HITZARTUTAKOEN GAINEAN				LAN EGIN GABEKO ORDUEN %, BENETAKO ORDUEN GAINEAN			
	2018	2019	2020	2021	2018	2019	2020	2021
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	86,1	85,9	78,7	82,9	16,7	17,7	27,6	21,1
ANDALUZIA	87,2	87,1	80,3	83,8	15,2	15,3	24,9	19,7
ARAGOI	85,2	84,8	79,1	82,6	18,1	18,8	27,0	21,7
ASTURIAS	85,1	84,9	78,5	82,4	18,0	18,4	27,9	21,8
BALEAR UHARTEAK	88,8	88,8	73,3	82,2	13,1	13,0	36,8	22,0
KANARIAR UHARTEAK	86,1	85,8	71,6	79,0	16,6	17,0	39,9	27,0
KANTABRIA	86,3	86,0	79,7	83,3	16,3	16,7	25,8	20,3
GAZTELA ETA LEON	84,8	85,2	79,3	83,1	18,3	17,8	26,5	20,6
GAZTELA-MANTXA	86,6	86,3	81,1	83,6	16,0	16,4	23,8	20,0
KATALUNIA	85,9	85,3	77,4	82,4	17,1	18,0	29,9	22,1
VALENTZIako E.	86,4	86,3	79,3	83,3	16,4	16,5	26,7	20,8
EXTREMADURA	86,2	86,1	81,7	83,7	16,3	16,4	22,8	19,7
GALIZIA	85,9	85,2	79,7	82,8	16,9	18,0	26,0	21,2
MADRIL	86,5	86,6	80,0	83,9	16,1	16,0	25,4	19,6
MURTZIA	85,5	85,1	79,9	83,4	17,5	18,0	25,8	20,4
NAFARROA	84,3	84,3	79,0	82,5	19,3	19,4	27,1	21,7
EAE	83,3	81,7	76,5	80,8	20,4	22,7	31,0	24,0
ERRIOXA	85,6	85,8	79,8	82,7	17,3	17,2	25,8	21,4

ITURRIA: EIN, ETAB. Geuk egina

III.3.5. GRAFIKOA. LAN EGINDAKO ORDUAK ETA LAN EGIN GABEAK: RATIO NABARMENEN ARTAeko ALDERATZEA



Iturria: EIN, LHKI. Guk egina.

Hirugarrenez, **EAEko kopuru absolutuen bilakaera** aurkeztuko dugu (III.3.7. taula). 2021ean, batez beste, enpresen eta langileen artean hitzartutako hileko ordu kopurua 149,10 izan zen, 2020an baino % 1,5 gehiago. Ordu horietatik, 120,53 (+% 7,2), % 80,8, ikusi den bezala, benetan lan egindakoak izan ziren. Ratio hori nabarmen handitu da azken urtean, 2020an ratio hori nabarmen jaitsi ondoren. Era berean, 2021ean lan egin gabeko orduak 28,93 dira langile eta hilabete bakoitzeko, 2020an baino % 17 eta % 24 gutxiago benetan lan egindako ordu bakoitzeko.

III.3.7. TAULA. LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA. EAE-KO ALDAGAIEN BILAKAERA. ORDU KOPURUA, LANGILEKO ETA HILEKO. URTEKO BATEZ BESTEKOAK								
	2017	2018	2019	2020	2021	ALD. % 2018/19	ALD. % 2019/20	ALD. % 2020/21
1. HITZARTUTAKO ORDUAK	147,00	147,40	147,50	146,88	149,10	0,1	-0,4	1,5
2 ORDU ORDAINDUTA	146,70	147,00	146,98	146,53	148,75	0,0	-0,3	1,5
3. BENETAKO ORDUAK	122,43	122,83	120,68	112,43	120,53	-1,8	-6,8	7,2
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	25,10	25,08	27,35	34,85	28,93	9,1	27,4	-17,0
5. APARTEKO ORDUAK	0,53	0,45	0,55	0,38	0,38	22,2	-30,9	0,0
BENETAKO / HITZARTUTAKO ORDUEN %	83,3	83,3	81,7	76,5	80,8			
LAN EGIN GABEKO / BENETAKO ORDUEN %	20,5	20,4	22,7	31,0	24,0			

Iturria: EIN. Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. Guk geuk egina.

Itundutako orduen eta lan egin ez diren orduen ratioek alde batzuk dituzte EAEn eta Estatuko batez bestekoaren artean, III.3.5 grafikoa agerienez: benetako orduak itundutako orduetara duten pisua txikiagoa da EAEn, eta lan egin ez dutenek pisu handiagoa dute benetako orduetara, nahiz eta bietan azken urteko bilakaerak norabide berari jarraitu dion.

Azkenik, EINen BAri esker, badakigu zein den egindako **aparteko orduen banakapena, Estatu osoan: ordaindutakoak eta ordaindu gabekoak**. 2021ean, Estatuko soldatapeko langile guztiek, batez beste astean, aparteko 5.743.675 ordu egin zituzten, 2020an baino % 6,4 gutxiago. Horietatik 3.138.150 ordaindu ziren, aurreko urtean baino % 3,4 gutxiago. Ordaindutako ordu horiek, aparteko ordu guztien % 54,6 dira (% 52,9 2020an).

3.4. TELELANA¹³

COVID-19aren pandemiaren ondorioz 2020an lan-merkatuan gertatutako fenomenoetako bat, enpleguaren beherakadaz gain, telelanaren hedapena izan zen, eta une honetan ez dakigu zer neurritan bizkortu den behin betiko ezarpena. Era oso garrantzitsuan urteko lehen hiletan alarma-egoera eta konfinamendua ezarri ondoren eta ez beti baldintza tekniko egokietan eta ondo antolatuta, telelanak duela gutxi ezinezkoak izango ziren jarduerak eta enplegu maila eustea ahalbidetu die enpresa askori. EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak galdetegiaren, 2020ko bigarren hiruhilekotik aurrera, etxean bertan egindako lanari buruzko galderak gehitu zituen (normalean aldagai horren urteko emaitzak baino ez ziren argitaratzen), eta horri esker, fenomeno hori xehetasunez kuantifikatu ahal izan zen inpaktu handieneko unean.

Hala, 2020ko bigarren hiruhilekoan (konfinamendu egun gehienak biltzen dituen aldia), EAEko 32.700 pertsonak lan egin zuten noizean behin norberaren etxetik, hau da, biztanleria landunaren % 3,6k, 2019. urteko ia kopuru bera. Baina, horrez gain, beste 113.100ek, % 12,6k, erreferentziatzko asteko egunen erdia baino gehiago etxetik lan egin zuten; 2019an, ordea, % 4,3 izan zen. Horren ondorioz, 145.800 lagunek, landunen % 16,2k, etxetik lan egin zuten aurreko urtekoak halako bi baino gehiago. Sexuaren arabera, emakumeen tasa handia izan zen gizonena baino (% 16,5 eta % 15,9, hurrenez hurren), 2019an gizonen telelan-tasa handiagoa zutenean (% 8,9 eta % 6,6, hurrenez hurren).

¹³ Memoria honen II. Kapituluak ("Zientzia, teknologia eta berrikuntza"), telelanaren erabilera ere aztertzen da, ikuspegi teknologikotik, beste eragiketa estatistiko batetik (EUSTATen Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta), eta, beraz, ez du zertan bat etorri haren emaitzak eta interpretazioa.

Estatuan, bestalde, 3,5 milioi landunek baino gehiagok erabili dute etxetik egindako lana 2020ko bigarren hiruhilekoan, landun guztien % 19,1ek, alegia (EAEn baino 2,9 puntu gehiago).


2020ko hirugarren hiruhilekotik aurrera, langile asko beren lanpostuetara itzulita, etxeko lan-tasa globalak pixkanaka murrizten joan ziren (ikus III.3.8 taula). Hala, 2020rako batez bestekoa % 11,2 izan zen EAEn (+3,4 puntu 2019arekiko) eta % 15, berriz, Estatuan batez beste (+6,7 puntu).

2021ean, berriz ere urteko datuekin, EAeko pertsona landunen % 9,3k telelana egin zuten (% 4,5ek noizean behin eta % 4,8k egunen erdietan baino gehiagotan). Ratio hori 86.200 langileri dagokie, 2020an baino % 16 gutxiago.

III.3.8. TAULA. ERREFERENTZIAKO ASTEAN TELELANA EGIN ZUEN BIZTANLERIA LANDUNAREN EHUNEKOAK. EAE ETA ESTATUA.						
	EAE			ESTATUA		
	NOIZEAN BEHIN	EGUNEN ERDIAK BAINO GEHIAGO	GUZTI RA	NOIZEAN BEHIN	EGUNEN ERDIAK BAINO GEHIAGO	GUZTI RA
2015	3,0	3,1	6,2	2,9	3,6	6,4
2016	3,2	2,9	6,1	2,9	3,5	6,4
2017	3,1	3,3	6,4	3,0	4,3	7,3
2018	2,9	3,7	6,6	3,2	4,8	8,0
2019	3,5	4,3	7,8	3,5	4,8	8,3
II-2020	3,6	12,6	16,2	2,9	16,2	19,1
III-2020	4,6	7,6	12,2	4,2	10,3	14,5
IV-2020	4,1	5,4	9,5	4,8	9,9	14,7
2020	4,2	7,0	11,2	4,2	10,8	15,0
2021	4,5	4,8	9,3	5,8	9,5	15,3

Iturria: EIN. EPA.

Zifra horiek adierazten dute ratioak jaitsi egin direla, bai guztira (-1,9 puntu, 2020ren aldean), bai noizbehinkako telelanaren (-0,3) eta ohiko telelanaren (-2,2 puntu) ratioak, 2020ren aldean. Estatuan, aldiz, telelanaren erabilera orokorra igo egin da aurreko urtearekin alderatuta, % 15,3ra (+0,3) iritsiz, formula horren noizbehinkako enpleguaren igoeraren ondorioz (% 5,8 eta % 4,2, hurrenez hurren, 2020an); izan ere, telelana 1,3 puntu murriztu da egunen erdietan baino gehiagotan, % 9,5eraino. Beraz, telelana neurri txikiagoan erabiltzen da gure erkidegoan eta, gainera, alde hori handitu egin da. Dena dela, alde horien interpretazio zuzena egiteko, zenbait aldagai aztertu behar lirateke, hala nola egitura produktiboa, eta gainera kontuan hartu Estatuko batez bestekoak era askotako errealitateak eta datuak jasotzen dituela.



Sexuaren arabera, pandemiaren hasieratik gertatu den fenomeno bat da, bai Estatuan, bai EAEn, aurreko arrakala. Horren arabera gizonen emakumeek baino telelan gehiago egiten dute. Hala, bai 2020an, bai 2021ean, telelana egiten duten emakumeen tasa gizonena baino handiagoa da. EAEn, 2021eko batez besteko arrakala 7 hamarrenkoa da emakumeen alde (% 9,6 eta % 8,9, hurrenez hurren); 2019an, berriz, 2,3 puntuko zen gizonen alde. Estatuan, oro har, genero-aldea 8 hamarrenkoa da 2021ean (telelangileen % 15,7 eta telelangileen % 14,9).

4. SOLDATAK EAE-N

4.1. SOLDATA EGITURARI BURUZKO 2019KO INKESTAREN EMAITZAK

III.4.1. TAULA. LANGILE BAKOITZAREN URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK /(EUROTAN). 2018-2019.

	GUZTIRA 2018	2019			2018/19 ALDAKUNTZA %			GENERO- ARRAKALAREN %	
		GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	2018	2019
ESTATUKO BATEZBESTEKOAK	24.009	24.396	26.934	21.682	1,6	0,7	3,2	21,4	19,5
ANDALUZIA	21.806	22.061	24.528	19.392	1,2	-0,7	3,9	24,4	20,9
ARAGOI	23.532	23.565	26.405	20.360	0,1	-0,9	1,4	24,6	22,9
ASTURIAS	23.915	24.866	28.482	21.299	4,0	2,0	7,9	29,3	25,2
BALEAR UHARTEAK	22.801	23.325	24.915	21.631	2,3	2,0	2,6	13,7	13,2
KANARIAR UHARTEAK	20.763	20.861	22.083	19.541	0,5	-1,1	2,6	14,7	11,5
KANTABRIA	22.555	23.348	25.795	20.600	3,5	1,8	4,9	22,6	20,1
GAZTELA ETA LEON	22.035	22.061	24.666	19.414	0,1	-0,2	1,9	22,9	21,3
GAZTELA-MANTXA	21.756	21.909	23.494	19.940	0,7	-1,9	4,5	20,3	15,1
KATALUNIA	25.553	25.968	28.965	22.988	1,6	1,1	3,1	22,2	20,6
VALENTZIAKO E.	22.121	22.046	24.500	19.315	-0,3	-0,2	0,4	21,6	21,2
EXTREMADURA	19.948	19.941	21.824	18.013	0,0	0,1	0,2	17,5	17,5
GALIZIA	22.245	22.177	24.543	19.818	-0,3	-1,1	1,4	21,3	19,3
MADRIL	27.011	27.818	30.531	24.874	3,0	2,4	4,0	19,8	18,5
MURTZIA	21.511	22.124	24.289	19.431	2,9	2,6	4,5	21,4	20,0
NAFARROA	26.365	27.494	30.565	23.729	4,3	3,4	4,5	23,2	22,4
EAE	28.471	29.476	32.529	26.198	3,5	1,7	5,8	22,6	19,5
ERRIOXA	22.641	22.877	25.343	20.377	1,0	-1,0	3,1	22,7	19,6

Iturria: EIN 2019

EINen Soldaten Egituraren Urteko Inkestaren arabera¹⁴, **langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia** 2017an (azken datua) EAEn 29.476 € zen, hots, % 3,5eko igoera aurreko urtearekiko (+% 0,9 2017. eta 2018. urteen artean). Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 20,8 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondoren Madril eta Nafarroa daude. Hiru erkidego horiek, Asturias eta Kataluniarekin batera, Estatuko batez bestekoa baino urteko batez besteko irabazi handiagoa dute aipaturiko datan. Gainerakoak, berriz, batez bestekoa baino soldata txikiagoa du. Extremadurak, Kanariar Uharteek eta Gaztela-Mantxak dituzte soldatarik txikiak.

Sexuen araberako soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena bainoa autonomia erkidego guztietan 2019an, hala ere aldea desberdina da batzuen eta besteen artean. Enpleguak eta okupazioak erkidego bakoitzean duten egitura desberdina funtsezko faktorea da aldakortasun hori azaltzeko. Batez beste, emakumeen soldata gizonen soldataren % 80,5 zen, eta beraz, arrakala % 19,5ekoa da (-1,9 puntu aurreko urtearen aldean). U. Kanariarrek zuten desbideratzerik handiena, eta ondoren U. Balearrek eta Gaztela-Mantxako Erkidegoak. Alderik handiena, berriz, Asturiasen dago, eta ondoren Aragoi eta Nafarroan. EAEn, 2019an, emakumeen soldataren ratioa gizonen soldataren % 80,5 zen batez beste (% 19,5eko arrakala, 2018an baino 3,1 puntu gutxiago). Hortaz, Estatuko batez bestekoaren arrakala bera da. Kopuru absolutuetan, EAEn, gizonen batez besteko soldata 32.529 € zen 2019an (+% 1,7, 2018arekin alderatuta), eta emakumeena, berriz, 26.198 € (+% 5,8).

Kontratu-harreman motaren araberako soldatei dagokionez, 2019ko urteko soldata gordina % 40,3 handiagoa zen, batez beste, kontratu mugagabea zuten EAeko langileentzat, aldi baterako kontratua zuten langileentzat baino. Alde hori,

¹⁴ EINen Soldata-egituraren urteko Inkesta k autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen araberako soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa soldata-egituraren inkesten bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantzza edo Zerga Agentziak, baita EINen beraren lan-kostuari buruzko hiru hilekoetako inkestako informazioaren zati bat ere, eta soldaten alderirik estrukturalenak aztertzea ahalbidetzen du. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinetan daude, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin gabe.

gainera, askoz handiagoa zen gizonen artean (% 62,6) emakumeen artean baino (% 17,4), eta alde hori Estatu mailan ere gertatzen da.

III.4.2. TAULA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA EAE-N ETA ESTATUAN, SEXUAREN ETA KONTRATU-MOTAREN ARABERA. 2018-2019. EUROAK.									
	BI SEXUAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	2018	2019	ALD. %	2018	2019	ALD. %	2018	2019	ALD. %
EAE									
GUZTIRA	28.471	29.476	3,5	24.757	26.198	5,8	31.970	32.529	1,7
IRAUPEN MUGAGABEA	30.612	31.559	3,1	26.140	27.128	3,8	34.598	35.673	3,1
IRAUPEN JAKINA	21.218	22.501	6,0	20.604	23.100	12,1	21.916	21.938	0,1
MUGAGAB./IRAUP. JAKINA %	44,3	40,3		26,9	17,4		57,9	62,6	
ESTATUA									
GUZTIRA	24.009	24.296	1,2	21.012	21.682	3,2	26.739	26.934	0,7
IRAUPEN MUGAGABEA	25.776	26.459	2,6	22.210	23.129	4,1	28.988	29.540	1,9
IRAUPEN JAKINA	18.056	17.932	-0,7	17.069	17.257	1,1	18.987	18.586	-2,1
MUGAGAB./IRAUP. JAKINA %	42,8	47,6		30,1	34,0		52,7	58,9	

Iturria: EIN. Soldaten egiturari buruzko inkesta.

Bestalde, inkestari esker, **lanordu arrunteko irabazia** zein den daiteke¹⁵, ezinbestekoa dena lanaldi desberdinak dituzten langileak berdintasunez aztertzeko. Orduko irabazi hori, 2019an, 19,52 eurokoa izan zen gure erkidegoan, 2018an baino % 3,4 handiagoa. Orduko irabazia, urteko batez bestekoa bezala, autonomia-erkidego guztietako handiena da (eta Estatuko batez bestekoa (15,85 euro orduko) baino %23,2 handiagoa, Nafarroaren eta Madrilen atzetik. Beste muturrean Extremadura Uharteak eta Kanariak daude.

III.4.3. TAULA. LANORDU ARRUNTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA SEXUAREN ARABERA (EURO). 2018-2019.									
	GUZTIRA 2018	2019			2018/19 ALDAKUNTZA %			GENERO-ARRAKALAREN %	
		GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	2018	2019
ESTATUKO BATEZBESTEKOAK	15,54	15,85	16,63	14,92	2,0	0,7	3,9	13,1	10,3
ANDALUZIA	14,48	14,59	15,23	13,79	0,8	-1,4	3,8	14,0	9,5
ARAGOI	15,29	15,43	16,32	14,28	0,9	-0,5	2,7	15,2	12,5
ASTURIAS	15,64	16,29	17,62	14,82	4,2	1,7	8,3	21,0	15,9
BALEAR UHARTEAK	14,87	14,87	15,18	14,50	0,0	-0,7	0,7	5,8	4,5
KANARIAR UHARTEAK	12,94	13,24	13,45	12,98	2,3	0,1	5,0	8,0	3,5
KANTABRIA	14,42	15,02	15,79	14,05	4,2	1,8	6,7	15,1	11,0
GAZTELA ETA LEON	14,33	14,49	15,21	13,66	1,1	-0,3	3,7	13,7	10,2
GAZTELA-MANTXA	14,09	14,22	14,36	14,03	0,9	-1,5	4,6	8,0	2,3
KATALUNIA	16,52	16,86	17,99	15,63	2,1	0,8	4,2	16,0	13,1
VALENTZIako E.	14,38	14,54	15,29	13,60	1,1	0,3	2,8	13,2	11,1
EXTREMADURA	13,21	13,15	13,37	12,89	-0,5	0,1	-1,1	2,4	3,6
GALIZIA	14,23	14,19	14,91	13,40	-0,3	-1,4	1,6	12,8	10,1
MADRIL	17,13	17,74	18,77	16,54	3,6	3,0	4,6	13,2	11,9
MURTZIA	13,85	14,22	14,67	13,58	2,7	2,2	4,1	9,1	7,4
NAFARROA	17,38	18,28	19,26	16,93	5,2	3,6	6,9	14,8	12,1
EAE	18,87	19,52	20,40	18,46	3,4	2,3	5,1	11,9	9,5
ERRIOXA	14,62	14,96	15,72	14,10	2,3	-0,3	5,3	15,0	10,3

Iturria: EIN 2019

Sexuaren arabera, EAEko emakumeen orduko batez besteko irabazia 18,46 eurokoa zen 2018an (+% 5,1 2018ko datuekin alderatuta); gizonen kasuan, berriz, irabazia 20,40 eurora igotzen da (+% 2,3). Sexuaren aldeko alde hori Estatuko erkidego guztietan gertatu da, eta horren ondorioz, emakumeek orduko gizonen kobratu zutenaren % 90,5 kobratu zuten Euskadin, hau da, orduko irabazia % 9,5 txikiagoa izan zen. Arrakala hori 2,4 puntu txikitu da azken urtean.


¹⁵ Orduko irabazia urteko irabazi gisa zenbatetsi, erreferentziako urtean lan egindako orduekin zatituz. Informazio-iturri nagusia, Lan-kostuaren hiruhileko inkestaren langileko hitzartutako orduak dira, hala ere, Gizarte Segurantzaren datu-baseetan eskuragarri dagoen informazioarekin osatuta; bereziki lanaldi partzialeko langileei dagokienez.

4.2. LAN KOSTUARI BURUZKO INKESTEN EMAITZAK

4.2.1. Lan-kostuei buruzko urteko inkesta, 2020. urtean.

Langileen soldatei eginiko hurbilketa dakarren EINen beste estatistika bat "Lan-kostuei buruzko inkesta" da. Urtero egiten da eta lanaren eta bere osagaien faktorearen kostuaren urteko maila ezagutzeko aukera ematen du. Horien artean, "Lansariak eta soldatak" partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata-egituraren Inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin aurrekoak.

III.4.1. GRAFIKOA. LAN-KOSTUAREN "SOLDATAK ETA LANSARIAK" PARTIDAREN ZENBATEKOA LANGILE ETA URTEKO. EAE-ESTATUA ALDERATZEA.



Iturria: EIN: Lan-kostuari buruzko urteko inkesta

III.4.4. TAULA. LAN KOSTUA LANGILEKO ETA URTEKO. AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERAKO DATUAK. 2019-2020

	2019			2020			Ald. 2019- 2020 (%)	
	KOSTU GORDINA	SOLDATAK	SOLDATAK GUZTIRA %	KOSTU GORDINA	SOLDATAK	SOLDATAK GUZTIRA %	KOSTU GORDINA	SOLDATAK
ESTATUA	31.835	23.450	73,66	31.150	22.838	73,31	-2,2	-2,6
ANDALUZIA	28.088	20.482	72,92	27.910	20.322	72,81	-0,6	-0,8
ARAGOI	30.787	22.617	73,46	29.809	21.772	73,04	-3,2	-3,7
ASTURIAS	32.526	24.150	74,25	32.110	23.687	73,77	-1,3	-1,9
BALEAR UHARTEAK	30.710	22.491	73,24	27.255	19.844	72,81	-11,3	-11,8
KANARIAR UHARTEAK	27.131	19.726	72,71	24.190	17.301	71,52	-10,8	-12,3
KANTABRIA	30.606	22.559	73,71	29.956	21.929	73,20	-2,1	-2,8
GAZTELA ETA LEON	28.702	21.020	73,24	28.634	20.896	72,98	-0,2	-0,6
GAZTELA-MANTXA	28.040	20.424	72,84	28.018	20.399	72,81	-0,1	-0,1
KATALUNIA	34.015	25.127	73,87	32.788	24.040	73,32	-3,6	-4,3
VALENTZIAKO ERKIDEGO	28.359	20.777	73,26	27.623	20.193	73,10	-2,6	-2,8
EXTREMADURA	26.212	19.195	73,23	25.359	18.483	72,88	-3,3	-3,7
GALIZIA	29.041	21.173	72,91	28.651	20.876	72,86	-1,3	-1,4
MADRIL	37.473	28.044	74,84	37.296	27.775	74,47	-0,5	-1,0
MURTZIA	27.770	20.360	73,32	28.198	20.665	73,29	1,5	1,5
NAFARROA	34.642	25.474	73,54	34.678	25.442	73,36	0,1	-0,1
EAE	37.543	27.484	73,21	37.106	26.958	72,65	-1,2	-1,9
ERRIOXA	29.028	21.286	73,33	28.135	20.610	73,25	-3,1	-3,2

Iturria: EIN: Lan-kostuei buruzko urteko inkesta.

2020ko Lan-kostuari buruzko Inkestaren arabera, langile bakoitzeko lan-kostu gordina 37.106 €-koa zen EAEn (2019. urtearekiko -% 1,2), eta horietatik % 72,65 soldatei eta lansariei zegokien, hots, 26.958 €-koa da (aurreko urtearekiko -% 1,9). Gainerako % 27,35a nahitaezko kotizazioei (% 23,9), borondatezkoiei (% 0,93) eta zuzeneko gizarte-prestazioei (% 1,9).

1,47) zegokien eta gainontzeko % 1,11 beste partida batzuei (gizarte-gastuak, kalte-ordainak, etab.). Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino % 18 handiagoa zen erreferentziako urtean, eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia-erkidego guztietako handiena zen.

4.2.2. Lan-kostuen Hiruhileko Inkesta. 2021. urtea

Deskribatutako urteko inkestaz gain, EINEK "Lan-kostuen hiruhileko inkesta" (LKHI) ere egiten du, EUROSTATen lan-kostu bateratuaren indizea egiteko funtsezko iturria dena, Europako Banku Zentralak Europar Batasuneko herrialdeen arteko konbergentzia prozesuaren jarraipena egiteko eskatutako "euroadierazle" direlakoetako bat delako. Halaber, Inkesta horrek, lan egindako eta lan egin gabeko denborari (ikusitako kapitulu honen 3.3. atala) eta lan-kostuei buruzko informazioa ematen du, lan egindako pertsonako eta hileko (soldaten kontu-sailaren osoa antzekoa da, Urteko inkestan oinarrituz)¹⁶, eta baita lan egindako benetako orduko ere.

Lan-kostuak, enpresak benetako lanordu baten ordaindu behar duen kostua neurtzen du, kopuru garbitan adierazita, eta lan-kostu osoa eta soldata-kostua bereiz daitezke (kostu osoaren % 75-76 ingurukoa dena; ratioa oso egonkorra da denboran eta autonomia-erkidegoaren arabera), langileei egindako ordainketak barne hartzen dituena, eskudirutan edo gauzaz, besteren konturako lan-zerbitzuen emate profesionalarengatik, ordainketa modua edozein dela, eta lan gisa kontuan hartzen diren atsedendialdiak¹⁷.

III.4.5. TAULA. LAN KOSTUAREN ETA SOLDATA KOSTUAREN BILAKAERA, ORDUKO, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (€). IV. HIRUHILEKOAK.										
	LAN KOSTUA			SOLDATA KOSTUA			ALD. % 19/20		ALD. % 20/21	
	2019	2020	2021	2019	2020	2021	LK	SK	LK	SK
ESTATUA	21,56	22,66	22,72	16,24	16,97	17,12	5,1	4,5	0,3	0,9
ANDALUZIA	19,11	20,40	20,15	14,22	15,15	15,01	6,8	6,5	-1,2	-0,9
ARAGOI	21,97	22,56	22,42	16,53	16,92	16,74	2,7	2,4	-0,6	-1,1
ASTURIAS	22,87	24,67	23,86	17,32	18,42	18,04	7,9	6,4	-3,3	-2,1
BALEAR UHARTEAK	21,03	21,45	21,61	15,76	16,00	16,24	2,0	1,5	0,7	1,5
KANARIAR UHARTEAK	17,68	19,01	18,71	13,08	13,86	13,82	7,5	6,0	-1,6	-0,3
KANTABRIA	21,09	21,98	21,16	15,94	16,50	15,90	4,2	3,5	-3,7	-3,6
GAZTELA ETA LEON	19,81	21,64	21,19	14,79	16,25	16,04	9,2	9,9	-2,1	-1,3
GAZTELA-MANTXA	19,11	19,54	20,29	14,16	14,37	15,04	2,3	1,5	3,8	4,7
KATALUNIA	23,31	23,86	24,32	17,64	17,89	18,40	2,4	1,4	1,9	2,9
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	19,18	19,84	20,30	14,28	14,75	15,11	3,4	3,3	2,3	2,4
EXTREMADURA	18,73	18,82	18,68	14,02	14,05	14,07	0,5	0,2	-0,7	0,1
GALIZIA	19,75	20,41	21,11	14,78	15,20	15,71	3,3	2,8	3,4	3,4
MADRIL	24,10	26,02	25,80	18,47	19,79	19,80	8,0	7,1	-0,8	0,1
MURTZIA	19,17	20,62	21,05	14,36	15,46	15,76	7,6	7,7	2,1	1,9
NAFARROA	25,01	25,94	25,70	18,91	19,52	19,34	3,7	3,2	-0,9	-0,9
EAE	26,34	27,60	27,68	19,76	20,61	20,75	4,8	4,3	0,3	0,7
ERRIOXA	20,40	20,72	21,25	15,39	15,55	15,92	1,6	1,0	2,6	2,4

Iturria: EIN: Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta.

Lehenik eta behin, LKHik adierazten du 2021eko laugarren hiruhilekoan **lan-ordu bakoitzeko lan-kostua** 27,68 eurokoa zela EAEn, duela urtebete baino % 0,3, eta % 21,8 gehiago Estatuko batez bestekoa baino,aldi horretan % 0,3 hazi baitzen.


Bestalde, benetako lanorduko lan-kostua 20,75 euro zen EAEn 2021eko laugarren hiruhilekoan (lan-kostu osoaren % 75), aurreko urtean baino % 0,7 gehiago. Horrez gain, zenbateko hori, eta gauza bera gertatzen da lan-kostu osoarekin, autonomia-erkidegoetako handiena da. Atzetik, Madril eta Nafarroa daude. Bestalde, Estatuko batezbestekoa baino %

¹⁶ Lan-kostuei buruzko urteko inkestak, hileron nominetan jasotzen ez diren soldatek kontu-sail batzuei buruzko datuekin osatzen da. Ez da jasotzen hain zuzen mugaeguna hilabete baino handiagoa delako (aurrezki-planak, gauzazko ordainketak, borondatezko kotizazioak eta abar). Zenbatespenen arabera, inkesta horrek lan-kostu osoaren % 98,4 barne hartzen du, eta horregatik ez dator bat bi inkesten emaitzak, antzekoak badira ere.

¹⁷ Xehetasun gehiagorako, Memoria honen amaierara jo daiteke, terminoen glosariara.

21,2 handiagoa da (17,12 euro). Beste muturrean, Kanariak ez dira 14 eurora iristen lan egindako ordu bakoitzeko (13,82 euro lan egindako ordu bakoitzeko), eta Extremadurak, berriz, ozta-ozta lortu du kopuru hori (14,07 €).

4.3. LANEKO PREZIOEN INDIZEAREN EMAITZAK (LPI) 2019¹⁸



EINen "Lanaren prezioen indizeak" lan-eskuak denboran duen prezioaren aldaketa neurtzen du, soil-soilik lan-merkatuaren prezioen ondorioz, hots, neurri hori ez dago eginiko lanaren kalitatearen eta kantitatearen aldaketan eraginpean (esaterako, lan-indarraren eraketaren aldaketengatik, soldatapeko pertsonen ezaugarrien aldaketengatik, etab.), hau da, eraketa-efektua deskontaturik.

Kontsumo eta zerbitzu ondasunen "oinarrizko otzara" estandarizatu neurtzen duen kontsumorako prezioen indizeak bezala (KPI)¹⁹ lanpostuen "oinarrizko otzara" estandarizatuaren prezioaren aldaketak neurtzen ditu LPIk²⁰.

III.4.6. TAULA. LANEKO PREZIOEN INDIZEA. AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERAKO DATUAK. 2013-2019.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
ESTATUA	-0,4	1,0	0,7	-0,2	-0,3	5,6	0,5
ANDALUZIA	-1,1	1,5	1,6	0,0	-0,6	5,2	0,4
ARAGOI	-0,5	2,2	-0,4	0,3	0,3	4,9	1,3
ASTURIAS	-2,9	1,7	1,9	-0,8	0,7	4,2	2,2
BALEAR UHARTEAK	-0,8	3,8	-0,6	-0,1	-1,6	5,4	0,0
KANARIAR UHARTEAK	1,5	-1,6	0,6	-0,7	0,3	6,0	0,4
KANTABRIA	-2,8	3,2	0,6	-0,3	1,2	3,1	2,9
GAZTELA ETA LEON	-0,7	-1,6	2,1	0,7	-0,5	5,3	-0,6
GAZTELA-MANTXA	1,0	0,9	-0,6	-1,0	-1,3	7,8	-0,9
KATALUNIA	-0,6	0,2	1,7	-0,4	0,4	5,9	0,5
VALENTZIako ERK.	-0,5	1,0	1,6	-0,2	-0,7	6,3	0,6
EXTREMADURA	0,0	-3,9	0,2	1,8	-1,1	6,7	-1,0
GALIZIA	-1,0	1,0	2,6	-0,2	1,1	5,2	-0,7
MADRIL	0,3	2,4	-2,4	0,0	-0,9	5,7	1,2
MURTZIA	-2,1	2,1	-0,8	0,1	0,8	4,8	0,3
NAFARROA	1,6	-1,3	2,5	1,7	-0,1	3,9	1,2
EAE	-0,5	0,1	3,0	-1,3	-0,9	4,9	0,1
ERRIOXA	-2,9	3,6	2,0	0,0	-1,2	4,8	-0,6

Iturria: EIN: Lanaren prezioen indizea 2016. oinarria.


¹⁸ Kontuan hartu eragiketa honetako oinarriko urtearen aldaketa Memoria honetako aurreko edizioen aldean: 2008tik 2016r igaro da.

¹⁹ Gaur egun, Espainian LKHI, LKUI eta EES inkestetatik jasotako informazioan, lan- eta soldata-kostuaren batez besteko emaitzak besterik ez dira adierazten, langileko. Horrela, kostuaren aldaketa zein enpleguren konposizioan gertatutako aldaketak barne hartzen dituzte.

²⁰ Informazio gehiagorako, eragiketa estatistiko honen Metodologiara jo daiteke:

http://www.ine.es/dynqs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177027&menu=metodologia&idp=1254735976596

LPI % 0,1 handitu zen 2018 eta 2019 urte bitartean EAEn (eskuratu dugun azken datua). Estatuko batez besteko aldakuntza, berriz, +% 0,5 izan da. Oinarrizko urtetik (2016-2019) izandako bilakaera aztertuz gero, indize-zenbakiek adierazten duten bezala, igoera % 4,05ekoa da: 2019rako EAeko datua 104,05 da, eta Estatuko batez bestekoa, berriz, 105,77; horrek adierazten du aldi berean soldatak % 5,77 igo direla.



4.4. SOLDATEN BANAKETA: 2020KO BAI-REN EMAITZAK

Analisirako eremu zabal horren barruan, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) familiaren “enplegu nagusiaren soldata” aldagaia kodetzen du deziletan, eta informazio hori biltzeko, informazioa ematen duten etxeekin loturiko administrazio-erregistroak erabiltzen ditu. Soldata horren barruan, laneko errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenak eta langileak gizarte segurantzako sistemei eginiko nahitaezko kotizazioak daude, baita aparteko pagei, aparteko orduei eta beste osagarri batzuei dagozkien hainbanaketak ere. Kontuan hartu behar da etxeetako soldaten aldagai hori ezin izan daitekeela esanguratsua, kopuru absolutuetan, zeren eta etxe bakoitzeko bat baizik ez baitu erregistratzen. Hala ere, soldata-masak gure gizartean konparaziozko datuetan duen banaketari buruzko informazioa ematen du dezilen araberako kodetzeak.

Horretarako, jasotako soldaten zenbatekoaren arabera antolatzen da soldatapeko pertsonen lagina estatu mailan, eta ondoren 10 talde berdinetan zatitzen da, hots, langileen % 10arekin haietako bakoitzean. Eginiko zenbatespenen arabera, soldatapeko 16,2 milioi lagun zeuden 2018an eta, beraz, dezil bakoitzak soldatapeko 1,6 milioi lagun biltzen ditu gutxi gorabehera. Horrez gain, batez bestekoak (taldearen batez besteko soldata) eta hura mugatzen duten beheagoko eta goragoko soldatek zehaztu dute dezil bakoitza. Hainbat urtetako magnitudeak alderatuz gero, kontuan hartu behar da dezil bakoitzaren mugak urte bakoitzeko informazioaren arabera zenbatesten direla.

Estatistika-eragiketa horri esker, soldatapekoek Estaturako definituriko soldaten dezil bakoitzean EAEn duten pisua jakin ahal izango dugu, hots, gure Erkidegoak Estaturako eginiko banaketa perfektuarekiko duen presentzia erlatiboa eta, era berean, gainerako autonomia erkidegoekiko²¹.

Lehendabizi, nabarmen dezakegu, 2020. urtean, barne hartzen duen sail guztian bezala, 2010eko dezilean gertatutako salbuespena izan ezik, euskal soldatuen parte-hartzea 1 eta 6 arteko deziletan baino % 10 txikiagoa dela, hau da, soldatarik baxuenetan. 7 eta 10 arteko deziletan, berriz, handiagoa da (% 14,7) Bestela esanda, Estatuko soldaten % 50eko teorikorik handienak EAeko soldatapekoen % 60,2 biltzen du. Estatuko ratorik handiena da, eta ondoren Nafarroakoa (% 62) eta Madrilgo Erkidegokoa (% 58,6) daude, Ceuta eta Melilla ezohikoak kanpoan uzten badira. Beste muturrean, 1etik

²¹ Ez dugu kontuan hartuko, ordea, zenbatekoei buruzko informazioa, izan ere, familien soldata guztiak ez dituenek barne hartzen (nagusia bakarrik), ez da errealitatearen adierazgarria.

3ra arteko dezilek (soldatarik txikiak) EAEko soldatapekoen % 21,2koa biltzen dute % 30 teorikoaren aldean, autonomia erkidego guztietako txikiak. Haren atzetik Nafarroa dago (% 23,4), eta beste autonomia-erkidego batzuk, aldiz, % 40aren inguruan dabilta, hala nola Extremadura edo Kanariak.

III.4.7. TAULA. SOLDATAPEKOEN EHUNEKOA, ESTATURAKO FINKATUTAKO SOLDATEN DEZILEKO. AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERAKO DATUAK. 2020.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	GUZTIRA
ESTATUA	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	100,0
ANDALUZIA	11,6	12,8	12,9	10,1	10,6	9,5	8,9	8,1	8,4	7,1	100,0
ARAGOI	7,8	8,2	8,4	11,4	10,2	13,3	13,0	12,2	9,7	5,7	100,0
ASTURIAS	9,3	7,0	9,8	8,9	8,8	11,7	10,7	10,2	11,5	12,0	100,0
BALEAR UHARTEAK	8,9	11,6	12,1	13,1	11,3	11,7	9,1	6,8	8,8	6,6	100,0
KANARIAR UHARTEAK	10,9	16,3	12,9	13,1	10,9	7,7	7,6	5,7	8,5	6,3	100,0
KANTABRIA	11,6	10,9	8,7	9,1	9,8	11,8	9,8	10,7	9,4	8,4	100,0
GAZTELA ETA LEON	10,1	9,0	11,3	10,9	11,5	10,2	10,1	8,7	10,1	8,1	100,0
GAZTELA-MANTXA	9,8	9,8	10,7	12,4	13,1	9,9	9,1	9,0	8,6	7,6	100,0
KATALUNIA	9,8	8,4	8,0	8,6	8,6	10,8	11,8	11,4	11,0	11,4	100,0
VALENTZIAR ERK.	11,5	10,3	10,0	12,2	10,4	10,5	9,9	8,8	8,7	7,7	100,0
EXTREMADURA	12,7	14,6	13,2	11,4	10,2	7,8	7,6	7,4	9,0	5,9	100,0
GALIZIA	9,9	9,7	11,0	10,6	11,7	12,0	8,8	8,4	9,3	8,6	100,0
MADRIL	8,3	7,9	8,1	8,0	9,1	8,7	9,5	13,1	11,5	15,8	100,0
MURTZIA	9,3	12,1	14,1	11,8	11,0	9,4	9,6	8,1	7,4	7,2	100,0
NAFARROA	9,7	6,3	7,4	7,2	7,5	9,1	14,5	14,5	12,5	11,4	100,0
EAE	9,7	8,0	6,5	7,5	8,1	9,1	10,9	11,5	14,0	14,7	100,0
ERRIOXA	8,6	10,6	8,4	10,4	11,5	11,3	13,1	11,3	7,7	7,0	100,0
CEUTA	3,3	9,6	9,6	9,8	6,0	12,8	10,7	9,3	11,1	17,7	100,0
MELILLA	7,1	5,1	4,4	6,9	6,5	12,5	9,1	6,6	16,5	25,5	100,0

Iturria: EIN: Biztanleria Aktiboaren inkesta.

Azken finean, BAIren emaitzetatik ondorioztatzen denez, dezilik handienetara desbideratzen da soldaten banaketa EAEn estatuko batez bestekoarekiko, zeren eta soldatapekorik gehienak banaketaren eskuineko aldean baitaude kokatuta.

Denborari dagokionez, EAEko soldaten banaketa erlatibo hori nahiko egonkor mantendu da, baina batez besteko banaketarekin bat egiteko joerarekin. 2009-2020 aldian, adibidez, soldaten dezil txikiak % 7tik % 9,7ra igo da, eta bigarrena % 7,4tik % 8ra. Beste muturrean, dezil handiena % 14tik % 14,7ra igo da,

III.4.8. TAULA. EAE-KO SOLDATAPEKOEN BANAKETAREN BILAKAERA DEZILEN ARABERA ESTATUKO SOLDATAK DATUAK EHUNEKOETAN.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2009	7,0	7,4	6,0	6,3	6,6	8,9	14,0	13,0	16,8	14,0
2010	8,0	6,8	5,4	6,8	8,6	10,3	12,1	13,4	14,4	14,1
2011	8,3	7,8	5,2	5,8	7,3	9,7	12,0	13,5	15,9	14,4
2012	7,5	9,0	6,5	5,4	8,6	9,6	11,4	12,1	14,5	15,3
2013	7,5	8,4	6,0	6,9	9,0	8,7	11,2	13,0	15,3	14,1
2014	8,5	7,5	6,3	6,1	7,8	9,5	11,1	13,4	16,4	13,5
2015	8,0	7,3	6,1	5,8	6,8	8,5	10,7	14,9	17,5	14,5
2016	8,8	7,8	4,4	7,0	6,6	8,5	11,8	13,8	15,6	15,8
2017	7,6	7,5	6,5	6,4	6,8	8,9	12,0	14,5	14,5	15,3
2018	8,1	7,2	5,9	6,8	7,9	8,4	12,1	13,5	15,6	14,6
2019	8,1	7,2	6,4	5,7	6,8	10,4	12,1	11,4	15,6	16,3
2020	9,7	8,0	6,5	7,5	8,1	9,1	10,9	11,5	14,0	14,7

Iturria: EIN: Biztanleria Aktiboaren inkesta.

baina bederatzigarrena % 16,8tik % 14ra jaitsi da, baita zortzigarrena ere (% 13tik % 11,5era).

5. ENPLEGU POLITIKAK

5.1. ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK

Enplegu politika aktiboak (EPA) tresna nagusietako bat dira Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak ezarritako Enplegu Estrategiak eta horiek garatzen dituzten Planak garatzeko, laneratzea, mantentzea eta lan sustatzeko bultzatzeko, pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, enplegu-mailak handitzeko eta Euskadin enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea indartzeko.

5.1.1. Enplegurako Euskal Estrategia 2030

2021eko apirilean onartu zen 2030erako EEE, eta etapa berria ireki zuen kalitatera, gizarteratzera eta berdintasunera bideratutako enplegurako politiketan. Horrez gain, trebakuntzarako eta aktibaziorako eskubide subjektiboari aurre egiten dio, enplegua Euskadik aurrea egiteko eta gizarte-kohesioa lortzeko bitarteko izan dadin.

Estrategia lerrokatuta dago Gobernuko programaren ardatzekin, Berpiztu programarekin, Espainiako Gobernuko Estrategiarekin, Next Generation EU proiektuarekin eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuekin, batez ere lan txukunari eta hazkuntza ekonomikoari dagokionarekin. Horren bidez, kalitatezko enpleguak bermatze aldera, administrazioei eskatzen zaie enplegu zerbitzu publiko aktibatzaileak diseinatzeko, elkarriketa soziala eta negoziazio kolektiboa sustatzeko, elkarlaneko lan-harremanen alde egiteko eta formula ekonomiko berritzaile, iraunkor eta inklusiboen alde egiteko. Estrategiaren helburua da Euskadiko gizartea eta ekonomia iraunkortasunez eta berdintasunez garatzen laguntzeko lan-merkatu bat antolatzea. Ildo horretatik, berdintasunean kalitatezko enplegu-aukerak emango ditu, gizarteratzea eta giza garapena bultzatzeaz gain.

Hona hemen bere **ikuskerak eta helburuak**:

III.5.1. TAULA. 2030ERAKO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIAREN IKUSPEGIA ETA HELBURUAK	
IKUSPEGIA	HELBURUAK
Euskadiren garapen sozial eta ekonomiko jasagarria eta berdintasunaren alde egiten duen lan-merkatua. Horrez gain, kalitatezko enplegu-aukera berdinak, inklusio soziala eta giza garapena defendatzen dituenak, enplegu politika aktiboak eskubide subjektibotzat jotz eta eskubide horren ondorioz, euskal enplegu-sistemako enplegu eskaera-eskaintzei erantzun arin eta eraginkorrek emanez eta enpresa eta pertsonen beharrianak kontuan hartuz.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kalitatezko enpleguan sakontzea, gizarteratzeko eta gizakia garatzeko funtsezko tresna baita. 2. Enplegu erresilientearen bidez Euskadiko gizartea eta ekonomia garatzen laguntzea. Batetik, gure produkzio-sisteman sortuko diren aldaketetara egokitzeko goi-mailako gaikuntza iraunkorra duten pertsonak osatuko dute. Bestetik, enpresak egongo dira lanbide- eta bizi-mailan aukera-ageretoki erakargarriak eskaintzen. Lan-aktibazio nahikoa sortzea sustatuko da, eta talentua kudeatzeko neurriak zehaztuko dira, horiei esker, gure produkzio-sektoreak ematen dituen garapen-aukerei erantzun ahal izango baitzaizkie. 3. Eskubide subjektibo gisa, enplegu politika publikoetarako eskubidea ezartzea eta eskubide hori dela bide, enplegu zerbitzu publiko eraginkorra eta kalitatezkoa izan dadin lortzea, erantzun egokiak eta azkarrak emateko gai izan behar baitu, batetik, enpleguaren galera minimiza dadin eta, bestetik, susperraldia edo eraldaketa sistematiko eta sektorialak azkarragoak izan daitezten. 4. Enpleguari dagokionez, aukera-berdintasun eraginkorra bermatzea.

Estrategiak, gainera, lehenetsunez jotzat jotzen diren **proiektu traktore** batzuk identifikatzen ditu:

1. proiektu traktorea: EAEko Enplegu Sistemaren Legea: Lege horrek enplegu-politiketarako eskubide subjektiboaren printzipiotik politika aktiboak planifikatzea eta garatzea ahalbidetzen duten egiturak eta tresnak arautu eta antolatu beharko ditu. Besteak beste, lege honek hauexek bete beharko ditu:

- Sistema osatzen duten eragileak eta harremanen eredia definitzea.

- Enplegu Sistemaren onuradun diren zerbitzu, pertsona eta eragileak definitzea.
- Parte hartzeko organoak eta EAEko Enplegu Sistema ezartzea eta haren plangintza-tresnak definitzea.

2. proiektu traktorea: Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 4/2011 Legearen erreforma: Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Errenta Euskadin gertatutako gizarte-eskubideen arloko mugarri handietako bat da. Kontua da hura eguneratzea, lan-aktibazioarekin eta enplegu-politika aktiboekin duen lotura indartuz, baita beste sistema batzuekin ere (politika sozialak, sanitarioak, soziosanitarioak, hezkuntzakoak ...), tresna horren onuradunei laguntza integrala eta koordinatuagoa bermatzeko.

3. proiektu traktorea: Lanbide hobetzen: Lanbide EAEko Enplegu Sistemaren funtsezko tresna publiko gisa hobetzea euskal enplegu-politikaren etapa berri honetarako proiektu bultzatzaile gisa ulertu behar da nahitaez. Hainbat azpiproiektutan oinarritzen da proiektua, eta honako hauek nabarmentzen dira:

- LANBIDEn eraldaketa juridikoa eta antolaketakoa, erantzun malguagoak eta arinagoak eman ditzakeen zerbitzu publikoa den aldetik eratzeko.
- Bulego Birtuala (e-Lanbide). LANBIDEn barne-digitalizazioaren (kudeaketa mailan) eta kanpo-digitalizazioaren (arreta-ereduan eta zerbitzuak emateko ereduan) aldeko apustu sendoa.
- Lanbide Sareak erakunde laguntzaileen sare bat eratu eta dinamizatzearen aldeko apustua egin du, EAEko Enplegu Sistema osatzen duten eragileen gaitasunak aprobeztatu eta baliozko zerbitzurik onenak eskaini ahal izateko, eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioetan oinarrituta.
- Lanbide Irekia, gobernantza irekiago batean sakonduz, gardentasuna, kontuak ematea eta datuak irekitzea barne hartzen dituena, Lanbideren antolaketa kulturaren funtsezko elementua den aldetik.
- Enpresentzako Zerbitzuen Zorroa garatzea, enpresak ere Lanbideko funtsezko bezerotzat hartuta.
- Landunei zuzendutako zerbitzu-zorroa garatzea, landunei etengabeko ikaskuntzarako orientazioan eta laguntzan sakonduz, haien garapen pertsonala eta profesionala errazteko, trebakuntzatik abiatuta, eta kompetentzia ez-formalak aintzatesteko aukera emango duten mekanismoak azpimarratuz.

4. proiektu traktorea: Enplegurako Prestakuntzako Euskal Esparrua eraldatzea, EAEko enpresen eta langileen premia espezifikoetara egokitu dadin, eta kalitatearen, aurrerapenaren eta berrikuntzaren printzipioen arabera jardun dezan. Hori guztia gizarte-eragileek beren prospekzio-lanean parte hartzearekin lerrokatuta, Prestakuntza Beharrak Aztertu eta Hautemateko Aholku Batzordea indartuta.

5. proiektu traktorea: Enplegu eta Prestakuntza Plana, 3 trantsizio handiei dagokienez: Enplegu eta prestakuntzako zeharkako plan bat garatzea, pertsonak eskakizun eta aukera berri horietara egokitzeko 3 trantsizioei (teknologikoa-digitala, energetikoa-klimatikoa eta soziala eta sanitarioa) erantzuna emateko.

6. proiektu traktorea: Erresilientzia programa: Sektore tradizioaletako enplegua: Birkualifikazioko, etengabeko prestakuntzako eta enpleguko programa bat garatzea sektore giltzarrietan, berreskuratzeari erantzuteko eta gako ekonomiko berrietara egokitzeko. Sektore horietan lan egiten duten pertsonak aktibatzen, orientatzen, prestatzen eta enplegatzen laguntzea, haien profil profesionalak testuinguru sozioekonomiko berrian gertatzen ari diren beharretara eta aldaketetara egokitzen direla bermatzeko.

7. proiektu traktorea: COVID-19 talka-plana: Talka-plana garatzea, Covid-19aren krisiaren ondorioz galdutako enplegua berreskuratzen laguntzeko, betiere arreta berezia jarrita kolektiboetan (gazteak eta zaharrenak) eta gehien sufritu duten eskualdeetan.

8. proiektu traktorea: Euskadiko enplegatzaileei laguntzeko planak ebaluatzeako sistema: Euskal gizarteak urtero enplegu-politika aktiboetan egiten duen inbertsio izugarriak politika horiek benetan lortu nahi den eragina izango dutela bermatzea eskatzen du, eta, beraz, Euskadiko enplegu-politika aktiboak ebaluatzeako sistema diseinatzea eta ezartzea proiektu estrategikotzat jotzen da. Sistema horrek honako elementu hauek kontuan hartuko dituen ebaluazio aurreratua bermatu beharko du:

- 360º-ko ebaluazioa, erabiltzaileen (pertsonek eta enpresak) eta esku hartzen duten eragile guztien ebaluazioa barne hartzen duena, Euskadiko Elkarrizketa Sozialeko Mahaian ordezkariak duten eragileentzat zeregin berezia duena.
- Zerbitzuen eta programen eraginkortasuna, efizientzia eta eragina bezalako irizpideak bereziki azpimarratuko dituen ebaluazioa.
- Ekintzara bideratutako ebaluazioa.
- Ebaluazio gardena.

5.1.2. 2017-2020ko Enplegu Plana. Ebaluazioa²²

Bigarren mailan, EEEn ondoren, Enplegu Planak daude. 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak plano operatiboan zehazten zituen aurreko Enplegu Estrategian (EEE 2020) definitutako jarraibideak, Eusko Jaurlaritzaren barruan enplegua sustatzearekin lotutako zerbitzuak eta programak gauzatzen dituzten sailen lan-tresna izan zitezen, enpleguaren ikuspegi zabala mantenduz, lanaren, hezkuntzaren eta sustapen ekonomikoaren dimentsioekin lotutako alderdiak barne hartzen dituen.

Era berean, “Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko 2017-2020ko Esparru-programa” delakoaren funtsezko zatia da, eta horretan ere biltzen da, ekonomia suspertzearen arloan, Eusko Jaurlaritzak berrikuntzaren, nazioartekotzearen, industrializazioaren eta inbertsioaren arloan garatuko dituen oinarrizko lerro estrategikoak.

III.5.2. TAULA. 2017-2020KO PLANAREN HELBURU ESTRATEGIEKO LORTZE-MAILA

2017-2020RAKO HELBURU ESTRATEGIKOETAN AURREIKUSITAKO KOPURUA	HELBURUEN BENETAKO KUANTIFIKAZIO METATUA 2020/12/31N	2017-2020RAKO AURREIKUSITAKO HELBURU ESTRATEGIKOEN AURRERAPEN-MAILA
2020ko azken hiruhilekoan langabezia-tasa % 10en azpitik	Langabezia-tasa: %11,2 2020ko IV hiruhilekoa. (EUSTAT)	Abiapuntuko egoerarekin alderatuta (% 12,6 2016ko IV. hiruhilekoan), langabezia-tasa ehuneko 1,4 puntutan murrizten laguntzea.
2017-2022 aldian 58.000 lanpostu sustatzea*	2018., 2019. eta 2020. urteetan 76.862 enplegatu sustatu dira.	2017-2020rako aurrez ikusitako enpleguen % 133 sortzen laguntzea. Enplegua sortzeko guztizko helburua aurrez ikusitakoaren gaineratik betetzea.
2017-2020 denboraldian 20.000 gazterentzat lan-aukera.	2017., 2018., 2019. eta 2020. urteetan 35.909 gazte lan-aukerarekin.	2017-2020rako gazteen % 180ri lan-aukera ematen laguntzea. Aurrez ikusitakoaren gaineratik bete da helburua.

Hasierako aurreikuspena 45.000 lanpostu sustatzen zen. Hasierako aurreikuspenari 13.000 enplegu erantsi zaizkio, hain zuzen, Administrazio Orokor, Osakidetza, Hezkuntza eta Ertzaintzako enplegu-eskaintza publikoetan sartutako lanpostuenak. *Iturria: Eusko Jaurlaritza. 2017-2020rako Enpleguaren Plan Estrategikoa - 2020ko Jarraipen Txostena eta 2017-2020rako Balantze Globala.*

²² Memoria hau egiten ari garen honetan, 2021-2024 Enplegu Plan Estrategiko berria jasotako 2017-2020 Enplegu Planaren azken balantzeari buruzko informazioa baino ez daukagu, III.5.2 taulan jasotzen dena.

2022an onartutako **2017-2020ko Enplegu Plan Estrategikoaren** arabera²³, 2017-2020ko Enplegu Plana eta haren helburuak lortzea pandemiaren agerpenak eta haren inpaktuek baldintzatu zuten 2020an maila guztietan, bai eragin sozial eta ekonomikoetan (enpleguaren egoera barne), bai jardun publikoaren lehentasun eta gaitasunetan, hain testuinguru konplexu batean. Hori dela eta, Sailaren ustez, haren zenbait jardun-ildo indarrean daude oraindik. 2017-2020ko Planaren helburu estrategikoak lortzeko aurrerapen nagusiak III.5.2 taulan jaso dira.

5.1.3. LANBIDEren (Enplegurako Euskal Zerbitzua) jarduera.

LANBIDEk funtsezko eginkizuna du eratzia EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Enplegu Plana abiarazteko, zeren eta haren funtzioak lan jardura (enplegua sustatzeko programekin, bitartekaritzarekin, orientazioarekin, etab.) eta enplegurako prestakuntza baitira, landunena nahiz langabetuena, baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta beste prestazio osagarri batzuk kudeatzea ere.

Aurrekontu-likidazioetatik abiatuta (aitortutako obligazioak), LANBIDEk 2020an 850,5 milioi euroko gastua izan zuela ezagutzen da, 2019an baino % 2,8 gehiago; horietatik 476,7 milioi euro bideratu ziren Gizarteratze Programara (2019an baino % 5,6 gehiago), 244,4 milioi euro (% 28,7) Enplegu Programara (2019an baino % 0,7 gutxiago) eta 85,8 milioi (gastuaren % 10,1) Prestakuntza Programara (2019an baino % 18,5 gutxiago). Era berean, LANBIDEk 21,2 milioi euroko aparteko partida bat izan zuen 2020an, COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurrietarako eta, zehazki, enpresei (17,9 milioi euro) eta familiei (2 milioi) laguntzeko²⁴.

Prestakuntza- eta enplegu-programen batura enplegu-politika aktiboetan egindako gastua kontuan hartzea sinplifikatzea bada ere, gizarteratze-programekin duen lotura dela eta, Lanbidek 2020an enplegu-politika aktiboetan egindako gastua 330,2 milioi eurokoa izango dela kalkulatu daiteke, 2019an baino % 6 gutxiago, 2018tik 2019ra bitartean izandako % 16,4ko hazkundearen aldean.

Azkenik, 2021ean, eta likidazioari dagozkion kopuruak izan gabe, Lanbidek 966,4 milioi €-ko aurrekontua izan zuen²⁵, beraz, % 13,6ko igoera gertatu zen 2020ko likidazioaren aldean. Horietatik, 475,9 milioi gizarteratzeko bideratu ziren; 281,7 milioi euro, enplegurako, eta 126,2 milioi, prestakuntzarako. Era berean, LANBIDEk ezohiko bi partida izan zituen:

²³ *Gobernu Kontseiluak 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa onartu zuen 2022ko apirilaren 12an. Tresna horren bidez, Euskadi pandemiaren ostean bultzada sozioekonomikoa ematen lagundu nahi da, hiru trantsizioak ezarriz (digitala, energetiko-klimatikoa eta demografikoa) eta enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa sustatuz, kontratu sozial berri baterako. Planaren erronka ez da enplegu gehiago sortzea bakarrik, bai eta enplegu hori kalitatezkoa eta pertsona guztien gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzen duen baldintzetan izatea ere. Gizarte-eragileen artean orekak lortu nahi dira asmo hori ekonomia lehiakor eta globalizatuan bete ahal izateko.*

Planaren helburu kualitatiboak honako hauek dira: enpleguaren behin-behinekotasuna, nahi gabeko partzialtasuna, lan-istripuak, lan-merkatuan genero-berdintasuna sustatzea, gazteen enplegua, iraupen luzeko langabezia murriztea eta enplegatuen nahiz langabeen enplegua eta prestakuntza babestea hiru trantsizioetarako.

Era berean, talde kalteberei eta enplegurako orientazio, ekintzailatza, laguntza eta berrikuntza-zentroen sareari laguntza bilatzen du, LANBIDEN esku hartzeko eredu berri bat garatzea, laneratze ibilbide pertsonalizatuak garatzea eta Enpleguaren Euskal Legea egitea.

Kopuru handiak honako hauek dira: 80.000 lanpostu sustatzea, 23.000 enpresari laguntzea, 43.000 pertsonaren gaikuntza eta kualifikazioa hobetzea, beste 16.000 pertsona prestatzea gaitasun digitaletan, 5.000 pertsona gaitzea zaintzaren sektorean, 52.000 langileren enplegarritasuna hobetzea eta langabezia-tasa % 10etik behera jartzea.


Plan hori bat dator Enpleguaren Espainiako Estrategiarekin, Gizarte Eskubideen Europako oinarriarekin, Garapen Jasangarrirako Helburuekin, 2030 Agendarekin, Next Generation EB programarekin, Ekonomia Berreskuratu, Eraldatu eta Biziberritzeko Planarekin, legegintzaldi honetako 2020-24ko Gobernu Programarekin, Euskadiko Suspertze Ekonomikorako eta Enplegurako 2020-24ko Berpiztu Programarekin eta saileko beste plan eta programa batzuekin. Era berean, enpleguaren arloan hiru foru aldundiek eta hiru euskal hiriburuetakoa udalek kontuan hartzen dituzten planak eta programak deskribatzen ditu.

2022ko Memoria Sozioekonomikoan Plan honen eta haren jarraipenaren xehetasun gehiago sartuko dira.

²⁴ *Gainerakoa, gutxi gorabehera gauzatutako gastuaren % 2,7, erakunde horren egitura eta laguntza gastuei dagokie.*

²⁵ *Aurrekontu eguneratua, likidazioa kontuan hartuta, 2021eko azarora arte.*

bata, 8,2 milioi eurokoa, COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurrietarako, eta bestea, 40,6 milioi eurokoa, "Suspertzeko eta Biziberritzeko Mekanismoa" programaren kontura.



El cuadro III.5.3 presenta el detalle de los programas de políticas activas de empleo desarrolladas por LANBIDE en 2021, con información de sus resultados a 15 de junio de 2022.

III.5.3. TAULA LANBIDEK 2021EAN GARATUTAKO ENPLEGU POLITIKA AKTIBOEN EKIMENAK. EKINTZEN XEHETASUNAK ETA EMAITZAK.

PROGRAMA/ DEIALDIA	Ekintzaren deskribapena	2021eko aurrekontu programatua	2021ean gauzatutako aurrekontua	Emaitzak	OHARRAK
1. Ekintzaitzarako laguntzak (Sortzea eta sendotzea)	Mikroenpresa eta enpresa txiki berriak garatzen eta abian jartzen laguntzea, betiere euskal administrazioaren tresnetatik emandako zerbitzuen bidez edo beste eragile batzuekin lankidetzan.	3.705.000 €	Ez dago behin betiko daturik.	1.435 diru-laguntza eman dira 4 laguntza-lerroen artean (379 ideiak, 204 jarduerak, 177 establezimendua eta 675 finkapena).	2021eko datuak behin-behinekoak dira
2. ABEEEn dauden pertsonentzako aparteko laguntzak	Krisialdian enplegua ez desagerrarazteko sistemak babestea (ABEEEn osagarriak, txanda-kontratuen osagarriak eta abar).	7.541.900 €	872.995 €	2.201 eskabide onartu dira	ABEEE osagarrien bi deialdi egin dira 2021ean. Guztira 2.683 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 2.201 eman dira.
3. Langabezia-prestazioen onuradunei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak, ordainketa bakarreko modalitatean	Langabezia-prestazioen onuradunei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak, ordainketa bakarreko modalitatean.	500.000 €	161.517 €	538 diru-laguntza eman dira	Langile autonomoek hobari ugari baliatu ahal izango dituzte kuota murrizteko, baldin eta ordaindu beharreko diru-laguntzen zenbatekoa txikiagoa bada.
4. Hiru unibertsitateentzako diru-laguntzak (EHU, Arrasate, Deustu)	Unibertsitateekin lankidetzak hitzarmenak eta ekimenak garatzea, laneratzeari eta ekintzaitzeari buruz sentibilizatzeko eta unibertsitatearen arloan sortutako ekimen ekintzaileak babesteko (graduak, graduondokoak eta doktoregoak).	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA 166.138 € MONDRAGON UNIBERTSITATEA 87.482 € EHU 262.448 €	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA 166.138 € MONDRAGON UNIBERTSITATEA 87.482 € EHU 262.448 €	- 1.450 unibertsitariori eman zaie arreta - Zerbitzua jaso duten pertsonen kontratazioa: 141	Deialdia (20/07/01 - 21/06/30)

5. Tokiko enplegua garatzeko eta sortzeko proiektuak	Langabeen laneratzea sustatzea tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez	36.100.000 €	- 2020ko deialdia, likidazioa amaitzeke: 16.550.700,26 € - 2021eko deialdia: 17.539.270,30 €	- Ekintzak aurkezten dituzten 49 udalerrri edo mankomunitate - 774 ekintza proposatu dira - 4.095 kontratu aurreikusita	2021eko deialdia ez da likidatuko 2022. urtearen amaierara arte. Adierazleen datuak aurkeztutako proiektuen arabera aurreikusitakoak dira.
6. Gazteak kontratatzea	Gazteak kontratatzea	6.500.000,00 €	4.983.280,00 €	- 38 toki-erakunde onuradun - 208 gazte kontratatu dira	250 kontratutarako diru-laguntzak eman dira, baina, azkenean, 208 kontratu egin dira.
7. 177/2010 Dekretua, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa	Kontratazioa sustatzea, enpresei laguntza emanez lana eta familia bateragarri egiteko neurrien erabilera sustatzeko	2.200.000,00 €	1.142.660,36 €	- 853 diru-laguntza eman dira (290 kontratazio berriengatik eta/edo luzapenengatik eta/edo lehendik zeuden kontratazioen lanaldi-luzapenengatik)	
8. 2021eko deialdia, Enplegu Nitxo Berrien (ENB) esparruan kompetentzia profesionali buruzko prestakuntza-ekintzak egiteko diru-laguntzak emateko, A blokea - Kompetentzia digitalak. Deialdiaren eremu horretako prestakuntza-ekintzak langabeentzat.	Langabeen gaikuntza eta birkualifikazioa bultzatzea, trantsizio digitalaren arloko prestakuntza-ekintzen bidez	3.622.325,29 €	3.475.330,95 €	791 langabek parte hartu dute enplegurako prestakuntza-ekintzetan	
9. 2021eko deialdia, Enplegu Nitxo Berrien (NNE) esparruan lanbide-gaitasunei buruzko prestakuntza-ekintzak egiteko diru-laguntzak emateko, C blokea- Energia arloa-Ekologikoa.	Langabeak gaitzea eta birkualifikatzea bultzatzea, trantsizio energetiko klimatikorako prestakuntza-ekintzen bidez	1.400.950,99 €	1.306.176,66 €		Ekintzak 2022an gauzatuko dira, baina prestakuntza planen lehen ordainketa 2021ean egin da.
10. Trantsizio energetiko-klimatikoaren eremuko lanbide-arloei lotutako prestakuntza-ekintzak kontratatzeko konpromisoaren deialdia.	Langabeen enplegarritasuna hobetzea trantsizio energetiko-klimatikoan eragina duten prestakuntza-ekintzen bidez, enpresek kontratatzeko konpromisoa hartuta.	631.961,03 €	631.961,03 €	- 287 pertsonak parte hartu dute kontratatzeko konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetan - 103 pertsona kontratatu dira kontratatzeko konpromisoa duten prestakuntza-ekintzen ondorioz	
11. 2021eko enplegu-nitxo berrien deialdia	Langabeen gaikuntza eta birkualifikazioa bultzatzea, trantsizio sozial eta demografikoko prestakuntza-ekintzen bidez	1.226.180,74 €	1.143.229,61 €		Ekintzak 2022an gauzatuko dira, baina prestakuntza-planen lehen ordainketa 2021ean egin da.

<p>12. Kudeaketa-gomendioa Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoei langileen nekazaritzako, itsasoko, arrantzako eta elikagaigintzako gaikuntza langabeak 2020.</p> <p>HAZI Fundazioari enkargatzea nekazaritza-gaikuntzarako prestakuntza-programazioa, Itsaso, arrantza eta elikagai zerbitzuak, langabeentzat</p> <p>Kudeaketa agindua Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoei, prestakuntzarako langabeak</p> <p>Ikastetxe pribatu eta publikoetan prestakuntza emateko deialdia 2020-2023 Ikastetxe pribatu eta publikoetan prestatzeko deialdia. 2022-2024.</p>	Langabeen gaikuntza eta birkualifikazioa bultzatzea, lan-merkatuaren beharretara egokitutako enplegurako prestakuntza-ekintzen bidez	39.479.346,98 €	39.474.370,49 €	20.946 langabek parte hartu dute enplegurako prestakuntza-ekintzetan	
<p>13. Gomendioa HABE - Hizkuntza Lanera Programa</p>	Euskararen ikaskuntza Lanbide Heziketaren bidez integratzea (LANBIDEREkin hitzarmena, langabeak euskalduntzeko)	350.000,00 €	244.605,20 €	292 langabek parte hartu dute euskarazko prestakuntzan	
<p>14. Enplegu Zentro Bereziak (EZB) eta Laneratzeko enpresak</p>	Desgaitasuna duten edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen gaikuntza hobetzea, Enplegu Zentro Berezien eta Laneratzeko Enpresen jardueri lagunduz, urtean lanpostuak mantenduz.	55.100.000,00 €	55.100.000,00 €	10.038 pertsonak parte hartu dute urtero Enplegu Zentro Berezien eta Laneratzeko Enpresen jardueretan.	
<p>15. Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arruntetan kontratu MUGAGABEAK egiteko laguntzak</p>	Desgaitasuna duten edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonak merkatu arrunteko enpresetan laneratzeko laguntza	700.000,00 €	505.320,68 €	139 pertsona desgaitasuna duten edo baztertzeko arriskuan daudenak, merkatu arrunteko enpresetan kontratatuak	
<p>16. Enplegu lagundua</p>	Laguntza-jarduera integraletan parte hartzen duten bazterketa-egoeran dauden pertsonen % 10 lan-merkatuan sartzea lortzea, laguntza-prozesuen ondoren	1.000.000,00 €	500.000,00 €	- 77 laneratzeko justifikatuko 24 kontratu mugagabe - 2021ean lan-kontratu bat lortu duten 77 desgaitasuna duten pertsonak	Emandako datuak justifikatu diren datuak dira, baina berrikustea falta da bigarren ordainketa egiteko eta espedienteak ixteko. % 50eko lehen ordainketari dagokion milioi erdi euro gauzatu dira.
<p>17. 30 urte edo gehiagoko luzaroko langabeak kontratatzeko laguntzen deialdia.</p>	Luzaroko langabeei lan-merkatuan sartzen laguntzea, lan-munduan sartzen laguntzeko jarduera integralen bidez	1.410.000,00 €	586.644,30 €	Luzaroko 70 langabe, > 30 urtekoak, kontratatuak	

<p>18. Enplegurako prestakuntzaren eskaintza: pertsona landunak 2020-2023. Enplegurako prestakuntzaren eskaintza: pertsona landunak 2022-2024. Kudeaketa agindua Hezkuntza Saileko LHko ikastetxe publikoekin, pertsona landunen prestakuntzarako 2020. Kudeaketa agindua Hezkuntza Saileko LHko ikastetxe publikoekin, nekazaritzaren, itsas arrantzaren eta elikaduraren arloko gaikuntza emateko 2020an. HAZI Fundazioari enkargatzea nekazaritza, itsas arrantza eta elikagaigintzaren arloko gaikuntzarako prestakuntza-programazioa, langile landunentzat.</p>	<p>Langileen enplegarritasuna hobetzea, enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartuz</p>	<p>18.920.323,73 €</p>	<p>18.638.801,14 €</p>	<p>51.278 langilek parte hartu dute enplegurako prestakuntza-ekintzetan</p>	
<p>19. AUKERABERRI</p>	<p>Krisian dauden sektoreak. Birkualifikazioa.</p>	<p>2.000.000,00 €</p>	<p>77.903,43 €</p>	<p>- 477 gonbidatu</p> <p>- 241 parte-hartzaile (182 gizon eta 59 emakume), harremanetan jarritako 158 enpresa</p> <p>- 173 lan-eskaintza</p> <p>- 254 lanpostu eskaintza horietan</p>	<p>Programa, taldea, aplikazio informatikoa, prozedurak eta prozesuak sortzea. Pertsonekin eta enpresekin ekintzak egin dira</p>
<p>20. HEZIBI</p>	<p>Hezkuntzaren arlotik lanaren arlora igarotzeko esperientzia praktikoa erraztea unibertsiteateko eta lanbide-heziketako azken mailako ikasleei</p>	<p>875.583,67 €</p>	<p>862.704,95 €</p>	<p>693 ikaslek parte hartu dute</p>	
<p>21. ERRELEBO-KONTRATUA</p>	<p>Sektore pribatuan errelebo-kontratuen bidez gazteak kontrata ditzaten sustatzea</p>	<p>1.000.000 €</p>	<p>997.080 €</p>	<p>116 diru-laguntza eman dira</p>	<p>2021eko ekitaldian 17 eskaera ukatu ziren aurrekontua agortu zelako.</p>
<p>22. LEHEN AUKERA</p>	<p>Gazteak lan-merkatuan (enpresetan) sartzeko ekintza, haien enplegarritasuna hobetuz eta haien laneratzea sendotzen lagunduz</p>	<p>4.000.000 €</p>	<p>2.060.778,37, €, 2021eko deialdikoak</p> <p>1.113.896,33, €, 2020eko deialdikoak</p>	<p>- 395 praktikaldiko kontratu, gazteei egitekoak</p> <p>- 130 kontratu mugagabe</p>	
<p>23. ENPLEGU-ORIENTAZIORAKO DEIALDIA 2021-2023</p>	<p>Orientazioa erakunde laguntzaileen bidez</p>		<p>1.190.000 €, 21-23 deialdikoak</p>	<p>27.500 pertsona ingururi eman zaie arreta</p>	
<p><i>Iturria: LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua.</i></p>					

5.1.4. Enplegurako prestakuntza, landunei lehentasunez zuzendutakoa

Indarreko araudiaren eta eskumen-banaketaren ondorioz, langileei zuzendutako etengabeko prestakuntzako jarduerak Estatuko Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioaren (FUNDAE) eta LANBIDEn bitartez kudeatzen dira EAEn, HOBETUZ Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren likidazio-prozesua amaitu eta LANBIDEn sartu ondoren. Ekintza horiek batez ere baterako diru-bilketaren kuoten eta aurrekontu publikoetatik datozen funtsen kargura finantzatzen dira, bai Administrazio Zentraletik (SEPERi esleituak), bai Eusko Jaurlaritzatik, LANBIDEn kasuan.

Langileen etengabeko prestakuntzarako FUNDAEk, Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioak (enpresa-planetarako, sektorearteko prestakuntza-planetarako, sektorearteko prestakuntza-planetarako, gizarte-ekonomiarako eta langile autonomoentzako) sustatutako ekintzei dagokienez, 2020an (eskuragarri dagoen azken datua), EAeko 119.869 langilek 185.994 prestakuntza-ekintzatan parte hartu zuten (aurreko urtean baino % batek urtebete baino gehiago iraun zezakeelako), Prestakuntza ematen duten 13.919 enpresaren esku-hartzeari esker (2019aren aldean, % -12,5), zeinak 22,5 milioi euro erabili baitzituzten enplegurako prestakuntzarako dauden funtsetatik (% -24,5), hobariak eman baitzitzaizkien Gizarte Segurantzako kuotetan. Jardueraren eta erabilitako baliabideen beherakada hori, ziurrenik, prestakuntza-jardueren ohiko ospakizuna eragotzi zuen urte batean gertatu zen.

Enpresa trebatzaileen estaldura-tasa % 21,1 izan zen. Aurreko urtean, berriz, % 24,1 izan zen (% 17,4 batez beste Estatuan). Partaidetza-tasa hori oso desberdina da enpresaren tamainaren arabera: % 14,9, mikroenpresetan (1-9 langile); % 48,7, enpresa txikietan (10-49 langile); % 81,1, enpresa ertainetan (50-249 langile); eta % 89,3, enpresa handietan, 250 langile baino gehiago dituztenetan. Alde horiek, oro har, mantendu egin dira azken urteetan. Kontuan izan behar da, gainera, mikroenpresek Euskadin erreferentziatzeko urtean (2020) Gizarte Segurantzaren izena emandako soldatapekoen % 84,3 enplegatzen dutela, hau da, enpresa prestatzaileen % 59,6.

III.5.3. TAULA. FUNDAE. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EAE-N: PARTAIDETZA ZIFRA NAGUSIEN BILAKAERA.

		2016	2017	2018	2019	2020	18/19 (%)	19/20 (%)
EAE-N PRESTATUTAKO PARTAIDEAK								
IKASKETA MAILAREN ARABERA	PRESTAKUNTZA EKINTZAK, GUZTIRA	206.049	209.071	223.873	232.382	185.994	3,8	-20,0
	NAHITAEZKO LEHEN ETA BIGARREN MAILAKO IKASKETARIK GABE %	32,2	26,0	23,8	22,6	23,4	-5,0	3,5
	BIGARREN HEZKUNTZA ETA LH %	39,7	41,4	42,2	45,5	42,8	7,8	-5,9
	UNIBERTSITATEKO IKASKETAK %	28,1	32,1	34,0	31,9	33,8	-6,2	6,0
JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA	ENPRESA FORMATZAILEAK							
	GUZTIRA	17.465	17.054	16.681	15.915	13.919	-4,6	-12,5
	NEKAZARITZA	145	209	117	148	114	26,5	-23,0
	INDUSTRIA.	2.953	2.991	2.992	2.909	2.627	-2,8	-9,7
	ERAIKUNTZA	1.747	1.751	1.844	1.760	1.554	-4,6	-11,7
	MERKATARITZA	3.916	3.498	3.511	3.308	2.834	-5,8	-14,3
	OSTALARITZA	2.351	2.308	1.988	1.896	1.583	-4,6	-16,5
BESTE ZERBITZU BATZUK*	6.353	6.297	6.229	5.894	5.207	-5,4	-11,7	
PRESTAKUNTZA ORDUAK, PARTE-HARTZAILEKO (PRESTAKUNTZAKO)	17,3	16,7	15,7	15,5	14,9	-1,3	-3,9	
FINANTZIZIOA: ERABILITAKO KREDITUA (MILIOIKA €)	28,0	28,1	28,4	29,8	22,5	4,9	-24,5	

Iturria: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAREN FUNDAZIOAREN datuekin egindakoa.

** Barne hartzen dira, Osasuna eta gizarte-zerbitzuak, Hezkuntza, finantza bitartekotza, higiezin jarduerak, garraioa eta komunikazioak eta gizarte eta kultura jarduerak.*

Jarduera-sektoreen arabera, % 69,1ek zerbitzuetako jarduerak egiten dituzte, eta nabarmentzekoa da merkataritzaren eta ostalaritzaren pisua, % 20,4 eta % 11,4 hurrenez hurren. Enpresa trebatzaileen % 18,9 industriaren sektorekoak dira eta % 11,2 eraikuntzakoak.

Prestakuntzako ekintzetako partaile horiei dagokienez, % 29,1 izan zen Euskadin sektore pribatuan trebaturiko soldatapekoen ehunekoa. 2019an, berriz, % 35,2 izan zen (% 18,7 batez beste Estatuan). Gainera, prestakuntza jaso zuten 119.869 langileetatik, proportzio handiena gizonena izan zen (% 56), eta alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen estaldura-tasen artean: % 30,1 eta % 27,8, hurrenez hurren.

III.5.4. TAULA. FUNDAE. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA EUSKADIN. ENPRESEK PRESTAKUNTZA HOBARITUAN DUTEN PARTAIDETZAREN BILAKAERA					
	ENPRESAK ENPRESAK	ESTALDURA	PARTAIDEAK (PRESTAKUNTZA EKINTZAK)	PRESTAKUNTZA ORDUAK (MILAKA)	BATEZ BESTEKO ORDUAK PARTAIDEKO
2015	19.805	30,5	196.968	4.180	21,2
2016	17.465	26,9	206.049	3.559	17,3
2017	17.054	25,9	209.071	3.490	16,7
2018	16.681	25,3	223.873	3.525	15,7
2019	15.915	24,1	232.382	3.611	15,5
2020	13.919	21,1	185.994	2.771	14,9
18/19 (%)	-4,6	-4,7	3,8	2,4	-1,3
19/20 (%)	-12,5	-12,4	-20,0	-23,3	-3,9

Iturria: FUNDAE. Enpresetako prestakuntza 2020. Euskadi. Guk geuk egina.

Gainera, prestakuntzako ekintzetan parte-hartze handiagoa dute 46 eta 55 urte bitarteko pertsonak (parte-hartzaileen % 33,5), gero 36 eta 45 urte bitartekoak (% 33,1) eta 26 eta 35 urte bitartekoak (% 18,3).

Halaber, parte-hartzaileen ikasketa-maila, batez ere, derrigorrezkoaren ondoko bigarren mailako ikasketetako da (prestakuntzako ekintzen % 42,8), gero unibertsitate-ikasketak dituztenena (% 33,8) eta, ondoren, lehen mailako eta derrigorrezko bigarren mailako ikasketak dituztenena (% 23,4). Hala, prestakuntzako jardura horien onuraduna den pertsona profila hauxe izango litzateke: 46 eta 55 urte artekoa, langile trebatua eta soldatapekoa, 250 langile baino gehiagoko enpresa handi batekoa.

III.5.5. TAULA. FUNDAE. PARTAIDETZA PRESTAKUNTZA JARDUERETAN, EAE-N, EDUKIAREN ARABERA. PARTAIDETZA HANDIENEN 10 TIPOLOGIEN XEHETASUNA. 2020.			
	PARTAIDEA		BB ORDUAK
	KOP.	BERT. %	
SEGURANTZA ETA INGURUMENA	59.795	32,1	10,8
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	47.685	25,6	11,6
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKO ZERBITZUAK	19.895	10,7	10,9
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	13.634	7,3	20,2
PRESTAKUNTZA OSAGARRIA	13.447	7,2	32,0
MERKATARITZA ETA MARKETING	9.781	5,3	16,9
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK	4.783	2,6	26,8
JANARI INDUSTRIAK	4.212	2,3	20,3
OSASUNA	3.533	1,9	12,8
FABRIKAZIO MEKANIKOA	2.578	1,4	21,2
GAINERAKOAK	6.651	3,6	-
GUZTIRA	185.994	100,0	14,9

Iturria: FUNDAE. Enpresetako prestakuntza 2020. Euskadi. Guk geuk egina.

Prestakuntzaren edukiei dagokienez, prestakuntzako ekintzak honako hauekin lotzen dira nagusiki: segurtasuna eta ingurumena (parte-hartzaileen % 32,1), Administrazioa eta kudeaketa (% 25,6), Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuak (% 10,7) eta Informatika eta komunikazioak (% 7,3), besteak beste. Segurtasunaren eta ingurumenaren prestakuntza segurtasunari eta

prebentzioari eta ingurumen-kudeaketari buruzko ekintzek osatzen dute; Administrazioari eta kudeaketari buruzko prestakuntzak, berriz, Administrazioaren eta auditoriaren, Finantzen eta Aseguruaren eta IKTen Kudeaketaren eskumeneko arloetako prestakuntzako ekintzak biltzen ditu. Gizarte-kulturako zerbitzuen eta erkidegoarentzako zerbitzuen gaineko prestakuntza, azkenik, trebakuntza, hezkuntza eta gizarte arretarako eskumenetara dago bideratuta.

Azkenik, prestakuntza-modalitateak aldaketak izan zituen 2016an. Urte horretatik aurrera, prestakuntza hobariduna hiru prestakuntza-metodologiaren bidez egin daiteke: aurrez aurrekoa, teleprestakuntza eta mistoa, urrutiko prestakuntza tradizionala alde batera utzita. Hala, online irakaskuntza sustatu daiteke, teknologia berrien bilakaerarekin bat etorrita.

III.5.6. TAULA. FUNDAE. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA EUSKADIN, EMATEKO MODALITATEAREN ARABERA.									
	PARTAIDEA			PRESTAKUNTZA ORDUAK			B.B. IRAUPENA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
ZUZENEKOA	177.797	186.829	119.384	2.192.260	2.241.948	1.404.875	12,3	12,0	11,8
TELETREBAKUNTZA	43.680	43.344	64.524	1.208.915	1.243.973	1.269.098	27,7	28,7	19,7
MISTOA	2.396	2.209	2.086	123.358	125.471	96.984	51,6	52,3	46,8
GUZTIRA	223.873	232.382	185.994	3.524.533	3.611.392	2.770.957	15,7	15,5	14,9

Iturria: FUNDAE. Enpresetako prestakuntza 2020. Euskadi. Guk geuk egina.

2020an, aurrez aurreko prestakuntza da oraindik ere gehien erabiltzen den modalitatea, parte-hartzaileen % 64,2k jaso baitu prestakuntzarik laburrena, 11,8 orduko iraupeneko prestakuntza-ekintzekin, batez beste. Teletrebakuntzak batez bete 19,7 orduko iraupena du, eta langile partaideen % 34,7 biltzen du. Azkenik, trebakuntza mistoak presentziakzko irakaskuntza eta teletrebakuntza uztartzen ditu, eta batez besteko iraupenik luzeeneko modalitatea bihurtu da, 46,8 ordu partaideko, baina partaideen % 1,1ek baino ez du aukeratu.


Horrenbestez 2020an 2,77 milioi ordu eman ziren prestakuntzan. 100etik 50,7 geletan egin ziren, 45,8, telematika bidez eta 3,5 ordu presentziako trebakuntza eta online trebakuntza uztartzen dituzten ekintza mistoei dagokie.

5.2. ENPLEGU POLITIKA PASIBOAK

Langabeziagatiko prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta, horren ondorioz, soldatak antzeko moduan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko subsidioa) daude. 2012ko uztailan, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna²⁶ sustatzeko neurriei buruzko 20/2012 Errege Lege Dekretua aplikatzearen ondorioz, langabezia-prestazioen zenbatekoak murriztu ziren, eta zenbateko hauek geratu ziren:

- Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariak Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzeko da, eta langabeziaren lehenengo 6 hiletan langabearen kotizazio oinarriaren % 70 da (gainerakoan % 50), langabe bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait muga dituela.
- Langabeziagatiko subsidioa familia egoeraren arabera Askotariko Eftuen Errentaren Adierazle Publikoaren (AEEAP) gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2021erako AEEAP 564,90 eurokoa izan da hilean, aurreko lau urteetan baino % 5 gehiago.

III.5.2. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN JASOTZAILIEN KOPURUAREN HILEKO BILAKAERA EAE-N (MILAKOETAN)



Iturria: Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren datuekin egina.

5.2.1. Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak

2021ean langabeziagatiko **prestazioen onuradunak**, batez beste, 56.832 lagun izan ziren EAEn, aurreko urtean baino % 38,1 gutxiago, eta urte horretan % 82,7 jaitsi zen 2019aren aldean, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak emandako batez besteko datuen arabera. Prestazioa jaso zuten 56.832 pertsona horietatik, % 52,9 emakumeak dira (batezbestekoa baino gehiago handitu da, % 36,8), eta % 47,1 gizonak (-% 39,5).

²⁶ EAO, 168 zk., 2012ko uztailaren 14koa.

Prestazio horiek jasotzen dituzten pertsonen kopuruaren **hileko bilakaerak** hautsi egin zuen profil tradizionala 2020an, gutxi gorabehera lineala, eta gorakada bat izan zuen uztaile-abuztuko hilabeteetan, COVID-19ak eragindako krisi sakonaren ondorioz 2021ean, bilakaera hori marjina egonkorragoetara itzuli zen, eta urte arteko jaitsiera handiak izan zituen apiriletik aurrera. Abuztuan egon ziren hartzaile gehien, 60.000 hartzaile baino gehiago. Harrezkero, hileko datuak behera egin du: 2021ean 50.601 hartzaile izan dira, 2020ko abenduan baino % 20,5 gutxiago.


III.5.7. TAULA. LANGABEZIA PRESTAZIOEN ONURADUNEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N. URTEKO BATEZ BESTEKOAK									
	ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO PRESTAZIOAK			LANGABEZIA-LAGUNTZAK			PRESTAZIOAK GUZTIRA*		
	GIZONAK	EMAKUMEA AK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEA K	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEA EAK	GUZTIRA
2017	13.340	16.242	29.582	10.222	10.317	20.539	23.563	26.559	50.122
2018	13.126	16.302	29.428	8.510	9.232	17.742	21.636	25.533	47.169
2019	14.043	16.901	30.944	8.913	10.420	19.333	22.956	27.321	50.277
2020	33.577	35.332	68.909	10.699	12.236	22.935	44.276	47.568	91.844
2021	15.749	17.499	33.248	9.619	11.084	20.703	26.780	30.052	56.832
18/19 (%)	7,0	3,7	5,2	4,7	12,9	9,0	6,1	7,0	6,6
19/20 (%)	139,1	109,1	122,7	20,0	17,4	18,6	92,9	74,1	82,7
20/21 (%)	-53,1	-50,5	-51,8	-10,1	-9,4	-9,7	-39,5	-36,8	-38,1

(*) Gizarteratzeko Errenta Aktiboa barne.
Iturria: EEZPE, LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.

Erregistraturiko langabezia guztiaren kopuruak kontuan izanik, esan liteke ezen, 2021eko abenduan (114.845 langabetu erregistratuta egonda), EAEko 100 langabetatik 56k ez zutela prestaziorik jasotzen (51ek 2020an), jasotzen zuten 44etatik 25ek kotizaziopeko prestazioa jasotzen zutela, 17k subsidiarioa eta 2k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Abenduko langabezia-prestazioak jaso zituzten 50.601 pertsonetatik, % 57, kotizaziopeko prestazioenak ziren (28.866 pertsona), % 38,1, laguntzenak (19.280) eta % 4,9k laneratzeko errenta aktiboa jasotzen zuen (2.455).

Estatuan, hilabete horretan bertan, 1,8 milioi onuradun erregistratu ziren, 2020ko abenduan baino milioi erdi gutxiago, eta kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuten pertsonen ratioa % 44,2 eta % 39,7 izan zen sorospenetarako, eta % 6,9 gizarteratzeko errenta aktiborako. Gainera, % 9,2k nekazaritzako aldi baterako langileen subsidioa jasotzen zuten.



Estatuan, **langabezia-prestazioen estaldura**, erregistratutako langabeziarekiko, nabarmen aldatu da erkidegoen artean. Alde batetik, nabarmendu behar da Balearren kasuan, hor, eskura ditugun datuen arabera, aurretik lan-esperientzia duten langabe guztiek (Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren metodologiak, kalkulu hori egiteko, lan-esperientziarik gabeko langabeak ez dituelako kontuan hartzen), prestazioen bat jasotzen dutelako. Bestalde, Melillan, langabezia dauden pertsonen % 40 baino gutxiago jasotzen dute.

2021eko abenduko datuekin jarraituz, Estatuko batez besteko estaldura % 62,6 zen (2020ko abenduan baino ehuneko 0,7 puntu gutxiago), eta EAEko datua txikiagoa da (hilabete horretan erregistratutako langabeen % 50,3, aurretik lan egin zutenak, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren metodologiaren arabera).

Estaldura hori 5,7 puntu txikitu da azken urtean. Ohikoa denez, langabeziaren estaldura-tasarik txikienetakoa du EAEk autonomia-erkidego guztietan, Ceuta eta Melillan²⁷ eta Errioxan izan ezik.

Sexuaren arabera, estaldura baxuagoa da emakumeentzat, bai EAEn, bai gainerako autonomia-erkidegoetan. 2021eko abenduan, langabezia-prestazioaren estaldura-tasa gure erkidegoan % 47,4 da emakumeen kasuan, eta % 53,7 gizonenean. Beraz, bi sexuen arteko aldea 6,3 puntukoa da. Azken urteko estalduraren jaitzierak alde hori murriztu du (2020ko abenduan 7,2 puntukoa zen), estaldura hori gehiago jaitsi baita gizonen artean (-6,1 puntu) emakumeen artean baino (-5,2 puntu).

III.5.8. TAULA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEKO LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN GASTUAREN ETA ESTALDURAREN ADIERAZLEAK. ABENDUKO HILABETEA.

	ESTALDURA TASA*					KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAREN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA, ONURADUNEKO (€/HILABETE)				
	2019	2020	2021	19-20	20-21	2019	2020	2021	19/20 (%)	20/21 (%)
ANDALUZIA	69,7	63,6	65,4	-6,1	1,8	828,2	829,3	868,8	0,1	4,8
ARAGOI	65,6	57,8	66,1	-7,8	8,3	861,2	848,5	896,1	-1,5	5,6
ASTURIAS	54,0	59,5	54,9	5,5	-4,6	807,0	828,7	860,1	2,7	3,8
BALEAR UH.	152,5	136,8	167,2	-15,7	30,4	1.014,6	1.030,8	1.042,8	1,6	1,2
KANARIAR UHARTEAK	57,8	72,5	54,7	14,7	-17,8	813,4	882,2	817,7	8,5	-7,3
KANTABRIA	61,1	63,0	57,7	1,9	-5,3	814,7	828,4	870,4	1,7	5,1
GAZTELA-MANTXA	55,8	57,3	57,2	1,5	-0,1	821,0	830,6	869,2	1,2	4,6
G. ETA LEON	60,7	61,8	61,8	1,1	0,0	830,2	818,9	861,6	-1,4	5,2
KATALUNIA	71,6	62,3	67,6	-9,3	5,3	887,2	889,7	924,9	0,3	4,0
VALENTZIAKO E.	58,6	56,2	53,9	-2,4	-2,3	825,6	818,8	854,0	-0,8	4,3
EXTREMADURA	76,8	74,2	76,8	-2,6	2,6	742,5	757,2	801,4	2,0	5,8
GALIZIA	62,1	68,8	63,7	6,7	-5,1	828,1	819,6	861,2	-1,0	5,1
MADRIL	56,5	56,0	51,9	-0,5	-4,1	875,2	873,6	912,5	-0,2	4,5
MURTZIA	66,2	58,6	67,4	-7,6	8,8	822,6	809,2	862,8	-1,6	6,6
NAFARROA	55,8	49,2	54,5	-6,6	5,3	931,7	918,7	971,4	-1,4	5,7
EAE	51,0	56,0	50,3	5,0	-5,7	902,8	904,8	939,8	0,2	3,9
ERRIOXA	59,6	53,9	47,8	-5,7	-6,1	865,0	851,3	897,7	-1,6	5,5
CEUTA	45,5	46,2	47,8	0,7	1,6	844,4	850,9	898,7	0,8	5,6
MELILLA	34,7	39,5	35,8	4,8	-3,7	808,5	851,6	868,3	5,3	2,0
GUZTIRA	65,3	63,3	62,6	-2,0	-0,7	856,9	864,1	896,7	0,8	3,8


Iturria: LGEMren datuekin egindakoa.

(*) Estaldura-tasak Ministerioaren metodologiaren arabera kalkulatu dira, hala nola hileko azken egunean altan zeuden prestazioen onuradunak (kotizaziopekoak gehi subsidioak), eta lan-esperientzia zuten langabeak gehi behin-behineko nekazaritza-onuradunak (Andaluzian eta Extremaduran) zatituz.

Langabeziagatiko kotizaziopeko kontribuzioaren batez bestekoak gora egin du beste urte batez, 2021eko abenduan 939,8 euro EAEn (aurreko urtean baino % 3,9 gehiago), Estatuko batez bestekoaren ginetik (896,7 €, 2020ko abenduan baino % 3,8 gehiago). Hala, prestazio horren batez besteko zenbatekoa oraindik ere handiagoa da Euskadin: % 4,8 handiagoa EAEn, Estatu osoan baino. EAE aldagai honen lehen tokietan dago, Nafarroarekin, Balearrekin eta Kataluniarekin batera.

²⁷ Arrazoietako bat da langabezia-laguntzari lotzeko, behin kotizaziopeko prestazioa amaituta, bizikidetzeta-unitatearen errenta kontuan hartzen dela, eta errenta hori, EAEn, laguntza lortzeko gehieneko tartearren ginetik egoten dela askotan. Hori dela eta, langabezia dauden pertsona askok ezin dute laguntza hori eskuratu, eta sistema horretatik kanpo geratzen dira.


III.5.4. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAREN ESTALDURA-TASAK, EAE-N ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOA. ABENDUA




5.2.2. LANGABEZIAREN BABESEKO GASTUA ETA DIRU-SARRERA

EAE langabezia-prestazioetara bideratutako gastua 942,73 milioi eurokoa izan zen 2021ean, behin-behineko datuekin, 2020an baino % 27,3 gutxiago (urte horretan izugarri igo zen gastu hori, 1.295 milioi eurotik gora egin baitzuen). Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 1,22 da (%1,81 aurreko urtean), eta Estatu osoko langabeziako gastu osoaren % 3,66 da. Estatuan 25.700 milioi baino gehiago da gastu hori (2020an baino -% 25,1 gutxiago).

III.5.5. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK EAE-N: JASOTZAILE KOPURUAREN ETA GASTUAREN BILAKAERA



III.5.6. GRAFIKOA. GASTUA ETA SARRERA LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOETAN EAE-N



Gastu horretatik eta jasotzaileen zifretatik, urteko 16.597 €-ko batez besteko gastua zenbatetsi da, hots, 2020koa baino % 17,6 gehiago.

Bestalde, enpresek eta soldatapekoek **EEZPrako ordaindutako kotizazio sozialen ziozko sarrerak**, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak bilduak EAEn, 1.269,62 milioi eurokoak ziren 2020an (eskuragarri dugun azken datua), hots, aurreko urtean baino % 3,5 gutxiago. Hala, EAEn langabeziaren kontingentzia estaltzeko gastuen eta sarreren arteko aldeak, 2017ean, saldo positiboa izan zuen, 26,23 milioi eurokoa. Aurreko urtean, 2019an alegia, berriz, +660,78 milioi euro ziren.

III.5.9. TAULA. EAE-KO LANGABEZIA GASTUAREN ETA EEZP-REN G. SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEN DIRU-SARREREN BILAKAERA (MILIOI €)								
	2016	2017	2018	2019	2020	2021*	% 19/20	%20/21
KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIO GORDINAK	396,92	363,87	444,14	404,86	935,08	586,04	131,0	-37,3
(-) Gizarte S. langabetuaren kontura	31,90	29,48	28,94	30,91	99,67	59,29	222,5	-40,5
(-) PFEZren atxikipenak	2,10	1,83	1,78	1,80	2,47	1,78	37,2	-27,9
KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIO GARBIAK	362,92	332,56	413,42	372,15	832,95	524,97	123,8	-37,0
LANGABEZIA BABESTEKO LAG. MAILA **	121,99	103,85	88,61	95,64	113,32	125,52	18,5	10,8
EEZP-REN KOTIZAZIOAK G. SEGURANTZARA	184,08	170,33	166,65	187,48	247,45	231,17	32,0	-6,6
-EEZPren kargura, kotizaziopeko prest. Bak.	159,29	147,51	141,92	151,74	202,95	180,52	33,7	-11,1
-EEZPren kargura, laguntza prest. Bak.	24,69	22,82	20,67	35,74	42,05	50,65	17,7	20,5
LANGABEZIAREN GASTUA GUZTIRA	699,17	606,74	668,68	655,27	1.295,85	942,73	97,8	-27,3
ESTATUKO GASTU OSOAREN GAINEKO %	3,73	3,47	3,87	3,55	3,77	3,66	6,2	-2,8
EEZP-RENTZAT BILDUTAKO KUOTAK	1.139,62	1.190,36	1.239,66	1.316,05	1.269,62	...	-3,5	...
SALDOA	440,45	583,62	570,98	660,78	-26,23	...		
DIRU SARRERA/GASTUA	1,63	1,96	1,85	2,01	0,98	...		

Iturria: EEZPren eta GSDNren datuekin egindakoa. Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa eta Inklusio, Gizarte S. eta Migrazio Ministerioa.
**2021eko zifrak behin-behinekoak dira.*
*** Langabezia-laguntzak eta Gizarteratzeko Errenta Aktiboa barne.*

5.3. DESGAITUEN ETA BAZTERTZEKO ARRISKUA DUTEN PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNERAKO ETA GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO POLITIKAK

Jarraian, egoera sozial eta ekonomikoagatik (gizarte-bazterkeriaren egoera edo horretarako arriskua) edo desgaitasuna aitortua izateagatik lan-merkatuan berdintasun-baldintzetan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen zuzendutako enplegu-politiken zifrak aurkeztuko ditugu. Kasu honetan, helburu nagusia ordaindutako enplegu duina eta inklusiboa bermatzea da, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta pertsona horiek behar dituzten egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen prestazioei buruzko Konbentzioaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldi berean, lan-merkatu arruntean sartzeko bitarteko bat izan nahi dute. Hori guztia hain zuzen ere enplegua pertsona²⁸k gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

5.3.1. Ezinduen enplegu arrunta

Ezinduentzako enplegu babesturako laguntzez gain, betiere Enplegurako Zentro Berezien bidez, LANBIDEk ezinduen enplegua sustatzen du merkatu arruntean, bi laguntza programa mota baliatuz:

Lehenik eta behin, laneko prestatzaile adituek lanpostuan eskaintako banako laguntza ematean dautza **lagundutako enplegu programak**, eta horiei esker, zailtasun bereziak dituzten langile ezinduek beren jarduera egin dezakete lan-merkatu arruntean. Hala, beharrezko baliabideak ematen zaizkie langileei laneratzeko prozesua errazteko, baita laneratzeko ezinduek lanean aurrera egitea eta jarraitzea ere.

²⁸ Erreferentzia-urteak bateratzeko, 2020ko datuak eskaintzen dira atal honetan. III.5.3 koadroko 14., 15. eta 16. atalek emaitza batzuk ematen dituzte LANBIDEk esparru horretan dituen ekimenen 2021erako.

2020ko aurrekontuei esleituta, milioi bat euro bideratu ziren programa horretara, baina ekitaldian azkenean gauzaturako aurrekontua 898.847 euro izan zen, hau da, aurrekontuan jasotakoa baino % 10

eta % 22 gutxiago, eta 2019an baino % 22 gehiago. Laguntza horien bidez, desgaitasuna zuten 64 pertsona enpresa arruntetan laneratzen lagundu zen (95 pertsona 2019an). 38 gizonak ziren eta 26 emakumeak. Horrez gain, jada laneratutako 181 langileren jarraipena egin zen. Hala, azken 8i urtean (2013-2020), 6,4 milioi euro erabili dira programa horretarako; 512 ezinduren laneratzea erraztu da eta 1.145 ezinduren jarraipena egin da.

III.5.10. TAULA. EZINDUEI LAGUNTZEKO ENPLEGU PROGRAMA EAE-N: EMAITZA NAGUSIAK.						
	2015	2016	2017	2018	2019	2020
ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	755,9	797,9	949,0	1.000,0	736,7	898,5
LAGUNDUTAKO LANGILEAK	53	49	69	78	95	64
JARRAIPENAK	127	116	148	154	156	181

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Inklusio Zuzendaritza, LANBIDEREN datuak erabiliz

Bigarrenik, desgaitasuna dutenen **enplegu mugagabea sustatzeko programan**, 130 ezinduren kontratazioarako diru-laguntza eman zuen 2020an, horietatik 87 (% 66,9) lanaldi osoan eta 43 lanaldi partzialean (% 33,1). Hala, 447.596,8 euro erabili

ziren (-% 68,8 2019ren aldean), eta horietatik % 52, 70 kontratazioetarako diru-laguntzak emateko erabili ziren Bizkaian, % 37,2 Gipuzkoako 48 kontratazioetan eta % 10,8 Arabako kontratazioetan (kontraturiko 12 ezindu).


III.5.11. TAULA .EZINDUEN LAN MUGAGABEA SUSTATZEKO PROGRAMA EAE-N: EMAITZA NAGUSIAK.						
	2015	2016	2017	2018	2019	2020
ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	439,5	447,1	498,2	496,0	265,1	447,6
KONTRATATUTAKO LANGILEAK	125	141	149	150	78	130
- LANALDI OSOA	91	86	101	114	55	87
- LANALDI PARTZIALA	34	55	48	36	23	43

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lan eta Inklusio Zuzendaritza, LANBIDEREN datuak erabiliz

5.3.2. Enplegurako zentro bereziak

Ezinduen eskubideei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onetsi duen azaroaren 29ko 1/2013 EDaren 37.1. artikularekin bat etorritz, hauxe da ezinduen enplegu politikaren xedea: *“Haien jarduera-tasak eta okupazio-tasak eta laneratzea handitzea, baita enpleguaren kalitatea hobetu eta haien lan-baldintzak hobetzea ere, betiere diskriminazioaren kontra aktiboki jardunda...”*


Arau horren arabera, desgaitasuna hauxe da: *“Egoera bat da, urritasun aurrez ikusteko moduan iraunkorrak dituzten pertsonen oztopoak aurkitzen dituztenean sortzen dena, oztopo horiek mugatu edo eragotzi egiten dietelarik gizartean egiaz eta erabat parte hartu ahal izatea, gainerakoen baldintza berdinekin”*. Euskadin, Administrazioaren konpromisoari eta jarduketa koordinatuari esker, gizarte-solaskideek eta desgaitasunaren elkarre eta enpresa egiturak jarduera garrantzitsuak egin dituzte araudi, programazio eta aurrekontu arloetan, desgaitasuna duten



pertsoneri laneratzeko. Eta enplegu babestua, enplegu zentro berezien bidez (EZB), oinarrizkoa bihurtu da, zeren eta langile ezinduei ekoizpen-lan ordaindua emateko helburu nagusia duten enpresak baitira. Izan ere, lan hori lagungarria izango da lan-merkatu arrunterako trantsizioa eta integrazioa errazteko.

2020ko abenduan, EAEn 9.837 ezindu (horietatik % 64,5 gizonak ziren eta % 35,5 emakumeak) ari ziren lanean 74 EZBren plantilletan sartuta. Sexuaren arabera banaketa ia ez da aldatu, baina kolektibo horrek 39 pertsona gutxiago ditu (% -0,4) 2019ko abenduarekin alderatuta. Lurraldekoa, Gipuzkoa da 18 EZBetan lan egiten duten desgaituen kopuru handiena duena (guztizkoaren % 49), gero Bizkaia (% 37,1) eta azkenik Araba (% 13,9). Eta ezintasun motaren arabera, talde horren % 49,9k ezintasun psikikoa du, % 41,2k fisikoa eta gainerako % 8,9ak zentzumen-ezintasuna du.

Horrez gain, araudian ezarrita dagoenez, gutxienez enpresako plantillaren % 70 ezinduekin osatuta egon behar dute EZBek. EAEn, ratio hori % 83,4koa zen 2019an (eskura daukagun azken datua, EUSTATen Gizarte Zerbitzuen Estatikaren arabera).



EAEko **EZBei eusteko laguntzei** dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, orotara, 47,63 milioi euro erabili zituen horretarako 2020an (-% 14,4 2019aren aldean), eta horietatik % 37 Bizkaiko 39 EZBri esleitu zitzaizen, % 48,8 Gipuzkoako 18 EZBri eta funtsen gainerako % 14,2a Araban diharduten 17 zentroentzat.

Azkenik, laneratzeko zailtasun handiak dituzten ezinduentzat (buruko paralisia, buruko gaitza, ezintasun intelektuala eta % 65eko edo hortik gorako gabezia fisiko aitortua duten pertsonak) diru-laguntzak ematen ditu LANBIDEk EZBetako **lanbide-jarduera laguntzeko unitateentzat**. Lanbide arlo askotako taldeak dira, pertsona horien barrerak, oztopoak edo zailtasunak gainditzen laguntzeko, betiere gaitasun pertsonalak eta profesionalak eskuratzeko eta etengabe hobetzeko laguntza sistema osoa baliatuz.

III.5.12. TAULA. JARDUERA PROFESIONALARI LAGUNTZEKO UNITATEAK, EAE-N: EMAITZA NAGUSIAK.

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	4.000	3.990	4.200	4.523	4.200	5.000
LAGUNDUTAKO LANGILEAK	3.952	4.121	4.352	4.545	4.573	4.686
EEE	35	37	36	35	36	36
LAGUNTZA UNITATEAK (ADITUAK)	462	481	477	510	500	556

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Inklusio Zuzendaritza, LANBIDEREN datuak erabiliz

LANBIDEK, 2020an, 5 milioi euro erabili zituen (+% 19, 2019aren aldean) 4.686 langile ezinduri laguntzeko (+% 2,5) EAEko 36 EZBetan, laguntza-unitateetako 556 adituren lanari esker.

5.3.3. Laneratzeko enpresak

Laneratzeko enpresak honela defini daitezke: gizarte bazterkeriako egoera paira dezaketen edo pairatzen ari diren pertsonen gizarteratzea eta laneratzeko errazte helburu duten enpresak dira, pertsona horiek lan-merkatu sartzeko zailtasun handiak dituztelako. Enpresa horien ezaugarri nagusia helburu sozial bikoitza da: alde batetik, enpresa osatzeko arrazoia izan den jardura ekonomikoa burutzeko; bestetik, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea eta laneratzeko. Azken urteetan, Espainiar Estatuan laneratzeko enpresei dagokienez, asko sortu dira. Alde batetik, hainbat autonomia erkidegok (horien artean EAE) figura hori arautu, aitortu eta diru-laguntza espezifikoak eman dizkiote; horrez gain, enpresa kopurua modu izugarri hazi da.

Euskadin, Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legean xedatuta dagoenez, lanerako eskubidea ezinbesteko baldintza da herritartasun osoa eskuratu ahal izateko, eta lan-merkatuan hondar-partaidetza ez izateak, ezinbestean, bazterketa prozesua dakar, eta beste eskubide sozial batzuk erabiltzeko zuzeneko ondorioak ditu. Lana gizarteratzeko baliabidea dela onartuta, eta bizitzeko oinarriko beharrei aurre egiteko diru-baliabideak izateko aitortzen diren prestazioekin batera, hauxe ezarri da Legean: herri administrazioek neurriak bideratu behar dituztela beren ezaugarriak direla-eta lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasunak izan ditzaketen edo dituzten pertsonak edo taldeak laneratzeko laguntzako eta errazteko. Neurri horien artean, laneratzeko enpresak sortzeko eta eusteko laguntza bildu da, izan ere, 2002tik eman izan da laguntza hori urte hartan abenduaren 11ko Agindua onetsita²⁹, laguntza horiek araupetzen dituen.

Laguntza horien xedea laguntzarako zenbait formula ematea da enpresa mota horiei, beren berezitasunetara eta beharretara egokituta.

Hartara, haien beren beregi sortutako diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri dira. Haren esparruan, laneratzeko enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta laneratzeko enpresei euren irauteko, zuzendutako diru-laguntzak aurreikusten dira. Hala, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko AGINDUAREN bidez, laneratzeko enpresak sortzeko eta horiei eusteko laguntzak arautu dira, gaur egun Lanbideren menpe daudenak. Tresna horien bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratzeko modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du. Haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratzeko enpresa batean sartzeko kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenetan, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatuztik ondorioztatzen da.

2003tik 2019ra bitartean, 133 milioi euro inguru banatu ditu Eusko Jaurlaritzak laguntza-lerro horrek, urtean 37 erakunde onuradun batez beste eta 4.000 laneratzeko-langile onuradun. 2020an 38 laneratzeko-enpresari eman zitzaizkien laguntzak, eta horien zenbatekoa 7,2 milioikoa izan zen. Laguntza horiek eman ziren 157 laneratzeko posturi eta ekoizpenari eta laneratzeari laguntzeko 105 teknikariren lanposturi laguntzeko. Horrela, 2020. urtearen amaieran, laneratzeko postuak, guztira, 637 izan dira (aurreko deialdikoak, berriagoak eta berrituak).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Laneratzeko Enpresen Erregistroan 44 laneratzeko-enpresa zeuden 2018aren amaieran, aktibo, **eta horietatik 41ek GIZATEA-N (Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte)** parte hartzen zuten. Bere 2020ko "Memoria soziala" deritzonetik datu hauek atera ditugu:

III.5.13. TAULA. LANERATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZA PROGRAMAREN BILAKAERA EAE-N. 2016-2020.			
	ERAKUNDEAK	EMANDAKO LAGUNTZAK (MILA EUROTAN)	GIZARTERATZE LANPOSTUAK, GUZTIRA*
2016	41	8.177	546
2017	37	8.128	604
2018	35	8.887	644
2019	36	10.899	699
2020	38	7.226	637


Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin guk geuk egina. Lan eta Inklusio Saila
** Aurreko deialdiak, berriagoak eta berrituak.*

²⁹ Laneratzeko enpresen inguruko 18/2008 Legearen arauzko garapenaren xehetasuna ezagutzeko, azaroaren 11ko 182/2008 Dekretura jo daiteke. Horren bidez, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen da. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako kontseilariaren 2009ko maiatzaren 4ko agindura ere jo daiteke. Horren bidez, 2002ko abenduaren 11ko agindua aldatzen da.

Urte horretan, 1.165 langile zeuden (2019an baino 203 gutxiago), eta horietatik, 697 (-139 2019. urtearen aldean, eta guztien % 59,8), laneratze-langileak ziren, COVID-19aren pandemiak markatutako urtean. Horrela, aurreko urteetako bilakaera positiboa eten da.

2020an, gutxi gorabehera 27,31 milioi euroko sarrerak dituzte (-4,86 milioi), eta horietatik 19,38 jardueraren ziozko fakturazioari dagokio eta gainerako 7,93 laguntza publikoei.

Laneratze prozesuaren emaitzari dagokionez, GIZATEAren Memoriak erakusten duenez 2018an laneratze prozesuan zeuden 697 lagunetatik 487k (% 70) laneratze prozesuan jarraitzen zuten urtearen bukaeran, 34 lagunek (% 5) prozesua utzita zuen bukatu baino lehen, 72k (% 10) laneratze kontratua bukatu zuten eta 104k (% 15) laneratze prozesua bukatu zuten. Eta 104 lagun horietatik % 45 lan-merkatuan sartu ziren (%40 inoren konturako lanpostuetan, 1 norberaren konturakoetan eta % 5 beste laneratze-enpresa batzuetan). Gainerako % 55a (57 lagun) langabezia gelditu ziren.



6. LANEKO OSASUNA

6.1. LAN ISTRIPUEN ETA GAIXOTASUN PROFESIOALEN URTEKO BILAKAERA

OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2021ean 33,66 **lan-istripu** izan ziren milako (lanaldian baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatu dena) gure Erkidegoan (milako 29,35 2020an eta, beraz, ratioa 4,31 puntu handitu da).

Sektore bakoitzari dagokionez, intzidentzia handiena eraikuntzan gertatzen da (milako 66,55), eta 4,97 puntu igo da 2020. urtearekin alderatuta. Horren atzetik daude lehen sektorea, milako 60,86rekin (+2,56) eta industria, milako 60,36rekin, eta 4,72 puntu igo da 2020rako. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoa baino txikiagoa da, milako 24,39 (+4,31 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak kalkulatu den lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, Balear Uharteak ziren rankingeko buruan istripuetan 2021ean, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEn, milako 28,79ko indizearekin, % 5,5 jaitsi da ratioa (ehuneko -1,51 puntu), eta, beste urte batez, Estatuko batez bestekoaren gainetik mantendu da (milako 26,71), hein batean sektorearen egitura dela-eta, industriak pisu handiagoa baitu,

III.6.1. TAULA. LANEKO ISTRIPUEN ERAGINA, JARDUERA ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. DATUAK KONTINGENTZIA BARNE HARTUTA DUTEN PERTSONAK. 2020-2021.

	2020				
	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
ARABA	36,30	49,06	65,58	21,83	30,76
BIZKAIA	75,65	58,17	61,65	20,73	29,45
GIPUZKOA	52,80	56,93	59,84	18,20	28,48
EAE	58,30	55,64	61,58	20,08	29,35
	2021				
	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
ARABA	44,66	52,35	70,90	29,58	37,20
BIZKAIA	71,03	63,82	66,75	24,51	33,42
GIPUZKOA	60,44	61,46	64,42	21,70	32,23
EAE	60,86	60,36	66,55	24,39	33,66
	2020-2021 ALDAKUNTZA				
	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
ARABA	8,36	3,29	5,32	7,75	6,44
BIZKAIA	-4,62	5,65	5,10	3,78	3,97
GIPUZKOA	7,64	4,53	4,58	3,50	3,75
EAE	2,56	4,72	4,97	4,31	4,31

Iturria: OSALAN. EUSKO JAURLARITZA.

III.6.2. TAULA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEAN LANALDIAN BAJAN EGOTEA ERAGIN DUEN ISTRIPU KOPURUA DATUAK, MILA LANGILEKO

	2017	2019 ³⁰	2020	2021*	20-21 ALD.	20/21 ALD. %
ESTATUA, GUZTIRA	34,09	30,20	24,55	26,71	2,16	8,8
ANDALUZIA	38,47	34,05	27,68	28,59	0,91	3,3
ARAGOI	32,47	29,48	28,37	28,63	0,26	0,9
ASTURIAS	34,14	30,22	25,87	27,65	1,78	6,9
BALEAR UHARTEAK	50,25	43,49	29,17	36,22	7,05	24,2
KANARIAR UHARTEAK	36,18	28,76	20,27	23,30	3,03	14,9
KANTABRIA	30,20	28,00	25,21	27,31	2,10	8,3
GAZTELA-MANTXA	41,54	36,59	32,91	35,90	2,99	9,1
GAZTELA ETA LEON	33,06	29,76	25,44	26,89	1,45	5,7
KATALUNIA	32,84	28,92	22,80	24,54	1,74	7,6
VALENTZIako ERK.	31,11	28,25	24,01	26,65	2,64	11,0
EXTREMADURA	37,33	31,66	27,10	29,39	2,29	8,5
GALIZIA	36,27	31,59	25,52	26,47	0,95	3,7
MADRIL	27,57	24,37	18,64	21,47	2,83	15,2
MURTZIA	35,86	30,73	27,71	31,31	3,60	13,0
NAFARROA	35,41	37,66	31,45	34,88	3,43	10,9
EAE	35,96	32,53	27,28	28,79	1,51	5,5
- ARABA	36,71	36,17	29,69	31,35	1,66	5,6
- GIPIZKOA	33,59	29,38	25,79	27,75	1,96	7,6
- BIZKAIA	37,23	33,44	27,50	28,65	1,15	4,2
ERRIOXA	36,69	33,97	28,64	34,20	5,56	19,4
CEUTA	33,48	24,13	22,98	26,71	3,73	16,2
MELILLA	32,42	26,19	20,78	25,36	4,58	22,0

Iturria: LAN ETA EKONOMIA MINISTERIOA. Lan istripuei buruzko estatistikak.

(*) Datuen aurrezapena.


³⁰ 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gizarte Segurantzak Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) afiliatutako pertsonen lan-istripuen estaldura espezifikoaharritza izatera igaro zen oro har, eta, horren ondorioz, 2,5 milioi langile sartu ziren estatistika honen erreferentziako biztanlerian. Hori dela eta, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ohartarazten du 2019ko datuak ezin direla 2018koekin eta aurrekoekin alderatu, soldatapeko langileei buruzkoak izan ezik.

sektore horretan ezbehar-tasa batez bestekoa baino handiagoa baita.

Bestalde, **kontratu motaren** araberako lan istripuen datuek erakusten dutenez, lan ezbeharren kopurua handiagoa zen aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean kontratu mugagabea zutenen artean baino. Hala adierazten dute 2020koak diren Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioako azken datuek.

Zehazki, kontratu mugagabea duten pertsonen ezbehar-tasa 26 izan zen mila soldatako (BAI inkestaren enplegu sailak erabiliz). Aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, berriz, 44,7 izan zen, milako. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Eta, ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da 2009an kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua duten pertsonen arteko istripuen indizea 26,4 istripukoa zela 1.000 soldatapeko bakoitzeko, eta 2020. urtean 18,7ra gutxitu zen.

III.6.1. GRAFIKOA. LAN ISTRIPUAK EAE-N KONTRATU MOTAREN ARABERA. ISTRIPUAK 1.000 SOLDATAPEKO LANGILEKO.



Datu absolutuei helduta, 2021ean 34.851 lan istripu izan ziren EAEn, 2018an baino % 915,4 gehiago (lan istripuagatik baja hartu behar izan duten langileen kopurua aintzat hartuta, lanaldian eta "in itinere" izandako istripuak barne). Estatu mailan, berriz, % 17,9ko igoera izan zen, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren arabera (-% 23,8, 2020an). Bereiziz, lanaldian 31.232 istripu gertatu ziren (+% 15,9), eta 3.619 'in itinere' (+% 11,6). 2020ko datuek (ikus III.6.3 taula), COVID-19ak lan-jardueran izan zituen ondorioak kontuan hartuta, 2014-2019 aldiko goranzko joera hautsi zuten (-%18,6 jaitsi ziren lan-istripu guztiak, 2019. urtearekin alderatuta). 2021ean, badirudi goranzko joerari heldu zaiola berriro, nahiz eta, oro har, hazkundeak ez duen gutziz lehengoratzten aurreko urteko beherakada.

III.6.3. TAULA. LAN-OSASUNA EAE-N:

BAJA EKARRITAKO ISTRIPU BERRIEK ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEK ERAGINDAKO LANGILEAK

	LANALDIKO ISTRIPUAK								ISTRIPUAK: IN ITINERE	ISTRIPUAK, GUZTIRA	ERIT. PROF.
	GUZTIRA	LARRITASUNA			SEKTOREAK						
		ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK			
2017	29.629	29.443	161	25	664	10.281	2.898	15.786	3.935	33.564	1.445
2018	30.115	29.912	169	34	641	10.524	2.998	15.952	3.857	33.972	1.512
2019	33.007	32.819	162	26	679	11.794	3.766	16.768	4.099	37.106	1.514
2020	26.958	26.768	169	21	562	9.133	3.426	13.837	3.244	30.202	1.242
2021	31.232	31.017	184	31	578	9.867	3.749	17.038	3.619	34.851	1.347
19/20 (%)	-18,3	-18,4	4,3	-19,2	-17,2	-22,6	-9,0	-17,5	-20,9	-18,6	-18,0
20/21 (%)	15,9	15,9	8,9	47,6	2,8	8,0	9,4	23,1	11,6	15,4	8,5

Iturria: OSALAN.

Horrez gain, 20121ean, 38.282 lan-istripu gertatu ziren bajaran gabe (+% 5,9 2020aren aldean), eta 1.513 birgaixotze, aurretiko bajaran istripuen aldean (+% 13,7).

Lanaldian istripua izandako pertsonen erreparatzen badiegu (31.232, arestian esan dugunez), % 75 gizonak izan ziren, eta % 25 emakumeak, aurreko urteen antzera. Gainera, azken urtean gora egin dute gorabehera arin eta larriekin (+ % 15,9 eta +% 8,9) eta, are gehiago, istripu hilgarriekin (% 47,6). Bestalde, sektorekako azterketak erakusten du istripu kopurua bereziki hazi dela zerbitzuetan (+% 23,1) eta, neurri txikiagoan, eraikuntzan (+% 9,4), nekazaritzan (+ % 2,8) eta industrian (+% 8).

Azkenik, 2021ean aitortutako lanbide-gaixotasunak 2.700 izan ziren, 2020an baino % 13 gehiago. Honela banatzen dira: 1.347 bajaran eragin dute (+% 8,5, 2020. urtearekin alderatuta) eta 1.353, bajaran eragin gabe (+% 18). Horietatik, % 37,7 emakumeei dagokie, eta % 62,3 gizonei. Gaixotasun profesionalen tipologiari dagokionez, % 89,5 agente fisikoek sortzen dituzte, eta, ondoren, larruzalak (%4,1), agente kimikoek eta inhalazioek (% 2,5 eta % 2,4, hurrenez hurren); eta, azkenik, agente infekziosoek eta agente kantzerigenoek (% 1,3 eta % 0,2). Azken urteetako bilakaeraren azterketan jakinarazpen sisteman egindako aldaketak barne hartu dira, beraz, zifrak zuhurtasunez hartu behar dira.

6.2. COVID-19AREN ERAGINA LAN-OSASUNEAN

COVID-19a 2020ko martxoan sartu zen komunitate-transmisioko gaixotasun, eta osasunean, ekonomian eta gizartearen eragindako krisi larriaren aurrean, Gizarte Segurantzak prestazio ekonomiko eta prebentzio-izaera handiagoa eman zion COVID-19aren ondoriozko aldi baterako ezintasunari: aldi baterako ezintasunetat hartu zituen kontaktuagatik kutsadura-susmoak edo "Bereziki Langile Zaurgarriak" (BLZ) deritzenen egoeren estaldurak, eta era berean, prebentzio-zerbitzuak izan zituen oinarritzko arreta medikoaren laguntzaile aldi baterako ezintasunean.

Gainera, prestazio-ondorioetarako bajaran horiek lan-istripuekin parekatzearen ondorioz, langileentzako prestazioa beren oinarri arautzailearen % 75 izan da, laneko bajaran hurrengo egunetik aurrera, oinarri arautzailearen % 60 izan beharrean bajaran laugarren egunetik hogeigarren egunera arte, eta % 75, berriz, 21. egunetik aurrera, gaixotasun arrunt bat dutenentzat. Era berean, Administrazioak lehen egunetik hartzen du bere gain prestazio horren kostua, bajaran arruntaren kasuan ez bezala, 15. egunetik aurrera egiten baitu (6/2020 Errege Dekretua)³¹.

Gizarte Segurantzak jakinarazi du 2021ean Estatuan 2,55 milioi bajaran izan zirela COVID-19arengatik, 2020an baino % 6,8 gehiago. Horietatik 176.363 (guztizkoaren % 6,9) EAEn gertatu ziren, gizonen eta emakumeen artean ia % 50 banatuta (gizonen % 49,7 eta emakumeen % 50,3).

Zifra hori 2020ko bera da; izan ere, urte horretan COVID-19ak EAEn eragindako bajaran guztizkoa 172.816 izan zen (+% 2,1).

Lurreldean, prozesuen % 17 Araban gertatu ziren, % 45,7 Bizkaian eta gainerako % 37,3 COVID bajaran % 3 Gipuzkoan.

III.6.4. TAULA .COVID-19AREN ONDORIOZKO ALDI BATERAKO EZINTASUN-PROZESUAK EAE-N. MUTUA LAGUNTZAILEEN AGREGATUAK. 2020-2021.						
	2020					
	PROZESU KOPURUA			BATEZ BESTEKO IRAUPENA (EGUNAK)		
	GIZONAK	EMAKU-MEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKU-MEAK	GUZTIRA
ARABA	14.999	16.313	31.312	14,04	14,56	14,31
BIZKAIA	39.505	40.563	80.068	15,49	15,71	15,60
GIPUZKOA	29.686	31.750	61.436	12,41	12,45	12,43
EAE	84.190	88.626	172.816	14,15	14,33	14,24
	2021					
	PROZESU KOPURUA			BATEZ BESTEKO IRAUPENA (EGUNAK)		
	GIZONAK	EMAKU-MEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKU-MEAK	GUZTIRA
ARABA	14.755	15.248	30.003	11,81	11,82	11,81
BIZKAIA	40.812	39.800	80.612	13,23	14,03	13,63
GIPUZKOA	32.150	33.598	65.748	11,12	11,88	11,51
EAE	87.717	88.646	176.363	12,22	12,84	12,53

Iturria: GIZARTE SEGURANTZA. Aldi baterako ezintasunari buruzko estatistikak Guk geuk egina.

³¹ [Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretua](#), COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzkoa.

Baja horien batez besteko iraupena 12,53 egunekoa izan zen 2021ean, 2020an baino 1,71 egun gutxiago; beraz, guztira 2,2 milioi baja-egun izan ziren, Estatu osoko 34,8 milioietatik gora.

ENPLEGUA ETA LAN HARREMANAK EAE-N: ITURRIAK

1. **LAN HARREMANEN KONTSEILUA (2022):** Euskadiko gizarte-laneko egoera. 2021eko aurrerapena.
2. **EUROSTAT (2022):** Lan indarrari buruzko inkesta (LII) 2021eko laugarren hiruhilekoa (2022/04/28ko datuak).
3. **EUSTAT. BJA (2022):** 2021 VI.eko datuak (2021eko apirilaren 22an berrikusitako datuak). Datu bankua.
4. **ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAREN FUNDAZIOA (FUNDAE)(2021):** Trebakuntza enpresetan. EAeko emaitzen txostena 2020.
5. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKEN SAILA (2021):** 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia.
6. **EUSKO JAURLARITZA. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA (2021):** Aurrekontuko likidazioa LANBIDE 2020
7. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA ENPLEGU SAILA (2022):** EEE datuak. 2021eko abendua
8. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA ENPLEGU SAILA (2022):** 2021eko lan-gatazkei buruzko datuak
9. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA ENPLEGU SAILA (2022):** 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa
10. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA INKLUSIO ZUZENDARITZA (2022):** “Gizarte bazterketaren kontrako borroka 2020” txostena.
11. **EIN (2021):** Lan-kostuei buruzko urteko inkesta. 2020
12. **EIN (2021):** Soldaten egiturari buruzko inkesta. 2019
13. **EIN (2021):** Lanaren prezioen indizea, 2019.
14. **EIN (2022):** Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI) 2021 IV.
15. **EIN (2022):** Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. 2021 IV.
16. **LANBIDE (2022):** Kontratuen estatistika. 2021eko abendua.
17. **LANBIDE/SEPE (2022):** Erregistraturiko langabezia. 2021eko abendua.
18. **INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA. GIZARTE SEGURANTZA (2022):** Afiliazioa altan. 2021eko abendua.
19. **INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA. GIZARTE SEGURANTZA (2022):** Aldi baterako ezintasunari buruzko estatistikak 2021eko abendua.
20. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA (2022):** Lan istripuei buruzko estatistikak. 2021eko datuak.
21. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA (2022):** Enplegua erregulazioko estatistikak. 2021eko datuak.
22. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA (2022):** LAN-ESTATISTIKAK 2021eko abendua.
23. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA (2022):** Erregistraturiko langabeziari buruzko hileko txostena. 2021eko abendua.
24. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. SEPE (2022):** Langabezia prestazioen jasotzaileen datuak, mota eta sexuaren arabera. 2021eko batezbestekoak.
25. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. EEZP (2022):** Kontratuen estatistika. 2021eko abendua
26. **LNE (2021) COVID-19 eta lan-munduari buruzko behatokia.** Estimazio eguneratuak eta analisiak. Zortzigarren edizioa. 2021eko urria.
27. **OSALAN (2022):** Lan istripuei buruzko estatistikak. 2021eko abendua.

7. ENPLEGUA ETA LAN HARREMANAK EAE-N: LABURPENA ETA ONDORIOAK

7.1. LABURPENA

Kapitulu honetan, EAEko enpleguaren (okupazioa, langabezia, lan-merkatuko sarrerek eta irteerak, soldatak, lan-osasuna, politika aktiboak eta pasiboak ...) eta lan-harremanen urteko bilakaeraren laburpena egingo dugu, lan-merkatuari buruzko beste aldagai interesgarri batzuekin batera. Oro har, azpimarratuko dugu 2021ean susperraldi garrantzitsua gertatu dela aztertutako aldagai gehienetan, aurreko urtean COVID-19aren eragin handiaren ondoren, nahiz eta oraindik ez den gutziz itzuli pandemia horren aurreko zifretara, gaur egun oraindik ere bizitzaren eremu gutzietan eragiten baitie, enplegua barne.

Lehenik eta behin, EUSTATen Biztanleria Jardueraren arabera Saillatzeko Inkestak (BJA) erakusten du **EAEko biztanleria aktiboa** 1.049.000 pertsonakoa dela 2021. urtearen amaieran; horietatik % 51,9 gizonak dira (544.800) eta % 48,1 emakumeak (504.200). 2012tik 2017ra, euskal biztanleria aktiboa intentsitate desberdinekin murriztu zen. 2018an eta 2019an, aldiz, igoera txikiak izan ziren, eta biurteko horretan 14.000 aktibo irabazi ziren, kopuru absolututan. 2020an (berrikusitako datuak), biztanleria aktiboak 4.600 biztanle galdu zituen (-% 0,4), eta 2021ean eten egin zen beherakada hori, 100 pertsona aktibo apenas galdu baitziren urte hartan (% 0ko tasa). Sexuaren arabera, bilakaera desberdina da: emakumeak % 0,2 jaitsi ziren (+900, termino absolutuetan); gizonak, berriz, % 0,1 hazi ziren, edo, beste era batera esanda, -1.100³². EAEko jarduera-tasa orokorra % 56,3 zen 2021 bukatzean (2020ko ratio bera), eta emakumeak % 52 ziren (hori ere aldatu barik azken urtetan). Gizonezkoen biztanleria, berriz, hamarren batean jaitsi da, % 60,9raino.

Bestalde, 2020ko abendutik 2021eko abendura bitartean (IV. hiruhilekoa), **okupazioa % 1,5 hazi da** Euskadin (+14.100 lanpostu); aurreko urtean, ordea, % 2,3 jaitsi zen (berrikusitako datuak). Emakume landunen kopurua 3.400 igo da (hazkunde osoaren % 24,1), eta gizonena, berriz, +10.800 (% 75,9). **Estatuan, oro har, okupazioa % 4,3 hazi da (EINen BAI), eta 2021. urtearen amaieran erkidego guztiek berreskuratu dituzte 2019ko saldo positiboak, 2020ko beherakada handiaren ondoren.**

Enpleguaren hazkundera batez ere zerbitzuetan gertatu da, 9.400 lanpostu irabazi baitituzte (+% 1,4), okupazioaren irabazi osoaren % 66,7. Gainerako sektoreek bilakaera okerragoa izan dute, eraikuntzan izan ezik, 5.800 gehiago izan baitituzte, % 11,7ko hazkunderarekin. Industriak 3.700 lanpostu galdu zituen 2020an (-% 1,8), eta 1.100 gehiago galdu ditu 2021ean, -% 0,6ko tasarekin, gizonen enpleguaren datu negatiboaren (-% 1,5) eta emakumeen enpleguaren datu positiboaren (% +2,9) agregatu gisa, betiere 2021ean ere industriako enpleguaren % 76,7 maskulinoa dela kontuan hartuta.

2021ean kontuan hartu beharreko euskal lan-merkatuaren beste alderdi batzuk dira, 2020an ez bezala, lanaldi partzialean lan egiten duten pertsonen ehunekoa 9 hamarren igo dela, % 16,7ra arte, eta behin-behinekotasuna 2,7 puntu igo dela, soldatapekoen % 22,6tik % 25,3ra, sektore pribatuan (+4,8 puntu) zein publikoan (+4,4).

Bestalde, Euskadin **Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten pertsonen** (altan afiliatuak) batez besteko kopurua 980.022 da 2021eko abenduan; horietatik % 48,1 emakumeak dira eta % 51,9 gizonak. Zifra hori % 2,2 igo da aurreko urteko hila beraren aldean (+% 4,1, batez beste, Estatuan), eta altan afiliatutako 20.890 pertsona irabazi ditu, 2019ko abenduko zifra ia berreskuratuta.

Jarduera-sektore handien arabera, lehen sektoreak % 3,1 egin zuen behera, eta eutsi egin zion alta emanda dituen afiliatuen gutzizko kopuruarekiko pisuari (% 1,2). Bestalde, industria, % 0,9 hazi da, +% 2,2ko batez bestekoaren gainetik, eta afiliazioaren gainean duen pisua % 18,2raino murriztu da (-3 hamarren). Eraikuntza batez bestekoaren azpitik jaitsi da, % 0,9, 2019ko enplegua berreskuratuta, eta afiliazioaren % 5,8 dauka (hamarren bat gutxiago). Azkenik, zerbitzuen

³² Sexuaren araberako aldagak batura maiz ez dator bat saldo osoarekin, datuak milaka adierazita daudelako, eta BJAk datuak biribiltzen dituelako.

sektoreak batezbestekoa baino portaera hobea izan du, % 2,7 igo baita. Bestalde, alta egoeran dagoen afiliazioa % 74,8raino handitu da (+4 hamarren).

Produktzio-adarren arabera, ia afiliazio guztiek gora egin dute 2020ko abenduarekin alderatuta, bi salbuespenekin: finantza-jarduerak (-% 2,4) eta lehen sektorea (-% 3,1). Honako hauek nabarmentzen dira: ostalaritza (+4.643 afiliazio alta, % 7,6ko hazkundea), hezkuntza (+3.709 afiliazio, +% 4,9), arte, jolas eta entretenimendu jarduerak (+2.220, hau da, % +14,2), jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+2.136, % 3,7ko igoera orokorra), eta jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrietako jarduerak (+1.625, % 2,4ko hazkundearekin), horiek guztiak % 2,2ko hazkunde orokorraren gaineratik.

...

EAEko lan-merkatuak 2021ean izan duen bilakaeraren ondorioz, BJAren **langabezia-tasa orokorra** % 9,9koa izan da urtearen amaieran (IV. hiruilekoa) (duela urtebete baino 1,3 puntu gutxiago), eta Europar Batasuneko batezbestekoa gainditu du (% 6,5 EBn, % 7,2 eurogunean). Europar Batasunean, langabeziak hartzen duen balio-sorta oso zabala da: Grezian eta Espainian, esaterako, balio handiak daude (% 13,4), eta Txekiar Errepublikan, Polonian eta Maltan, berriz, ratioak % 3-4 ingurukoak dira. Ziprek, Finlandiak eta Eslovakiak dituzte Erkidegoko batez bestekotik gertuen dauden langabezia-tasak; Estatu Batuek 2021ean % 3,9ko langabezia-tasa izan zuten, eta Japoniak % 2,8koa, erreferentziatzko beste herrialde batzuk aipatzearen.

2020an, sei urtez behera egin ondoren, langabeen kopurua % 16,8 igo zen Euskadin (berrikusitako datuak). 2021ean berriz ere behera egin du, eta, kalkuluen arabera, urtea 103.500 langaberekin amaitu zen, duela urtebete baino % 12,1 gutxiago (-14.200 pertsona, horietatik % 83,1 gizonak eta % 16,9 emakumeak). Adinaren arabera, langabeen kopurua batez ere erdiko taldean (25-44 urte) murriztu da (-%16,7, hau da, -10.000 pertsona), %14,9 25 urtetik beherakoetan (-2.000) eta, neurri txikiagoan bada ere, baita 45 urtetik gorakoetan ere (-%5,4, -2.400 pertsona). Ondorioz, **gazteen langabezia-tasa** beste taldeetan baino gehiago jaitsi da, % 20,9 (-2,4 puntu).

Era berean, 2021a amaitzean, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak **erregistratutako langabezia** BJAk zenbatetsitakoan antzeko zifretan kokatzen da, estatistika-eragiketa honetan sartutako metodologia-aldaketan ondoren. Abenduan 114.845 langabetu erregistratu dira, 2020an baino 14.395 gutxiago, -% 11,1 (Estatuko batez bestekoaren -% 20,1, non langabezia 3,1 milioi pertsonatik gorakoa baita); laugarren hiruilekoan, ordea, 103.500 pertsona, BJA kalkulatzan dutenak, ikusi bezala. Gainera, kopuru horiekin 2019ko abenduko langabezia 683 pertsonatan baino ez da gainditzen.

Langabezia murriztu egin da bi sexuetan, eta gehiago gizonen artean (-% 13) emakumeen artean baino (-% 9,6). Bilakaera horren ondorioz, langabetuen % 54,4 emakumeak dira (2020an baino puntu 1 gehiago). Adinaren arabera, erregistratutako langabeziak behera egin du talde guztietan, adin handieneko emakumeen taldean izan ezik. 45 urteko eta gehiagoko emakumeen kasuan gorakada gertatu da, tarte bereko gizonen kasuan izandako beherakadaren baliokidea; horrenbestez, adin-talde horretan langabezia 6 pertsonatan hazi da. Langabezia murriztu egiten da, bereziki, tarteko adin-taldean, 25-44 urtekoen taldean (-% 21,7), bai gizonen artean (-% 20,2), bai emakumeen artean (-% 22,7). Azkenik, 25 urtetik beherakoan artean ere batez bestekoa baino gehiago jaitsi da langabezia (% 17,1), eta berriz ere bi sexuetan: -% 19, gizonentzat, eta % -16,1, emakumeentzat.

Ikasketa mailaren arabera, behera egin zuen langabeziak 2020ko abenduaren aldean (aurreko urtean gertatu bezala) maila guztietan. Jaitsiera handienak, batez bestekoaren gaineratik, ikasketa-maila handienak dituzten pertsonen artean gertatu dira, batez ere bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak dituztenen artean (% -15,5 bigarren eta hirugarren zikloetan, % -14,6 lehen zikloko ikasketak dituztenen artean eta % -13,3 goi-mailako teknikari profesionalen artean) eta bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, bai LHkoak (% -11,2) bai hezkuntza orokorrekoak (-% 12,1). Lehen mailako ikasketak –osoak zein osatugabeak– dituzten langabeen zifrak ere murriztu egin dira, batez bestekoa baino gutxiago bada ere (-% 10,1 eta -% 0,6, hurrenez hurren). Halaber, ikusten da 10 langabetutik 7ra (% 69,2) kualifikazio urrikotzat jo daitezkeela (lehen hezkuntzako edo hezkuntza orokorreko bigarreneko ikasketekin). Informazio hori ez badaukagu ere,

interesgarria litzateke ikasketa-mailaren arabera erregistratutako langabezia zifrak langabezia emandako denboraren zifrekin gurutzatuta

Langabezia emandako denbora kontuan hartzen badugu, 2021ean gora egin du langabezia 6 hilabete baino gutxiago daramaten pertsonen kopuruak (+% 4,4), bai emakumeen artean (+% 7,7), bai gizonen artean (+% 7,7), eta gainerakoak murriztu egin dira, batez ere langabezia 6 hilabete eta urtebete bitartean daramatenak (-% 35,2 guztira, -% 39 gizonen eta % -31,6 emakumeen). Iraupen luzeko langabezia, urtebete baino gehiago irauten duena, bi sexuetan ere jaitsi da eta nabarmen, batez bestekoaren gainetik (-% 12,5 guztira, -% 13,6 gizonen kasuan eta -% 11,8 emakumeen kasuan). Horren ondorioz, iraupen luzeko langabezia ehunekoa 8 hamarren jaitsi da 2021eko abenduan, % 49,9ra arte (5 puntu igo da, ordea, Estatu osoan, % 50,1era iritsi baita). ratio hori % 44,5koa da gizonen artean (-3 hamarren) eta % 54,3koa emakumeen artean (-1,4 puntu).

...

Kontratazioa nabarmen jaitsi zen Euskadin 2020an (-% 30,2) COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, 2014-2019 aldiko bilakaera positiboa apurtuz, urte hartan hazkundera % 0,7 baino ez baitzen izan. 2021ean susperraldi handia izan da, kontratuak nabarmen hazi baitira (+% 22,5), Estatu osoan izandakoarekin alderatuta (+% 21,6).

Jarduera guztiek, lehen sektoreak izan ezik (-% 0,7), bilakaera positiboa izan dute. COVID-19ak horietako batzuetan eragin handia izan duenez, bereziki nabarmentzekoa da 2021ean ostalaritzako kontratazioak berreskuratu izana (+% 40), guztizkoaren % 10,8 hartzen baitu (2020ko kontratazioen % 9,4). Bigarrenik, arte, aisialdi eta entretenitzeko jardueren kontratazioak % 53,3 jaitsi dira, baina haien pisua nahiko txikiagoa da (kontratuen % 3,8). Bestalde, hauek dira 2021ean gehien kontratatu diren jarduerak: Manufaktura-industria (kontratuen % 15,2, nabarmen hazita: % 25,9), Osasun eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak (kontratuen % 13, % 8,2 gehiago 2020an baino), Merkataritza (kontratuen % 12,3, % 14 handituta) eta Administrazio jarduerak, haien artean ABLEak (kontratuen % 10,9, % 20,8 handituta). Aurreko urteetan bezala, sexuaren arabera aldea ikusten dira, zeren eta manufaktura-industriak biltzen baitu gizonen izenpeturiko kontratuen % 22,6 (2020an baino puntu erdi gehiago). Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerak eta merkataritza dira pisurik handiena biltzen duten jarduerak (bien artean kontratuen % 35,1).

2021ean kontratatutako pertsonak 284.662 dira guztira (+ % 16, 2020. urtearekin alderatuta). Adin-taldearen arabera, LANBIDEn datuak oinarri hartuta, badakigu gehienak, bai gizonak bai emakumeak, 35 eta 54 urte artekoak direla (% 44,4), 35 eta 44 urte bitartekoak (guztizkoaren % 24,5) eta 45 eta 54 urte bitartekoak (% 19,9). 25 eta 34 urte bitartekoetan, kontratua sinatzen du portzentaje handi batek (% 27,5). 25 urtetik beherakoek, berriz, % 20,7 osatzen dute, 2020ko % 18,5etik gorako ratioa, eta biztanleria aktiboan duten pisua baino askoz handiagoa, azken hori % 5,3 baita (2021eko batez besteko datua). 2020rekiko bilakaerari dagokionez, bi sexuetan portaera nahiko antzekoa izanik, gehien hazten diren adin-taldeak (guztiak dituzte bilakaera positiboak) 25 urtetik beherakoak (+% 29,7) eta 54 urtetik gorakoak (+% 20,8) dira, ondoren 25-29 (+% 14,8) eta 45-54 (+% 13,8) taldeak daude. 30-34 urteko eta 35-44 urteko taldeak gutxiago hazi dira (% 9,7 eta % 9,5, hurrenez hurren).

Kontratutako pertsonen banaketari dagokionez, ikasketa-mailaren arabera, % 42,7k derrigorrezko edo beheragoko ikasketak ditu, proportzio handiagoa gizonen artean (kontratutakoaren % 45,8) eta pixka bat txikiagoa emakumeen artean (% 39,4). Bigarrenik, kontratuen % 20,8 Batxilergoko ikasketak dituzten pertsonen dagokiz. Ondoren, % 16,2 ikasketa profesionalak dituzten pertsonen dagokiz (antzeko proportzioa bi sexuetan) eta % 19,6 unibertsitate-ikasketak dituztenei. 2020rekiko bilakaerari dagokionez, ikasketa-maila guztiak antzeko proportzioan hazi dira; neurri handiagoan hazi direnak Batxilergoa eta unibertsitate-ikasketak dira (biak +% 19,2arekin), eta prestakuntza txikiena duten pertsonen taldea da proportzio txikienean igo dena (+% 12,1).

Lanaldi-motari dagokionez, mota guztietan eta bi sexuetan izan da bilakaera negatiboa. Lanaldi partzialeko kontratuak 339.475 dira EAEn (+% 26,2, 2020 urtearekin alderatuta; hau da, guztira baino gehiago igo dira), hots, kontratu guztien % 39,4 (+1,2 puntu, 2020 urtearekin alderatuta). Lanaldi osoko kontratuak, bestalde, 517.631 dira, aurreko urtean baino % 19,8 gehiago (eta guztien % 60,1 dira). Bi kasuetan, sexuaren arabera bilakaerak ia berdinak dira. Gainerako % 0,5

lanaldi finko eteneko 4.620 kontratuei dagokie. Sexuaren arabera, oso desberdina da lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua, emakumeek sinaturiko kontratuen erdia baino gehiago baita (% 52,3 2021ean, aurreko urtekoa baino 1,1 puntu gehiago), gizonen kontratuen % 26,9aren aldean (+1,3 puntu). Hala, 2021. urtean emakumeek sinatu zituzten lanaldi partzialeko kontratuen % 65,4 (% 66,1 2020an).

Iraupenari dagokionez, mugagabeak baino gutxiago hazi badira ere, sinatutako kontratu gehienek aldi baterakoak izaten jarraitzen dute (% 90,7), 781.181 batuta, 2020an baino % 21,3 gehiago; aldiz, 80.545 kontratu mugagabe sinatu ziren, hau da, aurreko urtean baino % 35,5 gehiago, hau da, guztizkoaren % 9,3 gehiago, 2008an baino ehuneko 8 hamarren gehiago, eta 2018an baino 4 gehiago.

Gainera, kontratatutako pertsona asko hainbat aldiz kontratatu dira urtean zehar. Txandakatzea, 2017an eta 2018an ez bezala, handitu egin zen 2019an, eta 2020an nabarmen jaitsi zen bi sexuetan, kontratazioaren beherakadaren ondorioz (kontratuak % 30,2 murriztu ziren, eta kontratatutako pertsonak % 21). 2021ean, ikusi den bezala, gora egin dute bai kontratuen kopuruak (% 22,5), bai kontratatutako pertsonen kopuruak (% 16). Beraz, laneko txandakatzearen ratioa kontraturiko pertsonako 3,03 kontratu izan da (+16 hamarren 2020aren aldean. Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 2021ean 48 egun da (2020ko kopuru bera), Estatu osoa baino 5 egun gutxiago.

...

Kaleratzeei eta enplegu-erregulazioko espedientei dagokienez, 2020an (eta gero eta gutxiago 2021ean) erabateko protagonismoa ABEE enplegu-erregulazioko espedienteek izan zuten, eteteak eta murriztekoak. Enpresek masiboki eskuratu dute neurri hori eta, horri esker, pandemiak eragindako egungo koiunturazko egoerak enpleguan eragin negatiboa izatea saihestu ahal izan da, lehentasuna emanaz enpleguari eusteari kontratuak azkentzearen gainetik.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak EAEn erregistratutako EEE-ei buruzko estatistikak argitaratu ditu, eta 1.858 espediente zenbatu ditu 2021ean (2020an, 30.558). 32.723 langileri eragiten die (-% 84,4), haietatik % 74,2 gizonak dira. Espediente motaren arabera, eragindako langileen % 87 aldi baterako etete espedienteengatik dira (-% 84,4 2020aren aldean), % 10,2, lanaldia murrizteko (-% 87,3), eta gainerako % 2,8, iraungitze EEEngatik (-% 30,4, aurreko urtearen aldean). Azken horiek, azkentze edo kaleratze kolektiboko EEE-ek, beraz, 914 langileri eragiten diete. Ondorioz, aldi baterako etendurako edo lanaldi-murrizketako espedienteek, 2021ean, 31.809 langileri eragingo liekete, hau da, EEEk eragindako ia langile guztiei (% 97,2), eta 208.706 izan ziren 2020an (% -84,8).

Gizarte Segurantzaren estatistikei esker, COVID-19ak (ia ABEE guztiak) ABEEen egoteagatik ordaindutakoaren arabera prestazioa aitortuta duten langileen kopurua jakin daiteke. 2020ko apirilean, pandemiaren hasierarekin eta konfinamendu zorrotzaren aldiarekin, 133.986 langile hartzaile zenbatu ziren EAEn, eta kopuru hori 161.346ra igo zen maiatzean (+% 20,4), serieko zifra maximoa. Harrezkero, kopuruak jaitsi egin ziren, eta gorakada txiki bat gertatu zen 2020ko azaroan eta abenduan. Hilabete horretan, langile hartzaileen kopurua 52.308 izan zen, maiatzean baino % 67,6 gutxiago. 2021. urtean, pandemiaren eragina hobetzearekin eta pertsona horietako asko beren ohiko jarduerara pixkanaka itzultzearekin batera, datuek beherantz jarraitu dute; hala, 2021eko abenduan, 5.376 pertsona baino ez ziren prestazio horien hartzaileak Euskadin, 2020ko abenduan baino % 89,7 gutxiago.

...

Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) 2021ari buruz emandako behin-behineko datuen arabera, hitzarmena indarrean zuten langileen % 27,23k hasi zuten urtea, % 62,9k luzatutako hitzarmena berritu gabe zuten eta % 9,9k hitzarmena bertan behera utzi zuten. **Negoiazio kolektiboaren** estaldura, beraz, langileen % 90,1engana heltzen zen (aurreko urtean baino 5,4 hamarren gehiago). Negoiazio-jarduerari dagokionez, Euskadin urtean zehar 258 hitzarmen erregistratu ziren, 2020an baino % 33,7 gehiago, eta horrek 118.142 pertsonari lan-baldintzak berritzea ekarri du (langileen % 18,7), aurreko urtean baino % 7,7 gehiago. EAEn eremuan, akordio gehiago erregistratu ziren (186 hitzarmen, sektoreko 13 eta enpresako 173) EAEn eragina izan zuten estatukoan baino (72 hitzarmen erregistratu ziren), eta, aldi berean, lehenengoek langile gehiago hartu zituzten (61.345 pertsona; estatu-mailako hitzarmenetan, berriz, 56.797).

Ondorioz, negoziazio kolektiboaren egoera, urtea amaitzean, honako hau da: langileen % 45,9k indarrean zuten hitzarmen bat (% 18,7, urtean erregistratutako hitzarmenekin, eta % 27,2, aurreko urteetan); % 44,3k luzatuta zeukan, berritzeko, eta gainerako % 9,8k hitzarmena indargabetuta zuten (beraz, egiteke zeuden hitzarmenen % 54,1). Ondorioz, 2021ek negoziazio kolektiboaren estaldura-maila % 90,2koa izan zen (2020ko ratio bera).

Lortutako akordioen edukiei dagokionez, EAEn indarrean dauden hitzarmenetan 2021erako itundutako batez besteko soldata-igoera % 1,23koa da (% 1,47 Estatu osoan); aldiz, lanaldiaren batez besteko murrizketa urteko 0,52 ordukoa izango da (-0,66 ordu 2020an), eta hitzartutako batez besteko lanaldia urteko 1.669 ordukoa izango da. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriek dagokionez, LHKren txostenak nabarmentzen du indarreko hitzarmenen % 48,7k soilik hartzen dituela barnean horrelako neurriak (% 47,2 2020an), horietako gehienek edoskitze-eskubidea metatzeko aukerarekin lotuta, bai eta indarreko legerian ezarritakoa hobetzen duten ordaindutako baimen batzuk ere.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak **lan-gatazkei** buruz emandako datuek erakusten dute 2021ean gure erkidegoan greben eta lanaldiaren kopuruak gora egin duela, 2020an behera egin ondoren. Gatazka horien ondorioz, langileen kopuruak behera egin badu ere. EAEn, aurrean, 248 greba erregistratu dira, 14.848 parte-hartzaile izan dituztenak, eta guztira 140.775 lanaldi sortu dituzte lan egin gabe. Kopuru horiek 2020. urtearekiko % 30,5 eta % 135,6 arteko igoerak dakartzate greben kopuruari dagokionez, eta lan egin gabeko lanaldiei dagokionez, berriz, % 42,1 murriztu dira parte-hartzaileak.

Bestalde, EINen Lan Kostuen Hiruhilekoetako Inkestako zifren arabera, 2021ean (urteko batez bestekoak), enpresen eta langileen artean **itundutako hileko ordu** kopurua 149,10 izan zen, 2020an baino %1,5 gehiago. Ordu horietatik, 120,53 (%+7,2), %80,8, ikusi den bezala, benetan lan egindakoak izan ziren. Ratio hori nabarmen handitu da azken urtean, 2020an ratio hori nabarmen jaitsi ondoren. Era berean, 2021ean lan egin gabeko orduak 28,93 dira langile eta hilabete bakoitzeko, 2020an baino % 17 eta % 24 gutxiago benetan lan egindako ordu bakoitzeko.

Zifra horiei zuzenean lotuta, gogoratuko dugu 2020an lan-merkatuan pandemiaren ondorioz gertatutako gertakarietako bat, enpleguaren jaitsieraz gain, **telelanaren** zabalkundea izan dela, baina une honetan ez dakigu zein neurritan bizkortu den haren behin betiko ezarpena. EINen BAik erakusten du, lehenik, 2020ko bigarren hiruhilekoan (aldi horrek jasotzen ditu konfinamendu egun gehienak), EAeko 32.700 lagunek noizean behin lan egin zutela euren etxeetatik, hau da, landunen % 3,6k, 2019ko zifra bera ia. Baina, horrez gain, beste 113.100ek, % 12,6k, erreferentziatzeko asteko egunen erdia baino gehiago etxetik lan egin zuten; 2019an, ordea, % 4,3 izan zen. Horren ondorioz, 145.800 lagunek, landunen % 16,2k, etxetik lan egin zuten aurreko urtekoak halako bi baino gehiago.

2021ean, EAeko pertsona landunen % 9,3k telelana egin zuten (% 4,5ek noizean behin, eta % 4,8k egunen erdietan baino gehiagotan). Ratio hori 86.200 langileri dagokie, 2020an baino % 16 gutxiago. Zifra horiek adierazten dute ratioak jaitsi egin direla, bai guztira (-1,9 puntu, 2020ren aldean), bai noizbehinkako telelanaren (-0,3) eta ohiko telelanaren (-2,2 puntu) ratioak, 2020ren aldean. Estatuan, aldiz, telelanaren erabilera orokorra igo egin da aurreko urtearekin alderatuta, % 15,3ra (+0,3) iritsiz, formula horren noizbehinkako enpleguaren igoeraren ondorioz (% 5,8 eta % 4,2, hurrenez hurren, 2020an); izan ere, telelana 1,3 puntu murriztu da egunen erdietan baino gehiagotan, % 9,5eraino. Beraz, telelana neurri txikiagoan erabiltzen da gure erkidegoan eta, gainera, alde hori handitu egin da. Dena dela, alde horien interpretazio zuzena egiteko, zenbait aldagai aztertu behar lirateke, hala nola egitura produktiboa, eta gainera kontuan hartu Estatuko batez bestekoak era askotako errealitateak eta datuak jasotzen dituela.

...

Soldatei dagokienez, EINen Soldata Egituraren Urteko Inkestaren arabera, 2019an (eskuragarri dagoen azken datua), langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia 29.476 € zen EAEn, aurreko urtearekin alderatuta % 3,5 igo delarik (% +0,9, 2017 eta 2018 artean). Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 20,8 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondoren Madril eta Nafarroa daude. Sexuen arabera soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena baino autonomia erkidego guztietan 2019an, hala ere aldea desberdina da batzuen eta besteen artean. Enpleguak eta okupazioak erkidego bakoitzean duten egitura desberdina funtsezko faktorea da aldakortasun hori azaltzeko. Batez beste, emakumeen soldata gizonen soldataren % 80,5 zen, eta beraz, arrakala % 19,5koa da (-1,9 puntu aurreko urtearen aldean).

Eta, lanaldi desberdinak dituzten langileak berdintasun-baldintzetan ikasi ahal izateko beharrezkoa den lan-orduko irabazia kontuan hartuta, irabazia, 2019an, 19,52 eurokoa izan zen gure erkidegoan, 2018an baino %3,4 handiagoa. Orduko irabazia, urteko batez bestekoa bezala, autonomia-erkidego guztietako handiena da (eta Estatuko batez bestekoa (15,85 euro orduko) baino %23,2 handiagoa). Sexuaren arabera, EAeko emakumeen orduko batez besteko irabazia 18,46 eurokoa zen 2019an (+% 5,1, 2018arekin alderatuta); gizonen kasuan, berriz, irabazia 20,40 eurora igo da (+% 2,3). S Sexuaren arabera alde horrek esan nahi du emakumeek orduko kobratu zutela Euskadin gizonek jaso zutenaren % 90,5, edo, bestela esanda, orduko irabazia % 9,5 txikiagoa izan zela. Arrakala hori 2,4 puntu txikitu da azken urtean.

Bestalde, EINeko Laneko Prezioen Indizeak (lan-merkatuaren presioen ondorioz soilik eskulanaren prezioan izandako aldaketa neurtzen du, egindako lanaren kalitatean eta kantitatean izandako aldaketek eraginik izan gabe) erakusten du 2018tik 2019ra (azken datua) % 0,1 izan dela, Estatuko batez besteko aldakuntzarekin alderatuta (+% 0,5). Oinarrizko urtetik (2016-2019) izandako bilakaera aztertuz gero, igoera % 4,05koa izan da: 2019rako EAeko datua 104,05 da, eta Estatuko batez bestekoa, berriz, 105,77. Datu horrek adierazten du aldi berean soldatak % 5,77 igo direla.

...

Lan-merkatuaren egoera horretan, garrantzi berezia dute, batetik, langabeek enplegua lortzeko eta horri eusteko **politika aktiboek**, eta, bestetik, langabeen babes ekonomikora bideratutako politika pasiboek.

Lehenik eta behin, **enplegu-politika aktiboak** (EEP) tresna nagusietako bat dira Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak ezarritako Enplegu Estrategiak eta horiek garatzen dituzten Planak garatzeko, laneratzea, mantentzea eta laneratzea sustatzeko, pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, enplegu-mailak handitzeko eta Euskadin enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea indartzeko.

2021eko apirilean onartu zen 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia (EEE), eta etapa berri bat ireki zuen kalitatera, gizarteratzera eta berdintasunera bideratutako enplegu-politikan. Horrez gain, trebakuntzarako eta aktibaziorako eskubide subjektiboari aurre egiten dio, enplegua Euskadik aurrea egiteko eta gizarte-kohesioa lortzeko bitarteko izan dadin. Bat egiten du gobernu-programaren ardatzekin, Bepiztu programarekin, Espainiako Gobernua diseinatzen ari den estrategiarekin, Next Generation EU proiektuarekin eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin, eta lan-merkatu bat eratu nahi du, Euskadiren garapen sozial eta ekonomiko iraunkor eta berdinzaleari lagunduko diona, eta kalitatezko enplegu-aukerak eskainiko dituena ekitatean, gizarteratzearen eta giza garapenaren alde.

Bigarren mailan, EEEren ondoren, Enplegu Planak daude. 2017-2020 Enplegu Plana eta haren helburuak lortzea pandemiaren agerpenak eta haren inpaktuek baldintzatu zuten 2020an zehar maila guztietan, bai eragin sozial eta ekonomikoetan (enpleguaren egoera barne), bai jardun publikoaren lehentasun eta gaitasunetan, hain testuinguru konplexu batean. Hori dela eta, Sailaren ustez, haren zenbait jardun-ildo indarrean daude oraindik. Hauek dira aurrerapen nagusiak:

- Langabezia-tasa % 11,2 zen 2020ko laugarren hiruhilekoan, hau da, ehuneko 1,4 puntu jaitsi zen hasierako egoerarekin alderatuta (% 12,6 2016ko IV. hiruhilekoan). Helburu hori 2020an aurreikusitakotik behera zegoen (% 10etik beherako tasa). Gogorarazi behar da aurreko urtean lortu zela helburua (langabezia-tasa % 9,3 izan zen 2019ko laugarren hiruhilekoan), eta, ondoren, enplegu-zifrek susperraldi bizia izan dutela 2021ean.
- Era berean, Planak lan-merkatuan eragin globala izango zuela aurreikusi zuen: 77.000 lanpostu inguru sustatzea, 7.350 enpresa berri sortzea eta 36.000 gazteri lan-aukera bat ematea. Planak garatutako jarduerak aurreikusitako enpleguen % 133 (76.862) sustatzen lagundu zuten, baita 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako enpresa berrien % 122 (7.349) sortzen ere.

Gazteen enpleguari laguntzeari dagokionez (enpresei beren titulazioarekin lotutako enpleguetan eta toki-erakundeetan kontratatzea, gazte-ekintzailatza, hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioko lehen esperientzia, nazioartean esperientzia praktikoa hartzeko bekak eta plantillak lan-eskaintza publikoen eta txanda-kontratuen bidez berritzea), 2020. urtearen amaieran lortutako emaitzek % 180 (35.909 gazte) betetzen laguntzen dute 2017-2020 aldirako aurreikusitako helburuetan.

Bestalde, **LANBIDEK, Euskal Enplegu Zerbitzuak**, funtsezko zeregina du EAEko enplegu-politika aktiboen garapenean eta Planaren ezarpenean, haren eginkizunak lan-aktibazioa (enplegua sustatzeko, bitartekotza, orientazioa, eta abar) eta enplegurako prestakuntza (landunak nahiz langabeak) baitira.

Aurrekontu-likidazioetatik abiatuta (aitortutako obligazioak), LANBIDEk 2020an 850,5 milioi euroko gastua izan zuela ezagutzen da, 2019an baino % 2,8 gehiago; horietatik 476,7 milioi euro bideratu ziren Gizarteratze Programara (2019an baino % 5,6 gehiago), 244,4 milioi euro (% 28,7) Enplegu Programara (2019an baino % 0,7 gutxiago) eta 85,8 milioi (gastuaren % 10,1) Prestakuntza Programara (2019an baino % 18,5 gutxiago). Era berean, LANBIDEk 21,2 milioi euroko aparteko partida bat izan zuen 2020an, COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurrietarako eta, zehazki, enpresei (17,9 milioi euro) eta familiei (2 milioi) laguntzeko. Prestakuntza- eta enplegu-programen batura enplegu-politika aktiboetan egindako gastua kontuan hartzea sinplifikatzea bada ere, gizarteratze-programekin duen lotura dela eta, Lanbidek 2020an enplegu-politika aktiboetan egindako gastua 330,2 milioi eurokoa izango dela kalkulatu daiteke, 2019an baino % 6 gutxiago, 2018tik 2019ra bitartean izandako % 16,4ko hazkundearen aldean.

Langileei zuzendutako **etengabeko prestakuntza** ere enplegu-politika aktiboen barruan sartzen da. EAEn, indarrean dagoen araudiaren eta eskumen-banaketaren ondorioz, jarduera horiek LANBIDEk eta Estatuko Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioak (FUNDAE) kudeatzen dituzte.

FUNDAEk sustatutako ekintzei dagokienez, 2020an (eskuragarri dagoen azken datua), EAEko 119.869 langilek 185.994 prestakuntza-ekintzatan parte hartu zuten (pertsona batek urtean prestakuntza bat baino gehiago egin dezakeelako), aurreko urtean baino % 20 gutxiago, 13.919 enpresa prestatzaileraren esku-hartzeari esker (segurtasun hobariduna –% 12,5 2019ren gainean–). Enpresa horiek % 22,5 milioi euroko prestakuntza erabili zuten (% 24,5), eskuragarri zeuden funtsen arabera. Jardueraren eta erabilitako baliabideen beherakada hori, ziurrenik, prestakuntza-jardueren ohiko ospakizuna eragotzi zuen urte batean gertatu zen.

...

Enplegu-politika pasiboei dagokienez, EAEn langabezia-prestazioetara bideratutako gutzizko gastua 942,73 milioi eurokoa izan zen 2021ean, behin-behineko datuekin, 2020an baino % 27,3 gutxiago (urte horretan izugarri igo zen gastu hori, 1.295 milioi eurotik gora egin baitzuen). Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 1,22 da (%1,81 aurreko urtean), eta Estatu osoko langabeziako gastu osoaren % 3,66 da. Estatuan 25.700 milioi baino gehiago da gastu hori (2020an baino - % 25,1 gutxiago).

Prestazio horiek jasotzen dituztenen kopuruaren hileko bilakaerak hautsi egin zuen profil tradizionala 2020an, gutxi gorabehera lineala, COVID-19ak eragindako krisi sakonaren ondorioz 2021ean, bilakaera hori marjina egonkorragoetara itzuli zen, eta urte arteko jaitsiera handiak izan zituen apiriletik aurrera. Abuztuan egon ziren hartzaile gehien, 60.000 hartzaile baino gehiago. Harrezkero, hileko datuak behera egin du: 2021ean 50.601 hartzaile izan dira, 2020ko abenduan baino % 20,5 gutxiago.

Abenduko langabezia-prestazioak jaso zituzten 50.601 pertsonetatik, % 57, kotizaziopeko prestazioenak ziren (28.866 pertsona), % 38,1, laguntzenak (19.280) eta % 4,9k laneratzeko errenta aktiboa jasotzen zuen (2.455). Estatuan, hil horretan bertan, 1,8 milioi onuradun erregistratu ziren, 2020ko abenduan baino milioi erdi gutxiago. Eta, erregistraturiko langabezia guztiaren kopuruak kontuan izanik, esan liteke ezen, 2021eko abenduan (114.845 langabetu erregistratuta egonda), EAEko 100 langabetatik 56k ez zutela prestaziorik jasotzen (51ek 2020an), jasotzen zuten 44etatik, 25ek kotizaziopeko prestazioa jasotzen zutela, 17k subsidiarioa eta 2k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Kopuru horiek izanik, Estatuko batez besteko estaldura % 62,6 zen (2020ko abenduan baino % 0,7 gutxiago), eta EAEkoa baino txikiagoa da (lehenago lan eginda zeuden eta hil horretan erregistraturiko langabeen % 50,3, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Estaldura hori 5,7 puntu txikitu da azken urtean. EAEk autonomia-erkidego guztietatik langabeziaren estaldura-tasarik txikienetako bat dauka, Ceuta, Melilla³³ eta Errioxa alde batera utzita berarekin.

...

Halaber, bere inguruabar sozialengatik eta ekonomikoengatik (gizartean baztertuta edo arrisku horretan egotea) edo ezintasunen bat izategatik lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako enplegu politikaren kopuruak aurkeztuko dira. Kasu honetan, helburu nagusia ordaindutako enplegu duina eta inklusiboa bermatzea da, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta pertsona horiek behar dituzten egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen prestazioei buruzko Konbentzioaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldi berean, lan-merkatu arruntan sartzeko bitarteko bat izan nahi dute. Hori guztia hain zuzen ere enplegua pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da 2020ko abenduan, EAEn, orotara 9.837 ezinduk (% 64,5 gizonak eta % 35,5 emakumeak) 76 Enpleguko Zentro Berezitako plantilletan egiten dutela lan. Sexuaren araberako banaketa ia ez da aldatu, baina kolektibo horrek 39 pertsona gutxiago ditu (% -0,4) 2019ko abenduarekin alderatuta. Eta, zentro horiek mantentzeko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak 47,63 milioi euro bideratu zituen guztira 2020an (2019. urtearekin alderatuta, %-14,4). Horrez gain, LANBIDEk, 2020an, 5 milioi euro erabili zituen (+% 19 2019aren aldean), 4.686 langile ezinduri laguntzeko (+% 2,5) EAEko 36 EZBetan, EZBko jarduera profesionalerako laguntza-unitateetako 556 adituren lanari esker.

³³ Arrazoietako bat da langabezia-laguntzari lotzeko, behin kotizaziopeko prestazioa amaituta, bizikidetzaren errenta kontuan hartzen dela, eta errenta hori, EAEn, laguntza lortzeko gehieneko tartearen gainetik egoten dela askotan. Hori dela eta, langabeziaren dauden pertsona askok ezin dute laguntza hori eskuratu, eta sistema horretatik kanpo geratzen dira.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori laneratzeko enpresen bidez hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, bai besteren konturako langile gisa, bai bazkide langile edo laneko bazkide gisa, laneratze enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarreanean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatetik ondorioztatzen da. 2003tik 2019ra bitartean, 133 milioi euro inguru banatu ditu Eusko Jaurlaritzak laguntza-lerro horrek, urtean 37 erakunde onuradun batez beste eta 4.000 laneratze-langile onuradun. 2020an 38 laneratze-enpresari eman zitzaizkien laguntzak, eta horien zenbatekoa 7,2 milioikoa izan zen. Laguntza horiek eman ziren 157 laneratze posturi eta ekoizpenari eta laneratzeari laguntzeko 105 teknikariren lanposturi laguntzeko. Horrela, 2020. urtearen amaieran, laneratze postuak, guztira, 637 izan dra (aurreko deialdi berriagoak).

...

OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2021ean 33,66 **lan-istripu izan ziren** (**lan**-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatzeko den kopurua) gure Erkidegoan milako (29,35 milako 2020an eta, beraz, ratioa 4,31 puntu handitu da). Sektore bakoitzari dagokionez, intzidentzia handiena eraikuntzan gertatzen da (milako 66,55), eta 4,97 puntu igo da 2020. urtearekin alderatuta. Horren atzetik daude lehen sektorea, milako 60,86rekin (+2,56) eta industria, milako 60,36rekin, eta 4,72 puntu igo da 2020rako. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoa baino txikiagoa da, milako 24,39 (+4,31 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak kalkulatzeko duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, Balear Uharteak ziren rankingeko buruan istripuetan 2021ean, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEn, milako 28,79ko indizearekin, % 5,5 jaitsi da ratioa (ehuneko -1,51 puntu), eta, beste urte batez, Estatuko batez bestekoaren gaineratik mantendu da (milako 26,71), hein batean sektorearen egitura dela-eta, industriak pisu handiagoa baitu, sektore horretan ezbehar-tasa batez bestekoa baino handiagoa baita.

Gainera, kontratu motaren arabera lan istripuen datuek erakusten dutenez, lan ezbeharren kopurua handiagoa zen aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean kontratu mugagabea zutenen artean baino. Hala adierazten dute 2020koak diren Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioko azken datuek. Zehazki, kontratu mugagabea duten pertsonen ezbehar-tasa 26 izan zen mila soldatako (EPA inkestaren enplegu sailak erabiliz). Aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, berriz, 44,7 izan zen, milako. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Eta, ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da 2009an kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua duten pertsonen arteko istripuen indizea 26,4 istripukoa zela 1.000 soldatapeko bakoitzeko, eta 2020an 18,7ra gutxitu zen.

Larritasunaren arabera, azken urtean gora egin dute gorabehera arin eta larriek (+%15,9 eta +% 8,9, hurrenez hurren), eta are gehiago, istripu hilgarriek (%47,6). Gainera, istripua izan zuten pertsonen % 75 gizonetzkoak izan ziren.

7.2. ONDORIOAK

EAEko lan-merkatuak 2021ean izan duen bilakaera, oro har, positiboa izan da. Izan ere, enpleguaren adierazle nagusiek okupazioaren hazkundera erakusten dute, eta horri esker ia pandemiaren aurreko egoera berreskuratu ahal izan da, eta, aldi berean, 2020ko Memorian nabarmendu genuen bezala, ABEEen mekanismoak, une honetan presentzia txikiagoarekin, aukera eman du koiunturazko egoerak egiturazko eragin negatiboa izatea lan-merkatuan, lanpostuen galera nabarmen murriztuta.

Enpleguaren susperraldia batez ere gizonena izan da eta zerbitzuen sektorean, eta horri esker, pandemiak 2020an izandako jaitsieraren zati handi bat lehengoratu ahal izan da, eta aldi berean, industriak datu kontrajarriak ditu (BJAk lanpostuen galera eta langabeziaren jaitsiera batez bestekoa baino txikiagoa adierazten du, eta afiliazioak eta kontratuek hobekuntza nabarmena adierazten dute). Sektore horrek gure produkzio-sisteman duen garrantzia kontuan hartuta, kezkatuta gaude eta adi egon beharko dugu.

Era berean, kezkarriak dira eta gure arreta merezi dute lanaldi partzialeko enpleguaren eta behin-behinekotasunaren hazkundera, 2021. urtearen amaieran onartutako erreformaren ondorioen zain, gai horietan eragin nahi baitu.

Ildo horretan, Europako berreskuratze-funtsek etorkizuneko jarduera eraldatzaileetan enplegua sortzen eta bultzatzen lagundu nahi dute, mundu mailako produkzio-sistema aurreratu eta lehiakorrerako trantsizioa erraztuko duten ekimen estrategikoak bultzatuta. Izan ere, azken horren etorkizuneko bilakaerak ezezagun garrantzitsuak planteatzen ditu une honetan, enpleguaren kalitate-estandarrak eta gizarte eta lurralde mailako kohesioa ahal den neurrian mantenduz eta hobetuz.

Bestalde, gure inguruko Europako herrialdeekin alderatuta, jarduera-tasa txikiek jarraitzen dute bi sexuetan eta adin-talde guztietan, eta egoera hori bereziki kezkarria da emakumeen eta adin handiagoko pertsonen kasuan, langabeziak gehien ukitzen dituenak baitira, bai orokorrak, bai iraupen luzekoak. Egoera hori zuzendu egin beharko litzateke, kontuan hartuta, gainera, jomugan dugun egoera demografikoa.

Izan ere, kontuan hartu behar da, hobekuntza orokorra gorabehera, langabeziak eragin handia duela oraindik kualifikazio txikieneko pertsonen artean: LANBIDEn erregistratutako hamar langabetutik zazpi kualifikazio txikia du, baita iraupen luzeko langabeziaren eragin handia ere.

Ildo horretan, 2020ko Memorian adierazitakoa azpimarratu nahi dugu. Izan ere, kolektibo horiek behar duten arretak ez luke koiunturazko arazoaren eraginik jasan behar, laneratzeko beharrezkoak diren tresna egonkorrez eta kalitatez hornitu ahal izateko.

Gainera, enplegurako politika aktiboek beren garrantziari eutsi diote aurrean ere, eta, bereziki, beren prestakuntza-eskaintza Europako funtsen jomuga diren eremuetara egokitu behar dutelako (digitalizazioa eta ekonomia jasagarria). Ildo horretan, gai izan behar dugu langabeei eta, oro har, enplegu-eskatzailerak guztiei beharrezko tresnak eskaintzeko, lan-merkatuan sartzen, mantentzen eta hobetzen laguntzeko, trantsizio handiek (teknologiko-digitala, sozio-sanitarioa eta energiaren eta ingurumenaren arlokoa) gero eta gehiago eragiten dieten produkzio-sarearen barruan.

Azkenik, funtsezkoa da abian dauden enplegurako programak ebaluatzeko mekanismoak hobetzea, bereziki okerren funtzionatu duten eremuetan, horien eraginkortasuna handituko duten eta indarrean dagoen Enplegu Estrategiaren eta horren ondoriozko planen garapenean lortu beharreko helburuak betetzen lagunduko duten neurriak diseinatzeko eta ezartzeko.

1. BIZI-BALDINTZAK

Memoria honen hurrengo orrialdeetan landuko diren bizi-baldintzen eremuen adierazle argigarriek agerian uzten dute Euskadik bizi-kalitatearen estandar altuak dituela, bai estatuan, bai nazioartean.


Munduko testuinguruan, EAEk 12. postuari eusten dio 2019an (eskuragarri dagoen azken datua, 2020ko abenduan argitaratua ¹ – Singapurren eta Erresuma Batuen artean–, **NBEren Giza Garapenaren Indizearen (GGI)** sailkapenaren arabera (2018an zegoen posizio bera). Giza aurrerapenaren mundu mailako indize sintetikoa da, eta pertsonen osasunari, hezkuntzari eta diru-sarrerei buruzko informazioa uztartzen du. Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) ² metodologia hau kalkulatzeko du:

NBGPren txostenak munduko 189 herrialdeetako sailkapena ezartzen du, bizi-baldintzen arabera ordenatuta. Azterlanak horietako bakoitzari GGI bat esleitzen dio (0tik 1era bitarteko eskalan), eta euskal gizartea planetako garatuenen artean kokatzen du, 0,937 punturekin, Norvegiaren (0,957), Irlandaren, Suitzaren, Hong-Kongen, Islandiaren, Alemaniaren, Suediaren, Australiaren, Herbehereen, Danimarkaren, Finlandiaren eta Singapurren atzetik.

Espainia 25. postuan dago (2018an bezala) NBGPren txostenean, 0,904ko GGIarekin. Sailkapena Nigerrek ixten du, 0,394rekin.

NBGPren txosten berria argitaratu bitartean, memoria hau egiteko unean EAerako datuen aurrerapen bat dago, EUSTATEk egina, 2020rako behin-behineko datuekin. 2010-2020 aldian, Euskadiko GGIren osagai guztiek hobera egin dute: bizi-itxaropena 82,4 urtetik 83,1 urtera igaro da, eta gauza bera gertatzen da aurreikusitako eskolatzeko urteen adierazleari dagokionez, 18,1 urtetik 18,5 urtera igaro baita. Batez besteko eskolatzeko-urteei dagokienez, 10,2tik 11,3ra igaro dira, eta per capita errenta 50.877 dolarretik 52.354 dolarrera igo da. Horren ondorioz, EAEko GGI 0,912tik 0,930era igaro da.

IV.1.1. GRAFIKOA. GIZA GARAPENAREN INDIZEA 2019.



Iturria: EUSTAT: Egitura-adierazleak 2020.

¹Ezin izan da eguneratu 2020ko Memoria Sozioekonomikoaren edizioari buruzko informazio hori, eta xehetasun gehiago nahi izanez gero, bertara jo behar da.

²Giza garapenaren oinarritzko hiru dimentsiotan zentratzen den indize konposatu bat da GGI: bizi-itxaropena, osasun-eremua eta eskolatzeko urteak. GGIaren osagai guztiek hobera egin dute: bizi-itxaropena 82,4 urtetik 83,1 urtera igaro da, eta gauza bera gertatzen da aurreikusitako eskolatzeko urteen adierazleari dagokionez, 18,1 urtetik 18,5 urtera igaro baita. Batez besteko eskolatzeko-urteei dagokienez, 10,2tik 11,3ra igaro dira, eta per capita errenta 50.877 dolarretik 52.354 dolarrera igo da. Horren ondorioz, EAEko GGI 0,912tik 0,930era igaro da.

Hala eta guztiz ere, IV.1.1 taulan ikusten den bezala, 2020rako behin-behineko datuek adierazten dute giza garapenak okerrera egin duela gure erkidegoan azken urtean: indize orokorra 0,937tik 0,930era jaitsi da, jaiotzako bizi-itxaropenean izandako bilakaera negatiboen ondorioz (83,9tik 83,1era), aurreikusitako eskolatzeko urteetatik (18,6tik 18,5era) per capita errentan: nabarmen jatsi da: 57.438 dolarretik 52.354 dolarrera (-%8,9%).

IV.1.1. TAULA EAE-KO GIZA GARAPENAREN INDIZEAREN BILAKAERA, DIMENTSIONEN, ADIERAZLEEN ETA INDIZEEN ARABERA. 2010-2020.								
	GGI	1. OSASUN DIMENTSIONA		2. HEZKUNTZA DIMENTSIONA			3. BIZI-MAILA DIMENTSIONA	
		BIZI ITXAROPENA JAIOTZEAN (URTEAK)	BOLUM EN-INDIZEA	AURREIKUSITAKO ESKOLATZE-URTEAK	ESKOLATZEAREN BATEZ BESTEKO URTEAK	HEZKUNTZA INDIZEA	PER CAPITA ERRENTA NAZIONAL GORDINA (US \$) PP-TAN	BIZI-MAILAREN INDIZEA
2010	0,912	82,4	0,959	18,1	10,2	0,841	50.877	0,941
2011	0,913	82,4	0,960	18,2	10,3	0,842	51.046	0,942
2012	0,915	82,7	0,964	18,4	10,4	0,846	50.320	0,940
2013	0,919	83,1	0,971	18,6	10,6	0,854	49.573	0,937
2014	0,921	83,3	0,973	18,8	10,8	0,860	48.867	0,935
2015	0,923	83,0	0,969	18,8	10,9	0,863	50.642	0,941
2016	0,928	83,4	0,975	18,8	11,0	0,866	52.597	0,946
2017	0,931	83,5	0,977	18,8	11,0	0,867	54.415	0,952
2018	0,934	83,6	0,978	18,7	11,1	0,870	56.659	0,958
2019	0,937	83,9	0,938	18,6	11,2	0,872	57.438	0,960
2020*	0,930	83,1	0,971	18,5	11,3	0,876	52.354	0,946

Iturria: EUSTAT. Giza Garapenaren Indizea.
*Behin-behineko datuak.

Gizarte bazterketaren arazoa egungo gizarteetan jazotzen ari den zeharkako errealitate bat da. Erakunde eta ikertzaileek urte askoan erabili duten "pobrezia" kontzeptuak ez ditu agortzen, berez, gizarte bazterketaren errealitatea eta horrek berekin dakartzan dinamikak. Horrexegatik dago adostasun zabala azken hamarkadetan, bai gizarte ikerkuntzan diharduen pertsonalaren artean, bai kudeaketa publikoko taldeen artean: pobrezia kategoria "gizarte bazterketa" kategoriara zabaldu da pobrezia ekonomikoaren gaineko ideia zorrotza gainditzea eta, batez ere, egungo gizarteetan gertatu diren eraldaketa sakonak, hain zuzen ere aurrerapen teknologikoen, bizimodu aldaketek eta aribideko gizarte erreformek eragindakoak.

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, EUROSTATen Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren (EU-SILC) azken datuetatik abiatuta, EBko bizi-baldintzei buruzko zifra nagusiak aurkezten dira, eta EAEn eta Estatuaren egoerarekin erlazioz azaldu dira, "ARPE" tasaren (*population at risk of poverty and exclusion*) osagaiak xehetasunez aztertuta. eta, horren bidez, Europako Batzordeak 2020 aldirako finkatutako helburuen jarraipena egiten du.

Jarraian, EINen 2020ko Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren (BBI) emaitzak eskaintzen dira. Inkesta horrek EAEn bilakaera alderatzeko aukera ematen du, gainerako autonomia erkidegoekin alderatuta, errentaren eta gabezia materialaren adierazle nagusiei dagokienez, eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzaren 2020ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) emaitza nagusiak aurkezten dira³.

Kapitulu honen bigarren blokean, EAEn familien problematikari, familia eta lana uztartzeko premiei eta horretarako garatutako politikari buruzko azterlanak dago. Ondoren, gure erkidegoko 2020. urteko etxerik gabeko pertsonen egoerari eta premiei buruzko azterlanak dago, Eusko Jaurlaritzak bi urtean behin egiten duena hain zuzen (2019ko Memoria Sozioekonomikoaren edukiak eguneratuz).

³1.3 atalak, Eusko Jaurlaritzaren 2020ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkestari (PGDI) buruzkoak, eguneratu egiten du 2018ko PGDIren informazioa, 2019ko Memoria Sozioekonomikoan jasotakoa.


1.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK EUROPAKO TESTUINGURUAN: "AROPE" TASA

Europar Batasunean, 2008ko krisiak eragin oso larriak izan zituen jarduera ekonomikoan eta enpleguan. Pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dauden EBko biztanleen kopurua nabarmen hazi zen urte hartatik aurrera, eta maximoa 2012an lortu zuten (% 24,9), baina poliki-poliki murriztu zen orduetik 2019ra.

IV.1.2. TAULA EAE-KO BIZI-BALDINTZAK. "EUROPA 2020" ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK ETA ESTATUAREKIN ETA EB-REKIN ALDERATZEA				
	EAE		ESTATUA 2020	27KO EB 2020
	2008	2020		
"AROPE" TASA	13,9	13,9	26,4	22,0
- POBREZIAREN ATALASEAREN AZPITIK DAGOEN BIZTANLERIAREN % (MEDIANAREN % 60) – MONETA-POBREZIA	9,1	10,0	21,0	17,1
- GABEZI MATERIAL LARRIA	2,8	5,0	7,0	6,3
- LANEKO INTENSITATE TXIKIA (<59 URTE)	6,5	7,4	9,9	8,5

Iturriak: EUROSTAT eta INE.

IV.1.2. GRAFIKOA. POBREZIA- ETA BAZTERKETA-ARRISKUAREN TASAREN ETA HAREN HIRU OSAGAIEN BILAKAERA EUROPAR BATASUNEAN (27KO EB)



2020an (eskuragarri dagoen azken datua), egoera horrek biztanleriaren % 22ri eragiten dio, 2019an baino 1,1 puntu gehiago, edo, bestela esanda, EBko 96,8 milioi herritarri, Europa 2020 Estrategian⁴ finkatutako irizpideen arabera. Estrategia horri "AROPE Tasa" (*population at risk of poverty and exclusion*) deritzo. Horietatik % 53,3 emakumeak ziren (haien AROPE tasa % 22,9 da, batez bestekoa baino 9 hamarren handiagoa) eta % 46,7 gizonezkoak (pobrezia edo bazterketa arrisku-tasa: % 20,9).

2019. urtearekin alderatuta, Batasunaren batez besteko tasa 1,1 puntu igo da (+5,2 milioi pertsona eraginpean). Beraz, intzidentzia 8 herrialdetan hazi da eta 18 herrialdetan murriztu (ez dakigu haietako baten, Italiaren, datua).

Eta, 2008arekin alderatuta, EBko batez bestekoa urte hartako datua baino 1,7 puntu txikiagoa da (19,3 milioi pertsona gutxiago daude egoera horretan), nahiz eta Batasuneko 7 herrialdetan –horien artean dago Espainia– pobrezia- eta bazterketa-arriskua are handiagoa den urte hartan hasitako krisia baino. Gogora dezagun Europa 2020 Estrategiak ezarritako helburua pobrezia- eta bazterketa-arriskuak eragindako pertsonen kopurua 20 milioi murriztea zela, 2008ko zifrarekin alderatuta. Hala ere, kontuan hartu behar da helburu hori 27 herrialdek osatutako Batasunerako

⁴Europa 2020 Estrategiako irizpideen arabera, pertsona bat pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dago langabezia-arazoak edo lan-intentsitate txikia dituen familia-unitate batean bizi bada eta familia-unitate horrek gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arrisku badu eta/edo gabezia material larria badu.

finkatu zela, eta herrialde horien artean Erresuma Batua zegoela eta artean Kroazia sartu gabe zegoela (2013an egin zuen)⁵.

IV.1.3. TAULA POBREZIA- EDO GIZARTE-BAZTERKERIA-ARRISKUAN DAUDEN EB-KO BIZTANLEAK, "EUROPA 2020" ESTRATEGIAREN IRIZPIDEEN ARABERA,								
	PORTZENTAJEA				ABSOLUTUAK (MILIOIAK)			
	2008	2018	2019	2020	2008	2018	2019	2020
27KO EB	23,7	21,6	20,9	22,0	116,1	94,7	91,4	96,8
BELGIKA	20,8	20,0	19,5	18,9	2,2	2,2	2,2	2,2
BULGARIA	44,8	32,8	32,5	32,1	3,4	2,3	2,3	2,2
TXEKIAR ERREPUBLIKA	15,3	12,2	12,5	11,9	1,6	1,3	1,3	1,2
DANIMARKA	16,3	17,0	16,3	15,9	0,9	1,0	0,9	0,9
ALEMANIA	20,1	18,7	17,4	24,0	16,4	15,3	14,2	19,7
ESTONIA	21,8	24,4	24,3	23,3	0,3	0,3	0,3	0,3
IRLANDA	23,7	21,1	20,6	20,9	1,1	1,0	1,0	1,0
GREZIA	28,1	31,8	30,0	28,9	3,1	3,3	3,1	3,0
ESPAINIA	23,8	26,1	25,3	26,4	10,8	12,0	11,8	12,4
FRANTZIA	18,5	17,4	17,9	18,2	11,2	11,0	11,1	11,7
KROAZIA	:	24,8	23,3	23,2	:	1,0	0,9	0,9
ITALIA	25,3	27,3	25,6	:	15,1	16,4	15,4	:
ZIPRE	23,3	23,9	22,3	21,3	0,2	0,2	0,2	0,2
LETONIA	34,2	28,4	27,3	26,0	0,7	0,5	0,5	0,5
LITUANIA	27,6	28,3	26,3	24,8	0,9	0,8	0,7	0,7
LUXENBURGO	15,5	20,7	20,6	20,9	0,1	0,1	0,1	0,1
HUNGARIA	28,2	19,6	18,9	17,8	2,8	1,9	1,8	1,7
MALTA	20,1	19,0	20,1	19,0	0,1	0,1	0,1	0,0
HERBEHEREAK	14,9	16,7	16,5	16,1	2,4	2,8	2,8	2,8
AUSTRIA	20,6	17,5	16,9	17,5	1,7	1,5	1,5	1,5
POLONIA	30,5	18,9	18,2	17,3	11,5	7,0	6,7	6,4
PORTUGAL	26,0	21,6	21,6	19,8	2,8	2,2	2,2	2,0
ERRUMANIA	44,2	32,5	31,2	30,4	9,4	6,4	6,1	5,9
ESLOVENIA	18,5	16,2	14,4	15,0	0,4	0,3	0,3	0,3
ESLOVAKIA	20,6	16,3	16,4	14,8	1,1	0,9	0,9	0,8
FINLANDIA	17,4	16,5	15,6	16,0	0,9	0,9	0,8	0,9
SUEDIA	14,9	18,0	18,8	17,9	1,4	1,8	1,9	1,8
EAE	13,9	12,1	14,4	13,9	0,30	0,26	0,31	0,22
ERRESUMA BATUA	23,2	23,1	:	:	14,1	15,1	:	:

Iturria: EUROSTATen eta INEn datuekin guk geuk egina. (2022.01.11n ateratako datuak)

2020ko datuek erakusten dutenez, Bulgarian pobrezia eta bazterketa arriskuan dago biztanleriaren % 32,1, eta egoera ahulean dauden pertsonen tasarik handiena ere badu. Ondoren, Errumania (% 30,4) eta Grezia (% 28,9) daude. Txekiar Errepublikak (% 11,9), Eslovakiak (% 14,8) eta Esloveniak (% 15) tasa txikiak dituzte.

Espanian, 2020ko ratioa % 26,4koa da, Europako batez bestekoa (12,4 milioi pertsona) baino 4,4 puntu handiagoa, eta 1,1, handitu da aurreko urtearen aldean (2008an baino 2,6 puntu gehiago). Sexuaren arabera, emakumeen AROPE tasa % 28,1 da, eta gizonen artean, % 25,9. Hortaz, Espainia intzidentzia maila ertain-altuan dago, Letoniakoaren antzeko posizioan.

EAE, pobrezia- eta bazterketa-arriskuak biztanleriaren % 13,9ri eragiten dio 2020an (EUROSTAT eta INEn metodologiaren arabera), edo, bestela esanda, 305.000 pertsonari (nahiz eta oso interesgarria izan, ez dago sexuaren araberako informaziorik), 2019an baino puntu erdi gutxiago, eta 2008ko ratio berarekin. Intzidentzia horrek, beste urte batez, nahiko baxu eusten dio Europarekin alderatuta, baina Esloveniakoarekin aldera daiteke (% 14,8), Europar Batasuneko bigarren tasarik baxuena baitu, Txekiar Errepublikaren (% 11,9) ondoren.

Eta, Estatuko Autonomia Erkidego guztietan, EAE bigarren postuan dago (% 13,9) Nafarroaren atzetik (% 12), hura baita bigarren urtez jarraian rankingaren buruan dagoena. 2020an, Estatuko batez bestekoa bezalaxe, guztira 13

⁵Memoria hau egiten ari garen honetan, ez daukagu informazio osoa helburua zorrotz bete den baloratzeko.

erkidegok igo dute AROPE tasa, eta soilik 6 erkidegok (EAE barne) murriztu dute. Ratorik handienak Melillan (% 42,4), Ceutan (% 38,8) eta Extremaduran (% 38,7) erregistratu dira.

IV.1.4. TAULA POBREZIA- EDO BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK, EUROPA 2020 ESTRATEGIAKO IRIZPIDEEN ARABERA: "AROPE" TASAREN OSAGIAIK BIZTANLERIA OSOAREN GAINEKO EHUNEKO, 2018-2020.												
	"AROPE" TASA OROKORRA			1. POBREZIA-ARRISKUA (% 60KO ATALASEA)			2. GABEZIA MATERIALA LARRIA			3. LANEKO OSO INTENSITATE TXIKIA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
ESTATUA, GUZTIRA	26,6	25,3	26,4	21,6	20,7	21,0	5,1	4,7	7,0	12,8	10,8	9,9
ANDALUZIA	37,3	37,7	35,1	31,0	31,3	28,5	5,2	5,9	8,0	21,9	18,0	13,5
ARAGOI	15,8	21,1	18,5	13,3	17,9	16,0	0,5	2,3	1,7	5,9	5,5	6,1
ASTURIAS	17,2	24,6	27,7	12,6	20,7	22,2	3,5	3,4	4,5	11,5	14,1	17,8
BALEAR UHARTEAK	24,7	15,1	22,0	21,3	12,0	14,1	6,9	2,9	6,9	3,7	3,5	4,5
KANARIAR UHARTEAK	40,2	35,0	36,3	30,5	28,5	29,9	13,6	3,9	10,7	19,2	14,8	15,3
KANTABRIA	20,5	19,4	23,7	17,6	17,3	18,0	2,2	0,9	4,4	9,3	7,9	7,8
GAZTELA-MANTXA	18,4	16,7	19,8	15,4	12,9	15,1	1,0	2,3	3,6	9,2	7,4	7,9
GAZTELA ETA LEON	33,9	30,7	29,8	28,1	26,2	25,1	4,4	7,4	3,1	12,8	11,8	8,0
KATALUNIA	19,4	18,8	22,8	15,0	13,9	16,7	5,0	5,7	6,2	8,8	8,3	9,8
VALENTZIA	31,3	27,0	29,3	25,6	23,7	24,6	7,4	4,8	11,5	13,6	10,1	11,3
EXTREMADURA	44,3	37,7	38,7	38,8	31,5	31,4	5,6	6,3	8,8	15,4	12,9	11,9
GALIZIA	22,6	24,3	25,7	18,7	20,0	22,1	2,4	3,6	5,2	12,0	11,9	8,5
MADRIL	20,6	19,0	20,9	16,9	15,0	15,4	5,4	4,5	6,9	9,2	6,8	6,0
MURTZIA	34,7	31,9	29,7	30,1	27,7	25,0	6,2	4,3	7,6	12,6	9,2	9,2
NAFARROA	13,5	11,7	12,0	8,3	7,7	9,9	0,3	3,0	6,2	8,2	5,5	7,5
EAE	14,5	14,4	13,9	9,7	10,0	10,0	3,7	3,5	5,0	7,7	10,3	7,4
ERRIOXA	14,4	15,2	19,0	9,7	12,3	15,0	2,9	1,6	2,3	5,4	6,3	6,0
CEUTA	35,8	45,9	38,8	32,5	40,6	35,3	3,8	6,2	6,4	30,6	29,9	22,5
MELILLA	29,4	38,5	42,4	26,2	35,7	36,3	9,4	12,9	13,9	13,9	24,8	38,2

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko Inkesta.

1.1.1. Pobrezia-atalasearen azpitik dauden biztanleak

Adierazle horren osagaiei dagokienez, batetik, 2016an EBko biztanleen % 17,2 pobrezia-arriskuan zegoen gizarte-transferentzien ondoren (moneta-pobrezia); egoera horretan daude, zehazki, diru-sarreraren kontsumo-unitateko banaketaren herrialde bakoitzeko medianaren % 60tik ("pobrezia-atalase" deritzon horretatik) beherako diru-sarrerak dituztenak (osagai hori da, beraz, herrialde bakoitzean gutxieneko errenta-atalase horretara heltzen ez diren biztanleen portzentajea).

Ehuneko hori hamarren bat gutxitu da 2019 urtearekin alderatuta, eta bost pertsonatik pertsona bat baino gehiago egoera horretan dago Bulgarian (% 23,8), Errumanian (% 23,4), Letonian (% 21,6), Espainian (% 21), Lituanian (% 20,9) eta Estonian (% 20,7) Ratorik txikienak Txekiar Errepublikan (% 9,5), Eslovakian (% 11,4), Finlandian (% 12,2) eta Danimarkan (% 12,1) zeuden. 2008tik, informazioa duguneko EBko herrialdeetatik 10etan handitu da pobrezia-arriskua, eta haietatik 14tan gutxitu.

EAE, tasa % 10era iristen da 2020an, azken urtearekiko intzidentziari eutsiz (+9 hamarren, 2008arekin alderatuta), eta 219.300 pertsona ingururi eragiten die (2019an baino 500 gehiago).

Autonomia erkidegoen aldean, EAE batez besteko orokorraren oso azpitik da AROPE tasaren lehen osagaien (% 10 eta % 21); izan ere, soilik Nafarroako Erkidegoaren atzetik dago (% 9,9). Beste muturrean, autonomia-erkidego batzuek % 30eko ratioak gainditzen dituzte Melillan (% 36,3), Ceutan (% 35,3) eta Extremaduran (% 31,4), tasa altuenekin.

1.1.2. Gabezia material larria

Bigarrena, 2020an, EBko herritarren % 6,3k gabezia material larria izan dute; izan ere, baliabide faltak eragindako bizi-baldintzak dituzte, hala nola fakturei aurre egiteko gaitasuna (etxeko ohiko gastuei buruzkoak), etxea bero

edukitzea edo urtean astebeteko oporraldia hartu ahal izatea. Ratio hori 8 hamarren igo da azken urtean, nahiz eta 2008ko % 8,5etik behera dagoen⁶.

Batasunean, gabezia horren intzidentzia asko aldatzen da herrialdeen artean, Suediatik eta Luxenburgotik (% 2tik behera daude) Bulgariara (ia % 20ra iristen da), eta azken urtean horietako talde handi batek (11) okerrera egin du emaitzetan. 2008aren aldean, gabezia larria dutenen proportzioa hazi egin da horretarako datuak dauden 7 herrialdetan, eta behera egin du 18 herrialdetan.

Espainiak % 7ko tasa du (2019an baino 2,3 hamarren gutxiago), eta EAEk % 5koa (% 3,5 2019an), hau da, 110.000 pertsona (aurreko urtean baino 34.000 gehiago). 2008-2020 aldia aztertuta, bilakaera ere negatiboa izan da, % 2,8tik % 5era; izan ere, 2020ko datua BBIn serie osoko altuena da. Autonomia erkidego guztietan, intzidentziarik handienak Melillan, Valentziako Erkidegoan eta Kanarietan izan dira (% 13,9, % 11,5 eta % 10,7, hurrenez hurren), eta txikiak, berriz, Aragoian (% 1,7), Errioxan (% 2,3) eta Gaztela eta Leonen (% 3,1).

IV.1.5. TAULA POBREZIA- EDO BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK, EUROPA 2020 ESTRATEGIAKO IRIZPIDEEN ARABERA: "AROE"												
TASAREN OSAGAIK: EHUNEKOA, BIZTANLERIA OSOAREKIKO. 2008-2020.												
	1. POBREZIA-ARRISKUA (% 60KO ATALASEA)				2. GABEZIA MATERIAL LARRIA				3. LANEKO OSO INTENTSITATE TXIKIA			
	2008	2018	2019	2020	2008	2018	2019	2020	2008	2018	2019	2020
27KO EB	16,6	16,8	17,2	17,1	8,5	6,1	5,5	6,3	9,2	8,8	8,3	8,5
BELGIKA	14,7	16,4	14,8	14,1	5,6	5,0	4,4	3,9	11,7	12,6	12,4	11,9
BULGARIA	21,4	22,0	22,6	23,8	41,2	20,9	20,9	19,4	8,1	9,0	9,3	8,5
TXEKIAR ERREPUBLIKA	9,0	9,6	10,1	9,5	6,8	2,8	2,7	2,4	7,2	4,5	4,2	4,4
DANIMARKA	11,8	12,7	12,5	12,1	2,0	3,4	2,6	2,4	8,5	9,8	9,3	9,1
ALEMANIA	15,2	16,0	14,8	18,5	5,5	3,1	2,6	6,6	11,7	8,1	7,6	9,5
ESTONIA	19,5	21,9	21,7	20,7	4,9	3,8	3,3	2,8	5,3	5,2	5,4	4,7
IRLANDA	15,5	:	13,1	13,9	5,5	4,9	5,4	4,9	13,7	13,0	13,6	12,5
GREZIA	20,1	18,5	17,9	17,7	11,2	16,7	16,2	16,5	7,5	14,6	13,8	12,8
ESPAINIA	19,8	21,5	20,7	21,0	3,6	5,4	4,7	7,0	6,6	10,7	10,8	9,9
FRANTZIA	12,5	13,4	13,6	13,8	5,4	4,7	4,7	4,8	8,8	8,0	7,9	8,8
KROAZIA	:	19,3	18,3	18,3	:	8,6	7,2	6,9	:	11,2	9,2	8,6
ITALIA	18,9	20,3	20,1	:	7,5	8,5	7,4	:	10,4	11,3	10,0	:
ZIPRE	15,9	15,4	14,7	14,3	9,1	10,2	9,1	8,3	4,5	8,6	6,8	5,6
LETONIA	25,9	23,3	22,9	21,6	19,3	9,5	7,8	7,3	5,4	7,6	7,6	7,9
LITUANIA	20,9	22,9	20,6	20,9	12,5	11,1	9,4	7,7	6,1	9,0	7,5	7,3
LUXENBURGO	13,4	18,3	17,5	17,4	0,7	1,3	1,3	1,7	4,7	8,3	7,5	7,9
HUNGARIA	12,4	12,8	12,3	12,3	17,9	10,1	8,7	8,0	12,0	5,7	5,0	5,0
MALTA	15,3	16,8	17,1	16,9	4,3	3,0	3,6	3,3	8,6	5,5	4,9	5,4
HERBEHEREAK	10,5	13,3	13,2	13,4	1,5	2,4	2,5	2,1	8,2	8,6	9,2	8,9
AUSTRIA	15,2	14,3	13,3	13,9	5,9	2,8	2,6	2,7	7,4	7,3	7,8	7,1
POLONIA	16,9	14,8	15,4	14,8	17,7	4,7	3,6	2,6	8,0	5,6	4,7	4,3
PORTUGAL	18,5	17,3	17,2	16,2	9,7	6,0	5,6	4,6	6,3	7,2	6,2	5,1
ERRUMANIA	23,6	23,5	23,8	23,4	32,7	16,8	14,5	15,2	8,5	7,4	6,0	6,3
ESLOVENIA	12,3	13,3	12,0	12,4	6,7	3,7	2,6	3,0	6,7	5,4	5,2	4,8
ESLOVAKIA	10,9	12,2	11,9	11,4	11,8	7,0	7,9	5,9	5,2	5,2	6,2	4,3
FINLANDIA	13,6	12,0	11,6	12,2	3,5	2,8	2,4	2,6	7,5	10,8	9,7	9,9
SUEDIA	12,2	16,4	17,1	16,1	1,4	1,6	1,8	1,8	5,5	9,1	8,6	8,5
EAE	9,1	8,6	10,0	10,0	2,8	3,2	3,5	5,0	6,5	7,1	10,3	7,4
ERRESUMA BATUA	18,7	18,6	:	:	4,5	4,6	:	:	10,4	8,6	:	:

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina (22.01.11).

1.1.3. Lan-intentsitate osoko txikiko biztanleria

Azkenik, 2020an, EBko biztanleen % 8,5 lan-intentsitate oso baxuko etxeetan bizi zen; izan ere, egoera hori dela jotzen da etxeko 59 urte baino gutxiagoko helduek azkenengo urtean guztizko lan-ahalmenaren % 20 baino gutxiago lan egiten dutenean (2019an baino 2 hamarren gehiago eta 2008an baino 7 ehunekoeko puntu gehiago). Grezia (% 12,8), Irlanda (% 12,5) eta Belgika (% 11,9) Batasunaren rankingeko buru dira, eta Polonia, Eslovakia eta Eslovenia % 5etik

⁶Zehazki, EUROSTATEk uste du **gabezia material larria** gertatzen dela honako bederati item hauetatik **gutxienez lau gertatzen** badira: fakturak garaiz ordaindu ezin izatea, etxebizitza tenperatura egokian edukitzea, ustekabeko gastuei aurre egitea, haragia, arraina edo proteina baliokideak jatea bi egunean behin, urteko oporretako aste bat izatea, autoa, garbigailua, koloretako telebista bat edo telefonoa (mugikorrek barne) izatea.

behera daude. 2008. urtearekin alderatuta, tasa hori EBren zati handi batean handitu da (datu eguneratuak dituzten 12 herrialdetan), nahiz eta batez bestekoa ia ez den aldatu denboran.

EAEren datuak puntu egin du okerrera (behera) azken urtean, eta 2020an % 7,4ra iritsi da (162.300 pertsona, 2019an baino 61.700 gehiago), EBko batez bestekoaren ginetik (% 8,5) eta 2008koa baino 9 hamarren gehiago.

Espainia ere Batasuneko batez bestekoaren ginetik

dago, eta 9 hamarren hobetu da 2019. urtearekin alderatuta (% 10,8tik % 9,9ra igaro da). Autonomia erkidegoen artean, horietako zenbaitek oso ratio handiak dituzte, nabarmen hobetu badira ere: Melillan (% 38,2) eta Ceutan (% 22,5), eta, urrun samar, Asturiasen (% 17,8). Balear Uharteek, Madrilek eta Errioiak dituzte tasarik txikienak: % 4,5 lehenengoak eta % 6 beste biek.

IV.1.6. TAULA AROPE TASAREN BILAKAERA ETA OSAGAIK. EAE-KO ETA ESTATUKO BATEZBESTEKOAREN ARTEKO ALDEAK.								
	POBREZIA ETA BAZTERKETA ARRISKUA (AROE)		1. POBREZIA ARRISKUA (<% 60KO ATALASEA) MONETA POBR.)		2. GABEZIA MATERIAL LARRIA		3. LAN-INTENTSITATE TXIKIA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	23,8	13,9	19,8	9,1	3,6	2,8	6,6	6,5
2017	26,6	14,5	21,6	9,7	5,1	3,7	12,8	7,7
2018	26,1	12,1	21,5	8,6	5,4	3,2	10,7	7,1
2019	25,3	14,4	20,7	10,0	4,7	3,5	10,8	10,3
2020	26,4	13,9	21,0	10,0	7,0	5,0	9,9	7,4
19/20 aldak. *	1,1	-0,5	0,3	0,0	2,3	1,5	-0,9	-2,9
08/20 aldak. *	2,6	0,0	1,2	0,9	3,4	2,2	3,3	0,9

*Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina.
Aldaketa ehuneko puntuetan.

1.2. BIZI-BALDINTZEI BURUZKO 2020KO INKESTAREN EMAITZAK

EInen “Bizi Baldintzei buruzko Inkesta” (BBI) Europar Batasuneko errentari eta bizi-baldintzei buruzko estatistikak bateratzeko prozesu baten barruan dago, eta prozesu horren izena hau da: “Statistics on income and living conditions” (EU-SILC). Helburu nagusietako bat pobrezia eta gizarte-bazterketa aztertu ahal izateko informazioa ematea da. Alde horretatik, askotariko informazioa ematen du, etxebizitzetako buruzko datuak, hain zuzen ere: etxeko gastuak, diru-sarrerak, ekipamendua, egoera ekonomikoa, helduen jardura, osasuna, osasun-arreta eskuratu ahal izatea, hezkuntza eta datu biografikoak⁷.

1.2.1. Errenta

2020ko BBIren emaitzek nabarmen dute, lehenik eta behin, EAEko **pertsona bakoitzeko batez besteko errenta** 15.813 euro dela urtean (ez dago sexuaren arabeko informaziorik), aurrekoan baino % 3,4 gehiago (ikus 7. oineko oharra) eta ondoren Nafarroa, eta Estatuko batez bestekoa baino % 28,6 gehiago, azken horrek % 5,2 egin baitu gora. 2008. urteari dagokionez, batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera positiboa izan da EAEn, % 12,6 hazi baita, Estatuko batez bestekoa (% 14,5) baino ratio txikiagoa. Gainera, errenta txikienak jasotzen dituzten pertsonen ehunekoa txiki samarra da Euskadin (% 4,3 errentaren lehen dezilean) eta bigarren handiena (Madrilen atzetik), erkidego guztien artean, errenta handienak kobratzen dituztenen artean (% 17,1, errentaren hamargarren dezilean).

⁷LBI inkestak etxeko unitateen lagin bati egiten dio inkesta urte bakoitzeko laugarren hiru hilabeteetan, eta elkarriketa egin zen uneko bizi-baldintzei buruzko informazioa biltzen du, baita aurreko urteko diru-sarrerari buruzkoa ere.

COVID-19 pandemiak 2020ko BBI inkestaren datuetan duen eragina, beraz, partziala baino ez da, datu ekonomikoek aurretiko egoera bat islatzen baitute (2019koa).

Hori kontuan hartu behar da 1.2 atal honetan aurkezten diren adierazleak interpretatzeko.

Bestalde, 2020an ez zen aurreko aurreko elkarriketarik egin.

Informatzaileen eta elkarriketatzaileen osasunaren arriskuak saihesteko, telefonoz deitu beharrean, laginaren tamaina murriztu egin zen, batez ere berriarena (etxeek lau urtez jarraian laguntzen dute inkesta honetan).

2020ko inkestaren lagin-tamaina efektiboa Estatuko 15.043 etxeko unitatekoa izan zen, eta 18.000, berriz, datu-bilketa batean lortu ziren, ohiko erantzun-tasekin.

Bestalde, aurreko urtean EAEn **etxe bakoitzeko jasotako batez besteko errenta** % 3,3 igo da aurrekoarekin alderatuta, eta 37.598 eurokoa da, Estatuko batez bestekoa (30.690 euro) baino % 22,5 gehiago (% 5,3 hazi da). EAEko datua, kasu honetan, bigarren lekuan dago autonomia erkidegoen rankingean, Nafarroak gainditu baitu (etxe bakoitzeko batez besteko diru-sarrera 37.728 eurokoa da)⁸. 2008-2020 aldia kontuan hartzen badugu, etxeen unitate bakoitzeko batez besteko errenta % 4,1 hazi da EAEn, eta Estatu osoan, berriz, % 6,6. Autonomia erkidego batzuetan, goera hori % 10etik gorakoa izan da (Balear Uharteak eta Errioxa); beste batzuetan, berriz, familia-errentak behera egin du aztertutako aldian (Asturias, Ceuta eta Murtzia).

IV.1.7. TAULA URTEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA GARBIAREN BILAKAERA PERTSONAKO ETA ETXEKOEN UNITATEKO (ELKARRIZKETAREN AURREKO URTEA) AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA 2008-2020. EUROAK.

	BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAKO					BATEZ BESTEKO ERRENTA ETXEKO				
	2008	2019	2020	ALD. % 19/20	ALD. % 08/20	2008	2019	2020	ALD. % 19/20	ALD. % 08/20
ESTATUKO BATEZ BEST.	10.737	11.680	12.292	5,2	14,5	28.787	29.132	30.690	5,3	6,6
ANDALUZIA	9.007	9.160	9.990	9,1	10,9	25.248	23.826	25.909	8,7	2,6
ARAGOI	11.485	12.300	13.097	6,5	14,0	29.506	29.672	31.529	6,3	6,9
ASTURIAS	11.880	12.523	12.786	2,1	7,6	29.473	27.897	28.284	1,4	-4,0
BALEAR UHARTEAK	11.229	12.410	12.658	2,0	12,7	28.981	32.179	33.115	2,9	14,3
KANARIAR UHARTEAK	8.902	9.487	9.935	4,7	11,6	24.510	24.565	25.855	5,3	5,5
KANTABRIA	11.232	12.205	12.748	4,4	13,5	29.576	29.144	30.309	4,0	2,5
GAZTELA ETA LEON	10.488	12.003	12.697	5,8	21,1	26.525	27.679	29.125	5,2	9,8
GAZTELA-MANTXA	9.064	9.715	10.485	7,9	15,7	24.974	24.853	26.722	7,5	7,0
KATALUNIA	12.436	13.527	14.170	4,8	13,9	32.561	33.321	35.030	5,1	7,6
VALENTZIAKO ERK.	9.864	10.611	11.332	6,8	14,9	25.802	26.176	27.948	6,8	8,3
EXTREMADURA	8.107	8.796	9.147	4,0	12,8	21.756	21.611	22.250	3,0	2,3
GALIZIA	9.482	11.218	11.469	2,2	21,0	25.859	27.541	27.862	1,2	7,7
MADRIL	12.496	14.199	14.580	2,7	16,7	33.889	35.587	37.051	4,1	9,3
MURTZIA	9.119	8.956	9.850	10,0	8,0	26.995	24.448	26.925	10,0	-0,3
NAFARROA	13.123	13.937	15.094	8,3	15,0	35.370	34.612	37.728	9,0	6,7
EAE	14.038	15.300	15.813	3,4	12,6	36.110	36.399	37.598	3,3	4,1
ERRIOXA	10.916	12.697	13.504	6,4	23,7	27.835	30.162	32.096	6,4	15,3
CEUTA	8.047	10.164	9.853	-3,1	22,4	29.776	30.432	28.824	-5,3	-3,2
MELILLA	11.065	11.733	11.427	-2,6	3,3	33.986	37.552	37.138	-1,1	9,3

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Autonomia erkidegoen araberako rankingeko posizioerik txarrenen artean, hauek daude bi aldagietan (familiako errenta eta pertsonako errenta), aurreko urteetan bezala: Extremadura, Kanariar Uharteak, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa.

IV.1.8. TAULA ZAILTASUN MATERIALAK DITUZTEN ETA/EDO GASTU BATZUK ORDAINDU EZIN DITUZTEN ETXEEN PORTZENTAJEA. EAE-KO ETA ESTATUKO BATEZBESTEKOAREN ARTEKO ALDEAK. ALDAKETA EHUNENKO PUNTUETAN.

	EZIN DUTE URTERO GUTXIENEZ ASTEBETEKO OPORRALDIA HARTU		HIL-BUKAERARA HELTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE		ETXEBIZITZA NAGUSIAREN ORDAINKETAK BERANDU EGIN DITUZTE*		USTEKABEKO GASTUAK EZIN DITUZTE ORDAINDU	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	34,5	15,8	60,9	44,0	6,0	3,5	29,9	17,7
2017	34,4	22,3	52,0	33,2	7,4	4,4	37,3	17,9
2018	34,2	18,1	53,7	35,5	7,3	5,0	36,0	22,2
2019	33,4	23,5	47,9	38,2	6,9	7,3	33,9	25,2
2020	33,8	19,4	43,7	32,4	10,7	6,8	35,4	20,2
19- 20 aldak.	0,4	-4,1	-4,2	-5,8	3,8	-0,5	1,5	-5,0
08- 20 aldak.	-0,7	3,6	-17,2	-11,6	4,7	3,3	5,5	2,5

* Etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketetan (hipoteka edo alokairua, gasaren, erkidegoaren, etab.en ordainagiriak,...) atzerapenak izan dituzte azken 12 hilabeteetan.

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

1.2.2. Gabezia materiala

Etxeoen unitateen bizi-baldintzak eta errenta maila adierazten dituen beste adierazle bat **hil amaierara iristeko zailtasunak** dituzten etxeen unitateen ehunekoari dagokio: egoera horrek gure Erkidegoko familien % 32,4ri eragiten

⁸Melillako datu handia (37.138 €) kontuz hartu behar da, laginaren tamaina txikia delako.

dio 2020an, aurreko urtean baino ehuneko 5,8 puntu gutxiago. Estatuko batez bestekoa handiagoa da, % 43,7, 2019. urtearekin alderatuta 4,2 puntu jaitsi bada ere. 2008ko egoerarekin alderatuta, zailtasuna 11,6 puntutan jaitsi da EAEn eta 17,2 Estatuan.

Horrez gain, kontuan izan behar da ezen, 2020an, hil bukaerara iristeko zailtasunak dituztela dioten euskal familien % 32,4tik % 5,7k “zailtasun handiak” dituela (% 5,9k 2019an), % 8,9k “zailtasunak” soilik eta gainerako % 17,8ak “nolabaiteko zailtasunak”. Banaketa hori estatukoaren antzekoa da, baina zailtasun gehien dituztenen portzentajea handiagoa da, Espainiako familien % 10 hain zuzen ere.

Era berean, Inkestak **gastu jakin batzuk egiterik ez dutela**⁹ adierazten duten etxekoek unitateen ehunekoak kalkulatu du: EAEko etxekoek unitateen % 19,4k ezin du urtean astebeteko oporraldia onartu 2020an (% 33,8 Estatuan), eta % 20,2k ezin die ustekabeko gastuei aurre egin (% 35,4 Estatuko batez bestekoan). Ratio horrek ehuneko 5 puntutan egin du behera 2019arekin alderatuta. Gainera, familien % 6,8k adierazi du atzerapena izan duela etxebizitzari lotutako ordainketetan, 2019an baino puntu erdi gutxiago, Espainiako familien % 10,7ren aldean.

EBn (Eurostaten datuak), familien % 30,9k ezin die ustekabeko gastuei aurre egin, eta % 28k ezin du urtean astebete oporretan egon (2019ko datuak). Herrialdeen arteko aldeak handiak dira, eta horien bizi-mailak okerrera egin du Grezian, Kroazian, Errumanian eta Letonian (etxekoek unitateen erdiek ezusteko gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzte, adibidez).

Ildo beretik, EUROSTATEk **“gabezia materialaren indizea”** definitu du, hain zuzen ere 1.1. 2. atalean aipaturiko gastu bederatzi gastu kontzeptu eta ekipamenduen zerrendatik gutxienez hiru eskuratzetik ez duten familietako pertsonaien ehunekoak emana. Atal horretan, gabezia material “larria” aipatzen da (9tik 4 gutxienez, ikusi 6. orri-oina). Definizio horren arabera, 2019an EBko biztanleen % 12k gabezia materialak zituen (EBren batez besteko azken datua), eta herrialdeen artean alde handiak zeuden, batik bat Batasuneko estatu-kide berrien eta gainerakoen artean.

Alde batetik, etxekoek unitateen % 6 baino gutxiago dago egoera horretan Suedian, Luxenburgon eta Herbehereetan (2020ko datuak); gabezia materialaren indizea, berriz, % 30 ingurukoa da Bulgarian, Grezian eta Errumanian. Iturri horren arabera, Espainiak % 16,7ko ratioa du.

IV.1.9. TAULA. EB-KO ETXEKOEK UNITATEEN GABEZIA-ADIERAZLE NAGUSIAK. EAE-REN ETA EUROPA-REN ARTEKO ALDERAKETA. 2019-2020.						
	USTEKABEKO GASTUAK EZIN ORDAINTZEA		GABEZIA MATERIALAREN INDIZEA		ETXEA BERO EZIN EDUKITZEA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
27KO EB	30,9	:	12,0	:	6,9	8,2
BELGIKA	25,3	23,3	9,3	9,7	3,9	4,1
BULGARIA	36,5	43,5	32,1	31,9	30,1	27,5
TXEKIAR ERREPUBLIKA	21,8	19,6	7,0	6,1	2,8	2,2
DANIMARKA	22,9	22,7	6,1	6,6	2,8	3,0
ALEMANIA	26,0	37,9	6,8	15,2	2,5	9,0
ESTONIA	31,4	30,5	9,1	8,3	2,5	2,7
IRLANDA	38,0	35,6	12,6	13,8	4,9	4,2
GREZIA	47,8	50,4	30,4	32,6	17,9	16,7
ESPAINIA	33,9	35,4	12,4	16,7	7,5	10,9
FRANTZIA	30,6	30,4	11,1	10,8	6,2	6,5
KROAZIA	51,7	48,9	19,6	17,4	6,6	5,7
ITALIA	33,8	:	14,1	:	11,1	:
ZIPRE	47,5	44,6	23,1	18,8	21,0	20,9
LETONIA	49,8	45,6	16,4	16,3	8,0	6,0
LITUANIA	46,8	41,8	20,9	18,5	26,7	23,1
LUXENBURGO	16,7	22,5	3,7	5,2	2,4	3,6
HUNGARIA	33,0	3,7	18,5	19,1	5,4	4,2
MALTA	15,1	16,3	8,4	8,7	7,8	7,2
HERBEHEREAK	21,9	19,1	6,2	5,5	3,0	2,4
AUSTRIA	18,5	17,6	5,9	6,3	1,8	1,5
POLONIA	29,3	25,7	9,4	7,1	4,2	3,2
PORTUGAL	33,0	30,8	15,1	13,5	18,9	17,5
ERRUMANIA	44,3	47,3	27,8	29,3	9,3	10,0
ESLOVENIA	33,0	29,6	8,5	8,2	2,3	2,8
ESLOVAKIA	30,0	26,1	15,2	12,6	7,8	5,7
FINLANDIA	26,4	25,4	7,0	7,6	1,8	1,8
SUEDIA	20,5	19,8	4,7	5,0	1,9	2,7
EAE	25,2	20,2	8,9*	6,9*	5,6	8,1
ERRESUMA BATUA	34,6**:	:	11,5**:	:	5,4**:	:

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina.
* Zenbatespena, alde metodologiko batzuk daudelako.
** 2018ko datuak.

⁹ Kapitulu honetako 2. oin-oharrean aipatzen diren aldagaiak aztertzen dira, EUROSTAT metodologiaren arabera: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxea bero ezin edukitzea, ezusteko gastuak ezin ordaintzea, bi egunez behin haragia, arraina edo antzeko proteinak ezin jatea, urtero gutxienez astebeteko oporraldirik ezin hartzea eta kotxea, garbigailua, koloretako telebista eta telefonoa (sakelakoa barne) ez edukitzea.

EINEk, Bizi-baldintzei buruzko Inkestako zati baten gisa, antzeko adierazlea kalkulatu du autonomia erkidegoentzat. Horren arabera, 2020an, EAEk % 6,9ko gabezia-indizea izango luke, eta Estatuko batez bestekoa % 15,8koa izango litzateke. EUROSTATen indizean, berriz, % 16,7koa ageri da. Beraz, bi adierazleak konparagarritzat jo litezke (Europako eta Espainiakoa) baina zuhurtziaz hartu beharrekoak dira.


Bestalde, gabeziaren beste adierazle bat dago, **“pobrezia energetikoa”** deritzona. Etxebizitza batean pobrezia energetikoa dute gai ez direnean etxeko beharrak asetzeko energia nahikoa ordaintzeko eta/edo etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko diru-sarreraren parte handi bat erabili behar dutenean. EAEn gertakari nahiko berria da, baina krisiaren ondorioz gaur-gaurkoa. Europan, ordea, **“fuel poverty”** esaten zaiona agenda politikoan dute aspaldidanik hainbat herrialdetan, Erresuma Batuan, Irlandan eta Belgikan, esate baterako.

Europan, 2020an, etxeetan tenperatura egokiari eusteko ezintasunak etxeen % 8,2ari eragiten dio (2019an baino 1,3 puntu gehiago), eta tasa hori % 10etik gorakoa zen 2012-2014 aldian, baina jaisten ari da ordutik. Iturri horren arabera, balio-aniztasun handia du arazoak: oso balio handiak dira Bulgarian (% 27,5) edo Lituanian (% 23,1) esaterako, eta % 2tik beherakoak Austrian eta Finlandian. Estatuan, EBko batezbestekoa baino pixka bat handiagoa da arazo horren intzidentzia, % 10,9 (+3,4 puntu 2019aren aldean).

IV.1.10. TAULA POBREZIA ENERGETIKOA ESTATUAN: ETXEBIZITZA TEMPERATURA EGOKIAN MANTENDU EZIN DUTEN FAMILIEN EHUNEKOAK. 2008-2020.

	2008	2017	2018	2019	2020
ESTATUA, GUZTIRA	6,2	8,3	9,6	7,7	11,1
ANDALUZIA	8,3	8,4	14,6	9,5	11,6
ARAGOI	2,8	4,4	4,2	4,3	2,1
ASTURIAS	4,2	18,2	12,0	8,1	10,4
BALEAR UHARTEAK	5,1	16,2	11,4	7,6	19,8
KANARIAR UHARTEAK	3,7	8,7	7,1	6,5	20,4
KANTABRIA	2,5	4,4	4,8	2,9	4,9
GAZTELA-MANTXA	3,6	2,6	6,1	6,5	7,1
GAZTELA ETA LEON	4,7	12,6	14,7	12,7	10,5
KATALUNIA	5,4	6,1	8,6	8,8	9,8
VALENTZIAKO ERK.	6,0	9,5	5,1	5,3	13,7
EXTREMADURA	8,8	11,8	18,7	11,6	12,9
GALIZIA	9,4	6,8	6,4	6,5	9,8
MADRIL	7,3	7,9	9,0	7,6	10,8
MURTZIA	9,8	14,2	16,9	5,2	12,9
NAFARROA	2,8	4,8	6,4	9,1	9,5
EAE	3,4	7,9	6,7	5,6	8,1
ERRIOXA	4,1	5,7	6,9	3,4	7,3
CEUTA	9,8	0,0	11,5	4,9	1,8
MELILLA	17,7	6,3	12,2	6,8	15,4

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko Inkesta.



EINen Bizi-baldintzen Inkestak erakusten duenez, euskal familien % 7,3k ezin zuen etxea tenperatura egokian mantendu, eta Estatu mailan, berriz, % 11,1ko tasa (% 10,9 EUROSTATen arabera) zegoen. Autonomia erkidego kaltetuenak Kanariak (familien % 20,4) eta Balearrak (% 19,8) dira, baina kontrako muturrean Ceuta eta Aragoi daude (% 1,8ko eta % 2,1eko intzidentziekin, hurrenez hurren). Aurreko urtearen aldean, 2,5 hamarren txikitu da EAEko datua. Estatuko batezbestekoa, berriz, % 3,4koa da. Eta 2008an gertaturikoa kontuan hartzen badugu, gabezia horren intzidentziak 4,7 egin zuen gora EAEn eta 4,9 Estatuko batezbestekoan.

Azkenik, gutxienez bi egunean behin **haragi, oilasko edo arrain otordu bat** egiterik ez duten etxekoen unitateen ehunekoa, pobrezia energetikoa bezala, zailtasun ekonomiko eta gabezia handienak dituzten pertsonak erakusten dituzten adierazleak dira, seguruenik pobrezia egoera larriagoetan daudenak. EAEn, ratio hori tradizionalki % 1 eta % 3,5 artean mugitzen da (ikus IV.1.3 grafikoa); ratio hori 2011n lortu zen serie historikoaren gehieneko ratioa da.

2020an, gabezia horrek EAEko etxekoen unitateen % 2,9 hartzen du eraginpean (2019an baino 1,2 puntu gehiago); Estatuko batez bestekoa, berriz, % 5,5 da (+1,8 puntu). EBn, gabezia mota horrek etxekoen unitateen % 6,8ari eragiten zion 2019an (azken datua), 2018an baino 3 hamarren gutxiago, Bulgariako % 27,6tik Danimarkako % 2,2ra bitarteko ratioekin.

1.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE ARLOKO DESBERDINTASUNEN INKESTA (PGDI) 2020: EMAITZA NAGUSIAK

1.3.1. Pobreziaren eta prekarietatearen eragin orokorra

Eusko Jaurlaritzak bi urterik behin egiten du “Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta” (PGDI). Horri esker, *pobreziak* gure gizartearen duen intzidentzia, horri eragiten dioten arrisku faktoreak eta banaketa desberdina zein den jakiteko modua dago. 2020ko inkestaren emaitza nagusia honako hau da: 2016 eta 2018 artean prekarietate-adierazle orokorrek oro har okerrera egin zuten arren, azken biurtekoan hobekuntza nabarmena (beherakada) ikusi da PGDI adierazleetan, bai ongizaterik ezari dagokionez, bai pobrezia hertsiaeren arriskuari dagokionez.

IV.1.11. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN PGDIko OINARRIZKO ADIERAZLEEN BILAKAERA										
		1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	2020
MANTENTZE- POBREZIA	POBREZIA-ARRISKUA	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3	8,2	7,1	8,0	8,0
	ONGIZATERIK EZA	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9	21,9	18,4	22,4	19,6
METATZE- POBREZIA	POBREZIA-ARRISKUA	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0	1,6	0,9	0,3
	ONGIZATERIK EZA	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0	17,0	20,2	13,9
BENETAKO POBREZIA	POBREZIA ARRISKUA	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9	5,7	6,1	5,6
	ONGIZATERIK EZA	16,5	11,0	11,2	8,2	10,1	11,5	10,8	12,5	9,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI.


- **Mantentze-pobreziaren arriskuari** dagokionez¹⁰, PGDIk % 8ko intzidentzia aurreikusten du 2020rako (2018ko ratio bera) eta 174.176 pertsona eraginpean hartzea. 2018ko % 8ak pobreziaren eragina handitzea ekarri zuen, 2016ko % 7,1a eta 2012ko % 7,3a gaindituta. 2008ko datuekin alderatuta, txirotasun-tasak +2,3 puntu handiagoa izaten jarraitzen du eta 52.301 pertsona gehiago ukitzen ditu (urte horretan 121.875 lagun ziren).

Azken biurtekoan geldialdi hori gertatu den arren, mantentze-pobreziaren arriskuak bere horretan jarraitu du 2020an, 1986ko eta 1996ko % 10etik gorako zifretatik urrun; izan ere, urte horietan 250.000 pertsona baino gehiago zeuden egoera horretan.

Ongizaterik ezaren arriskua (gurea bezalako gizarte batean espero den gutxieneko ongizate-mailari eusteko behar diren gastu-premiekin lotzen dena), bestalde, murriztu egin da 2018 eta 2020 artean, % 22,4tik % 19,6ra igaro baita. Hala ere, tasa hori 2008koa baino 3,2 puntu handiagoa da. Ongizaterik ezeko arrisku-egoeran dauden pertsonen bolumena 424.649 da 2020an, 2008an baino % 20,5 gehiago.


¹⁰ Biziraupen-pobreziaren testuinguruan, pobrezia jasateko arrisku-egoerak, oinarritzko beharrak (elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak) asetzeko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen dira. Beste alde batetik, ongizatea ez izateko arriskua, hau da, oinarritzko beharrak asetzear harago gizarte jakin batean espero diren ongizatearen eta erosotasunaren gutxieneko maila eusteko beharrezko gastuei aurre egiteko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen da.

- 2014an, nabarmen igo zen, **metatze-pobrezia arriskuaren ratioa** % 2ra helduta. Hala, hori epe ertain eta luzera bizitza-baldintza onargarriak finkatzeko eta gastuko ez-ohiko beharrei edo diru-sarreraren gabeziari aurre egiteko erreserbako gutxieneko ondarea izateko gaitasunik ezarekin lotzen da. 2014-18 aldiko dinamikak adierazle horren beheranzko joera historikoa berreskuratu zuela erakutsi zuen, % 0,9raino jaitsi baitzen, eta berriz jaitsi zen 2018 eta 2020 artean % 0,3raino. 2020an, pobrezia mota horrek ukitutako pertsonen kopurua 7.506 izan da, 2008ko 32.838 pertsonak baino % 77,1 gutxiago.



Gainera, bilakaera hain positibo hori beste prekarietate modu batzuetara hedatzen da metatze-dimentsioan: dimentsio horretako ongizaterik ezaren moduek 2020an biztanleriaren % 13,9 hartzen dute eraginpean (302.102 pertsona), 2018an baino 6,3 puntu gutxiago (eta 2016ko % 17tik behera, seriearen minimoa orain arte). Gainera, intzidentzia hori 2008koa baino 4,7 puntu txikiagoa da (% 18,6).

- Arrisku problematika edo egoerak ez direnez automatikoki **benetako pobrezia- edo estutasun-bizipen bilakatzen, PGDI benetako pobrezia adierazlearekin** osatzen dute azterlana, hau da, arlo batzuetako bizimodu egokiak beste arlo batzuetako gabeziak orekatzen ez dituen egoerak zehazten dituzte. 2016-2018 biurtekoan okerrera egin ondoren, benetako pobrezia tasa 2018ko % 6,1etik 2020ko % 5,6ra jaitsi da, eta horrek esan nahi du aurreko urteetako beheranzko joerari heldu zaiola berriro. Hala ere, benetako pobrezia intzidentziak 1,4 puntutan gainditzen du oraindik, 2008ko minimoa (% 4,2). Kopuru absolutuetan, benetako pobrezia 121.502 pertsonari eragiten die 2020an, 2018koa baino % 7,2 txikiagoa (130.965) eta 2008koa baino % 35,4 handiagoa (89.706).



EAEko biztanleriaren banaketa aztertzen badugu ongizate-pobrezia eskalan duen posizioaren arabera, benetako pobrezia adierazle hori kontuan hartuta, ikusten da 2020an EAEko biztanleriaren erdia (% 49,7) erabateko ongizatean dagoela, eta hori da PGDIk darabilen duen serie historikoko proportzio handiena (eta 1996an baino ia % 150 eta % 20,1 handiagoa, ratioa % 20,1 izanik). Horrez gain, 2018-2020 aldian aldaketa gertatu zen aurreko bi urteen aldean: behera egin du pobrezia eragindako taldeen, bestelako ongizate-gabezien eta ongizateaz gozatzeko mugatzen duen arriskuen taldeak (I., II. eta III. kategorien batura IV.1.5. grafikoan). Kategoria horiek biztanleen % 25,3ari eragiten zion 2018. urtean, eta 2020an % 24,2 egin du behera, horietako bakoitza murriztuta. Tarteko posizioan jartzen den taldeak (ongizate ia osoa, IV. kategoria) 2,3 puntu egin du behera, % 28,5etik % 26,2ra. Eusko Jaurlaritzak egindako inkesta horren emaitzen txostenak nabarmentzen du dinamika horren ondorioak garrantzitsuak direla; izan ere, 2016-2018 aldian ez bezala, 2018-2020 aldian berriro nagusitzen dira goranzko mugikortasun-prozesuak euskal gizartearen.

2008. urteari dagokionez, 2020ko egoera honako hau da: alde batetik, ongizatean dauden bitarteko taldeen pisu erlatiboak (ongizate eta arrisku eta ia ongizate osoko elementuak, IV.1.5. grafikoko III eta IV. kategoriak) behera egin zuen, eta bien batura %59,9tik %48,8ra igaro zen (-18,9 puntu). Aldaketa hori ia osorik ongizate osoan dauden multzora igaro da (% 32tik % 49,7ra), baina egoera txarragoan dauden taldeen pisuak ere gora egin du (I eta II. kategoriak, benetako pobrezia eta bestelako ongizaterik ezaren moduak, zeinen agregatua “ongizaterik eza” baita): % 8,2tik % 9,5era. Azken batean, polarizazioa gertatu da muturreko posizioetarantz, bai ongizateari dagokionez, bai ongizaterik ezari dagokionez.

1.3.2. Pobrezia-arrisku handiena duten eremuak eta gizarte-taldeak

- **Lurraldeei** dagokienez, 2020an nabarmendu beharreko alderdi nagusia lurralde historikoen artean ikusten den bilakaera desberdina da; izan ere, benetako pobrezia hazkunde txikiak izan ditu Araban eta Gipuzkoan, eta Bizkaiko egoera nabarmen hobetu da.

IV.1.12. TAULA PGDIko POBREZIA-ADIERAZLEEN BILAKAERA LURRALDE ETA ESKUALDEKA, 2008-2020.
FAMILIA-ETXEBIZITZETAKO BIZTANLEEN PORTZENTAJEA

	MANTENTZE-POBREZIA				METATZE-POBREZIA				BENETAKO POBREZIA			
	2008	2016	2018	2020	2008	2016	2018	2020	2008	2016	2018	2020
BIZKAIA	6,7	7,5	9,6	8,1	2,1	2,2	1,3	0,4	5,2	5,5	7,0	5,4
GIPUZKOA	3,9	5,1	5,6	7,0	0,4	0,4	0,1	0,2	2,5	4,0	4,5	5,1
ARABA	5,8	9,7	7,7	9,8	1,8	2,3	1,1	0,6	4,1	10,4	6,3	7,3
GASTEIZ*	6,1	9,7	8,2	10,2	1,7	2,4	1,3	0,7	4,4	10,6	6,9	7,7
AIARALDEA	4,3	9,8	4,2	7,4	2,1	1,8	0,0	0,0	2,3	9,1	2,2	5,1
ESKUINALDEA	5,3	3,5	6,0	6,0	0,2	0,8	0,2	0,0	3,0	2,4	3,3	3,6
BILBO	10,1	8,8	12,6	12,2	2,3	4,0	2,4	0,7	7,6	7,7	10,1	8,2
EZKERRALDEA	5,8	8,6	10,0	7,7	3,3	2,1	1,4	0,3	5,6	5,2	7,7	4,6
BIZKAIKO KOSTA	3,2	8,0	7,6	3,5	1,3	0,3	0,1	0,0	2,0	5,6	4,6	2,6
DURANGALDEA	5,3	5,8	6,5	6,2	1,1	1,2	1,0	1,0	2,8	4,7	4,0	5,6
DONOSTIALDEA	4,7	5,1	5,7	7,6	0,4	0,3	0,1	0,0	3,1	4,0	5,0	5,2
TOLOSA-GOIERRI	2,1	4,0	4,6	4,6	0,3	0,7	0,1	0,3	1,3	3,7	2,4	4,2
DEBAGOIENA	1,2	4,7	4,0	4,2	0,9	0,0	0,2	0,0	0,4	1,3	3,1	3,5
DEBABARRENA	3,4	7,9	9,3	10,3	0,0	0,7	0,2	1,2	1,8	8,1	5,9	8,2
EAE, GUZTIRA	5,7	7,1	8,0	8,0	1,5	1,6	0,9	0,3	4,2	5,7	6,1	5,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. PGDI 2020.
** Ikus 11. oin-oharra.*

Arabako bilakaera benetako pobrezia adierazle hori kontuan hartuta, ikusten da 2020an EAEko biztanleriaren erdia (% 49,7) erabateko ongizatean dagoela, eta hori da PGDIk darabilen duen serie historikoko proportzio handiena (eta 1996an baino ia % 150 eta % 20,1 handiagoa, ratioa % 20,1 izanik). Horrez gain, 2018-2020 aldian aldaketa gertatu zen aurreko bi urteen aldean: behera egin du pobrezia eragindako taldeen, bestelako ongizate-gabezien eta ongizateaz gozatzeko mugatzen duen arriskuen taldeak (I., II. eta III. kategorien batura IV.1.5. grafikoan). Kategoria horiek biztanleen % 25,3ari eragiten zion 2018. urtean, eta 2020an % 24,2 egin du behera, horietako bakoitza murriztuta. Tarteko posizioan jartzen den taldeak (ongizate ia osoa, IV. kategoria) 2,3 puntu egin du behera, % 28,5etik % 26,2ra. Eusko Jaurlaritzak egindako inkesta horren emaitzen txostenak nabarmentzen du dinamika horren ondorioak garrantzitsuak direla; izan ere, 2016-2018 aldian ez bezala, 2018-2020 aldian berriro nagusitzen dira goranzko mugikortasun-prozesuak euskal gizartearen.

benetako pobrezia-tasa 2008ko % 5,2tik 2014ko % 6,4ra igo baitzen. 2014 eta 2016 artean, aurreko urteetako joera negatiboa Araban luzatu zen, Bizkaiko eta Gipuzkoako joera-aldaketa positiboaren aurrean. Hala, benetako pobrezia-tasa gora egiten jarraitzen zuen barne-lurraldean, 2014an % 8,2 izatetik 2016an % 10,4 izatera igaro baitzen. Gipuzkoan, berriz, beherakada apala izan zen, % 4,2tik % 4ra. Bizkaia izan zuen bilakaerarik onena: 2014an, % 6,4; 2016an, % 5,5. 2016an bezala, 2018an ere Bizkaia izan zen aldaketarik txikiena izan zuen lurraldea, krisiaren aurreko zifrekin alderatuta: 2018an, % 7,0; 2008an, berriz, % 5,2. Hala ere, 2014 eta 2016 artean hobera egin ondoren, Bizkaiko 2018ko tasak okerrera egin zuen nabarmen, 1,5 puntu igo baitzen 2016ko % 5,5etik. Hala, Bizkaia da berriz ere Euskadin pobrezia-eragin handiena duen lurraldea: % 7. % 6,3 Araban (2016an, % 10,4) eta % 4,5 Gipuzkoan.

2018 eta 2020 artean, 2008 eta 2014 artean gertatu zen bezala, Bizkaia da berriz ere krisiaren aurreko erresilientziarik handiena izan duen lurraldea, eta pandemiaren aurreko aldeko prozesu ekonomikoez baliatzen da, benetako pobrezia-tasa % 7tik % 5,4ra jaitsi baita. Araba da, berriz ere, benetako pobrezia gehien eragindako eskualdea 2020an, Gipuzkoak baino 2,2 puntu eta Bizkaia baino 1,9 puntu gehiago, eta puntu bat egin du okerrera 2018an zuen % 6,3arekin alderatuta. Azkenik, Gipuzkoa % 4,5etik % 5,1era igaro da (egituraren aldetik goranzko joera handiagoa du, IV.1.12 taulan ageri denez), eta Bizkaia eta Arabaren arteko posizioari eutsi dio.

Gainera, Bizkaian pobrezia behera egin duenez, nabarmen murriztu da Euskadiko benetako pobrezia-egoeren ekarpena, termino absolutuetan. 2018ko % 60,3tik % 50,5era igaro da (2008an % 66,5 zen); Arabak eta Gipuzkoak, berriz, pisuak gora egin du, % 19,6ra eta % 29,9ra (+4,4 eta +5,4 puntu, hurrenez hurren, azken biurtekoan).

Eskualdeen araberako hurbilketak lurralde-aldaketen azterketan sakontzeko aukera ematen du. Bilakaera-polo onenaren barruan, benetako pobrezia-tasen beherakadak, oso esanguratsuak, Bizkaiko hiru eskualdetan soilik metatzen dira: Bilbo, Ezkerraldea eta Bizkaia-Kosta. Bilbok, nahiz eta 2020an, Debabarrenarekin batera, benetako pobrezia-tasa handiena izan, behera egin du % 10,1etik % 8,2ra azken biurtekoan, eta bilakaera are positiboagoa da Ezkerraldean; izan ere, Ezkerraldearen benetako pobrezia-tasa % 7,7tik % 4,6ra jaitsi da. Bizkaia-Kosta, bestalde, askoz ere posizio hobean dago, 2 puntu jaitsi baita, % 2,6raino. Beste muturrean, 2018-2020 aldiko bilakaera okerrera EAEko gutxien urbanizatutako eskualdeei dagokie (Aiaraldea, Durangaldea, Debabarrena eta Tolosa-Goierri), benetako pobrezia-tasa 1,6-2,9 puntu igo baita. Salbuespen nagusia, ordea, Debagoiena da, azken biurtekoan pobrezia gora egin baitu (% 3,1etik % 3,5era). Hirugarrenik, nabarmenezkoa da COVID-19ak eragindako krisiaren eragin diferentziala Gasteizko eskualdean, gainerako eremu urbanizatuetan baino askoz handiagoa; izan ere, benetako pobrezia nabarmen egin du gora 2018ko % 6,9tik % 7,7ra, eta Bilboko eta Deba Barreneko ratioen azpitik baino ez dago.


IV.1.13. TAULA PGDIko POBREZIA-ADIERAZLEEN BILAKAERA FAMILIA MOTAREN ARABERA, 2008-2020. FAMILIA-ETXEBIZITZETAKO BIZTANLEEN PORTZENTAJEA												
	MANTENTZE-POBREZIA				METATZE-POBREZIA				BENETAKO POBREZIA			
	2008	2016	2018	2020	2008	2016	2018	2020	2008	2016	2018	2020
BAKARRIK DAUDEN PERTSONAK / BESTE TALDE BATZUK	9,7	11,3	11,7	15,5	2,4	2,7	0,7	0,3	6,4	8,2	7,0	7,2
SEME-ALABARIK GABEKO BIKOTEAK	3,9	3,7	3,6	3,3	0,9	0,6	0,4	0,3	1,9	2,2	2,3	1,8
SEME-ALABADUN BIKOTEAK	4,4	5,5	6,2	6,1	1,2	1,1	0,9	0,2	3,3	4,5	5,0	4,8
FAMILIAK, GURASO BAKAR.	13,7	13,8	17,3	18,6	4,1	3,7	2,0	1,1	13,2	13,4	15,0	15,6
GUZTIRA	5,7	7,1	8,0	8,0	1,5	1,6	0,9	0,3	4,2	5,7	6,1	5,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. PGDI 2020.

- **Familiaren osaerari** dagokionez, benetako pobrezia-eraginak gora egin du guraso bakarrek familiatan, eta behera egin du bikoteen artean.

Guraso bakarrek familietan, benetako pobrezia gora egin zuen 2014 eta 2016 artean (% 12,7tik % 13,4ra), eta joera hori areagotu egin zen 2016-2018 aldian, % 15era, eta % 15,6ra 2020an. Tasa horrek batez bestekoa hirukoizten du. Ratio hori 2012ko % 18,2 baino txikiagoa da. Hain deigarria ez bada ere, bakarrik dauden pertsonen artean ere gora egin du benetako pobrezia, % 7,2ko ratoria iristen baita, % 5,6ko tasa orokorraren gainetik. Beheranzko joerarekin daude familiak, bai seme-alabarik ez dutenak (horien ratioa % 2,3tik % 1,8ra jaitsi da), bai haiekin daudenak (% 5etik % 4,8ra).

Pobreziaren banaketan ikusitako dinamikaren ondorioak ez dira automatikoak, eta 2018-2020 aldiko aldaketa demografikoek baldintzatzen dituzte; izan ere, bizikidetzako unitate bakoitzeko pertsona kopuruak gora egin du. Horren ondorioz, seme-alabak dituzten bikoteetan benetako pobreziaren tasa pixka bat jaitsi den arren, pobrezia-egoera guztiei egiten dieten ekarpena handitzen jarraitzen da, % 42,7tik % 43,9ra. Aldiz, guraso bakarrek familien eta bakarrik dauden pertsonen eta familia-nukleoetan sartuta ez dauden gainerako pertsonen artean, pobreziatasak gora egin duen arren, murriztu egin dira pobrezia moduei egiten dieten ekarpena (% 29,4tik % 28,1era lehenengoan artean eta % 19,1etik % 17,9ra bigarrenen artean).



- **Sexuaren ikuspegitik**, 2020an benetako pobreziaren murrizketa areagotu egin da erreferentziako pertsona emakumea den etxeetan¹¹.

2008 eta 2012 artean izandako hazkunde handiaren ondoren (% 8,8tik % 11,1era), beheranzko joerari eutsi zaio etxe horietan 2012tik etengabe, 2020ko % 7,3ra arte (2018an baino 2 puntu gutxiago). Ondorioz, tasa hori 1,5 puntu txikiagoa da 2008ko % 8,8 baino. Emakumeak buru dituzten etxeen unitateen hobekuntza horrek 2008ko tasa handia lehenegoratzeko lortu du, urte hartan gizon bat erreferentziako pertsona gisa zuten etxeen unitateen % 3,3 baino ia hiru aldiz handiagoa baitzen. Gizonak buru dituzten etxeen unitateek, aldiz, epe luzerako goranzko joerari jarraitzen diote, 2014-2016 aldiko salbuespenarekin. 2020ko % 4,7ko datua, 2018ko % 4,5eko datuarekin alderatuta igoera txiki bat izan dela adierazteaz gain, 2008. urteaz geroztiko baliorik handiena da (% 3,3).

- Etxeoen unitateko bizikide nagusiaren **adinaren aldagaiari** dagokionez, 45-54 urtekoen eta 65 urtetik gorakoen pobreziatasak egonkortzeak esan nahi du pertsona horiek ekarpen handiagoa egiten dietela benetako pobrezia-egoera guztiei.

¹¹ Erreferentziako pertsona edo pertsona nagusia terminoa etxean edo bizikidetzako unitatean adierazten den pertsonarekin lotzen da, informazioa emateko erreferentzia gisa. Kontzeptua guztiz pareagarria ez bada ere, ezaugarri soziodemografiko jakin bateko erreferentziako pertsona batekin osatutako etxeen unitatearen kontzeptua ezaugarri horiek berak dituen pertsona bat buru duen etxeen unitatearekin baliokide gisa erabiltzen da.

2018 eta 2020 artean, benetako pobrezia-aren tasak hobetu edo egonkortu egin dira, 65 urtetik gorako pertsonen etxekoan unitateetan goranzko joera txikia izan baita, hamarren bat baino ez. Bilakaera onena pertsona bat buru duten etxekoan unitateetan bizi direnei dagokie.

35 urtetik beherakoak dira, 2018-2020 aldian hobera

egin badute ere, Euskadin benetako pobrezia gehien eragindako pertsona izaten jarraitzen dutenak. 2018-2020 aldian bilakaera onena izan duen bigarren familia-taldea 55 eta 64 urte bitarteko pertsonak buru dituenak da, Euskadin pobrezia konparatiboki gutxien eragindako kolektiboak. 2020ko % 3,2a ez da gehiegi urruntzen 2008ko % 2,7tik edo 2012ko % 2,9tik.

Pobrezia-tasen bilakaera ez da hain positiboa gainerako taldeetan, nahiz eta oraindik ere beheranzko joera txiki bat erakusten duen 35-44 urteko pertsonak bizi diren etxekoan unitateetan bizi direnen artean. 2016tik aurrera, mota horretako etxekoan, benetako pobrezia-aren tasa etengabe jaitsi da: 2016an, % 11,7; 2020an, % 9,7. Emaiza 2020ko pobrezia-tasa da, 2008ko eta 2012ko % 7,4-% 7,6ko mailak soilik gainditzen baititu, ehuneko bi puntu baino gehiago.

45 eta 54 urte arteko pertsonak buru dituzten etxekoan, pobrezia-tasa % 6,6 izan da 2018 eta 2020 artean, urte horretako tasa orokorra baino puntu bat gehiago. Hala eta guztiz ere, egonkortze horrek pobrezia-aren eragina etengabe handitzeko aurreko joera hausten du. Hala, mota horretako etxekoan, pobrezia-aren eraginak etengabe egin zuen gora 2008ko % 2,6tik 2018ko % 6,6ra. 2008tik, taldearen tasak lehen aldiz gainditzen zuen 2016an EAEko tasa orokorra, hamarren bat baino ez bada ere (% 5,8 batetik eta % 5,7 bestetik). Aldea puntu erdira igo da 2018an (% 6,6 eta % 6,1, hurrenez hurren), eta puntu batera iritsi da 2020an (% 6,6 eta % 5,6, hurrenez hurren).


Oro har, eta gainerako biztanleena baino bilakaera konparatibo okerragoa duen testuinguruan, 35-54 urteko erreferentzia-ko pertsona bat duten etxekoan unitateetako biztanleria sendotu egin da 2020an, Euskadiko pobrezia-egoeren erdigunea den aldetik. Hala, pobrezia-aren eraginpean dagoen kolektiboari egiten dion ekarpenak gora egin du 2018ko % 62,0tik 2020ko % 64,0ra, ia 4 puntu portzentual 2008ko % 60,1aren gainetik.

IV.1.14. TAULA BENETAKO POBREZIA- ETA PREKARIETATE-EGOEREN BILAKAERA, PERTSONA NAGUSIAREN ADINAREN ARABERA, 2008-2020. FAMILIA-ETXEBIZITZETAKO BIZTANLEEN PORTZENTAJEA

		>35	35-44	45-54	55-64	>65	GUZT.
MANTENTZE- POBR. MANTENIMIENTO	2008	11,8	8,4	3,8	4,8	3,2	5,7
	2014	15,9	13,1	8,9	6,5	2,1	8,2
	2016	18,3	12,9	6,9	6,3	1,8	7,1
	2018	19,0	11,5	8,5	6,6	3,4	8,0
	2020	19,6	12,9	8,8	4,8	4,2	8,0
METATZE-POBR. ACUMULACIÓN	2008	2,7	3,0	0,4	0,7	1,3	1,5
	2014	3,3	4,5	1,3	0,6	1,0	2,0
	2016	2,6	4,1	1,3	0,5	0,7	1,6
	2018	2,0	1,7	0,9	0,4	0,4	0,9
	2020	1,5	0,8	0,2	0,1	0,1	0,3
BENETAKO POBREZIA	2008	9,4	7,6	2,6	2,7	1,6	4,2
	2014	13,6	11,1	5,3	4,0	1,1	5,9
	2016	15,3	11,7	5,8	4,2	1,1	5,7
	2018	16,2	9,9	6,6	4,4	1,7	6,1
	2020	15,3	9,7	6,6	3,2	1,8	5,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2020.

IV.1.7. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIA-TASAREN BILAKAERA FAMILIako PERTSONA NAGUSIAREN IKASKETA MAILAREN ARABERA. EAE.




Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI.

- Etxekoen unitateko bizikide nagusiaren **ikasketa mailari** dagokionez, ikasketa kualifikatuak dituztenek soilik egiten diote aurre COVID-19ak eragindako krisiari.

IV.1.7 grafikoan ikus daitekeenez, ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonak buru dituzten etxeetan soilik mantentzen da 2014an hasitako pobrezia-beheranzko joera argia, eta 2020ko benetako pobrezia-tasa % 1,5ekoa da, 2018an baino 4 hamarren txikiagoa (2014an, % 2,2). Gainera, ratioak eta haien igotzerak handiagoak dira ikasketa-maila txikiagoarekin: pobrezia-tasa % 14,6ra iristen da ikasketarik gabeko pertsonen artean, eta 2,1 puntu igo da azken biurtekoan. Lehen mailako ikasketek % 9,7ko (+0,9) benetako pobrezia-tasa lortzen dute, eta, hirugarrenik, 2. mailako ikasketek ere pobrezia handitzen dute, baina intentsitate txikiagoan: % 8,1 2020an, 2018an baino 3 hamarren gehiago.

IV.1.8. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIAREN INTZIDENTZIAREN BILAKAERA FAMILIako PERTSONA NAGUSIAREN NAZIONALITATEAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI.

- Benetako pobrezia nabarmen egiten du gora pertsona nagusia **atzeritarra** den etxeetan bizi direnen artean, baina behera egiten du biztanleria nazionalaren artean.

Espainiako nazionalitateko familiaburuak dituztenen familietako biztanlerian, benetako pobrezia pixka bat behera egin zuen 2018 eta 2020 bitartean, % 4,2tik % 3,2ra. Atzerriko nazionalitatea dutenen kasuan, ordea, nabarmen handitu da % 38ra arte (+7,3 puntu), tasa orokorra % 5,6 izanik. Horren ondorioz, pobrezia kasuen %

46,6 atzerritar jatorriko familietan gertatzen da (+11,3 puntu, 2018. urtearekin alderatuta), eta familia horien pisu demografikoa askoz txikiagoa da, 2012an zuten % 41,2 baino gehiago baitira (gaur arteko gehieneko ratioa).

- Pobrezia eta bazterketa arrisku egoeren intzidentzia aztertzen du PGDIk **familiako pertsonen jarduerarekiko** erlazioaren arabera.

Pobrezia-tasarik handienak, jakina, lanik ezarekin daude lotuta eta, funtsean, lan egiteko moduan diren pertsona guztiak langabe daudeneko familiekin.

2020an, pobrezia errealeko tasa, kasu hauetan, % 43ra heldu zen; hala, intzidentzia 2,6 puntu jaitzi zen 2018arekin alderatuta eta 2008ko datuaren azpitik. Izan ere, orduan, familiako kideak langabezian zeuden euskal familien erdiak baino gehiago izaten zuten pobrezia erreala (% 49,7).

Pobrezia tasarik murriztuenak, bukatutako serie osoan, kideek lan egonkorak dituzten familietan daude (kontratu mugagabea) eta, aitzitik, lan ezegonkorak dituzten familietan (aldi baterako kontratua edo kontraturik ez), pobrezia askoz handiagoa da: "lan-pobrezia" izango litzateke. Kolektibo horrek % 14,7ko pobrezia-tasa zuen 2008an, eta % 16ra iritsi zen 2016an. 2018an, bilakaera orokorraren aurka, behera egin du lan-pobrezia deritzonak, aipatutako % 16tik % 11,9ra; azken biurtekoan, berriz, pixka bat igo da, 2 hamarren, % 12,1eraino.

Kontuan hartu behar da, gainera, pobrezia-egoerak familien artean jardueraren arabera banatzean (IV.1.9 grafikoa), badirudi 2018-2020 biurtekoan eten egin dela 2014an hasitako langabezia-kategoriako familien eta pertsona ez-aktiboen etheen arteko aldaketa. Izan ere, urte hartan pobrezia-egoeren % 50 baino gehiago ziren, eta benetako pobrezian zuten partaidetzak gora egin zuen 2014ko % 14,8tik % 23,9ra. 2020an, langabezian dauden familien partaidetza % 37tik % 39,4ra igo da, eta ez-aktiboen artean, berriz, % 23,9tik (2018) % 18,3ra jaitzi da.

IV.1.15. TAULA BENETAKO POBREZIAREN INTZIDENTZIA, ETXKOEN UNITATE MOTAREN ETA KIDEEN JARDUERAREKIKO HARREMANAREN ARABERA. 2008-2020


	2008	2014	2016	2018	2020
AKTIBO LANDUN EGONKORRAK	1,4	0,9	1,2	1,8	1,6
OKUPAZIO EGONKORRAREN BESTE KASU BATZUK	0,6	2,5	2,8	2,7	2,9
LANDUN EZEGONKORREN BAT	14,7	12,7	16,0	11,9	12,1
GUZTIAK LANGABE	49,7	39,6	39,1	45,6	43,0
EZ-AKTIBOAK	5,7	3,8	4,8	7,8	5,6
GUZTIRA	4,2	5,9	5,7	6,1	5,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. PGDI.

IV.1.16. TAULA ONGIZATERIK EZAREN INTZIDENTZIA, ETXKOEN UNITATE MOTAREN ETA KIDEEN JARDUERAREKIKO HARREMANAREN ARABERA. 2008-2020

	2008	2014	2016	2018	2020
AKTIBO LANDUN EGONKORRAK	4,0	2,7	3,2	5,8	3,7
OKUPAZIO EGONKORRAREN BESTE KASU BATZUK	5,3	9,6	8,4	8,3	6,1
LANDUN EZEGONKORREN BAT	22,3	27,4	28,7	23,9	22,2
GUZTIAK LANGABE	61,2	54,2	53,0	66,4	53,2
EZ-AKTIBOAK	10,1	9,3	9,7	15,5	10,0
GUZTIRA	8,2	11,5	10,8	12,5	9,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. PGDI.



Bestalde, benetako ongizaterik ez dagoen egoera multzoa aztertuz gero (pobreziarekin loturikoak barne), aldeak berriz ere nabarmenak dira lan egonkorra izatearen edo ez izatearen arabera, eta benetako ongizaterik ezaren tasa % 22,2 da lan egonkorrik ez duten familietan. % 3,7 eta % 6,1, berriz, lan egonkorra duten familietan (ongizaterik ezaren batez besteko orokorra % 9,5 da). Biztanleria landun ez-egonkorra duten etxekoen unitateen benetako ongizaterik eza nabarmen murriztu da 2020an (% 22,2) 2018arekin alderatuta (-1,7 puntu), eta 2008. urteko zifretara itzuli da (% 22,3).

- Amaitzeko, kontuan hartutako aldagaietarako **hurbilketa sintetiko**a eginez, benetako pobrezia-egoeren % 73,8 lau etxekoen unitate mota espezifikori dagokie 2020an: EBtik kanpoko atzerritarren etxekoen unitateak (% 41,7), lan egonkorrik gabeko emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak (% 14,9, horietatik % 9,7 45 urtetik gorakoak izango lirateke, eta % 5,2 adin horretatik beherako lan egonkorrik gabekoak), lan egonkorrik gabeko 45 urtetik beherako familia-taldeak (% 11,2) eta bakarrik eta lan egonkorrik gabe dauden 65 urtetik beherako gizonak (% 6).

Pobrezia-tasak % 20ko atalera iristen dira edo gainditzen dute ia kasu horietan guztietan, lan egonkorrik gabeko 45 urtetik beherako pertsonen familia-taldeetan izan ezik, % 15,8 baitira, betiere batez bestekoaren gaintetik argi eta garbi.

IV.1.17. TAULA BENETAKO POBREZIA-EGOEREN BILAKAERA, FAMILIA MOTA SOZIODEMOGRAFIKOAREN EDO BIZIKIDE NAGUSIAREN ARABERA. FAMILIAKO ETXEBIZITZAN BIZI DEN BIZTANLERIA. POBREZIA OSOAREN GAINEKO INTZIDENTZIA ETA BANAKETA. 2008-2020.										
	INTZIDENTZIA					POBREZIA OSOAREN GAINEKO BANAKETA				
	2008	2014	2016	2018	2020	2008	2014	2016	2018	2020
GURASO BAK. EMAK. LAN EGONIKORRIK GABEKOA <45	60,7	50,3	50,0	58,9	49,0	8,9	6,2	10,7	8,9	5,2
GURASO BAK. EMAK. LAN EGONIKORRIK GABEKOA >=45	9,7	16,2	20,7	12,2	32,2	2,5	6,6	5,2	4,1	9,7
GURASO BAK. EMAK. LAN EGONKORRA DUENA ESTABLE	6,9	7,2	8,6	9,2	5,1	2,5	2,7	5,0	3,9	2,0
EMAK. BAK. LAN EGONK. EZ <45	5,4	22,5	18,7	19,2	13,1	0,3	1,8	1,7	1,4	0,8
EMAK. BAK. LAN EGONK. EZ >=45	30,1	24,1	23,1	20,4	19,3	5,0	4,3	4,4	3,3	3,3
EMAK BAK. <65 LAN EGONK.	4,1	2,0	2,6	2,1	3,9	0,9	0,5	0,6	0,6	1,4
GIZON. BAK. <65 LAN EGONK.	0,0	0,0	0,8	0,0	1,1	0,0	0,0	0,3	0,0	0,4
GIZON BAK. <65 LAN EGONK. EZ	24,1	20,7	19,7	22,9	22,7	3,9	4,0	5,8	4,9	6,0
FAM. <45 LAN EGONK. EZ	19,1	21,8	23,6	20,0	15,8	15,2	18,1	12,6	12,4	11,2
FAM. >=45 LAN EGONK. EZ	2,8	9,3	8,6	10,6	3,6	5,9	13,2	13,0	13,6	6,5
FAM. <45 LAN EGONK.	1,3	0,9	2,3	0,8	0,3	7,4	2,8	5,8	2,1	0,7
FAM. >=45 LAN EGONK.	0,8	0,4	0,3	1,2	0,8	5,7	1,9	1,4	5,3	3,8
GIZONAK >65	1,1	0,8	0,9	0,7	1,1	4,4	2,4	3,1	2,1	3,6
EMAKUMEAK >65	2,4	1,6	1,6	3,0	1,7	4,6	2,1	2,6	5,0	3,0
EB-TIK KANPOKO HERRIALDEAK	34,5	47,2	37,2	34,0	44,6	31,2	33,1	26,4	31,5	41,7
GIZONAK: GURASO BAKARREKO FAMILIAK	7,4	2,8	7,1	5,1	3,3	1,6	0,3	1,3	0,9	0,7
GUZTIRA	4,2	5,9	5,7	6,1	5,6	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. PGDI 2020.

Adierazitako lau taldeek benetako pobrezia-egoeretan zuten garrantzi erlatiboa 2008an % 61,7 izatetik 2012an % 72,1 izatera igaro zen. 2014an % 70etik gertu mantendu arren (% 68,0 eta % 68,0, hurrenez hurren), haien pisua % 60,7ra murriztu zen 2016an, eta beherakada hori, orduan, atzerriko taldearen nazionalizazio-prozesuarekin lotzen zen. 2018an, proportzioa antzeko mailetan mantendu zen, %61,8arekin, 2020an %73,8raino igo baino lehen.

Azken biurtekoko hazkundera Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako nazionalitatea duten pertsonen etxekoen unitateetako biztanleriarekin lotzen da batez ere (% 31,5etik % 41,7ra), baita lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako emakume bat buru duten guraso bakarreko familiekin ere (% 4,1etik % 9,7ra), nahiz eta lan egonkorrik gabeko 65 urtetik beherako gizonen ekarpenak ere gora egin duen (% 4,9tik % 6,0ra).

1.4. FAMILIAK ETA LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIA BATERATZEA

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, hauexek daude: familia moten aniztasun handiagoa, familien batez besteko tamaina txikiagoa, familia horietako erreferentziako pertsonen profileko aldaketa garrantzitsuak, familian dauden adingabeen proportzio txikiagoa eta mendekotasun egoera gehiago eta guraso bakarrekoen familiek dakarten gizarte errealitatea (beherazko joera izanik ere).

EINen "Familien etengabeko inkestak" erakusten duenez, EAEk guztira 911.100 familia zituen 2020an (Estatuko familien % 4,9), 2019an baino % 0,4 gehiago, eta horietatik % 30,3 eurekin bizi diren bikoteekin daude osatuta, % 28,2 pertsona bakarrekoak dira eta % 22,6 seme-alabarik gabeko bikoteak dira. Batez besteko tamaina 2,37 pertsona da familiako, Estatuko 2,50ekoa baino txikiagoa. Euskadi familiako kide gutxien duten hirugarren autonomia erkidegoa da, Kantabriarekin batera. Soilik Asturiasen (2,20) eta Gaztela eta Leonen atzetik (2,29).

Gainera, familiak pertsonen bizitzaren erdigunean jarraitzen du. Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen¹² "Familia 2020" txostenaren arabera, euskal herritarren % 93 oso edo nahiko pozik dago bere familiako pertsonen arteko harreman afektiboekin (% 91 2016an, aurreko inkestaren urtea) eta % 94 bere bikote-harremanarekin. Era berean, % 85 oso edo nahiko pozik dago familia ikusten duen maiztasunarekin (% 84 2016an) eta % 78 gustura dago jarduerak partekatzen dituen maiztasunarekin (ratio bera 2016an). Horrez gain, familia giroan gehien azpimarratzen diren balioak maitasuna (inkestaturikoen % 68), begirunea (% 57) eta komunikazioa (% 38) dira, askotariko erantzunak emateko aukera duen galdera batean.

Etorkizuneko amatasunari/aitatasunari dagokionez, etorkizunean, segurtasun osoz, seme-alabak izango dituztela uste duten elkarrizketatutako pertsonen ehunekoak behera egin zuen 2020an, 2016ko inkestarekin alderatuta, % 20tik % 16ra (eta etorkizunean seme-alabak izan ditzaketenen ehunekoa % 12tik % 9ra jaitzi zen). Gainera, segurtasun osoz seme-alabarik izateko asmorik ez dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa % 55etik % 63ra igo da azken laurtekoan¹³.

Gai horiei dagokienez, EINen "2018ko ugalkortasunari buruzko inkestak" jaiotza-tasarako eragozpenak eta pizgarriak aztertzen ditu, emakumeen ikuspegitik: Ugalkortasun-tasak handitzeko beharrezko neurriei dagokienez, % 22,8k uste du amatasun eta aitatasun baimenak luzeagoak izan beharko lirakeela (eta % 30,7k hala uste du 30-34 urtekoen taldean), % 11,9k malgutasuna eskatzen du seme-alabak dituzten gurasoen laneko ordutegian eta % 10 18 urtetik beherako seme-alaba adingabeak dituzten familientzako baliakizuna ematearen alde agertzen da, beste neurri batzuen artean. Era berean, elkarrizketatutako emakumeen % 16,7k ez zuen uste jaiotza-tasa sustatu behar zenik¹⁴.

1.4.1. Bateratzeko beharrak


Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko eta laneratzeko eta lanean promozionatzeko adin aproposak bat datozenez gero, emakumezko gazteak egoera zailean daude, seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak.

¹² Txosten honetan ohartarazten da hura aztertzeko egindako inkestak 2020ko martxoaren 12an egin zirela, COVID-19ak konfinatu aurretik. Hortaz, jasotako iritziak, jakina, memoria hau egiteko unean eragiten digun pandemia larriaren aurrekoak dira. Era berean, laginaren tamaina mugatua beste kasu batzuetakoa baino txikiagoa denez, ezinezkoa da aldagai soziodemografikoen arabera zenbait gurutzaketa egitea, eta zuhurtzia gomendatzen da emaitzak interpretatzerakoan.

¹³ Txosten honen emaitzei buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, 2020ko memoria sozioekonomikora jo daiteke.

¹⁴ Txosten honen emaitzei buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, 2019ko memoria sozioekonomikora jo daiteke.

Eusko Jaurlaritzaren "Familia 2020" txostenaren arabera, elkarrizketatutako pertsonen % 51k uste du seme-alabak izateak dezente oztopatzen duela emakume baten karrera profesionala (% 44k 2016an), eta % 22k uste du "asko" oztopatzen duela (% 26k 2016an). Gizonen kasuan, berriz, galdetutako pertsonen % 12k soilik ikusten ditu oztopo asko edo dezente karrera profesionalan seme-alabak izateagatik (% 13, 2016ko inkestan).



2018an, Europar Batasunean bizi ziren 18-64 urteko 308 milioi pertsonetatik, % 34k (106 milioi) zaintza-erantzukizunak aitortu zituzten (EUROSTAT, Lan Indarrari buruzko Inkestan 2018ko modulua, LII). Erantzukizun horiek 15 urtetik beherakoak (% 29), mendeko senideak (% 4) edo biak (% 1) zaintzea zekarten. Sexuaren arabera, tasa % 37koa zen emakumeentzat eta % 32koa gizonentzat, eta alde hori mantendu egiten da aipatutako hiru kategorietan. Inguruabar horien ondorioz, arazo berriak sortu dira bizikidetzeta-unitateen barruan, ordaindutako lana eta familia-zaintza uztartzeko premiaren inguruan; hala, adibidez, adingabeen zaintzaz arduratzen diren EBko soldatapeko pertsonen % 27k beren lanak egokitu behar izan dituzte lana eta zaintza bateragarri egin ahal izateko (lanaldi-murrizketak, lan- edo zeregin-aldaketak, etab.), sexuaren araberako arrakala oso handiarekin: Emakume langileen % 39 eta gizonen % 17 (EUROSTAT, 2018). Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

Bestalde, EAEn bizi diren landun familiek lana eta familia eta bizitza pertsonala bateratzeko dituzten posibilitateak ikertzen ditu EUSTATEk 2010. urtetik, hain zuzen "Lana eta norberaren bizitza eta familia bateratzeari buruzko inkesta" erabiliz (LBI).

2020ko emaitzek (eskuragarri dauden azkenak) nabarmentzen dutenez, lehenik eta behin, EAEko pertsona landunek 10etik 4ko batez besteko zailtasuna aitortzen dute beren lana eta mendeko pertsonen zaintza uztartzeko, eta handixeagoa (10etik 4,2) seme-alaba adingabeak zaintzeari dagokionez, sexuaren araberako alderik ikusi gabe adingabeak zaintzeari dagokionez, baina bai mendeko pertsonak zaintzeari dagokionez: emakumeentzat, zailtasuna 4,4 da, eta gizonentzat, berriz, 3,7. Era berean, Euskadiko pertsona landunen % 27,7k dio zailtasun handiak dituela lana eta seme-alaba adingabeak zaintzea uztartzeko, eta % 28,7k dio zailtasun hori bera duela mendeko pertsonak zaintzeko. Hirugarrenik, landunen % 24,9k ikusten du zailtasun maila handi hori lana eta jarduera pertsonalak uztartu behar direnean.

Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek, bestalde, gizonak baino % 35,3 ordu gehiago ematen dituzte egunean seme-alaba adingabeak zaintzen, eta % 43,8 gehiago mendeko pertsonak zaintzen; gainera, lankideek baino % 37,5 denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan. Gizonezkoek 3,4 ordu ematen dituzte egunean adingabeak zaintzen (3,3 2019an) eta emakumezkoek, aldiz, 4,6 (4,7 2019an). Alde hori dezente handiagoa da mendeko pertsonen zaintzari dagokionez; jarduera horretan egunean 1,6 ordu ematen dituzte gizonak (2019an 1,5) eta 2,3 ordu emakumeek (2019ko datu berak). Gainera, emakumezkoek, batez beste, 2,2 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, gizonzkoek, aldiz, 1,6 ordu (2,1 eta 1,5, hurrenez hurren, 2019an). Batez besteko horiek batuz gero, emakumeek etxeko lanetan eta zaintza-lanetan ematen duten eguneko denbora 9,1 ordukoa izango litzateke, eta gizonak, aldiz, 6,6 ordukoa, hots, % 37,9ko arrakala. Horrek esan nahi du ratio hori % 50,8koa zela 2018an, eta % 44,4koa 2019an. Beraz, arrail horretan beharrezko joera ikusten da.


IV.1.18. TAULA BIZTANLERIA LANDUNAK EGUNEAN ETXEKO LANETAN EMATEN DITUEN ORDUAK. EZAUGARRIEN ARABERA. ARRAKALAREN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA. EAE. 2019-2020.

	2019				2020			
	GUZT.	GIZONAK	EMAKUMEAK	ARRAKALAR EN %	GUZT.	GIZONAK	EMAKUMEAK	ARRAKALAR EN %
ETXEKO LANAK	1,8	1,5	2,1	% 40,0	1,9	1,6	2,2	% 37,5
SEME-ALABA ADINGABEAK ZAINTZA	4,0	3,3	4,7	% 42,4	4,0	3,4	4,6	% 35,3
MENDEKO PERTSONAK ZAINTZA	1,9	1,5	2,3	% 53,5	2,0	1,6	2,3	% 43,8
GUZTIRA	7,7	6,3	9,1	% 44,4	7,9	6,6	9,1	% 37,9

Iturria: EUSTAT eta LBBiren datuekin egindakoa.

Bere gain hartutako kargen desberdintasun horrek etxeko lanen banaketarekiko asebetetze-mailari eragiten dio; izan ere, emakumeek, batez beste, 10etik 5,9ko asebetetze-maila adierazten dute beren ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiteko eskaintzen duen lankidetzari buruz, eta gizonak 7,4koa.


IV.1.11. GRAFIKOA. LANDUNEK KONTZILIAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIEKIN DUTEN GOGOBESETASUNA MAILA, SEXUAREN ARABERA. EAE. 2020.




Kontziliazioaren alderdian jartzen badugu arreta, adin txikiko seme-alabak zaintzeko denborarekin dagoen asebetetze-maila 6,7koa da eta handiagoa emakumezkoen artean (6,9 puntukoa emakumezkoen artean eta 6,4koa gizonzkoen artean). Gogobetetasun hori txikiagoa da, bai gizonen artean, bai emakumeen artean, mendeko pertsonen zaintzari dagokionez (5,9, eta datu bera gizonen eta emakumeen artean). Bizitza pertsonalerako erabilgarri dagoen denborari dagokionez (aisialdia, ikasketak, gizarte-bizitza) batez besteko asebetetze-maila 6 da, eta murriztagoa emakumezkoen artean (5,9 emakumeena eta 6,1 gizonena).

Enpresan edo erakunde baimen jakin batzuk eskatzeko zailtasunari dagokionez, datuek erakusten dute zailtasun horiek, 2017ra arte handitu ondoren, murrizten ari direla ordutik, aztertutako aldagai gehienetan.

EUSTATen Inkestaren arabera, pertsona landunek, batez beste, 10etik 3,4ko zailtasun-maila aitortzen dute (2,6 2010ean), eta 2,7koa, zehazki, norberaren kontuetarako lanera ez joateko baimena lortzeko (1,4 2010ean). Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea errazteko neurrien barruan, eszedentziek 3,8ko batez besteko zailtasuna dute (3,2 2010ean), lanaldi-murrizketak ere 3,8koa (3,2 2010ean), eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 10etik 3,2ko zailtasun-indizea dute (2,4 2010ean).



2019. urtearekiko aldaketei dagokienez, 2020an ikusten da, oro har, 2018an hasitako zailtasunek behera egin dutela. Horrek joera-aldaketa bat adieraz lezake adierazitako aldagaietan (ikus IV.1.13 grafikoa). Bestalde, oro har, ez da sexuaren araberako alderik ikusten, eta adinak, seguruenik lanpostuko antzinatasunarekin lotuta, aipatutako uztartze-neurriak eskuratzeko zailtasunak murrizten ditu. Hala ere, emakumeen artean gizonen artean baino beldur handiagoa dago kontziliazioarekin lotutako alderdiek beren ibilbide profesionalean eragin negatiboa izan dezaten (emakumeen % 30,5 eta gizonen % 26,5).



Neurri horietan (eszedentzien eta lanaldi-murrizketen eskaerak) gizonek izan duten parte-hartzea oso txikia izan da, eta, gainera, ez da asko aldatu azken urteotan. Hala, Eusko Jaurlaritzari adingabeak zaintzeko eszedentzia hartzeko edo lanaldia murrizteko laguntzen eskaeren %11,2 soilik sinatu zituzten gizonak 2020an. Gauza bera esan liteke mendetasuna duten senitartekoak zaintzeko laguntzei dagokienez, nahiz eta horietan gizonen partaidetza-ratioak zertxobait handiagoak diren (2020ko eskaeren % 15,5), Eusko Jaurlaritzaren datuekin Legebiltzarrerako egindako txosten batean.


Arrakala hori Europar Batasun osoan gertatzen da; izan ere, EUROSTATEk adierazten du, batez beste, 2018an zaintza-lanak bateratzeko lanaldia murriztu zuten langileen % 18 soilik zirela gizonak (% 82 emakumeak), nahiz eta herrialdeen arteko aldeak oso nabarmenak diren (Finlandian gizonen % 42: alde horretatik, berdintasun handiena duena herrialdea; Txekian, berriz, % 3,2).

Ordutegi motei eta malgutasunari dagokienez, EUSTATen LBBik adierazten du 2020an EAEko langileen % 23,5ek lanaldia ia egunero luzatu behar dutela (eta % 18,4k batzuetan). 2019. urteari dagokionez, lanaldia luzatu behar duten pertsonen ehunekoak 5,5 puntu igo da, ohiko edo noizbehinka.

Ildo beretik, EUROSTATEk "Lanaren antolamenduari eta lanaldiari" buruz egindako inkestaren arabera, 2019an EBko langileen % 21ek lanaldia egokitu behar zuten beren lanaren eskakizunetara (gehituz, suposatzen dugu) astean behin eta % 19 gehiagok hilean behin (ratioak % 13 eta % 10 dira Espainian, hurrenez hurren).

LBBiren arabera, ordutegi malgua, kontziliazioa hobetzeko tresna osagarria, EAEko langileen % 32,6k baliatzen dute (% 42,7k 2019an), eta neurri txikiagoan emakumeek (% 29,3) gizonak baino (% 35,6). Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, % 7,3k lantzean behin egiten du lan etxean eta %10,8k egun erdia gutxienez. Oro har, beraz, lana duten pertsonen % 15,5ek noizean behin edo maizago egiten du lan etxean (% 12,6 2018an eta % 15,5 2019an), eta ratio hori nabarmen handituko da COVID-19aren ondorioz¹⁵.

2010. urteaz geroztik, langileen lanaldiarekiko gogobetetasuna eta ordutegien malgutasuna ia ez dira aldatu lehen kasuan, eta zertxobait hobetu da bigarreanean; aldi berean, sexuaren araberako aldeak oso txikiak dira. Gizonen artean, lanaldiari dagokionez, batez besteko asebetetze-maila 2010eko 10etik 7koa izatetik 2020ko 7,2koa izatera igaro da, eta ordutegien malgutasunari dagokionez, handitu egin da (6,2 eta 6,6 artean). Emakumeen kasuan, lanaldiari buruzko gogobetetasuna 7,2tik 7,4ra jaitsi da; ordutegien malgutasunari dagokionez, berriz, gogobetetasuna apalagoa zen seriearen hasieran, baina handitu egin da, azken urtean gizonen gogobetetasunarekin ia parekatzeraino: 2010eko 5,9tik 2020ko 6,4ra.



Baldintza horien ondorioz, inkestak nabarmentzen du ezen, bikotekide biek lan egiten duten familietan, senideek edo ordaindu gabeko pertsonen zaintzen dituztela seme-alabak lanaldiak iraun bitartean eta eskola-ordutegitik kanpora kasuen % 31,6an. Kasuen % 45,9an, berriz, bikotekide biek zaintzen dituzte seme-alabak, eta % 3,6an ordaindutako beste pertsona batzuei dagokie zaintza. Bestalde, inoren laguntza behar duten pertsonak lanaldian zehar zaintzea

¹⁵Ikusi Memoria honetako III. Kapituluko ("Enplegua eta lan-harremanak EAEn") atal egokia.

ordaindu gabeko ahaideen kasuen % 48,8an, ordainsaria jasotzen duten beste pertsona batzuen kasuen % 27,8an eta gizarte-zerbitzuen kasuen % 15,3an.

Adingabeak zaintzeari dagokionez, aitona-amonek funtsezko zeregina betetzen dute: 2020rako Familia inkestari buruzko txostenak adierazten duenez, bilobak dituzten pertsonen galdetuta (laginaren % 23), % 18k adierazi du egunero zaintzen dituela (2016an, % 20) eta % 19k astean hainbat aldiz (2016an, % 23). % 22k hilean zenbait alditan zaintzen ditu (10 % 2016). Biloben zaintzak adinekoren % 59 hartzen du (4 urte lehenago baino 6 puntu gehiago, intentsitate txikiagoarekin bada ere), eta zeregin horrek, adineko pertsonak izateko, karga eramangarria adierazten du (1,4 Otik -ez da inola ere karga bat- 10era -nekez eramaten den karga bat da-, 2016ko 2tik beherakoa).

Halaber, *Mendekotasuna duten pertsonak familian zaintzeari* dagokionez, era berean, hauxe erakusten du Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoko Kabineteak eginiko *“Adinekoak 2018”* txostenak erabiliz: gizonen % 59k eta emakumeen % 61ek uste dute ezen, aurreko belaunaldien aldean, adineko gurasoak gutxiago zainduta daudela gaur egun, eta balorazio hori, gainera, oso antzekoa da adin-tarte guztietan (betiere % 50etik gorako ratioekin).

1.4.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari maila juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko

Familiantzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Familia Planarekin. Harrezkero, 2015era arte, 640 milioi eurotik gorako gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta bateratzeko laguntzen artean.

2011n, *“EAEko Familiei Laguntzeko 2011-2015eko Erakunde Arteko III. Plana”* onetsi zen eta, gutxi gorabehera 674,6 milioi euroko aurrekontua izanik, familia politiken gaineko zeharkakotasun handiagoa eman zaio aurreko bi planekin alderatuta. Hartara, sailen eta erakundeen arteko lana indartu da. Lehendik dauden neurriak nahiz neurri berriak modu koherentean antolatu nahi ditu, printzipio honen inspirazioarekin: lana, familia eta norberaren bitzta uztartzea familiako eta gizarteko kide guztiei dagokie, denok baitaukagu erantzukizun maila handiago edo txikiagoa.

Horren garapenaren ondorioz¹⁶, planaren indarraldian 133,3 milioi euro erabili dira seme-alaben jaiotzagatik eta mantenuagatik, hain zuzen ere guztira 157.738 espedientetan. Uztartzeko laguntzek, bestalde, 136,3 milioi eurotik gorako gastua ekarri dute, eta guztira 97.086 onuradun izan dira. Espedienteen aldetik nahiz gastuaren aldetik, adingabeak zaintzeko bateratze-laguntzei dagokie %96 eta, beraz, presentzia oso txikia dakar berekin beste bi lerroetan (menpekoak zaintzeko bateratze-laguntzak eta zaintzaileak kontratatze-laguntzak). Laburbilduz, aztertutako familiantzako laguntzen bi lerroetan, 2011-2015 aldian 270 milioi euroko gastua izan da, gutxi gorabehera % 50a bakoitzean.

III. Planaren ebaluazioa abiapuntua izan da familien gaineko politikari buruzko gogoeta prozesuan, hain zuzen plan berria egite aldera. Familiaren Euskal Kontseiluak, 2017an, *“Familien eta Haurren Aldeko Ituna”* adostu zuen, eta ondoren, 2018ko urtarrilean, EAEko administrazio guztiek izenpetu zuen. Ituna diagnostiko partekatutako batean oinarritzen da¹⁷. Diagnostiko horri esker, *“2018-2022 aldirako Familiei Laguntzeko IV. Plana”* zehaztu ahal izan zen (memoria hau egiteko unean ez dago planaren betetze-mailari buruzko informaziorik), inplikaturako eragileen

¹⁶Ebaluazio honi buruzko xehetasun gehiagorako 2018ko Memoria Sozioekonomikora jo dezake irakurleak.


¹⁷Ikerketari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2008ko edizioa.

adostasunetik, eta ondoren garatutako 5 ardatz identifikatu ziren, 18 helburu eta 116 ekintzatan¹⁸. Hona hemen ardatzak:

- i. Gazteen emantzipazioa eta familia berrien eraketa erraztea.
- ii. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea erraztea, baita emakumeek eta gizonek seme-alabak zaintzeko lanetan duten baterako erantzukizuna ere.
- iii. Familiei laguntzea.
- iv. Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea.
- v. Familien eta haurren aldeko politiken lidergoa eta gobernantza bultzatzea.

Plan horren garapenak 460 milioi euroko gastua aurreikusten du 2018 eta 2022 artean Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren neurrietan, bereziki kontziliazioaren eremuan (286 milioi euro), eta 785 milioi euro horiei seme-alabak dituzten familientzako errentak bermatzeko politikan eta gazteen enplegu-programetan gehitu behar zaizkie. Halaber, 220 milioi erabiliko dira Haurreskolen Partzuegorako, 250 milioi beketarako, 50 milioi gehiago gazteentzako etxebizitza politikerarako, 1.575 milioi seme-alaben ziozko zerga-kenkarietarako eta 415 milioi euro, berriz, Gizarte Zerbitzuetan.

2016-2021 aldiari dagokionez, ekitaldi horietako "EAEko Sektore Publikoaren Urteko Kontuen" aurrekontu-betearazpenari buruzko zifrak ditugu, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailaren 3124 Programari (*Familia eta Komunitate Politika*) dagozkionak. 2021erako behin-behineko datuekin, azken sei urteetan 297,4 milioi euro bideratu dira familientzako laguntzetara; berriz ere, % 50 inguru banatu dira seme-alabak dituzten familientzako laguntzen eta lana eta familia bateragarri egiteko laguntzen artean.



2022an, aurrekontu-betearazpenari buruzko informazioari dagokionez, jakin badakigu Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak 29,12 milioi euro bideratu zituela guztira familiei transferentziak egiteko, 2019an baino % 38,8 gutxiago; horietatik 14,89 milioi seme-alabak dituzten familientzako laguntzei dagozkie (guztizkoaren % 51,1) eta 14,23 milioi kontziliaziorako laguntzei (guztizkoaren % 48,9). Bestalde, 2021erako behin-behineko datuek adierazten dute nabarmen igo dela familientzako laguntzetara bideratutako zenbatekoa. Azarorako aurrekontu eguneratua 66,8 milioi eurokoa da, 2020an likidatutako zenbatekoa baino % 129,5 gehiago (2022ko maiatzeko behin betiko datuak).

¹⁸Plan horri buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailaren web-orrira jo daiteke: http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/20_plandep_xileg/es_def/adjuntos/IV%20Plan%20Interinstitucional%20de%20Apoyo%20a%20las%20Familias%20de%20la%20CAE%202018_2022

IV.1.19. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKA FAMILIENTZAKO TRANSFERENTZIEIEN BILAKAERA PROGRAMEN ARABERA. EUROAK.

		2016	2017	2018	2019	2020	2021**:
SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK	30/2015 DEKRETUA	24.928.600	25.706.450	24.209.000	26.607.117	14.890.100	26.879.200
	255/2006 DEKRETUA	1.471.200	65.500	32.300	400	-	14.900
	176/2002 eta 109/2006 DEKRETUAK	5.400	-	900	-	-	43.200
	GUZTIRA	26.405.200	25.771.950	24.242.200	26.607.517	14.890.100	26.937.300
KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK	ADINGABEAK ZAINTEAGATIK	28.278.185	23.056.734	23.260.936	20.071.769	13.387.599	28.194.782
	ZAINZAILEEN KONTRATAZIOA 3 URTEK BEHERAKO SEME-ALABENTZAT	326.813	210.167	262.255	270.092	216.630	676.800
	MENDEKO PERTSONAK ZAINTEAGATIK	711.927	644.937	657.260	671.297	511.517	1.144.500
	AMATASUN-LIZENTZIA EZ DUTEN GURASOAK	-	-	-	-	116.496	7.000.000
	ZAINZAILEEN KONTRATAZIOA 3-13 URTEKO SEME-ALABENTZAT	-	-	-	-	-	2.880.000
	GUZTIRA	29.316.925	23.911.838	24.180.451	21.013.158	14.232.243	39.896.082
	LAGUNTZAK, GUZTIRA	55.722.125	49.683.788	48.422.650	47.620.675	29.122.343	66.833.382

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontu-betearazpena Betebehar aintzatetsiak Guk geuk egjin dugu.

* 2021eko datua 2021eko azaroan eguneratutako aurrekontuari dagokio.

Bestalde, seme-alabak dituzten familientzako laguntzen eta kontziliaziorako laguntzen 2018-2020 aldian onuradun izan diren pertsonen (familien) kopuruari buruzko zifrak ezagutzen dira, Eusko Legebiltzarrak eskatuta, 2021eko maiatzean Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak landutako informazioan oinarrituta (ikus iturriak).

IV.1.20. TAULA EAE-KO FAMILIAK, SEME-ALABENGATIKO ETA KONZILIAZIOAGATIKO LAGUNTZEN ONURADUN DIRENAK. 2018-2020

	2018	2019	2020		
			ABS.	% BERT.	ALD. % 19/20
SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK	28.809	30.667	26.132	66,6	-14,8
SEME-ALABAK ZAINTEZKO LANALDI-MURRIZKETAGATIKO/ESZEDENTZIAGATIKO LAGUNTZAK	14.327	13.251	12.420	31,6	-6,3
SEME-ALABAK ZAINTEZKO LANALDI-MURRIZKETAGATIKO/ESZEDENTZIAGATIKO LAGUNTZAK	429	440	424	1,1	-3,6
MENDEKETA DUTEN AHAIDEAK ZAINTEZKO LANALDI-MURRIZKETA/ESZEDENTZIAGAT. LAGUNTZAK	323	323	275	0,7	-14,9
GUZTIRA	43.888	44.681	39.251	100,0	-12,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina.

Txosten horren arabera, 2018-2020 aldian, 127.820 familiak jaso zituzten laguntza horiek, eta horietatik % 67 seme-alabengatiko laguntzak jaso zituzten. Era berean, % 31,3 gurasoetako batek seme-alabak zaintzeko hartutako lanaldi-murrizketagatik edo eszedentziagatik izan zen, eta % 1 eskas mendetasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko. 2020an, datuak ditugun azken urtean, familia onuradunak 39.251 izan ziren, 2019an baino %12,2 gutxiago, eta laguntza moten araberrako banaketa 2018-2020 aldirako berbera da.

1.5. BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIA. ETXERIK GABEKO PERTSONAK

Nahiz eta fenomeno berria ez den, 2008an hasitako krisiak gaurkotasuneko gaia bihurtu du bizitegi-bazterketa larria, baita horrek eraginpeko pertsonen herritartasun eskubideetan duen eragina ere.

Europar Batasunak onartu duenez, lehenetsunezko arazoa da pobrezia eta gizarte bazterketaren kontrako borrokaekin loturiko agenda politikoan Europako 2020 Estrategiaren baitan. Beren beregi aipatzen dira " etxerik gabekoak" eta bizitegi-bazterketa Europan politika publikoak sortzeko lehenetsunezko esku-hartzearen ardatzetako bat.

Europako Batzordeak duela gutxi egindako azterlan baten arabera¹⁹, azken hamarkadan bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopurua handitu egin da Batasuneko herrialde guztietan, Kroazia, Polonia eta Portugalen izan ezik, horietan egonkortsu egin baita, eta Finlandian, berriz, beherakada estatistikoki nabarmena izan duen herrialde bakarra izan da. Horren ondorioz, European, gauero 700.000 lagunek baino gehiagok egiten dute lo kanpoan, hamarkada bat lehenago baino % 70 gehiagok.

Egoera hori are larriagoa da COVID-19aren pandemiak eraginda, eta, horren ondorioz, Europako erakundeek Lisboako Adierazpena sinatu zuten 2021eko ekainean, etxegabetasunaren kontrako borroka Europa sozialerako lehenetsuntzat berresteko. Zehazki, "Etxegabetasunari aurre egiteko Europako Plataforma" eratzea erabaki da, European gaiari buruzko ulermen komuna eraikitzeke, bai erakunde publiko nazionalen mailan, bai gizarte zibileko tokiko eragile eta erakundeen mailan, azken horiek zuzenean inplikaturik baitaude kalean bizi diren pertsonen arreta emateko politiken ezarpenean.

Lisboako Adierazpenaren oinarritzko printzipioak hauexek dira: (i) inork ez dezala aterperik gabe lo egin larrialdiko bitoki irisgarri, seguru eta egokirik ez izateagatik; (ii) larrialdiko edo trantsizioko bitoki batean inor ez dadila bizi etxebizitza iraunkor batera arrakastaz igarotzeko behar den denbora baino gehiago; (iii) inor ez dadila altan eman inongo erakundetan (espetxean, ospitalean, arreta-zentroan) etxebizitza-eskaintza egokirik gabe; (iv) ahal den guztietan saihestu behar dira etxegabetzeak eta, beharrezkoa denean, etxebizitza egokia lortzeko laguntzarik gabe; (v) inor ez diskriminatzea pertsona behartsua izateagatik.

1.5.1. Etxerik gabeko pertsonen egoera eta premiak Euskadin

Hona hemen erakundeek bizitegi-bazterketa larriari aurre egiteko duten muga nagusietako bat: fenomeno horrek oro har herritarrengan duen intzidentziari buruzko informazioa bildu eta talde horren ezaugarriak zein diren jakitea ahalbidetzen duten estatistikak eta azterlan espezifikoak ez izatea.

IV.1.21. TAULA EAE-N IDENTIFIKATUTAKO BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIKO EGOEREN KOPURUA ETA BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA. 2020KO MAIATZAREN 4TIK 10ERAKO ASTEA.					
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE, GUZTIRA
Pertsona kopurua	KALEA	19	95	49	163
	ATERPETXEAK ETA ZENTROAK GAUEKO HARRERAN	73	172	106	351
	COVID-19-AREN SALBUESPENEZKO TRENSAK	69	543	234	846
	INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMENTZAKO ZENTROAK ETA BIKTIMAK	41	70	57	168
	GIZARTERATZEKO ZENTROAK ETA PISUAK	170	588	511	1.269
	GUZTIRA	372	1.468	957	2.797
BANAKETA BERTIKALA	KALEA	5,1	6,5	5,1	5,8
	ATERPETXEAK ETA ZENTROAK GAUEKO HARRERAN	19,6	11,7	11,1	12,5
	COVID-19-AREN SALBUESPENEZKO GAILUAK	18,5	37,0	24,5	30,2
	INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMENTZAKO ZENTROAK ETA PISUAK	11,0	4,8	6,0	6,0
	GIZARTERATZEKO ZENTROAK ETA PISUAK	45,7	40,1	53,4	45,4
	GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA (2021). EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko V. azterlana, 2020ko datuak.

Eusko Jaurlaritza

2012tik ari da kolektibo hori aztertzen, EAEn bizitegi-bazterketa larrian bizi diren pertsonen kopurua kuantifikatzeko eta haien ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuenak eta bizi-baldintzak eta bizi-ibilbideak ezagutzeko. 2021ean, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko V. azterlana egin du. Horri esker, memoria honen aurreko edizioetan aurkeztutako alde aurreko azterlanen zenbait emaitza eguneratu daitezke.

Ikerketa hori 2020ko maiatzaren 4tik 10erako astean EAEko 19 udalerritan egindako etxerik gabeko pertsonen gaueko zenbaketan oinarrituta egin zen (2018ko zenbaketa 26 udalerritan eta gau bakar batean egin zen). Udalerririk horiek EAEko biztanleriaren % 61 biltzen dute, baita bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonentzako EAEko 348 ostatu-zentro eta -zerbitzutan ere. Berariaz etxerik gabe daudenentzat edo aldi batez aterpetxeetan edo etxerik gabekoei osatuta emateko beste toki batzuetan dauden pertsonentzat dira kontaketa horiek, eta 80ko hamarkadatik


¹⁹ EUROPEAN COMMISSION (2020): *Fighting homelessness and housing exclusion in Europe. A study case of national policies 2019.*

hona egin izan dira munduko hiri handi askotan. Izan ere, baliozko metodologia dira une jakin batean jakiteko zenbat pertsona dauden egoera horretan eta zein diren haien ezaugarriak.

Aurreko edizioetan bezala, zenbaketa EAEko administrazio guztien eta gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeen lankidetzarekin egin zen, baina COVID-19 pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, ezin izan zen boluntarioen lankidetzarik izan. Gainera, une hartan mugikortasunean zeuden muga handiak zirela eta, kalean egindako zenbaketa irizpide metodologiko ez hain zorrotzen arabera egin behar izan zen.

Guztira, 2.797 pertsona zenbatu ziren bizitegi-bazterketa larrian, eta 2018an, berriz, 2.320. Guztira, 2.797 pertsona zenbatu ziren bizitegi-bazterketa larrian, eta 2018an, berriz, 2.320. Horien guztien artean, oso gutxi ziren (% 5,8) etxean konfinatuta egon arren eta, hainbat arrazoi tarteko, kalean zeudenak. Kopuru absolututan, 163 pertsonako kolektiboa da, eta 430 pertsona zenbatu ziren 2018ko urrian. Hala ere, kontuan hartu behar da ikerketa hau egin zen egoera atipikoa, COVID-19aren pandemiaren konfinamendu zorrotzean.

% 12,5 aterpetxeetan eta harrera arrunteko zentroetan zeuden, eta % 30,2 pandemiarako gaitu ziren establezimendu berezietako batean. Era berean, identifikatutako pertsonen % 6 indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-zerbitzuetan bizi ziren, eta % 45,4 gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran daudenentzako gizarte-zerbitzuetako hainbat baliabidetan. Aurkitutako ia 2.800 pertsonetatik, 372 Araban zeuden (% 13), 1.468 Bizkaian (% 53) eta 957 Gipuzkoan (% 34).



Bizitegi-bazterketa larrian zenbatutako pertsonen artean, gehienak gizonak ziren (% 91), eta aurreko txostenekin alderatuta, emakumeen proportzioa murriztu egin da (2016an kolektiboaren % 16 ziren, eta 2020an, berriz, % 9). Gainera, kolektiboaren % 53 eta % 47 atzerritarra da, eta 45 urtetik gora ditu. Oro har esan daiteke, aurreko azterketekin alderatuta, bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonak zaharragoak direla 2020an, eta gutxiago dira atzerritarrak.

EAEko hiriburuetakoko egoerari dagokionez, ikerketa honetatik aldizka ateratzen diren emaitzak eta udal batzuen memoriek modu osagarrian ematen dituztenak oinarri hartuta, ondoriozta daiteke 2020. urtean lortutako zifrak bizitzeko tokirik ez duten pertsona guztiei buruzkoak direla –kalean, aterpetxe arruntetan eta, salbuespenezko kasuetan, pandemiarako egokitutako ekipamenduetan aurkitutako pertsonak–. Aurreko urteekiko koherentzia handia dute, eta egoera horien goranzko joera adierazten dute, bereziki Bilbon, eta askoz ere leunagoa Gasteizen eta Donostian, IV.1.17 grafikoan ikus daitekeen bezala. Hala, Bilbon 694 pertsona zenbatu dira kalean, ohiko aterpetxeetan edo COVIDak espezifikoki egindakoetan, 2018an baino % 68 gehiago, hau da, hiru hiriburuetakoko kolektiboaren % 61,4. Gasteizen eta Donostian, aldiz, kontabilizatutako kolektiboak gora egin badu ere, aurreko bi urteekiko hazkunde-tasak txikiagoak dira, % 37,4 eta % 14,8, hurrenez hurren.

Zenbatutako pertsona guztietatik, kolektiboaren ezaugarriak zehaztea ahalbidetzen duen galdetegi bati erantzun zioten 2.179 pertsoneri buruzko informazio xehatua daukagu:

-Bizitegi-bazterketan dauden hamar pertsonatik lauk baino gehiagok, gehienez ere, urtebete daramate etxerik gabe.

% 42k urtebete edo gutxiago darama, eta modu orekatuan banatzen dira zazpi hilabete baino gutxiago daramatzatenak (% 21) eta denbora gehiago baina urtebete baino gutxiago daramatela diotenak (% 21). Oro har, etxegabetasun-ibilbide laburrak (urtebete, gehienez) ugariagoak dira aterpetxeetan gaua igarotzen dutenen artean (% 45) eta pandemiarako harrera-gailuen artean (% 61), eta, batez ere, genero-indarkeriako baliabideetan hartutako emakumeen artean (% 90). 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean ere oso argi dago hori, bai gizonen kasuan (% 50), bai emakumeen kasuan (% 52). Bilakaeraren ikuspegitik, etxerik gabe urtebete baino gutxiago daramaten pertsonek gero eta pisu erlatibo handiagoa dute, 2016an % 31 izatetik 2020an % 42 izatera igaro baitira.

- Etxea galdu aurretik, %42 etxean edo partekatutako pisu batean bizi zen, eta hamar pertsonatik bat erakunde itxi batetik zetorren.

Kontsultatutako pertsonen % 42k dio etxea galdu aurretik modu nahiko independentean bizi zela: % 26 bere etxean eta % 16 pisu partekatu batean. Halaber, % 31k adierazten du senide edo lagun baten etxean bizi zela. Bestalde, hamar pertsonatik batek dio erakunderen batetik etorri zela –adingabeen harrera-zentroak (% 6), espetxea (% 3) edo osasun-erakundea (% 1)–, eta % 5, berriz, funtsean etxebizitza desegokiari lotutako egoitza-egoera oso prekarioetan.

- Bizitegi-bazterkeriako egoeran dauden hamar pertsonatik bi adingabeentzako harrera-zentro batean egon dira haurtzaroan eta/edo nerabezeroan.

Adingabeak harrera-zentro batetik irtetea etxerik gabe izateko egoera baten eragile zuzena izan den kasu jakin batzuk alde batera utzita, ikerketa honetan lortutako emaitzek iradokitzen dute bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden hamar pertsonatik bi gutxienez mota horretako zentro batean egon direla haurtzaroan eta/edo nerabezeroan.

– Egiturazko faktoreak bizitegi-bazterketa larriko hiru egoetatik biren atzean egongo lirateke.

Aipatutako etxegabetasuna eragiten duten arrazoi nagusiak baliabide ekonomikorik ez izatearekin lotuta daude (% 45), baita administrazio-egoera irregular batekin ere, kasu gehienetan lan-aukerak galtzearekin (% 28) eta familia-gatazkekin eta ezkontza-hausturarekin lotuta (% 22). Kausa ohikoenen artean, honako hauek ere nabarmentzen dira: lan-arazoak, langabeziarekin edo lan-prekarietatearekin lotutakoak (% 20), eta hainbat substantziarekiko mendekotasun-arazoak (% 14).

Oro har, egiturazko kausak nabarmentzen dira batez ere –neurri handi batean, laneratzeko arazoei eta gutxieneko baliabide ekonomikorik ezari lotuak–, etxegabetasuneko hiru egoetatik biren atzean egongo liratekeenak. Horien ondoren, harremanezko arrazoiak eta arrazoi pertsonalak aipatu behar dira, hamar pertsonatik ia 3ri eragingo lioketenak; eta, azkenik, arrazoi instituzionalak, neurri handian erakunde bat uztearekin eta familiaren laguntzarik ezarekin lotuta daudenak (% 5).

Kalean lo egin izanaren bizipena askoz ere ohikoagoa da gizonen artean.

Identifikatutako pertsonen % 71 kalean bizi izan dira, orain edo iraganean, eta horrek agerian uzten du kalean lo egin izana, egun batzuetan eta/edo aldizka bada ere, ez dela ikerketa honetan barne hartutako ostatu-baliabideetan gaua igarotzen duten pertsona gehienen esperientzia. Gizonen artean (% 77 eta % 44, hurrenez hurren), proportzio hori emakumeena baino askoz handiagoa da, eta gazteen artean daude genero-desberdintasun handienak. Gainera, emaitzek agerian uzten dute kalean noizbait lo egin duten 10 pertsonatik 6k lapurreta edo eraso motaren bat izan dutela.

- Bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen % 85ek familiarekin nolabaiteko harremana du.

Dena den, % 15ek ez luke inolako harremanik izango familiako gainerako kideekin. Adin handieneko gizonak (% 32), kalean aurkitutako pertsonak (% 31) eta, oro har, jatorri ez-atzerritarreko gizonak (% 28) dira familia-harremanen erabateko etendurako (edo gabeziako) egoera hedatuak. Aitzitik, genero-indarkeriaren baliabideetan dauden emakumeen eta 30 urtetik beherako pertsonen % 94 (% 93 emakumeak eta % 92 gizonak) dira familia-harremanen bat gehien dute taldeak.

- Hamar pertsonatik hiruk bakarrik igarotzen zuten egunaren zatirik handiena pandemiaren aurretik.

Pandemiaren aurreko uneari dagozkion bakarrik edo gizartetik bakartuta egoteak pixka bat ohikoagoak dira gizonen artean (% 31) emakumeen artean baino (% 27). Hala eta guztiz ere, bakardade-mailarik handienak, gutxienez aurten, pandemiarako gaitutako baliabide berezietan ostatu hartu duten pertsonak dituzte (% 45), eta horien atzetik, oso hurbil, genero-indarkeriaren eremuko ostatu-baliabideen erabiltzaile diren emakumeak daude.

- Elkarrizketatutakoen % 16k lan-jardueraren bat egiten du.

Lan-jardueraren egoerak, gutxi gorabehera irregularrak edo noizbehinkakoak diren alde batera utzita, pixka bat ohikoagoak dira kontsultatutako emakumeen artean gizonen artean baino, eta % 20 baino pixka bat gehiago dira atzerritar jatorriko eta 30-54 urteko emakumeen artean, baita pandemiaren ondorioz ezarritako baliabide berezietan ostatu hartuta zeuden pertsonen artean ere. Atzerriko jatorriko emakumeen artean, lan-jardueraren bat betetzen duten emakume guztien hiru laurdenek garbiketarekin (etxeak garbitzea, batez ere), ostalaritzarekin (zerbitzariak eta pisuko zerbitzariak) eta zainketen sektorearekin lotutako lanak dituzte, ia zati berdinetan, batez ere mendetasun-egoeran dauden adinekoak zaintzera bideratuta. Baliabide berezietan ostatu hartu duten pertsonen artean, okupazioen aniztasuna askoz handiagoa da, eta hauek dira nagusiak: txatarraren salmenta, mantentze- eta eraberritze-jarduerak (pintoreak, txabolak ...), eraikuntza eta nekazaritza-lanak (fruta-bilketa, sasoikako lana ...).

- Hiru pertsonatik bat muturreko prekarietate ekonomikoan dago.

% 12k soilik jasotzen zuen ordainsariren bat bere lan-jardueratik. Gutxi gorabehera % 36k laguntza edo prestazio ekonomiko publikoren bat jasotzen zuen, eta % 20k, laneko diru-sarrerarik eta laguntza ekonomiko publikorik gabe, bere sare sozialaren edo hirugarren sektoreko erakunderen baten laguntza ekonomikoa zuen. Gainerako % 32ak (kalean eskatuz gero lor dezaketena alde batera utzita) ez du inolako diru-sarrerarik aipatzen, eta erabateko prekarietate ekonomikoan dago. Egoera horretan dauden pertsona guztien artean, % 45, 18 eta 29 urte bitarteko gizon atzerritarrak dira, eta % 30, 30 eta 64 urte bitarteko gizon atzerritarrak.

- Hamarretik bik baino ez dute DSBE jasotzen, eta % 29k ez daki halakorik dagoen.

Kontsultatutako hamar pertsonatik zazpi Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ezagutzen zutela edo horri buruz hitz egiten entzun zutela adierazi zuten, baina beste aldetik, zati handi batek, % 29k, ez zuen ezagutzen. Ezagutzen ez duten pertsonen artean, presentzia handiegia dute 18 eta 29 urte bitarteko gazteek (ezagutzen ez duten guztien % 65 dira) eta, batez ere, atzerritarrak (% 89). Horien guztien % 73k dio hiru urte baino gutxiago daramatela EAEn bizitzen. Hortaz, ondoriozta daiteke pertsona gehienek ez dutela gutxieneko erroldatze-baldintza betetzen. Prestazio ekonomikoa ezagutzen dutenen artean, % 27k jasotzen du. Hartzaile ez direnen artean, gehienek badakite ez dituela betetzen laguntza jasotzeko baldintzak (% 70), % 6k eskatu du eta zain egongo litzateke edo, bestela, eskaera egin aurreko prozesuan egongo litzateke (izapideak egiten), eta % 6 eskaera egin duten eta ukatu zaien edo arrazoiren batengatik eten zaien pertsonak dagokie.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta neurri handiengan jasotzen duten taldeen artean, atzerritarrak ez diren gizon eta emakumeak nabarmendu behar dira (% 38 eta % 41), baita 55 urte eta gehiagoko gizonak eta emakumeak ere (% 37 eta % 38, hurrenez hurren). Aitzitik, pertzepzio-tasa txikiak atzerriko jatorriko gizonen artean (% 91k ez du jasotzen), 30 urtetik beherako gizon eta emakumeen artean eta zenbaketaun unean kalean egoten ziren pertsonen artean (% 86) edo pandemiarako ezarritako baliabide berezietan ostatu hartuta zeudenen artean (% 92) gertatzen dira.

-Osasun-arretako zerbitzuak eta Lanbidek emandakoak, ostatua ematen duten gizarte-zerbitzuen ondoren gehien erabiltzen diren zerbitzuak.

Ostatu-zerbitzuen ondoren, hainbat zentrotatik (anbulatorioak, osasun-zentro espezializatuak, ospitaleak) hornitutako osasun-arretako zerbitzuak daude, azken sei hilabeteetan hamar pertsonatik zazpi erabili dituztenak (% 70); eta, ondoren, Lanbidek emandakoak (% 67). Gainerako baliabideak maiatza baino lehenagoko azken sei hilabeteetan erabili zituzten inkestatuen erdiek baino gutxiagok. Hala ere, nabarmendu beharrekoak dira prestakuntza-zentroak (% 49) eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak (% 43).

-Osasun-arrakala handia dago bizitegi-bazterketa larriak eragindako pertsonen eta, oro har, biztanleen artean.

Etterik gabeko pertsonen biztanleria osoarekin alderatuta duten osasun-egoera okerragoa da azterlan honek hasieratik azpimarratu duen aurkikuntzetako bat. Oro har, bizitegi-bazterketa larriak dauden pertsonen % 34 inguruk eta % 42k (urtearen arabera) erdipurdiko osasuna, osasun txarra edo oso txarra balioesten dute; 15-74 urteko biztanleria orokorraren artean, aldiz, ehuneko hori % 11,4 baino ez da.

- Nahasmendu eta gaixotasun mentalak dira osasun arazo hedatuak, eta bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden hamar pertsonatik ia biri eragiten diete.

Gaitz eta gaixotasun mentalak dira patologia hedatuena, kontsultatutako hamar pertsonatik ia biri eragiten baitie. Gaixotasun eta nahasmendu horien ondoren, arnas gaixotasunak (asma, bronkitisa, birrikak ...) eta zirkulazio-sistemarekin lotutakoak (barizeak, kolesterola, anemia, diabetesa ...) daude, baina prebalentzia txikiagoa izan. Traumatismoek eta gaixotasun osteoartikularrek aztertutako pertsonen % 9,7ri eragingo liekete, eta digestio-aparatuko gaixotasunek, berriz, % 4,8ri. Bost nahasmendu edo gaixotasun nagusiak kontuan hartuta, 2018an horien guztien prebalentziak behera egin duela ikus daiteke, neurri batean, 2020an adin txikikoek pisu espezifiko handiagoa dutelako.

Urteen artean gerta daitezkeen aldakuntzetatik harago, 2020ko emaitzak sendoak dira bizitegi-bazterketako egoeran dauden artean buru-nahasteek duten eragin handiari eta arnas aparatuko eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunen prebalentzia nabarmenari dagokienez.

Bestalde, EInen **Etterik Gabeko Pertsonen Arreta emateko Zentro eta Zerbitzuei buruzko Inkestak**, bi urtean behin egiten denak, aukera ematen du baliabide horien ezaugarriak ezagutzeko, eta agerian uzten du erkidegoen artean alde handiak daudela batez besteko okupazioari edo plazan hornidurari dagokionez.

2020ko inkestak adierazten du, lehenik eta behin, erreferentziako urtean etterik gabeko pertsonentzako ostatu-plazak 4.260 zirela EAEn (2018an baino %13,4 gehiago), hau da, Estatuko guztizkoaren % 20,7. Era berean, zentroen batez besteko okupazioa % 81,5koa izan zen gure erkidegoan, Estatuan % 86,2koa. Horietatik, plazan % 28,8 baino ez zuten emakumeek okupatzen (Estatuan, batez beste, % 27) 2018. urteari dagokionez, egiaztatu da okupazio horrek gora egin duela gure erkidegoan (+2,2 puntu), eta Estatuan, berriz, behera egin duela (2,8 puntu).

IV.1.22. TAULA ETXERIK GABEKO PERTSONEI ARRETA EMATEKO ZENTROAK AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA. ADIERAZLE NAGUSIAK. 2016-2020						
	PLAZA KOP.			OKUPAZIOA (%)		
	2016	2018	2020	2016	2018	2020
ESTATUA, GUZTIRA	19.124	20.219	20.613	85,9	89,0	86,2
ANDALUZIA	1.808	2.321	2.123	84,6	83,4	84,2
ARAGOI	975	731	600	83,4	76,7	75,7
ASTURIAS	911	983	905	82,5	75,6	83,3
BALEAR UHARTEAK	614	332	483	89,0	96,7	85,8
KANARIAR UHARTEAK	659	727	641	92,6	97,3	83,9
KANTABRIA	131	198	95	79,7	77,5	76,8
GAZTELA ETA LEON	971	1.246	1.541	70,8	80,0	78,0
GAZTELA-MANTXA	618	549	407	72,1	73,7	85,4
KATALUNIA	1.863	1.753	2.367	92,9	96,7	80,1
VALENTZIA	1.070	801	703	86,6	88,0	77,7
EXTREMADURA	164	287	340	90,2	75,2	87,8
GALIZIA	950	1.304	1.163	84,0	81,9	77,9
MADRIL	2.415	2.294	2.459	92,8	92,3	84,7
MURTZIA	804	1.098	642	91,3	94,0	77,2
NAFARROA	354	525	452	56,4	73,3	87,4
EAE	2.933	3.755	4.260	80,9	79,3	81,5
ERRIOXA	238	189	272	42,9	67,7	58,0
CEUTA	950	583	330	99,9	108,2	97,7
MELILLA	699	546	834	107,3	224,0	196,1

Iturria: EIN. Etterik gabeko pertsonen arreta emateko zentro eta zerbitzuei buruzko inkesta.

Autonomia erkidegoen arteko erkaketa eginda ikusten denez, gainezka daude gehienbat Ceutan eta Melillan, % 100aren inguruko okupazioak baitaude, baina beste erkidego batzuetan ere bai, hala nola, Nafarroan, Balear Uharteetan, Gaztela-Mantxan edo Extremaduran, % 85 etik gorako ratioekin.

1.5.2. Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia 2018-2021

2018ko apirilean, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, EUDELeK eta Bilbo, Gasteiz, Donostia, Barakaldo, Getxo, Portugalete, Irun, Santurtzi eta Laudioko Udalek erakunde arteko akordio bat sinatu zuten 2018-2021 aldirako etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia garatzeko. Akordio hori 2017an onartu zen, Euskadiko udalerrri handietan kalean lo egiten duten pertsonen kopurua nabarmen murrizteko –% 20 gutxienez–. Horretarako, pertsona horiei laguntzeko politika integralak garatuko dira. Estrategia Euskadin etxerik ez duten pertsonen ezaugarriak eta premiak, eta gure erkidegoan ezarritako arreta-sistemaren indarguneak eta ahuleziak aldeztu aurretik aztertu ondoren sortu da, eta inguruko herrialdeetan bizitegi-bazterketaren aurrean esku hartzeko ereduetan ere finkatu da.

Euskadi ez da hutsetik abiatzen, pertsona horiek babesteko ekintzetan eskarmentu handia baitu, euskal erakunde publikoen eta Hirugarren Sektore Sozialeko hainbat erakunderen inplikazioari esker. Hala, Autonomia Erkidegoa da Estatuaren buruan ostatu-plazak betetzeari dagokionez, urtean 47,5 milioi euro bideratuz etxerik gabeko pertsonen arreta ematera.

Estrategia berri honekin, sinatu duten erakundeek berezko plan bat diseinatzeko konpromisoa hartu dute, erabakitako zuzentzarauak gauzatzeko jarduera zehatzekin. Jarduera horiek, berriak edo ez izan daitezke, eta banaka (esku hartutako erakunde bakoitzak) edo erakunde bat edo gehiagoren arteko lankidetzaren bidez egin ahalko dira. Horrela, gizarte, osasun, enplegu, etxebizitza edo diru-sarrerak bermatzeko zerbitzuen arteko lankidetzaren bidez garatu ahalko dira jarduerak²⁰.

Memoria hau egiten ari garen honetan, ez dakigu estrategia horren ezarpen-maila, ez eta haren emaitzak ere.

²⁰Estrategia horri buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, 2019ko EAEko Memoria Sozioekonomikora jo daiteke.

BIZI-BALDINTZAK: ITURRIAK

1. **EUROSTAT (2019):** Lan indarrari buruzko inkesta (LII) 2019. Familia bateragarri egiteari buruzko modulua
2. **EUROSTAT (2020):** "Lanaren antolaketa eta lanaldia" inkesta 2019.
3. **EUROSTAT (2021):** Bizi-baldintzei buruzko Estatistika (UE-SILC).
4. **EUSTAT (2021):** Lana eta bizitza pertsonala eta familiarra uztartzeari buruzko inkesta.
5. **EUSTAT. EGITURAZKO ADIERAZLEAK (2021):** Giza garapenaren indizeak eta adierazleak (2021eko datuak)
6. **EUSKO JAURLARITZA (2018):** Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia 2018-2021
7. **EUSKO JAURLARITZA (2021):** EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko V. azterlana, 2020. Laburpen exekutiboa
8. **EUSKO JAURLARITZA. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA:** Aurrekontuko likidazioak. Jarduketan memoria. Hainbat urte
9. **EUSKO JAURLARITZA. Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila (2018).** Familiei Laguntzeko IV. Plana 2018-2022
10. **EUSKO JAURLARITZA. Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila (2021):** Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta. (PGDI) 2020
11. **EUSKO JAURLARITZA. Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila (2021):** Isabel González, Elkarrekin Podemos taldeko kideak eginiko galderaren erantzuna, lana eta familia bateragarri egiteko EAEn dauden laguntzen irismenari eta bilakaerari buruzkoa (2021eko ekainaren 23a). Eusko Legebiltzarrak bere webgunean argitaratutako txostena.
12. **EUSKO JAURLARITZA. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2018):** 2017 Adinekoak 2017
13. **EUSKO JAURLARITZA. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2020):** "Familia 2020" inkesta,
14. **EIN (2019):** Ugalkortasun-inkesta 2018
15. **EIN (2021).** Familiei buruzko Inkesta jarraitua 2020
16. **EIN (2021)** Etxerik gabeko pertsonen arreta emateko zentro eta zerbitzuei buruzko inkesta 2020.
17. **EIN (2021):** Bizi Baldintzei buruzko Inkesta 2020

2. GIZARTE BABESA

IV. kapituluko bigarren atal honetan, gure erkidegoan gizarte babesak barne hartzen dituen eremu nagusiak erreparatu dira, eta, 2021eko memoria sozioekonomiko honetan bezala, COVID-19ak gure bizitzako alderdi guztietan duen inpaktuak eragiten die.

Lehenik eta behin, EAEn gizarte babesean eginiko gastua azalduko dugu, eta EUSTATEk EBren metodologia jarraituz eginiko kontuak emango ditugu. Kasu honetan, zifrek 2020ko datuen aurrerapenari egiten diotenez erreferentzia, pandemiaren zenbait ondorio detektatzen dira daborduko, seguru asko oraindik ez direnak osorik agertzen. Ondoren, Gizarte Segurantzaren prestazio guztiak eta Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legearen ondorioz pobrezia eta gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko dauden tresnak aztertuko ditugu. Azkenik, EAEko gizarte aurreikuspeneko sistema osagarrien zifra handiak aztertuko dira. Atal hau osatzeko, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari (BGD) buruzko informazioa dugu. Estatuaren titulartasuneko prestazio berria da, eta COVID-19ak eragindako osasun-krisiak bizkortu egin zuen 2020an.

Ondoren, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen ondoriozko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren deskribapena egiten da, baita dagokion estatistikaren emaitza nagusiak eman ere (datu horiek nolabaiteko dekalajea dute, eta, beraz, pandemiaren eragina izan gabe artean, baina ikusi ahal izango dugu sistema zelan zegoen COVID-19ari aurre egiteko), legeak araututako mendetasunaren arretarako sistema EAEn ezartzeari buruzko jarraipenarekin batera. Amaitzeko, eta memoria honen aurreko edizioetan bezala, Euskadiko gizarte aurreikuspeneko sistema osagarrien zifra handiak emango dira.

Azkenik, gogorarazi behar dugu ezen, Europako Batzordearen 458/2007 Erregelamenduan gizarte babesa biltzen duten eremuen sailkapenean langabeziako prestazioak beren beregi sartu arre, horiei buruzko informazioa Memoria Sozioekonomiko honetako III. Kapitulura ekartzea erabaki dugu (*“III. Enplegua eta lan-harremanak EAEn”*), zertarako eta enpleguari buruzko politiken gaineko ikuspegi osoa izateko, betiere politika aktiboak eta pasiboak batera aztertuta.

2.1. GIZARTE BABESAREN KONTUA. 2020KO AURRERAPENA

Gizarte Babesaren Estatistiken Europako Sistemaren (SEEPROS) arabera, Gizarte Babesa honela definitu behar da: *“Erakundeek gauzatutako jarduera guztiak, arrisku edo beharizan jakin batzuek etxebizitzetara eta norbanakoei sorrarazitako kargak arintzeko helburu dutenak, betiere aldebereko hitzarmenik, elkarrekikorik edo banakakorik²¹ ez baldin bada”*.

IV.2.1. TAULA. GASTUA GIZARTE BABESA EAE-N. ADIERAZLE NAGUSIAK.


	2008	2016	2017	2018	2019	2020*	2018/19 aldak.	2019/20 aldak. *	2008/20 aldak. *
GASTUA GUZTIRA (MILIOI EURO)	13798	17397	17835	18470	19561	21431	5,9	9,6	55,3
% REN GASTUA BPGd-aren GAINEAN	19,8	24,4	24,2	24,0	24,6	30,0	0,6**:	5,4**:	10,2**:
GASTUA EURO/BIZTANLE	6.402	8.003	8.188	8.456	8.916	9.757	5,4	9,4	52,4
GASTUA PPK-ETAN BIZTANLEKO	6.744	8.636	8.802	9.022	9.464	:	4,9	:	:
GASTUA PRESTAZIOETAN (MIL. €)	13.500	17.132	17.578	18.221	19.312	21.127	6,0	9,4	56,5
-ERITASUNA/OSASUN ARRETA	4.168	4.446	4.627	4.740	5.088	5.466	7,4	7,4	31,1
-ZAHARTZAROA	5.230	7.406	7.685	8.123	8.565	8.859	5,4	3,4	69,4
-LANGABEZIA	1.027	1.081	999	948	1.027	2.051	8,3	99,7	99,7
-BESTELAKO FUNTZIOAK	3.075	4.199	4.267	4.410	4.632	4.751	5,0	2,6	54,5
GASTUA UNIT. INSTUTZIONALEKO									
- SIST. GIZARTE SEG. ETA ESTAUAREN ADM.	8.169	10.480	10.815	11.236	11.926	13.434	6,1	12,6	64,5
- EAE-KO ADMINISTRAZIOAK	4.522	5.676	5.773	5.947	6.285	6.591	5,7	4,9	45,8
- ERAKUNDE PRIBATUAK	1.108	1.242	1.248	1.287	1.350	1.406	4,9	4,2	26,9

Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren kontua EAEn. Guk geuk egina.

* Behin-behineko datuak. ** Diferentzia ehuneko puntuetan.

²¹ Ikus terminoen glosarioa memoria honen amaieran.

Gizarte babesaren arloko beste estatistika batzuetan ez bezala, adibidez Gizarte Segurantzaren Sistemetako erakundeek buruturiko ekintzak baizik biltzen ez dituen Lanaren Nazioarteko Bulegoarenean, SEEPROS metodologian edozein erakundetara zabaltzen da behaketaren eremua, publikoa nahiz pribatua izan, baldin eta definizio orokorreko beharkizunen arabera gizarte babeseko ekintzak burutzen baditu. Kontzeptua osatzeko, definizioan aipatzen diren arriskuen eta beharren zerrenda dago; Funtzio deritze horiei guzkiei. Hauexek dira: Gaixotasuna / Osasun arreta, Baliaezintasuna, Zahartzaroa, Bizirik irauten dutenak, Familia / Seme-alabak, Langabezia, Etxebizitza, beste inon sailkatuta ez dagoen gizarte bazterkeria.




EUSTATen 2020ko "EAEko Gizarte Babesaren Kontua"ren azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 21.431 milioi euro izan ziren erreferentziako urtean, 2019an baino % 9,6 gehiago (+1.870 milioi). Hots, urte horretako BPGd-aren % 30 (+10 puntu 2008aren aldean eta 5,4 puntu gehiago 2004arekiko). Kasu honetan, kontuan hartu behar da izendatzaileak -BPG- beherakada handia izan duela azken urtean).

Gizarte babeseko gastu osoak etengabe egin du gora denborazko serie erabilgarrian, eta biztanleko gastua 6.402 €-koa izan zen 2008an, eta 9.757 €-koa 2020an (+% 52,4).

Administrazio-gastuak kenduta, gizarte prestazioen zenbatekoa 21.127 milioi eurokoa da, 2019an baino % 9,4 gehiago. Funtzioka egindako gastu horren azterketak erakusten duenez, egoitzako eta etxeko arretako pentsioak eta laguntza-prestazioak barne hartzen dituen "Zahartzaroa" funtzioari dagokion zatia da pisurik handiena duena, 8.859 milioi euro, guztizkoaren % 41,9. 2019. urtearekin alderatuta, % 3,4 hazi da, prestazioen batez besteko hazkundera baino gutxiago (% 9,4). Bigarren funtziorik garrantzitsuena "Gaixotasuna/osasun-arreta" da, 2020ean 5.466 milioi euroko gastuarekin, guztizkoaren % 25,9, eta % 7,4 hazi da 2019aren aldean (hala ere, prestazioen multzoa baino gutxiago hazi da). Bien artean, beraz, gizarte prestazioetako gastuaren % 67,8 hartzen dute (ikus IV.2.1 grafikoa).

Beste alde batetik, 2020. urtean, azpimarratu behar da "langabezia" funtzioak izan duen igoera handia: 1.024 milioi euro gehiago, 2.051 izan arte (+% 99,7). Funtzio horrek hazkunde handia izan zuen 2019an ere, batez ere langabeziagatik sorospenean sartutako hobekuntzengatik eta ordaindutakoaren arabera prestazioen zenbatekoa handitzeagatik. 2020an, igoera hori, neurri handi batean, COVID-19aren eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurrien ondorioz gertatu da, jarduera uzteagatik edo fakturazioa murrizteagatik prestazioak ezarrita norberaren konturako langileentzat edo autonomoentzat eta, besteren konturako langileentzat, aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteen ondoriozko prestazioekin.

Erakunde-unitateen araberako gizarte babeseko gastuari dagokionez, Gizarte Segurantzaren sistemak eta Estatuko Administrazioak egiten duten gastua % 62,7 da 2020an, eta % 12,6 hazi da aurreko urtearekin alderatuta. Bestalde, euskal administrazioen gastua % 30,8 eta 6.591 milioi euro artekoa izan da, 2019an baino % 4,9 gehiago. Gainerakoa, 1.406 milioi euro, erakunde pribatuek egiten duten gastuari dagokio (+% 4,2).



Amaitzeko, EUROSTATEk argitaratutako azken datuekin, 2019an, Euskadiko gizarte babeseko per capita gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 9.464 eurokoa izan zen, EBko batez bestekoa (9.066 €) baino handiagoa, baita Estatuko batez bestekoa (6.752 €) baino handiagoa ere, nahiz eta euroguneko 10.095 € per capita baino txikiagoa izan. Bestalde, Europar Batasun osorako BPGd-aren gaineko gizarte babeseko gastua 100 dela kontuan hartuta, EAEko datua 88 izango litzateke, eta Estatu osokoa 2 puntu txikiagoa (86) (2019ko datuak).

2.2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK²²

2021ean, milioi erdi pertsona baino gehiago (525.363, lehen zenbatespenaren arabera) Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen onuradunak izan ziren gure Erkidegoan (kotizaziopekoak eta kotizazio gabekoak²³), aurreko urtean baino % 0,7 gehiago. Azken urteotan gertatzen ari den bezala, igoera hori kotizaziopeko pentsioen onuradunen kolektiboaren pisuaren eta bilakaeraren ondorio da, gainerako modalitateak, oro har, gutxieneko kopuruetan mantentzen baitira. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea % 24ra heldu zen, aurreko urtean baino 3 hamarren gehiago.

IV.2.2. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOAK EAE-N, MOTA BAKOITZEKO. LABURPEN-TAULA

		2016	2017	2018	2019	2020	2021	% 19/20	% 20/21
ONURADUNAK (URTEKO BATEZ BESTEKOA)	-KOTIZAZIOPEKO P.	488.614	494.736	501.398	507.617	509.327	512.782	0,3	0,7
	-KOTIZAZIO GABEKO P.	11.399	11.717	11.846	12.093	12.172	12.581	0,7	3,4
	GUZTIRA	500.013	506.453	513.244	519.710	521.499	525.363	0,3	0,7
	- BIZTANLEEN %	23,0	23,3	23,5	23,7	23,7	24,0	+0,0pp	+0,3pp
GASTUA (MILA EUROTAN)	-KOTIZAZIOPEKO P.*	8.387,4	8.665,4	9.111,2	9.597,6	9.835,1	10.279,1	2,5	4,5
	-KOTIZAZIO GABEKO P.	59,6	61,2	64,2	67,5	68,9	72,0	2,1	4,5
	GUZTIRA	8.447,0	8.726,6	9.175,4	9.665,1	9.904,0	10.351,1	2,5	4,5
	BPGD-AREN %	11,6	11,6	11,7	12,0	13,8	13,4	+1,8pp	-0,4pp

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren datuekin egindakoa. Lan Estatistiken Buletina eta estatistiken eta IMSERSOren datu-baseak.

* Kotizaziopeko pentsioen gastuaren seriea berrikusi egin da, ESTADISSEk argitaratzen dituen pentsio horien urteko nominaren datua sartzeko.

²² Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen dituen transferitu gabeko Gizarte Segurantzaren prestazioak bi motatakoak dira:

- Ordainutakoaren arabera, hau da, lehenago kotizatutako zenbatekoaren eta kotizazioa egin den epearen arabera ematen dira. Ez dute iraupen zehatzik eta Gizarte Babesaren gastu osoaren % 50 dira gutxi gorabehera.
- Prestazio horien eginkizuna honako hau da batez ere: baldintza jakin batzuk betez prestazio horren eskubidea lortu duten pertsonen errentak lortzeko orduan jarraitutasuna bermatzea laneko bizitza amaitzea eragin dezaketean arriskuen ondorioz errenta horiek eteten direnean. Ordainutakoaren arabera ez diren prestazioak, esate baterako, erretiro eta baliazintasun pentsioak (ordainutakoaren arabera ez direnean) eta amatasunagatiko eta familiek jasotzen dituzten prestazioak.

²³ Kalkulu horietan ez dira barne hartu laguntza-pentsioak eta Ezinduen Legearen ondoriozkoak, desagertuz joan direnak. Gainera, ez dago informazio eguneraturik. Dena den, guztizkoaren gaineko pisua % 0,4 azpitik dago.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (2021ean onuradunen % 97,6 eta gastuaren % 99,3), 2021ean batez beste 512.782 onuradun daude (+% 0,7), eta 565.430 pentsio jasotzen dituzte (+% 0,8). Izan ere, pertsona batek kotizaziopeko pentsio bat baino gehiago jaso ditzake, eta urteko gastua 10.279,1 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2020an baino % 4,5 gehiago. Kotizazio gabeko pentsioek, bestalde, 12.581 pertsona estaltzen zituzten 2021ean (urteko batez besteko datua), eta 72 milioi euroko gastua sortzen zuten (+% 4,5, 2020. urtearekin alderatuta).

Laburbilduz, EAEn pentsioetan egindako guztizko gastua, 2021ean, 10.351,1 milioi eurora igo zen, behin-behineko datuekin, eta % 4,5eko igoera izan zuen 2020. urtearekin alderatuta. Hala, BPGd-aren gaineko ehuneko 4 hamarren murriztu zen, % 13,4raino (EUSTATen behin-behineko datuekin).

2.2.1. Transferitu gabeko kudeaketa duten prestazioak

a) Pentsioen eta onuradunen kopurua

2021ean, guztira 512.782 pertsonak jaso zituzten Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioak EAEn, Estatuko guztizkoaren % 5,7 (2019ko eta 2020ko ratio bera) eta aurreko urtean baino % 0,7 gehiago. Sexuaren arabera, ia % 50ean banatzen dira (urteko batez besteko datuan, gizonak % 51,6 dira).

Bestalde, kotizaziopeko pentsioak 565.430 dira (+% 0,8, 2020. urtearekin alderatuta). Horrenbestez, jasotzaile bakoitzeko pentsioen urteko batez bestekoa 1,1 da, eta balio hori konstante mantentzen da. Pentsio horien batez besteko zenbatekoa hileko 1.283,10 eurokoa da (Estatuko batez bestekoa baino % 24,1 handiagoa da, 2020an baino hamarren bat gutxiago), eta horrek % 2,2ko igoera dakar 2020aren aldean, oro har zenbateko handiagoko pentsio berriek batez besteko pentsioaren zenbatekoa igotzen baitute. Erretiroagatiko pentsioari dagokionez (kotizaziopeko pentsioen % 65,6), 2021eko batez besteko zenbatekoa 1.459,80 € da hilean, 2020an baino % 2,2 gehiago.

Gainerako pentsioen batez besteko zenbatekoek gora egin dute 2021ean: ezintasun iraunkoragatiko pentsioak batez bestekoaren azpitik igo dira (% 1,2), eta gainerakoak batez bestekoaren inguruan (% 2,2). Batez besteko zenbatekoa 1.275,60 € (ezintasun iraunkorra), 900,50 € (alarguntza) eta 531,60 € (zurztasuna eta familiaren alde) izan da.

IV.2.3. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENSIOEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N ETA HORREN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA (€)*

	2017	2018	2019	2020	2021	% 2021**:	2021eko LGSren %***	19/20 (%)	20/21 (%)
PENSIO KOPURUA (MILAKOETAN)									
GUZTIRA	543,7	551,3	558,5	560,9	565,4	100,0		0,4	0,8
EZINTASUN IRAUNKORRA	42,8	42,9	43,0	42,3	41,7	7,4		-1,6	-1,4
ERRETIROA	347,7	355,2	362,3	365,8	370,7	65,6		1,0	1,3
ALARGUNTZA	135,2	135,4	135,4	134,9	135,1	23,9		-0,4	0,1
ZURZTASUNA/FAMILIAREN ALDE	17,9	17,8	17,8	17,8	18,0	3,2		0,0	1,1
BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA (EURO/HILEKO)									
GUZTIRA	1.142,6	1.173,8	1.231,5	1.255,9	1.283,1	100,0	135,1	2,0	2,2
EZINTASUN IRAUNKORRA	1.198,6	1.212,9	1.248,4	1.259,9	1.275,6	99,4	134,3	0,9	1,2
ERRETIROA	1.314,8	1.347,3	1.401,6	1.428,9	1.459,8	113,8	153,7	1,9	2,2
ALARGUNTZA	770,3	795,2	865,8	882,6	900,5	70,2	94,8	1,9	2,0
ZURZTASUNA/FAMILIAREN ALDE	477,3	488,8	511,8	521,7	531,6	41,4	56,0	1,9	1,9

Iturria: Lan Estatistiken Buletina, INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO Ministerioan oinarrituta egina.

* Aztertutako aldiari, Gizarte Segurantzaren pentsioen birbalorazioak honako hauek dira: % 0,25 2017an, % 1,6 2018an eta 2019an, eta % 0,9 2020an eta 2021ean.

** Ehuneko bertikalak, pentsioen guztizkoa eta prestazio horien batez besteko zenbatekoa % 100ean hartuta.

*** Kalkulu horretarako, 2020ko LGSa hartu da kontuan (950 €), eta indarrean jarraitu zuen 2021eko irailaren 1era arte, egun horretan 965 €-raino igo baitzen.

Erretiro-pentsioak, esan bezala, EAEko pentsiodunen kolektiboaren gehiengoak jasotzen dituenak dira. 2021eko pentsio guztietatik, 370.700, % 61,1, gizonen zegozkien, eta % 38,9, emakumeen. Diferentzia hori urtez urte murrizten da, hain zuzen 6 hamarren 2020tik 2021era bitartean.

IV.2.4. TAULA. ERRETIROAGATIKO PENTSIEN ZENBATEKOA EAE-N: BATEZ BESTEKO PENTSIOS OSOAREN ETA ALTA BERRIEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA BEREIZITA. URTEKO BATEZ BESTEKOAK EURO/HILEA								
	GUZTIRA, ERRETIRO-PENTSIOK			ERRETIRO-PENTSIEN ALTA BERRIAK			DIF.: GIZONAK/EMAKUMEAK*	
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	PENTSIOS GUZTIAK	ALTAK
2011	1.370,95	694,60	1.136,36	1.704,63	990,47	1.477,52	97,4	72,1
2017	1.559,16	892,07	1.314,79	1.804,23	1.367,64	1.629,89	74,8	31,9
2018	1.592,25	934,43	1.347,32	1.795,91	1.389,02	1.625,28	70,4	29,3
2019	1.650,15	992,50	1.401,55	1.816,75	1.408,65	1.647,33	66,3	29,0
2020	1.679,06	1.026,01	1.428,91	1.871,65	1.484,97	1.707,53	63,6	26,0
2021	1.711,96	1.064,14	1.459,79	1.854,26	1.473,76	1.688,06	60,9	25,8
19/20 ald. %	1,8	3,4	2,0	3,0	5,4	3,7	-4,0	-10,2
20/21 ald. %	2,0	3,7	2,2	-0,9	-0,8	-1,1	-4,3	-0,7

Iturria: GSIN-REN DATU-BASEA. Guk geuk egina.
* Gizonen batez besteko pentsioa emakumeen batez bestekoa baino handiagoa den ehunekoak.

Eta pentsio horien zenbatekoak aztertuz gero, 2021eko batez besteko datuekin, gizonentzako erretiro-pentsioa % 60,9 handiagoa zen EAEn emakumeena baino, eta arrakala hori ere jaisten ari da urtez urte (36,5 puntu murriztu da azken hamarkadan). Eta, azken urtean alta berrien pentsioen batez besteko zenbatekoen konparazio hori eginda, 2021eko aldea % 25,8koa da, aurreko urtekoa baino 2 hamarren txikiagoa, baita serie historikoko txikiena ere.

Era berean, pertsona erretiratu guztien batez besteko erretiro-pentsioak erretiroan sartutako azken pertsonenekin alderatuz gero, 2021ean, azken horiek kolektibo osoak baino % 15,6 gehiago kobratzen dutela ikus daiteke (% 19,5, 2020an) (1.688,06 €, batez beste, eta 1.459,79 €, berriz, guztira).

Amaitzeko, 2021eko abenduaren 31n, EAEko batez besteko pentsioa 1.290,50 €-koa zen, eta % 2 igo zen 2020ko abenduarekin alderatuta.

IV.2.5. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOPEKO PENTSIOK EAE-N, MOTAREN ARABERA. ONURADUNAK ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA, SEXUAREN ARABERA, 2021EKO ABENDUAREN 31N.						
	ONURADUNAK			BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA (€)		
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA *	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
EZINTASUN IRAUNKORRA	27.311	13.836	41.147	1.356,94	1.117,75	1.276,51
ERRETIROA	227.114	146.711	373.826	1.19,01	1.079,02	1.467,84
ALARGUNTZA	9.553	125.516	135.069	643,41	924,43	904,55
ZURZTASUNA	8.406	7.317	15.723	506,96	497,74	502,67
FAMILIAREN ALDE	621	1.639	2.260	752,64	760,26	758,17
GUZTIRA KOTIZAZIOPEKO PENTSIOK	273.005	295.019	568.025	1.605,63	998,88	1.290,50

Iturria: GSIN-REN DATU-BASEA. Guk geuk egina.
*Guztizkoa ez dator bat gizon eta emakumeen baturarekin, zenbait erregistrotan ez delako jasotzen pertsonaren sexua.


b) Gastua eta sarrera

Pentsioetan zenbatetsitako guztizko gastua % 4,5 hazi zen 2021ean (IV.2.2 taula), eta % 3, kotizaziopeko pentsioen urteko batez besteko kopuruaren eta horien batez besteko zenbatekoen emaitza kalkulatu gero (IV.2.6 taula).

IV.2.6. TAULA PENTSIEN ARLOKO AHALEGINAREN HURBILKETA EAE-N					
	KOTIZAZIOPEKO PENTSIOK (1)	BATEZ BESTEKO ZENBAT. €/HILEAN (2)	ZENBAT. GUZTIRA €/HILEAN (3) = (1)*(2)	GIZARTE SEGURANTZAN EKO AFILIATUAK *(4)	ESFORTZ.: €/HILA AFILIATU BAKOITZ. (3)/(4)
2017	543.700	1.142,60	621.231.620	922.200	673,64
2018	551.300	1.173,80	647.115.940	941.900	687,03
2019	558.500	1.231,50	687.792.750	962.400	714,66
2020	560.900	1.255,90	704.434.310	947.600	743,39
2021	565.400	1.283,10	725.464.740	956.000	758,85
19/20 ald. %	0,4	2,0	2,4	-1,5	4,0
20/21 ald. %	0,8	2,2	3,0	0,9	2,1

Iturria: INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO Ministerioaren datuekin egindakoa.
* Gizarte Segurantzaren altan dauden kotizatzaileak.

Kotizaziopeko pentsioen gastuaren bilakaera Gizarte Segurantzaren afiliatutako langileen kopuruarekin alderatzen badugu, balioetsi dezakegu pentsio horiek altan dagoen afiliatutako pertsona bakoitzeko ordaintzeak dakarren ahalegina, hileko eurotan. 2021ean 758,85 euro/hileko da, aurreko urtean baino % 2,1 gehiago (+% 4, 2020an), pentsio-gastua (% +3) kotizatzaileen kopurua baino dezente handiagoa izatearen ondorioz (+% 0,9, urteko batez bestekoan).



Bestalde, 2020an (datu bateratuak ditugun azken urtea), Gizarte Segurantzaren Sistemak 7.297,7 milioi euro bildu zituen EAEn, aurreko ekitaldian baino % 2,7 gutxiago, eta Estatuan bildutako guztizkoaren % 6,1 (2019an bildutako ratio bera). Zenbateko hori gure Erkidegoko urte horretako BPGd-aren % 10,2 da, behin-behineko datuen arabera (% 9,4 aurreko urtean). Bildutako bolumen horretatik, 1.245,1 milioi Arabari dagozkio (% 17,1), 2.429,2 milioi Gipuzkoari (% 33,3) eta 3.623,4 milioi Bizkaiari (guztizkoaren % 49,7).

Zenbateko horretatik % 89,7 Gizarte Segurantzaren Kuotei dagokie. Gainerako % 10,3z lan-istripuetako mutuetakoak eta lanbide-gaixotasunetakoak dira. % 75aren jatorria araubide orokorra da, eta guztira 5.471,3 milioi euro dira (-% 2,8 aurreko urtearen aldean). Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, soldatak bermatzeko funtsari eta Lanbide Heziketari dagozkien kuotak biltzen ditu, eta horien guztizko batura, gure Erkidegoan, 1.443 milioi euro zen 2020an, 2019an baino 50 gutxiago.

IV.2.7. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINITZA NAGUSIAREN KUOTEN DIRU-BILKETAREN BILAKAERA EAE-N. MILIOIKA EUROTAN.

	BEHIN BETIKO DATUAK (MEMORIA)						ALDAKUNTZAREN %	
	2016	2017	2018	2019	2020	Dist. 2020*	18/19	19/20
OROKORRA	4.903,9	5.108,5	5.288,3	5.629,8	5.471,3	75,0	6,5	-2,8
AUTONOMOAK	696,1	704,3	707,7	711,5	597,4	8,2	0,5	-16,0
ITSASOKO LANGILEAK	30,2	31,3	32,4	35,3	35,0	0,5	9,0	-0,8
IKATZAREN MEATZARITZAKOAK	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
LI ETA LG KUOTAK (DIRUZAINITZA)	9,0	6,7	6,9	11,3	10,0	0,1	63,8	-11,5
SEPEKO LANGABEAK	312,5	299,5	302,0	333,7	428,8	5,9	10,5	28,5
GSIN-KO KUOTAK, GUZTIRA (A)	5.951,7	6.150,3	6.337,4	6.721,7	6.542,5	89,7	6,1	-2,7
LI ETA LG MUTUALITATEAK	424,2	443,9	464,3	532,3	521,5	7,1	14,6	-2,0
ITC ARRUNTAK	212,3	214,1	234,9	229,7	222,8	3,1	-2,2	-3,0
JARDUERA UZTEA	4,6	4,5	4,3	14,7	10,9	0,1	241,9	-25,9
MUTUALITATEAK, GUZTIRA (B)	641,1	662,5	703,5	776,6	755,2	10,3	10,4	-2,8
GS-KO SISTEMAREN DIRU-BILKETA, GUZTIRA(+ B)	6.592,8	6.812,8	7.040,9	7.498,3	7.297,7	100,0	6,5	-2,7
LANGABEZIARAKO BILDUTAKO KUOTAK	1.140	1.190	1.240	1.316	1.270	17,4	6,1	-3,5
SOLDATAK BERMATZEKO FUNTSA	29	30	31	33	31	0,4	6,5	-6,1
LANBIDE HEZIKETA	126	130	135	144	142	1,9	6,7	-1,4

Iturriak: GIZARTE SEGURANTZA. Informazio ekonomikoa eta finantzarioa. GSIN: Urteroko memoriak. Guk geuk egina.
* Ehuneko bertikalak, 2020. urtean sistemari dagokion diru-bilketa guztia % 100 hartuta (7.297,7 milioi euro).

Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen EAEko gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketako zifrak erlazionatzen baditugu, 2020an, bi zifrak eskuragarri dauden azken ekitaldian, gastua 9.835,1 milioikoa zen, 7.297,7 milioiko diru-sarreraren aurrean, eta, beraz, saldoa negatiboa izango litzateke, 2.537,4 milioi eurokoa, 2019an baino % 20,9 handiagoa.

Emaitza defizitario hori, kotizaziopeko pentsioen diru-sarreraren eta gastuen arteko bilakaeraren ondorioz, aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi zen: 2020an gastua % 2,5 igo zen, eta diru-sarrerak % 2,7 jaitsi ziren. Hortaz, EAEn kotizaziopeko pentsioen saldo negatiboa % 20 baino gehiago hazi zen.

IV.2.8. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINZTA NAGUSIAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSOIETAKO GASTUAREN ETA KUOTAK BILTZEAGATIKO DIRU-SARREREN BILAKAERA EAE-N (MILA EUROTAN)								
	2017	2018	2019	2020	2021*	18/19 ald. %	19/20 ald. %	20/21 ald. %
GSIN-TIK BILDUTAKO KUOTENGATIKO DIRU-SARRERA	6.812,8	7.040,9	7.498,3	7.297,7	...	6,5	-2,7	...
KOTIZAZIOPEKO PENTSOIEN GASTUA GIZ. SEGURANTZA**	8.665,4	9.111,3	9.597,6	9.835,1	10.279,1	5,3	2,5	4,5
SALDOA	-1.852,6	-2.070,4	-2.099,3	-2.537,4	...	1,4	20,9	...
DIRU SARRERA/GASTUA	0,79	0,77	0,78	0,74	...			

Iturria: GIZARTE SEGURANTZA. Informazio ekonomikoa eta finantzarioa. Guk geuk egina.
 * Behin-behineko datuak.
 **-Kotizaziopeko pertsonen gastuaren seriea berrikusi da, ESTADISsek argitaratzen dituen pentsio horien urteko nominaren datua sartzeko.

2.2.2. Kudeaketa transferitua duten prestazioak: Kotizazio gabeko prestazioak

Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharizan-egoeran dauden pertsonen ematen zaizkienak dira. Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute; hortaz, beharizan-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen diete. Estatuan autonomia erkidegoek dute eskumena. Aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea foru aldundiei dagokie. Kotizazio gabeko prestazio horiek hiru motatakoak izan daitezke: Gizarte Segurantzako kotizazio gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legeko prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta norberaren egoeraren arabera ezartzen da.

EAEko Foru Aldundiek emandako kotizaziorik gabeko pentsioak, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizaziorik gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsonentzat dira (diru-sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreraren baturak pentsioaren urteko zenbatekoak baino txikiagoa izan behar du) eta zenbatekoak berdintsu eutsi dio 2013tik. Pentsio horiek 2021ean 12.581 pertsonak jaso zituzten guztira (batez besteko datuak), aurreko urtean baino % 3,4 gehiago, 6.535 erretiro modalitatean eta 6.046 baliaezintasunagatik.

IV.2.9. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN ERRETIROKO KOTIZAZIO GABEKO PRESTAZIOAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK.			
	KOTIZAZIO GABEKO P.: ERRETIROA	ZENBATEKO GORDINA (€)	B. BESTEKO PENTSOIA (€)
2016	5.113	26.050.789	365,11
2017	5.405	26.270.956	352,31
2018	5.602	28.378.613	363,81
2019	5.949	30.929.791	376,86
2020	6.131	32.483.756	378,45
2021	6.535	34.973.000	389,81

Iturria: IMSERSOREN datuekin eginikoa. Prestazio ekonomikoan arloa.
 * Urteko batez besteko datua.

IV.2.10. TAULA GIZARTE SEGURANTZAREN BALIAEZINTASUNEN KOTIZAZIO GABEKO PENTSOIAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK.			
	KOTIZAZIO GABEKO P.: BALIAEZINT.*	ZENBATEKOA GORDINA (€)	BATEZ BESTEKO PENTSOIA (€)
2016	6.286	33.587.274	380,06
2017	6.312	34.932.106	391,71
2018	6.244	35.836.414	404,55
2019	6.144	36.619.313	418,12
2020	6.041	36.379.322	423,68
2021	6.046	36.995.378	434,77

Iturria: IMSERSOREN datuekin eginikoa. Prestazio ekonomikoan arloa.
 *Urteko batez besteko datua.

Kotizaziorik gabeko pentsioen zenbatekoak Estatu osorako ezartzen dira urtero. 2021erako, 402,80 euro finkatu ziren hilean erretirorako eta % 65ekoa edo hortik gorakoa baliaezintasunerako, eta, gainera, zenbait osagarri onartu ziren. Horiek aplikatuta, hileko 434,77 euroko batez besteko pentsioa dugu baliaezintasunerako eta 389,81 eurokoa pentsioa erretirorako (14 paga bi kasuetan).

Zenbateko horiek oinarri hartuta, Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioaren Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMERSO) 72 milioi euroko urteko gastu agregatua aurreikusten du, 2020an baino % 4,5 gehiago, gutxi gorabehera % 50ean banatuta erretiroaren eta baliaezintasunaren modalitateetan²⁴.

2.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N

Txirotasuna, tradizioz, gizarte desberdintasunei eta diru-sarrerren maila txikiko biztanleria-mailei lotuta egon da. Hala ere, azken urteotan, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera —bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak—, marjinazio mekanismo berriak agertu dira. Ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste faktore batzuk daude (bakardadea, mendekotasuna, “edadismoa”) gizarte bazterkeriako prozesuak eragiten dituztenak.

EAEko pobrezia, marjinazioari eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusien artean daude, besteak beste, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren Legea, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko Dekretua, gaur egun Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta) (DBE), Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EGPO) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), Pobreziaren eta kontrako plan integralean sartutako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak. Horiek ez ezik, gizarteratze, prestakuntza eta laneratze programak ere badaude, partaideen (laneratze enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak hainbat plan egin izan ditu pobreziaren eta bazterketaren kontra. Hainbat izen hartuta, pobreziaren eta gizarte bazterketaren kontrako borrokaren oinarriak ezartzea eta aipaturiko araudia garatzeko abiatu beharreko helburuak eta neurriak egituratzea du helburu. Gaur egun, **Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021** dago indarrean. Plan horrek lau helburu ditu²⁵:

- ✓ Enplegua: Enpleguaren prekarizazio-prozesuei aurre egitea, gazteak edota lana lortzeko zailtasun handienak dituztenak laneratzea bultzatzea eta enpleguko euskal sistema hobetzen jarraitzea.
- ✓ Diru-sarrerren bermea: diru-sarrerak bermatzeko euskal eredia zaintzea eta hobetzea, gizarte legitimotasuna eta iraunkortasun ekonomikoa bermatuz.
- ✓ Gizarte zerbitzuak: Gizarte Zerbitzuen Legearen garapena bultzatzea halako moldez non herritar guztiek gizarte zerbitzuak eskuratzeko duten eskubidea bete, gizarte zerbitzuen sistema Planean ezarritako oinarrietarako egokitzapen kontzeptuala lortu eta gizarteratze-programa berriak bultzatuko baitira herritarrek eta gizarteak parte hartuta betiere.

IV.2.11. TAULA. GIZARTERATZEKO IV. EUSKAL PLANA 2017-2021: ERAGIN-ADIERAZLEAK.		
	ABIAPUNTU-ADIERAZLEA	ESPERO DEN ADIERAZLEA
MANTENTZE-POBREZIA	7,1	< 5,6
GIZONEN OKUPAZIO-TASA	70,5	> 75
EMAKUMEEN OKUPAZIO-TASA	62,4	> 66
LANEKO INTENTSITATE TXIKIKO TASA	10,2	< 8
ESKOLA UZTEAREN TASA	7,3	< 7
GIZONEK HAUTEMANDAKO OSASUN TXARRA	2,40	< 2,37
EMAKUMEAK HAUTEMANDAKO OSASUN TXARRA	2,55	< 2,49
ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA DUTEN FAMILIAK	7,4	< 5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GIZARTERATZEKO IV. EUSKAL PLANA 2017-2021.

²⁴ Ez dago informazio eguneraturik Gizarte Segurantzaren laguntza-pentsioak eta Elbarriak Gizarteratzeko 13/82 Legearen ondoriozko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen buruz. Lege horiek 1992an eta 1990ean indargabetu ziren, hurrenez hurren, eta horien kopurua jaisten ari da ordutik. Era berean, ez da kontuan hartuko kapitulu honen sarreran egiten den EAEko pentsioen gastu agregatuaren kalkuluan pentsio horiek adierazten duten gastuaren zenbatekoa; nolahi ere, milioi bat eurotik beherako zenbatekoa izango litzateke.

²⁵ Planari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak 2017ko EAEko Memoria Sozioekonomikora eta web orri honetara: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/11247/IV_PLAN_VASCO_DE_INCLUSION.pdf?1519744181

- ✓ Etxebizitza: gizarte bazterketan edo arrisku horretan dauden pertsonen etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea, etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatuz eta bizitegi bazterketako egoerei aurre eginez eta horiek landuz.

IV. Plana abiarazteko, 815 milioi euro zenbatetsi dira urtean, honelaxe banakatuta:

- 400 milioi euroko gastua DSBerako eta GLLrako urtean, hain zuzen 2012-2015eko urteko batez besteko gastuari dagokiona.
- Urtean 100 milioi euro etxebizitza prestazioetan, eta 20 milioi euro gehiago jarri dira aurreko epealdian emandakoaren aldean.
- Urtean 200 milioi euro alokairua bultzatzeko beste politika batzuetarako, Etxebizitza Sailak 2018rako onetsitako partida horretarako aurrekontuaren ildotik.
- Urtean 75 milioi euroko gastua 2017-2020ko Enplegu Planean ezarriak laneratzeko pizgarrietarako erabiltzeko (301 milioi euro 4 urteko epealdirako).
- Urtean 45 milioi euroko gastua gizarte zerbitzuetan Zorroaren Dekretuan ematen den gizarteratzeko (2012 eta 2015 bitartean 42 milioi euroko gastua izan da).

Kopuru horiek abiapuntu izanik, eta Hezkuntza eta Osasun gastuak alde batera utzita, 4.000 milioi euroko gastu metatua zenbatetsi da Planean, IV.2.11 taulan zehazturiko helburu kuantitatiboak lortzeko erabili beharko liratekeenak. Memoria hau egiteko unean, planaren bilakaera baloratzeko eskuragarri dagoen informazioa Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailaren *“2018ko Jarraipen eta 2019ko Aurreikuspeni buruzko txostena”*ri dagokio. Kualitatiboa da funtsean, eta ondorio nagusiak 2020ko Memoria Sozioekonomikoan jaso ziren.


2.3.1. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren prestazioak

2009an, abenduaren 23ko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea hasi zen indarrean. Lege horren helburu nagusiak ditugu, alde batetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomiadun gisa —gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek parte hartzen dute sistemaren kudeaketan eta herri-erakundeen beste arlo batzuek ere laguntzen dute—, eta bestetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren jardunbide-abiaburuak eta egiturazko oinarriak finkatzea, euskal herritarrek modua izan dezaten prestazio ekonomikoari eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko tresnei heltzeko, berdintasunean eta ekitatean oinarrituta, betiere beharrezko neurriak hartuta tresnon bateratasuna bermatzeko lurralde osoan.

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2021ean, 472,7 milioi euro gastatu zituen orotara, 2020an baino % 4,7 gutxiago (urte horretan, % 8,6 hazi zen, dudarik gabe COVID-19aren ondorioz). Honelaxe daude banatuta: 349,7 milioi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan eginiko gastuari dagozkie (gutzizkoaren % 74, eta 2020an baino % 6,3 gutxiago), 76,9 milioi Etxebizitzaren Prestazio Osagarriarako (gutzizkoaren % 16,3 eta 2020an baino % 0,7 gehiago), eta eginiko zenbatespenen arabera, Sistemaren gastu agregatua kalkulatzeko, 2020an Gizarte Larrialdirako Laguntzetarako erabilitako 46,1 milioi eurori eutsi zaie 2021en (Sistemako gastu guztiaren % 9,8), hain zuzen laguntza horri buruzko 2021. urterako datu ofizialak izan arte.

Prestazio horiek EAEko bizi-baldintzetan dituzten ondorioei dagokienez, gogora dezagun Eusko Jaurlaritzaren *“2020rako Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta”*ren (PGDI) arabera, Euskadin % 33,3 murrizten dela pobreziaren atalase-mailaren pean bizi diren pertsonen kopurua laguntza horien ondorioz (% 33,6 2018an, aurreko inkestaren urtean). Prestazio horiek izan ezean, benetako pobrezia duten pertsonen kopurua biztanleriaren % 8,4 izango litzateke (182.150 pertsona), % 5,6ra jaisten da (121.503 pertsona) prestazio horiek banatu ondoren: % 3,1, oraindik ere laguntza jaso arren pobreziatik irteten ez dena, gehi % 2,5, laguntzarik jasotzen ez duena. Kopuru horiek ikusita ondorioztatzen denez, EAEko Sarrerak Bermatzeko Sistemak pobrezia arriskuan zeuden biztanleen % 70,2rengana iritsi zen (% 69,3 2016an eta 2018an): 127.953 lagun (biztanleria osoaren % 5,9).

IV.2.4. GRAFIKOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIOEN GASTUAREN (MILIO EUROTAN) BILAKAERA



Iturria. Enplegua eta Inklusio Zuzendaritzaren datuekin eginikoa (EUSKO JAURLARITZA).

* GLLren 2012eko datua gutxi gorabeherakoa da.

a) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta


Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) ematen zaie EAEn gutxienez urtebetean erroldatuta dauden eta oinarrizko beharrei eta laneratzeko eta gizarteratzeko prozesuaren ondoriozko beharrei aurre egiteko nahikoa diru-baliabiderik ez duten pertsoneri, betiere 18/2008 Legeak eta hura garatzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte²⁶.

IV.2.12. TAULA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: GASTUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. MILIOIKA EUROTAN.

	2017	2018	2019	2020	2021	2019/20 ald. %	2020/21 ald. %
ARABA	62,8	57,5	56,6	62,6	63,2	10,6	1,0
GIPUZKOA	85,9	79,8	77,3	85,1	79,3	10,1	-6,8
BIZKAIA	233,0	220,7	212,8	225,7	207,2	6,1	-8,2
EAE	381,7	357,9	346,7	373,4	349,7	7,7	-6,3

Iturria: LANBIDE. Analisis, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua.


IV.2.5. GRAFIKOA. BIZIKIDETZA-UNITATE JASOTZAILEEN BILAKAERA ABENDUAREN 31N, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA.



Iturria: LANBIDE.* Onuradunen datuak, 2010 eta 2016 bitartean, urteko batez bestekoak dira.

²⁶ <http://www.lanbide.euskadi.eus/rqi/-/informacion/rqi-legislacion-y-normativa/>


DSBEen 2021ean ordaindutako guztizko zenbatekoa 349,7 milioi eurokoa da (2020an baino % 6,3 gutxiago eta, era berean, EAeko 2021eko Aurrekontu Orokorretan partida horretarako esleitutako zenbatekoa (380 milioi euro) baino 30,3 milioi euro gutxiago. Hortaz, gastua jaitsi egin da, 2020an izandako % 7,7ko igoeraren ondoren, baina 2021eko bilakaera desberdina izan da lurraldeen arabera: nabarmen murriztu da gastua Bizkaian eta Gipuzkoan (-% 8,2 eta -% 6,8, hurrenez hurren); Araban, berriz, igoera txikia izan da, % 1ekoa.



Bestalde, 2021ean 52.723 bizikidetza-unitatek jaso zuten DSBE (abenduko datua, 93.152 onuradun), eta laguntza horiek 54.747 izan ziren 2020. urtearen amaieran. Horrek esan nahi du, 2020an izandako % 4,4ko igoeraren ondoren, aurreko bost urteetako beherakadara itzuli dela. Zehazki, % 3,7 jaitsi da 2020ko abenduarekin alderatuta.

Lurraldeka, Bizkaiak du bizikidetza-unitate hartzaile gehien, 31.420 guztira, hau da, EAeko guztizkoaren % 59,6; Gipuzkoak, berriz, bizikidetza-unitate hartzaileen % 23,5 biltzen du (12.401 guztira), eta Arabak gainerako % 16,9a (8.902 titular).

Lanbiden 2021eko abenduan aktibo zeuden espedienteen fitxaren arabera, halaber, erregistratutako 52.723 bizikidetza-unitateetatik % 42,4 gizonak ziren eta % 57,6 emakumeak (2020an baino 7 hamarren gutxiago). Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren % 47,7, 2020an baino 1,1 hamarren gutxiago), eta nabarmentzekoa da, halaber, 3.804 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela (% 7,2). 2020ko abenduarekin alderatuta, adin-tarte guztietan jaitsi da titular hartzaileen kopurua, 60 urtetik gorakoetan izan ezik, horietan 13.729 titular baitira, aurreko urtean baino % 2,5 gehiago.



Lanbideren zifren arabera, bizikidetz-unitate hartzailearen titularraren profila (aztertutako seriean ia ez da aldatzen) bat dator Espainiako nazionalitatea duen 40 urtetik gorako eta oinarrizko ikasketak dituen emakume batenarekin (%68,6k derrigorrezko ikasketak ditu, % 10,1ek lanbide-tituluren bat, eta % 4,3k unibertsitate-titulazioren bat).

Bestalde, prestazioa jasotzen duten atzerritarrak, 16.028, titular hartzaileen % 30,4 dira (% 29 2020an), eta titular hartzaileen % 24,5 pentsiodunak dira (% 23,6 2020an). Era berean, 8.301 pertsonak, hau da, bizikidetz-unitate hartzaileen % 15,7k, jasotzen dute DSBE, soldata-errenten osagarri gisa (-2,3 puntu 2020aren aldean).

DSBEren osagarriei dagokienez, lehena Etxebizitzako Prestazio Osagarria (EPO) da, erreferentziatzko datan 24.977 bizikidetz-unitatek jasotakoa, hau da, guztizkoaren % 47,4k (ikus hurrengo atala), eta, aldi berean, unitate horien 8.441 titullarrek guraso bakarria izategatiko osagarria jasotzen dute (% 16).

Bestalde, Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioaren "Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena"ri esker, autonomia erkidegoen diru-sarrerak bermatzeko sistemen zifra handien urteko jarraipen konparatiboa egin daiteke, araudien heterogeneotasuna eta sistema horien garapen-mailak kontuan hartuta betiere.

IV.2.13. TAULA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: TITULARREN BANAKETAREN BILAKAERA, KONTZEPTU APLIKAGARRIEN ARABERA. EHUNEKOA, GUZTIAREN GAINEAN. ABENDUKO HILABETEA.

	MODALITATEA		PENTSIODUNA		OSAGARRIAK		GUZTIRA
	DIRU-SARRERAK OSATZEN DITU LANA	OINA-RRIZKOA	EZ	BAI	GURASO BAKARREKOA	EPO	
2017	19,9	80,1	74,3	25,7	15,5	46,2	100,0
2018	19,9	80,1	74,3	25,7	16,0	46,7	100,0
2019	19,9	80,1	74,4	25,6	16,7	46,7	100,0
2020	18,0	82,0	76,4	23,6	16,9	47,3	100,0
2021	15,7	84,3	75,5	24,5	16,0	47,4	100,0
19/20 aldak.	-1,9	1,9	2,0	-2,0	0,2	0,6	-
20/21 aldak.	-2,3	2,3	-0,9	0,9	-0,9	0,1	-

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LANBIDEn datuekin egindakoa.

IV.2.14. TAULA. GIZARTERATZEKO GUTXIENEO ERRENTAK ERKATZEA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. 2019-2020KO DATUAK.

	ESTALDURA TASA (1.000 BIZTANLEKO)		TITULAR HARTZAILEAK				GASTUA (MILIOI €-TAN)			
	2019	2020	2019	2020	(2020)	ALDAK. (%) 19/20	2019	2020	(2020)	ALDAK. (%) 19/20
ANDALUZIA	2,65	3,98	22.318	33.721	9,1	51,1	107,67	135,75	6,9	26,1
ARAGOI	7,13	6,44	9.401	8.574	2,3	-8,8	46,76	47,69	2,4	2,0
ASTURIAS	21,46	21,00	21.947	21.326	5,8	-2,8	120,75	116,71	5,9	-3,3
BALEAR UHARTEAK	9,09	7,80	10.449	9.478	2,6	-9,3	27,58	24,17	1,2	-12,4
KANARIAR U.	4,63	4,76	9.973	10.683	2,9	7,1	36,53	42,83	2,2	17,2
KANTABRIA	12,14	11,97	7.052	6.973	1,9	-1,1	30,04	31,69	1,6	5,5
GAZTELA-MANTXA	2,03	1,35	4.132	2.752	0,7	-33,4	17,75	12,68	0,6	-28,6
GAZTELA ETA LEON	5,45	4,82	13.069	11.526	3,1	-11,8	64,09	52,69	2,7	-17,8
KATALUNIA	4,19	12,07	32.166	92.415	25,0	187,3	267,53	427,08	21,7	59,6
CEUTA	2,11	1,12	179	94	0,0	-47,5	0,49	0,27	0,0	-44,9
EXTREMADURA	7,48	7,00	7.991	7.414	2,0	-7,2	47,43	42,12	2,1	-11,2
GALIZIA	5,04	4,93	13.600	13.317	3,6	-2,1	53,39	53,04	2,7	-0,7
MADRIL	4,30	3,61	28.643	24.415	6,6	-14,8	155,30	133,79	6,8	-13,9
MELILLA	5,90	3,46	510	292	0,1	-42,8	1,59	0,71	0,0	-55,4
MURTZIA	4,25	3,88	6.355	5.848	1,6	-8,0	18,47	17,26	0,9	-6,6
NAFARROA	24,02	25,31	15.712	16.637	4,5	5,9	103,09	114,46	5,8	11,0
EAE	30,12	30,84	66.508	67.529	18,3	1,5	422,49	449,87	22,8	6,5
ERRIOXA	9,69	9,59	3.070	3.031	0,8	-1,3	13,91	13,34	0,7	-4,1
VALENTZIAKO E.	4,82	6,60	24.108	33.264	9,0	38,0	151,39	254,03	12,9	67,8
ESTATUA	6,32	7,80	297.183	369.289	100,0	24,3	1.686,26	1.970,18	100,0	16,8

Iturria: Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioaren datuekin egina Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena 2020.

2020ari buruzko txostenaren arabera (argitaratutako azkena), urte horretan, gure erkidegoak 6.661,90 euroko urteko gastua zuen prestazio horien titular bakoitzeko; estatuko batez bestekoa, berriz, 5.335,06 euro zen (% 24,9 gehiago), eta estaldura-tasa 30,84 mila biztanleko, Estatuko batez bestekoa 7,80 izanik.

Azterlanaren arabera, gure Erkidegoak 2020an Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien % 22,8 erabili zuen DSBErako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da; izan ere, % 4,6koa da erreferentziako urtean. Bestalde, 2020an, DSBEaren oinarritzko zenbatekoa hilean 693,73 €-koa zen, autonomia-erkidego guztietako handiena, Katalunia (644) eta Nafarroa (636,73 €) atzetik zituela.

b) Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria


Atal honetan jasotako informazioak epigrafe honetako a) ataleko DSBEaren Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzko informazioa osatzen du.

Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio bilakatzeak sistemaren funtsezko osagai bihurtarazi du, eta 18/2008 Legearen helburua islatzen du: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanleria talderik ahulenei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea ere bada, hots, gastu bereziak estaltzea; horrela, beharrak direla-eta, urteen poderioz GLLak, praktikan, aldiari aldiko izaera hartu eta, proportzio handi batean, etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiliak izatera eraman zituen desbideratzea zuzendu da. Arestikoak ez du inondik inora esan nahi etxebizitza gastuak lege esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak ez diren pertsonen bakarrik esleituko zaizkiela baizik. EPOren xehetasunak, DSBEaren prestazio osagarri den aldetik eta gehienez hilean 250 eurokoa izanik, etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarilaren 2/2020 Dekretuan daude araututa.

Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 51 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (orain arte gehieneko zenbatekoa izan dena). 2021ean, 76,88 milioi euro bideratu ziren prestazio horretara (+% 0,6, 2020. urtearekin alderatuta, eta EAEko 2021eko Aurrekontu Orokorretan partida horretarako esleitutako 79,5 milioiak baino 2,62 milioi gutxiago). Zenbateko horretatik, 13,95 milioi Arabari dagozkio (guztizkoaren % 18,1), 44,06 milioi Bizkaiari (% 57,3) eta 18,87 milioi euro Gipuzkoari (% 24,6).

Titularren kopuruari dagokionez, 2021eko abenduan DSBEaren onuradun ziren 24.977 bizikidetz-unitatek jaso zuten, gainera, EPO (urtebete lehenago baino % 3,4 gutxiago).

IV.2.8. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA GASTUETARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA: URTEKO GASTUAREN BILAKAERA DSBE OSAGARRI GISA. MILOI EUROTAN.



Iturria: LANBIDE

c) Gizarte Larrialdiko Laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldiari aldikoak eta oinarritzko premia zehatzei aurre egitera daude zuzenduta. Premia horiek batez ere etxebizitzari daude lotuta eta behin-behinean agertutakoak dira, eta gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat dira. Helburu baterako dira, eta eman diren xederako baino ezin dira erabili.


Laguntza horien bidez estalitako berariazko gastuak etxebizitzaz edo ohiko bizitokiaz gozatzeari eta mantentzeari, etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarritzko ekipamenduari (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarritzko instalazioak edo horiek egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak) dagozkie eta jantziei, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun-arretaren inguruko lehen mailako beharrezaneko lotutako ohiz kanpoko, aurrekusi gabeko eta ohikoak ez diren beharrezaneko sistema publikoek estaltzen ez dituztenak ordaintzekoak dira, bai eta oinarritzko Gizarte Zerbitzuen iritzi, gizarte bazterkeriako egoerak saihesteko edo arintzeko behar diren antzeko edozein beharrezan ere.

IV.2.15. TAULA. GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK 2019-2020. KONTZEPTUEN ARABERAKO BANAKETA ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOAK.						
	2019			2020		
	LAGUNTZA KOP.	ZENBATEKOA (MILA EUROTAN)	BATEZ BESTEKO ZENBAT. LAGUNTZAKO (€)	LAGUNTZA KOP.	ZENBATEKOA (MILA EUROTAN)	B. BESTEKO ZENBAT. LAGUNTZAKO (€)
ALOKAIRUA	7.895	9.811,97	1.242	12.328	14.845,50	1.204
AMORTIZ. INTERESAK	3.540	5.687,80	1.606	3.807	5.668,73	1.489
BESTE GASTU BATZUK (MANTENTZEA)	18.356	7.586,07	413	20.442	9.089,67	445
ALTZARIAK ETA ETXEKO TRESNA ELEKTRIKOAK	1.631	546,13	334	981	392,50	400
KONPONKETAK ETA INSTALAZIOAK	1.522	775,31	509	681	397,85	584
OINARRIZKO BEHARRAK	8.694	3.829,39	440	10.000	4.846,41	485
ZORPETZEA	977	641,37	656	4.508	5.153,24	1.143
ENERGIA	14.726	5.174,74	351	16.180	5.744,69	355
LAGUNTZAK, GUZTIRA	57.341	34.052,77	593	68.928	46.138,59	669
B.U. JASOTZAILEAK	28.467			33.304		
JASOTZAILEAK	59.502			63.276		

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Inklusio Zuzendaritza.

EPO indarrean hasi ondoren, GLLek jatorrizko helburuari heldu zioten berriro eta, horregatik, nabarmen murriztu zitzaizen aurrekontu partida. Hala, 2010ean, 24 milioi euro erabili ziren guztira laguntza horietarako. Aurreko urtean, aldiz, 54,5 milioi euro baliatu ziren. 2020an, datu ofizialak ditugun azken urtean, hots, 2019an, laguntza horietarako 46,14 milioi euro bideratu ziren (2019an baino % 35,5 gehiago). Zenbateko horretatik, % 53,6 Bizkaiari dagokio, % 27,6 Gipuzkoari eta gainerako %18,8a Arabari.

IV.2.9. GRAFIKOA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK: TITULAR JASOTZAILEEN KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDEEN ARABERA.



Iturria: Enplegu eta Inklusio Zuzendaritza. EUSKO JAURLARITZA.

2020an 33.304 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu dira, 2019an baino % 17 gehiago; horietatik 4.582 Araban bizi ziren (guztizkoaren % 13,8), 8.863 Gipuzkoan (% 26,6) eta gainerako 19.859 Bizkaian (% 59,6). Guztira, urtean 68,928 laguntza eman ziren kontzeptu desberdinak direla eta, esate baterako oinarrizko premiak (10.000 laguntza), alokairua (12.328) edo interesen amortizazioa (3.807). Batez besteko zenbatekoa 669 eurokoa izan zen laguntza bakoitzeko (2019an baino % 12,8 gehiago).

Bestalde, 2020an, laugarren urterako sartu da, kategoria espezifiko gisa, “energia” (2016ra arte, Mantentze-lanetako beste gastu batzuen barruan zegoen); 16.180 laguntza jasotzen ditu (2019an baino % 9,9 gehiago), eta laguntza horietara 5,74 milioi euro bideratzen dira, hau da, GLLetarako funtsen % 12,5.

2.3.2. Bizitzako Gutxieneko Diru-sarrera

2020ko maiatzaren 29an 20/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen, Espainian Bizitzako Gutxieneko Diru-sarrera (BGD) ezartzeko. Pandemiaren krisialdi bete-betean agertu zen, eta COVID-19ak Espainian eragindako kalteberatasun ekonomiko eta sozialaren gorakadari erantzun zion. Hala ere, ez da pandemiari lotutako koiunturazko neurria, egiturazko tresna bat baizik, zeinaren agerpena osasun-krisiak bizkortu egin baitu, eta haren helburua da konponbidea jartzea diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren ahuleziei eta lurralde-aniztasunari.

Diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren gabeziak sarritan aipatu dira Europako erakunde txosten eta gomendioetan, eta azken urteotan hainbat ekimen egin dira Espainian gutxieneko diru-sarreraren prestazio bat aztertzeko eta ezartzeko. BGD Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko gisa sortu da, kotizazio gabeko modalitatean, bakarrik edo bizikidetzaren batean integratuta bizi diren pertsonen pobrezia- eta gizarte-bazterketako arriskua prebenitzeko prestazioa izan dadin, baldin eta pertsona horiek zaurgarritasun-egoeran badaude, beren oinarrizko premiak estaltzeko behar beste baliabide ekonomikorik ez dutelako. Prestazio ekonomiko gisa, gutxieneko errenta bat bermatzen du. Alderdi ekonomikoaz gain, onuradunen gizarteratzeko eta laneratzeko benetako aukerak hobetzea du helburu.

EAEn, BGDaren kudeaketa Lanbideri esleitu zaio. Berak kudeatzen du DSBE ere eta, kasu batzuetan izan ezik, eskaintzen dituen prestazioen zenbatekoa handiagoa da eta Estatuko prestazioan sartzen ez diren kolektibo batzuk biltzen ditu, hala nola pentsiodunak. DSBEa, beraz, BGDaren prestazio osagarri eta subsidiario gisa geratzen da eratuta.

BGD 2020ko ekainaren 1etik aurrera jarri zen abian ondorio ekonomikoekin. Euskadin, BGDaren baldintzak betetzen zituztenek soilik egin behar zituzten eskaera-izapideak, baina ez DSBEarenak betetzen zituztenek. DSBEa jasotzen duten eta BGDaren baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat, Lanbidek ofizioz

kudeatzen du prestazio berria. BGDaren osagarria eta subsidiarioa da DSBE, eta aurrezki handia ekarriko du Eusko Jaurlaritzaren diru-kutxarako; izan ere, Estatuaren erantzukizuna izango da, Gizarte Segurantzaren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren zatia finantzatzea, horren kasua bat badator bizitzeko diru-sarrerarekin. Eusko

IV.2.16. TAULA. BIZITZAKO GUTXIENEO DIRU-SARRERA: ESPEDIENTEEN EGOERA 2021.12.31n
AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERAKO DATUAK

	EBAZPEN ONARTUAK	PERT. ONURADUNAK HELDUAK	PERT. ONURADUNAK ADINGABEAK	GUZTIRA PERT. ONURADUNAK
ESTATUA, GUZTIRA	362.017	518.609	305.832	824.441
ANDALUZIA	105.552	158.423	92.875	251.298
ARAGOI	9.417	13.546	8.854	22.400
ASTURIAS	10.489	14.168	7.526	21.694
BALEAR UHARTEAK	4.626	6.365	3.785	10.150
KANARIAR UHARTEAK	19.096	26.951	11.706	38.657
KANTABRIA	4.058	5.662	3.398	9.060
GAZTELA-MANTXA	12.233	17.889	11.689	29.578
GAZTELA ETA LEON	16.567	22.799	13.394	36.193
KATALUNIA	30.094	40.754	24.629	65.383
VALENTZIako ERK.	42.212	60.721	36.663	97.384
EXTREMADURA	11.124	15.832	9.322	25.154
GALIZIA	17.700	23.958	12.934	36.892
MADRIL	36.567	51.933	35.965	87.898
MURTZIA	12.336	18.319	11.859	30.178
NAFARROA	6.377	9.131	6.230	15.361
EAE	17.400	21.945	7.314	29.259
ERRIOXA	2.642	3.527	2.249	5.776
CEUTA	1.698	3.322	2.498	5.820
MELILLA	1.829	3.364	2.942	6.306

Iturria: GIZARTE SEGURANTZA. Online aldizkaria.


Jaurlaritzaren datuen arabera, 30.000 bat bizikidetz-unitate sar daitezke batz bestekoan, eta 50.000 familia baino gehiago daude DSBEarekin estalita.

Espanian, martxan jarri zen unean gobernuak kalkulatu zuen BGE 850.000 etxek jaso ahalko zutela, 2,3 milioi lagunek gutxi gorabehera. 2021eko abenduan, GSINek 362.017 etxeri aitortu zien prestazio hori (+% 126,3, 2020ko abenduarekin alderatuta), eta, beraz, 824.441 pertsonak jaso zuten prestazioa (% 37,1 adingabeak). Horretarako 2.000 milioi euro inguru bideratu ziren, aurrekontuan jasotako ia 3.000 milioietatik²⁷.

EAEn, 17.400 ebazpen onartu ziren 2021eko abenduaren 31n, 17.400 onuradun, 29.259 onuraduni dagozkienak, horietatik % 25 adingabeak. Memoria hau egiteko unean ez dakigu gure erkidegoari dagokion prestazioaren zenbatekoa zein den.

2.3.3. Gizarteratzea errazteko programak: Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak, gizartean esku hartzeko esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko

Hauxe xedatu da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6.3. artikuluan: “Gizarte-ongizatea, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa ez dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuak, baizik eta gizarte-babeseko beste sistema eta politika publiko batzuekin batera gauzatu beharrekoak; hala bada, horiek gauzatzeko orduan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bereak diren helburu eta eginkizunen esparruan arituko da elkarlanean. Halaber, elkartasuna eta elkarbizitza sustatzea eta gizartearen parte-hartzea sustatzea beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatutako helburutzat joko dira.” Hortaz, gizarte zerbitzuen helburutzat hartzen da gizarte inklusioa, baina beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatuta eta, horrekin bat, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarte Inklusioari buruzko 18/2008 Legean, gizarte inklusiorako politikaren zeharkakotasuna aipatzen da, eta horretan lagundu behar dute bi sistemek, Gizarte Zerbitzuek eta Diru-sarrerak Bermatzekoak.



Hirugarren Sektoreko jarduerak EAeko gizarte esku-hartzearen arloan sustatzeko diru-laguntzak arautzeari buruzko abenduaren 29k 649/2009 Dekretuan, gizarte esku-hartzea, funtsean, pertsona guztiak gizarteratzera bideratuta zegoela aitortzen zen, baina hainbat laguntza-lerro edo esku-hartze agintzen zituen, ez soilik gizarte inklusioraren arloari lotutakoak, baizik eta bestelako zeharkako modalitateak hartzen ziren aintzat, honako hauek bilduta: familiaren babesa, droga-mendetasunaren prebentzioa, haurren eta nerabeen arreta eta babesa, etorkinen gizarteratzea eta, oro

²⁷ Iturria: [Gizarte Segurantzaren aldizkari digitala](#)

har, kulturartekotasuna, adinekoen arreta eta babesa, mendetasunean bizi direnak eta, oro har, ezintasuna eta maitasun-sexu askatasuna eta aniztasuna”²⁸.

2020an, informazioa dagoen azken urtean, hirugarren sektoreko jarduerak gizarte esku-hartzearen eremuan sustatzeko diru-laguntzak eman zituen Eusko Jaurlaritzak, guztira 4,79 milioi euro, aurreko urteko zenbateko berdina. Laguntza horietatik, 3,74 milioi (% 78,1) “Gizartean esku hartzea” lerroa bideratu ziren, % 12,5 (599.000 euro) “elkarteak indartze”ra eta gainerako % 9,4a (450.000 euro) “ezagutzaren kudeaketa” lerroa. Hala ere, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren programa zehatz horren zenbatekoak direla, baina beste erakunde batzuek (Foru Aldundiak eta udal ugari) funtsak bideratzen dituztela helburu horietara. Hala ere, ez dago horri buruzko informazio erantsirik.

2.4. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) arretako sare publiko egituratua da, erantzukizun publikokoa, eta bere helburua da gizarteratzea, autonomia eta ongizatea bideratzea pertsona, familia eta talde guztiei, sustapen, prebentzio, babes eta laguntza funtzioa garatuz, funtsean pertsonen eta harremanen aldekoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez. Titulartasun publiko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduek osatzen dute, eta haren jarduerak beste sistema eta politika publiko kideko edo osagarri batzuekin koordinatuta eta lankidetzan egiten dira, gizarte-ongizatea lortzeko. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (GZL) arautzen eta antolatzen du, eta honako hauek dira haren ezaugarri nagusiak: gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzea, Sistema osatzen duten Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzea, horrela eskubide horren irismena zehaztuta eta haren garapena eta ezarpena bermatuta, eta, azkenik, katalogo hori garatzeko aurreikuspena, prestazio eta zerbitzuen zorro baten bidez: ezaugarri nagusiak eta sarbide-baldintzak definitzen ditu²⁹.

2.4.1. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019. Ebaluazioa

Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoarekin osatzen da GZES. Plan horrek GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztietarako sarbidea bermatu nahi die sarbide-baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei, eta hala eskatzen du, GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoaren estaldurak – hala badagokio, intentsitatea– mapan eta haren eranskinetan (lurralde-mapak) aurreikusitakora egokitzea, eta gastu publiko arrunta handitzea GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan, kontuan hartuta GZESaren erabiltzaile bakoitzaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan.

IV.2.17. TAULA. EAE-KO GIZARTE ZERBITZUEN I. PLAN ESTRATEGIKOAN (2016-2019) AURREIKUSITAKO JARDUKETEN GAUZATZE-MAILAREN LABURPENA				
ARDATZAK	EUSKO JAURLARITZA	FORU ALDUNDIAK	UDALAK	B.B. EXEKUXIOA ARDATZAK
1. ARRETAREN UNIBERTSALIZAZIOA, LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA EKITATEA SARBIDEAN	% 71,4	% 92,9	% 82,2	% 82,2
2. EREDU KOMUNITARIOA FINKATZEA ETA GARATZEA, ETA, BEREZIKI, PREBENTZIOAREN IKUSPEGIA ETA ARRETAREN PERTSONALIZAZIOA	% 80	% 100	% 73,1	% 84,4
3. SISTEMAREN BARNE-ARTIKULAZIOA ETA GZES-AREN GOBERNU- ETA KUDEAKETA-SISTEMAREN GARAPENA	% 73,3	% 79,2	% 67,4	% 73,3
4. BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA, BALIABIDEAK BEHARRETARA EGOKITZEA ETA ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEA	% 73,7	% 93,9	% 71,4	% 79,7
5. BESTE SISTEMA BATZUEKIKO LANKIDETZA	% 100	% 87,9	% 37,5	% 75,1
BATEZ BESTEKO EXEKUZIOA ERAKUNDEAREN ARABERA	% 79,7	% 90,8	% 66,3	% 78,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2021). Guk geuk egina.

²⁸ Ondoren, abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuak EAEko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautuko litzuzke, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez. Dirulaguntza horietatik kanpo geratuko litzateke droga-mendetasunen prebentzioa, zeren eta, eskumen-egituraren arrazoiengatik, jardun-arlo hori garai hartako Osasun eta Kontsumo Sailera igaro baitzen.

²⁹ Informazio gehiago nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren webgunera jo daiteke; [gizarte zerbitzuen araudia](#) biltzen du.

Gastu-aurreikuspenari dagokionez, Planak 2017ko gastu arrunt publikoaren zenbatespen bat jasotzen du, 2011ko zifra errealetatik abiatuta. Zifra horiei faktore zuzentzaile bat aplikatu zitzaizen, 2011 eta 2016 arteko gastuaren bilakaera kontuan hartuta. Metodologia hori oinarri hartuta, 2017an GZESak 1.102,27 milioi euroko gastu korronte publikoa ekarriko zuela kalkulatu zen (urte horretako BPGd-aren % 1,5). Horietatik % 11,4 prestazio ekonomikoei dagozkie eta gainerakoa zerbitzuei, hau da, jada ezarrita dauden zerbitzuen % 86³⁰.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailak 2021ean egindako Planaren Ebaluazio Txostenak adierazten du, lehenik eta behin, ikuspegi kuantitatibotik eta inplikaturako erakunde bakoitzaren autoebaluazioa kontuan hartuta, planaren betetze-maila orokorra % 77,3 dela. 1. ardatzeko ekintzak (arretaren unibertsalizazioa, lurralde-antolamendua eta ekitatea sarbidean) eta, ondoren, 4. ardatzekoak (baliabideak optimizatzea, baliabideak premietara egokitzea eta efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea) izan dira ekintza horien ardura duten erakundeek gehien gauzatu dituztenak.

2. ardatzeko ekintzak (eredu komunitarioa finkatzea eta garatzea eta, bereziki, ikuspegi prebentiboa eta arretaren pertsonalizazioa) eta, bereziki, 5. ardatzekoak (beste sistema batzuekiko lankidetzak) modu ezberdinean gauzatu dituzte erakundeek, eta 3. ardatzekoak (sistemaren barne-artikulazioa eta GZESaren gobernu eta kudeaketa sistemaren garapena) orekatuagoak izan dira.

Plana ezartzeko **zailtasunei** dagokienez, txostenak honako hauek adierazten ditu:

1. ardatzean, zailtasun nagusiak baterako ordainketaren eta Banakako Arreta Planaren (BAP) erregulazioarekin, tresna komunaren diseinu eta aplikazioarekin (fitxa soziala, diagnostikoa eta BAP) edo irisgarritasuna hobetzeko planekin lotuta daude, nahiz eta udal batzuek aurrerapenak izan diren alderdietan ere zailtasunak daudela adierazi duten, hala nola bazterkeriaren eremuko arreta-sarea finkatzean edo gizarte-larrialdietarako arretarako koordinazioan.

2. ardatzean, zailtasunak honako hauek dira: a) administrazio publikoen eta erakunde pribatuen arteko lankidetzak-protokoloak edo -akordioak egitea, administrazio horiek erreferentziarako eta kasuaren koordinazioko eginkizunetan parte har dezaten; b) lehen mailako eta bigarren mailako arreta, arreta bateratua emateko eta kasuak bideratzeko. Eta arreta goiztiarra, mendetasunaren prebentzioa, autonomiaren sustapena eta emakumeen, adinekoen, adingabeen eta desgaituen babesgabetasun-egoeren prebentzioa, detekzioa eta lantze goiztiarra bultzatzean.

3. ardatzean, zailtasun nagusiak Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren garapenarekin eta etengabeko plangintzarekin lotuta daude, premien bilakaerari, laguntza formaleko eta informaleko sareari, gastuari eta diru-sarrerei buruzko aldizkako datuetatik abiatuta. Eta, bestetik, arretaren kalitatea ebaluatzeke eta etengabe hobetzeko eredu komunak, GZESaren zerbitzuetan kalitate-sistemak ezartzeko laguntza teknikoko programak eta kudeaketako kalitate-adierazleen katalogo adostua sustatuz, GZESan esku hartzen duten eragileek zenbateraino betetzen dituzten baloratu ahal izateko.

4. ardatzean, zailtasun nagusiak autonomiaz gizarteratzeari buruzko adierazle-sistema bat definitu eta ezartzearekin eta GZESaren prestazio eta zerbitzuen kostuen azterketa bat egitearekin lotuta daude, eta GZESaren profesionalen gainbegiratzera, motibazioa eta zaintza psikosozialera bideratutako jardueren sustapenean ere hutsune bat dago. Bestalde, azpiegiturak finantzatzeko tresna edo mekanismoen garapenean aurrera egin behar da, baita zerbitzuen horniduran erakundearen arteko lankidetzan ere (adibidez, konpentsazio ekonomikorako irizpide eta mekanismoak ezarriz, toki-erakunde batek zentro baterako sarbidea berma dezan beste toki-erakunde baten titulartasuneko edo beste toki-erakunde batek kudeatutako baliabide batean), bai eta herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izan dezaten eta, oro har, digitalizazioan ere.

³⁰ Planaren buruzko zehaztasun gehiago izateko, Memoria honen 2019ko ediziora eta [Planaren testura](#) jo daiteke.


5. ardatzean, azkenik, zailtasun nagusiak hitzarmen sozio-sanitarioak berrikustearekin eta eguneratzearekin lotuta daude, baita koordinazio soziosanitarioko beste alderdi batzuekin ere (lankidetzeta-protokoloak, ekimen eta zerbitzu partekatua, etxean arreta emateko eta kasu soziosanitarioa koordinatzeko programak), gizarte- eta lan-arloarekin (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta GZESaren arteko koordinaziorako eta lankidetzarako bide iraunkorrak; aktibazio-eredu partekatua, eraginkorra eta bidezkoa barne hartzen duten kudeaketa-protokoloak; bi sistemetarako informazio garrantzitsuaren kudeaketa partekatua) eta pertsonen inklusiorako laguntzak eta/edo etxebizitza eskuratzeko lankidetzeta-protokoloak).

Helburu kuantitatiboei dagokienez, ondorioztatzen da ibilbide luzeko krisiaren testuinguruan sendotu den GZESA dugula, eta, beraz:

- Hazkunde nabarmena izan du magnitude nagusietan, bai gastu korrante publikoan (+222,8 milioi 2011 eta 2018 artean), bai plazetan (+5.665 2011 eta 2018 artean), bai erabiltzaile/jasotzaile eta estalduretan, eta bai udal gastuan, bai foru gastuan, gizarte-zerbitzuek zuzentzen baitute gastua bi mailetan, eta Gobernuaren eskumeneko zerbitzu eta prestazioetako gastua ere handitzen baita.
- Testuinguru horretan, lurraldeen arteko konbergentzia-adierazlea ere hobetu da, EAEko batez besteko estalduraren +-% 15 marjinaren barruan dauden zerbitzu eta prestazioen kopurua handituta.

2.4.2. EUSTATen Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistikaren emaitzak

EAEko Gizarte Zerbitzuen gastua 2019an (datuak dituen azken urtea) 2.842,2 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 1 gehiago, EUSTATen³¹ "Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika"ren arabera. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGd-aren % 3,6 a eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.299 euroko gastua, 2018 baino % 0,6 gehiago.



Gastuaren % 72,4, 2.058,1 milioi euro, gastu arruntei dagokie, eta horietatik 741,8 milioi familiei transferentziak egiteko erabili ziren (2018an baino % 2,5 gutxiago). Gainera, administrazio publikoek 1.984,5 milioi euro finantzatu zituzten (+ %2,3), guztizkoaren % 69,9; sektore pribatuak, berriz, gainerako % 30,1a finantzatu zuen.

³¹ Kontuan hartu behar da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBSE) eta Enplegu Zentro Bereziak (EZB) ez daudela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, baina estatistika horrek barne hartzen ditu. Horiei buruzko informazio zehatza eskuratzeko, kapitulu honetako 2.3.2. atalera (DSBE) eta III. kapitulura jo daiteke. "Enplegua eta lan harremanak EAEn" (EEE).

Sektoreko giza baliabideei dagokienez, EAEko gizarte-zerbitzuek, oro har, 56.811 pertsona hartzen zituzten 2019an, 2018an baino % 0,1 eta % 6 gutxiago, hurrenez hurren (urteko batez besteko datua, BJA iturria). % 60,7 langile propioei dagokie, eta % 39,3 boluntarioei. Hala, 22.352 langile ari ziren lanean, 2018an baino 930 gutxiago (-% 4).

Gizarte zerbitzu ugarien artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabiderik gehien jasotzen dituztenak, bien artean gastuaren % 62,8 hartzen baitute (guztizkoaren % 35,6 eta % 27,2 hurrenez hurren). Herritar guztientzako baliabideen artean, familientzako transferentziak nabarmentzen dira, 735,8 milioi euro, gastu osoaren % 25,9, eta % 2,6 murriztu dira azken urtean. Adinekoei dagokienez, haiei ematen zaien arreta batez ere prestazio hauek dira: egoitza zerbitzuak, laguntzako eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza zerbitzuak eta telelaguntza.

IV.2.18. TAULA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA					
	2017	2018	2019	17/18 (%)	18/19 (%)
GASTUA (MILA EUROTAN)	2.751.101	2.815.136	2.842.232	2,3	1,0
- GASTU ARRUNTAK	1.916.835	2.002.079	2.058.128	4,4	2,8
-- FAMILIENTZAKO TRANSFERENTZIAK	791.438	761.000	741.805	-3,8	-2,5
- KAPITAL-GASTUAK	42.827	52.057	42.299	21,6	-18,7
GASTUA/BIZTANLEAK (EUROTAN)	1.264,4	1.291,1	1.299,0	2,1	0,6
GASTUA/BPG (%)	3,7	3,7	3,6
- FINANTZAKETA PUBLIKOA	1.919.832	1.940.520	1.984.499	1,1	2,3
- FINANTZAKETA PRIBATUA	831.269	874.616	857.733	5,2	-1,9
LANGILEAK, GUZTIRA	53.507	56.870	56.811	6,3	-0,1
- NORBERAREN LANGILEAK	32.459	33.588	34.459	3,5	2,6
- BORONDATEZKO LANGILEAK	21.048	23.282	22.352	10,6	-4,0
- ERAKUNDE KOPURUA	1.378	1.393	1.389	1,1	-0,3
- ZENTRO KOPURUA	3.497	3.577	3.569	2,3	-0,2
- EGOITZA KOPURUA	1.400	1.442	1.441	3,0	-0,1
- EGOITZETAKO PLAZAK	28.248	29.041	30.036	2,8	3,4

Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika. Geuk egina

IV.2.19. TAULA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N. GASTUAREN BANAKETA HARTZAILE MOTAREN ETA KONTZEPTUAREN ARABERA. EUROAK, MILAKOTAN.						
	2016	2017	2018	2019	17/18 (%)	18/19 (%)
GASTUA (MILA EUROTAN)	2.609.249	2.751.101	2.815.136	2.842.232	2,3	1,0
BIZTANLERIA, ORO HAR	1.081.330	1.062.030	1.035.212	1.010.460	-2,5	-2,4
- FAMILIENTZAKO TRANSFERENTZIAK	798.578	786.449	755.673	735.821	-3,9	-2,6
HAURRAK-GAZTEAK	85.923	106.967	119.189	129.518	11,4	8,7
- EGOITZAK	66.946	74.470	83.171	92.759	11,7	11,5
ADINEKOAK	691.756	711.632	749.763	774.317	5,4	3,3
- EGOITZAK	575.820	598.725	626.044	644.042	4,6	2,9
DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK	635.747	730.580	765.475	767.299	4,8	0,2
- EGOITZAK	118.194	121.299	125.519	133.719	3,5	6,5
- OKUPAZIO-ZENTROAK ETA EZB*	427.648	508.331	538.171	528.091	5,9	-1,9
EMAKUMEAK	12.056	12.603	12.729	14.081	1,0	10,6
GIZARTE BAZTERKERIA	102.438	127.289	132.768	146.557	4,3	10,4

* Enplegurako Zentro Bereziak.

Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika. Guk geuk egina.

Adinekoentzako egoitza-zentroei dagokienez, EAEn 448 zentro zeuden 2019an. Horietatik 158 publikoak (2018an baino 3 gehiago), eta horietatik 158 titulartasun publikokoak eta 290 pribatuak. Gainera, 84 pertsona autonomoentzat ziren, 9 mendeko pertsonentzat, eta horietatik gehienak, 355, bi kolektiboentzat ziren, misto gisa katalogatuta baitzeuden. Sistema horrek, erreferentziako urtean, 644 milioi euroko gastua eragin zuen (+% 2,9 2018aren aldean), gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 22,7.

20.949 egoitza-plaza eskaintzen ziren (+% 1,4); horietatik 7.487 (% 35,7) titulartasun publikokoak ziren, eta 13.462 (% 64,3) titulartasun pribatukoak. Lurraldeka, plazen % 16,7 Araban zeuden, % 54,7 Bizkaian eta % 28,6 Gipuzkoan. 2019ko erabiltzaile adinekoen kopurua 18.885 da (-% 0,2), hau da, plaza guztien kopurua baino txikiagoa. Horietatik 6.986, % 37, plaza publikoen erabiltzaileak dira, eta gainerako % 63a, plaza pribatuetakoak.

2.4.3. 39/2006 Legearen Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) emaitzak

Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Menpekotasun-egoeran dauden Pertsonen Arreta emateko Legea³² (Menpekotasunaren Legea), Estatuko araudia da eta 2007. urtean hasi zen indarrean. Lege horren xede nagusia hau da: “ahultasun bereziko egoeran daudelako, eguneroko oinarrizko jarduerak garatzeko laguntza behar duten pertsonen beharrezan erantzutea, haien autonomia areagotzea eta, horrela, herritartasun-eskubideak bete-betean gauzatu ahal izatea”. Aurrerapen garrantzitsua da gizarte-politikan. Izan ere, estatu mailan aitortzen eta arautzen du mendekotasuna duten pertsonen legean ezarritako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide subjektiboa. Prestazio eta zerbitzu horiek, EAEn, administrazio autonomikoek kudeatzen dituzte, lehen aipatutako gizarte-zerbitzuen zorroaren barruan.

IMSERSOREN 2021eko abenduaren 31ko datuek adierazten dute, lehenik eta behin, erreferentziako datan EAEk 107.110 balorazio-eskaera zituela erregistratuta Autonomiaren eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS), eta horietatik gehienak mendetasun-maila aitortzeko berrikuspenei dagozkie, gainerako erkidegoetan bezala. Eskabideen kopurua EAEko biztanleriaren % 4,84ko ratioa da (+0,07 puntu aurreko urtearen aldean).

IV.2.20. TAULA. MENDEKOTASUNERAKO ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. EGOERA KONPARATIBOA 2021EKO ABENDUAREN 31N.												
	ESKABIDEEN % BIZTANLERIAREKIKO			EBAZPENEN % ESKABIDEKIKO			AINTZATETSIEEN % EBAZPENEKIKO			AINTZATETSIEEN % BIZTANLERIAREKIKO		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021
ANDALUZIA	4,88	4,69	4,75	88,05	88,67	90,07	81,44	81,04	81,60	3,50	3,37	3,49
ARAGOI	3,88	3,61	3,67	93,15	93,27	94,51	82,08	81,26	82,45	2,97	2,73	2,86
ASTURIAS	3,98	3,86	4,05	86,49	90,74	93,24	76,36	76,34	77,85	2,63	2,68	2,94
BALEAR UH.	2,83	2,80	3,01	95,22	96,19	93,51	80,80	80,82	81,64	2,17	2,18	2,30
KANARIAR UHARTEAK	2,47	2,51	2,67	71,31	70,65	72,91	85,53	85,76	86,85	1,51	1,52	1,69
KANTABRIA	4,39	4,35	3,98	98,08	97,93	97,54	84,70	84,66	82,58	3,64	3,61	3,21
GAZTELA-MANTXA	6,09	5,88	5,96	92,13	93,94	94,16	78,97	79,85	81,36	4,43	4,41	4,57
GAZTELA ETA LEON	4,42	4,15	4,26	95,13	95,80	65,44	79,66	79,57	80,16	3,35	3,17	3,26
KATALUNIA	4,35	4,13	4,35	92,10	93,34	93,47	77,96	76,77	77,69	3,13	2,96	3,16
VALENTZIAKO E.	2,89	3,08	3,30	84,19	87,41	90,56	84,73	84,82	85,12	2,06	2,28	2,55
EXTREMADURA	5,33	4,98	5,12	87,29	93,02	93,84	71,38	70,15	71,34	3,32	3,27	3,43
GALIZIA	2,99	2,86	2,89	99,53	99,57	99,68	87,30	87,56	89,07	2,60	2,50	2,56
MADRIL	3,44	3,30	3,20	99,24	96,79	99,89	75,66	74,80	75,63	2,58	2,39	2,42
MURTZIA	3,60	3,45	3,57	86,43	86,95	87,73	88,98	88,34	88,49	2,77	2,65	2,77
NAFARROA	3,07	2,98	3,09	92,93	99,46	99,57	78,55	73,81	74,65	2,24	2,19	2,30
EAE	4,82	4,77	4,84	99,50	99,54	99,55	76,29	75,24	73,93	3,66	3,57	3,56
ERRIOXA	4,85	4,59	4,83	99,97	99,94	99,95	74,16	73,62	75,68	3,60	3,38	3,66
CEUTA ETA MELILLA	2,60	2,62	2,72	97,18	95,86	96,21	70,45	70,66	71,67	1,78	1,78	1,88
ESTATUA, GUZTIRA	4,03	3,90	3,99	91,60	92,35	93,42	79,80	79,35	80,07	2,95	2,86	2,99

Iturria: IMSERSOREN datuekin egindakoa. Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) estatistika informazioa. Abenduaren 31ko datuak

Eskabide horiek, gainera, Estatuan erregistraturikoen % 5,66 dira. Gure Erkidegoko biztanleria, berriz, % 4,67 dira, zeren eta Euskadik Estatuko populaziorik zahartuenetako baitu.

Eskatzailearen profila emakumeari dagokio (guztizkoaren % 63,2), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen % 52,8). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoa da, eskabide guztien % 21,3.

Erregistratutako 107.110 irizpen-eskaeretatik, % 99,55ek zegokion ebazpena jaso zuten jada (Estatuan, batez beste, % 93,42), eta 78.831 pertsonari, irizpena jaso zuten kasuen % 73,93ari, prestazioa jasotzeko eskubidea onartu zieten. Portzentaje hori Estatuko batezbestekoa (% 80,07) baino txikiagoa da. Baina biztanleria osoaren gaineko onuradunen ratioa kontuan hartzen badugu, tasa handiagoa da EAEn Estatuan baino: Biztanleriaren % 3,56 EAEn, eta % 2,99 Estatuan (ikus IV.2.20 taula).

³² Abenduaren 14ko Estatuko 39/2006 Legea, Norberaren Autonomia eta Mendekotasuna duten Pertsonen Arreta Sustatzeari buruzkoa.

Onuradunen artean, % 18,18k III. mendetasun-gradua zuen aintzatetsia³³; % 23,75ek II. mendetasun-gradua, eta % 32,01ek I. mendetasun-gradua.

Bestalde, erreferentziazko datan, 89.865 prestazio eman ziren (2020ko datuekin alderatuta, +% 1,3), eta horietatik % 38,59 familia-zaintzagatiko prestazio ekonomikoari dagozkio (Estatuko batez bestekoa baino ratio handiagoa, % 30,75ekoa), % 14,23 egoitza-arretari, % 23,44 telelaguntza-zerbitzuari, % 7,94 eguneko/gaueko zentroetako zainketei eta % 6,68 zerbitzu garrantzitsuei, besteak beste.

IV.2.21. TAULA. MENDEASUNERAKO ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. ONURADUNAK ETA PRESTAZIOAK EGOERA 2021-12-31N.									
	ONURADUNAK BIZTANLERIAREKIKO			PRESTAZIOAK ONURADUNEN			FAMILIA ZAINTEZKO PRESTAZIO EKONOMIKOAREN %		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021
ANDALUZIA	2,62	2,70	3,04	1,33	1,36	1,40	24,61	23,63	21,84
ARAGOI	2,50	2,37	2,65	1,19	1,18	1,18	40,06	43,23	44,22
ASTURIAS	2,06	2,38	2,74	1,31	1,28	1,27	28,86	30,13	30,74
BALEAR UH.	1,80	1,97	2,09	1,39	1,60	1,61	50,93	45,57	45,39
KANARIAR UHARTEAK	1,09	1,15	1,23	1,04	1,06	1,07	38,88	36,37	35,05
KANTABRIA	2,96	2,94	2,97	1,53	1,53	1,55	34,19	35,60	33,96
GAZTELA-MANTXA	4,37	4,41	4,56	1,33	1,34	1,36	19,57	20,34	20,33
GAZTELA ETA LEON	3,06	2,93	3,11	1,22	1,23	1,26	17,77	18,31	18,17
KATALUNIA	2,13	2,02	2,15	1,24	1,23	1,22	39,19	41,56	40,76
VALENTZIAKO E.	1,76	2,02	2,32	1,07	1,08	1,09	56,39	59,68	61,88
EXTREMADURA	2,64	2,73	2,93	1,10	1,09	1,08	21,00	20,56	19,34
GALIZIA	2,28	2,31	2,41	1,18	1,18	1,19	17,99	19,28	19,78
MADRIL	2,16	1,97	2,26	1,30	1,27	1,30	18,36	21,47	20,00
MURTZIA	2,35	2,34	2,44	1,26	1,25	1,24	50,59	51,47	50,83
NAFARROA	2,11	2,07	2,14	1,29	1,26	1,28	52,37	52,32	47,70
EAE	3,04	2,96	2,97	1,34	1,35	1,37	39,75	40,21	38,58
ERRIOXA	2,61	2,39	2,50	1,47	1,47	1,47	14,11	13,84	11,66
CEUTA ETA MELILLA	1,70	1,63	1,77	1,33	1,31	1,33	38,52	40,39	39,33
ESTATUA, GUZTIRA	2,37	2,37	2,58	1,27	1,27	1,28	30,26	31,57	30,75

Iturria: IMSERSOREN datuekin egindakoa. Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) estatistika informazioa. Abenduaren 31ko datuak

Prestazioen jasotzaileak 65.741 pertsona onuradun izan ziren (ratioa 1,37 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko, pertsona bat zerbitzu edo prestazio bat baino gehiagoren onuradun izan baitaiteke). Kopuru hori prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten 78.831 pertsonen % 83,4koa da (% 82,9 2020an).


Zifra horien osagarri, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Kudeatzaileen Espainiako Elkarteko kideek osatutako **“Mendekotasunaren Espainiako Behatokiaren”** txostenek aukera ematen dute Autonomia Erkidegoen arabera Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Legearen hedapenaren balorazio profesionalaren jarraipena egiteko, IMSERSOREN zifretan oinarrituta. Azken irizpenak, 2021eko abenduak datuak erabiliz, nabarmentzen du EAEk garapen handiagoa izaten jarraitzen duela beste autonomia erkidego batzuek baino, bai baloratutako pertsonen ehunekoari dagokionez, bai emandako prestazioei dagokienez. Hala ere, batez bestekoen aldeak murrizteko joera du.

Sistemaren ezarpenaren zifrei eta profesionalen balorazioari buruzko laburpen gisa, Behatokiak puntuazioa jartzen die erkidegoei eta ranking bat aurkeztu du. 2015ean AMAS ezartzeko epealdia bukatutzat eman da eta, beraz, ebaluazio metodologia aldatu da (honako hauek kontuan izateko, besteak beste: sortutako enplegua, jardun onak edo sistemaren gardentasun maila), finkatzearen bigarren etapa baloratua izateko. Urte horretan, bi puntuazio eskaintzen dira, metodologia zaharrarekin eta berriarekin.

³³ 4. artikulua: 39/2006 Legearen 26. artikulua xedatzen du mendetasun-egoera hiru gradutan sailkatzen dela:

- I. gradua. Mendetasun ertaina: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko, gutxienez eguneha behin, edo tarteka laguntza mugatua behar du autonomia pertsonalerako.
- II. gradua. Mendetasun larria: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko, eguneha bi edo hiru aldiz, baina ez du zaintzaile baten laguntza iraunkorra nahi edo laguntza-premia zabalak ditu autonomia pertsonalerako.
- III. gradua. Mendetasun handia: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko, eguneha hainbat aldiz, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsoriala erabat galdu duenez, beste pertsona baten laguntza behar du ezinbestean eta etengabe, edo laguntza orokorra behar du autonomia pertsonalerako.- .

GRÁFICO IV.2.12. ATENCIÓN A LA DEPENDENCIA EN LA CAPV: DISTRIBUCIÓN DE LAS PRESTACIONES POR TIPO. 31.12.2021.



2021eko abenduko rankingean, zazpigarren urtean jada metodologia berriarekin, Gaztela eta Leon da buru (10 puntutik 8,4ko “nota”), eta EAE zortzigarren postuan dago (bi postu jaitsi da 2019 eta 2020 urteekiko), 5,3 punturekin (hamarren bat galdu du). Izan ere, 2015era arte, metodologia zaharrarekin, askoz ere posizio hobek izan zituen, eta urte horietan, mendetasunaren arretarako sistema askoz aurreratua gure erkidegoan Estatuko beste askotan baino.

IV.2.22. TAULA. MENDEBASUNAREN BEHATOKIAK MENDEBASUNARI EMANDAKO ARRETAREN EBALUAZIOA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA. EGOERA URTE BAKOITZEKO ABENDUAN*. 2012-2021.

	2012	2013	2014	2015**:		2016	2017	2018	2019	2020	2021
				AURREKO ESKALA	ESKALA BERRIA						
GAZTELA ETA LEON	9,2	9,6	10,0	9,2	8,6	8,9	9,3	9,3	9,3	8,9	8,4
GAZTELA-MANTXA	5,8	5,4	5,0	5,8	5,7	6,8	8,2	8,2	8,6	7,1	8,1
ANDALUZIA	7,1	5,8	7,1	7,9	7,5	6,8	6,4	6,8	6,4	7,1	7,5
MADRIL	3,8	4,2	4,2	4,6	5,7	6,1	3,9	6,8	5,0	3,2	7,2
BALEAR UH.	2,5	2,9	3,8	2,5	2,1	3,6	2,1	2,9	5,0	6,1	6,3
ARAGOI	3,8	3,8	3,3	3,8	2,1	2,5	3,2	5,0	5,7	3,2	6,3
ERRIOXA	6,7	6,3	6,3	6,7	6,1	7,9	6,1	7,1	6,8	5,0	5,9
EAE	7,5	8,3	7,5	8,3	6,8	5,4	5,7	6,1	6,1	5,4	5,3
ESTATUKO BATEZBESTEKOAK	4,7	4,7	4,8	4,9	4,0	5,0	4,6	5,0	4,9	4,64	5,10
VALENTZIAKO E.	0,8	0,4	1,7	1,7	-	3,2	3,6	3,6	3,9	3,9	5,0
EXTREMADURA	5,0	5,4	6,7	6,7	3,6	5,0	2,5	5,0	2,9	5,0	4,7
ASTURIAS	4,2	3,8	5,0	5,0	3,6	4,6	3,2	2,9	1,1	4,3	4,7
GALIZIA	5,8	5,0	4,2	5,0	4,3	6,1	6,1	5,4	5,4	6,8	4,4
NAFARROA	5,4	5,0	5,0	3,3	2,5	2,9	3,9	4,3	3,6	3,9	3,4
MURTZIA	3,3	5,0	4,2	2,9	2,9	6,1	5,7	4,6	4,3	3,9	3,4
KANTABRIA	4,2	6,3	4,6	5,4	3,2	3,6	5,4	4,3	5,7	3,6	3,4
CEUTA ETA MELILLA	2,1	1,3	1,7	3,8	3,2	4,3	3,6	3,9	3,9	2,5	3,4
KATALUNIA	5,8	5,4	4,6	4,6	3,6	3,9	2,5	2,9	2,1	1,4	2,8
KANARIAR UHARTEAK	2,1	0,8	1,7	1,7	0,7	1,8	1,8	1,8	1,8	2,1	1,6

Iturria: MENDEBASUNAREN BEHATOKIA.

(*) Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteak Mendekotasunarentzako Arreta Sistemaren hedapen mailari eta funtzionamenduari buruz sei hilean behin emandako 0 eta 10 arteko puntuazioa. Erkidegoak puntuazio handienetik txikienera ordenatu dira aldagai horretan 2021erako. Koloreak Behatokiaren beraren balorazioari dagozkie.

(**) 2015ean ebaluazioaren metodologia aldatu zen. Aurreko metodologiaren (sistemaren ezarpena) eta metodologia berriaren (sendotzea) arabera puntuazioa eman da.

Behatokiak 2021ean egindako balorazio orokorra positiboa da. Izan ere, Estatuko Gobernuak abian jarritako “Mendetasun Sistema hobetzeko txoke-planak” aukera ematen du Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistema aktibatzeke, ezohiko finantzaketari esker, artatutako pertsonen kopurua handituz eta sisteman lanpostu berriak sortuz.

Estaldurari eta kudeaketa-ereduei dagokienez erkidegoen arteko aldeak mantentzen badira ere, Estatuko batez bestekoa 5,1 puntura iristen da, eta, beraz, aurrerapenak jarraitzen du.

EAEri dagokionez, arreta jaso duten pertsonen kopurua igo ez den Estatuko bakarra dela nabarmendu da, nahiz eta itxarote-zerrendak Estatuko batez bestekoaren gainetik murriztu diren. Era berean, sektorean 500 lanpostu inguru sortu dira, nahiz eta oraindik ez diren pandemiaren aurreko mailak berreskuratu.

2.5. Gizarte aurreikuspeneko sistema osagarriak EAE-n


EAE-n, gizarte aurreikuspen osagarriko sistema pribatuan protagonista nagusiak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta horiek osatzen dituzten aurreikuspen planak dira. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitortpenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren % 92 inguru BGAEetara bideratzen dute. Gainerako % 8a beste forma batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pensio plan eta funtsetara, taldeko aseguru kontratueta, mutualitateetara, etab.

Gizarte Segurantzako sistema publikoen osagarri diren pensio-plan pribatuak dituzten herrialde guztietan bezala, EAE-n bi plan-modalitate handi daude: batetik, enplegu- edo okupazio-aurreikuspenekoak, langileei zuzendutakoak eta enpresaren eta lan-harremanen eremuan bideratzen direnak, eta, bestetik, finantza-erakundeek sustatutako aurreikuspen-plan indibidualak edo kontu pertsonalak: edozein pertsona fisikok egin dezake bat horiekin. Azkenik, gure legerian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen-planak; plan horien bazkideak elkarre bateko, sindikatu bateko, elkargo bateko edo antolakunde bateko kideak dira eta ez daude besteak bezain zabalduta.

2.5.1. Magnitude nagusiak

EAEko borondatezko gizarte-aurreikuspen osagarriari buruz Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak egin duen txostenaren arabera, 2020an (azken datu erabilgarria) EAEko BGAEek 27.257 milioi euroko ondarea zuten. Zenbateko hori % 1,9 handitu da aurreko urtearekin alderatuta, eta aurtengo BPGd-aren % 38,1 da, behin-behineko datuekin. Era berean, erakunde horietan 1,15 milioi pertsona daude kide-tuta edo atxikita (kontuen kopurua kontuan hartuta eta ez pertsonen kopurua, zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat bazkide dauden etenda ekarpenetan), hau da, 2019an baino % 0,8 gehiago.

IV.2.13. GRAFIKOA. EAE-KO BGAE-AK: ATXIKIPEN KOPURUAREN (MILAKOAK) ETA ONDAREAREN (MILIOI EURO) BILAKAERA.



2010aren aldean (urte horretan izan zen atxikipenik kopururik handiena -1,27 milioi-, % 9,7 murriztu da. BGAEen ondareak, berriz, gorantz jarraitu du, % 41,5 hain zuzen ere 2010-2020 aldian. 2020ko abenduaren 31n, Euskadin 71 BGAE zituen, horietatik laneko BGAE ziren, 27 banakoak eta 2 kide-turikoak.

Bazkideen erdiak baino gehiago, % 56, banakako BGAEetan zeuden, eta horien atzetik enpleguak (bazkideen % 43,9). Ondareari dagokionez, % 54,2 enpleguak BGAEei dagokie, eta gainerakoa banakakoei; aldiz, ordaindutako prestazio gehienak enplegu-erakundeetako dagozkie (% 66,9), eta banakakoei (% 30,4). Azkenik, kuotak batez ere banakako BGAEei dagozkie (gutzizkoaren % 53,9), eta gainerakoa enplegukoei (% 46,1).

IV.2.23. TAULA. EUSKADIKO BGAE 2020-12-31KO DATUAK (DATU EKONOMIKOAK EUROTAN)						
	ERAKUNDE BAZKIDEAK	BAZKIDEAK	KUOTAK	ONDAREA	PRESTAZIOAK	ERRESKATEAK
ENPLEGUA	42	502.977	368.490.200	14.761.007.558	450.540.857	2.185.211
BANAKOAK	27	642.476	430.672.287	12.473.271.949	196.650.752	129.131.988
BAZKIDEAK	2	1.414	253.786	22.586.053	156.293	50.243
BGAE, GUZTIRA	71	1.146.867	799.416.273	27.256.865.559	647.347.902	131.367.442

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia eta Ogasun Saila.


2020ko balantze gisa, Euskadiko BGAEen ondarea 27.256 milioi eurotik gorakoa da, eta % 1,9 hazi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Ondare horrek EAEko BPGd-aren % 38,11 hartzen du, eta ratio hori Estatuko batez bestekoa (% 10,5) baino askoz handiagoa da, eta EB-14ko batez bestekotik (% 35,2) hurbil dago. Aldi berean, ELGako batez bestekotik urrun dago, eta Euskadiko BGAEen federazioarentzat % 63,5 da.

IV.2.24. TAULA. EUSKADIKO BGAE MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA (EUROTAN)							
	2016	2017	2018	2019	2020	18/19 ald. %	19/20 ald.%
BAZKIDEAK (ATXIKIPENAK)	1.136.122	1.127.091	1.135.778	1.137.741	1.146.867	0,2	0,8
KUOTAK	671.808.760	697.194.974	727.207.826	775.113.077	799.416.273	6,6	3,1
PRESTAZIOAK	644.081.021	622.105.961	634.923.273	660.591.971	647.347.902	4,0	-2,0
ONDAREA	24.976.018.731	25.708.104.293	24.826.018.697	26.760.090.678	27.256.865.559	7,8	1,9
Gastuaren % BPGd-aren aldean	0,95	1,09	1,11	0,97	1,12		
Gastuaren % BPGd-aren aldean	35,25	33,47	32,32	33,64	38,11		

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Ekonomia eta Ogasun Saila.

Bestalde, esan bezala, atxikimenduak 1,15 milioi eurokoak dira, 2019an baino % 0,8 gehiago. Horietatik % 55,4 gizonak dira eta % 44,6 emakumeak, aurreko urteetako antzeko kopuruetan. Eusko Jaurlaritzaren txostenak nabarmentzen duenez, BGAEen artean dauden bikoiztasunak ezabatuz gero, atxikipen-zifra hori babestutako 833.552 pertsonari egokituko litzaieke, 2019an baino % 0,4 gehiago.

IV.2.14. GRAFIKOA.-AURREIKUSPEN PLANAK DITUZTEN BGAE-EN BAZKIDEEN BANAKETA, ADIN-TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2020.




Gainera, bazkideen %12,5ek 65 urtetik gora dituzte, eta 65 urtetik beherako pertsonak soilik kontuan hartzen badira, haien batez besteko adina 49 urtekoa da (2019. urteko datu bera), eta kopuru hori berdina da bi sexuetan. Kolektibo horren % 31,5ek 46 urte baino gutxiago ditu; % 44,6, berriz, 46 eta 60 urte bitarteko adin-tartean dago, eta % 11,4, azkenik, 60 eta 65 urte bitartean.

Kuotak edo ekarpenak, berriz, 2020an 799,4 milioi eurokoak dira guztira, eta % 3,1 igo dira 2019. urtearekin alderatuta. Genero-ikuspegiaren arabera portaera aurreko ekitaldikoaren antzekoa izan da. Izan ere, sistemari egindako ekarpenen % 60 gizonek ordaindu dituzte, eta % 40 emakumeek.

Ekarpen horien zenbatekoari dagokionez, % 52k 900 €-tik beherako ekarpenak egin zituen. Emakumeen kasuan, portzentaje hori % 56ra iritsi zen, eta gizonen kasuan, berriz, % 49ra. Beste muturrean, 1.800 €-tik gorako ekarpenak kolektiboaren % 29k egin zituen, eta % 33ra iristen da ekarpenak egiten dituzten pertsonen artean, enpleguko BGAEei soilik erreparatzen badiugu³⁴.

Bestalde, BGAEek ordaindutako prestazioak 647,3 milioi eurotik gorakoak dira. Datu hori 2019koa baino % 2 txikiagoa da. Batez besteko zenbatekoa 9.519,54 € da, eta datu hori sexuaren arabera kalkulatu bada, gizonen jasotako batez besteko zenbatekoa emakumeek jasotakoa baino % 46 handiagoa da (11.075,39 € eta 7.594,53 €, hurrenez hurren). Gainera, prestazioetan ordaindutakoaren % 75 erretiro-kontingentziari dagokio, eta % 17 erakundeetan sartutako pertsona baten heriotzari. Gainerako % 8a ezintasun iraunkorrari eta iraupen luzeko langabeziari dagokie.



Era berean, 2020an guztira 131,4 milioi euro erreskatatu ziren; aurreko urtean, berriz, 141,7 milioi euro, hau da, %7,3 egin zuen behera³⁵. Generoaren ikuspegitik, erreskateekin pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da, hau da, 2020an erreskatatu duten gizonen ehunekoa % 56 da, eta jasotako ehunekoa, berriz, % 60.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren txostenak batera aztertzen du ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera, eta adierazten du ekarpenengatik bildutakoaren eta ordaindutako prestazioen baturaren eta aurreikuspen-planetan

³⁴ Kontuan izan behar da, Eusko Jaurlaritzaren txostenak adierazten duen bezala, 1.800 €-ko zenbateko hori 30.000 €-ko urteko soldata gordinaren % 6 dela. Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Planean jasotzen denez, urteko soldata gordinaren % 6ko ekarpenak egin behar dira 37 urtez, erretiroa hartu aurreko soldataren % 20ren pareko pentsioa lortzeko.

³⁵ BGAEei aplikatu beharreko araudiak aukera ematen die modalitate individual edo elkartuko BGAEetako bazkideei hamar urtetik gorako antzintasuna duten eskubide ekonomikoak alde aurretik eskuratzeko.

Bestalde, enplegu-modalitateko BGAEek ez dute baimentzen hamar urterako erreskatea, salbuespen iragankor batekin: xedapen aurreratua aukera hori BGAEei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legea indarrean sartzean erreskate-aukera hori zuten planek soilik jasotzen dute, eta data horretan zeuden eskubide ekonomikoengatik.

egindako erreskateen arteko aldeak saldo negatiboa duela 2016-2019 aldian. 2019an 27,2 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako, aurreko urtean baino % 56,2 gutxiago.

2020an, saldoa positiboa izan da lehen aldiz 2013tik, 20,7 milioi euroko balioarekin; izan ere, alde batetik, ekarpenak hazi egin dira eta prestazioak murriztu egin dira, eta, bestetik, erreskateengatik ordaindutako zenbatekoak urtez urte beherantz jarraitzen du, IV.2.25. taulan ikus daitekeen bezala.

IV.2.25. TAULA. EUSKADIKO BGAE EKARPENEN, PRESTAZIOEN ETA ERRESKATEEN BILAKAERA (EUROTAN)							
	2016	2017	2018	2019	2020	% 18/19	% 19/20
1. EKARPENAK	671.808.760	697.194.974	727.207.826	775.113.077	799.416.273	6,6	3,1
2. PRESTAZIOAK	644.081.021	622.105.961	634.923.273	660.591.971	647.347.902	4,0	-2,0
3. ERRESKATEAK	181.367.000	162.161.658	154.346.121	141.713.727	131.367.442	-8,2	-7,3
1. SALDOA (2+3)	-153.639.261	-87.072.645	-62.061.567	-27.192.621	20.700.929	-56,2	-176,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. Ekonomia eta Ogasun Saila.

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzaren txostenak Finantza Politikako zuzendariaren 2020ko martxoaren 25eko Ebazpenak BGAEren eremuan duen eragina aztertu du. Ebazpen horren bidez, ABEE edo EEE baten pean dauden BGAEetako bazkideei langabezia-prestazioa kobratzeko baimena ematen zaie COVID-19aren inpaktuaren ondoriozko ezinbesteko arrazoiengatik. Aukera horrek, kobratzeko eskatzen diren baldintzen malgutasunarekin batera, aukera eman die pertsona jakin batzuei COVID-19aren inpaktuaren ondorio ekonomikoaren zati bat arintzeko.

Horri dagokionez, iraupen luzeko langabeziaren kontingentzia estaltzen duten banakako modalitateko eta enplegu-modalitateko BGAEek jakinarazi zuten, 2020ko abenduaren 31ra arte, 826 langabezia-prestazio ordaindu zituztela, aipatutako ebazpenean ezarritako baldintzak betez. Banakako modalitateko BGAEetan 627 prestazio eman ziren, hau da, prestazio gutzien % 76.

Prestazio horien zenbatekoa 997.195,85 € da. Zenbateko horretatik, % 57 banakako modalitateko BGAEetan egin zen. Genero-ikuspegiari dagokionez, egindako prestazioen % 37 emakumeei dagokie. Hala ere, emakumeek prestazio horien zenbatekoaren % 27 baino ez dute jaso.

2.5.2. Zerga araubidea

BGAEek EAEn izan duten garapen handiaren arrazoietakoa bat, neurri handi batean, zerga pizgarriak izan dira; izan ere, aurrezte bide horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere PFEZren bitartez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bitartez ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte hartzea bultzatzeko).

EAEn, zergari buruzko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiak eta batzar nagusiek erabiltzen dituzte. Oro har, bazkideek egindako ekarpenen zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarririk ken daitezke³⁶. Bestalde, errenta geroratutzat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna jazo aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren etekin osotzat jotzen dira, baita atxikipenari begira ere.

IV.2.26. TAULA. PFEZ-REN LIKIDAZIOA: PENTSIO-PLANETARAKO ETA BGAE-ETARAKO EKARPENENGATIKO ZERGA-OINARRI OROKORRAREN MURRIZKETAK				
	ZENBATEKOA (MILA €-TAN)	AITORTZAILEAK		B. BESTEKO MURRIZKETA (€)
		KOPURUA	GUZTIE KIKO %	
2014	650.214	356.947	34,0	1.822
2015	647.360	344.683	31,1	1.878
2016	670.098	343.690	30,8	1.950
2017	699.035	349.538	31,1	2.000
2018	735.444	398.184	35,1	1.847
16/17 (%)	4,3	1,7	1,0	2,6
17/18 (%)	5,2	12,9	13,9	-7,7

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOAAREN datuak erabiltuta egindakoa.

³⁶ Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, bazkidearen eskubide irmoak zerga horren aitortpena aurkeztu behar den erabakitze baina ez dira zenbatzen, eskubide salbuetsitatzat jo eta, beraz, ez dute haren zerga-oinarrria osatzen. Prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, % 40ko kenketa dakar, eta errenta bada, aldiz, oso-osorik sartzen da zerga-oinarrrian.

Zergak Koordinatzeko Organoak 2019ko txostenetik aurrera 2018ko PFEZaren likidazioari buruz emandako datuen arabera³⁷, BGAEetara egindako ekarpenen eta gainerako aurreikuspen-formulen ondoriozko murrizketa 735,4 milioi eurokoa izan zen, 2017an baino % 5,2 gehiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 0,96 da urte horretan (% 0,95 2017an), guztira 398.184 aitortzaile izanik, aurreko urtean baino % 13,9 gehiago, aitorten-egileen % 35,1 hain zuzen.

Lurraldeka, Arabak aitorten-egileen % 13,4 eta zerga-oinarriaren murrizketen gutzitiko zenbatekoaren % 14,9 hartzen du (53.191 aitorten-egile eta 109,9 milioi euroko murrizketa); Bizkaiak, berriz, aitorten-egileen % 43,7 eta murrizketaren % 44 ditu, eta Gipuzkoak aitorten-egileen % 42,9 eta zenbateko murriztuaren % 41,1.

Zenbateko horrek 1.847 €-ko batez besteko murrizketa dakar, aurreko ekitaldiko batez besteko murrizketa baino % 7,7 txikiagoa, eta 1.252 €-tik 1.252 €-ra aldatzen da errenta-maila baxuenen batez besteko ekarpen gisa (likidazio-oinarriko 30.000 eurora arte), non zergadunen % 26,3k soilik egiten baititu ekarpenak, zergadunen batez besteko ekarpenaren 2.379 euroak 30.000 eta 90.000 € bitarteko oinarriekin, eta % 56,6 eta % 4 bitarteko ekarpenak egiten dituzten zergadunen batez besteko ekarpenak, non ekarpenak egiten dituzten zergadunen portzentajea % 62,1 baita.

GIZARTE BABESA ITURRIAK

1. **EUSTAT (2021)**: Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika. 2019ko datuak.
2. **EUSTAT (2022)**. Gizarte Babesaren kontua EAEn. 2020ko datuak.
3. **EUSKADIKO BGAE-EN FEDERAZIOA (2022)** 2021eko IV. Hiruhilekoaren estatistika-datuak
4. **EUSKO JAURLARITZA (2016)**. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019
5. **EUSKO JAURLARITZA (2021)**. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren Ebaluazioa 2016-2019
6. **EUSKO JAURLARITZA (2017)**. Inklusio Aktiborako III. Plana 2017-2021
7. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2021)**. Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriari buruzko txostena. 2020. urtea.
8. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA INKLUSIO ZUZENDARITZA (2022)**. *“Gizarte bazterketaren kontrako borroka Euskadin 2020”* txostena.
9. **IMSERO (2022)**. Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) estatistika informazioa. 2021eko abenduaren 31ko datuak.
10. **IMSERO (2022)**. Kotizazio gabeko pentsioei buruzko estatistika-informazioa (KGP). 2021eko abendua
11. **GZIN. DATU-BASEA (2022)**. 2021eko abendua
12. **LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua (2022)** DSBEn hileko txostena. 2021eko abendua
13. **GIZARTE ESKUBIDEEN ETA 2030 AGENDAREN MINISTERIOA (2021)**. Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko Txostena 2020.
14. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA (2022)**. Lan-estatistikei buruzko Buletina. 2021eko abendua.
15. **MENDETASUNAREN BEHATOKIA (2022)**. Behatokiaren XXII. Irizpena. 2021eko abenduaren 31ko datuak.
16. **EUSKO JAURLARTZIAREN ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA (2022)**. 2009ko urteko txostena.
17. **“GIZARTE SEGURANTZA” ALDIZKARI DIGITALA 2021EKO ABENDUA** BGD estatuan ezartzeari buruzko datuak.
18. **GZDN (2021)**. Urteroko memoriak. 2020. urtea.

³⁷ Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, bazkidearen eskubide irmoak zerga horren aitortpena aurkeztu behar den erabakitze baina ez dira zenbatzen, eskubide salbuetsizat jo eta, beraz, ez dute haren zerga-oinarria osatzen. Prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, % 40ko kenketa dakar, eta errenta bada, aldiz, oso-osorik sartzen da zerga-oinarrian.

3. GIZARTE BABESA LABURPENA ETA ONDORIOAK

3.1. LABURPENA

3.1.1. Bizi baldintzak

Memoria sozioekonomikoaren kapitulu honek, lehenengo atalean, EAEko biztanleriaren bizi-baldintzen zifra adierazgarri nagusiak aurkeztu dizkigu, COVID-19aren pandemia agertu aurreko unean, baita estatuko eta Europako testuinguruan duen kokapen konparatiboa ere. Zifra horiek aurreko bi urteetan okertze-zantzu batzuk erakusten bazituzten ere aurreko aldiko hobekuntzaren aldean, 2020ko datuek ez dute adierazten Euskadiko bizi-baldintzen okerragotzerik. Are gehiago, adierazleen zati handi batek bilakaera oso onak erakusten ditu.

Lehenik eta behin, 2008an hasitako krisiaren ondorioz, pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dauden EBko biztanleen ehunekoa nabarmen handitu zen, eta maximoa 2012an lortu zuen, % 25 inguru, eta poliki-poliki behera egin du harrezkero 2019ra. Pobrezia- edo bazterketa-arriskuak 2020an (eskuragarri dagoen azken datua) biztanleriaren % 22ri eragiten dio, edo, bestela esanda, EBko 96,8 milioi herritarrei, Europa 2020 Estrategian finkatutako irizpideen arabera, **“AROE Tasa” (population at risk of poverty and exclusion)** izenekoan. 2019aren aldean, 1,1 hamarren egin du behera Batasunerako batez besteko tasak (eraginpeko 5,2 milioi lagun gutxiago), eta, beraz, intzidentzia EBko zazpi herrialdetan handitu 18. Espainian, 2020ko ratioa % 26,4koa da, Europako batez bestekoa (12,4 milioi pertsona) baino 4,4 puntu handiagoa, eta 1,1 hamarren handitu da aurreko urtearekin alderatuta.

EAEn (munduko testuinguruan 12. postuan mantentzen da, Singapur eta Erresuma Batuen artean, NBEren Giza Garapenaren Indizearen sailkapenaren arabera), pobrezia- eta bazterketa-arriskuak biztanleriaren % 13,9ri eragiten dio 2020an (EUROSTAT eta EINen metodologiaren arabera), edo, bestela esanda, 305.000 pertsonari (nahiz eta interes handikoa izango litzatekeen, ez dago sexuaren araberako informaziorik) 2008ko batez bestekoa puntu erdi gutxiagoko intzidentzian. Hala, tasa hori nahiko baxua da Europarekin alderatuta, eta Esloveniakoarekin aldera daiteke (%14,8), Europar Batasuneko bigarren tasarik baxuena baitu, Txekiar Errepublikaren (% 11,9) ondoren.

EAEk Europako testuinguruan duen posizio konparatiboa oso positiboa da AROPE tasa osatzen duten hiru elementuetan, eta adierazi behar dugu azken urtean (2019-2020) elementu horien bilakaera irregularra izan dela (lehen ez da aldatu, bigarrena okertu egin da eta hirugarrena hobetu egin da), eta ez dela beti guztiz bat etorri joera orokorarekin:

1. EBko biztanleen % 17,1 *pobrezia-arriskuan* zegoen 2020an, gizarte-transferentzien ondoren. Egoera horretan dago, kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarreraren banaketaren medianaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituelako herrialde bakoitzean ("pobrezia-atalasea" deritzona. Horrenbestez, herrialde bakoitzean, gutxieneko errenta-atalase horretara iristen ez den biztanleriaren ehunekoa neurtuko luke, hau da, "pobrezia-atalasea" ere deritzona). Ehuneko hori hamarren bat gutxitu da 2019 urtearekin alderatuta, eta bost pertsonatik bat baino gehiago egoera horretan dago Bulgarian (% 23,8), Errumanian (% 23,4), Letonian (% 21,6), Espainian (% 21), Lituanian (% 20,9) eta Estonian (% 20,7) Ratorik txikiak Txekiar Errepublikan (%9,5), Eslovakian (%11,4), Finlandian (%12,2) eta Danimarkan (%12,1) zeuden. EAEn, tasa % 10era iristen da 2020an, azken urtearekiko intzidentziari eutsiz (+9 hamarren, 2008arekin alderatuta).
2. 2020an, EBko herritarren % 6,3k *gabezia material larria* izan du. Izan ere, baliabiderik ezak eragindako bizi-baldintzak dituzte, hala nola fakturei aurre egiteko gaitasuna (etxeko ohiko gastuei buruzkoak), etxea bero edukitzea edo urtean astebeteko oporraldia hartu ahal izatea. Ratio hori 8 hamarren igo da azken urtean, baina 2008ko % 8,5etik behera dagoen. Batasunean, gabezia horren intzidentzia asko aldatzen da herrialdeen artean,

Suediatik eta Luxenburgotik (% 2tik beherakoak) Bulgariara (ia % 20ra iristen da), eta azken urtean horietako talde handi batek okerrera egin du emaitzetan. Espainiak % 7ko tasa du (2019an baino 2,3 hamarren gutxiago), eta EAEk % 5koa (% 3,5 2019an), hau da, 110.000 pertsona (aurreko urtean baino 34.000 gehiago). 2008-2020 aldia aztertuta, bilakaera negatiboa izan du, % 2,8tik % 5era.

- 2020an, EBko biztanleen % 8,5 lan-intentsitate oso baxuko etxeetan bizi zen. Izan ere, egoera hori dela jotzen da etxeko 59 urte baino gutxiagoko helduek azkenengo urtean gutzitzko lan-ahalmenaren % 20 baino gutxiago lan egiten dutenean (2019an baino 2 hamarren gehiago eta 2008an baino 7 ehunekoazko puntu gutxiago). Grezia (% 12,8), Irlanda (% 12,5) eta Belgika (% 11,9) Batasunaren rankingeko buru dira, eta Polonia, Eslovakia eta Eslovenia % 5 etik behera daude. EAEn datuak puntu egin du okerrera (behera) azken urtean, eta 2020an % 7,4ra iritsi da (162.300 pertsona, 2019an baino 61.700 gehiago), EBko batez bestekoaren gainetik (% 8,5) eta 2008koa baino 9 hamarren gehiago.

Bigarrena 2020ko **Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren** (PGDI) inkestaren emaitza nagusia honako hau da: 2016 eta 2018 artean prekariedade-adierazle orokorrek oro har okerrera egin zuten arren, azken biurtekoan hobekuntza nabarmena ageri da PGDI adierazleetan, bai ongizaterik ezari dagokionez, bai pobrezia hertsiaeren arriskuari dagokionez. Aztertzen diren aldagaiei dagokienez, honako hau nabarmenduko dugu:

- Mantentze-pobreziaren arriskuari** dagokionez, PGDIk % 8ko intzidentzia aurreikusten du 2020rako (2018ko ratio bera) eta 174.176 pertsona eraginpean hartzea. 2018ko % 8ak pobreziaren eragina handitzea ekarri zuen, 2016ko % 7,1a eta 2012ko % 7,3a gaudituta. 2008ko datuekin alderatuta, pobrezia-tasak +2,3 puntu handiagoa izaten jarraitzen du eta 52.301 pertsona gehiago ukitzen ditu (urte horretan ukitutako pertsonen zifra 121.875 zen). Horrez gain, ongizaterik ez egoteko arriskua (gurea bezalako gizartean itxaroten den gutxieneko ongizate-maila mantentzeko eskatzen diren gastu-beharrekin lotzen dena), handitu egin da 2018 eta 2020 urteen artean. Hala, % 22,4tik % 19,6ra pasa da.
- Metatze-pobreziaren arriskua** epe ertainean eta luzean bizi-baldintza onargarriak finkatzeko gaitasunik ezarekin eta ezohiko gastu-premiei aurre egiteko edo diru-sarrerarik eza ordeztzeko erreserbako gutxieneko ondarea izateko gaitasunik ezarekin lotzen da. Arrisku horrek beheranzko ildo historikoa berreskuratzeko dinamika erakutsi zuen 2014-18 aldian, % 0,9raino jaitsita, eta berriz % 0,3raino jaitsi da 2018 eta 2020 artean. 2020an, pobrezia mota horrek ukitutako pertsonen kopurua 7.506 izan da, 2008ko 32.838 pertsonak baino % 77,1 gutxiago. Gainera, bilakaera hain positibo hori beste prekariedade modu batzuetara hedatzen da metatze-dimentsioan: dimentsio horretako ongizaterik ezaren moduek 2020an biztanleriaren % 13,9 hartzen dute (302.102 pertsona), 2018an baino 6,3 puntu gutxiago eta 2018koa baino 4,7 gutxiago (% 18,6).
- Arrisku-problematika edo -egoerak ez direnez automatikoki benetako **pobrezia- edo estutasun-bizipen bilakatzen, PGDI**n benetako pobreziaren adierazlearekin osatzen dute azterlana, hau da, arlo batzuetako bizimodu egokiak beste arlo batzuetako gabeziak orekatzen ez dituen egoerak zehazten dituzte. 2016-2018 biurtekoan okerrera egin ondoren, benetako pobreziaren tasa 2018ko % 6,1etik 2020ko % 5,6ra jaitsi da, eta horrek esan nahi du aurreko urteetako beheranzko joerari heldu zaiola berriro. Hala ere, benetako pobreziaren intzidentziak 1,4 puntutan gaintitzen du oraindik, 2008ko minimoa (% 4,2). Kopuru absolutuetan, benetako pobrezia 121.502 pertsonari eragiten die 2020an, 2018koa baino % 7,2 txikiagoa (130.965) eta 2008koa baino % 35,4 gehiago (89.706).

Adierazle horren bilakaerari dagokionez, halaber, emaitza hauek nabarmendu behar dira:

- ✓ *EAEko biztanleriaren banaketa aztertzen badugu ongizate-pobrezia eskalan duen posizioaren arabera, benetako pobrezia adierazle hori kontuan hartuta, ikusten da 2020an EAEko biztanleriaren erdia (% 49,7) erabateko ongizatean dagoela, PGDIk darabilen serie historikoko proportzio handiena (eta 1996an baino ia % 150 handiagoa). Gainera, 2018-2020 aldian aldaketa gertatu zen aurreko bi urteen aldean: pobrezia eragindako taldeen eragina handitu zen, eta bestelako ongizate-gabeziak eta ongizateaz gozatzeko mugatzen duen arriskuak handitu ziren. Kategoriok biztanleen % 25,3ri eragin zion 2018an, eta % 24,2ra arte handitu zen 2020an, haietako batek gora egin zuelako. Eusko Jaurlaritzak egindako inkesta horren emaitzen txostenak nabarmentzen du dinamika horren ondorioak garrantzitsuak direla. 2016-2018 aldian ez bezala, 2018-2020 aldian berriro nagusitzen dira goranzko mugikortasun-prozesuak euskal gizartean.*
- ✓ *Lurraldeei dagokienez, 2020an nabarmendu beharreko alderdi nagusia lurralde historikoen artean ikusten den bilakaera desberdina da; izan ere, benetako pobrezia hazkunde txikiak izan ditu Araban eta Gipuzkoan, eta Bizkaiko egoera nabarmen hobetu da. Eskualdeen araberako hurbilketak erakusten duenez, bilakaera-polo onenaren barnean, benetako pobrezia tasen beherakadak, oso esanguratsuak, hiru eskualdetan biltzen dira: Bilbo, Ezkerraldea eta Bizkaia-Kosta. Bilbok, nahiz eta 2020an, Debabarrenarekin batera, benetako pobrezia-tasa handiena izan, behera egin du % 10,1etik % 8,2ra azken biurtekoan, eta bilakaera are positiboagoa da Ezkerraldean; Ezkerraldearen benetako pobrezia-tasa % 7,7tik % 4,6ra jaitsi da. Bizkaia-Kosta, bestalde, askoz ere posizio hobean dago, 2 puntu jaitsi baita, % 2,6raino. Beste muturrean, 2018-2020 aldiko bilakaera okerrera EAEko gutxien urbanizatutako eskualdeei dagokie (Aiaraldea, Durangaldea, Debabarrena eta Tolosa-Goierri), benetako pobrezia-tasa 1,6-2,9 puntu igo baita. Hirugarrenik, nabarmentzekoa da COVID-19ak eragindako krisiaren eragin diferentziala Gasteizko eskualdean. Izan ere, benetako pobrezia nabarmen egin du gora 2018ko % 6,9tik % 7,7ra.*
- ✓ *Inkesta honetako hurbilketa sintetikoa eginez, benetako pobrezia-egoeren % 73,8 lau etxeko unitate mota espezifikori dagokie 2020an: EBTik kanpoko atzeritarren etxeko unitateak (% 41,7), lanik egonkorrik gabeko emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak (% 14,9), horietatik % 9,7 45 urtetik gorakoak izango lirarteke, eta % 5,2 adin horretatik beherako lan egonkorrik gabekoak (6 urtetik beherakoak) eta % 11,2 bakarrik dauden pertsonak (% 11,2), eta % 9 urtetik beherakoak. Pobrezia-tasak % 20ko atalera iristen dira edo gainditzen dute ia kasu horietan guztietan, lan egonkorrik gabeko 45 urtetik beherako familia-taldeetan izan ezik, % 15,8 baitira, betiere batez bestekoaren gainetik argi eta garbi.*

Bestalde, EINen "**Bizi-baldintzen inkestako**" 2020ko zifrek, ez dute joera argirik adierazten, hobera egiten duten eta okerrera egiten duten adierazle batzuk erakusten baitituzte:

- Bilakaera positiboa dutenen artean, bai errenta pertsonala bai familiara % 3,4 eta % 3,3 hazi dira hurrenez hurren, Estatuko batez bestekoa baino proportzio handiagoan. Bestalde, eta aurreko urtean ez bezala, murriztu egin dira hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituzten familien ehunekoak (% 38,2tik % 32,4ra), ezusteko gastuei aurre egiteko ezintasuna dutela adierazten dutenenak (5 puntu jaitsi dira % 20,2ra), edo etxebizitza nagusiko ordainketen atzerapenak (2019an familien % 7,3 eta 2020an % 6,8).
- Datu negatiboetan, eta aurreko urtean ez bezala, 2020an gora egin du pobrezia energetikoak eragindako familien ehunekoak (%5,6tik %8,1era) eta gutxienez bi egunean behin haragi, oilasko edo arrain otordu bat egiterik ez duten familien ehunekoak (% 1,7tik % 2,9ra). Pobrezia energetikoarekin batera, adierazle horrek adierazten ditu, ziur asko, zailtasun eta gabezia handienak.

Bestalde, EAEko *familia-sistemen* tipologia nabarmen aldatu da azken hamarkadetan, prozesu demografiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, hauek daude: etxe moten aniztasun gehiago; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziazko pertsonen profilean; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea.

Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko eta laneratzeko adin aproposak bat datozenez gero, emakumezko gazteak egoera zailean daude, seme-alabak izateko erabakiari dagokionez betiere.

EUSTATEk "*Lana, norberaren bizitza eta familiarra uztartzeari buruzko inkesta*" egin du. Inkesta horren 2019ko emaitzak nabarmentzekoak dira: etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gizonek baino % 35,3 ordu gehiago ematen dituzte egunean seme-alaba adingabeak zaintzen, eta % 43,8 gehiago mendeko pertsonak zaintzen; gainera, lankideek baino % 37,5 denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan. Gizonezkoek 3,4 ordu ematen dituzte egunean adingabeak zaintzen (3,3 2019an) eta emakumezkoek, aldiz, 4,6 (4,7 2019an). Alde hori dezente handiagoa da mendeko pertsonen zaintzari dagokionez; jarduera horretan egunean 1,6 ordu ematen dituzte gizonek (2019an 1,5) eta 2,3 ordu emakumeek (2019ko datu berak). Gainera, emakumezkoek, batez beste, 2,2 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, gizonezkoek, aldiz, 1,6 ordu (2,1 eta 1,5, hurrenez hurren, 2019an).

Batez besteko horiek batuz gero, emakumeek etxeko lanetan eta zaintza-lanetan ematen duten eguneko denbora 9,1 ordukoa izango litzateke, eta gizonek, aldiz, 6,6 ordukoa. Horrek % 37,9ko arrakala erakusten du. Ratio hori % 50,8 zen 2018an, eta % 44,4koa 2019an. Beraz, arrakala horretan beheranzko joera ageri da. Bere gain hartutako kargen desberdintasun horrek etxeko lanen banaketarekiko asebetetze-mailari eragiten dio; izan ere, emakumeek, batez beste, 10etik 5,9ko asebetetze-maila adierazten dute beren ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiteko eskaintzen duen lankidetzari buruz, eta gizonek 7,4koa.

Enpresan edo erakundean baimen jakin batzuk eskatzeko zailtasunari dagokionez, datuek erakusten dute zailtasun horiek, 2017ra arte handitu ondoren, murrizten ari direla orduetik, aztertutako aldagai gehienetan. EUSTATEn Inkestaren arabera, pertsona landunek, batez beste, 10etik 3,4ko zailtasun-maila aitortzen dute (2,6 2010ean), eta 2,7koa, zehazki, norberaren kontuetaarako lanera ez joateko baimena lortzeko (1,4 2010ean). Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea errazteko neurrien barruan, eszedentziek 3,8ko batez besteko zailtasuna dute (3,2 2010. urtean), lanaldi-murrizketak ere 3,8koa (3,2 2010ean), eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 10etik 3,2ko zailtasun-indizea dute (2,4 izan zen 2010. urtean).

Bestalde, oro har, ez da sexuaren araberako alderik ikusten, eta adinak, seguruenik lanpostuko antzinatasunarekin lotuta, aipatutako uztartze-neurriak eskuratzeko zailtasunak murrizten ditu. Hala ere, emakumeen artean gizonen artean baino beldur handiagoa dago kontziliazioarekin lotutako alderdiek beren ibilbide profesionalean eragin negatiboa izan dezaten (emakumeen % 30,5 eta gizonen % 26,5).

Aipaturiko neurri horietan (eszedentzien eta lanaldi-murrizketen eskaerak) gizonek izan duten parte-hartzea oso txikia izan da, eta, gainera, ez da asko aldatu azken urteotan. Hala, Eusko Jaurlaritzari adingabeak zaintzeko eszedentzia hartzeko edo lanaldia murrizteko laguntzen eskaeren % 11,2 soilik sinatu zituzten gizonek 2020an. Gauza bera esan liteke mendetasuna duten senitartekoak zaintzeko laguntzei dagokienez, nahiz eta horietan gizonen partaidetza-ratioak pixka bat handiagoak diren (2020. urteko eskaeren % 15,5), Eusko Jaurlaritzaren datuekin Legebiltzarrerako egindako txosten batean.

Ordutegi motei eta malgutasunari dagokienez, EUSTATEn LBBik adierazten du 2020an EAEko langileen % 23,5ek lanaldia ia egunero luzatu behar dutela (eta % 18,4k batzuetan). 2019. urteari dagokionez, lanaldia luzatu behar duten pertsonen ehuneko 5,5 puntu igo da, ohiko edo noizbehinka. Ildo beretik, EUROSTATEk "*Lanaren antolamenduari eta lanaldiari*" buruz egindako inkestaren arabera, 2019an EBko langileen % 21ek lanaldia egokitu behar zuten beren lanaren eskakizunetara (gehituz, suposatzen dugu) astean behin eta % 19 gehiagok hilean behin (ratioak % 13 eta % 10 dira Espainian, hurrenez hurren).

LBBIren arabera, ordutegi malgua, kontziliazioa hobetzeko tresna osagarria, EAEko langileen % 32,6k baliatzen dute (% 42,7k 2019an), eta neurri txikiagoan emakumeek (% 29,3) gizonek baino (% 35,6). Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, % 7,3k lantzean behin egiten du lan etxean eta %10,8k egun erdia gutxienez. Oro har, beraz, enplegua duten pertsonen % 15,5ek noizean behin edo maizago egiten du lan etxean (% 12,6 2018an), eta ratio hori nabarmen handituko da 2020an, COVID-19aren ondorioz³⁸.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertaroko eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera. III. Planaren bilakaera familien aldeko politikei buruzko gogoetarako abiapuntua izan zen, baita 2018an EAEko administrazio guztietarako sinaturiko "Familien eta haurren aldeko ituna" sinatzeko ere. Itun hori diagnostiko partekatu batean oinarritzen 2018-2022 aldirako Familiei Laguntzeko IV. Plana diseinatzeko balio izan duena. Oraindik ez dago horri buruzko informazio zehatzik atal hau amaitu zenean.

Aurrekontu-betearazpenari buruzko informazioari dagokionez, badakigu 2020an Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta aniztasuneko Zuzendaritzak 29,12 milioi euro bideratu zituela guztira familiei transferentziak egiteko, 2019an baino % 38,8 gutxiago; horietatik 14,89 milioi seme-alabak dituzten familientzako laguntzei dagozkie (guztizkoaren % 51,1) eta 14,23 milioi kontziliaziorako laguntzei (guztizkoaren % 48,9). Bestalde, 2021erako behin-behineko datuek adierazten dute nabarmen igo dela familientzako laguntzetara bideratutako zenbatekoa. Azarorako aurrekontu eguneratua 66,8 milioi eurokoa da, 2020an likidatutako zenbatekoa baino % 129,5 gehiago

Azkenik, Txostenak **bizitegi-bazterketaren** fenomenoaz aztertu du. Nahiz eta fenomeno berria izan, krisi ekonomikoarekin egunerokotasuna hartu du eta Europar Batasunak lehentasunezko zat jotzen duen pobrezia eta gizartearen kontrako borroka lotutako agenda politikoan, 2020rako Estrategia Europarraren esparruan. Egoera hori are larriagoa da COVID-19aren pandemiak eraginda, eta, horren ondorioz, Europako erakundeek [Lisboako Adierazpena](#) sinatu zuten 2021eko ekainean, etxegabekoen aldeko borroka Europa sozialerako lehentasun zat berresteko. Zehazki, Etxegabetasunari aurre egiteko Europako Plataforma bat eratzea erabaki da, Europan gaiari buruzko ulermen komuna eraikitzeko, bai erakunde publiko nazionalen mailan, bai gizarte zibileko tokiko eragile eta erakundeen mailan, azken horiek zuzenean inplikaturik baitaude kalean bizi diren pertsonen arreta emateko politiken ezarpenean.

Egoitza-bazterketa larrian dagoen pertsona kopuruari dagokionez, EAEn bizi direnean artean, haien ezaugarri demografikoak eta bizitza-baldintzak eta bizitza-ibilbideak ezagutzeko, Eusko Jaurlaritzak "EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko V. azterlana" egin zuen 2020an. Horri esker, 2012tik egiten dituen zenbaketen jarraipena egiteko aukera izan zuen. Hona hemen emaitza nagusiak:

- Guztira, 2.797 pertsona zenbatu ziren bizitegi-bazterketa larrian, eta 2018an, berriz, 2.320. Oso gutxi ziren (% 5,8) zenbaketa data etxean konfinatu arren kalean jarraitzen zuten pertsonak. % 12,5 aterpetxeetan eta harrera arrunteko zentroetan zegoen, eta % 30,2 pandemiarako ezarri ziren establezimendu berezietako batean. Era berean, identifikatutako pertsonen % 6 indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-zerbitzuetan bizi zen, eta % 45,4 gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran daudenezako gizarte-zerbitzuetako hainbat baliabidetan.

³⁸ Ikusi Memoria honetako III. kapituluko ("Enplegua eta lan-harremanak EAEn") atal egokia.

- Zenbatutako pertsonen artean, gehienak gizonak ziren (% 91), eta aurreko txostenekin alderatuta, emakumeen proportzioa murriztu egin da (2016an kolektiboaren % 16 ziren, eta 2020an, berriz, % 9). Gainera, kolektiboaren % 53 eta % 47 atzerritarra da, eta 45 urtetik gora ditu. Aurreko azterketekin alderatuta, bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonak zaharragoak dira 2020an, eta gutxiago dira atzerritarrak.
- EAEko hiriburuetakoko egoerari dagokionez, egoera horien goranzko joera berretsi da, bereziki Bilbon eta askoz ere leunago Gasteizen eta Donostian. Horrela, Bilbon 694 pertsona zenbatu dira kalean, ohiko aterpetxeetan edo COVIDak espezifikoki egindakoetan, 2018an baino % 68 gehiago, hau da, hiru hiriburuetakoko kolektiboaren % 61,4. Gasteizen eta Donostian, aldiz, kontabilizatutako kolektiboak gora egin badu ere, aurreko bi urteekiko hazkunde-tasak txikiagoak dira, % 37,4 eta % 14,8, hurrenez hurren.
- Kolektiboaren ezaugarriari dagokionez, % 40k baino gehiagok, gehienez ere, urtebete daramate etxetik gabe, eta, etxea galdu aurretik, % 42) etxean edo etxebizitza partekatu batean bizi zen. Hamarretik bat erakunde itxi batetik dator, eta hamarretik bi adingabeentzako harrera-zentroetan egon ziren haurtzaroan eta/edo nerabezaroan. Pertsona horien % 85ek harreman motaren bat du familiakoekin, eta % 30ek bakarrik igarotzen dute egunaren zatirik handiena. Lan-jarduerari dagokionez, %16k egiten du lanen bat. Pertsona horietako gehienak emakume etorkinak dira, garbiketa- eta/edo zaintza-lanak egiten dituztenak. Gizonek, berriz, mantentze- eta erreformatze-lanak egiten dituzte, txatarra saltzen dute edo landa-lanean dihardute.
- Dena dela, bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen heren bat muturreko prekarietate ekonomikoko egoeran dago, eta gehienak gizon atzerritarrak dira. Gainera, bizitegi-bazterketan dauden hamar pertsonatik bik baino ez dute DSBE jasotzen, eta heren batek ere ez dute ezagutzen. Gizarte-zerbitzuei dagokionez, osasun-arretako zerbitzuak eta Lanbideak ematen dituenak dira erabilienak, ostatu-zerbitzuez gain.
- Azkenik, osasun-arrakala handia dago biztanleria osoari dagokionez, eta trastorno eta gaixotasun mentalak dira osasun-arazo hedatuena, kolektiboaren % 20ri eragiten baitiote. Ondoren, arnas eta zirkulazio-gaitzak daude.

Egoera horren aurrean, euskal erakundeek erakunde arteko akordio bat sinatu zuten 2018an, “*Etxetik gabeko pertsonentzako euskal estrategia 2018-2021*” garatzeko, Euskadiko udalerrri handietan kalean lo egiten duten pertsona kopurua nabarmen murrizteko -% 20 gutxienez-. Horretarako, pertsona horiei laguntzeko politika integralak garatuko dira. Memoria hau egiten ari garen honetan, ez dakigu estrategia horren ezarpen-maila, ez eta haren emaitzak ere.

3.1.2. Gizarte Babesa

Lehenik eta behin, EUSTATen 2020ko “*EAEko Gizarte Babesaren Kontua*”ren azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 21.431 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2019an baino % 9,6 gehiago, +1.870 milioi). Kopuru hori urte horretako BPGd-aren % 30 da (+10,2 puntu 2008aren aldean, eta 2019an baino 5,4 puntu gehiago). Gizarte-babeseko gastu osoak etengabe egin du gora denboraren serie erabilgarrian, eta biztanleko gastua 6.402 €-koa izan zen 2008an, eta 9.757 €-koa 2020an (+% 52,4). Gainera, EUROSTATEk 2018rako emandako azken datuak izanik, Euskadiko gizarte-babeseko per capita gastua, erostekok ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 9.464 €-koa izan zen, EBko batez bestekoaren (9.066 €) eta Estatuko batez bestekoaren (6.752 €) gainetik, nahiz eta euro-guneko biztanle bakoitzeko 10.095 €-tik behera egon.

Bigarrenik, 2021ean, milioi erdi pertsona baino gehiago (525.363, lehen hurbilketaren arabera) **Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen** onuradunak izan ziren gure Erkidegoan (kotizaziopekoak eta kotizazio gabekoak)³⁹, aurreko urtean baino % 0,7 gehiago. Azken urteotan gertatzen ari den bezala, igoera hori kotizaziopeko pentsioen onuradunen kolektiboaren pisuaren eta bilakaeraren ondorio da, gainerako modalitateak, oro har, gutxieneko kopuruetan mantentzen baitira. Hala, Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea % 24ra heldu zen, aurreko urtean baino 3 hamarren gehiago.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (2021ean onuradunen % 97,6 eta gastuaren % 99,3), 2021ean batez beste 512.782 onuradun daude (+% 0,7), eta 565.430 pentsio jasotzen dituzte (+% 0,8). Izan ere, pertsona batek kotizaziopeko pentsio bat baino gehiago jaso ditzake, eta urteko gastua 10.279,1 milioi eurokoa izan zen, hau da, 10.279,1 milioi eurokoa. Kotizazio gabeko pentsioek, bestalde, 12.581 pertsona estaltzen zituzten 2021ean (urteko batez besteko datua), eta 72 milioi euroko gastua sortzen zuten (+% 4,5). Laburbilduz, EAEn pentsioetan egindako guztizko gastua, 2021ean, 10.351,1 milioi eurora igo zen, behin-behineko datuekin, eta % 4,5eko igoera izan zuen 2020. urtearekin alderatuta. Horrela, BPGd-aren gaineko ehunekoa 4 hamarren murriztu zen, % 13,4raino (EUSTATen behin-behineko datuekin).

Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen EAEko gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketa-zifrak erlazionatzen baditugu, 2020an, bi zifrak eskuragarri dauden azken ekitaldian, gastua 9.835,1 milioi eurokoa zen, eta diru-sarrerak 7.297,7 milioi eurokoak. Hortaz, saldoa negatiboa izango litzateke, 2.537,4 milioi eurokoa, 2019an baino % 20,9 handiagoa.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarrizko prestazioa honako hau da: 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko (DSBE). Laguntza horien ondorioz, 2020ko PGDI inkestaren arabera, Euskadin pobrezia-atalase-mailaren azpian bizi diren pertsonen kopurua % 33,3 jaitsi da. Zifra horietatik ere ondorioztatzen da sistema hori pobrezia-arriskuan zeuden biztanleen % 70,2 zela erreferentziako urtean: 127.953 lagun (biztanleria osoaren % 5,9).

2021ean 52.723 bizikidetz-unitatek jaso zuten DSBE (abenduko datua, 93.152 onuradun dagokiena), eta laguntza horiek 54.747 izan ziren 2020. urtearen amaieran. Horrek esan nahi du, 2020an izandako % 4,4ko igoeraren ondoren, aurreko bost urteetako beherakadara itzuli dela. Zehazki, %3,7 jaitsi da 2020ko abenduarekin alderatuta. Lanbideren 2021eko abenduko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu 52.723 pertsona zeudela inskribatuta bizikidetz-unitateen titular gisa; % 42,4 gizonezkoak ziren eta % 57,6 emakumezkoak (2020an baino 7 hamarren gutxiago). Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren % 47,7, 2020an baino 1,1 hamarren gutxiago), eta nabarmentzekoa da, halaber, 3.804 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela (% 7,2). 2020ko abenduarekin alderatuta, adin-tarte guztietan jaitsi da titular hartzaileen kopurua, 60 urtetik gorakoetan izan ezik, horietan 13.729 titular baitira, aurreko urtean baino %2,5 gehiago.

Bizikidetz-unitate hartzaileen pertsona titularraren profila (aztertutako sailean ia aldatzen ez dena): espainiar nazionalitateko emakumea da, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketak dituen (68,9k nahitaezko ikasketak dituzte, % 10,5k lanbide titulazioen bat eta % 4,3k unibertsitateko titulazioa). Prestazioa jasotzen duten atzerritarrak, 16.028, titular hartzaileen % 30,4 dira (% 29 2020. urtean), eta titular hartzaileen % 24,5 pentsiodunak dira (% 23,6 2020. urtean). Era berean, 8.301ek, bizikidetz-unitate hartzaileen % 15,7k, DSBE jasotzen dute soldata-errenten osagarri (-2,3 puntu 2020. urtearen aldean), eta 8.737 titularrek, DSBEarekin batera, guraso bakarra izategatiko osagarri bat jasotzen dute (% 16,7).

³⁹ LISMIren ondoriozkoak eta laguntza-pentsioak ez dira sartu kalkuletan; izan ere, desagertzeko joera dute eta ez dago horiei buruzko informazio eguneraturik. Nolanahi ere, % 0,4ik beherakoa da.

2010ean, 18/2008 Legea garatuta, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) jarri zen abian. Prestazio ekonomikoen sistema bideratzea du helburu, DSBEn osagarri, biztanleriaren talde ahulenei etxebizitzarekin lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (orain arte gehieneko zenbatekoa). 2021ean 76,88 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako, 2020an baino + % 0,6. Titular hartzaileen kopuruari dagokionez, 2021eko abenduan DSBEn 24.977 bizikidetz-unitate onuradunek gainera EPO jaso zuten (aurreko urtean baino % 3,4 gutxiago).

EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdietarako Laguntzek (GLL), Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, jatorrizko helburua berreskuratu dute (oinarrizko premia espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenei, gizarte-bazterkeriako egoerei aurrea hartzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko behar adinako baliabiderik ez duten pertsonen noizean behin gertatutakoak), eta nabarmen murriztu dute aurrekontu-partida. 2020an, datu ofizialak ditugun azken urtean, hots, 2019an, laguntza horietarako 46,14 milioi euro bideratu ziren (2019an baino % 35,5 gehiago). Era berean, 33.304 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu dira guztira, 2019an baino % 17 eta % 17 gehiago. Guztira, urtean 68,928 laguntza eman ziren hainbat kontzeptutan eta, adibidez oinarrizko premiak (10.000 laguntza), alokairua (12.328) edo interesen amortizazioa (3.807). Batez bestekoa 669 eurokoa izan zen laguntza bakoitzeko (2019an baino +% 12,8). Beste alde batetik, 2020an, laugarren urterako sartu da "energia", kategoria espezifikoko gisa (2016ra arte, mantentze-lanetako beste gastu batzuen barruan zegoen). 16.180 laguntza jasotzen ditu (2019an baino % 9,9 gehiago), eta laguntza horietara 5,74 milioi euro bideratzen dira, hau da, GLLetarako funtsen % 12,5.

Laburbilduz, Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak 472,7 milioi euro gastatu zituen 2021ean, 2020an baino % 4,7 gutxiago (urte horretan % 8,6 hazi zen, zalantzarik gabe COVID-19aren pandemiaren ondorioz), honela banatuta: 349,7 milioi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan eginiko gastuari dagozkie (gutzizkoaren % 74, eta 2020an baino % 6,3 gutxiago), 76,9 milioi Etxebizitzaren Prestazio Osagarriarako (gutzizkoaren % 16,3 eta 2020an baino % 0,7 gehiago), eta zenbatespenen arabera, Sistemaren gastu agregatua kalkulatzeko, 2020an Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako erabilitako 46,1 milioi eurori eutsi zaie 2021ean (Sistemako gastu guztiaren % 9,8), laguntza horri buruzko 2021erako datu ofizialak izan arte.

Konparazioa egiteko, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sisteman kopuru handien konparaziozko segimendua egin daiteke, betiere era askotako araudiak eta sistemak garatzeko maila ezberdinak daudela kontuan izanik. 2020ari buruzko txostenaren arabera (argitaratutako azkena), urte horretan, gure erkidegoak 6.661,90 euroko urteko gastua zuen prestazio horien titular bakoitzeko; estatuko batez bestekoa, berriz, 5.335,06 eurokoa (% 24,9 gehiago), eta estaldura-tasa 30,84 mila biztanleko, Estatuko batez bestekoa 7,80 izanik. Azterlanaren arabera, gure Erkidegoak 2020an Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien % 22,8 erabili zuen DSBerako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da: % 4,6koa da aipaturiko urtean.

2020an, Estatuan Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGD) sortu zen. Pandemiaren krisialdi bete-betean agertu zen, eta COVID-19ak Espainian eragindako kalteberatasun ekonomiko eta sozialaren gorakadari erantzun zion. Hala ere, ez da pandemiari lotutako koiunturazko neurria, egiturazko tresna bat baizik, eta osasun-krisiak bizkortu egin du hura agertzea. Diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren ahuleziei eta lurralde-aniztasunari irtenbidea ematea du helburu. BGD Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko gisa sortu da, kotizazio habeko modalitatean, bakarrik edo bizikidetz-unitate batean integratuta bizi diren pertsonen pobrezia- eta gizarte-bazterketako arriskua prebenitzeko prestazioa izan dadin, pertsona horiek zaurgarriak badira, beren oinarrizko premiak estaltzeko behar beste baliabide ekonomikorik ez dutelako. Alderdi ekonomikoaz gain, onuradunen gizarteratzeko eta laneratzeko benetako aukerak hobetzea du helburu.

Espanian, martxan jarri zen unean gobernuak kalkulatu zuen BGD 850.000 etxek jaso ahalko zutela, 2,3 milioi lagunek gutxi gorabehera. 2021eko abenduan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak 362.017 etxeri aitortu zien prestazio hori (% +126,3, 2020ko abenduarekin alderatuta), eta, beraz, 824.441 pertsonak jaso zuten prestazioa (% 37,1 adingabeak ziren). Horretarako 2.000 milioi euro inguru bideratu ziren, aurrekontuan jasotako ia 3.000 milioietatik. EAEn, 17.400 ebazpen onartu ziren 2021eko abenduaren 31n, 29.259 onuradun, horietatik % 25 adingabeak. Memoria hau egiteko unean ez dakigu gure erkidegoari dagokion prestazioaren zenbatekoa zein den.

Azkenik, esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatuz gizarteratzea bultzatzeko programen barruan, 2020an Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak eman zituen, guztira 4,79 milioi eurokoak, aurreko urteko zenbateko bera. Laguntza horietatik 3,74 milioi (% 78,1) Gizarte Esku Hartze lerroa bideratu ziren, % 12,5 (599.000 euro) elkarteak indartzera eta gainerako % 9,4 (450.000 euro) ezagutzaren kudeaketa lerroa. Eusko Jaurlaritzaren programa zehatz horren zenbatekoak dira, baina beste erakunde batzuek (foru aldundiak eta udal ugari) ere funtsak bideratzen dituzte helburu horietara, eta ez dago programa horiei buruzko informaziorik.

Bestalde, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema** (GZES) arretako sare publiko egituratua da, erantzukizun publikokoa, eta bere helburua da gizarteratzea, autonomia eta ongizatea bideratzea pertsona, familia eta talde guztiei, sustapen, prebentzio, babes eta laguntza funtzioa garatuta horretarako, funtsean pertsonalak eta harremanetakoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (GZL) arautzen eta antolatzen du, eta hauexek dira haren ezaugarri nagusiak: gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzea, Sistema osatzen duten Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzea, hala eskubide horren irismena zehaztuta eta haren garapena eta ezarpena bermatuta, eta, azkenik, katalogo hori garatzeko aurreikuspena, prestazio eta zerbitzuen zorro baten bidez: ezaugarri nagusiak eta sarbide-baldintzak definituko ditu katalogoak.

GZES "Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoa"rekin osatzen da. GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztietarako sarbidea bermatu nahi die sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei, hala eskatuta. Horrek berekin dakar GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen estaldurak –eta, hala badagokio, intentsitatea– mapan eta haren eranskinetan (lurralde-mapak) ezarritakora egokitzea eta gastu publiko arrunta handitzea GZESaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan, lurralde bakoitzaren abiapuntua kontuan hartuta (plaza erabilgarriak edo erabiltzaileak edo jasotzaileak. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailak 2021ean egindako Planaren Ebaluazio Txostenaren arabera, ibilbide luzeko krisiaren testuinguruan sendotu den GZES bat dugu, eta, beraz:

- Hazkunde nabarmena izan du magnitude nagusietan, bai gastu arrunt publikoan (+222,8 milioi 2011 eta 2018 artean), bai plazetan (+5.665 2011 eta 2018 artean), bai erabiltzaile/jasotzaile eta estalduretan, eta bai udal-gastuan, bai foru gastuan, gizarte-zerbitzuek zuzentzen baitute gastua bi mailetan, eta Gobernuaren eskumeneko zerbitzu eta prestazioetako gastua ere handitzen da.
- Testuinguru horretan, lurraldeen arteko konbergentzia-adierazlea ere hobetu da, EAeko batez besteko estalduraren +% 15 marjinaren barruan dauden zerbitzu eta prestazioen kopurua handituta.

Bestalde, EAeko Gizarte Zerbitzuen gastua 2019an (datuak dituen azken urtea) 2.842,2 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 1 gehiago, EUSTATen "Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika"ren arabera. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGd-aren % 3,6 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.299 euroko gastua, 2018 baino % 0,6 gehiago. Gastuaren % 72,4, 2.058,1 milioi euro, gastu arruntei dagokie, eta horietatik 741,8 milioi familiei transferentziak egiteko erabili ziren (2018an baino % 2,5 gutxiago). Gainera, administrazio publikoek 1.984,5 milioi euro finantzatu zituzten (+% 2,3), guztizkoaren % 69,9. Sektore pribatuak, berriz, gainerako % 30,1a finantzatu zuen.

Gizarte zerbitzu ugarien artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabiderik gehien jasotzen dituztenak, bien artean gastuaren % 62,8 hartzen baitute (gutzizkoaren % 35,6 eta % 27,2 hurrenez hurren). Herritar guztientzako baliabideen artean, familientzako transferentziak nabarmentzen dira, 735,8 milioi euro, gastu osoaren % 25,9, eta % 2,6 murriztu dira azken urtean. Adinekoei dagokionez, haiei ematen zaien arreta batez ere prestazio hauek dira: egoitza zerbitzuak, laguntzako eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza zerbitzuak eta telelaguntza. Adinekoentzako egoitza-zentroei dagokionez, EAEn 448 zentro zeuden 2019an. Horietatik 158 publikoak (2018an baino 3 gehiago), eta horietatik 158 titulartasun publikokoak eta 290 pribatuak. Sistema horrek, erreferentziako urtean, 644 milioi euroko gastua eragin zuen (+% 2,9 2018aren aldean), gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 22,7.

2007ko Mendetasunaren Legea ezartzeari dagokionez, *IMSERSOren 2020ko* abenduaren 31ko azken datuek erakusten dutenez, aipaturiko data horretan, EAEn 107.110 balorazio-eskabide zituen erregistraturik Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren. Horietatik (gainerako erkidegoetan bezala) gehienak mendekotasun-gradua aintzatesteko berrikuspenei dagozkie. Eskatzailearen profila emakumeari dagokio (gutzizkoaren % 63,2), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen % 52,8).

Erregistratutako 107.110 irizpen-eskaeretatik, % 99,55ek zegokion ebazpena jaso zuten (Estatuan, batez beste, % 93,42), eta 78.831 pertsonari, irizpena jaso zuten kasuen % 73,93ari, prestazioa jasotzeko eskubidea onartu zieten. Talde hori EAEn biztanleriaren % 3,56 da. Bestalde, erreferentziako datan, 89.865 prestazio eman ziren (2020ko datuekin alderatuta, +% 1,3), eta horietatik % 38,59 familia zaintzeagatik prestazio ekonomikoari dagozkio (Estatuko batez bestekoa baino ratio handiagoa, % 30,75ekoa), % 14,23 egoitza-arretari, % 23,44 telelaguntza-zerbitzuari, % 7,94 eguneko/gaueko zentroetako zainketei eta % 6,68 etxez etxeko zerbitzuari, prestazio eta zerbitzu garrantzitsuak diren aldetik.

Amaitzeko, **EAEn borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sistemaren** bilakaeraren balantzea egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak adierazten du 2019an EAEn BGAEek 27.257 milioi euroko ondarea zutela (azken datu eskuragarria). Zenbateko hori % 1,9 handitu da aurreko urtearekin alderatuta, eta aurtengo BPGd-aren % 38,1 da, behin-behineko datuen arabera. Era berean, 1,15 milioi bazkide edo atxikimendu daude erakunde horietan (kontuen kopurua kontuan hartuta eta ez pertsonen kopurua, zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat bazkide dauden etenda ekarpenetan), 2019an baino % 0,8 gehiago. 2020ko abenduaren 31n, Euskadin 71 BGAE zituen, horietatik laneko BGAE ziren, 27 banakoak eta 2 kideturikoak.

Bazkideen erdiak baino gehiago, % 56, banakako BGAEetan zeuden, eta horien atzetik enpleguak (bazkideen % 43,9). Ondareari dagokionez, % 54,2 enpleguak BGAEei dagokie, eta gainerakoa banakakoei; aldiz, ordaindutako prestazio gehienak enplegu-erakundeei dagozkie (% 66,9), eta banakakoei (% 30,4).

Kuota gehienak base indibidualei dagozkie (gutzizkoaren % 53,9), eta gainerakoak enplegukoei (% 46,1), eta 2020an guztira 799,4 milioi euro dira, eta % 3,1 igo dira 2019. urtearekin alderatuta. Bestalde, ordaindutako prestazioak 647,3 milioi eurotik gorakoak dira, 2019koa baino % 2 txikiagoa. Era berean, 2020an guztira 131,4 milioi euro erreskatatu ziren. Aurreko urtean, berriz, 141,7 milioi euro, hau da, % 7,3 egin zuen behera.

3.2. ONDORIOAK

3.2.1. Bizi baldintzak

Lehenik eta behin, nabarmendu behar dugu 2020ko Memoria Sozioekonomikoak gure bizi-kalitatearen okerragotzeaz ohartarazten bazuen ere, 2021eko Memoria honetan (2020ko datuekin), COVID-19ak eragindako krisiaren hasierako urtean, ez dela ikusten euskal biztanleriaren bizi-mailaren beherakada nabarmenik, eta horrek adierazten du azken krisiaren kudeaketa desberdin batek pobrezia-adierazleen bilakaera desberdina ekarri duela. Izan ere, aztertutako aldagai askok aldeko bilakaerak dituzte, baina adi egon behar dugu aurrerago aipatuko ditugun datu negatibo batzuen aurrean.

Aurten ere, Euskadi oso posizio onean dago bizi-kalitatearen nazioarteko rankingetan (IDH), Europako AROPE tasaren eremuetan bezala. Gainera, aurreko orrialdeetan ikusi dugunez, aurreko urtean ez bezala, 2020an hobera egin zuen oro har, Europako testuinguruan (Espainia barne) okertzeko joera zegoenean.

Era berean, 2020ko PGDIren emaitzak oso onak dira 2016-2018ko bilakaerarekin alderatzen badira; izan ere, metatze-dimentsioko pobrezia-egoerak ia ez dira existitzen (biztanleriaren % 0,3), eta ongizate-pobrezia eskalan biztanleriaren banaketa hain handia da ezen euskal biztanleriaren erdiak (% 49,7) erabateko ongizatea adierazten baitu, benetako pobrezia adierazlea kontuan hartuta (inkesta honen gehieneko datua).

Hala ere, nahiz eta duela gutxi bilakaera positiboa izan eta gure ingurunean posizio erlatibo ona izan, bereziki Estatu osoarekin alderatuta, AROPE tasaren eta PGDI inkestaren adierazle emaitzei dagokionez, uste dugu asmo handiak izaten jarraitu behar dugula pobrezia-tasen hobekuntzari dagokionez, 2008ko maila baxuak berreskuratzeko eta, ahal bada, hobetzeko.

Datu horiek guztiak oso positiboak direla uste dugu. Izan ere, COVID-19aren pandemiak eragindako krisia hasi zenean, EAE abiapuntu onean zegoen, egoera horrek eragin dituen erronkei (horietako asko berriak) aurre egiteko.

Hala ere, ez da ahaztu behar nazioarteko testuingurua, ezta bilakaera negatiboa duten aldagai partzial batzuk ere; izan ere, litekeena da joera negatiboek aurrera egitea, eta horri irmoki aurre egin beharko zaio.

Adibidez, EINen Bizi Baldintzei buruzko Inkestan ere adierazle gehienek ongizate-hobekuntzak erakusten dituztela egiaztatzen dugu, bai errentari dagokionez, bai gabeziari dagokionez. Hala ere, badira bilakaera negatiboa duten bi, pobrezia energetikoa eta behar bezala elikatzeko ezintasuna, eta, gure ustez, jarraipena merezi dute, gero eta zailtasun handiagoa islatzen baitute bi alderdi garrantzitsutan.

Era berean, PGDIren datuetatik abiatuta deskribatutako aldeko joera horren barruan, kezkarria iruditzen zaigu pobrezia % 40 baino gehiago EBtik kanpoko atzerritar jatorriko biztanleei eragitea, eta % 15 gehiago lan egonkorrik gabeko emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiei. Oso kolektibo ahulak dira, eta ezin zaie bizkarra eman, are gehiago seguruenik etxe horietako askok oinarritzko premiak behar bezala betetzen ez dituzten adingabeak dituztenean.

Hala, egiaztatu da hezkuntzak eta prestakuntzak, lan ezegonkorrarekin batera, neurri handi batean pobrezian edo gizarte-bazterketan egoteko aukerak baldintzatzen dituztela. Hortaz, alderdi horretan lan egin behar da arrisku-egoera horiek minimizatzen. Era berean, Erkidegotik kanpoko etorkinak kolektibo bereziki kaltebera agertzen dira, eta, beraz, erakundeek ahalegin guztiak egin behar dituzte gure gizartean gizarteratze aktiboa eta eraginkorra lortzeko.

Gainera, ikusi dugu, kolektibo handi bati eragiten ez dion arren, bizitegi-bazterketa ere errealtate bat dela gure gizartean, eta kezkarria iruditzen zaigu COVID-19aren pandemiari aurre egiten jarraitzen dugun une honetan bizi duguna bezalako errealtate konplexu baten aurrean, pertsona horiek babesik gabe gera daitezkeela gizarte-babeseko sistemaren aldetik.

Arazo horri aurre egiteko erantzun publikoei dagokienez, 2018-2021 aldirako etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren ondoriozko ekimenei buruzko informaziorik ez dagoenez, ezin dugu baloraziorik egin.

Bestalde, gogorarazi nahi dugu aurten ere ezinbestekoa dela familia tipologietan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien ondorioak kontuan hartzea. Familiak botere publikoen lehentasuneko arreta behar dute; izan ere, tipologia desberdinak izan arren, gure gizartean nagusi izaten jarraitzen dute.

Familia politikei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak azken urteetan garatutako ekimenen emaitzei buruzko informazioa behin eta berriz falta denez, ezin dira baloratu arlo horretan egiten diren ahalegin publikoak. Hortaz, gabezia hori konpontzeko eskatzen zaie arduradunei.

Gainera, lan-bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko enpresek abiarazitako ekimenei dagokienez, adierazi behar dugu berrikuntzarako eta dauden neurriak berriz diseinatzeko ahalegina egin behar dela oraindik ere, langileen eta langile horiek lan egiten duten enpresen premiak uztartu ahal izateko. Hala, azken urteotan arlo horretan ikusten ari den hobekuntza bizkortu ahal izango litzateke.

Amaitzeko, aurten ere egiaztatu da kontziliaziorako gehien erabiltzen diren formulak, hala nola eszedentziak eta lanaldi-murrizketak, gehienbat emakumeek hartzen dituztela oraindik ere. Hortaz, erantzukidetasuna hobetzeko formulak sustatzen jarraitu behar da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun handiagoa lortzeko.

3.2.2. Gizarte babesa

Kapitulu honetan azaldutako datuek erakusten dute EAEko gizarte-babeseko sistemak Europako herrialde nagusiekin aldera daitezkeen mailetan eusten diola estaldurari, nahiz eta gure gastuaren ehunekoa BPGd-arekiko batez bestekoa baino txikiagoa den (EBko batez bestekoaren % 88), Estatukoa baino handiagoa bada ere (% 86).

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistemari dagokionez -gure ongizate-sistemaren tresna garrantzitsua-, Eusko Jaurlaritzaren azken PGDIk (2020ko datuekin) berretsi egiten du Sistemak Euskadin pobrezia gutxitzea ahalbidetzen duen neurrian funtzionatzen duela, baita babeserako beharren igoera hain garrantzitsua izan zen urtean ere. Izan ere, kapitulu honetako "bizi-baldintzak" atalean ikusi den bezala, pobrezia- eta bazterketa-arriskuaren Europako adierazleak (ARPE) oso egoera onean daude EAEn, beste urte batez, estatuko eta Europako testuinguruan.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar Euskadin oraindik 120.000 pertsona baino gehiago daudela (biztanleriaren % 5,6) benetako pobrezian PGDIk definitutakoaren arabera.

Era berean, ikusten dugu 2021ean berriz ere jaitsi dela diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemaren prestazioak jasotzen dituzten titularren kopurua, eta, bereziki, beren soldata-errenten osagarri gisa diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenena (kopuru absolutuetan nahiz erlatiboetan). Horrek agerian uzten ditu azken memorietan unitate hartzaileen profiletan ikusi ditugun aldaketak. Izan ere, nahiz eta 40 urtetik gorako eta oinarriko ikasketak dituen emakumearen profilari eutsi, DSBE jasotzen duten titularren artean nagusi den bezala, pandemiari eta nazioarteko testuinguru konplexuari lotutako aldaketek premia berriak dituzten kolektibo berriak azaleratuko dituzte ziurrenik, eta premia horiei erantzun behar zaie.

Alde horretatik, gogorarazi nahi dugu esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak bultzatuz gizarteratzea sustatzeko programa publikoei buruzko informazio osorik eta finkaturik ez izateak eragotzi egiten duela gizarteratzearen arloko funtsezko ekimen horiek baloratzea.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagokionez, aurreko memorietan azaldutakoa errepikatzen dugu: ez da lortu hura arautzen duen legea unibertsal bihurtzeko helburua, eta aurreikusitako arauen garapenaren zati handiena egiteke dago oraindik. Premiazkotzat jotzen dugu nahi dugun gizarte-zerbitzuen ereduari buruzko Herrialde mailako hausnarketa egitea, Legean proposatzen den ereduaren eta errealitatearen arteko desadostasuna gero eta disfuntzionala delako, are gehiago hain gogorra izan den pandemian Sistemaren ahuleziak agerian jarri direlako.

Eta, Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemari dagokionez, ohartarazi nahi dugu EAeko kalitate-rankingek behera egin dutela autonomia erkidegoetan, eta sistemako profesionalek egin dituztela rankingak. Era berean, nabarmendu nahi dugu familia zaintzeagatiko prestazio ekonomikoak pisu handia duela, eta fenomeno horietan sakontzea komeni dela arrazoiak zein diren jakiteko.

Gizarte Segurantzaren pentsioei dagokienez, beste urte batez kezkatzen gaituzte, gero eta defizitario handiagoa izateaz gain, sistemaren iraunkortasunak eta ekitateak. 2020an Toledoko Itunaren Ebaluazio eta Erreformari buruzko Txostena onartu ondoren, 2021eko ekaineko Elkarrizketa Sozialaren Akordioan jasotako zenbait neurri onartu dira. Neurri horiek abenduaren 28ko 21/2021 Legean daude garatuta (21/2021 Legea, pentsioen erosahalmena bermatzeari eta pentsioen sistema publikoaren finantza- eta gizarte-iraunkortasuna indartzeko beste neurri batzuei buruzkoa), eta sistemak nahikotasunaren eta iraunkortasunaren aldetik dituen arazoei heldu nahi die. Bi neurri nagusiak honako hauek dira: urtarilaren 1ean pentsioak berriz balioestea, aurreko urteko prezioen batez besteko hazkunde-tasa erabiliz betiere, eta 23/2013 Legean garatutako iraunkortasun-faktorea ordezkatzeko, 27/2011 Legean ezarritakoaren arabera, Belaunaldien Arteko Ekitaterako Mekanismo (BAEM) batekin. Mekanismo hori bi osagai gaketan ezartzen da, hain zuzen ere belaunaldien arteko oreka zaindu eta Gizarte Segurantzaren sistemaren jasangarritasuna epe luzean indartu nahi dutenak; horietarako funtsezko gakoa dira kotizazio sozialak, erreformen ardatzak baitira.

Prozesu horri dagokionez, elkarrizketa sozialaren eta lortutako adostasunen garrantzia nabarmendu nahi dugu, eta, aldi berean, iraunkortasunerako mekanismoari dagokionez adostasunak bilatzera bultzatu. Era berean, gogorarazi nahi dugu Europako araudiak mugak dituela Sistemaren diseinuan.

Eta, aztertzen ari garen eremuari dagokionez, gogoratu behar da neurri horiek aplikatzeko aldia behar dutela haien ondorioak egiaztatzeko, eta, beraz, jarraipena eta azterketa egin behar direla haien eragina eta ezarritako helburuekiko egokitasuna egiaztatzeko.

Edozelan ere, 2021ek agerian utzi du gizarte-babeseko sistema sendoa izateak duen garrantzia, gure gizarteak dagoeneko bere gain hartutako erronkei, gero eta premia handiagoei eta erronka eta errealitate berri posibleei aurre egiteko.

1. HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza da pertsonen eta gizartearen aurrerapenean gehien eragiten duten faktoreetako bat; izan ere, beharrezkoa da ongizatean eta gizarte-kohesioan eta hazkunde ekonomikoan mailarik onenak lortzeko, baita zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko ere, besteak beste, baita komunitatea hobetzen lagunduko duen herritartasun demokratiko, kritiko eta solidarioa lortzeko ere. Garrantzitsua izan da beti garapen ekonomikorako eta sozialerako, baina gaur egungo munduan, neurri batean zientziaren aurrerapenak eta horren aplikazioek eragindako eraldaketa sakonak bizi diren munduan, gero eta garrantzi handiagoa hartu du, baita horiek bezain azkar garatzen diren IKTek eragindako eraldaketengatik ere.

Ekonomia modernoetan, ekoizpenaren faktorerik garrantzitsuenetako bat bilakatu da jakintza. Arlo ekonomikoan eta sozialean gehien aurreratu diren gizarteak dira jakintzan oinarrituriko aurrerapena lortu dutenak, eskolaren bidez transmititzen den jakintzan nahiz ikerketaren bidez sortzen denean. Hezkuntzak, zientziak eta berrikuntza teknologikoak gerorik eta eragin handiagoa dute produktibitatean eta lehiakortasun ekonomikoan, baita lurraldeen garapen sozialaren eta kulturalaren zati handi batean ere.

Bosgarren kapituluko lehenengo atala bi bloketan banatuta dago, alde batetik, hezkuntza aztertzen delarik, eta, bestetik, kulturaren alorreko zenbait alderdi.

Lehenengo blokea, lehenengo hiru epigrafeetan azaltzen da, eta, bertan, ikasleek unibertsitate kanpoko irakaskuntzetan egindako matrikulen garapena, unibertsitatean matrikulatutako eta graduatutako garapena eta lau atal handi hauek banatutako zenbait hezkuntza adierazle jasotzen dira: eskolatzeko eta hezkuntza testuinguruko adierazleak, hezkuntza finantzazioko adierazleak, hezkuntza emaitzetako adierazleak, eta, bukatzeko, zenbait unibertsitate adierazle.

Bigarren multzoan, kulturari buruzko laugarren epigrafean, kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko adierazle batzuk aztertzen dira lehenik, eta, bigarrenik, kultura-enpresei eta haien enpleguari buruzko azterketa laburra egiten da; ondoren, administrazio autonomikoen kulturaren esparruan egindako gastu publikoa aztertzen da, bai eta etxeetako kultura-konsumoko gastua ere.

1.1. UNIBERTSITATETIK KANPOKO IRAKASKUNTZAK

1.1.1. Araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak

EUSTAT-en “*Eskola Jarduerako Estatistika (EJE)*” errolda ekimena da, urtean behin egiten dena, eta, horri esker, aurretiazko azterketetan hezkuntza sistema ezagutzen da, eta, bertan, irakaskuntza arautua ematen duten ikastetxe guztiak kontuan hartzen dira, hau da, Eusko Jaurlaritzako Ikastetxeen Erregistroan daudenak, publikoak zein pribatuak. Bertan, araubide orokorreko eta araubide bereziko irakaskuntzak ezberdintzen dira. Lehenengoen artean, hauek daude: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Helduentzako Hezkuntza. Araubide bereziko irakaskuntzak hauek dira: hizkuntzak, musika, kirola, arte plastikoak, dantza eta arte dramatikoak.

Estatistika-eragiketa horren arabera, guztira 371.612 pertsona zeuden matrikulatuta unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan (Helduen Hezkuntza (HHE) kanpo utzita) 2020/21 ikasturtean, hau da, aurreko ikasturtean baino % 1,2 gutxiago (4.492 ikasle gutxiago).

Mailen arabera bereiziz eta hezkuntza berezia zenbatu gabe, beheragokoetan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) 206.738 ikasle matrikulatu ziren (78.613 Haur Hezkuntzan (-% 7,8, aurreko aldietakoei gehituta) eta 128.125 Lehen Hezkuntzan (-% 1,5)), 87.189 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (+% 1) eta 4.820 Oinarriko Lanbide Heziketan (+% 2,6).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketei dagokienez, Batxilergoan 32.502 pertsona matrikulatu ziren¹(+% 4,1) aurreko urtearen aldean, eta erdi mailako LHn 15.752 (+% 4,3). Hala, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasleen % 67,4k Batxilergoa aukeratu zuen, eta % 32,6k, berriz, Erdi Mailako Prestakuntzan eskaintako modulu-tako bat egitea erabaki zuen.

Bestalde, goi mailako Lanbide Heziketan 23.056 pertsona matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 4,7 gehiago².

V.1.1. TAULA. ARAUBIDE OROKORREAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, MAILAREN ARABERA (1)

	2016/2017	2017/2018	2018/19	2019/20	2020/21	ALD. 2019/20 2020/21	ALD. 2018/19 2019/20	ALD. 2019/20 2020/21
GUZTIRA	373.455	375.318	375.949	376.104	371.612	-1,2	155	-4.492
HAUR HEZKUNTZA	91.103	89.023	87.243	85.239	78.613	-7,8	-2.004	-6.626
LEHEN HEZKUNTZA	129.521	130.625	131.057	130.041	128.125	-1,5	-1.016	-1.916
HEZKUNTZA BEREZIA (HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA)	510	486	484	458	472	3,1	-26	14
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)	81.389	83.225	85.142	86.304	87.189	1,0	1.162	885
HEZKUNTZA BEREZIA (DBH)	321	363	403	422	495	17,3	19	73
OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA	4.385	4.607	4.570	4.700	4.820	2,6	130	120
BATXILERGOA	30.231	30.398	30.272	31.234	32.502	4,1	962	1.268
ERDI MAILAKO LH	14.439	14.520	14.732	15.102	15.752	4,3	370	650
GOI MAILAKO LH	21.012	21.505	21.468	22.016	23.056	4,7	548	1.040
HEZKUNTZA BEREZIA: ZEREGINEN IKASKUNTZA	544	566	578	588	588	0,0	10	0

(i) Araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak. Helduen Hezkuntza Etengabea ez da barnean sartzen
Iturria: EUSTAT. Eskola jardueraren Estatistika

Sexuaren araberako banaketari dagokionez³, EUSTATEk 2020/21 ikasturteari buruz emandako datuen arabera, Lanbide Heziketan gizonen ehunekoa % 63tik gorakoa da (erdi mailako LHn % 65,8 eta goi mailako LHn % 63,7) Batxilergoan emakumeen proportzioa handiagoa da guztizkoaren aldean: emakumeen % 54 eta gizonen % 46.

V.1.2. TAULA. ARAUBIDE OROKORREKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN BANAKETA, HEZKUNTZA-MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA (1)

	2019/20			2020/21		
	2018/19	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
GUZTIRA (HE GABE)	376.104	52,6	47,4	371.612	52,7	47,3
HAUR HEZKUNTZA	85.239	51,4	48,6	78.613	51,6	48,4
H.B.(HAUR HEZKUNTZA)	39	48,7	51,3	32	46,9	53,1
LEHEN HEZKUNTZA	130.041	51,6	48,4	128.125	51,5	48,5
H.B.(LEHEN HEZKUNTZA)	419	72,3	27,7	440	71,8	28,2
DBH	86.304	51,5	48,5	87.189	51,5	48,5
H.B. (DBH)	422	67,3	32,7	495	66,5	33,5
BATXILERGOA	31.234	45,3	54,7	32.502	46,0	54,0
ERDI MAILAKO LH	15.102	65,4	34,6	15.752	65,8	34,2
GOI MAILAKO LH	22.016	63,7	36,3	23.056	63,7	36,3
H.B.(ZEREGINEN IKASKUNTZA)	588	61,1	38,9	588	62,1	37,9
OINARRIZKO LH	4.700	72,4	27,6	4.820	73,1	26,9

(i) Araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak. Helduen Hezkuntza Etengabea ez da barnean sartzen
Iturria: EUSTAT. Eskola jardueraren Estatistika

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan matrikulazioen erdia baino gehiago ikastetxe publikoetan gertatzen badira ere (% 52,8 eta % 51,8, hurrenez hurren), kontrakoa gertatzen da DBHn, halako moldez non handiagoa baita sare pribatuko matrikulazioa (% 53,4 eta % 46,6).

Derrigorrezko hezkuntzaren ondokoari dagokionez, Batxilergoan matrikulazioa zertxobait handiagoa da sare pribatuan (% 51,8; publikoan, berriz, % 48,2), baina LHn ikastetxe publikoetako matrikulak dira nagusi (erdi mailako LHn % 63,3 eta goi mailako LHn % 57,3).

¹ Batxilergoan bi ikasturte akademiko daude, ohiko moduan 16 eta 18 urte artean egiten direnak.

² Lanbide Heziketaren irakaskuntza sisteman 16 urterekin sartzen dira ikasleak erdi mailako graduari, batxilergoaren alternatiba gisa, eta 18 urterekin goi mailako graduari, betiere, hezkuntza tertziarioaren edo goi mailako irakaskuntzaren baitan.

Erdi mailako prestakuntza zikloekin teknikari titulua lortzen da, eta goi mailako prestakuntza zikloekin, goi mailako teknikari titulua.

³ Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako sexuen banaketa ez da aztertu, horrek, ez baitu zerikusirik hautaketa arrazoiekin.

V.1.3. TAULA. ARAUBIDE OROKORREKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN BANAKETA, HEZKUNTZA-MAILAREN ETA IKASTETXEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA (1)						
	2019/20			2020/21		
	GUZTIRA	PUBLIKOA	PRIBATUA	GUZTIRA	PUBLIKOA	PRIBATUA
GUZTIRA, HE GABE	376.104	50,9	49,1	371.612	51,0	49,0
HAUR HEZKUNTZA	85.239	52,6	47,4	78.613	52,8	47,2
H.B.(HAUR HEZKUNTZA)	39	15,4	84,6	32	15,6	84,4
LEHEN HEZKUNTZA	130.041	51,8	48,2	128.125	51,8	48,2
H.B.(LEHEN HEZKUNTZA)	419	40,6	59,4	440	40,9	59,1
DBH	86.304	46,4	53,6	87.189	46,6	53,4
H.B. (DBH)	422	56,2	43,8	495	51,5	48,5
BATXILERGOA	31.234	48,2	51,8	32.502	48,2	51,8
ERDI MAILAKO LH	15.102	62,8	37,2	15.752	63,3	36,7
GOI MAILAKO LH	22.016	57,1	42,9	23.056	57,3	42,7
H.B.(ZEREGINEN IKASKUNTZA)	588	63,4	36,6	588	63,9	36,1
OINARRIZKO LH	4.700	28,0	72,0	4.820	28,3	71,7

(i) Arabide orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak. Helduen Hezkuntza Etengabea ez da barnean sartzen
Iturria: EUSTAT. Eskola jardueraren Estatistika

1.1.2. Batxilergoa: modalitateen arabera matrikulatutako ikasleak

Modalitatearen arabera berezita⁴, 2020-21 ikasturtean ikasleen % 54,6 Zientzietan matrikulatu zen, % 33,6 Gizarte Zientzietan, % 7,8 Giza Zientzietan eta % 3,9 Arteetan.

Emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa izan da Arteetan (% 73,2), Humanitateetan (% 65) eta Gizarte Zientzietan (% 57,7); hala ere, gizonen ratioak apur bat gora egin zuen 2019/20 eta 2020/21 urteen artean. Aldiz, Zientzietan matrikulatutako gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da (% 51,2 vs % 48,8).

V.1.4. TAULA. IKASLEEN BATXILERGOKO BANAKETA, MODALITATEAREN ETA SEXUAREN ARABERA												
	2018/19			2019/2020				2020/21				ALD. GUZTIRA 2019/2020 2020/21
	GUZTIRA	% HORIZONTALA		GUZTIRA	% BERTIKALA	% HORIZONTALA		GUZTIRA	% BERTIKALA	% HORIZONTALA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK			GIZONAK	EMAKUMEAK			GIZONAK	EMAKUMEAK	
GUZTIRA	30.272	13.864	16.408	31.234	100	14.154	17.080	32.502	100	14.950	17.552	4,1
ARTEAK	1.133	29	71	1.241	4,0	26,6	73,4	1.261	3,9	26,8	73,2	1,6
GIZA/GIZARTE ZIENTZIAK (GIZA ZIENTZIAK)	2.452	33	67	2.537	8,1	32,4	67,6	2.547	7,8	35,0	65,0	0,4
GIZA/GIZARTE ZIENTZIAK (GIZARTE ZIENTZIAK)	10.063	41	59	10.346	33,1	41,2	58,8	10.932	33,6	42,3	57,7	5,7
ZIENTZIAK	16.624	52	48	17.110	54,8	51,1	48,9	17.762	54,6	51,2	48,8	3,8

Iturria: EUSTAT. Eskola jardueraren Estatistika.

1.1.3. Erdi eta goi mailako Lanbide Heziketa: lanbide-arloaren eta ikasleen laneratzearen arabera matrikulatutako ikasleak.

1.1.3.1. Lanbide-arloaren arabera matrikulatutako ikasleak. 2020/2021 ikasturtea

V.1.1. koadroko datuek erakusten dutenez, 2019/20 eta 2020/21 ikasturteetan matrikulatutako ikasleen kopurua % 4,3 handitu zen erdi mailako LHn (15.102tik 15.752ra) eta % 4,7 goi mailakoan (22.016tik 23.056ra).

⁴ 2015-2016 ikasturteetik aurrera, Batxilergoko modalitateak Zientziak, Giza Zientziak, Gizarte Zientziak eta Arteak dira.

Erreferentziako ikasturtean (2020-21), erdi mailako adar profesioaletan matrikulatu ziren ikasle gehienak: Osasungintza (% 15, +% 7), Fabrikazio mekanikoa (% 14,7, +% 1,2), Elektrizitatea eta elektronika (% 9,1, +% 6,7), Administrazioa eta kudeaketa (% 8,2, +% 5,7), Instalazioa eta mantentze lanak (% 8,1, +% 7,5) eta Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak (% 7,4, +% 1,9). Guztietan ikusi da matrikulazioak gora egin duela.

Goi mailako titulazioen artean hauek nabarmendu ziren matrikulazio bolumenaren arabera: Fabrikazio mekanikoa (% 14,6, +% 1,5), Administrazioa eta kudeaketa (% 10,9, +% 2,2), Elektrizitatea eta elektronika (% 10,7, +% 3,4), Informatika eta komunikazioak (% 10,4, +% 11,1), Gizarte eta kultura zerbitzuak (% 9,5, +% 5,2), Osasungintza (% 7,2, +% 2,6) eta Instalazioa eta mantentze lanak (% 7,2, +% 20,5). Guztietan ikusi da matrikulazioak gora egin duela.

Emakumeen parte-hartzea oso handia da Irudi pertsonalean, Ehungintzan, jantzigintzan eta larrugintzan, Osasunean eta Gizarte- eta kultura-zerbitzuetan eta komunitatean. Emakumeen matrikulazioari dagokionez, bigarren talde garrantzitsu batean Administrazioa eta Kudeaketa, Elikagaien Industriak eta Kimika familiak nabarmentzen dira.

Hala ere, batez beste, emakumeek gizonen baino gutxiago parte hartzen dute ikasketa profesioaletan (erdi mailan % 34,2 eta goi mailako mailan % 36,3, gizonen % 65,8 eta % 63,7ren aurrean), eta, gainera, profil teknikoagoa duten lanbide-familetan emakumeen matrikulazioa txikia da, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, laneratze hobea baitute. Hala, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio mekanikoa, Informatika eta Komunikazioak, Instalazioa eta Mantentze-lanak, Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak sailtan emakumeen matrikulazioa % 15,1era iristen da, kasurik onenean.

V.1.5. TAULA. IKASLE KOPURU GEHIEN DUTEN ADARRAK						
	ERDI MAILA (% bertikalak)			GOI MAILA (% bertikalak)		
	2018-19	2019-20	2020-21	2018-19	2019-20	2020-21
GUZTIRA	14.732	15.102	15.752	21.468	22.016	23.056
JARDUERA FISIKOA ETA KIROL JARDUERAK	0,8	0,7	0,8	3,6	3,5	3,4
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	7,9	8,1	8,2	11,5	11,2	10,9
NEKAZARITZA	1,7	1,7	1,7	1,2	1,2	1,1
ARTE GRAFIKOAK	1,8	1,7	1,7	1,1	1,2	1,2
MERKATARITZA ETA MARKETING	2,7	2,6	2,7	5,3	5,3	5,4
ERAIKUNTZAK ETA OBRA ZIBILAK	0,7	1,0	1,2	1,2	1,3	1,4
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	9,1	8,9	9,1	10,7	10,8	10,7
ENERGIA ETA URA	0,0	0,0	0,0	0,5	0,5	0,6
FABRIKAZIO MEKANIKOA	14,9	15,1	14,7	15,1	15,0	14,6
OSTALARITZA ETA TURISMOA	5,5	5,5	5,5	4,7	4,4	4,2
IRUDI PERTSONALA	5,7	5,0	4,8	1,6	1,8	2,0
IRUDIA ETA SOINUA	0,4	0,3	0,3	2,8	2,6	2,5
JANARI INDUSTRIAK	1,1	1,1	1,1	0,1	0,1	0,2
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	7,1	7,3	7,3	9,4	9,8	10,4
INSTALAKUNTZA ETA MANTENUA	7,3	7,8	8,1	6,7	7,0	7,2
ZURA, ALTZARIAK ETA KORTXOA	1,8	1,9	1,8	0,3	0,3	0,4
ITSASOA ETA ARRANTZA	1,3	1,2	1,1	1,1	1,1	1,2
KIMIKA	0,7	0,7	0,7	2,1	2,2	2,0
OSASUNGINTZA	15,0	14,7	15,0	7,4	7,3	7,2
SEGURANTZA ETA INGURUMENA	0,0	0,0	0,0	0,5	0,5	0,6
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKO ZERBITZUAK	6,8	6,9	6,8	9,8	9,5	9,6
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	0,1	0,2	0,1	0,5	0,5	0,5
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK	7,7	7,6	7,4	2,8	2,7	2,8

Iturria: EUSTAT. Eskola jardueraren Estatistika

V.1.6. TAULA. ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK, LANBIDE-ARLOAREN ARABERA, EAE-N.

	2018-19		2019-20		2020-21		ALDAKUNTZA, GUZTIRA		ALDAKUNTZA, EMAKUMEAK		% EMAKUMEAK		
	GUZTI- RA	EMAKU MEAK	GUZTI- RA	EMAKU MEAK	GUZTI- RA	EMAKU MEAK	18- 19/19- 20	19- 20/20- 21	18- 19/19- 20	19- 20/20- 21	2018- 19	2019- 20	2020- 21
GUZTIRA	14.732	5.148	15.102	5.230	15.752	5.385	2,5	4,3	1,6	3,0	34,9	34,6	34,2
JARDUERA FISIKOA ETA KIROL JARDUERAK	121	26	112	24	124	23	-7,4	10,7	-7,7	-4,2	21,5	21,4	18,5
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	1.157	700	1.217	741	1.286	733	5,2	5,7	5,9	-1,1	60,5	60,9	57,0
NEKAZARITZA	244	39	258	47	261	61	5,7	1,2	20,5	29,8	16,0	18,2	23,4
ARTE GRAFIKOAK	265	95	257	107	275	126	-3,0	7,0	12,6	17,8	35,8	41,6	45,8
MERKATARITZA ETA MARKETING	399	197	396	181	426	196	-0,8	7,6	-8,1	8,3	49,4	45,7	46,0
ERAIKUNTZAK ETA OBRA ZIBILAK	105	21	148	34	195	35	41,0	31,8	61,9	2,9	20,0	23,0	17,9
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	1.342	60	1.350	55	1.441	57	0,6	6,7	-8,3	3,6	4,5	4,1	4,0
ENERGIA ETA URA	-	-	-	-	-	-							
FABRIKAZIO MEKANIKOA	2.201	119	2.284	137	2.311	129	3,8	1,2	15,1	-5,8	5,4	6,0	5,6
OSTALARITZA ETA TURISMOA	811	298	828	300	861	321	2,1	4,0	0,7	7,0	36,7	36,2	37,3
IRUDI PERTSONALA	834	741	759	676	750	668	-9,0	-1,2	-8,8	-1,2	88,8	89,1	89,1
IRUDIA ETA SOINUA	52	10	49	10	48	11	-5,8	-2,0	0,0	10,0	19,2	20,4	22,9
JANARI INDUSTRIAK	167	98	166	95	167	103	-0,6	0,6	-3,1	8,4	58,7	57,2	61,7
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	1.044	76	1.109	85	1.144	87	6,2	3,2	11,8	2,4	7,3	7,7	7,6
INSTALAKUNTZA ETA MANTENUA	1.078	44	1.181	45	1.270	50	9,6	7,5	2,3	11,1	4,1	3,8	3,9
ZURA, ALTZARIAK ETA KORTXOA	263	38	284	39	288	33	8,0	1,4	2,6	-15,4	14,4	13,7	11,5
ITSASOIA ETA ARRANTZA	188	11	174	9	177	11	-7,4	1,7	-18,2	22,2	5,9	5,2	6,2
KIMIKA	102	57	108	59	115	59	5,9	6,5	3,5	0,0	55,9	54,6	51,3
OSASUNGINTZA	2.216	1.661	2.213	1.677	2.367	1.750	-0,1	7,0	1,0	4,4	75,0	75,8	73,9
SEGURANTZA ETA INGURUMENA	-	-	-	-	-	-							
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKO ZERBITZUAK	998	801	1.045	839	1.064	855	4,7	1,8	4,7	1,9	80,3	80,3	80,4
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	17	14	23	18	19	14		-17,4		-22,2		78,3	73,7
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK	1.128	42	1.141	52	1.163	63	1,2	1,9	23,8	21,2	3,7	4,6	5,4

Iturria: EUSTAT. Eskola jardueraren Estatistika

V.1.7. TAULA. ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK, LANBIDE-ARLOAREN ARABERA, EAE-N.

	2018-19		2019-20		2020-21		ALDAKUNTZA, GUZTIRA		ALDAKUNTZA, EMAKUMEAK		% EMAKUMEAK		
	GUZTIRA	EMAKU MEAK	GUZTI-RA	EMAKU MEAK	GUZTI-RA	EMAKU MEAK	18-19/19-20	19-20/20-21	18-19/19-20	19-20/20-21	2018-19	2019-20	2020-21
GUZTIRA	21.468	7.691	22.016	7.990	23.056	8.371	2,6	4,7	3,9	4,8	35,8	36,3	36,3
JARDUERA FISIKOA ETA KIROL JARDUERAK	782	185	760	179	779	189	-2,8	2,5	-3,2	5,6	23,7	23,6	24,3
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	2.465	1.550	2.462	1.564	2.516	1.586	-0,1	2,2	0,9	1,4	62,9	63,5	63,0
NEKAZARITZA	247	42	255	52	264	58	3,2	3,5	23,8	11,5	17,0	20,4	22,0
ARTE GRAFIKOAK	244	124	270	153	279	160	10,7	3,3	23,4	4,6	50,8	56,7	57,3
MERKATARITZA ETA MARKETING	1.139	522	1.161	488	1.250	538	1,9	7,7	-6,5	10,2	45,8	42,0	43,0
ERAIKUNTZAK ETA OBRA ZIBILAK	251	100	295	108	317	128	17,5	7,5	8,0	18,5	39,8	36,6	40,4
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	2.305	172	2.375	195	2.456	200	3,0	3,4	13,4	2,6	7,5	8,2	8,1
ENERGIA ETA URA	99	8	115	11	131	13	16,2	13,9	37,5	18,2	8,1	9,6	9,9
FABRIKAZIO MEKANIKOA	3.251	348	3.308	427	3.359	399	1,8	1,5	22,7	-6,6	10,7	12,9	11,9
OSTALARITZA ETA TURISMOA	1.005	499	975	479	960	471	-3,0	-1,5	-4,0	-1,7	49,7	49,1	49,1
IRUDI PERTSONALA	347	327	397	375	469	431	14,4	18,1	14,7	14,9	94,2	94,5	91,9
IRUDIA ETA SOINUA	600	157	572	145	571	167	-4,7	-0,2	-7,6	15,2	26,2	25,3	29,2
JANARI INDUSTRIAK	22	9	20	12	41	25	-9,1	105,0	33,3	108,3	40,9	60,0	61,0
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	2.019	282	2.165	321	2.405	364	7,2	11,1	13,8	13,4	14,0	14,8	15,1
INSTALAKUNTZA ETA MANTENUA	1.437	88	1.546	106	1.668	131	7,6	7,9	20,5	23,6	6,1	6,9	7,9
ZURA, ALTZARIAK ETA KORTXOA	68	14	73	25	90	26	7,4	23,3	78,6	4,0	20,6	34,2	28,9
ITSASOA ETA ARRANTZA	233	6	240	7	268	14	3,0	11,7	16,7	100,0	2,6	2,9	5,2
KIMIKA	456	264	490	295	471	285	7,5	-3,9	11,7	-3,4	57,9	60,2	60,5
OSASUNGINTZA	1.582	1.210	1.607	1.242	1.662	1.295	1,6	3,4	2,6	4,3	76,5	77,3	77,9
SEGURANTZA ETA INGURUMENA	110	46	116	39	139	47	5,5	19,8	-15,2	20,5	41,8	33,6	33,8
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKO ZERBITZUAK	2.096	1.620	2.101	1.638	2.210	1.711	0,2	5,2	1,1	4,5	77,3	78,0	77,4
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	106	93	108	95	114	100	1,9	5,6	2,2	5,3	87,7	88,0	87,7
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK	604	25	605	34	637	33	0,2	5,3	36,0	-2,9	4,1	5,6	5,2

Iturria: EUSTAT. Eskola jardueraren Estatistika

1.1.3.2. Ikasleak laneratzea. 2017/2019ko promozioak

Hurrengo koadroko datuek mailaz igo diren ikasleen laneratzea erakusten dute. Horietatik ondoriozta daitekeenez, mailaz igo diren ikasleen bolumen handiena duten 8 lanbide-arloetatik (Fabrikazio mekanikoa, Osasungintza, Gizarte eta kultura zerbitzuak, Administrazioa, Elektrizitatea eta elektronika, Mantentze lanak eta produkzioarako zerbitzuak, Informatika eta Ibilgailu autopropulsatuen mantentze lanak) honako hauek dira laneratze-ratio handienak dituztenak: Ibilgailu autopropulsatuen mantentze lanak (% 85,9ko okupazio-tasa), Osasungintza (% 85), Mantentze lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak (% 84,3) eta Informatika (% 83,2).

Familia horietako batzuetan, emakumeen matrikulazioa ia testigantzakoa da. Horrela, 2020-21 ikasturtean, Garraioan eta ibilgailuen mantentze lanetan % 5,2ra baino ez zen iristen; Instalatze eta mantentze lanetan % 7,9ra, Elektrizitatean eta elektronikan % 8,1era eta Informatikan eta komunikazioetan % 15,1era.

8 lanbide-arloetako heziketa-ziklo bakoitzeko okupazio-tasak V.1.9. taulan aurkezten dira, eta honako hau ikus daiteke:

- Hauek dira 100 ikasle baino gehiago mailaz igo diren zikloak eta % 85etik gorako edo ia % 85etik gorako okupazio-tasa dutenak:
 - Informatikan, Sareko informatika-sistemen administrazioko goi mailako gradua,
 - Ibilgailuen mantentze lanetan, Automozioiko goi mailako gradua,
 - Mantentze lanak eta produkzioarako zerbitzuetan, Mekatronika industrialeko goi mailako gradua,
 - Osasungintzan, Erizaintzako zainketa osagarrietako goi mailako gradua, Osasun-larrialdietako erdi mailako eta Ahoaren eta hortzen higieneko goi mailako graduak,
- Hauek dira % 90 baino gehiagoko okupazio-tasa duten zikloak (mailaz igo diren ikasleen kopurua kontuan hartu gabe):
 - Ibilgailuen mantentze lanetan, Makineriaren elektromekanikako erdi mailako gradua,
 - Mantentze lanak eta produkzioarako zerbitzuetan, Instalazio termikoen eta fluidodunak mantentzeko goi mailako gradua,
 - Osasungintzan, Osasun-larrialdietako erdi mailako gradua, Osasun dokumentazio eta administrazioko goi mailako gradua eta Diagnosi-irudiko eta medikuntza nuklearreko goi mailako gradua.

V.1.8. TAULA. OKUPAZIO-TASEN ETA IKASLEEN BOLUMENAREN BILAKAERA, LANBIDE-ARLOEN ARABERA
2017/2019KO PROMOZIOAK

	OKUPAZIO-TASA			IKASLEAK		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
NEKAZARITZA-JARDUERAK	81,1	78,8	80,2	164	163	160
ITSASOKO ETA ARRANTZAKO JARDUERAK	85,7	76,5	83,5	108	104	158
GORPUTZ- ETA KIROL-JARDUERAK	88,4	93,1	86,9	413	353	402
ADMINISTRAZIOA	80,1	81,4	74,9	1.006	1.105	1.257
ARTE GRAFIKOAK	73,9	73,4	71,0	168	175	169
MERKATARITZA ETA MARKETING	81,9	79,9	74,7	462	463	571
KOMUNIKAZIOA, IRUDIA ETA SOINUA	71,4	68,0	51,5	173	220	301
ERAIKUNTZAK ETA OBRA ZIBILAK	87,8	96,4	75,0	107	75	101
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	87,0	86,5	78,6	988	1.085	1.217
FABRIKAZIO MEKANIKOA	87,5	84,2	77,6	1.334	1.519	1.837
OSTALARITZA	77,3	80,8	78,0	397	361	404
TURISMOA	76,2	87,3	62,9	152	138	203
IRUDI PERTSONALA	78,4	81,5	70,5	397	418	448
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	53,1	72,0	74,2	57	50	62
INFORMATIKA	86,3	85,0	83,2	723	784	880
ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA	81,4	84,6	73,2	83	79	85
IBILGAILU AUTOPROPULTSATUEN MANTENTZE LANAK	85,7	84,8	85,9	527	532	614
MANTENTZE LANAK ETA PRODUKZIOARAKO ZERBITZUAK	88,8	89,1	84,3	659	687	933
KIMIKA	82,7	80,2	73,1	171	186	207
OSASUNGINTZA	83,5	78,6	85,0	1.460	1.436	1.599
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK	79,1	80,6	77,6	1.200	1.182	1.297
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	81,0	75,0	67,9	37	36	55
ENERGIA ETA URA	75,0	90,0	88,9	28	21	26
SEGURANTZA ETA INGURUMENA	72,0	72,2	57,9	51	57	48
GUZTIRA	83,2	82,6	78,5	10.865	11.229	13.034

Iturria: LANBIDE.

V.1.9. TAULA. MAILAZ IGO DIREN IKASLEEN BOLUMEN HANDIENA DUTEN ZIKLOETAKO OKUPAZIO-TASAK ETA IKASLEEN BOLUMENA. 2018KO PROMOZIOA*

2019. URTEA						
PRESTAKUNTZA ZIKLOA	TASA	IKASL		PRESTAKUNTZA ZIKLOA	LANGABEZI A	IKASL
4101. Administrazio kudeaketa EM.HZ	% 67,8	333		17101 Mantentze-lan elektromekanikoa. EM.HZ	% 78,7	272
4201 Administrazioa eta finantzak. GM.HZ	% 77,4	808		17103 Hotz-, girotze- eta bero-produkzio instalazioak muntatzea eta mantentzea EM.HZ		
4202 Zuzendaritzari laguntzea. GM.HZ	% 66,2	116		17104 beroa sortzeko instalazioak EM.HZ	% 86,7	49
ADMINISTRAZIOA	% 74,9	1.257		17105 hozteko eta girotze instalazioak EM.HZ	% 85,0	42
9103 instalazio elektrikoak eta automatikoak EM.HZ	% 80,0	312		17201 instalazio termikoen eta fluidodunen proiektuak garatzea GM.HZ	% 75,0	11
9104 CF telekomunikazio-instalazioak EM.HZ	% 72,7	85		17202 mekatronika industrialak. GM.HZ	% 84,8	467
9201 mantentze-lan elektronikoa GM.HZ	% 80,6	99		17204 arrisku profesionalen prebentzioa GM.HZ	% 77,8	31
9203 automatizazioa eta robotika industrialak GM.HZ	% 77,3	397		17205 instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea GM.HZ	% 91,1	61
9204 telekomunikazio eta informatika sistemak GM.HZ	74,1%	134		MANTENTZE LANAK ETA PRODUKZIOAKO ZERBITZUAK	% 84,3	933
9205 sistema elektrotekniko eta automatizatuak GM.HZ	% 82,7	175		19101 erizaintzako zainketa osagarriak EM.HZ	% 88,2	651
9206,00 9206-CF elektromedikuntza klinikoa. GM.HZ	% 88,9	15		19102 farmazia eta parafarmazia EM.HZ	% 75,0	125
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	% 78,6	1.217		19103 osasun-larrialdiak EM.HZ	% 90,7	145
10102 mekanizazioa EM.HZ	% 71,5	568		19201 anatomia patologikoa eta zitodiagnostikoa GM.HZ	% 87,5	36
10103 soldadura eta galdaragintza EM.HZ	% 81,2	151		19202 dietetika GM.HZ	% 81,0	119
10201 metalezko eraikuntzak GM.HZ	% 72,9	99		19203 osasun dokumentazioa eta administrazioa GM.HZ	% 91,7	53
10202 fabrikazio mekanikoko diseinua GM.HZ	% 73,3	271		19204 ahoaren eta hortzen higiena GM.HZ	% 86,8	148
10205 fabrikazio mekanikoko produkzioa programatzea GM.HZ	% 81,0	748		19205 diagnosi-irudia eta medikuntza nuklearra GM.HZ	% 90,5	72
10206 fabrikazio mekanikoko diseinua GM.HZ				19206 laborategi klinikoa eta biomedikoa	% 80,8	174
FABRIKAZIO MEKANIKOA	% 77,6	1.837		19207 ortoprotesiak eta laguntza produktuak GM.HZ	% 58,3	20
14101 sistema informatikoen ustiapena EM.HZ				19208 hortz-protesiak GM.HZ	% 75,0	16
14102 sistema mikroinformatikoak eta sareak EM.HZ	% 68,6	308		19209 erradioterapia eta dosimetria GM.HZ	% 42,9	29
14201 sistema informatikoen administrazioa GM.HZ				19210 ingurugiro osasuna GM.HZ	% 57,1	11
14202 plataforma anitzeko aplikazioen garapena GM.HZ	% 82,4	237		OSASUNGINTZA	% 85,0	1.599
14203 sareko informatika-sistemen administrazioa GM.HZ	% 88,9	180		20101 mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta EM.HZ	% 77,1	357
14204 web aplikazioen garapena GM.HZ	% 83,3	155		20201 animazio soziokulturala eta turistikoa GM.HZ	% 80,0	49
INFORMATIKA	% 83,2	880		20202 haur-hezkuntza GM.HZ	% 72,8	441
16101 karrozeria EM.HZ	% 76,6	101		20203 gizarteratzea GM.HZ	% 81,3	450
16102 ibilgailuen elektromekanika EM.HZ	% 82,3	229		20204 zeinu-hizkuntzaren interpretazioa GM.HZ		
16103 makineriaren elektromekanika EM.HZ	% 100,0	16		GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK ETA KOMUNITATEAREN ZERBITZUAK	% 77,6	1.297
16201 automobilgintza GM.HZ	% 89,3	268				
IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK	% 85,9	614				

* Mailaz igo diren ikaslerik gabeko epigrafeak sartu gabe

Iturria: LANBIDE

1.2. UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZAK


1.2.1. Unibertsitateko matrikulazioa

EUSTATen “Unibertsitate Estatistika”ren datuen arabera, 2019-20 ikasturtean 68.237 ikasle matrikulatu ziren guztira EAEn ikastetxeak zituzten unibertsitateetan, hau da, aurreko ikasturtean baino % 1,3 gehiago.

Graduko ikasleak ikasle guztien % 84,3 izan ziren, eta aurreko ikasturtearen aldean % 1,2 gehitu ziren. Gainerako % 15,7a graduondoko ikasketetan matrikulatu zen (master ofizialak eta doktoretzak), lehenengoan % 1,5eko eta bigarrenen % 1,8ko igoyerarekin. Lehen eta bigarren zikloko ikasketak 2017/18 ikasturtean desagertu ziren.

V.1.10. TAULA. EAE-N UNIBERTSITATEAN Matrikulatutako ikasleen garapena, ikasketen arabera							
	2015/16	2016/17	2017/18	2018/19	2019/20		ALDAKUNTZA (%) 2018/19-2019/20
					GUZTIRA	% BERTIKALA	
GUZTIRA	66.830	66.286	66.757	67.374	68.237	100,0	1,3
LEHENENGO ETA BIGARREN ZIKLOETAN Matrikulatutakoak	1.085	3					
GRADUETAN Matrikulatutakoak	55.766	56.177	56.558	56.845	57.534	84,3	1,2
GRADUONDOETAN Matrikulatutakoak	9.979	10.106	10.199	10.529	10.703	15,7	1,7
MASTER OFIZIALAK	5.782	5.934	6.075	6.137	6.230	9,1	1,5
DOKTORETZAK	4.197	4.172	4.124	4.392	4.473	6,6	1,8

Iturria: EUSTAT. Unibertsitatearen estatistika



Ikastetxeen titulartasunaren arabera bereiziz gero, ikasleen % 71,6 unibertsitate publikoan matrikulatu zen, eta ratio horrek behera egiten jarraitzen zuen. Graduetan ratioa antzekoa zen (% 71,4), master ofizialetan % 62,4ra jaitsi zen, eta doktoregoko ikasketetan % 87,1era iritsi zen, goranzko joerari jarraituz.

Unibertsitateko ikasle gehienak emakumeak izan ziren (% 54). Graduetan % 54,7 dira, eta graduondoko programetan orekatuago dago banaketa, emakumeen ratioa % 50,3koa baita.

V.1.11. TAULA. EAE-KO UNIBERTSITATEETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK IKASKETEN, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA

	2017-18			2018-19			2019-20		
	GUZTIRA	EMAKU MEEN %	IKASTET XE PUBLIKO EN %	GUZTIRA	EMAKU MEEN %	IKASTET XE PUBLIKO EN %	GUZTIRA	EMAKU MEEN %	IKASTETXE PUBLIKOEN %
GUZTIRA	66.757	53,8	73	67.374	53,8	72,0	68.237	54,0	71,6
LEHENENGO ETA BIGARREN ZIKLOETAN MATRIKULATUTAKOAK									
GRADUETAN MATRIKULATUTAKOAK	56.558	54,3	73	56.845	54,4	72,0	57.534	54,7	71,4
GRADUONDOETAN MATRIKULATUTAKOAK	10.199	50,8	71	10.529	50,3	72,4	10.703	50,3	72,7
MASTER OFIZIALAK	6.075	50,0	61	6.137	49,6	62,2	6.230	50,8	62,4
DOKTORETZAK	4.124	51,9	87	4.392	51,3	86,6	4.473	49,6	87,1

Iturria: EUSTAT. Unibertsitatearen estatistika

V.1.12. TAULA. UNIBERTSITATEAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, IKASKETA ADARREN ETA SEXUAREN ARABERA.

	2017-18			2018-19			2019-20		
	GUZTIRA	% HORIZONTALAK		GUZTIRA	% HORIZONTALAK		GUZTIRA	% HORIZONTALAK	
		GIZONAK	EMAKUMEAK		GIZONAK	EMAKUMEAK		GIZONAK	EMAKUMEAK
GUZTIRA	56.558	45,7	54,3	67.374	46,2	53,8	68.237	46,0	54,0
Artea eta giza zientziak	5.231	37,0	63,0	6.139	37,9	62,1	6.189	37,3	62,7
Zientziak	3.050	47,9	52,1	4.232	48,5	51,5	4.312	49,3	50,7
Osasun zientziak	7.480	23,0	77,0	8.843	23,2	76,8	8.969	23,2	76,8
Gizarte eta zuzenbide zientziak	28.525	41,4	58,6	32.768	41,2	58,8	33.005	40,8	59,2
Ingeniaritza eta arkitektura	12.272	72,7	27,3	15.392	72,7	27,3	15.762	72,3	27,7

Iturria: Eustat. Unibertsitatearen estatistika

LHko matrikulazioan gertatzen den bezala, eutsi egiten zaie titulazioak sexuaren arabera aukeratzeari dagokionez dauden aldeei. Horrela, ikusten da emakumeen parte-hartzea unibertsitateko adar teknikoetan (Ingeniaritza eta arkitektura) gizonena baino txikiagoa dela (2019-20 ikasturtean, % 27,7 vs % 72,3).

EUSTATen informazioaren arabera, Ingeniaritzaren adarrean, ikasketa maskulinizatuenetako batean, emakumeen presentzia zertxobait handitu da azken hamar urteetan, baina txikia izaten jarraitzen du. Zehazki, ehuneko 2,7 puntu hazi zen, 2010/2011 ikasturtean % 25 eta 2019-20 bitartean % 27,7.

Eremu horren barruan, nahiz eta nagusi maskulinoa izan eta bilakaera desberdina izan den, emakumeen laurden bat baino gutxiago duten karrera ia guztiak adar horretakoak baitira, nabarmentzekoak dira emakumeak nagusi diren espezialitate batzuk, hala nola Arkitekturako Oinarriak (% 57), Industria Ingeniaritza eta Produktu Garapena (% 53,1) edo Industria Ingeniaritza Kimikoa (% 58,3).

Zientzien adarrean parekotasun erantsi handiagoa ikusten da (emakumeen ratioa: % 50,7), espezialitate batzuetan dagoen orekatatik. Esate baterako, Matematikan, emakumeen ehuneko % 48ra iristen da, eta Kimikan, berriz, % 54,2ra. Hala ere, Fisikako ikasketek gizonaen aukera izaten jarraitzen dute, eta emakumeen presentzia % 27,9koa da.

Osasun-zientzietan, gradu guztiak oso feminizatuta daude, eta horietako batzuk handitzen ari dira. Emakumeen ehuneko handiena Erizaintzan dago (% 84,1), 2010/2011 ikasturtearen antzekoa. Medikuntzan, osasun-zientzien beste adar oso bereizgarri eta eskatu bat, % 73,4 izan da 2019/2020 aldian, 2010/2011 aldiko % 67,6 baino nabarmen handiagoa. Odontologiak medikuntzaren antzeko datuak eta igoyerak erakusten ditu, % 67,6tik % 74,2ra.

1.2.2. Unibertsitateko tituluak lortzea

2019-20 ikasturtean 14.002 pertsona graduatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 7,8 gehiago. Emakumeak, guztira, % 56,8 izan ziren. Ikasketa motari dagokionez, 10.146k graduako titulua jaso zuten, 3.421ek master ofizialeko titulua lortu zuten eta 435 doktoretza lortu zuten. Aurreko ikasturtearekiko aldakuntza positiboa izan zen graduetan (+% 8,9) eta master ofizialetan (+% 6,3), baina negatiboa gainditutako tesietan (-% 5).

Graduko ikasketetara joz gero, ikasleen % 53,2 Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen adarreko ikasketetan graduatu ziren, eta ondoren, % 20,1 Ingeniaritza eta Arkitekтура. Neurri txikiagoan Osasun Zientzietan (% 13,6), Arte eta Giza Zientzietan (% 7,7) eta Zientzietan (% 5,4).

Sexuaren araberako aldeak graduako ikasketen adarraren aukeraketan ikusten dira, eta emakumeek nahiago dituzte, batez ere, Osasun-zientzien barruan sartzen diren programak (guztizkoaren % 78,2 emakumeak dira), Arteak eta Giza Zientziak (guztizkoaren % 68,2), Gizarte eta Lege Zientziak (% 62,8) eta Zientziak (% 54), Irakaskuntza teknikoak (% 29,6 soilik dira emakumeak) baino.

V.1.13. TAULA. EAE-KO UNIBERTSITATEETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN GARAPENA							
	2016/17	2017/18	2018/19	2019/20			
				GUZTIRA	% BERTIKALAK	% EMAKUMEAK (HORIZONTALA)	AURREKO IKASTURTEA REKIKO ALDAKUNTZA
GRADUAK	8.897	9.209	9.316	10.146	100,0	58,2	8,9
ARTEA ETA GIZA ZIENTZIAK	714	741	715	777	7,7	68,2	8,7
ZIENTZIAK	457	466	485	546	5,4	54,0	12,6
OSASUN ZIENTZIAK	1.285	1.294	1322	1378	13,6	78,2	4,2
GIZARTE ETA ZUZENBIDE ZIENTZIAK	4.457	4.792	4871	5402	53,2	62,8	10,9
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	1.984	1.916	1923	2043	20,1	29,6	6,2
<i>TITULAZIO BIKOITZAK (*)</i>	159	205	335				
MASTER OFIZIALAK	3204	3.244	3.219	3.421		53,8	6,3
DOKTORETZA TESIAK	764	367	458	435		48,0	-5,0
GUZTIRA	12.865	12.820	12.993	14.002		56,8	7,8

(*) Aurreko erregistroetan gehitutako zenbatekoa
Iturria: EUSTAT. Unibertsitatearen estatistika

1.2.3. Ikasleak laneratzea. Graduatutako graduaren promozioa 2017an

Atal honetan, EAEko hiru unibertsitateetan 2017an graduatutako gradu-promozioaren 2020ko abenduko laneratzea aztertzen da, LANBIDERen informaziotik abiatuta. Datuak telefono bidezko elkarrizketa pertsonalaren bidez lortu ziren (CATI), 2020ko azarotik abendura bitartean, eta emaitzak zuzeneko erantzunetan oinarrituta aurkezten dira, haztatu gabe.

Lanbideren datuen arabera, 8.255 pertsona elkarrizketatu ziren, eta guztizkoaren % 58 emakumeak izan ziren. Graduatutako pertsonen batez besteko adina 24 urtekoa izan zen, karreraren batez besteko iraupena 4,5 urtekoa eta batez besteko nota 7,2koa.

Laneratzeari dagokionez, jarduera-tasa⁵ % 93an kokatu zen, enplegu-tasa⁶ % 81ean, okupazio-tasa⁷ % 87an eta langabezia-tasa⁸ % 13an. Ratio horiek 2016ko eta 2015eko promozioetarako behatutakoekin alderatuz gero, ikusten da egoerak okerrera egin duela azken urteetan.

Ikasketak amaitu eta lehen enplegua lortu arte igarotako denbora⁹ 11 hilabetekoa da, 2015eko berbera, baina 2016an baino zertxobait txikiagoa.

Gizonen eta emakumeen arteko konparazioak ez du alderik erakusten bien artean, jarduera, enplegu, okupazio eta langabezia tasak berdinak baitira; hala ere, 2017an promozionatutako emakumeek gizonen baino hilabete gehiago behar izan zuten lehen enplegua lortzeko.

V.1.14. TAULA. EAE-KO UNIBERTSITATEETAN GRADUATUTAKO BIZTANLEAK LANERATZEA
2015/2017KO PROMOZIOAK.

	2015 2018KO ABENDUAN			2016 2019KO ABENDUAN			2017 2020KO ABENDUAN		
	PROMOZIOAREN DESKRIBAPENA								
GRADUATUTAKO PERTSONEN KOPURUA	8.880			8.965			8.255		
EMAKUMEEN %a GUZTIZKOAREN ALDEAN	57			57			58		
BATEZ BESTEKO ADINA KARRERA AMAITZEAN	25			24			24		
KARRERAREN BATEZ BESTEKO IRAUPENA, URTETAN	4,6			4,7			4,5		
KARRERAKO BATEZ BESTEKO NOTA	7,1			7,1			7,2		
	LANERATZEARI BURUZKO DATUAK								
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
JARDUERA-TASA	94	94	95	93	94	94	93	93	93
ENPLEGU-TASA	87	87	87	84	84	84	81	81	81
OKUPAZIO-TASA	92	92	92	90	90	90	87	87	87
LANGABEZIA-TASA	8	8	8	10	10	10	13	13	13
KARRERAREN AMAIERAREN ETA LEHEN ENPLEGUAREN ARTEKO DENBORA (HILABETEEN BATEZ BESTEKO)	11	11	11	13	13	12	11	12	11

Iturria: LANBIDE. Lan-munduan sartzeari buruzko azterlana. Laneratzea, 2020ko abendua. Euskal unibertsitateen multzoa

Jakintza-arloen arabera, osasungintzari eta espezialitate teknikoei lotutakoak dira enplegu-tasarik handienak dituztenak; bi kasuetan, % 87. Ondoren, daude arlo ekonomiko-juridikoa, % 80rekin, eta soziala, % 77rekin.

Langabezia-tasarik txikienak osasungintzari eta espezialitate teknikoei lotutako jakintza-arloetan ematen dira, % 7 eta % 9, hurrenez hurren. Tasarik handienak humanitateetan (% 20) eta gizarte-alorretan (% 17) erregistratu dira.

Enplegu egokituari dagokionez, hirugarren mailako prestakuntzari lotutako enplegua duten landunen ehunekoa (unibertsitatekoa edo goi mailako profesionala)¹⁰ % 86koa da; tasarik handienak arlo teknikoetan erregistratu dira (% 96), ondoren osasungintzari lotutako arloetan (% 94) eta esperimentaletan (% 92).

⁵ Jarduera-tasa: lana ematen duten pertsonen ehunekoa eta enplegurik ez dutenak, baina bila dabilzanak eta bertan jartzeko prest daudenak. Pertsona aktiboak landunek eta langabeek osatzen dituzte.

⁶ Enplegu-tasa: ordaindutako enplegua duten edo jarduera independentea egiten duten pertsonen ehunekoa, erantzun guztiekiko.

⁷ Okupazio-tasa: ordaindutako enplegua duten pertsonen ehunekoa, pertsona aktibo guztiekiko.

⁸ Langabezia-tasa: ordaindutako enplegurik ez duten pertsonen ehunekoa.

⁹ Lan-esperientzia duen biztanleria aktiboak erantzuten du, ikasketak amaitu aurretik okupatuta zeudenak izan ezik.

¹⁰ Enpresen zuzendaritza eta gerentzia, Unibertsitateko titulazioari lotutako profesional zientifikoak eta intelektualak eta laguntzako teknikariak eta profesionalak.

Bestalde, lana ikasketekin NAHIKO edo ASKO lotuta dagoela uste duten landunen ehuneko % 79koa zen. Ratorik handienak osasungintza (% 90) eta arlo teknikoak eta esperimentalak (% 81) ziren.

Hau da, pertsonen % 86k hirugarren mailako titulazio bati lotutako enplegua garatzen zuen, baina, kasu batzuetan, ez zegoen zuzenean lotuta beren prestakuntzarekin.

V.1.15. TAULA. EAE-KO UNIBERTSITATEETAN GRADUATUTAKO BIZTANLEAK LANERATZEA JAKINTZA-ARLOAREN ARABERA. PROMOZIOA 2017TIK 2020KO ABENDURA. DATUAK EHUNEKOETAN.					
	JARDUERA-TASA	ENPLEGU-TASA	LANGABEZIA-TASA	NEURRIKO ENPLEGU-TASA	IKASKETEKIN NAHIKO EDO OSO LOTUTA DAGOEN ENPLEGUA (%)
ESPERIMENTALAK	87	73	16	92	81
TEKNIKOAK	96	87	9	96	83
OSASUNGINTZA	93	87	7	94	90
SOZIALAK	94	77	17	80	73
EKONOMIKO-JURIDIKOAK	92	80	12	77	76
GIZA ZIENTZIAK	90	72	20	82	71
GUZTIRA	93	81	13	86	79

Iturria: LANBIDE. Lan-munduan sartzeari buruzko azterlana. Laneratzea, 2020ko abendua. Euskal unibertsitateen multzoa

1.3. HEZKUNTZA-ADIERAZLEAK

Hezkuntza-sistema baten alderdi anitzak diseinatzerakoan sailkapen asko erabil daitezkeen arren, epigrafe honen oinarria Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren "*Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren Mapa*" da, jarraian agertzen dena.

Memoria Sozioekonomiko honetan ohikoa denez, adierazle batzuen jarraipena egiten da urtero; beste batzuk, berriz, bi urtean behin edo hiru urtean behin aztertzen dira, beste adierazle batzuk jasotzeko; eta, aldi berean, informazio berria dagoenean aztertzen diren beste adierazle batzuk jasotzen dira (Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetako Ebaluazio Diagnostikoa kasua).

Epigrafearen azken zatian, unibertsitate-sistemari buruzko beste adierazle batzuk jasotzen dira, baita unibertsitateek Shanghaiko rankingean duten posizioaren azterketa ere.

V.1.16. TAULA. ADIERAZLEEN SAILKAPENA	
Eskolaratzea eta hezkuntza ingurunea	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolaratzea eta biztanleria • Eskolatzetarako tasak • Ikasle atzeritarrak • Ikasleak, talde eta irakasle bakoitzeko • Lanbide Heziketa • Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza • Irakasleria • Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea • IKT
Hezkuntza finantzaketa	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzako gastu osoa • Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko
Hezkuntza emaitzen adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarritzko gaitasunak Lehen Hezkuntzako laugarren mailan • DBHko bigarren mailako oinarritzko gaitasunak • 15 urterekin izan beharreko ezinbesteko gaitasunak (PISA) • Ikasleen adinaren egokitasuna • Hezkuntza eta prestakuntza goiz uztea • Titulua lortu dutenen tasak • Helduen prestakuntza maila • Jarduera eta langabezia tasak prestakuntza mailaren arabera • Laneko diru-sarrerak, prestakuntza mailaren arabera • Helduen gaitasun-maila • Irakurketarako eta matematikarako gutxieneko gaitasun-maila

Iturria: Hezkuntza adierazleen estatuko sistema. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta guk egindakoa

Epigrafe honetan zehar kontuan izan behar dira Hezkuntzako Normalizatutako Nazioarteko Sailkapena -CINE 2011- eta Hezkuntzako Sailkapen Nazionala -CNED 2014-, memoria honetako glosarioan jasota daudenak.

Komeni da kontuan hartzea epigrafe honetan zehar Hezkuntzako Nazioarteko Saillapen Normalizatua (CINE 2011) eta Hezkuntzako Saillapen Nazionala (CNED 2014), memoria honen glosarioan ageri direnak.


1.3.1. Eskolaratze eta hezkuntza ingurune adierazleak

16 eta 18 urte bitarteko eskolatzetasa garbia

Euskadin eskolatzetasa garbi handiak daude 16 eta 18 urte bitartean, eta horrek adierazten du eskola-uzte goiztiarraren tasa murriztua dela. 2018-2019 ikasturtean, 16 urterekin % 97,9ko eskolatzetasa izan zuen Euskadik; 17 urterekin, % 95,3koa; eta 18 urterekin, % 90,4koa.

Sexuaren arabera berezita, 16 urterekin gizonen eta emakumeen eskolatzetasa antzekoak ziren. 17 urterekin, emakumeen eskolatzetasa gizonena baino handiagoa zen, eta horrek esan nahi du emakumeek, adin horretan, gizonek baino gutxiago uzten zutela hezkuntza-sistema. Hala ere, 18 urterekin Euskadin unibertsitatez kanpoko hezkuntzan eskolatutako gizonen ehunekoa emakumeena baino 4,4 puntu handiagoa zen.

V.1.2. GRAFIKOA. 16 ETA 18 URTE BITARTEKO ESKOLATZE-TASA GARBIA EAEN, SEXUAREN ARABERA. 2018-19 IKASTURTEA



Iturria: "Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa. 2021" ISEI-IVEI

Ikasle ratioa irakasle eta talde bakoitzeko (gela)

Irakasle bakoitzeko ikasle-ratioa hezkuntza-erakunde bateko eta besteko ikasle-kopuruaren eta irakasle-kopuruaren arteko erlazioa da. Jarraian ikus daitekeenez, harreman hori aldatu egiten da hezkuntza-mailaren eta sarearen arabera (publikoa edo itunpekoa).

Hala, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan ratioa % 13 ingurukoa zen, eta aztertutako aldi osoan (2014-15etik 2018-19ra) ehuneko puntu batetik beherako aldeak zeuden; DBHn, berriz, ehuneko txikiagoa zen (% 11), eta aztertutako aldi osoan ehuneko puntu batetik beherako aldeak zeuden. Proporzio txikiago hori bigarren hezkuntzan eskaintzen diren banaketen eta aukerako ikasgaiak eragin zuten.

Aldi berean, ratio altuagoak ikusten ziren itunpeko sarean, eta hori gertatzen zen haur eta lehen hezkuntzan eta DBHn.

V.1.17. TAULA. EDP-KO IKASLEEN/IRAKASLEEN RATIOAREN BILAKAERA, DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZAKO MAILAREN ETA IKASTETXEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA, EAE-N					
	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA					
GUZTIRA	13,7	13,7	13,8	13,5	13,3
SARE PUBLIKOA	10,8	10,7	10,8	10,6	10,4
ITUNPEKO SAREA	19,4	19,5	19,8	19,2	19,2
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA					
GUZTIRA	11,5	11,4	11,5	11,3	11,2
SARE PUBLIKOA	8,7	8,6	8,6	8,3	8,2
ITUNPEKO SAREA	16,8	17	17,7	17,1	17,3

Iturria: "Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa. 2021" ISEI-IVEI

Jarraian, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 2019-20 ikasturteko ikasgelako ikasle-ratioak jasotzen dira 2019-20 ikasturterako.

Euskadiko ikastetxe guztietan talde bakoitzeko ikasle-ratioak gora egin zuen hezkuntza-maila handiagoa zen heinean, LHn izan ezik, talde bakoitzeko 20 ikasle inguru baitzeuden.

Sare publikoaren eta sare itunduaren arteko aldeak, batez beste, 4,5 ikasle gehiago zeuden itunpeko sarean sare publikoan baino, LHn izan ezik.

V.1.18. TAULA. IKASLEEN TALDEKO RATIOA EAE-N. 2019-20 IKASTURTEA			
	GUZTIRA	IKASTETXE PUBLIKOAK	ITUNPEKO IKASTETXEAK
HAUR HEZKUNTZA	18,24	16,71	21,15
LEHEN HEZKUNTZA	21,36	19,62	23,74
DBH	24,02	21,57	26,52
BATXILERGOA	27,51	24,82	30,07
LH DBH ETA BATXILERGOA DITUZTEN IKASTETXEAK	19,63	20,20	21,61
LH IKASTETXE INTEGRATUAK		18,05	

Iturria: "Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa. 2021" ISEI-IVEI

1.3.2. Hezkuntza finantzaketaren adierazleak

EUSTAT: Hezkuntza-kontua

EUSTATen Irakaskuntzaren kontuan hezkuntza alor guztietako (araututako eta ez arautuak) ohiko gastua eta kapital gastua jasotzen dira, hezkuntza erakundeetan eta bestelako zentroetan eta enpresetan egindakoak, eta iturri publikoekin eta pribatuekin finantzatuak izan direnak.

Kontu honen datuen arabera, Euskadin, 2019an, hezkuntzako gastu osoa % 3,7 hazi zen, aurreko urtearen aldean, eta 4.145 milioi eurora iritsi zen. Gastu arrunta 165 milioi handitu zelako hazi zen, 2018an baino % 4,3 gehiago. Bestalde, inbertsioa 17,9 milioi murriztu zen 2018arekin alderatuta, urte horretan hazkunde handia izan baitzuen. Biztanle bakoitzeko guztizko gastua % 3,2 hazi zen 2019an, 1.889 eurora iritsiz.

Finantzaketa-egiturari dagokionez, finantzaketa publikoa % 75,9koa zen.

Funtzioen araberrako banakapen handiagoak adierazten du Hezkuntza eta Prestakuntza Zerbitzuak gastu osoaren % 80,6 izan zirela, eta Jarduera Osagarriak (garraioa, jantokia, egoitza...), 277 milioiko gastuarekin, % 6,7 izan ziren. Liburuak, eskola-materiala eta etxeek erositako beste ondasun batzuk partidaren egindako gastua 154 milioikoa izan zen, % 3,7koa, eta Hezkuntza Sistemaren Administrazio Orokorrekin lotutako gastua, berriz, % 1ekoa. Bi ehunekoak azken urteetan mantendu egin dira. Guztizko gastuan partaidetza murriztu zuten partidak hauek izan ziren: Hezkuntza Ikerketa eta Berrikuntzako gastua (0,5 puntu murriztu zen, % 3,7raino) eta kapital-eraketa gordina (18 milioi murriztu zen 2018aren aldean, guztizko gastuaren % 4,3).

EUSTATen informazioaren arabera, gastu arruntaren xehetasunak erakusten du 2019an finantzaketa publikoa dela nagusi hezkuntza-zerbitzuetan (% 83,3) eta kapital-gastuan (% 58,6); bestalde, finantzaketa pribatua handiagoa da gainerako jarduera eta ondasunen gastuan (% 58,5), garraioa, eskola-jantokia, liburuak eta eskola-materiala eta hezkuntza-sistemaren administrazio orokorra barne.

2020ari buruzko datuen aurrerapenak erakusten du gastuak % 0,2 egin zuela gora 2019arekin alderatuta. Hezkuntza-sektorea, gainerako jarduera guztiak bezala, COVID-19ak eragindako krisiak aztoratu zuen 2020an.

Hazkunde-tasa horrek eta BPGaren bilakaera negatiboak (% 9,6) eragin zuten hezkuntzako gastua BPGarekiko % 5,78ra iristea, 2019arekin alderatuta ehuneko 0,56 puntu igoz.

Gastu osotik, 3.978 milioi gastu arruntekoak izan ziren, eta 174 milioi kapital-eraketa gordinekoak (inbertsioa); hezkuntzako gastua 1.887 eurokoa izan zen biztanleko.

Finantzaketa-egiturari dagokionez, finantzaketa publikoa % 75etik gora dago aztertutako urte guztietan; azken urtean, 2020an, % 76,9ra iritsi zen.

V.1.19. TAULA. EAE-KO HEZKUNTZAREN DATU ETA ADIERAZLE NAGUSIAK. 2017-2020

	2017	2018	2019	2020 (aurrerape- na)	ALD. 2018/19	ALD. 2019/20
HEZKUNTZAKO GASTUA, GUZTIRA (MILA EUROTAN)	3.858.346	3.997.493	4.144.804	4.151.662	3,7	0,2
GASTU ARRUNTA, GUZTIRA	3.730.457	3.802.770	3.967.934	3.977.699	4,3	0,2
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	127.889	194.723	176.870	173.963	-9,2	-1,6
BIZTANLEKO GASTUA (eurotan)	1.771	1.830	1.889	1.887	3,2	-0,1
GASTUA BPGd-AREN GAINEAN (%)	5,24	5,2	5,22	5,78		
FINANTZAKETA	3.858.346	3.997.493	4.144.804	4.151.662	3,7	0,2
FINANTZAKETA PUBLIKOA (MILA EUROTAN)	2.959.332	3.019.001	3.146.263	3.193.158	4,2	1,5
FINANTZAKETA PUBLIKOA (%)	76,7	75,5	75,9	76,9		
FINANTZAKETA PRIBATUA (MILA EUROTAN)	899.014	978.492	998.541	958.504	2,0	-4,0
FINANTZAKETA PRIBATUA (%)	23,3	24,5	24,1	23,1		

Iturria: Hezkuntza-kontua. EUSTAT

V.1.20. TAULA. HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUAREN BILAKAERA EAE-N, FUNTZIOEN ARABERA (MILAKA EURO).

	2016	2017	2018	2019	2019 % BERTIKALA	ALD. 2018-19
HEZKUNTZAKO GASTUA, GUZTIRA	3.784.637	3.858.346	3.997.493	4.144.804	100,0	3,7
HEZKUNTZAKO GASTU ARRUNTA, GUZTIRA	3.670.885	3.730.457	3.802.770	3.967.934	95,7	4,3
EF.1. HEZKUNTZA- ETA PRESTAKUNTZA-ZERBITZUAK	3.072.635	3.128.160	3.180.286	3.341.771	80,6	5,1
EF.2. JARDUERA OSAGARRIAK	262.117	257.804	267.777	277.034	6,7	3,5
EF.2.1. GARRAIOA	46.575	43.157	42.133	44.076	1,1	4,6
EF.2.2. JANTOKIA	169.133	165.970	179.749	184.812	4,5	2,8
EF.2.3. EGOITZA	1.250	1.274	1.095	1.383	0,0	26,3
EF.2.4. BESTE BATZUK	45.159	47.403	44.800	46.763	1,1	4,4
EF.3. LIBURUAK, ESKOLA-MATERIALA ETA ETXEEK EROSITAKO BESTE ONDASUN BATZUK	140.769	142.659	148.021	154.273	3,7	4,2
EF.4. HEZKUNTZA-SISTEMAREN ADMINISTRAZIO OROKORRA	39.533	39.599	40.032	42.419	1,0	6,0
EF.5. IKERKETA ETA BERRIKUNTZA	155.831	162.235	166.654	152.437	3,7	-8,5
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	113.752	127.889	194.723	176.870	4,3	-9,2

Iturria: Hezkuntza-kontua. EUSTAT

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa: Hezkuntzako gastu publikoa, administrazio motaren arabera

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren “Espainiako hezkuntzaren zifrak. 2022ko edizioa” txostenean jasotako datuen arabera, EB27ko¹¹ hezkuntzako gastu publikoa 2018an BPGd-ren % 4,71koa izan zen, estatuko % 4,03ko ratioaren gainetik. Ratio handienak dituzten herrialdeak aurreko urteko berberak ziren (rankingean aldaketak izan zituzten): Suedian (% 7,18), Belgikan (% 6,29), Danimarkan (% 6,24), Finlandian (% 5,93), Zipren (% 5,49), Frantzian (% 5,41), Herbehereetan (% 5,36) eta Austrian (% 5,11).

V.1.21 taulak erakusten duen bezala, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuen arabera, 2020an (pandemiaren lehen urtea), Estatuko administrazio eta unibertsitate guztietarako hezkuntzako gastu publikoa, finantza-kapitulua kenduta (horrek gorabeherak kentzen ditu eta nazioarteko konparazioa ahalbidetzen du), 55.058 milioi eurokoa izan zen, hau da, BPGaren % 4,91 (2018an % 4,19 eta 2019an % 4,25).

V.1.21. TAULA. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN GARAPENA, ADMINISTRAZIO MOTAREN ARABERA (MILA €).								
GASTU PUBLIKOA, FINANTZA KAPITULUA KANPO								
	GASTUA				% GASTUA/BPGd			
	2017	2018	2019	2020	2017	2018	2019	2020
ESTATUA, GUZTIRA	48.938.712	50.455.042	52.832.493	55.057.907	4,21	4,19	4,25	4,91
HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA ETA HEZKUNTZA-ESKUMEN GUZTIAK BEREANATUTA DITUZTEN AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAK	42.869.280	44.250.967	46.397.747	49.076.882	3,69	3,68	3,73	4,37
<i>Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa</i>	2.126.114	2.185.106	2.215.943	2.576.620	0,18	0,18	0,18	0,23
<i>Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, autonomia erkidegoetara egindako transferentziak kenduta</i>	1.732.277	1.820.979	1.850.151	1.900.000	0,15	0,15	0,15	0,17
Autonomia erkidegoetako hezkuntza administrazioak (Hezkuntza Kontseilaritzak/Sailak)	41.137.002	42.429.988	44.547.596	47.176.882	3,54	3,53	3,58	4,20
ANDALUZIA	7.922.238	8.118.668	8.424.026	8.903.703	5,10	5,06	5,11	5,91
ARAGOI	1.170.995	1.219.199	1.268.254	1.305.580	3,29	3,31	3,33	3,70
ASTURIAS	820.846	830.903	866.769	903.874	3,63	3,58	3,66	4,21
BALEAR UHARTEAK	908.234	955.167	1.006.072	1.028.903	2,89	2,92	2,94	3,84
KANARIAR UHARTEAK	1.643.219	1.698.521	1.770.256	1.906.268	3,72	3,71	3,73	4,87
KANTABRIA	569.907	588.723	617.618	636.823	4,31	4,28	4,36	4,95
GAZTELA ETA LEON	2.116.940	2.182.941	2.244.792	2.409.886	3,78	3,73	3,75	4,35
GAZTELA-MANTXA	1.623.367	1.700.148	1.828.487	1.923.473	4,07	4,10	4,30	4,86
KATALUNIA	6.428.514	6.653.436	6.946.446	7.474.819	2,90	2,90	2,92	3,51
VALENTZIA	4.456.698	4.654.896	4.935.892	5.251.482	4,13	4,17	4,28	5,01
EXTREMADURA	1.031.124	1.064.098	1.116.324	1.129.411	5,28	5,30	5,44	5,83
GALIZIA	2.385.149	2.442.203	2.548.970	2.642.174	3,95	3,91	3,96	4,47
MADRIL	5.004.857	5.166.939	5.514.667	5.912.917	2,25	2,24	2,29	2,73
MURTZIA	1.378.366	1.426.659	1.523.214	1.620.769	4,51	4,59	4,72	5,41
NAFARROA	656.506	675.027	729.001	788.562	3,36	3,36	3,49	4,09
EAE	2.740.020	2.762.043	2.902.797	3.009.417	3,93	3,84	3,92	4,52
ERRIOXA	280.024	290.416	304.011	328.823	3,38	3,38	3,44	4,05
<i>Hezkuntza eskumen guztiak ez dituzten autonomia erkidegoak</i>				
<i>Beste administrazio batzuk</i>	3.568.671	3.679.354	3.870.448	3.747.847				
ADMINISTRAZIOAGATIK BANATU GABEKO GASTUA - Egotzitako Kotizazio sozialak	4.443.000	4.445.000	4.509.000	4.427.000				
<i>Estatuko administrazioek tokiko erakundeei egindako transferentziak - DOIKUNTZA PARTIDA</i>	-221.474	-244.173	-267.156	-426.887				

Iturria: Baliabide ekonomikoak. Gastu publikoa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, EIN eta geuk egina

¹¹ Erabilitako metodologian ez da sartzen Haur Hezkuntzako gastua.

Administrazioen arabera estatuko gastu publikoa aztertuz, logikoa den moduan, zati handiena Hezkuntza Ministerioari eta autonomia erkidegoetako hezkuntza administrazioei dagokie (Hezkuntza Kontseilaritzak eta Sailak). Hala, autonomia-erkidego guztietako hezkuntza-administrazioen gastua 49.076,9 milioi eurokoa izan zen 2020an (46.397,6 milioi aurreko urtean), hau da, BPGaren % 4,37 (% 3,73 aurreko urtean). EAEn, gastu hori 3.009,4 milioi eurokoa zen (2.902,8 milioi 2019an), hau da, BPGaren % 4,52, estatuko ratioa baino 0,15 puntu handiagoa eta gure erkidegoak 2019an erregistratutakoa baino 0,6 puntu handiagoa.

Europako eta erreferentziako herrialdeetako batez bestekoarekin konparatzeko, guztizko gastuak izan ditugu aintzat (administrazioen multzokoak), lehenengo paragrafoan aipatutakoak. Ondorioz, EAEko eta Europako batez besteko datuak (hedaduraz, herrialdeak) zuzenean konparagarriak ez badira ere, hurbilketa bat egiteko aukera ematen digute, eta datu horietan oinarrituta, esan dezakegu gure Erkidegoak gastu publiko txikiagoa duela BPGaren gainean, arlo horretan erreferentzia diren herrialdeek baino.

Unibertsitateaz kanpoko eta unibertsitateko hezkuntza-erakundeetako gastu publikoa, administrazio-motaren arabera

V.1.22 taulak erakusten duen bezala, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuen arabera, 2020an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko hezkuntzan egindako ahalegina (BPGren gaineko gastuaren ehunekoa) handiagoa zen autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioen batez bestekoa baino (% 3,71 eta BPGren % 3,28); ez, ordea, unibertsitate-hezkuntzan (% 0,69 eta % 0,77, hurrenez hurren).

V.1.22. TAULA. GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (FINANTZA-KAPITALAK IZAN EZIK) UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEETAN ETA UNIBERTSITATE-HEZKUNTZAKO ERAKUNDEETAN, ADMINISTRAZIO-MOTAREN ARABERA								
	GASTUA (MILA EUROTAN)				GASTUA/BPG (%)			
	2017	2018	2019	2020	2017	2018	2019	2020
UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZAKO ERAKUNDEAK								
GUZTIRA	34.530.476	35.742.956	37.638.413	39.782.851	2,97	2,97	3,02	3,55
Hezkuntza Ministerioa eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioak	32.015.184	33.172.408	34.946.939	37.285.599	2,76	2,76	2,81	3,32
Hezkuntza Ministerioa	608.996	612.004	624.870	826.242	0,05	0,05	0,05	0,07
Hezkuntza Ministerioa, autonomia erkidegoei egindako transferentziak kenduta	472.442	523.680	549.183	470.491	0,04	0,04	0,04	0,04
Autonomia erkidegoetako hezkuntza administrazioak	31.542.742	32.648.728	34.397.756	36.815.108	2,71	2,71	2,76	3,28
EAE Hezkuntza Saila	2.191.373	2.247.723	2.384.155	2.468.805	3,15	3,13	3,22	3,71
Beste administrazio batzuk					-	-	-	-
Estatuko administrazioek tokiko erakundeei egindako transferentziak - DOIKUNTZA PARTIDA	2.736.766	2.814.621	2.958.530	2.923.925	0,24	0,23	0,24	0,26
UNIBERTSITATE-HEZKUNTZAKO ERAKUNDEAK								
GUZTIRA	9.172.746	9.398.570	9.791.446	10.103.123	0,78	0,78	0,79	0,79
Hezkuntza Ministerioa eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioak	9.134.937	9.367.463	9.756.070	10.067.494	0,78	0,77	0,78	0,79
Hezkuntza Ministerioa	250.791	243.732	241.166	308.421	0,02	0,02	0,02	0,02
Hezkuntza Ministerioa, autonomia erkidegoei egindako transferentziak kenduta	250.791	243.732	241.166	308.421	0,02	0,02	0,02	0,02
Autonomia erkidegoetako hezkuntza administrazioak	8.884.146	9.123.731	9.514.904	9.759.074	0,76	0,76	0,76	0,77
EAE Hezkuntza Saila	439.825	444.083	449.511	461.852	0,63	0,62	0,61	0,69
Beste administrazio batzuk				
Estatuko administrazioek tokiko erakundeei egindako transferentziak - DOIKUNTZA PARTIDA	37.809	31.207	35.476	35.844	0,00	0,00	0,00	0,00

*Iturria: Baliabide ekonomikoak. Gastu publikoa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, EIN eta geuk egina
Bekak ez daude barnean*

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako gastu publikoa ikasle bakoitzeko. Estatuko konparazioa

Ikasle bakoitzeko eta autonomia erkidegoen arabera gastu publikoa unibertsitatez kanpoko irakaskuntzarentzat kalkulatzeko, ELGEk adierazleen proiektuan adierazle hori eskuratzeko aplikatzen duen arau metodologia erabiltzen da. Beraz:

- Autonomia erkidegoan hezkuntzan egindako gastu publiko guztia barne hartzen da (beken gastua salbuetsiz), albo batera utzita hura finantzatzen duen erakundea. Horren ondorioz, hezkuntzakoak ez diren administrazioen hezkuntza gastuak gehitzeaz gain, egotzitako gizarte kotizazioen gastua lurraldeen arabera banatzen da.
- Finantza kapituluak gastuaren zenbatekoan kentzen dira.
- Urte bateko ikasle gisa, bi ikasturteko zifrak haztatzearen emaitza erabiltzen da (adibidez, 2017rako, 2016-2017ko eta 2017-2018ko ikasleak erabiltzen dira), unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako estatistikan agertzen direnak. Horrez gain, irakaskuntza ezberdinetan matrikulatutakoen zenbatekoa denbora osoko baliokideetara eraldatzen da, nazioarteko estatistikan erabiltzen diren konbertsio faktore berdinekin.
- "Ikasle publiko eta itundu bakoitzeko gastu publikoa" "Ikasle publiko bakoitzeko gastu publikora" pasatzeko, hitzarmen ekonomikoetarako eta itundutako ikastetxe pribatuaren dirulaguntzetarako zenbatekoa kentzen da, eta, ikaslearen datuen artean, bakarrik ikastetxe publikoetako ikasleak jasotzen dira. Lanbide prestakuntzako jarduerekin lotutako gastua ere kanpoan utzi da.

Beste alde batetik, adierazlearen eragin dezaketen askotariko faktoreak daude, kalkuluan jasota ez daudenak, besteak beste, banaketa geografikoa, ikasleak hezkuntza maila ezberdinetan banatuta egotea eta eskaintza publikoaren eta pribatuaren garrantzia.

V.1.23. TAULA. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASLE BAKOITZEKO GASTU PUBLIKOA (1), AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA										
	GASTU PUBLIKOA IKASLE PUBLIKO ETA ITUNDU BAKOITZEKO (EUROTAN)					GASTU PUBLIKOA IKASLE PUBLIKO BAKOITZEKO (EUROTAN)				
	2016	2017	2018	2019	Ald. % 2016/19	2016	2017	2018	2019	Ald. % 2016/19
ESTATUA	4.879	5.014	5.163	5.398	10,6	5.607	5.779	5.968	6.230	11,1
ANDALUZIA	4.419	4.536	4.617	4.803	8,7	4.943	5.077	5.210	5.442	10,1
ARAGOI	5.131	5.318	5.536	5.692	10,9	5.917	6.213	6.485	6.525	10,3
ASTURIAS	5.814	5.936	6.032	6.298	8,3	6.785	6.927	7.053	7.381	8,8
BALEAR UHARTEAK	5.328	5.465	5.672	5.905	10,8	6.379	6.493	6.767	7.046	10,5
KANARIAR UHARTEAK	4.991	5.281	5.238	5.498	10,2	5.514	5.903	5.853	6.066	10,0
KANTABRIA	5.934	5.915	6.154	6.446	8,6	6.917	6.864	7.183	7.531	8,9
GAZTELA ETA LEON	5.529	5.654	5.833	5.977	8,1	6.538	6.761	6.942	7.196	10,1
GAZTELA-MANTXA	4.619	4.859	5.151	5.511	19,3	4.988	5.255	5.594	5.992	20,1
KATALUNIA	4.721	4.868	5.042	5.252	11,2	5.386	5.557	5.798	5.986	11,1
VALENTZIako ERK.	4.819	4.944	5.127	5.364	11,3	5.510	5.609	5.803	6.077	10,3
EXTREMADURA	5.678	5.856	6.124	6.485	14,2	6.341	6.539	6.846	7.257	14,4
GALIZIA	5.699	5.985	6.151	6.389	12,1	6.598	6.932	7.134	7.408	12,3
MADRIL	3.945	4.039	4.159	4.401	11,6	4.591	4.727	4.892	5.148	12,1
MURTZIA	4.613	4.674	4.838	5.085	10,2	5.159	5.262	5.391	5.728	11,0
NAFARROA	5.829	6.035	6.173	6.480	11,2	7.128	7.456	7.622	7.981	12,0
EAE	6.502	6.601	6.720	7.073	8,8	9.054	9.298	9.415	9.868	9,0
ERRIOXA	5.149	5.257	5.430	5.634	10,6	6.052	6.215	6.420	6.673	10,3

(Ikasle bakoitzeko gastu publikoa hezkuntza-sistemako irakaskuntza ez-unibertsitatean, beraz, lanerako prestakuntza alde batera utzita. Ikasleak lanaldi osoaren baliokide bihurtu dira, nazioarteko estatistikan erabiltzeko metodologiaren arabera. Iturria: hezkuntzaren zifrak Espainian. 2022. edizioa eta aurreko urteak.)


Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuen arabera, ikasle bakoitzeko (publikoa eta itundua) unibertsitatez kanpoko hezkuntzan egindako gastu publikoa 7.073 eurora iritsi zen EAEn 2019. urtean, eta EAEk lehen postua lortu zuen berriz ere autonomia-erkidegoen sailkapenean. Gastu horrek esan nahi du % 8,8ko hazkundea izan zela 2016ko gastuaren aldean, Estatuan izandako % 10,6ko igoeraren aldean. Estatuko batez bestekoa 5.398 eurokoa izan zen; beraz, EAEko ikasle bakoitzeko gastua Estatukoa baino % 31 handiagoa izan zen.

2019. urtean, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikastetxe publikoko ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa 9.868 eurokoa izan zen EAEn, eta, beraz, gure erkidegoak du, berriz ere, ikasle bakoitzeko gasturik handiena. Gastu hori % 9 igo da 2016koarekin alderatuta, eta Estatuan, berriz, % 11. Estatuko batez bestekoa 6.230 eurokoa izan zen; beraz, EAEko ikastetxe publikoetan ikasle bakoitzeko batez besteko gastua Estaturkoa baino % 58,4 handiagoa izan zen.

Ikasleko gastuak (EAP erabiliz bihurturiko euroak) hezkuntza erakundeetan. Nazioarteko konparazioa

Aurreko adierazleak ez bezala, adierazle honek erakunde publikoetako eta pribatuetako gastu publikoa nahiz pribatua kontuan hartzen du lanerako prestakuntza sartzeaz gain, eta eurotan kalkulatuta dago. Dena den, EAPa erabilia bihurtu da. Hezkuntza maila guztiei erreparatzen zaie, haurren hasierako hezkuntza garapenari (Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloa) izan ezik.

EUROSTATen arabera, 2018an, ikasle bakoitzeko gastua 6.856 euro izan zen estatuan, hezkuntza erakunde publikoetan eta pribatuetan, eta 7.486 eurokoa erakunde publikoetan. Berriz ere, bi gastuak Italian, Frantzia, Finlandian, Herbehereetan, Alemanian, Danimarkan, Belgikan, Maltaan, Suedian eta Zipren ikusitakoen azpitik daude, eta Austrian eta Luxenburgoko erregistratutakoetatik urrun.



Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (hezkuntzaren arloan soilik), 2020an, 3.047,2 milioi eurokoa izan zen. Horrek esan nahi du % 3,5 igo dela aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zenbateko horrek Eusko Jaurlaritzaren gastu osoan izan zuen partaidetza % 25,9koa izan zen, aurreko urtekoa (% 24,5) baino handiagoa. Gastu hori EAEko BPGaren % 4,26 da, 2019koa (% 3,7) baino handiagoa. Ikasle bakoitzeko hezkuntzako gastuaren ratioak (ikasle guztiak, hau da, Erregimen Orokorrekoak¹² zein Berezikoak¹³) beste igoera bat izan zuen 2019 eta 2020 artean, 6.059 eurotik 6.251 eurora.

¹²Unibertsitarioa eta ez-unibertsitarioa.

¹³Arte plastikoak eta diseinua, hizkuntzak, musika, dantza, kirola eta diseinuko goi mailako ikasketak.

Bestalde, 2021eko aurrekontuetan, Hezkuntzarako partida 2.887,7 milioi eurokoa zen. Horrek esan nahi du % 2,3 gehitu zela aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta. Eusko Jaurlaritzaren gastu-aurrekontuan % 23,2ko partaidetza du. Gastu hori EAEko BPGren % 3,74 da.

V.1.24. TAULA. EUSKO JAURLARITZAK HEZKUNTZAN LIKIDATUTAKO/AURREKONTUETAN SARTUTAKO GASTUAREN GARAPENA								
Urteak	Mila euro	Jaurlaritzaren guztizkoa (mila euro)	Ejk likidatutako guztizko gastuaren gaineko %	BPGd (mila €)	BPGd-ren gaineko %	Oinarria 2013=100	Ikasleak guztira (1)	Gastuak ikasle bakoitzek o, eurotan
Aurrekontu likidazioekin								
2016	2.588.781	10.364.639	25,0	71.239.291	3,63	100	485.858	5.328
2017	2.788.757	10.823.734	25,8	73.697.375	3,78	108	486.550	5.732
2018	2.798.940	11.317.546	24,7	76.888.235	3,64	108	486.335	5.755
2019	2.944.662	12.038.657	24,5	79.537.107	3,70	114	485.959	6.059
2020	3.047.202	11.779.674	25,9	71.528.127	4,26	118	487.480	6.251
Ald. 19/20	3,5	-2,2		-10,1			0,3	3,2
Aurrekontuekin								
2019	2.854.407	11.784.109	24,2	79.537.107	3,59	110		
2020	2.823.633	11.774.000	24,0	71.528.127	3,95	109		
2021	2.887.662	12.442.365	23,2	77.300.228	3,74	112		
Ald. 20/21	2,3	5,7						
<p>(1) <i>Ikasle guztien artean araubide orokorreko ikasleak eta araubide bereziko ikasleak sartzen dira. Araubide orokorreko ikasleen artean unibertsitatez kanpoko ikasleak –zeinen artean hezkuntza bereziko ikasleak eta helduen hezkuntza iraunkorrekoak sartzen baitira- eta unibertsitateko ikasleak daude. Araubide bereziko ikasleen artean arte plastiko eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, dantzako, kiroleko eta diseinuko goi mailako ikasketetako ikasleak sartzen dira.</i></p> <p><i>Iturria: EUSTATen, EAEko Kontu Orokorraren, eta azken hiru urteetako aurrekontuen datuak oinarri hartuz, geuk egina.</i></p>								

1.3.3. Hezkuntza emaitzen adierazleak

2019ko Ebaluazio Diagnostikoa. 2022ko otsailean ISEI-IVEIk argitaratua¹⁴

Ebaluazio Diagnostikoa (ED) etaparen erdian oinarritzko gaitasunak neurtzen dituen azterlana da, hau da, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan.

Oinarritzko gaitasunak dira edozein gizabanakorentzat eta gizarte osoarentzat beharrezkoak eta onuragarriak direnak. Ez dago kontzeptu bat ezarrita, baina nolabaiteko adostasun komun bat dago ulertzeko *“ezagutza, trebetasun eta funtsezko jarrera multzo gisa, gizabanako guztiek bizitza osoa izan dezaten gizarteko kide aktibo gisa”*.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko hiru zerbitzuek batera egindako ebaluazioa da: Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Hezkuntza ikuskaritzak eta Irakasleei laguntzeko zerbitzuak (Berritzeguneak).


Oinarritzko gaitasunen errendimendu-probez gain, ikasleek eta ikastetxeetako zuzendaritzek testuinguru-galdetegiari ere erantzun zieten, hezkuntza-errendimendu hobea edo txarragoarekin lotutako aldagaiak eta faktoreak identifikatzeko aukera ematen baitute.

¹⁴ ISEI-IVEI. Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.


Joera globalen azterketa

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, LHko 4. mailan ebaluatutako sei gaitasunen artean (euskarazko hizkuntza-gaitasuna, gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna, ingelesko hizkuntza-gaitasuna, gaitasun matematikoa, gaitasun zientifikoa eta ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna) hiru daude (gaztelania, ingelesa eta matematika) 2011tik ia antzeko beheranzko joera erakusten dutenak.

Bestalde, gaitasun zientifikoan, emaitzak hobetu egin ziren 2017tik 2019ra bitartean; eta ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasunean, egonkortasuna ikusten da, hobekuntza txiki batekin.



DBHko 2. mailaren kasuan, hurrengo grafikoan ikus daiteke gaitasun zientifikoan emaitzak zertxobait hobetu direla 2013tik. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasunean nolabaiteko egonkortasuna ikusten da; eta gainerako gaitasunetan datuak nahiko egonkorak izan dira, goranzko joerekin lehenengo urteetan eta gorabeherekin hurrengoetan, eta azken ebaluazio diagnostikoa beherakada izan da sei adierazleetatik lautan.



Euskal hezkuntza-sistemaren ekitatea eta bikaintasuna ebaluazio diagnostikoetan

Hezkuntza-sistema ekitatibotzat jotzen da biztanlerian dauden desberdintasun sozioekonomikoak arintzeko gai denean, ikasleei kalitatezko hezkuntza lortzeko aukera-berdintasuna eskaintzeko eta errendimendu akademikoa bere esfortzuak eta gaitasunak baldintzatuko dutela bermatzeko, bere jatorrizko herrialdea, sexua eta gizarte-, ekonomia- eta kultura-testuingurua edozein izanik ere.

Hezkuntza-bikaintasuna ikasleei beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzen laguntzea da, ikasleek ahal duten guztia gara dezaten.

Berdintasuna

Azterketa matematikarako gaitasunean bakarrik egiten da, ikasleen hizkuntza-mailak eragin txikiagoa duelako.

Hurrengo grafikoetan ikus daitekeenez, 2019ko ebaluazio diagnostikoan, LHko 4. mailako ikasleen % 52,9 eta DBHko 2. mailako ikasleen % 56,9 matematikarako gaitasunaren errendimenduaren batez besteko mailan zeuden. Hau da, euskal hezkuntza-sistemak kontzentratzen ditu ikasleen ehuneko handienak bi hezkuntza-etapetako batez besteko errendimendu-mailan.

Hala ere, 2017ko eta 2019ko datuak alderatuz gero, honako hau ikus daiteke:

- Lehen Hezkuntzan: batez besteko errendimendu-mailan dauden ikasleen ehunekoa % 55,7tik % 52,9ra jaitsi zen, eta hasierako errendimendu-mailan ikasleen ratioa % 15etik % 19,9ra igo zen.
- DBHn: batez besteko errendimendu-mailan dauden ikasleen ehunekoa % 59,5etik % 56,9ra jaitsi zen, eta hasierako errendimendu-mailan ikasleen ratioa % 16tik % 19,1era igo zen.





GRÁFICO 5.1.7. 2º ESO. ED09-ED19. EVOLUCIÓN EN EL PORCENTAJE DE ALUMNADO POR NIVELES DE RENDIMIENTO EN COMPETENCIA MATEMÁTICA




Iturria. Ebaluazio diagnostikoa. Txosten betearazlea. Eusko Jaurlaritza eta ISEI-IVEI

Bikaintasuna

Errendimendu aurreratuko mailan kokatzen diren LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera aztertzen da, euskal hezkuntza-sistema bikaintasunean hobetzen ari den jakiteko.

Hurrengo grafikoek erakusten duten bezala, Ebaluazio Diagnostikoaren (ED 2019) azken edizioan errendimendu-maila horretako ikasleen ehunekorik txikiak ikusten dira, eta hori gertatzen da Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan. Salbuespen bakarrak euskarazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikazioko gaitasunak dira, LHko 4. mailan, non ratioek gora egiten zuten 2017 eta 2019 artean.

5.1.8 GRAFIKOA. LHko 4. MAILA ETA DBHko 2. MAILA. ED09-ED19. EUSKARAZKO, GAZTELANIAZKO ETA INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO GAITASUNETAN IKASLEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, ERRENDIMENDU AURRERATUKO MAILAREN ARABERA.



Iturria. Ebaluazio diagnostikoa. Txosten betearazlea. Eusko Jaurlaritza eta ISEI-IVEI

Hezkuntza eta prestakuntza goiz uztea

Gehienez bigarren hezkuntzako lehen etapa edo aurreko hezkuntza mailak dituzten (INSN 0, 1 eta 2) eta inolako hezkuntzarik edo prestakuntzarik jarraitzen ez duten 18-24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa da.

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruan Europako lankidetzarako esparru estrategiko berriaren barruan, Hezkuntzaren Europako Esparruari begira eta haratago (2021-2030), hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruan guztien kalitatea, ekitatea, inklusioa eta arrakasta handitzeko lehentasun estrategikoa jasotzen da, hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehen uzten duten pertsonen kopurua murrizteko helburua planteatuz, 2030erako hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehen uzten duten pertsonen ehunekoak % 9 baino gutxiago izan behar duela Europako erreferentzia-puntu gisa ezarriz. Bigarren etapako gutxieneko prestakuntza-maila lortu gabe uztearen ondorioek ondorioak eta kostuak dituzte gizabanakoentzat eta gizartearentzat, bai lan-merkatuaren ikuspegitik, bai ongizatearen ikuspegitik, oro har. Gazteen ingurune sozioekonomikoa funtsezkoa da abandonuan.

Gure erkidegoan hezkuntza eta prestakuntza goiz uztearen tasak beheranzko joera du, eta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren “Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2022. Edizioa” txosteneko datuen arabera, 2020an % 6,5ean kokatu zen, eta Estatuko txikiena izan zen, non batez bestekoa % 16koa zen. Horrela, EAEk aise lortu du 2030erako europako helburua.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren *Hezkuntzaren Aderazleen Sistema 2021* txostenak erakusten duen bezala, 27-EBko batez bestekoa % 9,9 da. 27-EBko zortzi herrialdetan % 10etik gorako ehunekoak daude (2020rako europako helburua): Alemania, Zipre, Hungaria, Bulgaria, Italia, Errumania, Espainia eta Malta. Hemeretzi herrialde daude % 10etik behera, eta, horietatik, % 5 edo gutxiagoko ehunekoak duten lau herrialde (Kroazia, Grezia, Eslovenia eta Irlanda).

V.1.25. TAULA. EB-N HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA GOIZ UZTEA, SEXUAREN ARABERA.

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2010	2015	2020	2010	2015	2020	2010	2015	2020
GUZTIRA	28,2	20,0	16,0	33,6	24,0	20,2	22,6	15,8	11,6
ANDALUZIA	34,6	24,9	21,8	40,5	28,9	26,7	28,5	20,8	16,8
ARAGOI	23,8	19,5	14,2	27,7	20,0	19,1	19,9	18,9	9,1
ASTURIAS	22,2	16,8	8,9	26,8	16,0	11,0	17,5	17,7	6,8
BALEAR UHARTEAK	36,5	26,7	21,3	42,5	31,5	29,4	30,3	21,6	12,4
KANARIAR UHARTEAK	29,8	21,9	18,2	36,4	26,4	21,8	22,9	17,5	14,7
KANTABRIA	23,9	10,3	9,1	30,1	12,6	11,8	17,4	7,8	6,5
GAZTELA ETA LEON	23,4	16,7	15,4	27,6	21,2	18,6	19,0	11,9	12,1
GAZTELA-MANTXA	33,4	20,8	18,7	43,4	23,7	23,1	22,7	17,7	13,9
KATALUNIA	28,9	18,9	17,4	34,8	21,8	23,2	22,8	15,8	11,1
VALENTZIako ERKIDEGOa	28,4	21,4	15,5	33,1	27,3	19,0	23,5	15,4	11,6
EXTREMADURA	31,6	24,5	18,4	38,9	29,4	24,4	23,7	19,4	12,0
GALIZIA	22,8	17,0	12,0	27,6	21,9	15,5	17,7	11,9	8,2
MADRIL	22,3	15,6	10,0	26,5	20,0	12,6	18,1	11,2	7,2
MURTZIA	34,9	23,6	18,7	39,2	30,5	22,4	30,4	16,4	14,5
NAFARROA	16,8	10,8	10,8	23,4	13,1	13,9	10,2	8,5	7,8
EAE	13,1	9,7	6,5	13,7	11,9	8,5	12,6	7,4	4,3
ERRIOXA	27,2	21,5	14,6	27,7	32,4	17,9	26,8	10,8	10,9
CEUTA	45,8	29,8	25,5	50,8	30,4	26,1	39,5	29,4	..
MELILLA	35,4	24,1	22,8	38,6	34,4	..	32,7

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2022ko argitalpena. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

Sexuaren aldetik, uzte-tasak baxuagoa izaten jarraitzen du emakumeen artean gizonen artean baino, herrialde eta autonomia erkidego gehienetan. EAEn, 2020an, emakumeen tasa gizonena baino 4,2 puntu txikiagoa zen (% 4,3 eta % 8,5, hurrenez hurren).

Gurasoen hezkuntza-maila garrantzi handiko faktorea da abandonuan, batez ere amarena. Horrela, 2020an, goi mailako ikasketak dituzten amak dituzten gazteen abandonu-ehunekoak % 3,6 baino ez zen Estatuan, eta % 10,1era igotzen zen bigarren hezkuntzako bigarren etapa badute, eta jada bigarren hezkuntzako lehen etapako batez bestekoa baino zertxobait altuagoak ziren (% 20,5), eta askoz altuagoak Lehen Hezkuntzan edo beheerago (% 39,2).

1.3.4. Unibertsitateko adierazleak

a) Errendimendu akademikoaren adierazleak. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa 2021eko argitalpena.¹⁵

Errendimendu, arrakasta, eskola-uzte eta aldaketa tasak: graduko ikasleak

EAEko ikasle horien **errendimendu tasa** (gainditutako eta matrikulatutako kredituen arteko lotura) 2019-20 ikasturtean % 87,1ekoa izan zen, estatuko batez bestekoa baino altuagoa (% 84,6). Zehazki, gure erkidegoa bosgarren postuan dago autonomia-erkidegoen sailkapenean, Nafarroaren (% 90,9), Valentiako Erkidegoaren (% 88,4), Errioxaren (% 88,3) eta Kataluniaren (% 87,8) atzetik, eta Madrilen parean. Emakumeen tasak gizonenak baino altuagoak dira autonomia erkidego guztietan. EAEn kasuan, emakumeak gizonak baino ehuneko 8,6 puntu gehiago ziren (% 91 eta % 82,4, hurrenez hurren).

Arrakasta-tasa (gainditutako kredituen eta aurkeztutako kredituen arteko erlazioa) % 93,1 izan zen EAEn, Estatuko batez bestekoa (% 91,9) baino handiagoa. Gure erkidegoa laugarren postuan dago berriz ere autonomia-erkidegoen sailkapenean, Errioxaren (% 95,4), Nafarroaren (% 93,8) eta Valentiako Erkidegoaren (% 93,2) atzetik. Emakumeen tasak gizonenak baino altuagoak dira autonomia erkidego guztietan. EAEn kasuan, emakumeak gizonak baino ehuneko 5,1 puntu gehiago dira (% 95,4 eta % 90,3, hurrenez hurren).

V.1.26. TAULA. GRADUA. ERRENDIMENDU-TASA, ARRAKASTA-TASA, ABANDONU-TASA ETA KANBIO-TASA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA								
	Errendimendu tasa 2019-20 ikasturtea			Arrakasta tasa 2019-20 ikasturtea			Lehenengo urtean eskola uzten dutenen tasa	Lehenengo urtean aldatzen dutenen tasa
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	2017/18 ikasturte hasierako taldea	2017/18 ikasturte hasierako taldea
GUZTIRA	84,6	79,9	88,2	91,9	89,3	93,8	21,3	8,3
ANDALUZIA	82,5	76,4	87,1	91,2	88,2	93,2	16,8	7,8
ARAGOI	85,2	80,3	89,3	91,7	89,2	93,7	16,2	7,6
ASTURIAS	82,2	76,8	86,7	89,9	87,0	92,2	23,5	11,5
BALEAR UHARTEAK	79,8	73,6	83,8	87,0	83,3	89,2	25,2	11,9
KANARIAR UHARTEAK	83,2	76,9	87,6	88,8	84,6	91,6	21,6	9,0
KANTABRIA	84,0	79,5	88,3	89,6	86,9	91,9	18,4	9,0
GAZTELA-MANTXA	86,8	81,5	90,7	92,2	89,3	94,2	18,0	8,9
GAZTELA ETA LEON	86,5	82,0	89,8	91,9	89,2	93,7	15,7	6,8
KATALUNIA	87,8	84,2	90,6	92,0	89,6	93,9	21,1	8,5
VALENTZIako ERK.	88,4	84,4	91,4	93,2	90,8	94,9	15,7	7,4
EXTREMADURA	86,9	81,2	91,1	92,7	89,5	94,9	14,0	6,5
GALIZIA	84,2	78,3	88,8	91,9	88,5	94,4	18,0	8,3
MADRIL	87,3	83,0	90,7	92,6	89,8	94,7	15,1	8,3
MURTZIA	84,6	79,5	88,3	92,3	90,1	93,8	18,3	9,5
NAFARROA	90,9	87,6	93,5	93,8	91,5	95,6	14,5	7,4
EAE	87,1	82,4	91,0	93,1	90,3	95,4	14,5	7,4
ERRIOXA	88,3	83,9	90,9	95,4	93,5	96,5	19,5	4,6

Iturria: Unibertsitatearen estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

¹⁵ Biztanleria esparrua aldatu egiten da adierazle bakoitzean, baina denbora esparrua finkoa da, eta argitalpenean, n hizkia n-1 ikasturteari edo n-2 urteari dagokio (arlo ekonomikoan).

Ikasketen lehen urteko uzte-tasa (titulazio jakin bat lortu zuten eta lehen urtean utzi zuten ikasleen ehunekoa) % 14,5koa izan zen 2017-18ko sarrera-ikasleen kohortearen kasuan, estatuko batez bestekoa (% 21,33) baino txikiagoa. EAEk bigarren tasarik txikiena zuen autonomia-erkidego guztietan, eta Extremadurak bakarrik gainditzen zuen.

Ikasketen lehenengo urteko aldaketa tasa, 2017/18 ikasturteko ikasleetan EAEn % 7,4koa izan zen, batez bestekoa baino baxuagoa (% 8,3). Euskadik laugarren tasarik txikiena zuen Errioxaren (% 4,6), Extremaduraren (% 6,5) eta Gaztela-Leonen (% 6,8) atzetik.

Errendimendu, eskola-uzte eta aldaketa tasak: masterreko ikasleak

Ikasle horien **errendimendu-tasa**, EAEn, % 94,8koa izan zen 2019-20 ikasturtean, graduko ikasketen errendimendu-tasa baino handiagoa (% 87,1). Estatuko batez bestekoarekin alderatuta, EAEn ratioa ere altuagoa zen (% 94,8 eta % 91). Horrela, EAE laugarren postuan dago berriz ere autonomia-erkidegoen sailkapenean, Nafarroaren (% 98), Gaztela eta Leonen (% 95,3) eta Kantabriaren (% 95,1) atzetik. Emakumeen tasak gizonenak baino altuagoak dira autonomia erkidego guztietan. EAEn kasuan, emakumeak gizonak baino ehuneko 1,8 puntu gehiago ziren (% 95,7 eta % 93,9, hurrenez hurren).

EAEn, 2019-20 ikasturtean, **arrakasta-tasa** (gainditutako kredituen eta aurkeztutako kredituen arteko erlazioa) % 98,8koa izan zen, Estatuko batez bestekoa (% 98,6) baino zertxobait handiagoa. Horrela, Estatuko sailkapenean Euskadi tarteko posizioan dago. Emakumeen tasak gizonenak baino altuagoak dira autonomia erkidego guztietan. EAEn kasuan, emakumeak gizonak baino ehuneko 1,2 puntu gehiago dira (% 99,4 eta % 98,2, hurrenez hurren).

Masterren **lehenengo urtean eskola uzten dutenen tasa** (titulazioan izena ematen duten eta lehenengo urtean ikasketak uzten dituzten ikasleen ehunekoa) % 5,1koa izan zen 2017/18 ikasturtean, estatuko batez bestekoa baino baxuagoa, hain zuzen ere (% 9,8). Horrela, EAEk bigarren abandonu-tasa txikiena erregistratu du Nafarroaren atzetik eta Kanariar Uharteekin batera.

Ikasketen lehen urteko kanbio-tasa % 0,1 da, estatuko batez bestekoaren azpitik (% 1,2). EAEk du tasarik txikiena autonomia-erkidegoen sailkapenean.

V.1.27. TAULA. MASTERRAK. ERRENDIMENDU-TASA, ARRAKASTA-TASA, ABANDONU-TASA ETA KANBIO-TASA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA.

	Errendimendu tasa 2019-20 ikasturtea			Arrakasta tasa 2019-20 ikasturtea			Lehenengo urtean eskola uzten dutenen tasa	Lehenengo urtean aldatzen dutenen tasa
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	2017/18 ikasturte hasierako taldea	2017/18 ikasturte hasierako taldea
GUZTIRA	91,0	89,4	92,2	98,6	98,2	98,9	9,8	1,2
ANDALUZIA	88,1	85,6	89,9	98,9	98,3	99,3	9,9	1,5
ARAGOI	92,7	90,9	94,3	99,0	98,6	99,3	7,9	1,5
ASTURIAS	89,4	87,6	91,0	99,3	99,0	99,4	9,2	1,6
BALEAR UHARTEAK	88,8	86,3	90,6	98,3	97,5	98,9	8,9	1,4
KANARIAR UHARTEAK	85,7	85,0	86,1	97,0	96,2	97,5	5,1	0,9
KANTABRIA	95,1	94,0	95,9	98,9	98,9	99,0	12,7	1,1
GAZTELA-MANTXA	92,9	92,1	93,7	99,0	98,6	99,5	8,2	0,9
GAZTELA ETA LEON	95,3	94,2	96,3	99,0	98,8	99,2	7,5	1,3
KATALUNIA	92,0	90,8	92,9	98,3	98,1	98,5	11,3	1,5
VALENTZIAKO ERK.	92,1	90,8	92,9	98,8	98,6	99,0	7,0	0,8
EXTREMADURA	90,9	89,2	92,0	99,2	99,0	99,4	8,2	4,1
GALIZIA	88,9	86,6	90,7	98,8	98,6	99,0	6,3	0,8
MADRIL	90,7	89,0	92,1	98,4	97,9	98,8	9,4	1,1
MURTZIA	91,4	89,9	92,7	99,0	98,7	99,3	7,1	0,9
NAFARROA	98,0	97,7	98,5	99,9	99,9	100,0	3,5	1,1
EAE	94,8	93,9	95,7	98,8	98,2	99,4	5,1	0,1
ERRIOXA	92,2	90,2	93,5	98,5	98,0	98,8	14,0	0,7

Iturria: Unibertsitatearen estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

b) Nazioartekotzea. 2018-19 ikasturtea Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa 2020ko argitalpena.

Espainiako Unibertsitate Sistemarako (SUE) sarrerak

Nazioarteko ikaslea da SUEra unibertsitate presentzial batean sartzen dena, ohiko bizileku-herrialdea atzerriko herrialde bat izanik. Sarrerak *Credit mobility* (mugikortasun-programak) eta *degree mobility* (matrikula arrunta) zenbatzen dituzte, eta 2015/2016 ikasturtetik aurrera doktoregoko matrikula arrunta duten nazioarteko ikasleak sartu ziren.

Credit mobility (mugikortasun programak): atzerriko unibertsitatean matrikulaturiko ikasleei dagokie, aldi jakin batean Espainiako unibertsitate presentzian ikasten dutenak mugikortasun programa baten bidez (Erasmus barne), baina helburua ez da titulua Espainian eskuratzea.

Degree mobility (ohiko matrikula): ohiko moduan Espainiako unibertsitate presentzial batean matrikulatzen diren ikasleak, eta, aldi berean, familiaren ohiko etxebizitza atzerriko herrialde batean dutenak.

2019-20 ikasturtean EAEko unibertsitate batean sartu ziren nazioarteko ikasleak 3.669 izan ziren; kopuru hori ikasle guztien % 6,3 da, eta SUE osoan, berriz, % 9,5. Bi kasuetan, ratioek goranzko joera erakusten zuten.

3.669 horiek aurreko ikasturtean baino % 3 gehiago ziren. Estatuko hazkundea % 2,9 izan zen (125.676tik 129.354ra). Mugikortasun motari dagokionez, % 58,4k mugikortasun-programa baten bidez egin zuen, eta % 41,6 ohiko moduan matrikulatu zen. Estatuan, ratioak % 43 eta % 57 dira, hurrenez hurren.

Euskadin, % 63,1 unibertsitate publikoan matrikulatu zen eta % 36,9 pribatuan. Sexuari dagokionez, % 55,2 emakumeak izan ziren eta % 44,8 gizonak.

V.1.28. TAULA: UNIBERTSITATE-SISTEMAN SARTZEN DIREN NAZIOARTEKO IKASLEAK, IKASLE GUZTIEKIKO (%)

	ESTATUA (SUE)	EAE
2015-2016	7,2	4,9
2016-2017	8,3	5,5
2017-2018	9,0	5,9
2018-2019	9,3	6,1
2019-2020	9,5	6,3

Iturria: Unibertsitatearen estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

V.1.29. TAULA. NAZIOARTEKO IKASLEEN SARRERAK, MUGIKORTASUN MOTAREN ARABERA.

	2018/19 IKASTURTEA			2019/20 IKASTURTEA			ALDAKUNTZA
	GUZTIRA	MUGIKORTASUN MOTA (% horizontalak)		GUZTIRA	MUGIKORTASUN MOTA (% horizontalak)		
	Ikasleak	Mugikortasun programak (credit mobility)	Ohiko matrikula (degree mobility)	Ikasleak	Mugikortasun programak (credit mobility)	Ohiko matrikula (degree mobility)	
ESTATUA	125.676	45,5	54,5	129.354	43,0	57,0	2,9
EAE	3.561	58,9	41,1	3.669	58,4	41,6	3,0

Iturria: Unibertsitatearen estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

V.1.30 TAULA. NAZIOARTEKO IKASLEEN SARRERAK, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA.

	2018/19 IKASTURTEA					2019/20 IKASTURTEA				
	GUZTIRA	SEXUA (% horizontalak)		UNIBERTSITATE MOTA (% horizontalak)		GUZTIRA	SEXUA (% horizontalak)		UNIBERTSITATE MOTA (% horizontalak)	
		Gizonak	Emakumeak	Unib. Publikoak	Unib. Pribatuak		Gizonak	Emakumeak	Unib. Publikoak	Unib. Pribatuak
ESTATUA	125.675	42,8	57,2	71,9	28,1	129.354	43,0	57,0	70,6	29,4
EAE	3.561	44,7	55,3	62,6	37,4	3.669	44,8	55,2	63,1	36,9

Iturria: Unibertsitatearen estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

Jatorrizko herrialdeari dagokionez, EAEn eta Estatuan nabarmentzekoak ziren 28ko EBtik zetozen ikasleak (gutzizkoaren % 48,8 EAEn eta % 44,5 Estatuan) eta Latinoamerikatik eta Karibetik zetozenak (% 34,1 EAEn eta % 32,1 Estatuan).

Espainiako Unibertsitate Sistemako (SUE) irteerak

Ikasleen irteerak islatzen dituzten estatistikak mugikortasun-programa baten bidez mugitzen direnak soilik hartzen dituzte kontuan (credit mobility), eta ez dira doktoregaiak barne hartzen.

2019/20 ikasturtean 3.544 ikasle atera ziren EAetik mugikortasun-programa baten bidez, hau da, ikasle guztien % 6,5, eta SUEn, berriz, % 3,3. Ondoko taulan ikusten den bezala, EAEn ratioek goranzko joera erakusten zuten.

3.544 horiek aurreko ikasturtean baino % 7 gehiago ziren. Estatuan % 4,6 jaitzi zen.

EAetik atera zirenetatik, % 49 unibertsitate publikotik atera ziren eta % 51 unibertsitate pribatu batetik. Sexuari dagokionez, % 57,1 emakumeak ziren eta % 42,9 gizonak.

V.1.31. TAULA. NAZIOARTEKO IKASLEEN SARRERAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA

	ESTATUA (% bertikala)		EAE (% bertikala)	
	2018/19	2019/20	2018/19	2019/20
GUZTIRA	125.675	129.354	3.561	3.669
28KO EB	45,2	44,5	48,9	48,8
GAINONTZEKO EUROPA	4,6	4,5	4,1	4,7
AEB ETA KANADA	8	7,6	3,7	3,5
LATINOAMERIKA ETA KARIBEA	31,7	32,1	36,1	34,1
AFRIKA IPARRALDEA	2,4	2,6	0,9	1,1
GAINONTZEKO AFRIKA	0,7	0,8	0,4	0,6
ASIA ETA OZEANIA	7,4	7,9	5,9	7,1

Iturria: Unibertsitatearen estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

V.1.32. TAULA: MUGIKORTASUN-PROGRAMA BATEN BIDEZ ATERATZEN DIREN NAZIOARTEKO IKASLEAK, IKASLE GUZTIEKIKO (%)

	ESTATUA (SUE)	EAE
2015-2016	2,9	5,0
2016-2017	3,1	5,7
2017-2018	3,3	6,1
2018-2019	3,5	6,2
2019-2020	3,3	6,5

Iturria: Unibertsitatearen estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

V.1.33 TAULA. IKASLEEN IRTEERAK, MUGIKORTASUN PROGRAMA BATEN BIDEZ, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA

	2017/18 IKASTURTEA	2018/19 IKASTURTEA	2019/20 IKASTURTEA				ALDAKUNTZA	
	Ikasleak	Ikasleak	Ikasleak	SEXUA		UNIBERTSITATE MOTA		
				Gizonak	Emakumeak	Unib. Publikoak		Unib. Pribatuak
ESTATUA	42.002	44.297	42.253	41,4	58,6	82,8	17,2	-4,6
EAE	3.277	3.312	3.544	42,9	57,1	49,0	51,0	7,0

Iturria: Unibertsitatearen estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

c) Academic Ranking of World Universities (Shanghaiko rankinga)

Nahiz eta iturri publikoa ez izan, ARWU unibertsitateen ranking orokorren aitzindaria da, eta fidagarriena baita ere.

2003tik, ARWUk urtero munduko 500 unibertsitate garrantzitsuenak aurkezten ditu, metodologia gardena eta hirugarrenen datu objektiboak erabiliz. 2018tik aurrera, 501 eta 1000 artean sailkatutako unibertsitateak ere ARWU World Top 500 Candidates (TOP 500-etarako hautagaiak) gisa argitaratu dira.

V.1.34. TAULA. SHANGHAIKO UNIBERTSITATEKO RANKINGA: ADIERAZLEAK ETA PISUAK			
Irizpidea	Adierazlea	Kodea	Pisua
Hezkuntzaren kalitatea	Nobel sariak eta Fields dominak irabazi dituen erakunde bateko ikasleak	Alumni	10
Fakultatearen kalitatea	Nobel sariak eta Fields dominak irabazi dituen erakunde bateko langileak	Saria	20
	21 Gai kategorian anitzetan aipamen garrantzitsuak dituzten zientzialariak	HiCi	20
Ikerketa emaitzak	Nature and Science-n argitaratutako artikulak*	N&S	20
	Science Citation Index-Expanded-en (SCIE) eta Social Science Citation Index-en (SSCI) indexatutako agiriak	PUB	20
Per capita etekina	Erakunde baten per capita etekin akademikoa	PCP	10
GUZTIRA			100
* Giza eta Gizarte Zientzietan espezializatutako erakundeentzat, besteak beste, London School of Economics, N&S ez da kontuan hartzen, eta N&S-ren pisua beste adierazle batzuetara aldatu da			

ARWU rankingak Nobel sariak, Fields dominadunak, sarri aipatutako ikerlariak edo Nature edo Science bezalako aldizkarietan argitaratutako artikulak dituzten unibertsitateak hartzen ditu kontuan. Gainera, Science Citation Index-Expanded-ek (SCIE) eta Social Science Citation Index-ek (SSCI) indexatutako artikulak asko dituzten unibertsitateak sartzen dira.

Unibertsitateak jarduera akademikoko edo ikerketako zenbait adierazleren bidez daude sailkatuta, Nobel sariak eta Fields dominak irabazten dituzten, sarri aipatutako ikertzaileak diren, Nature eta Science aldizkarian argitaratutako lanak dituzten eta aipuen indize nagusietan indexatutako artikulak dituzten ikasle ohiak eta langileak barne. Hala, erakunde baten per capita jarduera akademikoa ere kontuan hartzen da¹⁶.

V.1.35 TAULA SHANGHAIKO UNIBERTSITATEKO RANKINGAREN ADIERAZLEEN DEFINIZIOA	
Adierazlea	Definizioa
Alumni	Erakunde horretako lizentziatura, maisutza edo doktoretza tituluak lortzen dituzten ikasleak. Pisuak graduak lortzeko aldien arabera ezartzen dira.
Saria	Fisika, Kimika, Medikuntza eta Ekonomia Nobel Sariak eta Matematikako Fields Dominak irabazten dituzten pertsonak. Pisuak sariak irabazteko aldien arabera ezartzen dira.
HiCi	Aipamen garrantzitsuak dituzten eta Thomson Reuters-ek aukeratutako ikertzaileak. Aipamen garrantzitsuak dituzten ikertzaile nagusien afiliazioak bakarrik hartzen dira kontuan.
N&S	Urte zehatz batzuen artean, Nature eta Science aldizkarietan argitaratutako lanak. Autorearen afiliazio ordena ezberdintzeko, pisu ezberdinak esleitzen dira.
PUB	Urte horretan SCIE-n eta SSCIn indexatutako artikulak guztiak. Bakarrik 'Article' motako argitalpenak kontuan hartzen dira. Erakunde bateko agiri guztiak kalkulatzeko, pisu berezia ezarri zitzaizen Social Science Citation Index-en indexatutako artikuluei.
PCP	Aurreko bost adierazleetatik haztatutako puntuazioak, langile akademikoak oinarri hartuz lanaldi osoan banatuta.

Iturria: Geuk egina ARWUren datuekin

¹⁶ Adierazle bakoitzeko puntu gehienak dituen erakundeari 100 puntu esleitzen zaizkio eta beste erakunde batzuenak kalkulatzeko, puntuaziorik altuenaren ehunekoan jotzen da. Adierazle bakoitzaren datuei buruzko banaketa aztertzen da, edozein distortsio ondorio adierazgarri antzemateko; teknika estatistiko estandarrez baliatzen da beharrezkoa izanez gero, adierazleak doitzeko. Adierazle bakoitzaren puntuak V.1.26 taulan adierazitako moduan haztatzen dira, erakunde baten azken puntuazio orokorrera iritsi arte. Puntu gehienak lortzen dituen erakundeari 100 puntu ematen zaizkio eta beste erakunde batzuenak, puntuazio altuenetik abiatuta ehunekoetan kalkulatu dira. Erakundearen tartek horren gainetik kokatzen diren erakundeak kopurua islatzen du.

2021eko ranking globalean, lehenengo bost unibertsitateak AEB eta Erresuma Batuan daude, eta unibertsitate hauek dira: Harvard (AEB), Stanford (AEB), Cambridge (Erresuma Batua), Massachusetts Institute of Technology-MIT (AEB) eta Kalifornia, Berkeley (AEB).

Beraz, unibertsitateak lehen 20en artean dituzten herrialdeak AEB (16), Erresuma Batua (3) eta Frantzia (1) dira.

Espainiako Estatuak 12 unibertsitate ditu 2021ean TOP 500ean. Rankinean lehenen Bartzelonako Unibertsitatea da, TOP 200en kokatua mundu mailan. Ondoren, TOP 300 horien artean daude Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Complutense eta Granadako. UPV/EHU sailkapeneko TOP400en artean dago, eta zazpigarren postuan dago estatuko sailkapenean, hurrengo taulan jasotzen den bezala.

V.1.36. TAULA. ARWU-REN RANKINGEKO TOP 20-AN DAUDEN UNIBERTSITATEAK					
2018	2019	2020	2021	ERAKUNDEA	HERRIALDEA
1	1	1	1	Harvard Unibertsitatea	AEB
2	2	2	2	Stanford Unibertsitatea	AEB
3	3	3		Cambridgeko Unibertsitatea	ERRESUMA BATUA
4	4	4	4	Massachusettseko Teknologia Institutua (MIT)	AEB
5	5	5	5	Kaliforniako Unibertsitatea, Berkeley	AEB
6	6	6	6	Princeton Unibertsitatea	AEB
7	7	9	7	Oxfordeko Unibertsitatea	ERRESUMA BATUA
8	8	7	8	Columbia Unibertsitatea	AEB
9	9	8	9	Kaliforniako (Caltech) Teknologia Institutua	AEB
10	10	10	10	Chicagoko Unibertsitatea	AEB
12	12	11	11	Yale Unibertsitatea	AEB
12	13	12	12	Cornelleko Unibertsitatea	AEB
		14	13	Paris-Saclay ¹⁷ Unibertsitatea	Frantzia
11	11	13	14	Kaliforniako Unibertsitatea, Los Angeles	AEB
16	17	19	15	Pennsylvaniako Unibertsitatea	AEB
18	16	15	16	Johns Hopkins Unibertsitatea	AEB
17	15	16	17	Londreseko Unibersity College	ERRESUMA BATUA
15	18	18	18	Kaliforniako Unibertsitatea, San Diego	AEB
14	14	17	19	Washingtoneko Unibertsitatea	AEB
20	20	21	20	Kaliforniako Unibertsitatea, San Franzisko	AEB

Iturria: ARWU

V.1.37. TAULA. ARWUREN TOP500 RANKINGEAN DAUDEN ESPAINIAKO UNIBERTSITATEAK				
	ARWU 2018.	ARWU 2019.	ARWU 2020.	ARWU 2021.
TOP100	-	-	-	-
TOP200	Bartzelonako Unibertsitatea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea Pompeu Fabra U. Granadako U.	Bartzelonako Unibertsitatea	Bartzelonako Unibertsitatea	Bartzelonako Unibertsitatea
TOP300	Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa Madrilgo Unibertsitate Autonomoa	Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea Granadako U. Valentziako U.	Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea Valentziako U.	Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea Granadako U.
TOP400	UPV-EHU	Madrilgo Unibertsitate Autonomoa Pompeu Fabra U.	Madrilgo Unibertsitate Autonomoa Valentziako U. Politeknikoa Pompeu Fabra U. UPV-EHU	Madrilgo Unibertsitate Autonomoa Valentziako U. Politeknikoa UPV-EHU Valentziako U.
TOP500	Valentziako U. Politeknikoa Santiago de Compostelako U. Valentziako U.	Valentziako U. Politeknikoa Oviedoko U. Sevillako U. Balear Uharteetako U. UPV-EHU Zaragozako U.	Oviedoko Unibertsitatea Santiago de Compostelako U. Sevillako U. Zaragozako U.	Pompeu Fabra U. Salamancako U. Santiago de Compostelako U. Sevillako U.

Iturria: ARWU eta guk egindakoa.

¹⁷ Paris-Saclay unibertsitatea hiru unibertsitateren (Paris-Sud edo Paris XI, Versailles eta Evry) bat-egitetik dator, Grande Ecoles eta beste ikerketa-erakunde batzuekin batera. Ez da lehen fusioa, lehenago Sorbonako Unibertsitatea sortu zen, Sorbonne (Paris IV) eta Pierre et Marie Curieren (Paris VI) bat-egitetik eratorria, beste erakunde txikiago batzuekin batera.

1.4. KULTURA

1.4.1. Kultura ohiturak eta praktikak

Kultura kontsumitzeko modua asko aldatu da azken urteotan, eta horren ondorioz eta aldi berean, kultura aldatzen ari da. Digitalizazioak, doakotasunaren kulturak eta globalizazioak kultura-agertokia aldatu dute, eta horrek diagnosian zehaztasun-ahalegina eskatzen du.


Informazio-iturriak lau, bost edo gehiago urtean behin egiten diren inkestak edo azterlanak izaten direnez, epigrafe honetan egiten den analisisa aldatu egiten da urte batetik bestera.

a) Praktika kulturalak

Jarraian aurkezten den analisiaren datu-iturria Kulturaren Euskal Behatokiak (Eusko Jaurlaritzza) 2019an argitaratutako *2018ko Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta* da. Praktika desberdinak egiteko maiztasunei zeharka begiratu gero, kultura-jardueren hiru bloke detekta daitezke.

Biztanle guztien % 60 baino gehiago, hauek daude: liburuen irakurketa (% 74,2), zinemara joatea (% 70,2) eta kontzertuetara joatea (% 62,7). Ondoren, % 40 eta % 50 artean gutxi gorabehera, hauek daude: museoetara egindako bisitak (% 51,4), antzerkira joandakoak (% 45,7) eta liburutegira joandakoak (% 42). Eta, azkenik, dantzara joatea (% 30,6), bideojokoetara jolastea (% 21,2) eta arte-galerietara joatea (% 18,8).

V.1.11. GRAFIKOA. PERTSONAK, PRAKTIKA KULTURAL DESBERDINAK EGITEKO MAIZTASUNAREN ARABERA. 2018 (%)



Iturria.- Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta 2018. Kulturaren Euskal Behatokia (Eusko Jaurlaritzza)

Praktika hedatuena azterketa zehatzagoak honako hau erakusten du:

- **Liburuen irakurketa:** herritarren % 74,2k irakurri zuen liburu bat (aisialdiagatik). Unibertsitate-ikasketak dituztenen % 87,1ek gutxienez liburu bat irakurri du entretenimenduz azken 12 hilabeteetan. Proporzio hori % 50,9koa da derrigorrezko bigarren hezkuntza gainditu ez dutenen artean. Gizonen eta emakumeen artean, aldea nabarmena da irakurketaren intentsitatean: emakumeen % 49,8k 4 liburu baino gehiago irakurri ditu erreferenziako aldiak, eta gizonen artean, berriz, % 38,5ek. Adinaren arabera, irakurketa-mailarik txikiak 65 urtetik gorakoan artean daude, % 36,1ek ez baitute libururik irakurri azken 12 hilabeteetan. 45 eta 64 urte bitarteko pertsonak talde gazteenek baino intentsitate handiagoz praktikatu dute irakurketa: lehenengoan


artean, % 54k lau liburu baino gehiago irakurri dituzte gutxi gorabehera, eta adin-talde gazteenetan, berriz, % 40k. Euskal hiztun ez direnek baino zertxobait gehiago irakurtzen dute euskal hiztunek (5 puntuko aldea).

- **Zinemara joatea:** EAEko biztanleriaren % 70,2 gutxienez behin joan zen zinemara Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak maila baxuko ikasketak dituzten pertsonak baino bi aldiz gehiago joan ziren zinemara (% 80,2 eta % 39,4, hurrenez hurren). Joan zirenen proportziorik handiena 15 eta 24 urte bitartekoen artean dago (% 91). Euskal hiztunen % 78,4 joan zen zinemara, euskal hiztun ez zirenen baino 14,3 puntu gehiago.
- **Kontzertuetara joatea:** EAEko biztanleen % 62,7 gutxienez behin joan zen kontzertuetara. Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak maila baxuko ikasketak dituzten pertsonak baino bi aldiz gehiago joan ziren zinemara (% 75,3 eta % 34,3, hurrenez hurren). Joan zirenen proportziorik handiena 25 eta 34 urte bitartekoen artean dago (% 90). Euskal hiztunen % 76,1 antzerkira joan zen, euskal hiztun ez zirenen baino 20,9 puntu gehiago.
- **Museoak bisitatzea:** EAEko biztanleen % 51,4 museoak bisitatu zituen. Prestakuntza-mailak gora egin ahala, museoetara joateak gora egin zuen, eta prestakuntza-maila txikieneko pertsonen artean % 19,9 izatetik unibertsitatekoen artean % 61,4 izatera igaro zen. Biztanleriaren euskaldun hiztunak museoetara joan zen kasuen % 57tan, ia 9 puntu gehiagoko aldea euskaldun ez-hiztunen aldean (% 48,3). 65 urtetik gorako kolektiboak % 33,8ko asistentzia izan zuen, gainerako adin-taldeena baino txikiagoa (% 50-55 inguru).
- **Antzerkira joatea:** EAEko biztanleen % 45,7 gutxienez behin joan zen antzerkira. Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak maila baxuko ikasketak dituzten pertsonak baino bi aldiz gehiago joan ziren zinemara (% 56,7 eta % 26,2, hurrenez hurren). Joan zirenen proportziorik handiena 25 eta 34 urte bitartekoen artean dago (% 53). Euskal hiztunen % 54,7 antzerkira joan zen, euskal hiztun ez zirenek baino 14 puntu gehiago. Gizonen eta emakumeen arteko aldea oso txikia izan zen, 5 puntuko emakumeen alde.

Azterlanak duela hamar urte egindako aurrekari bat du, *Kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008*, Kulturaren Euskal Behatokiak bultzatutako estatistika-eragiketen artean lehena. Ezinbesteko euskarria da biztanleriaren kultura-jardunek azken hamarkadan izan duten bilakaeraren irakurketa konparatua egiteko.

Hala, 2008 eta 2018 artean, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, egunkarien irakurketak eta arte-galerietara/erakusketetara eta kontzertuetara egindako bisitek izan ezik, gainerako praktika kulturalak eragin handiagoa izan dute. Hala ere, egunkariak irakurtzea da oraindik hedatuena.

V.1.12. GRAFIKOA. HAINBAT KULTURA-JARDUNEK BIZTANLERIAN DUTEN ERAGINAREN BILAKAERA (%)



Iturria.- Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta 2018. Kulturaren Euskal Behatokia (Eusko Jaurlaritza)

b) Aisialdiko liburuen irakurketa

Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak (FGEE), CEDROren babesarekin eta Kultura eta Kirol Ministerioarekin lankidetzan, 2022ko otsailean argitaratu du “2021eko Liburuen Irakurketa eta Erosketa Ohituren Barometroa Espainian”.

Txostenean jasotako datuen artean, azpimarratzekoa da Estatuan aisialdiko jarduera gisa irakurtzen dutenen ehunekoa % 64,4koa zela. Liburuak erosten dituen ehunekoa (testukoak ez direnak) % 52,3 zen, 2020an baino ehuneko 0,6 puntu gehiago.

EAE (% 68,2), Madril (% 73,5), Nafarroa (% 68,1), Katalunia (% 68), Errioxa (% 66,7) eta Aragoi (% 64,9) ziren astialdiko liburuen irakurleen ratioa batez bestekoa baino handiagoa zuten autonomia-erkidegoak.

Euskadin, astialdian irakurtzen duten pertsonen kopuruaren bilakaera positiboa zen, % 65,6tik % 68,2ra igaro baitzen, eta bilakaera positiboa izan zen gainerako autonomia-erkidegoetan ere.

V.1.38. TAULA. AISIALDIAN LIBURUAK IRAKURTZEN DITUZTEN PERTSONAK AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA (%)

	2019	2020	2021
GUZTIRA	62,2	64,0	64,4
ANDALUZIA	57,0	59,3	59,3
ARAGOI	63,0	65,0	64,9
ASTURIAS	62,0	63,4	64,1
BALEAR UHARTEAK	61,5	62,2	63,1
KANARIAR UHARTEAK	57,1	58,3	58,8
KANTABRIA	60,0	61,9	62,7
GAZTELA ETA LEON	60,9	61,7	62,6
GAZTELA-MANTXA	58,7	59,6	59,8
KATALUNIA	63,6	65,9	68,0
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	61,9	63,0	63,8
EXTREMADURA	52,2	53,9	54,7
GALIZIA	59,6	61,6	61,9
MADRIL	72,8	73,8	73,5
MURTZIA	58,8	59,9	60,3
NAFARROA	62,5	66,5	68,1
EAE	65,6	66,9	68,2
ERRIOXA	63,6	65,5	66,7

Iturria: Liburuen Irakurketa eta Erosketa Ohituren Barometroa Espainian 2021

tonomia-erkidegoen araberako daturik ez dagoen arren, termino agregatueta ikusten zen herritarren % 5,2k audioliburuak entzuten zituela, eta igoera esanguratsua izan zen aurreko urtearen aldean, urte horretan % 3,1 izan baitzen. Eskola-biztanleriari dagokionez, adingabeen irakurketa orokorra zen, eta sei eta 9 urte bitarteko haurren artean astean irakurtzen emandako orduak gehitu egiten ziren. 15 urtetik aurrera, nabarmen jaitsi zen aisaldian maiz aritzen diren irakurleen proportzioa. Mugikortasuna berreskuratu ondoren, liburutegietara joatea berreskuratu zen, baina oraindik ez dira iritsi pandemiaren aurreko zifretara.

1.4.2. Kultura enpresak eta enplegua

Epigrafe honen emaitzak Hezkuntza eta Kirol Ministerioaren *Estatistika Kulturalen Urtekarian* jasotzen dira, eta honako hauek dira datuen lehen mailako iturriak: EINen *Enpresen Direktorio Nagusia* (DIRCE) eta *Biztanleria Aktiboaren Inkesta* (BAI¹⁸), baita EINena ere.

Jarduera ekonomiko nagusia kultura-arlokoa duten enpresen kopuruak % 3,5 egin zuen gora EAEn 2019-2020 aldian, eta 6.218 ziren. Enpleguak¹⁹, bestalde, % 7,1 egin zuen gora, 29,4tik 31,5 mila pertsonara). Estatuan, aldi berean, enpresen kopurua % 3,6 hazi zen eta enpleguak % 5,9 egin zuen behera.

EAEn kultura-enpresetan lan egiten duten 31,5 mila pertsona horiek EAEko guztizko enpleguaren % 3,4 ziren, estatuko batez bestekoaren antzeko ratioa (% 3,5).

V.1.39. TAULA. KULTURA ENPRESAK ETA ENPLEGUA						
	EAE			ESTATUA		
	ENPRESAK	ENPLEGUA		ENPRESAK	ENPLEGUA	
		MILAKOTAN	%, GUZTITIK ENPLEGUARENA		MILAKOTAN	%, GUZTITIK ENPLEGUARENA
2016	6.148	34,9	3,9	115.955	656,3	3,6
2017	5.804	32,1	3,6	118.407	687,2	3,7
2018	6.014	29,9	3,2	122.673	690,3	3,6
2019	6.010	29,4	3,1	127.581	710,2	3,6
2020	6.218	31,5	3,4	132.203	668,1	3,5
Ald. 2019-20	3,5	7,1		3,6	-5,9	

Iturria: Hezkuntza eta Kiroleko Ministerioa. 2021eko eta aurreko kultura-estatistiken urtekaria

¹⁸ BAIren ustiapen espezifiko baten bidez, kultura-arloari lotutako jarduera ekonomiko eta okupazio jakin batzuetako enplegua zenbatesten da.

¹⁹ Enpleguari dagokionez, kontuan hartu behar da aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batek (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak) eraginpean hartutakoak, enplegu-eternaldia izanik, okupatutzat jotzen direla BAIen.

Kultura-enplegu gehien sortzen duten autonomia-erkidegoen sailkapenean, EAE laugarren postuan dago, Madrilen (% 5,1), Kataluniaren (% 4,6) eta Balearren (% 4,5) atzetik.

Autonomia-erkidegoka bereizitako daturik ez dagoen arren, datu agregatuek erakusten zuten kultura-enpleguaren ezaugarria batez bestekoa baino prestakuntza akademiko handiagoa zela, eta goi mailako hezkuntzako tasa altuagoak zituen estatuan oro har ikusitakoak baino (% 71,9 eta % 45,5, hurrenez hurren).

V.1.40. TAULA. KULTURA ENPLEGUA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (ENPLEGUKO EHUNEKO OSOETAN)				
	2017	2018	2019	2020
ESTATUAREN BATEZ BESTEKOA	3,7	3,6	3,6	3,5
ANDALUZIA	3,1	3,1	3,1	2,6
ARAGOI	2,2	2,3	2,6	2,5
ASTURIAS	2,9	2,8	2,6	2,5
BALEAR UHARTEAK	4,2	3,4	4,3	4,5
KANARIAR UHARTEAK	2,8	2,9	3,5	2,5
GAZTELA ETA LEON	2,4	2,4	2,3	2,1
GAZTELA-MANTXA	2,3	2,7	2,5	2,5
KATALUNIA	4,7	4,4	4,5	4,6
VALENTZIAKO ERK.	2,9	3,3	3,0	3,2
GALIZIA	3,5	3,2	3,1	3,2
MADRIL	5,7	5,4	5,3	5,1
MURTZIA	2,1	2,3	2,4	2,2
NAFARROA	2,7	3,0	3,1	3,1
EAE	3,6	3,2	3,1	3,4
KANTABRIA, EXTREMADURA, ERRIOXA, CEUTA ETA MELILLA	2,5	2,2	2,2	2,1

Iturria: Hezkuntza eta Kiroleko Ministerioa. Kultura Estatistiken urtekaria. 2021 eta aurrekoak

1.4.3. Kulturako gastu publikoa

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisuaren zenbatespena zeharkako iturrien bidez egiten da; zehazki, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratzen duen "Kultura Estatistiken Urtekaria"ren bidez²⁰.

Kultura Ministerioaren Urtekari horrek kulturako gastu publikotzat hartzen du "herri administrazioek, aintzatetsitako obligazioen aldian, kulturarako erabilitako gastu likidatua eta, beraz, finantza-emailearen arabera izango da gastu publikoa edo pribatua, eta ez hartzailearen arabera". Ez dira kentzen kultura erakunde publiko jakin batzuk eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez, museoek eduki ditzaketenak. Enpresek edo partikularrek kultur erakunde publikoei emandako babesengatik, dohaintzengatik, eta abar izan ditzaketen balizko zerga-arintzeak ere ez dira sartzen kulturako gastutzat.

Kultura eta Kirol Ministerioaren datuen arabera, Euskal Administrazio Autonomikoak kulturako 125,5 milioi euroko gastua likidatu zuen 2019an, 2018an baino 2,9 milioi gehiago, hau da, % 2,4 gehiago. Gastu hori Estatuko Administrazio Autonomikoen 2019an kulturari likidatutako gastu osoaren % 10,2 da, eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren % 1,05. Gainera, gure autonomia erkidegoko BPGaren % 0,17 da. Horrek esan nahi du kulturak gurean beste Autonomia Erkidegoetan baino pisu handiagoa duela, batez beste % 0,1 izaten baita gainerako erkidegoetan. Adierazle honetan, buruan ageri diren erkidegoak Nafarroa, Extremadura eta EAE dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 57,6 €-ra iritsi zen 2019. urtean, 2018. urtean baino 1,3 gehiago, eta kopuru hori estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (26,1 €).

²⁰ Ikerketa honen esparruan sartutako kultura sektoreak hauek dira: Kultura ondasun eta zerbitzuak (monumentu historikoak, museoak, aztarnategi arkeologikoak, agiritegiak eta liburutegiak); arte plastikoak eta eszenikoak (erakusketak, argazkilaritza, musika, dantza eta antzerkia); liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinema, bideoa eta grabatutako musika); diziplina artekoa (kultura sustapena eta hedapena, administrazio eta zerbitzu orokorrak eta hizkuntza politika).

V.1.41. TAULA. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ADMINISTRAZIOEK KULTURAN LIKIDATU DUTEN GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA										
	BALIO ABSOLUTUAK		ESTATU MAILAN KULTURAN LIKIDATU DEN GASTUAREN %		AUTONOMIA ERKIDEGOEK GUZTIRA LIKIDATUTAKO GASTUAREN %		BPGaren %		BIZTANLE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKO GASTUA (€)	
	(MILA EUROTAN).									
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
ESTATUA, GUZTIRA	1.178.386	1.225.819	100	100	0,59	0,58	0,10	0,10	25,3	26,1
ANDALUZIA	195.393	202.999	16,6	16,6	0,58	0,57	0,12	0,12	23,2	24,1
ARAGOI	22.589	19.507	1,9	1,6	0,37	0,30	0,06	0,05	17,1	14,8
ASTURIAS	21.892	22.756	1,9	1,9	0,51	0,52	0,09	0,10	21,4	22,3
BALEAR UHARTEAK	23.347	23.132	2,0	1,9	0,46	0,43	0,07	0,07	19,6	19,5
KANARIAR UHARTEAK	31.268	28.419	2,7	2,3	0,39	0,33	0,07	0,06	14,2	12,9
KANTABRIA	17.055	16.647	1,4	1,4	0,64	0,59	0,12	0,12	29,3	28,6
GAZTELA ETA LEON	61.526	65.641	5,2	5,4	0,59	0,61	0,11	0,11	25,6	27,3
GAZTELA-MANTXA	31.110	32.506	2,6	2,7	0,35	0,33	0,08	0,08	15,3	16,0
KATALUNIA	250.628	256.740	21,3	20,9	0,61	0,65	0,11	0,11	33,1	33,9
VALENTZIAKO ERK.	104.628	112.986	8,9	9,2	0,50	0,49	0,09	0,10	21,0	22,7
EXTREMADURA	35.383	40.237	3,0	3,3	0,71	0,76	0,18	0,19	33,2	37,8
GALIZIA	78.750	84.144	6,7	6,9	0,77	0,67	0,13	0,13	29,2	31,2
MADRIL	92.675	93.374	7,9	7,6	0,43	0,41	0,04	0,04	14,0	14,1
MURTZIA	21.672	29.700	1,8	2,4	0,39	0,49	0,07	0,09	14,6	20,0
NAFARROA	44.947	48.804	3,8	4,0	1,08	1,11	0,22	0,23	69,2	75,1
EAE	122.590	125.514	10,4	10,2	1,06	1,05	0,17	0,17	56,3	57,6
ERRIOXA	9.417	8.305	0,8	0,7	0,63	0,49	0,11	0,09	30,0	26,5
CEUTA	4.261	4.605	0,4	0,4	1,60	1,59	0,25	0,26	50,2	54,3
MELILLA	9.253	9.805	0,8	0,8	3,54	3,76	0,59	0,60	109,3	115,8

Iturria: Hezkuntza eta Kiroleko Ministerioa. Kultura Estatistiken urtekaria, 2021

1.4.4. Familien gastua kulturaren kontsumoan

EINen Familia Aurrekontuen Inkestatik ateratako eta 2021eko Kultura Estatistiken Urtekarian jasotako Kultura eta Kirol Ministerioaren datuen arabera, euskal etxeek kultura-ondasun eta -zerbitzuetan egindako gastua 529,9 milioi eurokoa izan zen 2020an, hau da, % 6,8ko jaitsiera. Gastu hori EAEko ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastuaren % 1,8 da, autonomia erkidego guztien batez bestekoa baino baxuagoa (% 2,1).

V.1.42. TAULA. ETXEEK ONDASUNETAN ETA ZERBITZU KULTURALETAN EGITEN DUTEN BATEZ BESTEKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA								
	BALIO ABSOLUTUA		ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO GASTU OSOAREN %		ETXEETAKO BATEZ BESTEKO (EUROAK)		PERTSONEN BATEZ BESTEKO (EUROAK)	
	(MILIOI EUROTAN)							
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
ESTATUA, GUZTIRA	12.451,6	10.484,9	2,2	2,1	664,4	556,4	266,9	223,6
ANDALUZIA	1.980,0	1.612,5	2,2	2,0	612,8	494,7	236,0	191,4
ARAGOI	381,5	342,2	2,3	2,3	704,5	629,5	293,0	261,5
ASTURIAS	270,5	219,3	2,2	2,1	595,4	482,6	268,0	218,4
BALEAR UHARTEAK	328,7	208,8	2,2	1,6	714,6	448,4	275,4	172,4
KANARIAR UHARTEAK	511,1	403,4	2,3	2,1	596,4	467,5	231,4	180,9
KANTABRIA	150,9	101,1	2,1	1,7	625,8	416,2	262,6	175,3
GAZTELA ETA LEON	599,8	575,7	2,2	2,2	586,2	561,7	255,0	245,7
GAZTELA-MANTXA	486,3	406,4	2,3	2,2	617,4	512,4	241,7	201,2
KATALUNIA	2.072,2	1.789,0	2,1	2,0	675,5	582,0	275,3	236,3
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	1.431,2	1.192,5	2,4	2,3	711,3	587,6	288,3	238,5
EXTREMADURA	203,5	208,1	2,0	2,1	473,7	481,6	193,8	198,8
GALIZIA	607,2	641,6	2,1	2,3	554,3	581,7	226,8	239,7
MADRIL	2.098,4	1.645,3	2,2	1,9	795,4	621,1	317,4	246,0
MURTZIA	444,6	356,4	2,7	2,6	812,3	648,2	298,6	237,3
NAFARROA	192,2	145,2	2,2	1,8	740,9	556,8	298,0	223,7
EAE	567,8	529,9	1,8	1,8	623,1	580,2	262,9	244,8
ERRIOXA	90,5	75,1	2,4	2,2	691,0	570,1	290,9	240,0
CEUTA ETA MELILLA	35,2	32,4	2,2	2,2	643,9	587,1	209,0	193,5

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa, 2021eko Kultura Estatistiken Urtekaria

Etxeko batez besteko gastuan, EAE zortzigarren postuan dago autonomia-erkidegoen sailkapenean, 580,2 euroekin, Murtzia, Aragoi, Madril, Valentzia, Ceuta eta Melilla, Katalunia eta Galiziaren atzetik.

Gastu-taldeari dagokionez (liburuak eta aldizkako argitalpenak; kultura-zerbitzuak; ikus-entzunezko euskarriak, ekiptoak eta osagarriak eta informazioaren tratamendukoak; eta telefonia mugikorra eta Internetekin lotutako zerbitzuak), EAEn etxe bakoitzean gastatutako 580,2 euroen % 31,2 ikus-entzunezko ekipamendu eta osagarrietara eta informazioaren tratamenduko osagarrietara bideratu zen, % 30,7 liburueta eta argitalpenetara, % 28,4, telefonia mugikorrera eta Internetekin lotutako zerbitzuetara eta % 9,7 kultura-zerbitzuetara.

Pertsonako batez besteko gastuan, EAE laugarren postuan dago sailkapenean 244,8 euroekin, Aragoi, Madril eta Gaztela eta Leonen atzetik.

V.1.43. TAULA. ETXE BAKOITZEAN KULTURA ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGITEN DUTEN BATEZ BESTEKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZAREN ETA GASTU TALDEAREN ARABERA (EUROTAN)

	GUZTIRA		LIBURUAK ETA ALDIZKAKO ARGITALPENAK		KULTURA ZERBITZUAK		IKUS-ENTZUNEZKO EUSKARRIAK, EKIPAMENDUAK ETA OSAGARRIAK ETA INFORMAZIOA TRATATZEKOAK		TELEFONO MUGIKORRAK ETA INTERNETEKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
ESTATUA, GUZTIRA	664,4	556,4	125,5	114,7	149,2	51,0	168,4	187,9	221,3	202,8
ANDALUZIA	612,8	494,7	64,9	57,2	131,0	50,7	170,9	164,8	246,0	222,0
ARAGOI	704,5	629,5	143,7	159,1	163,4	63,9	190,4	211,2	206,9	195,3
ASTURIAS	595,4	482,6	117,0	84,9	104,9	28,1	133,0	159,2	240,5	210,5
BALEAR UHARTEAK	714,6	448,4	152,0	101,4	161,6	70,0	187,2	139,4	213,7	137,5
KANARIAR UHARTEAK	596,4	467,5	80,7	57,0	108,9	24,6	162,2	173,5	244,7	212,4
KANTABRIA	625,8	416,2	137,3	91,5	114,4	38,3	158,5	134,2	215,6	152,2
GAZTELA ETA LEON	586,2	561,7	140,0	158,1	120,8	31,7	137,5	177,5	187,9	194,4
GAZTELA-MANTXA	617,4	512,4	105,6	109,9	125,2	42,2	128,5	138,6	258,1	221,6
KATALUNIA	675,5	582,0	133,5	113,8	132,6	47,4	190,4	204,6	219,1	216,2
VALENTZIAKO ERKIDEGOIA	711,3	587,6	115,3	106,5	164,9	52,1	189,6	230,5	241,5	198,5
EXTREMADURA	473,7	481,6	82,4	84,7	66,0	24,8	117,4	154,8	207,9	217,4
GALIZIA	554,3	581,7	125,0	163,4	94,6	51,2	108,8	164,8	225,9	202,2
MADRIL	795,4	621,1	179,7	156,3	257,1	76,9	176,8	208,9	181,7	179,1
MURTZIA	812,3	648,2	177,2	93,2	151,4	37,3	198,0	251,6	285,7	266,1
NAFARROA	740,9	556,8	173,6	161,3	178,6	72,1	178,1	157,6	210,7	165,8
EAE	623,1	580,2	165,3	178,1	126,0	56,4	162,6	181,2	169,2	164,8
ERRIOXA	691,0	570,1	195,0	166,0	166,0	34,6	152,6	160,0	177,4	209,4
CEUTA ETA MELILLA	643,9	587,1	---	---	---	---	---	---	---	---
BANAKETA PORTZENTUAL HORIZONTALA										
ESTATUA, GUZTIRA	100,0	100,0	18,9	20,6	22,5	9,2	25,3	33,8	33,3	36,4
EAE	100,0	100,0	26,5	30,7	20,2	9,7	26,1	31,2	27,2	28,4

* Ikuskizunak eta bestelako kultura zerbitzuak barne

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa, 2021eko Kultura Estatistiken Urtekarria

V.1.44. TAULA. KULTURA-ONDASUN ETA -ZERBITZUETAN PERTSONAKO BATEZ BESTEKO GASTUA, GASTU-TALDEAREN ARABERA, AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA (EUROTAN)

	GUZTIRA		LIBURUAK ETA ALDIZKAKO ARGITALPENAK		KULTURA ZERBITZUAK		IKUS-ENTZUNEZKO EUSKARRIAK, EKIPAMENDUAK ETA OSAGARRIAK ETA INFORMAZIOA TRATATZEKOAK		TELEFONO MUGIKORRAK ETA INTERNETEKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
ESTATUA, GUZTIRA	266,9	223,6	50,4	46,1	59,9	20,5	67,7	75,5	88,9	81,5
ANDALUZIA	236,0	191,4	25,0	22,1	50,5	19,6	65,8	63,8	94,7	85,9
ARAGOI	293,0	261,5	59,8	66,1	68,0	26,5	79,2	87,7	86,1	81,1
ASTURIAS	268,0	218,4	52,6	38,4	47,2	12,7	59,9	72,0	108,3	95,2
BALEAR UHARTEAK	275,4	172,4	58,6	39,0	62,3	26,9	72,2	53,6	82,4	52,9
KANARIAR UHARTEAK	231,4	180,9	31,3	22,1	42,3	9,5	62,9	67,2	94,9	82,2
KANTABRIA	262,6	175,3	57,6	38,5	48,0	16,1	66,5	56,5	90,5	64,1
GAZTELA ETA LEON	255,0	245,7	60,9	69,2	52,6	13,9	59,8	77,6	81,7	85,0
GAZTELA-MANTXA	241,7	201,2	41,4	43,2	49,0	16,6	50,3	54,4	101,0	87,0
KATALUNIA	275,0	236,3	54,4	46,2	54,0	19,2	77,6	83,1	89,3	87,8
VALENTZIAKO ERKIDEGOAK	288,3	238,5	46,7	43,2	66,8	21,2	76,8	93,5	97,9	80,6
EXTREMADURA	193,8	198,8	33,7	35,0	27,0	10,2	48,0	63,9	85,1	89,7
GALIZIA	226,8	239,7	51,2	67,4	38,7	21,1	44,5	67,9	92,4	83,3
MADRIL	317,4	246,0	71,7	61,9	102,6	30,5	70,6	82,7	72,5	70,9
MURTZIA	298,6	237,3	65,1	34,1	55,6	13,7	72,8	92,1	105,0	97,4
NAFARROA	298,0	223,7	69,8	64,8	71,8	29,0	71,6	63,3	84,8	66,6
EAE	262,9	244,8	69,7	75,2	53,2	23,8	68,6	76,5	71,4	69,4
ERRIOXA	290,9	240,0	82,1	69,9	69,9	14,6	64,2	67,4	74,7	88,2
CEUTA ETA MELILLA	209,0	193,5	----	----	----	----	----	----	----	----

* Ikuskizunak eta bestelako kultura zerbitzuak barne

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa, 2021eko Kultura Estatistiken Urtekaria

1.5. EUSKARAREN EGOERA EAE-N

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatutako azterlan soziolinguistikoak euskararen aldeko ekintza positiboko politikak aldizka ezarri eta ebaluatzeko borondatearen adierazle dira. Ildo horretan, bost urtean behin egiten diren inkesta soziolinguistikoak dira euskalduntze-prozesua ebaluatzeko tresna zientifiko erabilgarrienak eta xehatuenak.

Euskararen egoerari buruzko azken datuak 2019an argitaratutako VI. Inkesta Soziolinguistikotik (2016) datoz. Horri buruzko ikuspegi bat izateko, interesa duten pertsonak ikus 2020ko Memoria Sozioekonomikoaren edizioa.

1. **ACADEMIC RANKING OF WORD UNIVERSITIES (ARWU)**. Shangaiko Unibertsitate-rankinga. 2021eko datuak
2. **EUSTAT**. Estatistika Unibertsitarioa. 2019/20 Ikasturtea
3. **EUSTAT**. Ekonomia Kontuak.
4. **EUSTAT**. Eskola-jardueraren Estatistika. 2020/2021 ikasturtea
5. **EUSTAT**. Hezkuntza-kontua. 2020
6. **Eusko Jaurlaritz**a. EAeko Kontu Orokorrak eta Aurrekontuak.
7. **Eusko Jaurlaritz**a. VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016
8. **EUSKO JAURLARITZA. Kulturaren euskal behatokia**. EAeko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta. 2018
9. **EIN**. Espainiako Lurralde Kontabilitatea.
10. **ISEI-IVEI**. 2021eko Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa.
11. **ISEI-IVEI**. Ebaluazio diagnostikoa. Txosten betearazlea.
12. **LANBIDE**. LHko ikasleak laneratzea. 2016-18 ikasturtea
13. **HEZKUNTZA ETA KIROLEKO MINISTERIOA**. Kultura Estatistiken urtekaria. 2021eko argitalpena.
14. **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA**. Unibertsitatearen estatistikak. 2021eko argitalpena.
 - ✓ Nazioartekotzea. 2019-20 Ikasturtea
 - ✓ Errendimendu akademikoa. 2019-20 Ikasturtea
15. **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA**. Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2022ko argitalpena.
16. **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA**. Baliabide ekonomikoak. Gastu publikoa.
17. **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA**. Hezkuntzako adierazleen estatuko sistema, 2021.

2. NATURA INGURUNEAREN EGOERA

Garapenaren kontzeptua aldatu egin da urteekin, eta, gaur egun, herrialdeek erabaki dute garapen iraunkorra, oparotasuna eta aukera ekonomikoak, gizarte-ongizate handiagoa eta ingurumenaren babesa sustatzen dituen, bide egokia dela egungo biztanleriaren bizitza hobetzeko, etorkizuneko belaunaldiek euren bizitzak asetzeko duten gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Iraunkortasunak eta garapen jasangarriak printzipio honi jarraitzen diote: eskura dauden baliabideak ezin dira bereizketarik egin barik agortu; natura-baliabideak babestu behar dira, eta hazkunde ekonomikoa eta natura-baliabideen kontsumoa banantzea lortu behar da.

Testuinguru horretan, gobernuak, gizartea eta enpresak ingurumenarekin erlazionatzeko modua aldatzen hasi dira, ekonomia lineal batetik atera, ekoitzi, erabili eta tiratuzetik ekonomia zirkularra murriztu, berrerabili eta birziklatzera igarota.

V. Kapituluko (*EAEko Bizi-kalitatea*) bigarren atal honen helburua gure erkidegoko ingurumenarekin lotutako gai nagusien errealitatea eta azken aldiko bilakaera ezagutzea da, bereziki airearen kalitatea, berotegi-efektuko gasen emisioak, ur gezaren kontsumoa eta hondakinen sorrera eta kudeaketa.

Epigrafearen amaieran, manufaktura-industriak ingurumena babesteko egindako gastuen azterketa laburra ageri da. Gainera, edizio honetan, familiek ingurumenari dagokionez dituzten ohiturei, kontsumo-ereduei eta jarrerari buruzko azterketa laburra sartu da, baita Eusko Jaurlaritzaren 2024ko Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Planari buruzko aipamen bat ere (2021eko urriaren 13an onartua).

2.1. FAMILIEI EGINDAKO INGURUMENARI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK: 2020KO INGURUMEN-ADIERAZLEA

EUSTATen Ingurumenari eta Familiei buruzko Inkestaren (IFI)²¹ helburuak hauexek dira: familiek ingurumenaren aldetik dituzten ohiturak, kontsumo-ildoak eta jarrerak ikertzea; eta etxebizitzaren ekipamendua eta ekipamendu horren erabilera aztertzea, ingurumen-alderdiei dagokienez.

Ingurumen-adierazlea 75 galderako sintesi baten bidez lortzen da, eta euskal gizarte osoa 0 eta 10 puntu arteko eskalan kokatzea ahalbidetzen du, sentsibilizazio mailaren eta ingurumenean eragina duten ohituren arabera. 7 dimentsio ditu: Ingurumenaren gaineko jarrera, garraioa eta mugikortasuna, kontsumo-ildoak, noizbehinkako hondakinen tratamenduak, ohiko hondakinen tratamendua, energia aurrezteak eta ura aurrezteak.


EUSTATen arabera, EAEko familiek 10etik 6,7 puntu lortzen dituzte sentsibilizazio mailan eta ingurumenean eragina duten ohituretan. Puntuazio horrek aurrerapen txiki bat baino ez dakar duela bost urteko emaitzekiko (+0,1).

Ohiko hondakinen tratamenduaren adierazlea (9,1 puntu) da emaitzarik onenak lortzen dituenak, baita 2015arekin alderatuta portaera onena duena ere (+0,2). Ondoren, noizbehinkako hondakinen tratamendua (7,9), energia-aurrezpena (6,9) eta ingurumenaren gaineko jarrera (6,4) daude, bilakaera positiboarekin (0,1 eta 0,2 puntu artean 10etik). Talde honen amaieran, ura aurrezteari buruzko adierazlea dago (6,4), duela 5 urteko puntuazioari eusten diona.

²¹ Eragiketa estatistikoko honen xede den biztanleria familia-etxebizitza nagusietan bizi diren 16 urteko edo gehiagoko pertsona guztiak dira, hau da, urte osoan edo urte horren zati handi batean ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkor gisa erabiltzen direnak. Inkesta 5 urtean behin egiten da.

Emaitzarik txarrenak garraioaren eta mugikortasunaren adierazleetan lortzen dira, bilakaera negatiboa izan arren (-0,1), gaindituen adierazleari eusten baitio (5,3), eta kontsumo-jarraibideei dagokienez, gutxiengoan mantentzen dena (10etik 4,4 puntu), nahiz eta hamarren bat izan 2015arekin alderatuta.

Ezaugarri soziodemografikoen arabera, adierazle partzialen puntuazioa hobetu egiten da ikasketa maila eta diru-sarreraren maila handitzen direnean, garraioaren eta mugikortasunaren adierazle partziala izan ezik, diru-sarrera gutxien dituzten familietan puntuaziorik onena lortu baitu (6,5).



Dimentsio bakoitza sakonago aztertuta, honako hau dugu (kontuan izan behar da munduko pandemiak ohitura eta balorazio jakin batzuei eragin diela, eta, bereziki, garraioarekin eta mugikortasunarekin zerikusia dutenei):

Ingurumen-jarrera. Ikusten da ingurumenarekiko kezka gora egin duela 2015etik 2020ra bitartean (+4,3 puntu) inkestatutako biztanleen artean; 16 urteko eta gehiagoko pertsonen % 97,2 kezkatuta dago.

Inkestatutako ia biztanle guztiek (% 91,7) ingurumenaren aldeko neurriak hartzea babesten dute, hala nola trafikoaren zarata murriztea (% 78), uraren gehiegizko kontsumoa murriztea (% 66) edo gehien kutsatzen duten erregaiei ingurumen-zerga bat ezartzea (% 60,5).

V.2.1. TAULA. INGURUMENAREN GAINEKO JARRERAREN ADIERAZLE BATZUK (16 URTEKO ETA GEHIAGOKO PERTSONEN %)			
	2008	2015	2020
INGURUMENAREN EGOERAZ ARDURATZEA	97,1	92,9	97,2
INGURUMEN-NEURRIEN ALDEKO JARRERA	94,3	93,1	91,7
– ETXEKO HONDAKINAK BEREIZTERA BEHARTU	47,2	36,2	48,7
– URAREN GEHIEGIZKO KONTSUMOA MURRIZTEA	71,3	57,5	66,0
– GEHIEN KUTSATZEN DUTEN ERREGAIEI ZERGA EZARTZEA	63,8	60,4	60,5
– GARRAIO PRIBATUARI MURRIZKETAK EZARTZEA	45,8	35,7	48,6
– TURISMOARI ZERGA BAT EZARTZEA	29,2	28,1	43,2
– ENERGIA BERRIZTAGARRIEN PARKEAK INSTALATZEA	61,4	57,7	54,3
– ENERGIA ALTERNATIBOENGATIK GEHIAGO ORDAINTZEA	22,4	19,3	28,0
– TRAFIKOAREN ZARATA MURRIZTEA	86,2	84,6	78,0

Iturria: IFI-EUSTAT

Garraioa eta mugikortasuna.

Garraio pribatua (% 39,2) eta, batez ere, autoa (% 38,4) dira gehien erabiltzen direnak ohiko mugikortasun modu. Oinez edo bizikletaz egiten diren joan-etorriak dira desplazatzeko bigarren modua (% 37,6). Garraio publikoa da biztanleek gutxien erabiltzen dutena (% 22,9), eta erabilera 5,8 puntu murrizten da.

V.2.2. TAULA. GARRAIOAREN ETA MUGIKORTASUNAREN ADIERAZLE BATZUK. ERABILITAKO GARRAIOBIDEA (16 urteko eta gehiagoko pertsonen %):			
	2008	2015	2020
GARRAIO PRIBATUA	41,2	35,4	39,4
AUTOA	40,3	34,1	38,4
GARRAIO PUBLIKOA	28,0	28,7	22,9
AUTOBUSA	16,2	14,1	11,4
OINEZ EDO BIZIKLETAZ	30,8	35,1	37,6
OINEZ	29,7	32,5	35,1

Iturria: IFI-EUSTAT

Pertsonen generoaren arabera, alde handiak daude joan-etorrietan. Hala, garraio pribatua da gizonek gehien erabiltzen duten bitartekoa (% 48,5), eta emakumeek baino askoz proportzio handiagoan erabiltzen dute (+17,5 puntu) (% 31). Emakumeak, berriz, oinez edo bizikletaz mugitzen dira gehienbat (% 41,7), eta 8,4

puntuko aldea dago gizonen aldean. Garraio publikoa da gutxien erabiltzen dena, generoa gorabehera, baina emakumeek gehiago erabiltzen dute (+9,1).

Kontsumo-ildoak. Adierazle horren (4,4) emaitza baxuak azaltzen dira, batez ere, EAEko etxeko unitateen % 56,3k sarritan erabiltzen eta botatzen dituztelako erabiltzeko produktuak. Aitzitik, itzultzeko ontziak, bateriak edo pila kargagarriak eta paper birziklatukoak gutxiengoa erabiltzen dituzte, % 25,2, % 23,7 eta % 20,7, hurrenez hurren. Halaber, erosteko orduan, prezioari garrantzi handiagoa ematen zaio (% 86,5), beste faktore batzuei baino.

V.2.3. TAULA. KONTSUMO-ILDOEN ADIERAZLE BATZUK (16 urteko eta gehiagoko pertsonen %)			
	2008	2015	2020
ERABILI ETA BOTATZEKO PRODUKTUAK	85,5	89,9	89,9
SARRITAN ERABILI ETA BOTATZEKO PRODUKTUAK	55,5	57,0	56,3
BIRZIKLATUTAKO PAPERA	33,2	41,5	41,8
SARRITAN BIRZIKLATUTAKO PAPERA	14,7	21,8	20,7
ITZULTZEKO ONTZIAK	25,8	34,7	41,6
SARRITAN ITZULTZEKO ONTZIAK	12,4	19,2	25,2
KARGATZEKO PILAK EDO BATERIAK	53,9	51,1	42,7
SARRITAN KARGATZEN DIREN PILAK EDO BATERIAK	31,0	28,5	23,7

Iturria: IFI-EUSTAT

Zentzu positiboan, etxetresna elektrikoaren kasuan, eraginkortasun energetikoari ematen zaion garrantzia etxean % 80,5era iristen da. Azken 5 urteetan, gainera, nabarmen egin du gora (ehuneko +12,9 puntu) tokiko produktuari ematen zaion balioak (garrantzitsua familien % 79,1entzat) eta etiketa ekologikoa duten elikagaiei ematen zaizkienak (% 67,2).

Hondakinen tratamendua. EAeko ia familia guztiek behar bezala tratatzen dituzte paperaren eta kartoiaren hondakinak (% 97), plastikoak eta metalak (% 96,3) eta beira (% 96,2).

Oro har, familia gehienek etxeko hondakinak behar bezala tratatzen dituzte, hala nola ehunak eta oinetakoak (% 82,8), aparatu elektrikoak (% 80,5), sendagaiak (% 79,4) edo hondakin organikoak (% 74,5).

Sakelako telefonoetarako tratamendu egokia da (% 60,6) gehien handitu dena azken 5 urteetan (+15,6 puntu).

Azkenik, EAeko familien erdiak baino gutxiagok (% 43,4) behar bezala tratatzen dituzte etxean sortutako produktu kimikoak eta garbiketakoak, nahiz eta azken 5 urteetan % 7,2 puntu igo den.

V.2.4. TAULA. HONDAKINAK BILTZEKO ADIERAZLE BATZUK (16 urteko eta gehiagoko pertsonen %-a)			
	2008	2015	2020
ORGANIKOAK	32,3	75,2	74,5
PAPERA ETA KARTOIA	92,3	93,1	97,0
BEIRA	91,6	92,8	96,2
PLASTIKOAK ETA METALAK	90,2	92,3	96,3
PRODUKTU KIMIKOAK ETA GARBITASUNEOAK	37,3	36,2	43,4
SENDAGAIK	73,5	79,8	79,4
PILA ETA BATERIA TXIKIAK	82,3	89,7	92,2
TELEFONO MUGIKORRAK	41,6	45,0	60,6
GAILU ELEKTRIKOAK	74,6	74,6	80,5
ALTZARI ETA ETXEKO TRESNAK	72,5	69,2	78,6
OBRA-HONDAKINAK	50,7	54,0	61,6
SUKALDEKO OLIOA	41,3	62,6	72,8
HODI FLUORESZENTEAK	31,4	46,8	32,8
EHUNAK ETA OINETAKOAK	72,9	76,7	82,8
<i>Iturria: IFI-EUSTAT</i>			

Energia aurreztea Okupatutako etxebizitza guztiek dute energia elektrikoa, eta kontsumo txikiko bonbillak orokorrean erabiltzen dira (% 95,1) eta gero eta gehiago erabiltzen dira (+6,7 ehuneko-puntu). Bestalde, argi fluoreszenteen erabilerak nabarmen egin du behera (portzentajezko -19,2 puntu), eta ez dira gehiago (% 50,4).

Etxeen % 95,8k berokuntza-sistemaren bat dute, eta gas-berokuntza da sistema ohikoena (% 65,6). Zehazki, etxebizitzaren erdiek gas indibiduala dute (% 54) eta beste sistema batzuek baino askoz ere presentzia handiagoa dute, hala nola berokuntza elektrikoak (% 20,1) edo gasolioak (% 9,2). Erabilerari dagokionez, familien % 79,5ek termostato bidez erregulatzen du, eta kasu horietan, aukeratutako batez besteko tenperatura 20,2 gradukoa da.

Gainera, % 99,4k du isolamendu motaren bat; pertsianak etxebizitza gehienetan daude (% 96,3) eta kristal bikoitza ere oso zabalduta dago (% 78,4), eta 6,8 puntu igo da 2015. urtearekin alderatuta.

V.2.5. TAULA. ENERGIA AURREZTEKO ADIERAZLE BATZUK (16 urteko eta gehiagoko pertsonen %-a)			
	2008	2015	2020
ARGIZTAPENA	92,2	96,2	97,9
ARGI FLUORESZENTEAK	75,6	69,6	50,4
KONTSUMO TXIKIKO BONBILLAK	68,7	88,4	95,1
BEROKUNTZA	89,9	95,1	95,8
BEROKUNTZA ELEKTRIKOA	22,0	22,3	20,1
BANAKO GALDARA	5,6	5,9	7,8
ERRADIADOREAK ETA METAGAILUAK	17,5	18,4	13,5
GAS-BEROKUNTZA	57,2	63,4	65,6
GAS-BEROKUNTZA ZENTRALA	9,5	10,8	9,9
BANAKO GAS-BEROKUNTZA	44,7	51,2	54,0
KANALIZATU GABEKO GASA	3,3	1,9	2,9
GASOLIO-BEROKUNTZA	11,9	9,1	9,2
BANAKO GASOLIO-BEROK.	4,0	3,1	3,0
GASOLIO-BEROK. ZENTRALA	7,9	6,0	6,3
BESTE SISTEMA BATZUK	3,2	5,9	5,5
EGURRA	2,1	3,5	3,8
ISOLAMENDU TERMIKOA	98,5	99,0	99,4
OLANA	11,2	10,7	12,1
PERTSIANA	96,4	94,5	96,3
TINDATUTAKO KRISTALAK	3,6	3,0	3,9
KRISTAL BIKOITZA	64,7	71,6	78,4
ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA	39,7	47,4	56,0
TENPERATURA B.B. (GRADUAK)	20,1	20,0	20,2
<i>Iturria: IFI-EUSTAT</i>			

Ura aurreztea. Familien % 98,6k du ur-kontsumoa gutxitzeko aukera ematen dion ohituraren bat. Hauek dira sarrien egiten direnak: "Desizoztu janaria aldeztu aurretik" (% 89,5) eta "garbigailua edo ontzi-garbigailua bete arte itxaron" (% 84,3).

V.2.6. TAULA. URA AURREZTEKO ADIERAZLE BATZUK (16 urteko eta gehiagoko pertsonen %-a)			
	2008	2015	2020
URA KONTSUMITZEKO OHITURAK	97,1	97,4	98,6
-URA BIRZIKLATZEA	13,3	11,9	13,8
- JANARIA DESIZOZTEA TXORROTARIK ERABILI GABE	86,8	87,0	89,5
- GARBIGAILUA/ONTZI-GARBIGAILUA BETETZEA	82,6	87,3	84,3

Iturria: IFI-EUSTAT

Etxebizitzen % 84,9k ura aurrezteko gailuren bat du. Mando-txorrota edo txorrota termostatikoa da ohikoena (% 79,1), eta zisternako deskarga-mugatzailea 5,9 puntu igo da, etxebizitzen % 45,7rekin.

Beste muturrean, ura birziklatzeko ohitura familien % 13,8 baino ez da (ehuneko +1,9 puntu).

2.2. AIREAREN KALITATEA

102/2011 Errege Dekretuak²² giroko airean dauden kutsatzaile nagusien mugak ezartzen ditu, eta airearen kalitatearen kudeaketa arautzen du, neurtzeko eta ebaluatzeko moduari, biztanleei eman beharreko informazioari eta kontzentrazio-balio jakin batzuk gaituz gero egin beharreko jardueri dagokienez.

Osasuna babesteko mugak dituzten kutsatzaileak hauek dira: SO₂ (sufre dioxidoa), NO₂ (nitrogeno dioxidoa), PM₁₀ (10 mikratik beherako diametroa duten partikulak), PM_{2,5} (2,5 mikratik beherako diametroa duten partikulak), CO (karbono monoxidoa), O₃ (ozonoa), C₆H₆ (bentzenoa), Pb (beruna), As (arsenikoa), Cd (kadmioa), Ni (nikela) eta B(a)P(bentzo(a)pirenoa).

2.2.1. Lurraldearen zonakatzea airearen kalitatea ebaluatzeko

Gure erkidegoko airearen kalitatearen ebaluazio orokorra euskal lurraldeak zonalde eta aglomerazioetan duen banaketaren arabera egiten da. Lurraldearen zonakatzea ere kutsatzailearen mende dago.

²² 39/2017 Errege Dekretua, urtarrilaren 27koa, Airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretua aldatzen duena.

SO₂, NO₂, CO eta partikulen kasuan (PM₁₀, PM_{2,5}), 8 zonatan banatzen da EAE, antzeko orografiako aireko arroen arabera: Enkarterri-Nerbioi Garaia, Nerbioi Beherea, Kostaldea, Donostialdea, Ibaizabal-Debagoiena, Goierri, Arabako Lautada eta EAE-Erribera.

Hau da, maparen goiko aldeko zonakatzea erabiltzen da, eskuinaldean erakusten dena.

- Ozonoaren kasuan, kutsatzailearen portaera desberdina da.

Azterketa estatistikoak agerian uzten du urtaro-zikloan alde nabarmena dagoela estazioetan erregistratutako batez besteko mailen artean, itsasotik gertu egotearen arabera.

Ondorioz, ozonorako 5 eremuak honako hauek dira: Itsasertza, Bilbo-Barakaldo, Kantauriko Haranak, Barruko Arroak eta Ebro Harana, beheko aldeko mapan jasotzen den bezala.

Hau da, maparen zonakatzea erabiltzen da beheko aldean, eskuinean.

- C₆H₆, Pb, metal astunak eta bentzo(a)pirenoaren ebaluazioa EAE osorako egiten da modu globalean.

ZONAKATZEA
SO₂, NO₂, CO eta partikulak neurtzeko



ZONAKATZEA,
SO₂, NO₂, CO eta partikulak neurtzeko



2.2.2. Lurraldearen zonakatzea airearen kalitatea ebaluatzeko

Airearen kalitateari buruzko hainbat helburu daude:

- Muga-balioa, ezagutza zientifikoetan oinarrituta finkatutako maila, efektu kaltegarriak saihesteko, prebenitzeko edo murrizteko, eta gainditu behar ez dena.
- Balio objektiboa, maila hori, ahal den neurrian, ez da gainditu behar ondorio kaltegarriak saihesteko, prebenitzeko edo murrizteko.
- Epe luzerako helburua, epe luzera gainditu ezin den maila, salbu eta neurri egokiak erabiltza hori ezinezkoa denean, efektu kaltegarrietatik eraginkortasunez babesteko.

- Informazio-atalasea: kutsatzaile baten maila. Maila horretatik aurrera, iraupen laburreko esposizio batek arriskua dakar bereziki ahulak diren biztanleria-taldeen giza osasunerako, eta administrazio eskudunek berehalako informazio egokia eman behar dute.
- Alerta-atalasea: maila horretatik aurrera, iraupen laburreko esposizio batek giza osasunerako arriskua dakar, biztanleria osoari eragiten dio eta administrazio eskudunek berehalako neurriak hartzea eskatzen du.

EAEko airearen kalitateari buruzko urteko txostenean aipatzen den bezala, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren 2020 (2021ean argitaratu zena) airearen kalitatea hobetzeko araudian ezarritako mugak honako hauek dira:

BATEZBESTEKOA		MUGA-BALIOA	ALERTA-ATALASEA	BETETZE-DATA
SO ₂	ORDUTEGIA	350 µg/m ³ (gehienez 24 gaintitze urtean)	500 µg/m ³ (3 ordutan)	2005/01/01
	EGUNERO	125 µg/m ³ (gehienez 3 gaintitze urtean)		2005/01/01
NO ₂	ORDUTEGIA	200 µg/m ³ (gehienez 18 gaintitze urtean)	400 µg/m ³ (3 ordutan)	2010/01/01
	URTEKOA	40 µg/m ³		2010/01/01
PM ₁₀	EGUNERO	50 µg/m ³ (gehienez 35 gaintitze urtean)		2005/01/01
	URTEKOA	40 µg/m ³		2005/01/01
PM _{2.5}	URTEKOA	25 µg/m ³		2015/01/01
EK	BATEZBESTEKO MUGIKORREN EGUNEKO MAXIMOA	10 µg/m ³		2005/01/01
O ₃	ORDUTEGIA	Informazio-atalasea: 180 µg/m ³	240 µg/m ³ (3 orduz jarraian)	2004/01/01
	BATEZBESTEKO MUGIKORREN EGUNEKO MAXIMOA	Balio objektiboa: 120 µg/m ³ (gehienez 25 gaintitze urtean, batez beste 3 urteko aldian)	Epe luzerako helburua: 120 µg/m ³	2010/01/01 (Aldia: 2010-2012)
BENTZENOA	URTEKOA	5 µg/m ³		2010/01/01
METALAK	BERUNA	URTEKOA	0,5 µg/m ³	2005/01/01
	ARTSENIKOA	URTEKOA	6 ng/m ³	2013/01/01
	KADMIOA	URTEKOA	5 ng/m ³	2013/01/01
	NIKELA	URTEKOA	20 ng/m ³	2013/01/01
BENTZO(A)/PIRENOA	URTEKOA	1 ng/m ³		2013/01/01

Kontuan hartu behar dugu Espainiako Gobernuak 2020ko martxoaren 14an onartu zuela Alarma-egoera estatu osoan deklaratzeko, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko.

Konfinamendu zorrotzeko aldia (martxoaren 14tik apirilaren 30era), joan-etorriak murrizteko mugak ibilgailu gutxiago erabiltzea ekarri zuen, eta trafikoari lotutako kutsatzaileen emisioan eragin zuen, hala nola NO_x-en emisioan, eta jaitsiera nabarmena ikusi zen erregistratzen diren mailetan.

Txosten horretako datuen arabera, 2020. urte osoan, **kutsatzaile bakoitzaren egoera** hurrengo taulan agertzen dena da.

V.2.7. TAULA. AIREAREN KALITATEA EAE-KO KUTSATZAILE ATMOSFERIKOEN EMAITZEN LABURPENA. 2020		
	BALORAZIO OROKORRA	XEHETASUNA
SO ₂	Mailak airearen kalitateari buruzko araudian ezarritako mugen barruan daude.	Inola ere ez ziren gainditu araudian ezarritakoak, hau da, urtean ezin da gainditu 350 aldiz baino gehiago. Eguneko batezbestekoetarako ezarritako muga-balioa ere ez zen gainditu. Ordu-kontzentrazioari dagokionez, erregistrorik altuena Las Carrerasen izan zen, 317 µg/m ³ guztira.
NO ₂	Airearen kalitateari buruzko araudian ezarritako muga-balioak betetzen dira.	Hiriburuetako trafiko-estazioetan: Ategorrieta (Donostia), Easo (Donostia), Gasteiz etorb. (Gasteiz), M ^º Díaz de Haro (Bilbo) Mazarredo (Bilbo). Orduko balioak ez dira inoiz 200 µg/m ³ -tik gorakoak. 100-163 µg/m ³ -ko orduko maximoak izan zituzten estazioak honako hauek izan ziren: Easo, Tolosa etorb., María Diaz, Sestao, Ategorrieta, Serantes, Martxoaren hirua eta Gasteiz etorbidea. Batez besteko handienak izan zituzten estazioak Easo eta María Diaz de Haro izan ziren, 27 eta 26 µg/m ³ -ko batezbestekoekin. M ^º Díaz de Haron (Bilbo), 2017. urtean 40 µg/m ³ -ko urteko muga-balioa batuta, 2018. urtean 39 µg/m ³ -ko urteko batez bestekoa erregistratu zen, 2019. urtean 36 µg/m ³ -koa eta 2020. urtean 26 µg/m ³ -koa (konfinamenduaren eragina izan zuen batezbesteko horrek). Kutsatzaile horri dagokionez, aipatzekoa da COVID-19ak konfinamendua zela-eta lekualdaketak debekatzeak eragina izan zuela erregistratutako mailetan.
PM ₁₀ eta PM ₂₅	Mailak airearen kalitateari buruzko araudiak ezartzen dituen mugen barruan daude.	PM ₁₀ -en urteko batez bestekorako, aurreko urteetako joerarekin jarraitzen da, eta batez besteko horien tarte 7-21 µg/m ³ -ko kontzentrazio-tartean kokatzen da. Estazio guztien PM _{2,5} en urteko balioak araudiak ezartzen duen urteko mugaren azpitik daude. Urteko batez bestekoak Pagoetan eta Valderejon (landa-estazioak) erregistratutako 4.6 eta 4.7 µg/m ³ arteko minimoaren eta Barakaldoko 12 µg/m ³ -ko urteko batez bestekoaren artean kokatu ziren.
EK:	Mailak oso baxuak dira estazio guztietan, muga-balioaren oso azpitik.	Ordu-balio handienak dituen estazioa Erandioko trafikoko estazioa da, Jose Luis Goioaga, z/g (Altzagako pasabidea) BI-711 errepidetik gertu.
O ₃ (ozonoa)	Urtaroen zikloan, urtaroetan erregistratutako batez besteko mailen arteko aldea, itsasotik duen hurbiltasunaren arabera.	Ez zen erregistratu 180 µg/m ³ -tik gorako baliorik (herritarrentzako informazio-atalasea). Giza osasuna babesteko xede-balioari dagokionez (120 µg/m ³ -tik gora 25 aldiz gehienez, batez beste, hiru urtean), Valderejon gainditu da. 120 µg/m ³ -ko epe luzerako helburua gehien gainditu zuten estazioak honako hauek izan ziren: Valderejo eta Urkiola. Estazio horiek altitude handiagoan eta landa-eremuetan daude.
Bentzenoa	Urteko batez bestekoak baxuak dira, eta urteko araudiak ezarritako mugaren barruan daude; hau da, 5 µg/m ³ urteko batez besteko gisa.	
Metalak eta bentzo(a)pirenoa	Metalen eta bentzo(a)pirenoaren mailak oso baxuak dira neurtu diren lau estazioetan: M ^º Díaz de Haro (Bilbo), Erandio (Erandio), Tolosa (Donostia) eta Martxoaren hirua (Gasteiz).	Azpitarratzekoa da determinazio-mugaren azpitik dauden datuen ehuneko handia, batez ere Tolosa etorbidean eta Martxoaren hiruan. Horietatik guztietatik, Erandioko puntuan detektatzen dira mailarik altuenak Cd, Ni, As, Pb eta benzo(a)pirenorako.

Iturria: EAEko airearen kalitateari buruzko urteko txostena. 2020. EUSKO JAURLARITZA

2.2.3. Airearen kalitatearen indizea eta iraunkortasun-adierazlea. 2020

Airearen Kalitatearen Indize Nazionala (AKI) adierazle bat da, herritarrei airearen kalitatearen berri modu argi eta errazean emateko balio duena. Hori lortzeko, eremu desberdinetan banatutako estazioetan kutsatzaile batzuk denbora errealean neurtzen dira. AKIk har dezakeen balio-multzoa tartetan taldekatzen da, eta horiei eremu jakin bateko airearen kalitatearen berezko bilbe edo kolore bat lotzen zaie.

2019ra arte, ez zen informazio horren parametroak Europan bateratzeko erreferentziarik egon. 2019an, TEC/351/2019 Agindua onartzean, maila bakoitzean kutsatzaile bakoitzerako ezarritako tartek aldatu eta bateratu egiten dira Europa mailan, erantsitako taulan agertzen direnak izanik.

EGUNEKO AKI Mg/m ³ -tan	SO ₂	NO ₂	O ₃	PM ₁₀	PM _{2.5}
OSO ONA	0-100	0-40	0-80	0-20	0-10
ONA	101-200	41-100	81-120	21-35	11-20
HALA MODUZKOA	201-350	101-200	121-180	36-50	21-25
TXARRA	351-500	201-400	181-240	51-100	26-50
OSO TXARRA	501-1250	401-1000	241-600	101-1200	51-800

Bestalde, iraunkortasun-adierazlea airearen kalitate-kalifikazioa hala moduzkoa, txarra edo oso txarra ez den egunen kopurua ehunekotan laburtzeko balio duen adierazlea da.

- Urteko iraunkortasun-adierazlea: ("Oso ona" kalifikazioa duten egunen kopurua + "Ona" kalifikazioa duten egunen kopurua)/urteko egunen kopuru osoa.
- Hileko iraunkortasun-adierazlea: ("Oso ona" kalifikazioa duten egunen kop. + "Ona" kalifikazioa duten egunen kopurua)/urteko egunen kop. osoa.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak emandako informazioaren arabera, 2020an 66 egunetan airearen kalitatea txarra izan zen (gutzizkoaren % 2,25 eta 2019an % 2,29), eta bat ere ez zen oso txarra izan. Haatik, airearen kalitatea hobetu daitekeen egunak ugaritu egin dira 2019tik 2020ra bitartean, gutzizkoaren % 6,27tik % 9,12ra, termino absolututan 183tik 287ra.

Airearen kalitate txarreko 66 egun horietatik 29 Nerbioi Beherean, 9 Donostialdean, 7 Goierriin, 6 Kostaldean eta beste 6 Debagoienean, 4 Nerbioi Garaian-Enkarterrian, 3 Arabako Lautadan eta 2 EAE-Erriberan.

Urteko iraunkortasun-adierazlea, hau da, kalifikazio oso ona eta ona duten egunen ehunekoa, gutzizkoaren % 88,63 da, 2019an erregistratutakoa baino ratio txikiagoa (% 91,44); horrek esan nahi du egoerak okerrera egin duela.

V.2.8. TAULA. AIREAREN KALITATEA IRAUNKORTASUN-ADIERAZLEA (1), ZONAREN ARABERA.

	ESTAZIO KOP.	2016	2017	2018	HAUSTURA METODOLOG IKOA	2019*	2020
1: ENKARTERRIAK - NERBIOI GARAIA	2	% 90,16	%100,00	%100,00		96,16	96,45
2: NERBIOI BEHEREA	21	82,79	93,70	93,42		79,45	69,67
3: KOSTALDEA	3	87,16	97,53	92,33		98,63	93,17
4: DONOSTIALDEA	11	74,86	92,88	90,41		84,11	80,87
5: IBAIZABAL GARAIA - DEBA GARAIA	6	80,33	88,22	90,14		91,51	91,26
6: GOIERRI	4	% 86,89	% 97,53	% 99,18		% 89,86	% 86,61
7: ARABAKO LAUTADA	5	% 80,05	% 96,99	% 98,90		% 94,25	% 94,26
8: EAE-ERRIBERA	2	74,32	% 97,26	% 93,42		% 97,53	% 96,72
EAE	54	% 82,07	% 95,51	% 94,73	% 91,44	88,63	

(*) 2019an mailak aldatu dira, Airearen Kalitatearen Indize Nazionala onartzen duen 2019ko martxoaren 18ko TEC/351/2019 Aginduaren arabera.

Iturria: Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila. EUSKO JAURLARITZA

V.2.9. TAULA AIREAREN KALITATE-INDIZEAREN ETA IRAUNKORTASUN-ADIERAZLEAREN BILAKAERA.

	2019					2020				
	OSO ONA ETA ONA	HOBETU DAITEKE/HALA MODUZKOA	TXARRA	OSO TXARRA	IRAUNKORTASU N-ADIERAZLEA (%)	OSO ONA ETA ONA	HOBETU DAITEKE/HALA MODUZKOA	TXARRA	OSO TXARRA	IRAUNKORTA SUN- ADIERAZLEA (%)
1: ENKARTERRIAK - NERBIOI GARAIA	351	14	0	0	96,16	353	9	4	0	96,45
2: NERBIOI BEHEREA	290	51	24	0	79,45	255	82	29	0	69,67
3: KOSTALDEA	360	5	0	0	98,63	341	19	6	0	93,17
4: DONOSTIALDEA	307	42	16	0	84,11	296	61	9	0	80,87
5: IBAIZABAL GARAIA - DEBA GARAIA	334	24	7	0	91,51	334	26	6	0	91,26
6: GOIERRI	328	29	8	0	89,86	317	42	7	0	86,61
7: ARABAKO LAUTADA	344	12	9	0	94,25	345	18	3	0	94,26
8: EAE - ERRIBERA	356	6	3	0	97,53	354	10	2	0	96,72
EGUN KOPURUA, AIREAREN KALITATEAREN ARABERA	267 0	183	67	0	91,44	2595	267	66	0	88,63
EGUNEN % AIREAREN KALITATEAREN ARABERA	91,43	6,27	2,29	0,0		88,63	9,12	2,25	0,0	

Iturria: Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen. Saila EUSKO JAURLARITZA

2.3. KLIMA-ALDAKETA. BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETAK. 2019

Klima-aldaketa XXI. mendeko ingurumenaren gaineko erronka nagusietako bat da. Nazio Batuek 2014an argitaratutako Klima Aldaketarako Gobernu Arteko panelaren bosgarren ebaluazio-txostenaren arabera, planetako batez besteko tenperatura 0,85°C igo da azken mendean, eta 3,7°C-tik 4,8°C-ra arteko tartea egon daiteke XXI. mendearen amaieran. Klima Aldaketari buruzko Gobernuen arteko Adituen Taldearen 2019ko Txosten Bereziaren arabera, tenperatura 1°C igoko zen.

Parisko 2015eko goi-bileran, 175 alde, hau da, 174 herrialdek eta EBk, akordioa sinatu zuten. Akordio horren arabera, munduko batez besteko tenperaturaren igoera industria-aurreko mailekiko 2°C-tik oso behera mantentzea erabaki zen, eta industria-aurreko mailekiko 1,5°C-ra murrizteko ahaleginekin jarraitzea.

EBk konpromisoa hartzen du 2020an % 20 eta 2030ean % 55 murrizteko isurketak, 1990. urtearekin alderatuta, 2020. urtera arteko klima eta energiarako neurri-sortaren eta EBk Parisko Akordioari egindako ekarpen eguneratuaren arabera. Izan ere, ekarpen horrek handitu egiten du klima eta energiaren 2030erako markoak ezarritako % 40ko anbizioa. Epe luzean, bai 2050erako epe luzerako estrategiak, bai Europako Itun Berdea deritzonak (European Green Deal), baita klimaren neutraltasuna lortzeko europar erregelamenduaren proposamenak ere, 2050ean edo lehenago, ahal bada, klimaren neutraltasuna lortzeko beharra ezartzen dute, hau da, emisioak puntu horretaraino murriztea, xurgapenek konpentsatu ditzaten. Gainera, 2030ean isurketak 1990. urtearekin alderatuta % 55 gutxitzeko bitarteko helburua ezartzen du, baita hainbat elementu ere:

- EBko karbono-hustubidea hobetzeko beharra aitortzea, LULUCF erregelamendu handinahiago baten bidez.
- 2040rako helburu klimatikoa ezartzeko prozesua.
- Emisio negatiboekiko konpromisoa 2050etik aurrera.
- Klima Aldaketari buruzko Europako Aholku Batzorde Zientifikoa ezartzea, aholkularitza zientifiko independentea emango duena.
- Klima-aldaketara egokitzeari buruzko xedapen zorrotzagoak.

- Sektoreekin lankidetzan aritzeko konpromisoa, ekonomiaren hainbat arlotan neutraltasun klimatikorako bidea egingo duten sektoreko ibilbide-orri espezifikoak prestatzeko.

Hala ere, Kiotoko protokoloarekin gertatu zen bezala, 1990eko errenta eta biztanleko emisioen baldintza desberdinek ez dute aukerarik ematen Europako murrizketa helburu horiek 1990etik herrialde guztietara zuzenean eramateko. Oraingoan, emisio-eskubideen merkataritza abian jarri ondoren, EBk emisio barreiatuen helburu lotesleak ezarri ditu 2005. urtearekin alderatuta.

Hala, isurin murrizketa bi bloke handitan banatzen da:

- Emisio-eskubideen merkataritzari buruzko Europako araudiak (EU-ETS) araututako sektoreak; EBk 2005ean bultzatutako sistema. Oro har, industria edo energia instalazio handiak dira, eta emisio-intentsitate handia dute. Haien emisioak EBk arautzen ditu, emisio-eskubideak eslelituta. Eskubideak eta, beraz, emisioak % 21 gutxituko dira 2020. urtean, eta % 43, 2030. urtean, 2005. urtearekin alderatuta.
- Sektore lausoak (etxebizitza, nekazaritza, hondakinak, garraioa, etab.), emisioak murrizteko estatu-helburu lotesleak dituztenak. EBn, batez beste, % 10 murriztu nahi da 2020an, eta % 30 2030ean, 2005. urtearekin alderatuta.

2030erako helburuak eguneratu egin beharko dira, arestian aipatutako % 55 murrizteko konpromiso berriarekin.

Eskualdeek ez dute berotegi-efektuko gasak (BEG) murrizteko helburu juridikoki loteslerik, baina, Euskadin, Euskadiko Klima Aldaketarako 2050 Estrategiak (Klima 2050), 2015ean onartu zenak, helburu hauek ezarri ditu: 2030erako berotegi-efektuko gasen (BGE) emisioak gutxienez **% 40 murriztea 2030erako 2005. urtearekiko eta gutxienez % 80 2050erako eta EAEk klima aldaketarako duen erresilientzia bermatzea**. Gainera, beste helburu batzuk ere baditu: 2050ean energia berriztagarrien kontsumoa azken kontsumoaren % 40 izatea.

2019ko uztailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak, oro har, “Klima Larrialdiaren Adierazpena” aurkeztu zuen, gai hori herri-helburu nagusi gisa kokatzeko.

Lehen plangintza-ziklo baten ondoren (2015-2020), Klima 2050 estrategia berrikusteko prozesuari ekin zaio, Europak klimaren arloan asmo handiagoko konpromisoak ezartzen dituen testuinguruan.

EAEko isuriak eta xurgapenak

“*Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Efectuko Gasen Isurien Inbentarioa*”ren azken datuen arabera²³, 1990ean Euskadik 20,8 milioi tona CO₂-baliokide isuri zituen, 25,4 milioi 2005ean eta 18,6 milioi 2019an. 2005. urteari dagokionez, isurketak % 26,9 murriztu dira²⁴, eta 1990. urtearen aldean, % 11,1. Hortaz, esan daiteke berotegi-gasen isuriak Euskadiko Klima 2050 Estrategian ezarritako helburuak lortzeko ezarritako bidearen azpitik daudela.

BEG isurien gutzitza, CO₂-baliokidearen arabera neurtuta, % 2,3 murriztu da 2019. urtean, 2018. urtearekin alderatuta (isurketa horiek sektore guztietako isurketen beherakada orokorrak baldintzatzen ditu, nekazaritza-sektorean gorakada txiki bat izan ezik).

²³ *Inbentario honetan kontsumitutako elektrizitatearen isuriak hartzen dira kontuan, gure eremu geografikoaren barruan gertatu zein ez.*

²⁴ *Bai Klima 2050 Euskal Estrategiaren oinarri-urtea, bai Europako herrialdeena, 406/2009/EE isuri lausoaren ahaleginak banatzeko erabakiaren barruan.*

Emisio barreiatuak % 11 murriztu dira Euskadin 2005 eta 2019 artean. Hortaz, Euskadik dagoeneko bete du 2020rako estatu kideentzat ezarritako batez besteko helburu loteslea (% 10). Sektore arautuetako isurketak, 2005. urtearekin alderatuta (erregimen horren lehen funtzionamendu-urtea), % 38 murriztu dira. 2010. urteari dagokionez, hau da, Klima Aldaketarako Gobernu Arteko panelaren berotze globala 1,5º C-koa (2019) txosten bereziaren erreferentziako urteari dagokionez, isurketak % 14 murriztu dira. Hortaz, proiektatutako murrizketarako bidean egongo ginateke berotze globalari 2ºC-tan eusteko, baina ez 1,5ºC-ko helburua lortzeko.

Xurgapenei dagokienez, Lurraren erabileren, Lurraren erabileren Aldaketaren eta Basogintzaren sektorean, oro har, CO2 xurgapen garbia egon da aztertutako urte guztietan, batez beste 2,1 milioi tona CO2-eq/urte finkatuetan, 1,2 eta 2,9 milioi tona CO2-eq/urte bitartean. 2019an, xurgapena 1,7 milioi tonakoa izan da.


EAEko isurien adierazleak

Isurketen intentsitatea, hau da, BPGd-aren unitate bat sortzeko sortutako isurketak, % 39 jaitsi dira 2005. urtearekiko eta % 54, 1990. urtearekiko. Horrek agerian uzten du euskal ekonomiaren desakoplamendu maila, sortutako isurketei dagokionez. Gure isurketen intentsitatea Europako batez bestekoaren azpitik dago, erosketa-parekotasunari dagokionez.

Biztanle bakoitzeko isurketak % 30 murriztu dira 2005etik, eta % 15 1990etik. Hala eta guztiz ere, gure biztanleko isurketak 28en EBko batez bestekoa baino pixka bat handiagoak dira oraindik ere. EBn alde handiak daude biztanle bakoitzeko emisioetan, hainbat faktoreren ondorioz: produkzio-sistemaren egitura, biztanle bakoitzeko errenta-maila, kontsumitutako energia-mota, urteko batez besteko temperatura, etab.

Emisioetan intentsiboenak diren sektoreak (EU-ETS) kenduta, gure biztanleko emisio lausoak 28ko EBren batez bestekoaren azpitik daude.


V.2.2. GRAFIKOA. CO₂ ISURIEN RATIO BALIOKIDEA, EAE-KO ETA 28KO EB-KO BIZTANLEKO¹ (2019)²



¹Biztanle datuak xedeko urteko urtariraren 1ean

²2019ko isuriak, argitalpen honetik ateratakoak: "Approximated estimates for greenhouse gas emission (2019) EEA Report Iturria.- Geuk egina, hauexetako datuekin: EUROSTAT, EEA, EUSTAT

V.2.3. GRAFIKOA. ISURI NAHASIEN RATIOA BIZTANLEKO ¹⁷ EAE-N ETA 28KO EBN-N



Iturria.- EUSTAT eta EUROSTATen datuak erabiliz eginikoa
¹⁷ Biztanleriaren datuak aztertutako urteko urtarrilaren 1ean

Sektore ekonomikoaren jaulkipenak

Berotegi-efektuko gasen isurien inbentarioari ekarpen handiena egiten dioten sektoreak energia, garraio eta industriaren sektoreak dira. Hiru horiek isurketen % 85,6 osatzen dute.

Hala ere, energia-sektorearen isurketak gainerako sektoreen energia-horniduraren ondoriozkoak direnez, banaketa hori azertu da, eta sektore bakoitzean elektrizitatearen kontsumoaren ondoriozko isurketak sartu dira. Ikuspegi horretatik, garraioaren sektoreko isurketak guztizkoaren % 35 dira, industriakoak % 29 eta energiaren transformazioaren sektorekoak (fintzea, barne-kontsumoak, galerak ...) % 13. Bizitegi eta zerbitzuen sektoreen batura % 15era iritsiko litzateke; eta nekazaritza eta hondakinen sektoreek emisio txikiagoak izango litzateke (guztira % 7).

V.2.10. TAULA. SEKTORE BAKOITZAK EAE-KO BEG ISURIEI EGINDAKO EKARPENA, 2019		
	GUZTIRA	SEKTORE BAKOITZARI ELEKTRIZITATE-KONTSUMOAREN ONDORIOZKO ISURIA ESLEITUZ
ENERGIA-SEKTOREA	32,8	13 (energiaren eraldaketa)
INDUSTRIA	18,2	29
GARRAIOA	34,6	35
BIZITEGIA	4,5	8
ZERBITZUAK	2,5	7
NEKAZARITZA	3,1	3
HONDAKINAK	4,3	4
ISURIAK, GUZTIRA	100,0	(biribilduta) 100,0

Iturria: IHOBE, Berotegi-efektuko gasen EAEko isurien inbentarioa

Orain, egoera eta bilakaera erakutsiko ditugu sektore igorleen arabera, V.2.5 eta V.2.6. tauletako datuak oinarri hartuta.

- Energiaren sektorea. Hots, EAEko isurketa guztien % 32,8. Isurketak % 3,2 jaitsi ziren 2018arekin alderatuta, batez ere sektore elektrikoaren isurketak txikiagoak izan zirelako. 2005. urtearekin alderatuta, % 42,1 jaitsi ziren, eta 1990. urtearekin alderatuta, % 21,9.
- Garraioaren sektorea. Isurketa guztien % 34,6. Isurien % 96 inguru errepideko garraioari lotuta daude. Isurketak % 0,6 jaitsi ziren 2018arekin alderatuta. 2005. urtearekin alderatuta, % 14 gehitu dira igorpenak, batez ere turismoetan. 1990. urteari dagokionez, bikoiztu egin dira salgaien garraioari eta pertsonen garraioari lotutako isurketak.

- Industria sektorea. EAEko isurketen % 18,2 da (zuzeneko isurketak), baina kontsumitzen duen elektrizitateari lotutako isurketak kontuan hartuz gero (zeharkako isurketak), ehuneko hori % 29ra igoko litzateke. Zuzeneko isurketak % 3,1 murriztu ziren 2018arekin alderatuta, BPGd industrialaren hazkundearen testuinguruan. 2005etik % 38,4 murriztu dira isurketak, eta 1990etik % 53,4.
- Etxebizitzen eta zerbitzuen sektorea. Horiek batera, EAEko BEGen % 7 dira (zuzeneko isurketak). Kontsumitzen duen elektrizitateari lotutako isurketak kontuan hartuz gero (zeharkako isurketak), ehuneko hori % 15eraino igotzen da. Etxebizitzen sektorearen isurketak % 11,2 murriztu dira 2005. urtetik, baina % 32,9 gehitu dira 1990. urtearekin alderatuta. Bestalde, zerbitzuen sektorearen isurketak % 3,9 igo dira 2005. urtearekin alderatuta, eta % 103,1 1990. urtearekin alderatuta.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza. EAEko isurketen % 3,1. Isurketak % 0,7 igo dira 2018. urtearekin alderatuta, eta % 49,2 murriztu dira 2005. urtearekin alderatuta, eta % 47,2 1990. urtearekiko.
- Hondakinen sektorea. EAEko isurketen %4,3. Isurketak % 2,3 murriztu dira 2018. urtearekin alderatuta, % 35,2 2005. urtearekin alderatuta eta % 26,3 1990. urtearekin alderatuta. Isurketen murrizketa hori hainbat faktorek eragin dute, besteak beste, birziklatze-portzentajeak handitzeak, zabortegietako aurretratamenduak, balorizazioak, konpostaren ekoizpenak eta abarrek eragindako isurketa-tasa txikiagoak. Gainera, murrizketa hori isurtze barreiatu txikiagoaren ondorioa ere bada, zabortegiko gasaren bilketa eta errekuntza hobetzearen ondorioz.

V.2.11. TAULA BEG ISURKETAK, GUZTIRA, SEKTOREKA EAE-N (CO2 BALIOKIDEAREN MILAKA TONA)										
	1990	2005	2015	2016	2017	2018	2019	ALD. 2018-19	ALD. 1990AREKIKO	
									1990	2005
ENERGIA-SEKTOREA	7800	10522	6945	6239	6604	6289	6089	-3,2	-21,9	-42,1
INDUSTRIA	7247	5488	3626	3580	3720	3486	3378	-3,1	-53,4	-38,4
GARRAIOA	2799	5634	5890	6158	6551	6463	6423	-0,6	129,5	14,0
BIZITEGIA	632	946	764	694	860	911	840	-7,8	32,9	-11,2
ZERBITZUAK	224	438	476	413	444	461	455	-1,3	103,1	3,9
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	1071	1114	668	636	594	562	566	0,7	-47,2	-49,2
HONDAKINAK	1088	1237	961	921	865	821	802	-2,3	-26,3	-35,2
ISURIAK, GUZTIRA	20862	25380	19330	18641	19639	18993	18553	-2,3	-11,1	-26,9

Iturria: IHOBE, Berotegi-efektuko gasen EAEko isurien inbentarioa

2.4. UR GEZA HARTZEA ETA KONTSUMITZEA

Ur-hornidura gizartearen garapen demografiko, sozial eta ekonomikorako oinarrizko zerbitzuetako bat da, eta herri-administrazioek nahitaez eman behar dute. Hiriko ur-eskariaren ezaugarri nagusietako bat erabileraren heterogeneotasuna da, etxeko erabilerak zein uraren beste erabilera batzuk, udalekoak, kolektiboak, industrialak, merkataritzakoak eta nekazaritzakoak barne hartzen baititu. Era berean, industria turistikoak eta bigarren bitokiak, eremu askotan, hornikuntza-eskari handia sortzen dute, eta hori ohiko moduan bizi diren biztanleei dagokiena gainditzera ere irits daiteke (zuzenbidezko biztanleak).

EINen “Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko estatistika” bi urtean behin egiten den egiturazko eragiketa da. Argitaratutako azken datuak 2018koak dira, 2020ko Memoriaren gure edizioan jasotakoak.

2.5. EKONOMIA ZIRKULARRA. HONDAKINAK SORTZEA ETA KUDEATZEA

EBk hondakinen problematikari ikuspegi zabalago eta globalago batetik heltzeko apustua egin du, hondakinak kudeatzeko hierarkia betetzea oztokatzen duten alderdi guztiak azpimarratuta. Ekonomia zirkularra esaten zaio, eta haren oinarritzko helburua produktuak, materialak eta baliabideak ahalik eta denbora gehien mantentzea da ekonomian, ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta ahalik eta gehien aprobetxatzea saihestu ezin izan diren hondakinak. Ziklo biologikoei zein teknologikoei aplikatzen zaie.

Hondakinak biltzeko eta kudeatzeko moduak birziklatze-tasa handiak eta materialak ekonomiara itzularaz dezake, edo, aitzitik, eraginkortasunik gabeko sistema bat, non hondakin birziklagarri gehienak zabortegetan edo errauskailuetan amaitzen diren.

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen (BOE, 2011/07/29) 3.m) artikularen arabera, hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzea, eragiketa horien zaintza barne, eta zabortegeiak itxi ondorengo mantentze-lanak, negoziatzaile edo eragile egindako jarduerak barne.

Bestalde, 8.1 artikuluan ezarri denez, administrazio eskudunek, hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloko politikak eta legeria garatzean, hondakinen hierarkia aplikatuko du ingurumenaren gaineko emaitza orokor onena lortzeko, lehentasun-ordena honen arabera: a) Prebentzioa; b) Berrerabiltzeko prestatzea; eta,^{25 26} c) Birziklatzea²⁷; d) Beste balorizazio mota bat, balorizazio energetikoa barne; eta e) Desagerraraztea²⁸.


²⁵ Berrerabiltzeko prestakuntza: egiaztatu, garbitu edo konpontzean datzan balorizazioa. Horren bidez, hondakin bihurtu diren produktuak edo produktuen osagaiak prestatu egiten dira, aurretik beste eraldaketarik gabe berrerabil daitezkeen (22/2011 Legearen 3.s art.

²⁶ Balorizazioa: edozein eragiketa baldin eta horren emaitza nagusia hondakina helburu baliagarriko balio izatea bada beste material batzuk ordetean, osterantzean funtzio berezi bat betetzeko erabiliko zirakeenak, edo hondakina prestatuta egotea funtzio hori instalazioan edo oro har jarduera ekonomikoan betetzeko..

²⁷ Birziklatzea: balorizazio eragiketa, zeinaren bidez hondakin-materialak produktu, material edo substantzia bihurtzen diren berriro, bai jatorrizko helbururako, bai beste edozein helburutarako.

²⁸ Material organikoaren eraldaketa ere barnean du, baina ez energia balioespena, ez erregai gisa edo betelantzarako erabiliko diren material bihurtzea. (22/2011 Legearen 3.t art.).

V.2.4 GRAFIKOA. HONDAKINEN HIERARKIA



2.5.1. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia zirkularren eta bioekonomiaren 2024ko Plana

Eusko Jaurlaritzak, 2021eko urriaren 13an, Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren lehen Plana onartu zuen, lehengaien kontsumoaren eraginkortasuna bultzatzeko, hondakinak murrizteko eta ekoizpen garbia optimizatzeko.

Ekonomia zirkularra **funtsezko hiru printzipiotan** oinarritzen da:

1. Kapital naturala zaintzea eta hobetzea, izakin finituak kontrolatuz eta baliabide berriztagarrien fluxuak orekatuz.
2. Baliabideen erabilera optimizatzea, produktuak, osagaiak eta materialak une oro ahalik eta erabilgarritasun handienaz txandakatuz, bai ziklo teknikoetan, bai biologikoetan.
3. Sistemaren eraginkortasuna sustatzea, kanpo-eragin negatiboak jakinarazita eta ezabatuta.

Eredu ekonomiko zirkularrago baterako trantsizioa Nazio Batuen 2030 Agendarekin lerrokatuta dago, eta, beraz, funtsezko eragilea da NBEn garapen iraunkorraren helburuak lortzeko.

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak egin du plana, eta erronka batzuei erantzun nahi die. Honako hauek dira:

1. *Negozio-eredu berri zirkularragoen sorrera bultzatzea*
2. *Berrikuntzak egitea materialetan (aurreratuak eta berriztagarriak), prozesuetan eta produktuetan*
3. *Produktuen balio-bizitza luzatzea*
4. *Lehengaien kontsumoa eta hondakinaren sorrera murriztea*
5. *Kontsumo-eredu zirkularragoa sustatzea*
6. *Elikagaien xahutzea gutxitzea*
7. *Plastikoen erabilera eraginkorragoa sustatzea*
8. *Hondakinaren berrerabilpena, birziklapena eta berreskurapena areagotzea*
9. *Bigarren mailako lehengaien erabilera handitzea*

Identifikatutako erronkak kontuan hartuta, xedearen, ikuspegiaren eta helburu estrategiko hauen inguruan islatutako Euskadiren asmo handia jaso nahi du ikuspegi estrategikoak:

Egitekoa: Euskadik baliabideen erabilera ekonomia eraginkorrago bateranzko trantsizioa bultzatzea, ekoizpen eta kontsumorako eredu berri baterantz bideratutako berrikuntzaren bidez, eta herritarrak, enpresak eta Administrazioa helburu komuna lortzeko modu eraginkorrean inplikatu dituen lankidetzak publiko-privatu baliatuz.

Ikuspegia: Euskadi erreferentziako eskualde bihurtu da Europako hegoaldean ekonomia zirkularrean eta bioekonomian, eta ingurumena funtsezko faktore bihurtu da iraunkortasunerako, lehiakortasunerako eta enplegua sortzeko, eta hazkunde ekonomikoa baliabide naturalen kontsumotik, hondakinen sorkuntzatik eta berotegi-efektuko gasen isurketatik banandu da.

Helburu estrategikoak:

1. Produktibitate materiala % 30 handitzea.
2. Material zirkularren erabilera-tasa % 30 handitzea.
3. BPGd-aren unitate bakoitzeko hondakinen sorrera-tasa % 30 jaisteak.

Horrez gain, Estrategiak azken helburu horren bi helburu osagarri jasotzen ditu, Europako Batzordeak lehenetsitako bi korrontekin lotuta: elikagai-hondakinen sorrera erdira gutxitzea eta plastikozko ontzien % 100 birziklagarriak izatea lortzea.

Europako Batzordearen ekonomia zirkularerako ekintza planean ezarritakoaren ildotik, 4 ardatz estrategiko ezarri dira (Ekoizpena, Kontsumoa, Hondakinen eta Bigarren Mailako Materien Kudeaketa eta Lehiakortasuna eta Berrikuntza), Euskadiko Ekonomia Zirkularra eta Bioekonomia egituratzeko. Horiek, era berean, **11 jarduketa-ildotan** hedatzen dira, eta horietako bakoitza aurretik definitutako helburu estrategikoekin eta erronkekin bat datorren etorkizuneko asmo handia da. Planak aginte-taula bat ere proposatzen du, Planaren helburu estrategikoak neurtzeko adierazleak zerrenda batekin; eta **aurrekontu-esparrua** banakatuta ematen du.

Ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako jarduketa-lerroak



Planak aginte-koadro bat ere proposatzen du, planaren helburu estrategikoak neurtzera bideratutako adierazleak zerrendarekin, eta **aurrekontu-esparrua** banatzen du.

Ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako jarduketak-lerroak	2021eko aurrekontua	2022ko aurrekontua	2023ko aurrekontua	2024ko aurrekontua	Aurrekontua guztira
1. Balio erantsi handiko negozio-eredu zirkular berriak	550.000 €	1.100.000 €	1.100.000 €	1.225.000 €	3.975.000 €
2. Berrikuntza eta teknologia berriak ekonomia zirkularrean eta bioekonomian	3.950.000 €	5.325.000 €	4.325.000 €	4.650.000 €	18.250.000 €
3. Material jasagarri berriak	200.000 €	250.000 €	250.000 €	400.000 €	1.100.000 €
4. Produktuen eta eraikinen ekodiseinua	400.000 €	475.000 €	475.000 €	600.000 €	1.950.000 €
5. Fabrikazio efizientea eta baliabideen ustiapen jasagarria	550.000 €	600.000 €	350.000 €	475.000 €	1.975.000 €
6. Bioekonomia zirkularraren aukerak indartzea	0 €	500.000 €	300.000 €	450.000 €	1.250.000 €
7. Kontsumo zirkularra. Eskaria eta merkatu-baldintzak sortzea	150.000 €	200.000 €	200.000 €	300.000 €	850.000 €
8. Elikagaien xahutzea	50.000 €	75.000 €	75.000 €	150.000 €	350.000 €
9. Plastikoen kontsumoa	75.000 €	100.000 €	100.000 €	175.000 €	450.000 €
10. Hondakinen kudeaketa jasagarria	175.000 €	200.000 €	200.000 €	400.000 €	975.000 €
11. Bigarren mailako lehengaiak	150.000 €	175.000 €	175.000 €	350.000 €	850.000 €
GUZTIRA	6.250.000 €	9.000.000 €	7.550.000 €	9.175.000 €	31.975.000 €

2.5.2. Hondakinak kudeatzea

2.5.2.1. Hondakin ez-arriskutsuak kudeatzea.

Epigrafe honetan, EINek autonomia-erkidegoen arabera informaziorik ematen ez duenez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren estatistikak/inbentarioak erabili ditugu. Inbentarioan kontabilizatutako hondakin ez-arriskutsuek edozein hondakin mota hartzen dute barne, hondakin arriskutsuak, hiri-hondakinak eta eraikuntza eta eraispeneko hondakinak izan ezik.

Industriako hondakin ez-arriskutsuak sartzen dira (fabrikazio, eraldaketa, erabilera, kontsumo, garbiketa edo mantentzeko prozesuetatik sortutako hondakinak), baita jardura ekonomiko guztietan sortutako hondakin ez-arriskutsuak ere, baldin eta jardura horietan sortutako hondakinei buruzko informazioa badago, bai nekazaritzako elikagaien sektorekoak, bai zerbitzuetakoak.

Kapitulu hau amaitzean, ez da argitaratu hondakin ez-arriskutsuei buruzko datu berriak. Argitaratutako azken datuak 2018koak dira, 2019ko Memoriaren gure edizioan jasotakoak hain zuzen.

2.5.2.2. Hiriko hondakinak kudeatzea. 2019

Eusko Jaurlaritzaren *“Iraunkortasunaren ingurumen-adierazle”*ekin batera doazen definizioetan, hiriko edo udal-hondakinak honela definitzen dira: etxeetan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinak, baita arriskutsuztat jotzen ez diren eta, beren izaera edo osaeragatik, aurreko leku edo jardueretan sortutakoekin parekatu daitezkeen guztiak ere. Hiriko hondakinak dira, halaber, bide publikoak, berdeguneak, jolasguneak eta hondartzak garbitzetik datozenak; etxeko animalia hilak, altzariak, tresnak eta abandonatutako ibilgailuak; baita eraikuntzako eta etxeko konponketako obra txikietatik datozen hondakinak eta obra-hondakinak ere.

Bestalde, 22/2011 Legearen 3.b artikulua etxeko hondakintzat jotzen ditu etxeetan etxeko jardueren ondorioz sortzen direnak (arriskutsuak ez direnak), baita zerbitzu eta industrietan aurrekoen antzekoak ere. Katetoria horretan sartzen dira etxeetan sortzen diren gailu elektrikoak eta elektronikoak, arropen, pilen, metagailuen, altzarien eta etxeko tresnen hondakinak, baita eraikuntza eta etxe konponketa lan txikietatik datozen hondakinak ere. Etxeko hondakintzat hartuko dira, halaber, bide publikoak, berdeguneak, aisialdi-guneak eta hondartzen garbiketako hondakinak, etxeko animalia hilak eta abandonatutako ibilgailuak.

EINen Estatistikaren arabera (*"Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika"*). Hiriko hondakinak), 2019an, hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek 866.007 tona hiri-hondakin jaso zituzten EAEn, aurreko urtean baino % 15,7 gutxiago. Bilketa motaren arabera bereiziz gero (nahastuta edo gaika bilduta), hondakin gehienak (% 58,3) nahastuta egon ziren. 2018aren aldean, nahastutako % 20,4 egin zuten behera, eta gaika bildutakoak % 8,2. Estatuan, bestalde, nahastuak % 2,8 gutxitu ziren eta jasotakoak % 13,5 gehitu ziren.

EAEn gaika bildutako hiri-hondakinen artean, bolumenaren arabera, hauek nabarmendu ziren: papera eta kartoia (153.648 Tm, guztien % 42,6), beira (63.400, % 17,6), ontzi mistoak eta nahasitako bilgarriak (% 50.012, % 13,9) eta animalia eta landare hondakinak (33.865, % 9,44). Estatuan hauek nabarmentzen dira: papera eta kartoia (guztien % 25,6), animalia eta landare hondakinak (% 23,3), beira (% 18) eta ontzi mistoak eta bilgarri nahasiak (guztien % 16,5).

Per capita kopuruetan, 2019an, EAEn hiri-hondakinen 369,9 kg/biztanleko jaso ziren (guztira, nahasiak nahiz bereiziak); kopuru hori 2018rako zenbatetsitakoa (473 kg/biztanleko) baino txikiagoa da, baita Estatuak batez bestekoa (483,7 kg/biztanleko) baino txikiagoa ere.

EUROSTATen datuen arabera, 2019an Estatuak batez bestekoa 455 kg/biztanleko da, 27en EBko batez bestekoaren azpitik (505 kg/biztanleko).

Bereizitako hondakin motaren arabera bereiziz (nagusien artean), 46,9 kg/bizt. ontzi misto eta bilgarriak (estatuan, berriz, 17,7 kg/bizt), 130 kg/bizt paper eta kartoi (estatuan 27,6 kg/bizt) eta 61,9 kg/bizt beira (estatuan 19,4 kg/bizt) daude.

Baliabide horien tratamendua aztertzeko, eta EINek horri buruzko informaziorik ematen ez duenez autonomia-erkidegoen arabera, Eusko Jaurlaritzaren EAeko Hiriko Hondakinen Estatistika erabili ohi dugu. Hala ere, kapitulu hau itxtean, ez da datu berririk argitaratu. Azkenak 2018koak dira, 2019ko Memorian jasotakoak.

V.2.12. TAULA HIRIKO HONDAKINAK SORTZEA (tonak)									
	EAE				ESTATUA				ESTATUAREN GAINEKO EAE-KO %-a 2019
	2017	2018	2019	ALD. 2018/19	2017	2018	2019	ALD. 2018/19	
HIRIKO HONDAKINAK (HH)	929.438	1.027.534	866.007	-15,7	22.515.181	22.707.007	22.784.752	0,3	3,8
HH NAHASTUAK (1)	571.011	634.347	505.072	-20,4	18.271.990	18.284.563	17.764.780	-2,8	2,8
HH-EN GAIKAKO BILKETA	358.427	393.187	360.935	-8,2	4.243.191	4.422.444	5.019.972	13,5	7,2
HH NAHASTUEN %-A GUZTIZKOAREKIKO	61,4	61,7	58,3	-	81,2	80,5	78,0	-	-
% HH-EN GAIKAKO BILKETA GUZTIZKOAREKIKO	38,6	38,3	41,7	-	18,8	19,5	22,0	-	-

(1) Hondakin nahastuak: etxeko hondakinak eta antzekoak, eta tamaina handiko etxeko hondakin nahastuak.
Iturria: EIN. Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak

V.2.13. TAULA. GAIKA JASOTAKO HIRI-HONDAKINEN BILKETA, HONDAKIN TIPOLOGIAREN ARABERA

	EAE				ESTATUA				EAE-KO/ESTATUKO %A 2,019
	2018		2,019		2018		2,019		
	KANTITATEA (TM)	%-a GUZTIAR EKIKO	KANTITATEA (TM)	%-a GUZTIAR EKIKO	KANTITATEA (TM)	%-a GUZTIAREKIKO	KANTITATEA (TM)	%-a GUZTIAREKIKO	
1. METALEZKO HONDAKINAK	1.065	0,3	1.016	0,3	20.939	0,5	21.887	0,4	4,6
2. BEIRA HONDAKINAK	61.700	15,7	63.400	17,6	834.764	18,9	904.986	18,0	7,0
3. PAPER ETA KARTOI HONDAKINAK	147.679	37,6	153.648	42,6	1.067.384	24,1	1.287.418	25,6	11,9
4. PLASTIKO HONDAKINAK	2.255	0,6	2.334	0,6	24.050	0,5	39.506	0,8	5,9
5. EGUR HONDAKINAK	36.885	9,4	23.361	6,5	148.348	3,4	139.473	2,8	16,7
6. EHUNGINTZAKO HONDAKINAK	5.223	1,3	12.214	3,4	40.344	0,9	47.258	0,9	25,8
7. BAZTERTUTAKO EKIPO ELEKTRIKOAK ETA BAZTERTUTAKO EKIPO ELEKTRIKOEN OSAGIAK	1.727	0,4	1.736	0,5	56.714	1,3	57.710	1,1	3,0
8. PILEN ETA METAGAILUEN HONDAKINAK	142	0,0	105	0,0	1.890	0,0	2.047	0,0	5,1
9. ANIMALIA ETA LANDARE HONDAKINAK	64.337	16,4	33.865	9,4	1.010.016	22,8	1.168.659	23,3	2,9
10. ONTZI MISTOAK ETA ENBALAJE NAHASIAK	47.662	12,1	50.012	13,9	743.556	16,8	827.965	16,5	6,0
11. LOHI ARRUNTAK (LEHORRAK)	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	
12. HONDAKIN MINERAL (ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINAK BARNE)	24.490	6,2	19.227	5,3	472.548	10,7	521.572	10,4	3,7
BESTE BATZUK	22	0,0	17	0,0	1.891	0,0	1.491	0,0	1,1
GUZTIRA	393.187	100	360.935	100	4.422.444	100	5.019.972	100	7,2

Iturria: EIN. Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak
V.2.14. TAULA. HIRI-HONDAKINEN BILKETA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA (Kg biztanleko)

	2017	2018	2019				
			GUZTIRA	HONDAKIN NAHASIAK	BEREZITAKO BILKETA (ADIERAZGARRIENAK)		
					GUZTIRA	ONTZI MISTOAK ETA ENBALAJE NAHASIAK	PAPERAREN ETA KARTOIAREN HONDAKINAK
ESTATUA	483,9	485,7	483,7	380,2	17,7	27,6	19,4
ANDALUZIA	521,9	526,7	510,2	447,0	12,3	14,4	13,0
ARAGOI	440,6	494,4	491,9	373,3	16,6	21,7	15,6
ASTURIAS	516,1	489,1	497,6	377,6	14,0	41,5	17,0
BALEAR UHARTEAK	750	809,3	737,7	569,7	32,7	41,7	36,5
KANARIAR UHARTEAK	598,9	608,3	577,7	489,8	12,8	22,1	20,3
KANTABRIA	535,1	566,1	579,6	476,7	11,8	9,8	21,4
GAZTELA ETA LEON	443,8	450,4	453,0	384,0	12,0	20,0	21,1
GAZTELA-MANTXA	461,4	476,4	462,1	406,5	12,3	14,8	12,4
KATALUNIA	501,9	463,5	499,0	310,9	24,6	54,0	27,1
VALENTZIako ERK.	493,9	514,3	499,5	425,8	12,5	15,9	18,0
EXTREMADURA	466,4	476,9	460,4	404,3	13,0	29,6	8,9
GALIZIA	413,9	421,7	435,5	366,1	10,6	15,2	17,9
MADRIL	403,3	386,1	398,5	296,6	26,4	21,2	17,4
MURTZIA	492	493,5	510,4	454,2	14,0	16,1	18,1
NAFARROA	442,9	455	451,2	274,2	14,4	17,8	11,8
EAE	428,8	473	396,9	232,5	46,9	130,7	61,9
ERRIOXA	418,5	428,9	425,4	349,7	2,7	3,9	4,2
CEUTA ETA MELILLA

Iturria: EIN. Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak

V.2.15. TAULA HIRIKO HONDAKINEN BILKETA 27KO EB-N ETA ESTATU KIDEETAN (kg biztanleko)				
	2017	2018	2,019	2020
27KO EB	496	496	501	505
BELGIKA	411	409	416	416
BULGARIA	435	407	:	:
TXEKIAR ERREP.	489	494	500	507
DANIMARKA	820	814	844	845
ALEMANIA	627	606	609	632
ESTONIA	390	405	369	383
IRLANDA	576	598	625	555
GREZIA	504	515	524	:
ESPAINIA	473	475	472	455
FRANTZIA	535	534	555	535
KROAZIA	416	432	445	418
ITALIA	488	499	503	:
ZIPRE	625	646	648	609
LETONIA	411	407	439	478
LITUANIA	455	464	472	483
LUXENBURGO	798	803	791	790
HUNGARIA	385	381	387	364
MALTA	666	672	697	643
HERBEHEREAK	513	511	508	534
AUSTRIA	570	579	588	:
POLONIA	315	329	336	346
PORTUGAL	486	507	513	513
ERRUMANIA	272	272	280	287
ESLOVENIA	471	486	504	487
ESLOVAKIA	378	414	421	433
FINLANDIA	510	551	566	596
SUEDIA	452	434	449	431

Iturria: EUROSTAT. DATU-BASEA

2.5.2.3. Hondakin arriskutsuak kudeatzea.

Hondakin ez-arriskutsuen kasuan bezala, epigrafe honetan Eusko Jaurlaritzako Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa erabiliko dugu; izan ere, EINek ez du autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik eskaintzen aztergai dugun gaiari buruz.

Eusko Jaurlaritzak, Estatuko araudiari jarraituz (22/2011 Legearen 3.e artikulua), honela definitzen du hondakin arriskutsua: aipatutako legearen III. eranskinean zerrendatutako ezaugarri arriskutsuetako bat edo batzuk dituen hondakina, eta, Europako araudian edo Espainia partaide den nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoaren arabera, Gobernuak onar dezakeena, baita horiek eduki dituzten ontziak ere.

Kapitulu hau amaitzean, ez da hondakin ez-arriskutsuei buruzko datu berririk argitaratu; argitaratutako azken datuak 2018koak dira. Argibide gehiago nahi izanez gero, 2020ko gure Memoriara jo beza irakurleak.

2.6. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFATURA-INDUSTRIA. 2019

Manufaktura-enpresek ingurumena babesteko egindako gastuaren analisia EInen “*Ingurumen-babeseko industriaren gastuari buruzko Inkesta*”n oinarrituta egin da. Inkestak industria-sektoreak ingurumena babesteko egiten duen gastua aurkezten du, bai gastu arruntak, bai inbertsio-gastuak, bere jarduera egitearen ondoriozko kutsadura saihestu, murriztu edo deuseztatzeko (airera egindako kutsatzaileak, kutsadura akustikoa, hondakin-uren eta sortutako hondakin solidoen tratamendua, etab.).

Azken datuak erakusten dutenez, 2019an manufaktura-enpresek ingurumena babesteko egindako gastu osoa (gastu arrunta eta inbertsioa) 209,7 milioi eurokoa izan zen EAEn; hau da, % 2,1 igo zen 2018an erregistratutakoaren aldean.


Gastua BPGd-aren ehunekotan neurtuta, jaitsiera ageri da. 2019an % 0,28 izan zen, aurreko urteko ratioa baino ehunen bat beherago, baina Estatuko batez bestekoa (% 0,20) baino 8 hamarren gorago. Hala, EAE seigarren postuan dago 2019an gehien gastatzen duten erkidegoen rankingean, Asturiasen (% 0,52), Nafarroaren (% 0,45), Kantabriaren (% 0,36), Gaztela-Mantxaren (% 0,33) eta Murtziaren (% 0,31) atzetik.

V.2.16. TAULA. MANUFATURERAKO ENPRESEK INGURUMENA BABESTEKO EGITEN DUTEN GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA

	GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA (€)				BPG-AREN GAINEKO EHUNEKOA *			
	2016	2017	2018	2,019	2016	2017	2018	2,019
ANDALUZIA	280,140,420	286,893,860	316,308,516	305,541,205	0,19	0,18	0,20	0,19
ARAGOI	87,975,935	100,399,167	107,765,391	100,617,681	0,26	0,28	0,29	0,26
ASTURIAS	79,297,905	90,604,311	113,662,571	122,438,953	0,37	0,40	0,49	0,52
BALEAR UHARTEAK	6,729,963	6,116,577	6,788,775	6,840,809	0,02	0,02	0,02	0,02
KANARIAR UHARTEAK	23,665,294	22,609,693	24,791,063	23,597,608	0,06	0,05	0,05	0,05
KANTABRIA	42,170,932	48,697,405	54,449,682	51,257,248	0,33	0,37	0,40	0,36
GAZTELA ETA LEON	132,500,222	141,654,129	153,983,032	164,363,294	0,24	0,25	0,26	0,27
GAZTELA-MANTXA	123,080,962	126,583,058	140,845,592	141,151,184	0,32	0,32	0,34	0,33
KATALUNIA	501,013,308	516,792,915	535,571,222	561,455,553	0,24	0,23	0,23	0,24
VALENTZIA	205,270,380	218,373,848	234,525,434	245,658,276	0,20	0,20	0,21	0,21
EXTREMADURA	18,263,483	16,564,808	19,298,470	18,716,340	0,10	0,08	0,10	0,09
GALIZIA	119,052,332	119,775,156	136,458,077	159,364,149	0,20	0,20	0,22	0,25
MADRIL	89,903,481	103,202,008	99,782,781	107,843,198	0,04	0,05	0,04	0,04
MURTZIA	80,787,439	82,624,741	87,514,597	101,374,562	0,28	0,27	0,28	0,31
NAFARROA	79,257,600	83,728,232	86,586,154	93,102,175	0,42	0,43	0,43	0,45
EAE	181,033,809	177,395,567	205,462,340	209,687,175	0,27	0,25	0,29	0,28
ERRIOXA	23,682,168	22,384,073	24,277,888	24,847,052	0,30	0,27	0,28	0,28
ESTATUA*	2,073,825,633	2,164,399,548	2,348,071,585	2,437,856,462	0,19	0,19	0,20	0,20

* Estatuaren BPGd-ak Ceuta Melilla eta erregioz kanpokoa hartzen ditu barne.
Iturria: EIN

V.2.5. GRAFIKOA. MANUFATURA-ENPRESEK INGURUMENAREN BABESEAN EGINIKO OHIKO GASTUA ETA INBERTSIOA BPG-AREN GAINEAN, AA.EE.EN ARABERA (EHUNEKOAK)



ITURRIAK

1. EUSTAT.

- Ingurumenari buruzko familientzako inkesta (IFI) 2020

2. EUSKO JAURLARITZA. Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila

- EAEko airearen kalitateari buruzko urteko txostena. 2020
- Airearen Kalitatearen Indizea. 2020.
- Ekonomia zirkularraren eta bioekonomiaren 2024ko plana
- Hondakin arriskutsuen estatistika. 2018
- Hondakin ez-arriskutsuen estatistika. 2018
- Hiri Hondakinen estatistika. 2018

3. IHOBE

- Berotegi-efektuko gasen EAEko isuriaren inbentarioa. 2019

4. EIN.

- Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko estatistika. 2018
- Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak. 2019
- Industriaren ingurumen-babeseko gastuari buruzko inkesta. 2019


3. OSASUNA ETA OSASUN-SISTEMA

OMEk²⁹ honelaxe definitzen ditu “Osasunaren faktore determinanteak”: banakoen edo populazioen osasun egoera dakarten norberaren, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren inguruko faktoreen multzoa. Hortaz, faktore askoren araberakoa da “osasuna”, gehienbat ingurumenaren, bizimoduaren, osasun sistemaren eta giza biologiararen araberakoa.

1974an “A new perspective on the health of Canadians” deritzona argitaratu zen Kanadan, Lalonde³⁰ txostena izenekoa, osasuneko politiken gaineko planteamendu berrietarako oinarria izan dena. Txostenaren ondorioetarako bat hau da: grafikoak erakusten duen moduan eragiten zaiola osasunari, hots, hauexen arabera: gizarte sistema (% 50), osasun sistema eta gaixotasunaren arreta (% 25), faktore biologikoak (% 15) eta giro fisikoa (% 10).

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, COVID-19ak eragindako pandemiaren bilakaerari buruzko aipamen laburra aurkeztuko dugu. Bigarrenik, biztanleriaren osasun-egoerara hurbiltzeko aukera ematen duten adierazle batzuk aztertuko ditugu, hala nola bizi-itzaropena, erikortasun-tasa eta heriotza-tasa. Hirugarrenik, osasunaren baldintzatzaile ez-mediko batzuen analisi konparatua egiten da, bereziki ingurumenarekin zerikusia dutenena: zarata eta berdeguneak. Laugarrenik, labur-labur aztertzen da Osakidetzak eskaintzen duen asistentzia-jarduera. Erakunde autonomo horrek osasun-arreta integrala ematen die herritarrei, eta aurrekontu publikoekin finantzatzen da. Ondoren, osasun pribatuaren adierazle nagusien bilakaera aurkeztzen da. Eta, amaitzeko, osasun-sistemaren gastua aztertzen da eta Eusko Jaurlaritzaren 2013-2020 Osasun Planaren jarraipena aurkeztzen da, bere datuetan oinarrituta.

GRAFIKOA V.3.1. OSASUNA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREAK



Iturria: Canadian Institute for advance research y elaboración propia

3.1. OSASUN EGOERA

3.1.1. COVID-19aren memoria Euskadin: epidemia boladak

2019ko abenduaren 31n, Wuhaneko (Txina) Osasun eta Osasuneko Udal Batzordeak etiologia ezezaguneko 27 pneumonia kasu jakinarazi zituen, zazpi kasu larri barne. Lehenengo kasuko sintomak 2019ko abenduaren 8an hasi ziren. 2020ko urtarrilaren 7an, Txinako agintariak Coronaviridae familiako beste birus mota bat identifikatu zuten agerraldiaren eragile, geroago SARS-CoV-2 deitu zena. SARS-CoV-2 koronabirusak COVID-19 gaixotasun infekziosoa eragiten du. 2020ko martxoaren 11n, OMEk munduko pandemia deklaratu zuen.

Otsailaren 28an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak COVID-19aren lehenengo bi positiboak identifikatu zituen Euskadin. Asteazkenean, martxoak 4, lehenengo heriotza gertatu zen, eta koronabirusean positibo eman zuen.

Euskadiko pandemiaren bilakaeran aldi hauek identifikatzen dira:

²⁹ Osasunaren sustapena, Glosarioa, OME eta Osasun Ministerioa

³⁰ Lalonde, M. (1974). A New Perspective on the Health of Canadians. A working document. Ottawa: Welfare.

1. Lehen pandemia bolada: pandemiaren hasieratik 2020ko ekainaren 21era arte, eta une horretan amaitu zen **alarma-egoera Estatu osoan, eta Euskadiko osasun-larrialdikoa**, lehen olatu epidemikoa amaitu ondoren.
2. Bigarren bolada. Lehendakariak abuztuaren erdialdean deklaratu zuen **osasun-larrialdiko egoera berria**, eta urriaren 5ean amaitu zen.
3. Hirugarren bolada 2020ko abenduaren 7an hasi zen gutxi gorabehera.

Erresuma Batuan SARS-CoV-2 aldaera berri bat (Alfa aldaera) sortu denez, eta kutsakortasun eta larritasun handiagoa duenez, kutsadurak gora egin zuen gure inguruko herrialde gehienetan eta ia autonomia-erkidego guztietan. Euskadiko Babes Zibileko Planak (LABI) murrizketa berriak ezarri zituen. Otsailaren 3tik aurrera, beheranzko joera hasi zen mundu osoan.

4. Laugarren epidemia bolada 2021eko martxoaren 15ean hasi zen.

Euskadin, martxoaren 26an, LABIk murrizketa berriak ezarri zituen, 14 egunetan 400/100.000 biztanle baino gehiagoko intzidentzia-tasa metatua (IM) gainditzen zuten udalerrri guztiei eragingo zietenak. Zehazki, itxitura perimetrala eta ordutegi-murrizketak ostalaritzaren eta joko-aretoen barruan, eta gehieneko taldekatzeak murriztea barrualdeetan egindako kirolean.

Euskadin, epidemia maila gorena apirilaren amaieran iritsi zen, eta egun horretatik aurrera behera egiten hasi zen. Igoera hori ez zen hain handia izan, baina aurreko bi igoerena baino luzeagoa.

2021eko bigarren hiruhilekoaren hasieran, Alfa aldaera (britainiarra) lehendik zabaltzen ari ziren SARS-CoV-2ko familien ordezkari jarri zen Euskadin (>% 90). Aitzitik, Beta (hegoafrikarra) eta Gamma (brasildarra) aldaerak minoritarioak baino ez ziren izan EAEn. Hiruhilekoaren amaieran, ziurgabetasuna Delta (India) aldaeraren inguruan bildu zen, Euskadin apirilaren amaieratik detektatua.

Apirilaren 27tik aurrera, beheranzko fasea hasi zen maiatzaren eta ekainaren³¹ mantendu zen epidemiaren kurba. Txertaketaren hedapena da bigarren hiruhilekoaren garapenean eragin handiena duen faktorea.

5. Bosgarren bolada (2021eko uda).

COVID-19aren aurkako txertoak eskuratzeak nabarmen aldatu zuen gaixotasuna transmititzeko dinamika, eta aldatu egin zuen herritarrentzako arrisku egoera. Batez ere, txertoa gutxi hartu zuten edo hartu ez zuten taldeei eragin zien; uztailaren erdialdean, 40 urtetik beherakoak ziren, eta batez ere 30 urtetik beherakoak. Horien artean, gaixotasuna, oro har, arinagoa zen, eta ospitalizazioen, ZIUetako ospitaleratzeen eta heriotzen ehuneko txikiagoa eragin zuen, baina intzidentziak gora egin ahala, kasu larrien kopuru gordinak ere gora egin zuen.

³¹ Euskadin, maiatzaren 7ko bileran, Osasun Larrialdiko Egoera bertan behera geratu zenean, eta EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren autoaren bidez, zenbait neurri desaktibatu ziren, hala nola itxiera perimetralak, etxeratze-aginduak edo pertsonen taldea mugatzea. Merkataritza, kultura-edo gizarte jarduerak oro eteteko ordutegia 22:00etan ezarri zen. Maiatzaren 31n, LABIk jarduerak komertzial, sozial eta kultural guztiak ixteko muga-ordua ezarri zuen, 24:00etan. Kendu egin ziren, halaber, aire zabalean kirola egiteko pertsona-taldeen mugak. Ekainaren 18ko bileran, merkataritza, gizarte eta kulturako jarduerak guztiak ixteko azken ordua 02:00ak arte luzatu zen. Ostalaritzan, ordutegia zabaltzeaz gain, mahai bakoitzeko pertsona kopurua ere handitu zen. Jardueretan baimendutako gehieneko edukiera % 60koa zen. Baimendutako maximoak esparruen ahalmenaren arabera mailakatu ziren, eta kultura- eta kirol-ekitaldien arteko maximoak berdindu ziren, publiko kirol-ekitaldietara joateko modua baitzegoen. Txokoak eta elkarte gastronomikoak ostalaritzaren antzeko baldintzetan ireki zitezkeen..

6. Seigarren epidemia bolada urriko zubitik urte amaierara arte luzatu zen (eta 2022ko hasierara arte)³².

Omicron aldaeraren sorrerak, aurreko aldaerekin alderatuta transmititzea errazagoa izateak ezaugarritzat duena, kutsadura-olde bat sortu zuen, eta munduan nagusi zen aldaera bihurtu zen, delta desplazatuz.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak azaroaren 16an iragarri zuen EAEJAGri COVID pasaporte erabiltzeko eskatu zitzaioa. Ezezko erantzuna jaso ondoren, errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean, eta azaroaren 30ean COVID pasaporte erabiltzeko baimena eman zuen EAEJAGren irizpidearen aurka.

Auzitegi Gorenaren ebazpenaren ondoren³³, lehendakariak **3. osasun-larrialdia adierazi** zuen³⁴, LABlrako deialdia egin zuen (abenduaren 3an), eta txertoa jaso zuten 12 urteko edo gehiagoko biztanleen % 90,6rekin seigarren boladaren ondorioak indargabetezko neurri berriak iragarri zituen, horien artean COVID pasaporte. Hilabete geroago, LABiko Aholku Batzordeak dekretu berria onartu zuen. Dekretu horrek, indarrean zeuden neurriei eusteaz gain, erabaki berriak hartu zituen, urtarrilaren 28ra arte iraun zutenak³⁵.

Estatu osoko joera hurrengo taulan ageri dena da.

HILABETEAK	ASTEAK	ASTEAN METATURIKO INTZIDENTZIAREN GORAKADA	GEHIEN KALTETURIKO ADIN-TALDEAK	AA.EE. KALTETUENAK
2020KO URRIA	40-41 Urriaren 4-10 eta urriaren 11-17 bitartean	% 6	20-59 urte	Gaztela eta Leon, Valentzia, Murtzia, Nafarroa eta Euskadi
	41-42	% 5	5-9 urte 70-89 urte	Guztiak
	42-43	% 8	5-9 urte 40-49 urte	Guztiak
URRIA-AZAROA	43-44	% 33	Guztiak	Guztiak
AZAROA	44-45	% 33	Guztiak	Guztiak
	45-46	% 50	Guztiak	Guztiak
	46-47	% 36	Guztiak	Guztia
AZAROA-ABENDUA	47-48	% 40	Guztiak	Guztiak
ABENDUA	48 eta 49 49.a abenduaren 6tik 12ra da	Joerei eutsi egiten zaie		
	49-50	% 86	Guztiak, bereziki 20-39 urtekoak	Guztia, Ceuta izan ezik
	50-51 51.a abenduaren 20tik 26ra da	% 107	Guztiak, bereziki 10-19 urtekoak	Guztiak
2022KO ABENDUA-URTARRILA	51-52	% 41	Guztiak, bereziki >70 urtekoak	Guztiak

Iturria: COVID-19ak Espainian duen egoerari buruzko txostenak. Epidemiak Zaintzeko Sare Nazionala

³² Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak azaroaren 16an iragarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari COVID pasaporte erabiltzeko eskatzen ziola. Ezezko erantzuna jaso ondoren, errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean. Azaroaren 30ean, EAEJAGren irizpidearen aurrean COVID pasaporte erabiltzeko baimena eman zuen. Auzitegi Gorenaren ebazpenaren ondoren, lehendakariak alarma-egoera adierazi zuen, LABlrako deialdia egin zuen (abenduaren 3an), eta txertoa jaso zuten 12 urteko edo gehiagoko biztanleen % 90,6rekin seigarren boladaren ondorioak indargabetezko neurri berriak iragarri zituen, horien artean COVID pasaporte. Hilabete geroago, LABiko Aholku Batzordeak beste dekretu bat onartu zuen. Dekretu horrek, indarrean zeuden neurriei eusteaz gain, erabaki berriak hartu zituen, urtarrilaren 28ra arte iraun zutenak.

³³ Eusko Jaurlaritzak azaroaren 16an iragarri zuen EAEJAGri COVID pasaporte erabiltzeko eskatu zitzaioa. Ezezko erantzuna jaso ondoren, errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean. Azaroaren 30ean, EAEJAGren irizpidearen aurrean COVID pasaporte erabiltzeko baimena eman zuen.

³⁴ 44/2021 Dekretua, abenduaren 2koa, Lehendakariarena, COVID-19 pandemiaren ondorioz Euskadiko osasun-larrialdiko egoera deklaratzeko duena.

³⁵ Hala ere, osasun-larrialdiaren desaktibazioa eta LABi instituzionalaren murrizketa guztiak otsailaren 14ra arte ez ziren kendu.

3.1.2. Bizi-itxaropena jaiotzean (BI) eta Bizitza Urte Osasuntsuak jaiotzean (BUO)

X adineko bizi itxaropena x adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren arabera berariazko heriotza tasetan egungo joerek irauenez gero³⁶. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi-itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

BI-k goranzko bilakaera erakusten du denboraren aldetik garaturiko herrialderik gehienetan. Alabaina, horrek ez dakar, ezinbestean, adierazle hori igotzen deneko bizitzako urte guztiak osasun egoera onean bizi izandako urteak izatea, zeren eta pertsonen gaixotasunak eta osasun arazoak izan baititzakete eta horien ondorioz bizi-kalitatea galdu, nahiz eta horiek gaixotasun guztiek heriotza berehala ez eragin. Ondorioz, heriotza-tasak pixkanaka balioa galtzen du osasun-egoeraren adierazlea den aldetik, eta gaixotasuna haren ondorioen bidez neurtu behar da, hala nola **jarduera-mugaren** edo **desgaitasunaren bidez**.

Urte osasuntsuetako bizi-esperantza (UOBI)³⁷ edo (Bizitza Urte Osasuntsuak) bizi-kalitateari buruzko informazioa ematen du, osasunari dagokionez, pertsonaren bizi-urteen aldetik. Osasun oneko egoeratzat hartzen da muga funtzionalik edo desgaitasunik ez izatea. Era berean, gaixotasun kronikoen, arazo mentalen eta desgaitasun fisikoaren prebalentziak gora egiten du adinarekin, eta osasun-baldintza horiek dituzten pertsonen eta haien mendeko pertsonen bizi-kalitatea murrizten du. Horregatik, kapitulu honetan populazio-talde hori lehenetsi da, nahiz eta jaiotzean osasun onean dagoen bizi-itxaropena ere asko erabiltzen den adierazlea den.

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren 2019ko datuen arabera, jaiotzean 84,4 urteko bizi-itxaropena zuen EAEk (81,3 urte gizonetan eta 87,4 emakumeetan) 4. postua zuen autonomia-erkidegoen rankingean, Madrilen (85,7), Nafarroaren (84,9) eta Gaztela eta Leonen (84,6) atzetik. Estatuko batez bestekoa 83,8 urtekoa zen.

65 urteko bizi-itxaropena (65 BI) 22,4 urtekoa zen EAEn (19,9 gizonetan eta 24,6 emakumeetan), Madrilgo (23,3), Nafarroako (22,6) eta Gaztela eta Leongo (22,5) bizi-itxaropenen azpitik.

Bestalde, gure erkidegoan, 65 urterekin, UOBI edo BUO 19,5 urtekoa zen (18,3 gizonetan eta 20,6 emakumeetan), Estatuko batez bestekoa baino itxaropen handiagoa, 19,1 (17,8 gizonetan eta 20,2 emakumeetan). AA.EE.en rankingean, EAE 6. lekuan dago Gaztela-Mantxaren eta Kataluniaren azpitik (bakoitza 20,3 urterekin), Gaztela eta Leonen azpitik (20,1 urte) eta Nafarroaren eta Errioxaren azpitik (bakoitza 19,6 urte); eta Extremaduraren eta Madrilen parean. Zifra horien arabera, EAEn 65 urteko emakume batek 89,6 urtera arte eta osasun onean 85,6 urtera arte bizitzea espero dezake. Bestalde, 65 urteko gizon batek 84,9 urte bete arte eta osasun onean 83,3 urte bete arte bizitzea espero dezake.

³⁶ Alda daitezke, denboran aldaketak gerta daitezkeelako.

³⁷X adinean dauden BUOek adierazten dute adin horretako pertsona bati oraindik ere zenbat urte falta zaizkion osasun onarekin bizitzeko (muga funtzionalik edo desgaitasunik gabe).

V.3.1. TAULA. HERRITARREN OSASUN EGOERA. ONGIZATE-ADIERAZLEAK 2019 (URTEAK)

	BIZI-ITXAROPENA JAIOTZEAN			BIZI-ITXAROPENA 65 URTEREKIN			BIZITZA OSASUNTSUKO URTEAK 65 URTEREKIN		
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
ANDALUZIA	79,8	85,3	82,5	18,8	22,6	20,8	17,4	18,8	18,2
ARAGOI	81,4	87,1	84,3	19,8	24,3	22,1	18,1	20,3	19,4
ASTURIAS	80,0	86,1	83,1	19,1	23,6	21,5	16,8	20,1	18,6
BALEAR UHARTEAK	81,6	86,5	84,1	20,2	23,7	22,0	19,5	19,6	19,4
KANARIAR UHARTEAK	80,9	86,1	83,4	19,9	23,5	21,8	18,7	19,2	18,9
KANTABRIA	81,0	86,6	83,9	19,3	24,2	21,9	16,9	19,6	18,3
GAZTELA ETA LEON	81,7	87,5	84,6	20,2	24,7	22,5	18,1	22,1	20,1
GAZTELA-MANTXA	81,4	86,3	83,8	19,8	23,4	21,7	18,7	21,7	20,3
KATALUNIA	81,3	87,0	84,2	19,9	24,1	22,2	18,3	22,0	20,3
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	80,6	86,2	83,4	19,4	23,4	21,5	17,8	19,1	18,5
EXTREMADURA	80,1	86,1	83,0	19,0	23,2	21,2	17,6	21,0	19,5
GALIZIA	80,9	87,0	84,0	19,9	24,3	22,3	17,2	20,0	18,6
MADRIL	82,9	88,1	85,7	21,0	25,1	23,3	18,2	20,6	19,5
MURTZIA	80,2	85,3	82,8	19,2	22,6	20,9	16,1	17,4	16,7
NAFARROA	82,4	87,4	84,9	20,5	24,5	22,6	17,6	21,5	19,6
EAE	81,3	87,4	84,4	19,9	24,6	22,4	18,3	20,6	19,5
ERRIOXA	81,2	87,0	84,1	19,8	24,3	22,1	18,7	20,2	19,6
CEUTA	78,9	83,9	81,4	19,3	21,8	20,7	14,9	14,0	14,5
MELILLA	78,9	83,9	81,4	19,3	21,8	20,7	14,9	14,0	14,5
ESTATUA	80,9	86,6	83,8	19,7	23,8	21,9	17,8	20,2	19,1

Iturria: Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa

3.1.3. Ospitaleko erikortasuna. 2019


Erikortasun terminoa populazio batean, toki eta denboraldi jakin batzuetan, gaixotasun baten efektuz aritzeko erabiltzen da. Gaixotasun batek biztanleria batengan duen presentzia eta dituen ondorioen azterketa eta kuantifikazioa neurtzeko, biztanleriak bere osasun-egoerari buruz egiten duen autobalorazioa erabil daiteke, hau da, hautemandako erikortasuna (datuak Osasun Inkestan daude jasota), edota osasun-zentro batean artatu eta tratatu den biztanleriaren gaixotasunen erregistroa, ospitaleko asistentziaren kasuan Ospitaleko Erikortasunaren Estatistikan zehazten dena.

EUSTATen datuen arabera³⁸, Euskadiko ospitaleetan 247.502 ospitaleratze erregistratu ziren 2019an, aurreko urtean baino % 0,4 gehiago. Ospitalearen titulartasunaren arabera, nabarmentzekoa da EAEko ospitale publikoetako ospitaleratzeen proportzioa % 83,5 dela, Estatuan baino ia ehuneko hamaika puntu gehiago, azken horren batez besteko tasa % 73 baita.

Alderaketa eginez gero, gaixotze-tasa 11.282 ospitalizaziokoa izan zen 100.000 biztanleko (– % 0,9, 2018. urtearen aldean). Hortaz, EAE estatuko batez bestekoaren gainetik (10.347), eta laugarren tokian dago autonomia-erkidegoka, Kataluniaren, Asturiasen eta Aragoiren atzetik.

³⁸ Estatuko eta nazioarteko estatistikekin konparatzeko arrazoiak direla eta, ospitaleratze modalitatean egun bateko edo gehiagoko egonaldia duten gertakariak soilik hartzen dira kontuan, hau da, ez dira kontuan hartzen 0 egunekoak duten gertakariak. Egonaldiaren iraupena kalkulatzeko, ospitaleratze-dataren eta alta-dataren artean igarotako egun kopurua hartzen da kontuan, ospitaleratze- edo alta-orduak kontuan hartu barik. Euskal Autonomia Erkidegoko 100.000 biztanleko ospitaleratze-tasa EUSTATen populazioarekin kalkulatu da 2019/07/01ean..

V.3.2. GRAFIKOA. OSPITALIZAZIO-TASAK 100.000 BIZTANLEKO ETA ERKIDEGO ETA HIRI AUTONOMOEN ARABERA. 2019



Iturria.- EUSTAT. Ospitaleko errikotasunari buruzko estatistika.


Ospitaleratutako gizonen proportzioa (% 50,6) emakumeenaren antzekoa izan zen (% 49,4); estatuan, berriz, handiagoa da emakumeen artean (% 51,9). Hala ere, haurdunaldia, erditzea eta erdiberriarora kontuan hartzen ez badira, emakumeen presentzia % 45,7ra jaitsiko litzateke Euskadin (% 47,4 Estatuan). Adinari dagokionez, ospitaleratuta egon ziren pertsonen % 51ek 65 urte edo gehiago zituen, Estatutik 5 puntu gorago (% 46).

Ospitaleratutako pertsonen batez besteko adina 61 urte izan zen (57 urte Estatuan), eta sexuaren arabera, 61 urte gizonezkoetan eta 60 emakumezkoetan (64 urte haurdunaldiagatiko eta erditzeagatiko kasuak kontuan hartu gabe).

Ospitaleratzeen arrazoi nagusiak, Estatu osoan bezala, zirkulazio-gaixotasunak, digestio-aparatuko gaixotasunak eta arnas-aparatuko gaixotasunak izan ziren; ospitaleratzeen % 38,2 izan ziren (Estatuan % 37,4). Bestalde, haurdunaldi, erditze eta erdiberriaroko taldea zortzigarren postuan zegoen Euskadin (ospitaleratzeen % 6,8), eta Estatuan seigarren postuan zegoen (%8,5), aparatu muskuluesketikoari eta aparatu genitourinarioari eragiten ziotenen aurretik.

Zirkulazioko gaixotasunen taldeak jasotzen du batez besteko adin handiena (73 urte); traumatismo eta lesioen kasuan, berriz, gizonak emakumeak baino gazteago ospitalerazten dira (54 urte gizonak eta 67 urte emakumeak; 53 eta 65 urte, Estatuan).

V.3.3. GRAFIKOA. OSPITALAZIOAK ERITASUN-TALDE OHIKOENEN ARABERA. 2019



Iturria.- EUSTAT. Ospitaleko erikortasunari buruzko estatistika. EIN

3.1.4. Heriotza-tasa

3.1.4.1. Heriotzak³⁹

EUSTATen Heriotzen Estatistikaren arabera, EAEn 24.247 pertsona hil ziren 2020an, hau da, 2019an baino %12,5 gehiago. % 49,7 gizonak izan ziren eta % 50,3 emakumeak.

Heriotza gehienak adin-talde nagusienetan gertatzen dira oraindik ere. Hala, heriotzen % 66,3 (16.068) 80 urtetik gorakoak dira. Zehazki, 80-89 urtekoen taldean 8.614 heriotza izan ziren, 90-99 urtekoen taldean 7.045, 100-109 urtekoen taldean 407 eta 110 urte edo gehiagoko taldean 2. Haurren heriotza-tasari dagokionez (bizitzako lehen urtean), 39 ume hil ziren, 2019an, berriz, 45.

Hildakoen batez besteko adinak goranzko joera du: 2020an 81 urtekoa izan zen, eta duela 10 urte 78,1 urtekoa. Handiagoa da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino (84,2 eta 77,8). Hamar urte lehenago, 2010ean, batez bestekoak, hurrenez hurren, 81,8 eta 74,7 urte izan ziren. Ondorioz, azken 10 urteetan, emakumeen batez besteko heriotza-adina 2,4 urte igo da, eta gizonena 3,1.

Heriotza-kausei dagokienez, V.3.3. taulako datuetatik ondoriozta daitekeenez, 2020an hazi egin ziren gainerako gaixotasunengatiko heriotzak (+% 58,5), guztizkoaren % 37,7 izatera iritsi arte. Bigarren postuan tumorengatiko heriotzak daude (guztizkoaren % 25,7 eta % 1,4ko jaitsiera), hirugarrenean zirkulazio-aparatuko gaixotasunengatiko heriotzak (guztizkoaren % 23,1 eta % 0,2ko jaitsiera) eta laugarrenean arnas sistemako gaixotasunengatiko heriotzak (guztien % 6,4 eta % 28,3ko jaitsiera).

EUSTATen datuen arabera, 2020an, heriotza guztien % 12,8 (3.096) COVID-19 izan zen funtsezko kausa. Heriotza horiek 2 taldetan sailkatzen dira: analisi espezifikoarekin baieztatutako COVID-19 heriotzak, 2.775 heriotza, edo analisi bidez baieztatu gabeko COVID-19 kasu probableak, baina kasu horietan COVID-19 da parte medikoaren heriotza-kausa nagusia, 321 heriotzarekin. COVID-19aren ondorioz hil ziren gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa izan zen: 1.582 gizonak eta 1.514 emakumeak; hau da, % 51,1 gizonak eta %48,9 emakumeak. Adinaren arabera, COVID-19aren ondoriozko heriotzen % 72,8 80 urtetik gorako pertsoneri dagokie.

³⁹Jo beza irakurleak EAeko Demografiari buruzko I. kapitulura hemen aurkeztutako informazioa osatzeko.

Azkenik, EAEn 2021. Urtean lagun 23.073 hil ziren, hots, % 4,8 2020ko datuaren aldean

V.3.2. TAULA. HERIOTZEN BILAKAERA ADIN HANDIENEO TARTETAN EAE-N

	GUZTIRA	GIZONAK		EMAKUMEAK		>=80	80-89	90-99	100-109	>=110	>=80 GUZTIAREKIKO
		HORIZONTALA (%)	HORIZONTALA (%)	HORIZONTALA (%)	HORIZONTALA (%)						
2015	21509	50,0	50,0	14047	8509	5194	344	0	65,3		
2016	21223	50,8	49,2	13853	8165	5394	294	0	65,3		
2017	21632	50,0	50,0	14288	8310	5633	345	0	66,1		
2018	21745	50,0	50,0	14383	8073	5948	362	0	66,1		
2019	21560	49,9	50,1	14186	7717	6091	378	0	65,8		
2020	24247	49,7	50,3	16068	8614	7045	407	2	66,3		


Iturria: EUSTAT, Heriotzen Estatistika

V.3.3. TAULA HERIOTZAK, HERIOTZAREN KASUAREN ARABERA EAE-N

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2019- 20KO ALDAK.
GUZTIRA	21509	21223	21632	21745	21560	24247	12,5
TUMOREAK	6379	6320	6352	6360	6309	6223	-1,4
ZIRKULAZIO-SISTEMA	5788	5733	5763	5776	5620	5611	-0,2
ARNAS-SISTEMA	2119	2055	2345	2330	2158	1547	-28,3
DIGESTIO-SISTEMA	976	933	922	1012	956	986	3,1
KANPOKO ARRAZOIAK	677	784	829	733	756	750	-0,8
GAINERAKO ERITASUNAK	5570	5398	5421	5534	5761	9130	58,5
HERIOTZA-KAUSA OHIKOENEN ARTEKO EHUNEKOEN BANAKETAREN BILAKAERA							
TUMOREAK	29,7	29,8	29,4	29,2	29,3	25,7	
ZIRKULAZIO-SISTEMA	26,9	27,0	26,6	26,6	26,1	23,1	
ARNAS-SISTEMA	9,9	9,7	10,8	10,7	10,0	6,4	
DIGESTIO-SISTEMA	4,5	4,4	4,3	4,7	4,4	4,1	
KANPOKO ARRAZOIAK	3,1	3,7	3,8	3,4	3,5	3,1	
GAINERAKO ERITASUNAK	25,9	25,4	25,1	25,4	26,7	37,7	

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika

V.3.4. GRAFIKOA. EAE-N HILDAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKO ADINAREN BILAKAERA (URTEAK)



3.1.4.2. Heriotza goiztiarra. Galdutako balizko bizitza urteak 2020

Hilkortasun goiztiarraren inpaktua baloratzeko, Galdutako Balizko Bizitza Urteak (GBBU) kalkulatzeko dira. Hainbat irizpide komun dituzten eta behaketa epidemiologiko prospektibo baten parte diren pertsona-talde batentzat sortu zen, garai batean (70 urte bete aurretik) hildakoek bizi izan ez dituzten bizitza-urteak oinarri hartuta (heriotzaren adinaren eta 70 urtekoen arteko aldean batura metatua).

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, azken urteetan, gizonen heriotza goiztiarren hiru kausa nagusiak trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, kardiopatia iskemikoak eta suizidioak eta eragindako autolesioak dira. 2020an, bizitza-urte potentzial gehien galarazi dituzten sei heriotza-kausak, garrantziaren arabera ordenan, hauek dira: trakea, bronkio eta biriketako tumore gaiztoa, kardiopatia iskemikoa, suizidioa eta autolesioak, COVID-19, drogek eragindako pozoidura eta ibilgailu motordunekin izandako trafiko-istripuak.

Emakumeen kasuan, bi heriotza kausa nagusiak bularreko tumore gaiztoak eta trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak dira. 2020an, balizko bizitza urte gehien galarazi dituzten sei heriotza kausak, garrantziaren arabera: bularreko tumore gaiztoa, trakea, bronkio eta biriketako tumore gaiztoa, COVID-19, gaixotasun zerebrobaskularrak, obarioiko eta suizidioko tumore gaiztoa eta autolesioak.

Hurrengo taula irakurrita ondorioztatu daitekeenez, COVID-19ak gehiago eragin zien gizonetako emakumetako baino (1.535 eta 1.033 urte potentzial galdu ziren); gizonetako, berriz, heriotza goiztiarraren laugarren kausa izan zen emakumetakoentzat.

V.3.4. TAULA. GALDUTAKO BALIZKO BIZITZA URTEAK SEXUAREN ETA KAUSA NAGUSIEN ARABERA EAE-N			
GIZONAK >2017		EMAKUMEA 2017	
TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKIETAKO TUMOREAK	3443	BULARREKO TUMOREAK	2055
KARDIOPATIA ISKEMIKOA	3130	TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKIETAKO TUMOREAK	1885
SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	1958	UMETOKIKO TUMOREAK	670
ENZEFALOKO TUMOREA	1225	SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	648
GIBELA ETA BEHAZUN-BIDE INTRAHEPATIKOETAKO TUMOREAK.	938	ERIT. ZEREBRO-BASKULARRA	593
ERIT. ZEREBRO-BASKULARRA	925	KARDIOPATIA ISKEMIKOA	568
GIZONAK >2018		EMAKUMEA 2018	
TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKIETAKO TUMOREAK	3688	BULARREKO TUMOREAK	1808
KARDIOPATIA ISKEMIKOA	2690	TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKIETAKO TUMOREAK	1643
SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	1630	PANKREASEKO TUMOREAK	698
GIBELA ETA BEHAZUN-BIDE INTRAHEPATIKOETAKO TUMOREAK	1020	SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	660
ERIT. ZEREBRO-BASKULARRA	968	UMETOKIKO TUMOREAK	658
ENTZEFALOKO TUMOREA	830	ENTZEFALOKO TUMOREA	605
GIZONAK >2019		EMAKUMEA 2019	
TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKIETAKO TUMOREAK	3558	BULARREKO TUMOREAK	1573
KARDIOPATIA ISKEMIKOA	2615	TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKIETAKO TUMOREAK	1558
SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	1830	ERIT. ZEREBRO-BASKULARRA	658
MOTORDUN IBILGAILUEN TRAFIKO ISTRIPUAK	973	UMETOKIKO TUMOREAK	633
DROGEN ONDORIOZKO NAHIGABEKO POZOITZEA	950	KOLONEKO TUMOREA	583
ENTZEFALOKO TUMOREA	935	KARDIOPATIA ISKEMIKOA	583
GIZONAK >2020		EMAKUMEA 2020	
TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKIETAKO TUMOREAK	3218	BULARREKO TUMOREA	1723
KARDIOPATIA ISKEMIKOA	2496	TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKIETAKO TUMOREAK	1490
SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	2045	BERRETSITAKO ETA USTEZKO COVID-19 KASUAK	1033
BERRETSITAKO ETA USTEZKO COVID-19 KASUAK	1535	ERIT. ZEREBRO-BASKULARRA	683
DROGEN ONDORIOZKO NAHIGABEKO POZOITZEA	1183	UMETOKIKO TUMOREAKA	625
MOTORDUN IBILGAILUEN TRAFIKO ISTRIPUAK	868	SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	555

Iturria: Heriotzen Erregistroa. Osasun Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Zuzendaritza. Osasun Saila. EUSKO JAURLARITZA

3.2. OSASUNAREN DETERMINANTE EZ-MEDIKOAK: ingurumen-determinanteak

Arestian aipatu bezala, osasun sistemak eta gaixotasunerako arretak bakarrik ez, gizarte sistemak, faktore biologikoen eta ingurune fisikoak ere badute eragina pertsonen osasunean.

Hala, elikadura orekatua eta bestelako ohitura osasungarriak (esaterako, ariketa fisikoa, beharrezko ordu kopurua lo egitea, tabakorik ez erretzea, edari alkoholdunak neurrian hartzea, besteak beste) lagungarriak dira gaitz ugariaren kontrako aurrezaintzan (bihotz-hodietakoak, minbizi motaren bat, obesitatea, metabolismo gaitzak, txantxarra, osteoporosia eta immunitate sistemaren zenbait gaitz).

Aldi berean, OMEren arabera, ingurumeneko baldintzatzaileak osasunean eragina izan dezaketen ingurumen-faktoreak dira, eta pertsonarengan eragina duten kanpoko faktore fisiko, kimiko eta biologiko guztiak biltzen dituzte.

Herritarrek beren etxebizitzaren inguruneari buruz duten iritzia neurri garrantzitsua da gogobetetze orokorrari dagokionez, eta tokiko iraunkortasunaren adierazle esanguratsua da. Atal honetan Espainiako Osasun Inkesta Nazionalaren (EOIN) informazioa jaso da, zaratari eta berdeguneen eskuragarritasunari buruzkoa, herritarren ikuspegitik.

3.2.1. Zarata

OMEren arabera, zaratak kalte handia egiten dio giza osasunari, bai ikuspuntu fisikotik, bai ikuspegi psikikotik. Trafikoak, industria-jarduerek eta aisialdiak eragindako ingurumen-zarata hirietako ingurumenaren gaineko arazo nagusietako bat da, baina landa-eremuko zenbait eremu geografikotan ere izan dezake eragina.

EBko legeriak zarata-igorpenen mugak ezartzen ditu hainbat sorgunetarako (automobilak, kamioiak, hegazkinak eta industria-ekipoak), eta ingurumen-zarataren ebaluazioa eta kudeaketa harmonizatzen ditu; hala ere, herritarrek oso kezka handia dute zarata-kutsadurari dagokionez.

Izan ere, Osasun Sistema Nazionalaren 2019ko urteko txostenaren datuen arabera⁴⁰, Europako biztanleriaren % 20 zarata-maila luzeen eraginpean dago, eta maila horiek osasunerako kaltegarriak dira.


⁴⁰ European Environmental Agency: *Environmental noise in Europe 2020 Osasunaren Sistema Nazionalaren urteko txostenean, 2021ean argitaratua.*

Espainiako Osasun Inkesta Nazionalaren (EOIN) emaitzen arabera, 2017an, Estatuko biztanleen % 27,9k uste zuten etxetik kanpoko zarata gogaikarria zela. Euskadik, % 28,5ekin, Estatuko batez bestekoa baino ratio handixeagoa zuen. Zaratarekin eragozpen gutxien zutela adierazi zuten lurraldeak Kantabria (% 6,6), Galizia (% 7,4) eta Extremadura (% 10,3) izan ziren. Aitzitik, ondoeza gehien adierazi zuten lurraldeak Melilla (% 55,7), Ceuta (% 36,9), Murtzia (% 36,2), Valentzia (% 35) eta Madril (% 34) izan ziren.

Lurralde gehienetan ez zegoen alde handirik sexuaren arabera, zarata etxebizitzaren inguruan gogaikarria zela adierazi baitzuten.


2011-2017 aldia aztertuta, zarataren irudipena ez da aldatu Estatuan, % 28 inguru; EAEn, berriz, okerrera egin du. Zehazki, Galiziak, Ceutak, Melillak eta Extremadurak hobetu dute pertzepzioa (ehuneko 8-27 puntuko beherakadarekin), eta Balear Uharteek, EAEk eta Murtziak okerrera egin dute (ehuneko 8-13 puntuko igoerarekin).

V.3.5. GRAFIKOA. BIZTANLEEK ETXEBIZITZAREN INGURUAN ADIERAZITAKO ZARATA GOGAIKARRIA, AA.EE.EN ARABERA, 2017 (biztanleriaren %)



Iturria: OSNen urteko txostenean, EOIN, 2019

V.3.6. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN INGURUAN BIZTANLEEI IRUDITZEN ZAIEN ZARATA GOGOIKARRIAREN BILAKAERA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. ESTATUA. 2011-2017



Iturria: EUSTAT. Osasun Ministerioa eta Estadística Erakunde Nazionala. Espainiako Osasunari buruzko Inkesta Nazionala (EOIN).


3.2.2. Berdeguneak

OMEk "ezinbesteko" gunetzat jotzen ditu berdeguneak, pertsonen ongizate fisiko eta emozionalean onurak dakartzatelako eta hiriko hirigintza-plangintza hobetzen laguntzen dutelako, eta hiri bizigarriagoa eta osasungarriagoa egiten du. Hiriko berdeguneen estaldura oso garrantzitsua da bizi-kalitate onari eusteko. Plazek, lorategiek, parkeek eta hiri-basoek funtsezko zeregina dute ingurumenean eta hiriko biodibertsitatean, eta, gainera, paseorako, jolaserako edo aisialdirako espazioak dira. Lurraldearen antolamenduari dagokionez, haren egituraren parte dira eta hiri-giro orekatua irudikatzen dute, non eraikuntza naturaguneekin moteltzen den.

Osasun Sistema Nazionalaren 2019ko urteko txostenaren arabera, EBn inkestatutako pertsonen % 94k uste zuten beharrezkoa zela ingurumena zaintzea, eta Espainiako estatua batez bestekoaren gainetik zegoen (% 97). Hau da, Europako gizarteak kezka-maila handia adierazten jarraitzen du ingurumenaren egoerari buruz, eta haren kalitate-galerak pertsonalki eragiten diela hautematen dute.

Espainiako 2019ko Osasun Inkesta Nazionalaren (EOIN) emaitzen arabera, 2017an, Estatuan, pertsonen % 26,3k zioten berdegune gutxi zeudela beren etxebizitzaren ingurunean. Euskadik, % 18,7rekin, Estatuko batez bestekoa baino ratio handixeagoa zuen. Errealitatean, alde nabarmena antzematen da etxebizitzaren ingurunean berdeguneen eskasiaren pertzepzioari dagokionez, autonomia-erkidegoen eta hiri autonomoen artean. Urrietasun handienaren irudipena Melillan (% 8,3) eta Ceutan (% 84,2) erregistratu da, ondoren Kanarietan (% 44,8) eta txikiena Galizian (% 2,6), Asturiasen (% 6,0) eta Errioxan (% 8,0). Ez dago alde handirik sexuaren arabera.


V.3.7. GRAFIKOA. BERDEGUNEEN ESKASIA BIZTANLEEK ADIERAZITAKO ETXEBIZITZAREN INGURUAN, AA.EE.EN ARABERA, 2017 (%)



Iturria: OSNen urteko txostenean, EOIN, 2019

2011-2017 denbora-ikuspegitik, Estatuan ez da aldatu etxebizitzaren inguruko berdeguneen eskasiaren ehuneko aitortua, % 26 baino ez da oraindik ere, baina lurraldeen arabera denboraren bilakaeran aldeak nabarmendu behar dira. 6 lurraldetan handitu egin da berdeguneen eskasiaren pertzepzioa (Madril, Gaztela-Mantxa, Kantabria, Euskadi, Nafarroa eta Ceuta, portzentajezko 6-25 puntuko hazkundearekin). 4 lurraldetan nabarmen murriztu da berdeguneen eskasiaren gaineko pertzepzioa (Asturias, Extremadura, Galizia eta Balearrak, ehuneko 8-13 puntuko beherakadarekin).

V.3.8. GRAFIKOA. BERDEGUNEEN ESKASIAREN BILAKAERA ADIERAZITAKO ETXEBIZITZAREN INGURUETAN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. ESTATUA 2011-2017



Iturria.- EUSTAT. Osasun Ministerioa eta Estatistikako Erakunde Nazionala. Espainiako Osasunari buruzko Inkesta Nazionala (EOIN).

3.3. OSAKIDETZAREN LAGUNTZARAKO JARDUERA

3.3.1. Baliabideen erabilera: batez besteko egonaldia eta txandaketa-indizea

Batez besteko egonaldia eraginkortasuneko adierazletzat hartzen da, jardunbide kliniko erabakigarriaren garapenarekin lotutakoa. Hala, batez besteko egonaldia murrizteak, txandakatze-indizea haztearekin batera, ospitalizazioaren arloko produktibitatea handiagoa dela adierazten du.

V.3.5 TAULA. BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA ESPEZIALITATEAREN ARABERA (BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO-INDIZEA) OSAKIDETZAN

ZERBITZUAK	BATEZ BESTEKO EGONALDIA (EGUNAK)									OKUPAZIO-INDIZEA (%)							
	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	
OROKORRA	5,1	5,0	5,0	6,0	4,7	4,9	5,1	5,0	77,7	78,8	77,0	79,7	78,9	76,6	67,8	72,3	
MEDIKUNTZA ZERBITZUAK																	
BARNE-MEDIKUNTZA	7,2	7,1	6,9	6,9	6,7	6,9	6,8	6,6	121,4	125,3	122,5	126,8	137,4	143,6	146,4	144,5	
KARDIOLOGIA	4,7	4,6	4,4	4,2	4,3	4,4	4,0	4,1	94,4	93,3	87,7	83,0	80,0	82,9	64,2	74,6	
DIGESTIO-APARATUA	6,8	6,8	6,5	6,4	6,3	6,0	6,1	6,3	108,7	107,0	104,3	105,2	101,4	101,7	85,7	97,4	
HEMATOLOGIA	9,5	8,5	7,7	8,2	9,0	8,6	9,4	9,7	89,4	86,2	77,8	95,1	96,8	87,6	80,0	81,8	
PNEUMOLOGIA	6,0	6,1	5,9	5,6	5,6	5,7	6,2	6,0	139,0	156,9	148,4	142,5	150,4	138,7	153,8	152,0	
PSIKIATRIA	14,6	14,0	14,2	14,06	14,7	14,6	13,8	13,8	98,8	98,1	99,0	91,7	97,9	98,0	82,1	92,3	
ERREHABILITAZIOA	29,4	32,9	33,9	35,8	37,2	33,9	32,1	32,8	76,3	80,5	84,5	87,8	84,3	86,9	69,2	82,2	
ZAINKETA ARINGARRIAK	13,6	13,4	13,8	13,6	13,8	13,3	12,1	12,0	88,9	92,2	92,0	87,3	93,8	95,0	81,7	81,1	
KIRURGIA ZERBITZUAK																	
KIRURGIA OROKORRA	3,9	3,7	3,6	3,7	3,6	3,5	3,4	3,4	79,3	75,0	72,4	69,0	66,7	66,6	53,4	55,8	
KIRURGIA PLASTIKOA	4,3	3,7	3,6	3,6	3,4	3,7	3,3	3,1	62,7	56,1	60,7	56,9	56,5	68,1	57,3	61,3	
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA	4,1	3,9	4,2	5,1	5,1	5,2	4,6	5,0	111,6	108,3	114,2	115,6	105,4	103,2	86,8	89,6	
KIRURGIA BASKULARRA	4,8	4,4	4,9	5,4	5,1	5,5	5,4	5,7	69,4	65,2	69,6	71,6	76,4	76,9	66,5	77,3	
KIRURGIA TORAZIKOA	4,1	4,2	4,1	3,8	3,7	3,6	3,6	3,3	78,0	81,0	91,6	87,4	92,4	87,9	68,5	72,0	
PNEUROKIRURGIA	5,1	5,1	5,0	5,4	5,4	5,5	4,9	4,6	87,0	86,5	84,1	79,9	81,4	82,6	64,1	69,4	
TRAUMATOLOGIA	4,3	4,2	4,1	4,0	3,8	3,7	3,5	3,5	87,1	83,4	83,0	80,7	80,5	83,5	64,7	71,2	
UROLOGIA	3,9	3,8	3,8	3,6	3,4	3,4	3,1	3,1	101,8	103,2	103,9	100,8	94,6	91,5	70,1	77,9	

Iturria: Osakidetza. Akutuuen ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Osakidetzak emandako datuen arabera, 2021ean, akutuen ospitaleetako eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetako batez besteko egonaldia 5 egunekoa da, 2020an erregistratutako 5,1 eguneko datuaren antzekoa. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioko (32,8), psikiatriako (13,8) eta zainketa aringarrietako (12) zerbitzu medikoak.

Asistentzia-eskariak gora egiten du sare osoko batez besteko okupazio-indizea 2020an erregistratutako % 67,8 eta 2021ean % 72,3; hala ere, oraindik ez da pandemiaren aurreko mailetara iristen. % 100etik gorako mailekin ditu pneumologia (% 152) eta barne-medikuntza (% 144,5).

3.3.2. Itxaron-zerrendak kanpoko kontsultetan eta kirurgia programatuan

3.3.2.1. Kanpoko kontsultak

Bilakaera Osakidetzaren arabera

Kanpoko kontsultetako itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopuruak, 2019tik 2020ra 101.836tik 62.160ra (% 39) jaitsi ondoren, gora egin du berriro 2021ean, eta 94.515 izan dira (+% 52,1). 2020an espezialitate guztiek itxarote-zerrendak murriztu zituzten, baina 2021ean justu kontrakoa gertatu zen, espezialitate bakoitzak gora egin baitzuen.

Zerrendan paziente gehien dituzten espezialitateak 2020koak dira berriz ere. Hala, ordenaren arabera, traumatologia (17.917), oftalmologia (9.830), dermatologia (9.039), ginekologia (7.468) eta errehabilitazioa (6.735) daude. 2020an, berriz, traumatologia (9.863), oftalmologia (7.952), ginekologia (6.542), ORL-otorrinolarinologia (5.290), errehabilitazioa (4.094) eta dermatologia (3.633) izan ziren.

V.3.6. TAULA. KANPOKO KONTSULTETAKO ITXARON-ZERRENDAK (paziente kopururik handiena duten espezialitateak) OSAKIDETZAN											
	PAZIENTE KOP.						ALDAKETAK (%)				
	2016	2017	2018	2019	2020	2021	16-17	17-18	2019	2020	2021
ALERGOLOGIA	3.026	3.397	4.015	2.743	1.138	2.453	12,3	18,2	-31,7	-58,5	115,6
KARDIOLOGIA	3.094	3.091	3.292	3.520	2.230	3.268	-0,1	6,5	6,9	-36,6	46,5
DERMATOLOGIA	11.438	12.496	13.452	13.036	3.633	9.039	9,2	7,7	-3,1	-72,1	148,8
DIGESTIO-APARATUA	3.212	3.360	3.159	3.347	2.032	2.752	4,6	-6,0	6,0	-39,3	35,4
ENDOKRINOLOGIA	1.876	1.624	1.850	1.801	1.469	1.739	-13,4	13,9	-2,6	-18,4	18,4
NEUROLOGIA	3.833	4.295	4.170	4.387	2.622	3.905	12,1	-2,9	5,2	-40,2	48,9
ERREHABILITAZIOA	8.734	9.012	9.017	8.217	4.094	6.735	3,2	0,1	-8,9	-50,2	64,5
KIRURGIA OROKORRA	2.805	2.478	3.152	2.919	2.052	3.140	-11,7	27,2	-7,4	-29,7	53,0
OFTALMOLOGIA	13.813	11.486	11.581	11.828	7.952	9.830	-16,8	0,8	2,1	-32,8	23,6
OTORRINOLARINGOLOGIA	5.919	5.989	6.405	5.864	5.290	6.062	1,2	6,9	-8,4	-9,8	14,6
TRAUMATOLOGIA	18.152	17.184	18.955	16.124	9.863	17.917	-5,3	10,3	-14,9	-38,8	81,7
UROLOGIA	3.573	3.648	4.936	3.349	2.304	3.368	2,1	35,3	-32,2	-31,2	46,2
GINEKOLOGIA	6.509	7.661	7.312	8.456	6.542	7.468	17,7	-4,6	15,6	-22,6	14,2
BESTELAKOAK	11.725	14.379	16.173	16.245	10.939	16.839	22,6	12,5	0,4	-32,7	53,9
GUZTIRA	97.709	100.100	107.469	101.836	62.160	94.515	2,4	7,4	-5,2	-39,0	52,1

Iturria: Osakidetza. Akutuen ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Atzerapen-denborari dagokionez, 2021ean, zerrendetan dauden biztanleen % 47,3k hilabete baino gehiago itxaroten du, eta % 52,7k, berriz, hilabete baino gutxiago.

V.3.7. TAULA. KANPOKO KONTSULTETAKO ITXARON-ZERRENDAK ETA ATZERAPEN-DENBORAK (%) OSAKIDETZAN						
	2016	2017	2018	2019	2020	2021
< HILABETE	60,7	59,5	57,0	54,1	64,1	52,7
> HILABETE	39,3	40,5	43,0	45,9	35,9	47,3

Iturria: Osakidetza, Akutuen ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Estatuarekin alderatzea

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrendei buruzko informazio-sistemaren datuen arabera, 2021eko datuekin (ikus V.3.7 taula), EAEn kontsultetarako itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopurua estatukoa baino txikiagoa da osasun-txartela duten 1.000 biztanleko (14,7 eta 77,2). Izan ere, EAE da autonomia-erkidegoen rankingean ratio txikiena duen autonomia-erkidegoa.

Egunen arabera atzerapen-denborari dagokionez, autonomia-erkidegoen rankingean eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetan izan ezik, EAE da denborarik laburrena erregistratzen duena, 34 egunekoa, eta Estatuko batez bestekoa 89 egunekoa da.

Arreta jasotzeko 60 egun baino gehiago itxaron behar duten hitzorduen ehunekoari dagokionez, EAeko ratioa % 14,5koa da, eta estatuko batez bestekoa % 52,2koa. Balearrek soilik dute ratio txikiagoa (% 6,5).

V.3.8. TAULA ITXARON-ZERRENDEN EGOERA OSASUN SISTEMA NAZIONALAREN KONTSULTETAN. 2021EKO ABENDUKO DATUAK			
	OSASUN TXARTELA DUTEN PAZIENTEEN KOP. 1.000 BIZTANLEKO	60 EGUNETIK GORAKO DATA EZARRITA DUTENEN %	60 EGUNETIK GORAKO HITZORDUEN EHUNEKOA
ANDALUZIA	106,5	105	18,4
ARAGOI	76,1	160	35,0
ASTURIAS	89,5	79	30,6
BALEAR UHARTEAK	38,5	51	6,5
KANARIAR UHARTEAK	56,3	118	88,2
KANTABRIA	81,3	70	59,1
GAZTELA ETA LEON	65,1	77	42,8
GAZTELA-MANTXA	24,2	69	45,2
KATALUNIA	36,9	93	31,3
VALENTZIako ERK.	61,4	95	45,8
EXTREMADURA	43,0	64	18,1
GALIZIA	73,9	56	35,8
MADRIL	53,3	56	70,4
MURTZIA	47,1	77	62,3
NAFARROA	92,1	109	11,9
EAE	14,7	34	14,5
ERRIOXA	42,6	59	75,2
CEUTA	35,1	31	57,8
MELILLA	38,4	19	30,6
GUZTIRA	77,2	89	52,2

Iturria: Sal30, 6ud Sistema Nazionaleko itxaron-zerrendei buruzko informazio sistema (IIS eta OSN)

3.3.2.2. Kirurgia programatua

Bilakaera Osakidetzaren arabera

2019tik 2020ra bitartean, behera egin du EAeko kirurgiako itxarote-zerrendetan dauden pazienteen kopuruak, 17.512 izatetik 16.827 izatera igaro baita. Hau da, 7,9 eta 7,4 paziente artean osasun-txartela duten mila biztanleko. Batez besteko berandutze-egunen kopuruak ere behera egin du (47,91 egunetik 68,16 egunera). Bestalde, 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen ehunekoak gora egin du, % 12,45etik % 23,39ra.

2020 eta 2021 bitartean, kopuruak gora egin du, 16.827 pertsonatik 22.264ra (7,4tik 9,7ra osasun-txartela duten mila biztanleko). Batez besteko atzerapen-egunen kopurua 68,16 egunetik 70,79ra igo da. Bestalde, 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen ehunekoak gora egin du, % 23,39tik % 26,59ra.

V.3.9. TAULA. KIRURGIAKO ETA BATEZ BESTEKO ATZERAPENEN ITXARON-ZERRENDAK OSAKIDETZAN

	2018	2019	2020	2021
PAZIENTE KOP.	17.795	17.512	16.827	22.264
OSASUN-TXARTELA DUTEN GAIKOEN KOPURUA 1.000 BIZTANLEKO	8,1	7,9	7,4	9,7
BATEZ BESTEKO ATZERAPENA (EGUNAK)	49,05	47,91	68,16	70,79
3 HILABETE BAINO GEHIAGOKO PAZIENTE-KOPURUA	2415	2181	3935	5920
3 HILABETETIK GORAKO GAIKOEN %	13,57	12,45	23,39	26,59

Iturria: (1) Osakidetza, (2) Osasun Sistema Nazionalako itxaron-zerrendei buruzko informazio sistema (IIS eta OSN) eta geuk eginikoa

* 2017, 2018 eta 2019ko datuak, Osakidetzak berrikusiak

Estatuarekin alderatzea

Osasun Sistema Nazionalaren (IIS-OSN) itxaron-zerrendei buruzko informazio-sistemaren datuen arabera, 2021eko datuekin (ikus V.3.10 taula), EAEn kontsultetarako itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopurua estatukoa baino txikiagoa da osasun-txartela duten 1.000 biztanleko (4 eta 5,6). EAE autonomia erkidegoen rankingean ratio txikiena duen hirugarren autonomia erkidegoa da, Nafarroaren eta Madrilen atzetik. Melillako Hiri Autonomoak guztiak baino ratio txikiagoa du (0,7).

Ebakuntza egiteko 6 hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen ehunekoari dagokionez, EAEko ratioa % 4,3 da, eta estatuko batez bestekoa, berriz, % 13,1. Melillako hiri autonomoak baino ez du ratio baxuagoa (% 0).

Egunen araberako atzerapen-denborari dagokionez, autonomia erkidegoen rankingean eta Melillako hiri autonomia alde batera utzita, EAE da denborarik laburrena erregistratzen duena (62 egun); Estatuko batez bestekoa 96 eguneko da.

V.3.10. TAULA. ITXARON-ZERRENDEEN EGOERA OSASUN SISTEMA NAZIONALAREN KONTSULTETAN. 2021EKO ABENDUKO DATUAK

	OSASUN TXARTELA DUTEN PAZIENTEEN KOP. 1.000 BIZTANLEKO	6 HILABETETIK GORAKO PAZIENTEEN EHUNEKOA	BATEZBESTEKO ITXARONALDIA (EGUNAK)
ANDALUZIA	4,6	11,0	72
ARAGOI	8,0	23,1	136
ASTURIAS	8,5	10,8	0
BALEAR UHARTEAK	4,4	19,1	124
KANARIAR UHARTEAK	4,6	16,5	109
KANTABRIA	7,6	20,9	114
GAZTELA ETA LEON	8,1	22,8	124
GAZTELA-MANTXA	6,1	0,2	102
KATALUNIA	7,4	21,9	123
VALENTZIako ERK.	4,1	6,4	69
EXTREMADURA	7,5	17,2	109
GALIZIA	7,8	4,7	70
MADRIL	3,7	8,1	71
MURTZIA	6,3	11,7	85
NAFARROA	3,7	9,8	78
EAE	4,0	4,3	62
ERRIOXA	8,9	22,0	106
CEUTA	5,1	14,8	106
MELILLA	0,7	0,0	46
GUZTIRA	5,6	13,1	96

Iturria: Sal30, 6ud Sistema Nazionalako itxaron-zerrendei buruzko informazio sistema (IIS eta OSN)

3.4. OSASUN-LAGUNTZA PRIVATUARI BURUZKO ESTADISTIKA: ASEGURU LIBREKO ENTITATEAK

"Osasun-laguntza pribatuaren estatistika" bi urtetik behin egiten den eragiketa estatistikoa da, eta EAEn establezimenduren bat duten aseguru libreko erakundeek (hemendik aurrera, ALE) baliabideei eta jarduerari buruzko informazioa lortzea du helburu. Kapitulu honen amaieran datu berriak ez dagoenez, 2020ko Memoria Sozioekonomikoaren edizioari lotzen gataizkio.

3.5. OSASUN-SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAKETA

3.5.1. EUSTATen Osasunaren kontua

Osasunaren Kontua bi urtean behin egiten den estatistika-eragiketa bat da, eta Euskadiko osasunaren makromagnitude nagusiak esparru koherente batean integratzea eta antolatzea du helburu. Kapitulu honen amaieran datu berriak ez dagoenez, 2020ko Memoria Sozioekonomikoaren edizioari lotzen gataizkio.

3.5.2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gastua

Kontuan hartu behar dugu 2020. urtea, hauteskunde-urtea izateaz gain (horrek dakarren sailen berregituraketarekin), lehenengo urte pandemikoa dela. Eta, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-likidazioak erakusten duen bezala, Osasun Atalaren gastuen aurrekontua aldatu egin zen, 3.943,7 eurotik 4.134,7 m €ra, eta 4.134,7 m €horien partiden arabera banakapenak 223,7 m €-ko zenbatekoa sortzen du. Zenbateko hori ez da zenbatzen ezein programatan (Egitura eta laguntza, Finantzaketa eta kontratazio sanitarioa, Osasun publikoa, Ikerkuntza eta Plangintza sanitarioa, Farmazia eta Adizioen Saila), eta EGABek partida integratuak ere barne hartu ditu.

Osasuna atalean azkenean gauzatutako gastua 4.106,9 milioi eurokoa izan zen, eta baliabideen ehunekoan lehenengo lekua hartu zuen. Guztizko gastuaren % 34,9 izan zen (programa nagusia Osakidetza egindako transferentziei dagokie) eta BPG nominalaren % 5,74, aurreko urtearen gainetik (% 5,04). Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa eta Farmazia programek likidatutako ia gastu osoa hartzen dute (% 92,9). Zehazki, Osasun Finantzaioa eta Kontratazioa % 80,2 eta Farmazia % 12,7. "Bestelako partidak" guztizkoaren % 5,4 dira.

Aurrekontu-zenbatekoaren eta benetan gauzatutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, Osasun Atalean likidatutako gastua (4.106,9 m €) aurrekontu aldatua (4.134,7 m €) baino txikiagoa da, eta horrek 27,8 m €-ko beheranzko desbideratzea dakar.

Bestalde, berriaz sanitarioak diren partiden gastu-aurrekontua, 2021erako, 3.994,4 milioi eurokoa da (+% 1,3, 2020an hasieran aurrekontuan sartutako gastuarekiko). Gastu hori BPGd nominalaren % 5,17 da, 2020an erregistratutakoa baino ratio txikiagoa (bai aurrekontuan, bai likidazioan).

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren datuen arabera, EAeko biztanle bakoitzeko osasunean⁴¹ egindako gastu publikoak hazkundera izan du 2020-2021 aldian, biztanle bakoitzeko 1.817 eurotik 1.931 eurora. Hala ere, gure erkidegoa autonomia-erkidegoen rankingean lehen postuan zegoen, baina posizio hori galdu du, eta Asturiasen atzetik geratu da. Horrela, lehenengo hirurak Asturias (1.944 euro biztanleko), EAE (1.931 euro) eta Nafarroa (1.906 euro) dira.

⁴¹Datuek autonomia-erkidegoek beren aurrekontu bateratuetan sartu dituzten erakundeek hasierako osasun-aurrekontuak islatzen dituzte, autonomia-erkidego bakoitzaren mailan finkatuta.

Beraz, kanpoan geratzen dira fundazioak, partzuergoak, enpresa publikoak eta gutxi gorabeherako aurrekontua duen eta osasunaren arloan jarduerak egiten dituen beste edozein erakunde publiko.

Biztanleria ofizialaren datuak EINEK argitaratutako erroldari dagozkie.

V.3.11. TAULA. EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SIALAREN GASTUAREN BANAKAPENA
(programen arabera, milaka eurotan)

	2017	2018	2019	2020					2021	HASIERAKO AURREK. ALDAKETA (%)		
				AURREKONTU-LIKIDAZIOAK	HASIERAKO AURREKONTUA	AURREKONTU ALDATUA	LIKIDAZIOA				ALDEA (L-P)	HASIERAKO AURREKONTUA
							ABS.	BERT. %				
EGITURA ETA BABESA	15.066	14905	18736	18810	18894	15437	0,4	-3457	19615	4,3		
OSASUN FINANTZAKETA ETA KONTRATAZIOA	3.027.327	3.110.591	3.422.225	3.331.447	3.298.708	3.293.442	80,2	-5.266	3.376.724	1,4		
OSASUN PUBLIKOA	37.226	37.871	38.651	46.461	46.461	39.928	1,0	-6.533	48.353	4,1		
OSASUN IKERKUNTZA ETA PLANGINTZA	7.123	77.746	8.080	11.190	11.190	9.861	0,2	-1.329	13.880	24,0		
FARMAZIA	518.447	522.044	514.566	530.928	530.834	522.507	12,7	-8.327	530.961	0,0		
ADIKZIOAK	4.056	3.996	3.969	4.855	4.855	3.976	0,1	-879	4.879	0,5		
BESTELAKO PARTIDAK	3.234	-66.915	3.049	0	223.724	221.741	5,4	-1.983	0	---		
OSASUNA, GUZTIRA	3.612.479	3.700.238	4.009.276	3.943.691	4.134.666	4.106.892	100	-27.774	3.994.412	1,3		
GASTUAK GUZTIRA, EJ	10.823.734	11.317.546	12.038.657	11.774.000	12.233.625	11.779.674		-453.951	12.442.365	5,7		
BPGd	73.697.375	76.888.235	79.537.107	71.528.127	71.528.127	71.528.127	---	---	77.300.228	---		
OSASUNAREN % GUZTIZKOAREKIKO	33,4	32,7	33,3	33,5	33,8	34,9	---	---	32,1	---		
OSASUNAREN % BPGd-AREKIKO	4,90	4,81	5,04	5,51	5,78	5,74	---	---	5,17	---		

Iturria: EAEren Kontu Orokorak eta Aurrekontuak, EUSTAT eta geuk eginikoa

V.3.12. TAULA. BALIABIDE EKONOMIKOAK HASIERAKO AURREKONTUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA
* Euroak biztanleko, 2021ean eguneratua

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021 bb
AEE	1.143	1.146	1.178	1.221	1.268	1.313	1.344	1.389	1.495
ANDALUZIA	1.010	978	1.007	1.050	1.109	1.169	1.251	1.303	1.383
ARAGOI	1.211	1.206	1.207	1.367	1.443	1.516	1.515	1.558	1.749
ASTURIAS	1.392	1.402	1.425	1.463	1.627	1.637	1.727	1.796	1.944
ILLES BALEARES	1.058	1.071	1.172	1.226	1.297	1.358	1.456	1.429	1.587
KANARIAR UHARTEAK	1.225	1.233	1.239	1.238	1.262	1.349	1.366	1.407	1.474
KANTABRIA	1.310	1.339	1.348	1.383	1.419	1.470	1.503	1.583	1.707
GAZTELA ETA LEON	1.289	1.282	1.322	1.348	1.431	1.487	1.492	1.493	1.833
GAZTELA-MANTXA	1.167	1.152	1.175	1.286	1.337	1.381	1.379	1.478	1.813
KATALUNIA	1.108	1.118	1.145	1.141	1.193	1.185	1.173	1.279	1.276
VALENTZIAKO ERK.	995	1.084	1.112	1.198	1.233	1.292	1.334	1.345	1.492
EXTREMADURA	1.191	1.208	1.287	1.454	1.453	1.524	1.613	1.667	1.801
GALIZIA	1.238	1.202	1.247	1.292	1.334	1.428	1.477	1.521	1.701
MADRIL	1.109	1.094	1.142	1.160	1.179	1.202	1.221	1.210	1.212
MURTZIA	1.072	1.110	1.126	1.191	1.206	1.262	1.290	1.278	1.446
NAFARROA	1.341	1.403	1.467	1.551	1.636	1.646	1.672	1.772	1.906
EAE	1.607	1.586	1.602	1.616	1.671	1.734	1.731	1.817	1.931
ERRIOXA	1.240	1.265	1.276	1.319	1.350	1.403	1.400	1.482	1.747

* Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako erroldari dagozkion biztanleria-datuak.

(bb) behin-behinekoa

Iturria: Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa

3.5.3. Osakidetzaren gastua

Osakidetzaren aurrekontu-likidazioak, EAEko kontu orokorretan oinarrituta egindakoak, erakusten du erakundeak 2020an (pandemiaren lehen urtean) 3.359,6 milioi euroko gastua egin zuela. Hala, gastua % 0,4 jaitsi da 2019tik 2020ra. BPGd nominalaren % 4,7 da, 2019koa baino ehuneko bost hamarren gehiagoko ratioa. Beherakada horren arrazoia inbertsioen beherakada da (-% 56,1), ustiapen-gastuak handitu egin baitira. Likidatutako guztizkoaren % 96,9 ustiapen-gastuei dagokie eta % 3,1 Inbertsioei.

Likidatutako ustiapen-gastuak 3.254 milioi eurokoak dira, hau da, % 3,9 igo dira 2019ko likidazioarekiko. Langile-gastuak (soldatak eta kotizazio sozialak) ustiapen-gastuen % 66,4 dira, 2.161,3 milioi euro gehiago, aurreko urtearen aldean % 7 gehiago. Funtzionamendu-gastuak 1.088,8 milioi eurokoak dira, eta % 14,9 igo dira aurreko aldiarekin alderatuta. Funtzionamendu-gastu horien % 83,9 hornikuntzei dagozkie, % 17,5 hazi baitira.

Likidatutako kapital-gastua 105,6 m €-koa da, 2019koa baino % 56,1 txikiagoa.

Aurrekontuan sartutako zenbatekoaren eta 2020an benetan gauzatutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidatutako gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa da (262,2 milioi euro gehiago), eta inbertsioei (+13.107 mila euro) zein ustiapen-gastuei (+44.241 mila euro) dagokie.

V.3.13. TAULA. Osakidetzako gastuen likidazioa (mila eurotan)						
	2016	2017	2018	2019	2020	Ald. (%) 2019-20
KAPITAL AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: INBERTSIOAK	65.742	102.371	141.428	240.508	105.610	-56,1
USTIAPEN AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: USTIAPEN GASTUAK	2.670.293	2.768.141	2.970.419	3.131.957	3.254.034	3,9
<u>LANGILERIA GASTUAK I</u>	1.801.678	1.858.536	2.016.625	2.019.405	2.161.287	7,0
<u>II FUNTZIONAMENDU GASTUAK</u>	853.021	857.332	910.438	947.665	1.088.755	14,9
HORNIKUNTZAK	700.740	698.175	739.171	777.688	913.491	17,5
FUNTZIONAMENDU GASTUAK, BESTELAKOAK	152.281	159.157	171.267	169.977	175.264	3,1
BESTELAKOAK	15.594	52.273	43.356	164.887	3.992	-97,6
• FINANTZA-GASTUAK (hirugarrenetik zorreratik)						
• EMAN BEHARREKO DIRU-LAGUNTZAK ETA ERAKUNDEAK EGIN BEHARREKO TRANSFERENTZIAK						
• (...)						
INBERTSIOEN ETA GASTUEN BETEARAZPENA, GUZTIRA	2.736.035	2.870.512	3.111.847	3.372.465	3.359.644	-0,4
BPGd	71.239.291	73.697.375	76.888.235	79.537.107	71.528.127	-10,1
GASTUA BPGd-AREN GAINEAN (%)	3,8	3,9	4,0	4,2	4,7	---

Iturria: EAEko Kontu Orokorrak erabiliz geuk egina

V.3.14. TAULA Aurrekontua: Osakidetzako gastuen likidazioa (mila eurotan)									
	2018			2019			2020		
	AURR. ALDATUA	LIKIDAZ.	BEREIZ. (L-G)	AURR. ALDATUA	LIKIDAZ.	(L-P) (L-G)	AURR. ALDATUA	LIKIDAZ.	BEREIZ. (L-P)
INBERTSIOAK	94.771	141.428	46.657	255.810	240.508	-15.302	92.503	105.610	13.107
USTIAPEN GASTUA	2.796.716	2.970.419	173.703	3.110.275	3.131.957	21.682	3.209.793	3.254.034	44.241
LANGILERIA GASTUA	1.891.091	2.016.625	125.534	2.019.919	2.019.405	-514	2.161.790	2.161.287	-503
FUNTZIONAMENDU GASTUAK	898.552	910.438	11.886	948.920	947.665	-1.255	1.043.965	1.088.755	44.790
BESTELAKO GASTUAK (FINANTZA- GASTUAK, DIRU- LAGUNTZAK...)	7.073	43.356	36.283	141.436	164.887	23.451	4.038	3.992	-46
GUZTIRA	2.891.487	3.111.847	220.360	3.366.085	3.372.465	6.380	3.110.275	3.372.465	262.190

Iturria: EAEko Kontu Orokorrak erabiliz geuk egina

3.6. Jarraipena EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN PLANA 2013-2020

2013-2020ko Osasun Plana lehentasunezko 5 sailetan dago egituratuta, eta horietako bakoitzean, helburuak, ekintzak eta harekin loturiko adierazleak ezarri dira.

- 1. ARLOA: Osasuna eta osasuneko berdintasuna politika publiko guztietan txertatzea eta berdintasunezko eta kalitatezko euskal osasun sistema indartzea.
- 2. ARLOA: Biztanleriarekin jardutea gaixotasunak eragindako heriotza-tasa eta populazioarengan eragin handiena duten gaixotasunen mendetasuna gutxitzeko.
- 3. ARLOA: Zahartze osasuntsua sustatzea.
- 4. ARLOA: Haurren eta gazteen osasun baldintzak eta aukerak hobetzea.
- 5. ARLOA: Ingurune eta bizimodu osasuntsuak, sektoreen arteko lankidetzaren, tokiko lanaren eta gizarte-lanaren bidez. 1 eta 5. arloak zeharkakoak dira eta 2, 3 eta 4. arloak, berriz, biztanle-talde espezifikoetara dagozkie.

V.3.15. TAULA EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN PLANA 2013-2020 LEHENTASUNEZKO ARLOAK ETA HELBURUAK

1. ARLOA: FBERDINTASUNA ETA ERANTZUKIZUNA	2. ARLOA: GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONAK	3. ARLOA: ZAHARTZE OSASUNTSUA	4. ARLOA. UMEEN ETA GAZTEEN OSASUNA	5. ARLOA. INGURUNE ETA JOKABIDE OSASUNTSUAK
1.1. helb.: Osasuna politika guztietan	2.1. helb.: Laguntza soziosanitario osoa, integratua eta pertsonak ardatz hartuta	3.1. Zahartze aktiboa	4.1. helb.: Haur osasuna	5.1. helb.: Jarduera fisikoa
1.2. helb.: Berdintasuna	2.2. helb.: Botikeren erabilera egokia	3.2. Laguntza soziosanitarioa	4.2. helb.: Arreta goiztiarra	5.2. helb.: Osasuna eta elikadura
1.3. helb.: Osasunari eta osasunaren kezkei eragiten dieten egiturazko determinanteak eta bitartekoak	2.3. helb.: Segurtasun klinikoa	3.3. Gaitasun funtzionala eta autonomia	4.3. helb.: Haurren eta gazteen obesitatea	5.3. helb.: Sexu eta ugalketa osasuna
1.4. helb.: Pertsonen partaidetza eta jabetzea	2.4. helb.: Egoera terminala eta zaintza aringarriak	3.4. Teknologia berriak	4.4. helb.: Nerabeak eta gazteak	5.4. helb.: Adizioak
1.5. helb.: Genero-indarkeria	2.5. helb.: Minbizia	3.5. Helb.: Etxeko laguntza		5.5. helb.: Osasun mentala
1.6. helb.: Osasuneko desberdintasunen monitorizazioa	2.6. helb.: Gaixotasun kardiobaskularrak			5.6. helb.: Ingurunea
1.7. helb.: Ikerkuntza eta berrikuntza	2.7. helb.: Diabetesa eta sindrome metabolikoa			5.7. helb.: Lan-ingurunea
	2.8. helb.: Obesitatea			
	2.9. helb.: Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK)			
	10. helb.: Gaixotasun mentala			
	11. helb.: Sexu-transmisiozko infekzioak			
	12. helb.: Beste gaixotasun garrantzitsu batzuk			

2013-2020 Osasun Planaren emaitzen urteko txostenean jasotako datuen arabera, 2019an 101 adierazleri buruzko informazio eguneratua dago, guztizkoaren % 92 (aurreko urtean 90 adierazle izan ziren). 101 horietatik, 2020rako helburua beteta dago edo helbururako joera erakusten du 43 adierazletan (% 39), 24k (% 24) hobekuntza erakusten dute oinarrizko egoerari dagokionez, baina egungo joerarekin ez da aurreikusten 2020rako helburua lortzea, eta 34tan (% 31) okertzea dago oinarrizko egoerari dagokionez.

V.3.16. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN PLANA 2013-2020 ADIERAZLEEN JOERA 2019AN		
Kop.	%	JOERA
43	39	LORTUTAKO HELBURUA EDO 2020RAKO HELBURUA LORTZEKO JOERA
24	24	EGOERA BASALAREN HOBEKUNTZA, BAINA GAUR EGUNGO JOERAREKIN EZ DA AURREIKUSTEN 2020RAKO HELBURUA LORTZEA.
34	31	OKERRAGOTZEA EGOERA BASALARI DAGOKIONEZ

V.3.17. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN 2013-2020 OSASUN PLANAREN JARRAIPENA 2019KO DATUAK					
Kop.	ADIERAZLEA	ABIAPUNTUKO EGOERA	EGUNERATZEA 2019	XEDEA 2020	ITURRIA
1	Osasun Planaren Batzorde Gidaria eta Politika guztietarako Osasun Batzorde Teknikoa eratzea eta abian jartzea	--	Beteta	2013ko abendua/2014ko martxoa	Eusko Jaurlaritza Osasun Saila
2	Sektoreek Osasun Planarekin duten konpromisoa baliozkotzea	--	Beteta	1. txostena 2016an	Eusko Jaurlaritza
4	Osasun Plana ebaluatzeko urteko txostena	--	Beteta	1. txostena 2015ean	Eusko Jaurlaritza Osasun Saila
5	Lehen mailako arretako gastu arruntaren (asistentzia sanitario ambulatorioa)/osasuneko gastu arrunt osoaren arrazoa	16,829	17,030	>%21	Eustat Osasunaren kontua
6	Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (DGBI) Gizonak (urteak)	69,3	70,531	↑%5	EAEIOI
6bis	Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (DGBI) Emakumeak (urteak)	73,1	72,8	↑%5	EAEIOI
7	Bizi-itxaropeneko gizarte desberdintasunak 30 urterekin. GIZONAK(%) 32	14,1	12,133	↓% 10	Osasun Saila Osasun Ikask. eta Ikerkt. zerb. sanitarioa
7bis	Bizi-itxaropeneko gizarte desberdintasunak 30 urterekin. Emakumeak %	9,0	8,2	↓%5	Osasun Saila Osasun Ikask. eta Ikerkt. zerb. sanitarioa
8	Desberdintasunak osasun zerbitzuetan sartzean Kirurgiako itxarotzerrendan 28 egun edo gutxiagoko atzerapena duten paziente onkologikoen %. Gizonak	98,234	98,7	Progresiboki handitzea	Osakidetza.
8bis	Osasun zerbitzuetan sartzeko desberdintasunak Kirurgiako itxarotzerrendan 28 egun edo gutxiagoko atzerapena duten paziente onkologikoen %. Emakumeak	98,7	98,7	Progresiboki handitzea	Osakidetza.
8bis2	Desberdintasunak osasun-zerbitzuetarako sarbidean. Kirurgiako itxarotzerrendan 80 egun edo gutxiagoko atzerapena duten bihotzeko pazienteen %. Gizonak	96,2	98,6	Progresiboki handitzea	Osakidetza.
8bis3	Desberdintasunak osasun-zerbitzuetarako sarbidean. Kirurgiako itxarotzerrendan 80 egun	96,8	97,8	Progresiboki handitzea	Osakidetza.

	edo gutxiagoko atzerapena duten bihotzeko pazienteen %. Emakumeak				
8bis4	Desberdintasunak osasun-zerbitzuetarako sarbidean. Kirurgiako itxaronzerrenda orokorretako batez besteko atzerapena, 55 egun edo gutxiagoko atzerapenarekin. Gizonak	51,7	51,2	Progresiboki gutxitzea	Osakidetza.
8bis5	Desberdintasunak osasun-zerbitzuetarako sarbidean. Kirurgiako itxaronzerrenda orokorretako batez besteko atzerapena, 55 egun edo gutxiagoko atzerapenarekin. Emakumeak	52,1	51,1	Progresiboki gutxitzea	Osakidetza.
9	Hautemandako osasun txarreko desberdintasunak, gizarte-mailaren eta sexuaren arabera, gizonak (IRD)	2,4	2,631	↓% 10	EAEOI
9bis	Hautemandako osasun txarreko desberdintasunak, gizarte-mailaren eta sexuaren arabera, emakumeak (IRD)	2,6	2,8	↓%20	EAEOI
10	Gazteen langabezia-tasa (16-24 urte), gizonak (%)	32,835	19,636	%15	Eustat. BJA
10bis	Gazteen langabezia-tasa (16-24 urte), emakumeak (%)	28,8	21,9	%15	Eustat. BJA
11	Pobrezia arriskua. Errenta pertsonalaren Gini indizea 37	0,5	0,538	↓%5	Eustat. Norberaren eta familiaren errentaren azterketa
12	Benetako pobrezia-egoeran dauden etxekoen unitateak, erreferentziako pertsonaren arabera, gizonak (%)	3,7	4,531	↓% 10	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte premiei buruzko 2018ko inkesta
12bis	Benetako pobrezian dauden etxekoen unitateak, erreferentziako pertsonaren arabera, emakumeak (%)	11,1	9,3	↓% 10	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte premiei buruzko 2018ko inkesta
14	Eskola-uzte goiztiarra (18-24 urte), gizonak (%) 39	8,3	10,031	↓% 10	Eustat. BJA
14bis	Eskola-uzte goiztiarra (18-24 urte), emakumeak (%)	7,1	7,5	↓% 10	Eustat. BJA
15	Osasun-kontseilu aktibo eta operatiboak	--	0	urtean 2 bilera	Osasun Saila
17	Euskal osasun-sistemako paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren gutun berria berrikustea eta argitaratzea.	--	EHHAn argitaratua	2015	Osasun Saila
18	Osakidetzako berdintasun-politikak bultzatzeko eta koordinatzeko unitate administratiboa sortzea	--	Bai = 42	2015	Osakidetza.
19	Osasunaren Euskal Behatokia sortzea	--	Ez	Bai 2015ean	Osasun Saila
20	Estratifikazio sozialeko aldagaiak txertatzea osasun-informazioko sistemetan	--	Bai	Bai 2016an	Osasun Saila Osakidetza.
21	Osasuneko desberdintasun sozialei buruzko txostena	--	Bai 43	2015	Osasun Saila
22	Indexatutako argitalpenak	722	1,37231	↑% 40	Bioef
23	Asistentzia Erakunde integratuetan laguntza-bide klinikoak hedatzea44 (%)	--	65,8	% 100	Osakidetza.
24	Zaintzaileentzako prestakuntza-plana lehenetsitako patologietan	--	Bai	Bai 2016an	Saila Osasun Saila Enplegua eta Gizarte Politikak Osakidetza

25	Preskripzio-prozesu partekatua ezarria	--	Ezarrria ⁴⁵	2015	Osakidetza Osasun Saila
26	Mikrobioen aurkako zaintzarako eta erresistentzietarako programa	--	Beteta	Bai 2015ean	Osakidetza Osasun Saila
27	ESI/eskualde guztietako zerbitzu/unitateen gorabeherak jakinarazteko sistemaren erabilera eraginkorraren maila (%)	5	20	20	Osakidetza Segurtasun Klinikoa
28	Pazienteak identifikatzeko sistema/protokolo unibokoa ezartzea (%)	75	100	100	Osakidetza Segurtasun Klinikoa
29	Erakunde Sanitario integratuetan/Eskualdeetan aplikatutako zainketa aringarrien planak (%)	--	100	100	Programa kontratua
30	Aurretiazko borondateen adierazpena duten biztanleak, gizonak (%)	0,146	1,1	>%15	Osasun Saila
30bis	Aurretiazko borondateen adierazpena duten biztanleak, emakumeak (%)	0,1	1,9	>%15	Osasun Saila
31	Onkologia medikoa duten zerbitzu-erakundeak, tumoreen batzordeen bidezko azterketa ezarrita dutenak (%)	0	100	10048	Osakidetza.
32	Minbiziaren intzidentzia 65 urtetik beherako gizonetan (tasa/100.000)	263,549	258,850	↓% 10	Minbizien Erregistroa
32bis	Minbiziaren intzidentzia 65 urtetik beherako emakumeetan (tasa/100.000)	215,5	242,0	↓% 10	Minbizien Erregistroa
33	Minbiziaren ziozko heriotza-tasa 65 urtetik beherako gizonetan (tasa/100.000)	99,3	72,231	% 10	Heriotzen Erregistroa
33bis	Minbiziaren ziozko heriotza-tasa 65 urtetik beherako emakumeetan (tasa/100.000)	55,4	51,6	↓% 10	Heriotzen Erregistroa
34	Birikako minbiziaren ziozko heriotza-tasa 65 urtetik beherako gizonetan (tasa/100.000)	37,849	38,750	% 10	Minbizien Erregistroa
34bis	Birikako minbiziaren ziozko heriotza-tasa 65 urtetik beherako emakumeetan (tasa/100.000)	16,5	17,3	Goranzko joera geldiaraztea	Minbizien Erregistroa
35	Birikako minbiziaren ziozko heriotza-tasa 65 urtetik beherako gizonetan (tasa/100.000)	29,9	22,831	↓% 10	Heriotzen Erregistroa
35bis	Birikako minbiziaren ziozko heriotza-tasa 65 urtetik beherako emakumeetan (tasa/100.000)	11,5	9,7	Goranzko joera geldiaraztea	Heriotzen Erregistroa
36	Koloneko, ondesteko eta uzkiko minbiziaren intzidentzia, gizonak (tasa/100.000)	90,949	73,050	↓% 10	Minbizien Erregistroa
36bis	Koloneko, ondesteko eta uzkiko minbiziaren intzidentzia, emakumeak (tasa/100.000)	39,8	37,3	↓% 10	Minbizien Erregistroa
37	Koloneko, ondesteko eta uzkiko heriotza-tasa, gizonak (tasa/100.000)	30,9	23,531	↓% 10	Heriotzen Erregistroa

37bis	Koloneko, ondesteko eta uzkiko heriotza-tasa, emakumeak (tasa/100.000)	13,6	10,8	↓%5	Heriotzen Erregistroa
38	Kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programan parte hartzea, gizonak (%)	62,9	69,931	↑% 10	Kolon-ondesteko minbiziaren baheketa-programa
38bis	Kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programan parte hartzea, emakumeak (%)	68,7	74,9	↑% 10	Kolon-ondesteko minbiziaren baheketa-programa
39	Bularreko minbiziaren intzidentzia (tasa/100.000)	94,849	108,150	↓%5	Minbizien Erregistroa
40	Bularreko minbiziaren ziozko heriotza-tasa (tasa/100.000)	18,1	14,931	↓% 10	Heriotzen Erregistroa
41	Sindrome koronario akutuen kasuetan birbaskularizazioa duten emakumeen/gizonen arrazoiak	0,7	0,8	>0,8	Osakidetza.
42	Errehabilitazio kardiakoko programan artatutako biztanleak. Gizonak %	25,452	23,453	>75	Osakidetza.
42bis	Errehabilitazio kardiakoko programan artatutako biztanleak. Emakumeak (%)	10,6	10,5	>75	Osakidetza.
43	Heriotza goiztiarra IAM54 (25-74 urte), gizonak (tasa/100.000)	47,7	36,131	↓% 10	Heriotzen Erregistroa
43bis	Miokardioko infartu akuatuak eragindako heriotza goiztiarra (25-74 urte), emakumeak (tasa/100.000)	7,1	8,5	Tasa egonkortzea	Heriotzen Erregistroa
44	Garuneko hodietako istripua (GHI) izan duten gizonak, errehabilitazio goiztiarreko plan pertsonalizatuarekin (%)	19,8	34,2	>75	Osakidetza.
44bis	Garuneko hodietako istripua (GHI) izan duten emakumeak, errehabilitazio goiztiarreko plan pertsonalizatuarekin (%)	20,2	31,2	>75	Osakidetza.
45	Hemoglobina glikosilatua < %7 diabetes mellitusa duten gizonengan (%)	42,6	41,1	>50	Osakidetza.
45bis	Hemoglobina glikosilatua < %7 diabetes mellitusa duten emakumeen (%)	42,4	43,2	>50	Osakidetza.
46	Desberdintasun sozialak DM II-ren prebalentzian, gizonak (DIE)	1,2	2,131	↓%5	EAEOI
46bis	Desberdintasun sozialak DM II-ren prebalentzian, Emakumeak (DIE)	2,3	3,4	↓%5	EAEOI
47	Diabetesari lotutako giltzurrun-gutxiegitasun larria milioi pertsonako (PMP), gizonak	19	19,831	↓% 10	Osakidetza. UNIPAR
47bis	Diabetesari lotutako giltzurrun-gutxiegitasun larria milioi pertsonako (PMP), emakumeak	6	8,3	↓% 10	Osakidetza. UNIPAR
48	Diabetesaren bigarren mailako anputazioen tasa (1.000ko), gizonak	5,755	5,731	↓% 15	DGOM Osasun Saila
48bis	Diabetesaren bigarren mailako anputazioen tasa (1.000ko), emakumeak	1,1	1,6	↓% 15	DGOM Osasun Saila

49	Diabetes mellitusaren ondoriozko heriotza goiztiarra (25-74 urte) (tasa /100.000), gizonak	7,6	5,931	↓% 10	Heriotzen Erregistroa
49bis	Diabetes mellitusaren ondoriozko heriotza goiztiarra (25-74 urte) (tasa /100.000), emakumeak	2,5	2,8	↓% 10	Heriotzen Erregistroa
50	Gehiegizko pisua duten pertsonak, gizonak (%)	43	40,131	↓% 10	EAEIOI
50bis	Gehiegizko pisua duten pertsonak, emakumeak (%)	28,2	27,4	↓% 10	EAEIOI
51	Obesitatea duten pertsonak, gizonak (%)	13,9	13,731	↓% 10	EAEIOI
51bis	Obesitatea duten pertsonak, emakumeak (%)	12,6	11,4	↓% 10	EAEIOI
52	Desberdintasun sozialak Obesitatea-ren prebalentzian, gizonak (DIE)	1,6	1,731	↓% 10	EAEIOI
52bis	Desberdintasun sozialak obesitatearen prebalentzian, emakumeak (DIE)	2,8	3,1	↓%15	EAEIOI
53	30 egunera berriz ospitaleratuak BGBK duten pazienteetan, gizonak (%)	20	18,6	↓%15	Osakidetza.
53bis	30 egunera berriz ospitaleratuak BGBK duten pazienteetan, emakumeak (%)	17	15,9	↓%15	Osakidetza.
54	BGBK duten pazienteak, errehabilitazio-programarekin. Gizonak (%)	--	7,3	>%75	Osakidetza.
54bis	BGBK duten pazienteak, errehabilitazio-programarekin. Emakumeak (%)	--	6,7	>%75	Osakidetza.
55	Gaixotasun mentalen ondoriozko hilkortasuna (100.000 biztanleko), gizonak	21,1	21,631	↓% 10	Heriotzen Erregistroa
55bis	Gaixotasun mentalen ondoriozko hilkortasuna (100.000 biztanleko), emakumeak	18,8	21,2	% 10	Heriotzen Erregistroa
56	Desberdintasun sozialak ideia suiziden prebalentzian, sexuaren arabera, gizonak (I. taldea: 3.9 V taldea: 6,0) (%)	2,1	2,231	↓%5	EAEIOI
56bis	Desberdintasun sozialak ideia suiziden prebalentzian, sexuaren arabera, emakumeak (I. taldea: 2.7. V taldea: 7,3) (%)	4,6	1,6	↓% 10	EAEIOI
57	Suizidioei dagokien heriotzatasua (100.000ko). Gizonak	9,5	8,431	↓% 10	Heriotzen Erregistroa
57bis	Suizidioei dagokien heriotzatasua (100.000ko). Emakumeak	3,4	3,3	↓%5	Heriotzen Erregistroa
58	Antsiolitikoen kontsumoa DHD57	54	88,9	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila Farmazia Zuzendaritza
58 a	DBE antsiolitikoen kontsumoa, gizonak	55,458	61,3	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila Farmazia Zuzendaritza
58b	DBE antsiolitikoen kontsumoa, emakumeak	106,2	112,4	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila. Farmazia Zuzendaritza
58bis	DBE antsiolitikoen kontsumoa, emakumeak	61	63,4	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila. Farmazia Zuzendaritza
58bis a	DBE antsiolitikoen kontsumoa, gizonak	29,358	36,7	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila. Farmazia Zuzendaritza
58bis b	DBE antsiolitikoen kontsumoa, emakumeak	73,6	87,0	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila. Farmazia Zuzendaritza
59	GIBak eragindako infekzio berrien kopurua, gizonak	132	147	↓% 10	HIESaren eta STIen Plana

59bis	GIBak eragindako infekzio berrien kopurua, emakumeak	29	25	↓% 10	HIESaren eta STIen Plana
60	GIBak eragindako infekzioen diagnostiko berantiarraren tasa, gizonak (%)	43,0	51,1	↓% 30	HIESaren eta STIen Plana
60bis	GIBak eragindako infekzioen diagnostiko berantiarraren tasa, emakumeak (%)	59,0	64	↓% 30	HIESaren eta STIen Plana
61	Aitortutako sifilis kasuak, gizonak	147	22131	↓% 30	Osasun Saila - IMSEAE
61bis	Aitortutako sifilis kasuak, emakumeak	41	21	↓% 30	Osasun Saila - IMSEAE
62	Aitortutako gonokozia kasuak, gizonak	159	45731	↓% 30	Osasun Saila - IMSEAE
62bis	Aitortutako gonokozia kasuak, emakumeak	32	98	↓% 30	Osasun Saila - IMSEAE
63	Giltzurrun-dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (MP) 59, gizonak	78,460	75,431	↓% 5	Osakidetza - UNIPAR
63bis	Giltzurrun-dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (MP) emakumeak	34,4	37,3	↓% 5	Osakidetza - UNIPAR
64	Gaixotasun arraroen erregistroa sortzea		Sortuta	2014	Osasun Saila - Gaixotasun Arraroen Erregistroa
65	"Adineko pertsonekin hiri atseginak" programa duten hirietan bizi den biztanleria	% 37	% 69	>% 75	Eudel Osasun Saila Eustat
66	64 urtetik gorako pertsona sedentarioak, gizonak (%)	28	2131	↓% 10	EAEOI
66bis	64 urtetik gorako pertsona sedentarioak, emakumeak (%)	44	38	↓%15	EAEOI
67	60 urtetik gorako gizon elkartuen ehunekoa	10,0	36,8	↑%15	Eustat. 2019ko inkesta: Bizi-baldintzak
67 bis	60 urtetik gorako emakume elkartuen ehunekoa	14,0	28,8	↑%15	Eustat. 2018ko Inkesta: Bizi-baldintzak
69	Historia klinikorako sarbidea eremu soziosanitario osorako (%)	-	98,5	% 100	Osakidetza.
71	Adinekoen Arretarako Plana ezarrita duten osasun-zentroak (%)	-	78,6	% 100	Osakidetza.
72	Adinekoentzako zerbitzu teknologikoen zorroa ezartzea	-	Prozesuan	2015. urtean:	Osasun Saila
73	Hilabete baino lehen berriz ospitaleratutako 75 urtetik gorako gizonak (%)	10,5	10,4	%20	Osakidetza.
73bis	Hilabete baino lehen berriz ospitaleratutako 75 urtetik gorako emakumeak (%)	7,8	7,9	↓%20	Osakidetza.
74	Jaiotzean pisu txikia duten haurtxoak (%)	7,0	6,931	↓% 10	Jaioberrien behaketarako programa
75	Amagandiko edoskitzea 6 hilabeterekin, gizonak (%)	26,0	65,6	>%35	Osakidetza.
75bis	Amagandiko edoskitzea 6 hilabeterekin, emakumeak (%)	26,0	67,7	>%35	Osakidetza.
76	PADIren estaldura (%)	66,0	68,2	>% 75	PADI
77	2 urterekin txantxarrik ez duten haurrak (% CAOD = 0)	74,0	76,0	%80	PADI
78	Arreta goiztiarraren eremuan sartutako erakunde sanitario integratuak/eskualdeak	1	Denak	Denak	Osakidetza.
79	Gehiegizko pisua duten adingabeak (6, 10 eta 14 urte), mutikoak (%)	25,061	20,0	↓% 10	Osakidetza. OBIEE
79bis	Gehiegizko pisua duten adingabeak (6, 10 eta 14 urte), neskatilak (%)	14,0	15,1	↓% 10	Osakidetza. OBIEE

79-1	Obesitatea duten adingabeak (6, 10 eta 14 urte), mutikoak (%)	4,3	4,6	↓% 10	Osakidetza. OBIEE
79- 1bis	Obesitatea duten adingabeak (6, 10 eta 14 urte), neskatilak (%)	4,1	4,2	↓% 10	Osakidetza. OBIEE
80	Gatz-educia eskola-menuetan (gramoak/egun)	--	4,2331	<1,7562	Osasun Saila
81	Gutzizko koipe-educia eskola-menuetan (kcal %)	--	36,031	<30	Osasun Saila
81bis	Koipe aseak eskolako menuetan (kcal %)	--	7,031	<10	Osasun Saila
82	Jarduera fisiko osasungarriak egiten ez duten gazteen (14-24 urte) prebalentzia, mutilak (%) 63	18,1	14,331	% 20	EAEIOI
82bis	Jarduera fisiko osasungarriak egiten ez duten gazteen (14-24 urte) prebalentzia, neskatilak (%)	26,7	17,3	% 20	EAEIOI
83	Trafiko-istripuengatikoko hilkortasuna, mutilak (15-29 urte) (tasa/100.000)	6,7	2,731	% 20	Heriotzen Erregistroa
83bis	Trafiko-istripuengatikoko hilkortasuna, neskatilak (15-29 urte) (tasa/100.000)	2,0	1,3	% 20	Heriotzen Erregistroa
84	Suizidioei dagokien heriotza-tasa (15-29 urte), mutilak (tasa/100.000)	7,1	4,931	% 20	Heriotzen Erregistroa
84bis	Suizidioei dagokien heriotza-tasa (15-29 urte), neskak (tasa/100.000)	1,6	1,4	% 20	Heriotzen Erregistroa
85	HBEak 20 urtetik beherakoaren artean (tasa x1000)	10,0	6,931	↓% 50	HBEen erregistroa
86	Sedentarisismoaren prebalentzia, gizonak (%)	26,6	20,131	↓% 10	EAEIOI
86bis	Sedentarisismoaren prebalentzia, emakumeak (%)	34,0	25,4	↓% 15	EAEIOI
87	Sedentarisismo desberdintasun sozialak, sexuaren eta gizarte-mailaren arabera, gizonak (DIE)	1,4	1,131	↓% 10	EAEIOI
87bis	Sedentarisismo desberdintasun sozialak, sexuaren eta gizarte-mailaren arabera, emakumeak (DIE)	1,2	1,3	% 10	EAEIOI
88	Fruta egunero kontsumitzen duten pertsonak, gizonak (%)	62,0	67,831	↑% 20	EAEIOI
88bis	Fruta egunero kontsumitzen duten pertsonak, emakumeak (%)	69,2	75,1	↑% 20	EAEIOI
89	Barazkiak egunero kontsumitzen duten pertsonak, gizonak (%)	21,7	27,131	↑% 20	EAEIOI
89bis	Barazkiak egunero kontsumitzen duten pertsonak, emakumeak (%)	32,1	37,0	↑% 20	EAEIOI
90	Gutzizko koipeak menu kolektiboetan (kcal %)	--	>-64	<30	Osasun Saila
90bis	Gantz asean edukia menu kolektiboetan (kcal %)	--	>-64	<10	Osasun Saila
94	Episiotomia erditze eutozikoan (%)	38,065	27,2	<%15	Osakidetza.
95	Haurdunaldiaren borondatezko etendura (HBE) tasa x 1.000, adin	9,9	9,831	% 50	HBEen erregistroa

	emankorreen dauden emakumeak				
96	Desberdintasun sozialak tabakismoan (15-44 urte), gizonezkoetan (DIE)	2,0	1,931	% 20	EAEIOI
96bis	Desberdintasun sozialak tabakismoan (15-44 urte), emakumezkoetan (DIE)	2,4	1,8	% 20	EAEIOI
97	Besteren tabako-kearen esposiziopean dauden pertsonak, gizonak (%).	17,1	14,331	↓% 50	EAEIOI
97bis	Besteren tabako-kearen esposiziopean dauden pertsonak, emakumeak (%).	15,6	12,8	↓% 50	EAEIOI
98	Lehen Mailako Atentzioko tabakismoari buruzko Osasun Kontseilua	33,7	28,4	>%60	Osakidetza.
99	Tabakismoaren tratamenduan dauden gizon erretzaileak (%)	1,9	0,7	↑%15	Osakidetza.
99bis	Tabakismoaren tratamenduan dauden emakume erretzaileak (%)	2,5	1,1	↑%15	Osakidetza.
100	Alkohola kontsumitzen hasteko adina, gizonak	15,8	16,231	↑18	Adizioei buruzko EAEko Inkesta 2017
100bis	Alkohola kontsumitzen hasteko adina, emakumeak	17,3	17,5	↑18	Adizioei buruzko EAEko Inkesta 2017
101	Epe luzera alkohol-kontsumoarekin lotutako osasun-arazoak izateko arrisku handia duten 15-24 urteko gazteen prebalentzia (%),	17,3	11,931	↓%30	EAEIOI
101 bis	Epe luzera alkohol-kontsumoarekin lotutako osasun-arazoak izateko arrisku handia duten 15-24 urteko gazteen prebalentzia (%), emakumeak	17,9	12,4	↓% 30	EAEIOI
102	Alkoholaren gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa asteburuetan gazteengan, gizonengan (15-34 urte) (%)	29,267	21,9	% 20	Adizioei buruzko EAEko Inkesta 2017
102 bis	Alkoholaren gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa asteburuetan gazteengan, emakumeengan (15-34 urte) (%)	15,9	13,0	% 20	Adizioei buruzko EAEko Inkesta 2017
103	Epe luzera alkohol-kontsumoarekin lotutako osasun-arazoak izateko arrisku handia duten 15-gazteen prebalentzia (%), gizonak	25,1	16,831	% 10	EAEIOI
103bis	Epe luzera alkohol-kontsumoarekin lotutako osasun-arazoak izateko arrisku handia duten 15-gazteen prebalentzia (%), emakumeak	14,7	11,1	% 10	EAEIOI
104	Kalamuaren eguneroko kontsumoa gazteengan, gizonengan (15-34 urte) (%)	2,5	6,131	↓% 10	Adizioei buruzko EAEko Inkesta 2017
104bis	Kalamuaren eguneroko kontsumoa gazteengan, emakumeengan (15-34 urte) (%)	0,9	1,4	↓% 10	Adizioei buruzko EAEko Inkesta 2017
105	Osasun mental onaren prebalentzia gizarte-mailaren eta generoaren	6,0	2,931	↓% 50	EAEIOI

	arabera (MHI-5. Gizonak (I. taldea. 76.1. V taldea; 70,1) (%)				
105bis	Osasun mental onaren prebalentzia gizarte-mailaren eta generoaren arabera (MHI-5). Emakumeak (I. taldea. 69,3 V taldea 66,1*	3,2	4,8	↓%30	EAEOI
106	Airearen kalitatea PM1068 < 20 µg/m3 airean duten eremuetan bizi diren EAEko biztanleak (%)	59,0	96,7	% 75	Osasun Saila
107	< 50 µg/l tratamenduko azpiproduktuak dituen edateko ura jasotzen duen biztanleria	47,0	% 50,7	>% 95	EKUIS Osasun Saila
108	Gaixotasun profesionalaren intzidentzia-tasa, gizonak (tasa/1.000)	4,2	3,331	% 10	OSALAN
10bis	Gaixotasun profesionalaren intzidentzia-tasa, emakumeak (tasa/1.000)	1,5	1,9	↓% 10	OSALAN
109	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia-tasa, gizonak (tasa/100.000)	8,7	8,231	↓% 10	OSALAN
109bis	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia-tasa, emakumeak (tasa/100.000)	0,9	0,5	↓% 10	OSALAN
110	Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuen tutoretzapeko enpresak (%)	54,3	65,031	>% 95	OSALAN

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN PLANA 2013-2020 2019an azterturiko adierazleak


ITURRIAK

1. **EUSTAT.** Osasunari buruzko Inkesta. 2019
2. **EUSTAT.** Osasun Arreta Sistema Pribatuaren Estatistika 2019.
3. **EUSTAT.** Heriotzen Estatistika, 2019 eta 2021.
4. **EUSTAT.** Ospitaleko erikortasunari buruzko estatistika. 2019
5. **EUSKO JAURLARITZA.** Bizi Berri Plana
6. **EPIDEMIAK ZAINTEKO SARE NAZIONALA.** COVID-19ak Espainian duen egoerari buruzko txostenak.
7. **EUSKO JAURLARITZA (2020).** EAeko Administrazio Orokorraren aurrekontu-likidazioak eta urteko kontuak
8. **EUSKO JAURLARITZA (2020).** Zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, sozietate publikoen eta sektore publikoko fundazioen aurrekontu-likidazioak eta urteko kontuak (Osakidetza)
9. **EUSKO JAURLARITZA (2021).** Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak
10. **EUSKO JAURLARITZA,** Osasuna saila. Heriotzen Erregistroa. Eskaera espezifikoa.
11. **EUSKO JAURLARITZA.** EAeko osasunaren inkesta (EAEOI, 2018)
12. **EUSKO JAURLARITZA.** Osasun Planaren Jarraipena 2013-2020 2019ko datuak
13. **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEAREN MINISTERIOA (2020).** Osasunaren Inkesta Nazionala Espainian 2019
14. **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEAREN MINISTERIOA (2020).** Osasunaren Sistema Nazionalaren urteko txostena 2019
15. **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEAREN MINISTERIOA (2020).** Adierazle gakoak
16. **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEAREN MINISTERIOA (2020).** Osasunaren Sistema Nazionalaren diru-baliabideak
17. **OSAKIDETZA.** Eskaera espezifikoa 2021eko datua.

4. ETXEBIZITZA

Ondoren, 2021ean EAEko etxebizitzari buruzko zifra nagusiak aurkezten dira, bai eskaintzaren ikuspegitik (stocka eta prezioak), bai eskariaren ikuspegitik (etxebizitza eskuratzeko, aldatzeko eta birgaitzeko beharra, bai etxebizitza babestuen eskaria). Alokairuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Alokairuaren Merkatuaren Estatistika (AME) berriaren emaitzak eguneratu dira, eta, aldi berean, autonomia-erkidegoen arabeko konparazio bat egin da etxebizitza libreen salerosketen batez besteko balioari buruz. Ondoren, urteko eraikuntza jardueraren eta salerosketa jardueraren datu nagusiak aurkeztu dira.

Era berean, krisiak etxebizitzan izan duen eragina aztertzen da (hipoteka betearazpenak eta kaleratzeak), eta, amaitzeko, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politika ebaluatzen da Plan Gidariaren bidez (2021-2023 aldirako edizio berria aurkezten da) eta foru-aldundien bidez, ohiko etxebizitzagatiko PFEZko kenkarien bidez.



EAEko higiezinaren merkatuaren bilakaeraren ezaugarri nagusia da, 2021ean eta Eusko Jaurlaritzaren Higiezinaren Eskaintzaren Inkestako emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzaren % 21,2ko jaitsiera egotea, aurreko urteko - % 17,8ko jaitsierarekin batera. Bestalde, etxebizitza-eskaera edo -premiak⁴², 2019. urteari buruz eskuragarri zegoen azken datuan, % 4,2 areagotu ziren 2017. urtearekin alderatuta, eta 2009-2010 urteetako gehieneko kopuruetatik urrun mantendu ziren.

4.1. ETXEBIZITZA ESKAINTZA

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren⁴³ "Higiezinaren Eskaintzaren Inkesta" ren estatistikak⁴⁴ (HEI) adierazten duenez, 2021ean etxebizitzaren eskaintza osoa (salmenta gehi alokairua) % 21,2 jaitsi da (-% 17,8) 2020an, eta urteko hirugarren hiruhilekoan 15.036 unitate izatea espero da.

⁴² Grafikoan azaltzen den eskaerak, eskuratzeko behar diren etxebizitzaren kopurua erakusten du; eskaintza higiezin sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan daude salgai dauden etxebizitza libreen (berriak nahiz erabiliak) m² erabilgarri bakoitzeko.

⁴³ 107 sustatzaile (5 etxebizitza promozio baino gehiago dituztenak) eta 177 higiezinaren agentzietatik egindako inkestaren datuak dira, eta, beraz, ez da eskaintza guztia jasotzen. Inkesta honen emaitzen alderdirik interesgarriena, datu absolutuak baino, datuen bilakaera da.

⁴⁴ Inkesta honetako datu guztiak hiruhileko batez besteko mugikorren bidez adierazten dira 4. ordenan, eta, beraz, IV. hiruhileko datua, era berean, urteko batez bestekoa da. 2021ean hirugarren hiruhileko datuak eskaintzen dira (eta 2020ko hiruhileko beraren aldean izandako aldaketak), inkesta honetan jasotako azkena delako, eta ez delako berriro egin. Memoria honen hurrengo edizioetan, atal hau beste iturri batzuekin ilustratuko da, besteak beste, Higiezinaren Salerosketaren Estatistikarekin.


Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: % 89,4 saltzeko eskaintako etxebizitzak dira eta % 10,6 alokairuan eskaintakoak. Salgai dauden etxebizitzetatik % 19,5 etxebizitza berriak dira eta % 80,5 erabiliak, eta berrien % 40,2 babes publikokoak dira. Alokairuko etxebizitzetatik % 43,6 libreak dira eta % 56,4 berriz, babestuak.

Datu horietatik ondorioztatu da 2014ko salbuespenarekin, EAEko etxebizitza merkatuan, 10 urtez jarraian eskaintza jaisten doala, 2011n 44.643 etxebizitza eskaini zirelarik, eta 2021eko irailean, aldiz, 15.036. Azken urtean, 2020an bezalaxe, behera egin du etxebizitza berrien eskaintzak, bai libreak (-% 34,5), bai babestuak (-% 22,8); beraz, etxebizitza berrien agregatuak % 30,2 egin du behera (-% 8,4 2020an). Era berean, erabilitako etxebizitzen eskaintzak behera egiten jarraitzen du (-% 20,5), baita alokairuko etxebizitzen eskaintzak ere (-% 7,3). 2020arekin alderatuta, alde bakarra dago: alokairu libreak gora egin du (+% 2,5, bilakaera positiboa izan duen modalitate bakarra da), eta babestuak behera egin du (-% 13,7), eta, esan bezala, % 7,3 murriztu da haren agregatua (-% 6,5 2020an).

V.4.1. TAULA. EAE-KO ETXEBIZITZA ESKAINTZAREN BILAKAERAREN LABURPENA									
	GUZTIRA	ETXEBIZITZAK SALGAI					ETXEBIZITZAK ALOKAGAI		
		SALGAIK, GUZTIRA	ETXEBIZITZA BERRIAK			ETXEBIZITZA ERABILIAK	ALOKAGAIK, GUZTIRA	LIBREAK	BABESTUAK
			GUZTIRA	BABESTUAK	LIBREAK				
2015	37.259	35.510	3.519	1.545	1.974	31.991	1.749	1.570	179
2016	33.535	32.137	3.049	1.283	1.766	29.089	1.398	1.006	392
2017	27.798	26.295	2.933	1.206	1.727	23.363	1.503	944	559
2018	24.822	22.863	3.161	1.059	2.102	19.702	1.959	1.016	943
2019	22.228	20.361	3.903	1.409	2.494	16.458	1.866	884	983
2020	18.279	16.535	3.577	1.320	2.257	12.958	1.745	704	1.041
2021*	15.036	13.444	2.625	1.056	1.569	10.820	1.592	694	898
18/19ko ald. %	-10,5	-10,9	23,5	33,1	18,6	-16,5	-4,7	-13,0	4,2
%Ald. 19/20	-17,8	-18,8	-8,4	-6,4	-9,5	-21,3	-6,5	-20,3	5,9
20/21eko ald. %*	-21,2	-22,6	-30,2	-22,8	-34,5	-20,5	-7,3	2,5	-13,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika.
*Hirugarren hiruileko datuak. Urteko aldakuntza 2020ko hirugarren hiruilekoaren aldean ere kalkulatzen da (ikus 2. oin-oharra)

Prezioei dagokienez (hurrengo epigrafeetan zehatz-mehatz aztertzen dira), salgai dagoen etxebizitza librearen (berria eta erabilia) batez besteko balioa 2.868,8 euro/m²-koa da 2021ean (hirugarren hiruilekoa), eta % 0,4ko igoera izan du aurreko urtearen aldean. Etxebizitza berriaren merkatuari dagokionez, prezioek % 1,6 egin zuten behera, eta bigarren eskuko etxebizitzenak, berriz, % 1,6 hazi ziren. Bestalde, babestutako etxebizitza berrien batez besteko prezioa % 2,1 jaitsi da azken urtean, eta alokairu libreko batez besteko errenta % 2,2 hazi da. Babestutako alokairuaren errenta, batez beste, 391,5 euro igo zen, aurreko urtean baino % 10,31 gehiago.



Bestalde, HEIren arabera, 2021ean, salmenta-eragiketarako eraginkorrak izateko, jabeek batez beste % 3,6 jaitsi behar izan zituzten erabilitako etxebizitza librearen prezioak, 2020an baino 0,7 puntu gehiago. Lurraldeka, jaitsierarik handiena Bizkaian izan da (batez besteko prezioaren -% 4,1), gero Gipuzkoan (-% 3,4) eta Araban (-% 2,5).

4.1.1. Jaurlaritzako Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika.

(a) Etxebizitza berriak

Lehenik eta behin, salgai dauden etxebizitza libre berrien eskaintza, 2021eko hirugarren hiruhilekoan, 1.569 etxebizitzakoa izan zen, 2020an baino % 34,5 gutxiago. Lurraldean araberako banaketa, hauex da: Bizkaian % 46,7, Gipuzkoan, % 45,3 eta Araban gainerako % 7,9a.


Etxebizitza horien batez besteko prezioa 2021eko hirugarren hiruhilekoan 302.100 €-koa zen, eta 2020an, berriz, % 1 txikiagoa.

Eurotan metro koadroko 3.577,5 €/m² balio du, 2020an baino % 1,6 gutxiago. Lurralde-analisiak Araban izan du batez besteko txikiena (3.027,9 €/m²); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.723,6 €/m² eta 3.518 €/m² izan dira, hurrenez hurren. Bilakaerari dagokionez, Araban izan zen handiena, % 3,2koa, Bizkaian metro karratu bakoitzeko prezioa % 1,8 igo zelarik, eta Gipuzkoan, % 6,5 murriztu zen.

V.4.2. TAULA. EAeko ETXEBIZITZA SALGAIEN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA. €/M ² ERABILGARRIAK.					
	ETXEBIZITZA LIBREA				ETXEBIZITZA BABESTUA
	LIBREAK, GUZTIRA *	ERABILIA	BERRIA	ETXEBIZITZA EREDUA **	
2015	2.943,1	2.922,9	3.273,7	2.843,1	1.674,2
2016	2.802,0	2.778,9	3.180,7	2.862,9	1.744,1
2017	2.789,7	2.758,1	3.222,0	2.917,3	1.750,2
2018	2.805,4	2.755,6	3.247,7	3.016,2	1.777,7
2019	2.799,5	2.704,4	3.427,4	3.012,3	1.805,6
2020	2.868,2	2.738,8	3.611,5	3.082,5	1.806,0
2021***	2.868,8	2.766,0	3.577,5	3.246,2	1.777,6
19/20 (%)	2,5	1,3	5,4	2,3	0,0
20/21 %***	0,4	1,6	-1,6	7,2	-2,1

* Etxebizitza berrien eta erabilien batez besteko prezioa
 ** Etxebizitza berriak, kolektiboak, araubide librekoak, zuzenean sustatzaileak eskainitakoak, akabera maila ohikoa eta 60 eta 90 m²-ko azalera dutenak
 *** Hirugarren hiruhileko datuak. Urteko aldakuntza 2020ko hirugarren hiruhilekoaren aldean ere kalkulatu da (ikus 2. oin-oharra)
 Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika.


V.4.3. GRAFIKOA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIEN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAEN



Merkatu babestuari dagokionez, gogoratu behar da 2006tik ez dagoela salgai dauden etxebizitza sozialen eskaintzarik, eta etxebizitza horiek soilik alokairuan eskaintzen dira. Salmentako BOEn eskaintza 2021eko hirugarren hiruhilekoan 1.056 etxeetakoa izan zen, aurreko urtean baino % 22,8 gutxiago (azken hamarkadan % 84,6 murriztu da).

Saltzeko eskaintako BOEren batez besteko prezioa 1.777,6 €/m²zen 2021ean, aurreko urtean baino % 2,1 gutxiago. Zenbait ezberdintasun daude lurraldeen arabera: Bizkaiak du preziorik altuena (1.838,5 €/m²), ondoren Gipuzkoak (1.811,1 €/m²) eta azken urtean biak % 0,1 jaitsi dira. Arabak, bestalde, batez besteko prezio txikiagoa du (1.469,4 €/m²) eta askoz gehiago jaitsi da, % 13,7, 2020arekin alderatuta.

Horrez gain, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes erregimenen bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: tasatutako babes ofizialeko etxebizitzak eta udaleko tasatutako etxebizitzak. Etxebizitza horiek etxebizitza babestuak baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.



(b) Etxebizitza erabiliak

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuen arabera, 2021ean (hirugarren hiruherikoa) bigarren eskuko 10.820 etxebizitza hauteman ziren eskaintzan, urtebete lehenago baino % 20,5 gutxiago⁴⁵. Etxebizitza horiek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaiaren kontzentratzen da % 56,8, Araban % 17,9 eta Gipuzkoan gainerako % 25,3.

V.4.3. TAULA. ERABILITAKO SALMENTA ETXEBIZITZAK, M² ERABILGARRIEN ARABERAKO BATEZ BESTEKO PREZIOAK (€) ETA BATEZ BESTEKO PREZIOAK (MILAKA EUROTAN), LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA.

	EAE			ARABA			BIZKAIJA			GIPUZKOA		
	Zk.	Prezioa, m ²	Prezioa /etxebizitza	Zk.	Prezioa, m ²	Prezioa/ etxebizitza	Zk.	Prezioa, m ²	Prezioa/ etxebizitza	Zk.	Prezioa m ²	Prezioa/ etxebizitza
2015	31.991	2.922,9	246,0	7.677	2.527,2	204,6	17.323	3.017,9	261,2	6.991	3.111,5	253,3
2016	29.089	2.778,9	238,6	7.303	2.417,9	198,1	15.856	2.900,7	258,6	5.930	2.879,0	233,6
2017	23.363	2.758,1	237,4	3.943	2.329,2	191,1	14.754	2.865,7	253,0	4.666	2.756,9	224,7
2018	19.702	2.755,6	236,0	2.975	2.400,7	200,4	12.564	2.839,4	248,0	4.163	2.728,3	222,5
2019	16.458	2.704,4	232,1	2.449	2.392,1	203,3	10.153	2.764,0	241,8	3.856	2.714,2	221,9
2020	12.958	2.738,8	233,7	2.124	2.536,8	220,6	7.636	2.746,9	239,4	3.198	2.837,9	227,9
2021*	10.820	2.766,0	233,3	1.935	2.564,6	220,0	6.149	2.764,9	238,1	2.735	2.895,8	230,9
19/20 (%)	-21,3	1,3	0,7	-13,3	6,0	8,5	-24,8	-0,6	-1,0	-17,1	4,6	2,7
% 20/21*	-20,5	1,6	0,5	-12,9	1,5	0,3	-23,3	1,1	-0,1	-18,9	3,3	2,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika.
* Hirugarren hiruherikoa datuak. Urteko aldakuntza 2020ko hirugarren hiruherikoa aldean ere kalkulatzen da (ikus 2. oin-oharra)

⁴⁵ Eskaria, V.4.3 taulan ikus daitekeenez, nabarmen murriztu zen 2017an Araban (-% 46), bi higiezinaren agentzia handik eskaintza asko eguneratu zutelako. Horren ondorioz, lurraldeen arabera haztapenak asko aldatu ziren, eta eragina izan zuten batez besteko prezioen jaitsiera-ratioetan.

EAEn salgai zeuden bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa 2.766 €/m², zen 2021ean, urtebete lehenago erregistratutako batez bestekoa baino % 1,6 gehiago. Lurraldeka, Bizkaian prezioak % 1,1 hazi ziren; Gipuzkoan eta Araban % 3,3 eta % 1,5, hurrenez hurren. Ondorioz, prezioak 2.895,8 €/m² (Gipuzkoa) eta 2.564,6 €/m² (Araba) artekoak ziren, eta Bizkaia tarteko posizioan zegoen, 2.764,9 €/m² batez beste.

Etxebizitzako prezioei dagokienez, EAeko batez bestekoa 233.300 €-koa da (2020arekin alderatuta, +% 0,5); Bizkaian 238.100 € eta Araban 220.000 € artekoa zen. Gipuzkoa beste bien artean dago berriro ere: 230.900 € etxebizitza bakoitzeko.

(c) Alokairu araubidea


2021eko hirugarren hiruhilekoko HEIren arabera, 1.592 etxebizitza eskainiko ziren alokairuan, aurreko urtean baino % 7,3 gutxiago.

Segmentu libreak (eskaintzaren % 43,6) % 2,5 egin zuen gora; alokairuko etxebizitza babestuak, berriz, % 13,7 egin zuen behera; hortaz, alokairu babestuen partaidetza 2020an % 59,7 izatetik 2021ean % 56,4 izatera igaro zen.

V.4.4. TAULA. ESKAINTZEN DIREN ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA LIBREAK ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA. €.								
	ETXEBIZITZAK				HILEKO ERRENTA (€)			
	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2015	1.570	168	1.124	278	871,1	740,4	880,1	911,5
2016	1.006	69	770	167	879,9	773,8	889,4	868,6
2017	944	114	679	151	944,3	709,7	955,5	1.028,0
2018	1.016	91	652	273	1.028,4	861,5	962,2	1.229,6
2019	884	58	583	243	1.044,7	917,5	1.014,2	1.136,7
2020	704	39	481	184	1.040,7	795,3	1.022,8	1.122,6
2021*	694	34	463	198	1.056,9	782,5	1.041,5	1.132,3
19/20 (%)	-20,3	-32,8	-17,4	-24,2	-0,4	-13,3	0,9	-1,2
20/21 %*	2,5	-24,9	-1,0	20,7	2,2	-5,0	2,4	1,7

*Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika.
* Hirugarren hiruhileko datuak. Urteko aldakuntza 2020ko hirugarren hiruhilekoaren aldean ere kalkulatzen da (ikus 2. oin-oharra)*

V.4.5. GRAFIKOA. ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTAREN BILAKAERA EAEN. €.



Alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta (aldatu egiten da esleipendunen diru-sarreraren arabera) 391,5 €-koa zen hilean 2021ean (hirugarren hiruhilekoa), aurreko urtean baino % 10,3 € handiagoa. Hala ere, errentaren batez besteko prezioa ezberdina da alokairu motaren arabera, babes ofizialeko etxebizitzaren alokairua hileko 505,9 eurokoa zelarik, eta gizarte etxebizitzena, 257,8 eurokoa.

Bestetik, 2021eko hirugarren hiruhilekoan alokairurako eskaintako etxebizitza librean lagina, esan dugunez, 694 unitatekoa zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian % 66,7, Araban % 5 eta Gipuzkoan % 28,3.

Batez beste, partikularrenak ziren eta jabetza-agenteen bidez alokairuan eskaintzen ziren etxebizitzaren batez besteko errenta aurreko urtean baino % 2,2 handiagoa zen. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka preziorik garestiena (1.132,3 € hilean); gero Bizkaia (1.041,5 € hilean) eta azkenik Arabak (782,5 € hilean). Bilakaeraren analisiak igoerak izan zituen Bizkaian (+% 2,4) eta Gipuzkoan (+% 1,7), baina Araban % 5 jaitsi zen.

4.1.2. Eusko Jaurlaritzako Alokairu-merkatuaren Estatistika (AME)

Duela gutxi arte alokairuaren prezioari buruz eskuragarri zeuden datuek (Eusko Jaurlaritzaren HEIa, Idealista, Fotocasa eta antzeko higiezinaren atarrien informazioa) higiezinaren eskaintzaren prezioei buruzko informazioa ematen zuten, eta eskaintzen ziren etxebizitzaren kopurua urria zenez, partziala zen, eta tresna osagarri bat behar zuen, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren Alokairuaren Merkatuaren Estatistika (AME), 2018tik alokairuaren benetako prezioarekin edo errentarekin lotzen dena.

AME Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legetik aurrera sortutako erregistroetan gordailututako fidantzetan oinarritzen da, eta, beraz, nahitaezkoa da hiri-errentamenduen kontratuak erregistratzea eta etxebizitzak alokatzeko kontratuen fidantzak gordailutzea. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Eusko Jaurlaritzan duen ordezkari bakoitzean. Eragiketa horrek alokairuaren prezioari buruz ematen dituen datuen kalitatea nabarmendu behar da, datu horiek zentsu-iturri batetik lortzen baitira.

		LURRALDEAK			EAE, GUZTIRA
		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	
OHIKO ETXEBIZITZA	ERABILERA KOLEKTIBOA	8.827	23.221	28.766	60.814
	FAMILIA BAKARREKOA	358	460	589	1.407
	GUZTIRA	9.185	23.681	29.355	62.221
DENBORALDIKO ETXEBIZITZA	ERABILERA KOLEKTIBOA	210	635	486	1.331
	FAMILIA BAKARREKOA	7	18	19	44
	GUZTIRA	217	653	505	1.375
GUZTIRA	ERABILERA KOLEKTIBOA	9.036	23.856	29.252	62.145
	FAMILIA BAKARREKOA	365	478	608	1.451
	GUZTIRA	9.402	24.334	29.860	63.596

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Alokairu Merkatuaren Estatistika. 2020.

AMERen arabera, 2020ko abenduaren 31n (eskuragarri zegoen azken datua), egun horretan indarrean zeuden alokairu libreko 63.596 kontratu zeuden erregistratuta Eusko Jaurlaritzaren fidantza-gordailuan (merkatuko prezioan). Horietatik 1.375 sasoiko etxebizitzak dira, eta, duten berezitasunagatik, azterketa horretatik kanpo geratzen dira. Era berean, ikerketa honetan ere ez dira aintzat hartzen familia bakarreko etxebizitzetara dagozkien 1.407 kontratuak; izan ere, ohiko etxebizitza-erabilera izan arren, beren ezaugarri bereizgarriengatik berariazko azterketa bat egitea merezi dute. Beraz, **alokairu libreko etxebizitzak 60.814 kontratutan ezarri da** (V.4.5 taula) Eusko Jaurlaritzak AMEri buruz egindako txostenak aztertzen duen stocka: ohiko etxebizitzarako bizitegi-erabilera duten eta alokairu libreko kontratuak 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden eraikin kolektiboetan kokatutako etxebizitzak. Lurraldeka, alokatutako etxebizitzak % 14,5 Araban daude (8.827 fidantza), % 38,2 Gipuzkoan (23.221 fidantza) eta gordailu-kopuru handiena (28.766 fidantzari dagokion % 47,3) Bizkaian.

V.4.6. TAULA. ALOKAIRU MERKATUAREN ESTADISTIKA: GORDAILUTAKO FIDANTZEN ETA ALOKAIRUKO BATEZ BESTEKO ERRENTEN BILAKAERA, LURRALDEKA. 2016-2018 URTEKO DATUAK ETA 2019-2020 HIRUHILEKOKOAK*.


	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	BERMEAK	ERRENTA		BERMEAK	ERRENTA		BERMEAK	ERRENTA		BERMEAK	ERRENTA	
		€/etxebizitza	€/m ²		€/etxebizitza	€/m ²		€/etxebizitza	€/m ²		€/etxebizitza	€/m ²
2016	17.334	628,9	8,4	2.564	545,8	7,1	8.353	642,9	8,9	6.417	644,3	8,3
2017	21.433	639,0	8,6	3.152	559,3	7,3	10.331	650,7	9,1	7.950	656,0	8,5
2018	21.939	667,1	8,9	3.129	592,5	7,7	10.387	671,3	9,3	8.423	690,0	9,0
2019 I	5.715	676,2	9,1	838	611,5	8,0	2.680	679,1	9,4	2.197	697,6	9,0
II	5.199	686,3	9,2	768	617,4	8,2	2.487	686,1	9,5	1.944	714,2	9,2
III	4.926	697,8	9,2	846	635,9	8,2	2.150	698,0	9,5	1.930	724,8	9,4
IV	4.830	696,5	9,3	710	623,4	8,2	2.117	700,5	9,6	2.003	718,5	9,4
2020 I	4.797	691,0	9,3	724	621,4	8,2	2.078	690,6	9,6	1.995	716,6	9,3
II	2.625	702,5	9,3	379	637,8	8,4	1.132	698,9	9,6	1.141	727,9	9,3
III	5.182	717,1	9,5	858	652,1	8,3	2.186	714,5	9,9	2.138	746,3	9,5
IV	4.760	704,5	9,4	740	628,9	8,3	1.909	707,4	9,8	2.111	728,5	9,4
31.12.20.	60.814	677,0	8,9	8.827	601,7	7,8	28.766	681,0	9,3	23.221	701,1	8,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Alokairu Merkatuaren Estatistika. 2020.

* Alokairu-kontratuak kontratuaren hasierako hiruhilekoaren/urtearen arabera sailkatzen dira, egun aktibo dauden ala ez kontuan hartu gabe.

Etxebizitza libreak alokatzeko kontratu horien batez besteko errenta (merkatuko prezioetan) Euskadin, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenak eta etxebizitza kolektiboek lotutakoak, hilean 677,0 €-koa da. Bestalde, 2020ko azken hiruhilekoan eraturako fidantzak 704,5 €-ko batez besteko errenta lortu zuten, hau da, eraikitako m²ko prezioaren urte arteko % 1,2ko igoera (+% 1,2), 2019ko laugarren hiruhilekoan 9,3 €/m² izatetik 2020ko aldi berean 9,4 €/m² izatera igaro zena. Hona hemen aldagai horiek lurraldeka:

- Araban, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden etxebizitza libreak alokatzeko 8.827 kontraturekin (merkatuko prezioetan), hileko batez besteko errenta 601,7 €-koa da. Euskadiko errenta txikiena duen lurraldea da, bai zifra absolutuetan, bai m²-ko batez besteko errentan (7,8 €/m²). 2020ko laugarren hiruhilekoan eraturako fidantzen alokairuaren batez besteko prezioa (628,9 €) pixka bat igo zen (+% 0,9) 2019ko hiruhileko beraren aldean. M² bakoitzeko prezioa % 1,2 igo zen azken urtean.
- 2020ko abenduaren 31n, indarrean zeuden 28.766 fidantza zeuden erregistratuta Eusko Jaurlaritzaren gordailuan, Bizkaiko lurralde historikokoak. Hileko alokairu-errenta 681,0 € zen, eta eraikitako m² bakoitzeko 9,3 €/m²-ko errenta. 2020ko laugarren hiruhilekoan eraturako fidantzei dagokionez, urte arteko analisian % 1eko igoera erlatiboa ikusten da, 2020ko azken hiruhilekoan 707,4 €-ra iritsiz. Fidantza berrien m²-ko prezioaren bilakaerari dagokionez, % 2,3 gehitu zen 2019ko laugarren hiruhilekoaren aldean, 9,8 €/m² izanik.
- Gipuzkoak erregistratu zuen, 2020/12/31n indarrean zeuden 23.221 kontratuetan, hiru lurraldeetako alokairu-errenta absolutu handiena (701,1 €/ hilean). Hala ere, lurralde horretako m² bakoitzeko batez besteko prezioa (8,9 €/m²) Bizkaiko prezioa baino 0,4 € txikiagoa zen. 2020ko laugarren hiruhilekoan eraturako fidantzen batez besteko errenta 728,5 €-koa zen. Kopuru hori handiagoa da urte batetik bestera (+%1,4). Era berean, m² bakoitzeko alokairu-prezioa puntu erdi baino ez zen igo (+% 0,5) aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.



4.1.3. Etxebizitzaren salerosketa prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera

Lehenik eta behin, EINek **“Etxebizitzen Prezioen Indizea” (EPI)** egiten du, prezio libreko etxebizitzaren salerosketa-prezioen mailaren denbora-bilakaera neurtzen duena, bai berriak, bai bigarren eskukoak⁴⁶. Horren eremutik kanpo daude, hortaz, etxebizitza babestuak, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

V.4.7. TAULA. ETXEBIZITZA LIBREAREN PREZIOEN INDIZEA: URTEKO ALDAKETA-TASAK												
	GUZTIRA				ETXEBIZITZA BERRIAK				BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK			
	2018	2019	2020	2021	2018	2019	2020	2021	2018	2019	2020	2021
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	6,7	5,1	2,1	3,7	6,4	7,3	6,5	4,6	6,8	4,7	1,4	3,6
ANDALUZIA	5,0	5,4	2,3	4,6	5,6	7,6	7,4	6,6	4,9	5,1	1,6	4,3
ARAGOI	4,8	6,1	2,6	3,8	2,7	7,0	4,0	3,2	5,2	5,8	2,1	4,0
ASTURIAS	3,5	4,2	3,2	4,2	5,4	5,9	6,4	2,7	3,2	3,9	2,7	4,4
BALEAR UHARTEAK	7,5	6,0	4,1	5,8	6,6	7,8	10,6	7,3	7,5	5,9	3,5	5,8
KANARIAR UHARTEAK	5,0	3,8	1,2	5,7	4,5	5,3	5,6	4,8	5,0	3,7	0,8	5,8
KANTABRIA	5,9	3,1	1,2	5,5	3,7	4,9	5,6	4,5	6,2	2,8	0,6	5,7
GAZTELA ETA LEON	4,1	4,8	2,4	3,6	7,3	8,4	5,6	3,9	3,7	4,4	1,9	3,5
GAZTELA-MANTXA	2,4	3,5	1,3	2,4	6,8	10,3	2,0	1,2	1,6	2,3	1,1	2,6
KATALUNIA	8,8	5,2	2,0	3,5	8,6	7,0	8,6	3,9	8,8	5,0	1,3	3,5
VALENTZIako E.	4,1	4,2	2,2	4,3	5,8	6,9	5,4	4,0	3,8	3,8	1,7	4,4
EXTREMADURA	1,9	2,0	0,5	2,3	8,1	10,1	0,2	2,2	1,6	1,5	0,6	2,3
GALIZIA	3,8	4,0	2,2	4,6	7,4	7,0	5,5	3,3	3,2	3,5	1,8	4,8
MADRIL	10,2	5,9	1,7	2,5	6,4	7,6	6,3	5,3	10,9	5,5	0,7	1,9
MURTZIA	3,4	4,6	3,1	5,2	5,9	8,8	6,9	6,7	3,1	4,0	2,6	5,0
NAFARROA	3,5	3,8	1,7	2,8	4,6	6,1	4,9	0,3	2,9	2,9	0,2	4,0
EAE	5,4	4,3	2,3	2,1	7,0	7,1	6,9	3,1	5,1	3,8	1,2	1,9
ERRIOXA	4,9	5,4	1,9	3,5	7,4	8,2	5,8	5,5	4,7	5,1	1,5	3,3
CEUTA	8,5	7,7	4,4	3,7	:	:	:	:	:	:	:	:
MELILLA	7,8	5,2	4,5	6,3	:	:	:	:	:	:	:	:

Iturria: EIN. EPI.

Inkestako emaitzek erakusten dutenez, prezioek 2008-2013 epealdian behera egin ostean, neurri desberdinekin, 2014an lehen igoerak izan ziren estatu mailan, eta bilakaera askoz orekatuagoa da EAEn (izan ere, aldakuntza nulua izan zen). 2015ean, autonomia-erkidego guztiek izan zituzten tasa positiboak, eta joera hori mantendu egin da ordutik, nahiz eta ratioak gero eta txikiagoak izan.

2021ean (batez besteko datuak), EAEko etxebizitza libreen prezioak % 2,1 igo ziren, Estatuko batez bestekoa (% 3,7) baino gutxiago. Hain zuzen ere, Estatuko ratorik txikiena zen, Extremadura eta Gaztela Mantxa atzetik zituela (% 2,3 eta % 2,4, hurrenez hurren). Beste muturrean, Melilla eta Balear Uharteak etxebizitzaren prezioen % 6ko igoeraren inguruan zeuden.

Etxebizitza berrietan, EAEn urteko hazkundea % 3,1 izan zen EAEn, eta Estatuko batez bestekoa, berriz, % 4,6. Kasu horretan, Nafarroako % 0,3 eta Gaztela-Mantxako % 1,2 eta Murtziako eta Balearretako % 7 inguruko bilakaerak izan ziren. Bigarren eskuko etxebizitzetan, azkenik, EAEko hazkunde-tasa txikiagoa izan zen 2021ean, % 1,9, Estatuko batez bestekoaren % 3,6 baino askoz txikiagoa. Horrela, EAEk, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia-erkidego guztien ratorik txikiena zuen, eta beste muturrean Balear Uharteak eta Kanariak zeuden, biak ere prezioen % 5,8ko igoerarekin azken urtean.

⁴⁶ EPI Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, haren helburuetako bat estatu kideak aldatzeko tresna izatea da, etxebizitza libreen prezioen bilakaerari dagokionez. Notarioen Kontseilu Nagusiak emandako datu-baseetako informazioa erabiltzen du, Egiaztapenerako Notarioen Agentziaren bitartez. Administrazio-erregistroak erabilita, batetik, biztanleria guztiaren informazio osoa dago eskuragai, eta horri esker, ez dago zertan laginketara jo; bestetik, edozein salerosketako informazioa gertatzen den unean sar daiteke indizearen kalkuluan: funtsezkoa da hori adierazle koitunturala izan nahi duen indize batean.

V.4.8. TAULA. ETXEBIZITZA LIBREKO HIGIEZINEN TRANSAKZIOEN BATEZ BESTEKO BALIOA. DATUAK EUROTAN.


	GUZTIRA			ETXEBIZITZA BERRIAK			BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZA		
	2019	2020	2021*	2019	2020	2021*	2019	2020	2021*
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	158.013	166.173	175.852	234.646	248.359	255.428	150.158	155.193	166.857
ANDALUZIA	139.291	146.145	162.263	217.193	226.164	238.355	131.730	135.034	152.465
ARAGOI	115.545	126.150	122.580	187.425	217.414	220.457	105.555	112.809	113.311
ASTURIAS	104.537	113.893	114.891	142.385	167.989	176.508	101.954	105.515	109.558
BALEAR UHARTEAK	265.392	317.267	372.341	387.963	483.540	587.024	253.991	297.158	352.846
KANARIAR UHARTEAK	140.571	152.886	161.942	162.374	184.742	199.951	139.092	150.399	159.329
KANTABRIA	130.304	137.384	144.070	142.198	170.599	160.520	128.863	133.148	142.150
GAZTELA ETA LEON	101.722	106.311	109.126	158.036	176.980	210.090	97.499	100.262	100.651
GAZTELA-MANTXA	91.211	94.695	94.838	126.537	141.332	138.589	87.750	89.206	90.963
KATALUNIA	186.186	198.076	206.396	276.354	289.822	282.377	179.045	188.445	199.525
VALENTZIAKO E.	119.440	125.547	132.147	201.272	204.684	208.572	110.854	115.664	123.210
EXTREMADURA	83.784	87.380	93.804	128.136	105.425	115.322	82.017	86.280	93.143
GALIZIA	120.320	121.105	122.654	184.990	172.038	170.250	113.623	115.635	117.635
MADRIL	252.005	265.161	279.083	321.970	324.645	347.212	242.143	252.644	268.329
MURTZIA	99.364	98.892	101.738	157.982	146.782	156.263	94.136	93.992	97.523
NAFARROA	155.709	159.056	170.614	208.211	224.672	227.639	143.786	144.374	155.697
EAE	214.032	224.848	227.350	280.353	303.163	296.105	203.677	208.977	218.425
- ARABA	171.714	182.028	190.023	243.047	243.187	247.817	165.255	172.870	183.638
- GIPUZKOA	239.015	256.239	253.574	287.106	329.018	309.824	225.879	236.246	244.918
- BIZKAIA	208.577	216.391	220.913	287.352	295.206	296.610	201.049	202.920	211.811
ERRIOXA	118.406	112.548	112.711	165.329	127.508	163.809	113.966	111.663	107.633
CEUTA	162.694	165.494	166.575	190.727	221.815	228.916	161.715	154.351	163.815
MELILLA	147.856	154.849	165.708	179.251	196.707	194.763	140.240	144.638	152.994

Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa. Estatistika aldizkaria. Guk geuk egina.
* 2021eko datuak behin-behinekoak dira.

Bigarrenik, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak (lehen Sustapeneko zena) hiru hilean behin kalkulatzen ditu etxebizitza libre, berri eta bigarren eskuko **higiezin transakzioen batez besteko balioak**, Notarioen Estatistikak emandako informazioarekin. Informazio horretatik abiatuta, 2019tik 2021era bitarteko urteko batez besteko balioak kalkulatu ditugu.

2021ean (behin-behineko datuak), EAEn saldutako etxebizitza libreen batez besteko balioa, notario-erregistroetan ageri denez, 227.350 eurokoa izan zen, 2020an baino % 1,1 gehiago eta Estatuko batez bestekoa (175.852 euro) baino % 29,3 gehiago (+5,8). Oro har, prezio altuenak Balear Uharteetan eta Madrilgo Erkidegoan erregistratu ziren, eta merkeenak Gaztela Mantxan, Extremaduran eta Murtziako Eskualdean.

V.4.7. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA LIBREKO HIGIEZINEN TRANSAKZIOEN BATEZ BESTEKO BALIOAREN BILAKAERA EAEN. DATUAK EUROTAN ETXEBIZITZA BAKOITZEKO.




Etxebizitza eraiki berriak bakarrik hartzen baditugu kontuan, EAerako datua 296.105 eurora igotzen zen, 2020an baino % 2,3 gutxiago. Kopuru hori Estatuko batez bestekoa (255.428 euro) baino % 15,9 handiagoa zen, eta % 2,8 hazi zen 2020arekin alderatuta. Erabilitako etxebizitzari dagokionez, EAeko batez besteko balioa, 2021ean, 218.425 eurokoa zen, 2020an baino % 4,5 handiagoa. Estatuko datua 166.857 zen (+% 7,5); beraz, bien arteko aldea nabarmenena zen, % 30,9koa.

Lurraldeka, EAEn Gipuzkoa zen daturik altuena zuena, 253.574 euroko batez besteko balioa baitzuen 2021ean; ondoren Bizkaia (220.913 euro) eta Araba (190.023 euro) daude, biak EAeko batez bestekoaren azpitik. Bilakaerari dagokionez, Gipuzkoak % 1 egin zuen behera 2020ko datuaren aldean; Arabak % 4,4 egin zuen gora eta Bizkaiak % 2,1 (+% 1,1 erkidego osoa). Etxebizitza berrien eta bigarren eskuko etxebizitzaren xehetasunetan, aldeak ia berdinak ziren lurraldeen arabera: Gipuzkoak zituen preziorik altuenak eta Arabak baxuenak, Bizkaiak EAeko batez bestekoaren inguruko zifrak zituen (ikus V.4.8 taula).

4.1.4. Etxebizitzaren bizitegi- alokairuko errenten konparazioa autonomia-erkidegoen arabera

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren (aurretik Sustapen Ministerioa izan zena) **“Etxebizitzaren eta lurzuaren behatokia”**n, urtean behin, bere Aldizkari Ofizialaren monografia gisa, autonomia erkidegoen arabera konparaketa bat egiten da egoitzazko alokairuko errenten inguruan. Azkenak 2019ko datuak ditu, eta konparaketa hori estatuan guztiz arrakastatsua diren bi higiezin atarrietako informazioarekin egiten da, Fotocasa eta Idealista, hain zuzen ere.



Iturrien artean ezberdintasun batzuk zeuden (Fotocasan urte horretan, 9 autonomia erkidegoetan, EAE barne, alokairuko errentek behera egin dutela jasotzen zen), baina, hala ere, egiaztatu zen preziorik altuenak Katalunian eta Madrilan zeudela, etxebizitzaren metro karratu bakoitza 12-14 euro artean zegoelarik. Hirugarrenik, Balear Uharteak daude Idealistaren arabera, eta EAE, Fotocasaren kopuruak kontuan hartuz gero. Horrela, EAeko alokairuaren batez besteko errenta 10,2 euro/m²-koa izango litzateke iturri batekin eta 11,3koa bestearekin, biak 8,3 eta 10,4 euro/m²-ko batez bestekoaren gainetik Estatu osoan⁴⁷.

⁴⁷ Eguneratu ezin izan diren datu horiei buruzko xehetasun gehiago izateko, ikus 2019ko Memoria Sozioekonomikoa.

4.2. ETXEBIZITZAK ERAIKITZEA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak jakinarazi duenez, EAEn **hasitako etxebizitzaren** guztizko kopuruak ikurra aldatu zuen 2010-2011 biurtekoan, hazkunde nabarmena izanik, 2008an eta 2009an jaitziera handia izan ondoren. 2012 eta 2015 artean, hasitako etxebizitzaren kopuruak behera egin zuen intentsitate desberdinekin, eta 2016tik 2019ra arte, hasitako etxebizitzaren kopuruak gora egin zuen oro har, nahiz eta urtetik urtera tasa txikiagoak izan (+% 0,9) 2019an.

V.4.9. TAULA. ERAIKUNTZA JARDUERA EAEn: HASITAKO ETA AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK						
	HASITAKO ETXEBIZITZAK			AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK		
	LIBREAK	BABESTUAK**	GUZTIRA	LIBREAK	BABESTUAK	GUZTIRA
2015	2.094	932	3.026	3.611	1.957	5.568
2016	4.407	1.201	5.608	1.869	1.729	3.598
2017	2.920	1.344	4.264	3.380	357	3.737
2018	4.617	1.732	6.349	3.562	859	4.421
2019	4.326	2.083	6.409	3.409	1.344	4.753
2020	3.124	1.319	4.443	3.390	562	3.952
2021*	3.077	1.716	4.793	3.343	1.099	4.442
19/20 (%)	-27,8	-36,7	-30,7	-0,6	-58,2	-16,9
20/21 %	-1,5	30,1	7,9	-1,4	95,6	12,4

*Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.
* Behin-behineko datuak.
** Ikusi tipologiaren xehetasuna V.4.10 taulan.*

2020an 4.443 etxebizitza hasi ziren, aurreko urtean baino % 30,7 gutxiago, eta 2021ean tasa positiboetara itzuli zen, etxebizitza babestuen eraikuntza berreskuratzearen ondorioz.

Horrela, guztira, 4.793 unitate eraikitzen hasi ziren (+% 7,9); horietatik 1.716 etxebizitza babestuari dagozkio (+% 30,1 2020arekin alderatuta) eta 3.077 etxebizitza libreari (-% 1,5), behin-behineko datuekin.

Eusko Jaurlaritzaren 2006-2009ko Etxebizitza Plana abian jarri zenetik, babestutako etxebizitzaren merkatuan figura berriak sortu ziren, eta, orain arte, 2006tik hona zuzkidura-bizitokiak eraikitzen hasi dira, 2007tik aurrera udal-etxebizitza tasatuak (salmentarako) eta 2009tik aurrera etxebizitza tasatu autonomikoak.

2021ean 10 zuzkidura-bizitoki (2020an baino % 89,9 gutxiago) eta 302 udal-etxebizitza tasatu eraikitzen hasi ziren, horietatik 60 alokairuan eta 242 jabetzan (+% 978,6). Era berean, Eusko Jaurlaritzak kalifikatu beharreko etxebizitzaren artean, honako hauek hasi ziren: 891 BOE (-% 2), 268 etxebizitza sozial (+%92,8) eta 245 etxebizitza tasatu (+% 70,1).

V.4.10. TAULA. EAEn HASITAKO ETXEBIZITZA BABESTUEN BILAKAERA, TIPOLOGIAREN ARABERA.						
	EJREN KALIFIKAZIOA DUTENAK			EJREN KALIFIKAZIOAZ KANPOKOAK		GUZTIRA
				ZUZKIDURA ETXEBIZITZAK	UDALAREN TASATUTAKO ETXEBIZITZAK (JABE+ALOK)	
	BOEAK	SOZIALAK	TASATUAK			
2015	514	185	80	0	153	932
2016	678	17	159	154	193	1.201
2017	598	284	207	160	95	1.344
2018	1.050	105	72	305	200	1.732
2019	1.502	76	184	217	104	2.083
2020	909	139	144	99	28	1.319
2021*	891	268	245	10	302	1.716
19/20 (%)	-39,5	82,9	-21,7	-54,4	-73,1	-36,7
% 20/21	-2,0	92,8	70,1	-89,9	978,6	30,1

*Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. Etxebizitzaren Behatokia.
* Behin-behineko datuak.*

Bestalde, EAEn 2021ean **amaitutako etxebizitzak** 4.442 ziren guztira, aurreko urtean baino % 12,4 gehiago, amaitutako etxebizitza babestuen segmentuan izandako hazkundearen ondorioz (+% 95,6). Hasitako etxebizitzekin bezala, etxebizitza libreek ere behera egiten jarraitzen zuten (-% 1,4). Ondorioz, etxebizitza babestuak EAEko eraikuntza-jardueran duen partaidetza handitu egin da aurreko; izan ere, amaitutako etxebizitzaren pisua 2020ko % 14,3tik 2021eko % 24,7ra igaro da.

Bigarren, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2021eko bere **“Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistikan”** nabarmentzen duenez, finkatu egin da aurreko eraikuntzako obren tipologiaren joera, gero eta gehiago birgaikuntzara bideratuta, krisia hasi zenetik ikusi izan denez.

2021ean, EAEko udalek obra handiko 3.494 lizentzia eman zituzten guztira (eraikuntza berriko, birgaitzeko eta eraisteko lizentzien batura), 2020an baino % 21,1 gehiago. Lizentzia guztietatik, % 14,9 oin berriko eraikinetarako lizentzietatik zegoen, % 2,5 eraispentarako lizentzietatik eta horien % 82,6 eraikinak birgaitzeko lizentzietatik (% 84,7 2020an), hau da, 10etik 8, 2003. urtea baino lehen lizentzia guztien % 50 lortzen ez bazen ere.

27	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa
28	BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.
29	Motordun ibilgailu, atoi eta erdiatuen fabrikazioa
30	Beste garraio-material baten fabrikazioa
31	Altzarien fabrikazioa
32	Beste manufaktura-industria batzuk
33	Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa
D	Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura:
35	Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
E	Ur hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea
36	Uraren bilketa, arazketa eta banaketa
37	Hondakin-ura biltzea eta tratatzea
38	Hondakinak biltzea, tratatzea eta desagerraraztea; balioestea
39	Kutsadura kentzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk
F	Eraikuntza
41	Eraikinen eraikuntza
42	Ingeniaritza zibila
43	Eraikuntza espezializatuko jarduerak
G	Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa
45	Motordun ibilgailuen eta bizikleten salmenta eta konponketa
46	Handizkako merkataritza eta merkataritza bitartekariak, motordun ibilgailuena eta motozikletena izan ezik
47	Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik

H	Garraioa eta biltegitzea
49	Lurreko eta hodiedetako garraioa
50	Itsasoko eta barruko bide nabigagarrietako garraioa
51	Aireko garraioa
52	Biltegitzea eta garraioari lotutako jarduerak
53	Posta jarduerak
I	Ostalaritza
55	Ostatu zerbitzuak
56	Janari eta edari zerbitzuak
J	Informazioa eta komunikazioak
58	Edizioa
59	Zinema, bide eta telebista saioretako jarduerak, soinu grabazioa eta edizio musikala
60	Programazio eta irrati eta telebistako emisioko jarduerak
61	Telekomunikazioak
62	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduerak batzuk
63	Informazio zerbitzuak
K	Finantza- eta aseguru-jarduerak
64	Finantza-zerbitzuak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik
65	Aseguruak eta pentsio-funtsak, nahitaezko Gizarte Segurantza izan ezik
66	Finantza-zerbitzuetan eta aseguruen jarduerak osagarriak
L	Higiezin arloko jarduerak
68	Higiezin arloko jarduerak
M	Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak
69	Lege eta kontabilitate jarduerak
70	Egoitza nagusien jarduerak; enpresak kudeatzeko aholkularitza jarduerak
71	Arkitektura eta ingeniari zerbitzu teknikoak; entsegu eta analisi teknikoak
72	Ikerketa eta garapena
73	Publizitatea eta merkatu azterketak
74	Beste jarduerak profesional, zientifiko eta tekniko batzuk
75	Albaitaritza jarduerak
N	Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak
77	Alokairu jarduerak
78	Enpleguarekin lotutako jarduerak
79	Bidaia-agentzien, operadore turistiko, erreserba zerbitzuen jarduerak eta horiekin lotutako jarduerak
80	Segurtasun eta ikerketa jarduerak
81	Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak
82	Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak
O	Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza
84	Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza
P	Hezkuntza
85	Hezkuntza
Q	Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak
86	Osasun jarduerak
87	Laguntza egoitza establezimenduetan
88	Gizarte zerbitzuen jarduerak ostaturik gabe
R	Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak
90	Sorkuntza, arte eta ikuskizunetako jarduerak
91	Liburutegi, artxibo, museo eta bestelako kultur jarduerak batzuk
92	Ausazko jokoen eta apustuen jarduerak
93	Kirol, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak
S	Beste zerbitzu batzuk
94	Elkartegintza jarduerak
95	Ordenagailuen konponketa, norberaren gauzak eta etxean erabiltzeko produktuak
96	Beste zerbitzu pertsonal batzuk
T	Familien jarduerak etxeko pertsonalaren enplegatzaile gisa; familien jarduerak norberaren erabilerarako ondasunen etazerbitzuen ekoizle gisa
97	Familien jarduerak etxeko pertsonalaren enplegatzaile gisa
98	Lurralde kanpoko erakunde jarduerak
99	Lurralde kanpoko erakunde jarduerak

• **EUSTAT-EN INKESTA INDUSTRIALA**

EJSN 2009aren arabera, **atal** hauek biltzen ditu:

- B: Erauzketa industriak
- C: Manufaktura-industria
- D: Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
- E: Ur hornidura, saneamendu, hondakinen kudeaketa eta kutsadura desagerrarazte jarduerak.

Hala ere, bere sailkapena du, baina EJSNrekiko baliokidetzak ezarri dira.

SEKTORE SAILKAPENA (A3, A6, A17, A31, A60, A84)

A3	A6	A17	A31	A60	A84	IZEN LABURTUA / DENOMINACIÓN ABREVIADA		
		1				Agropesquero	Nekazaritza eta arrantza	
			1			Agropecuario	Nekazaritza eta abeltzaintza	
				1		Agricultura y ganadería	Nekazaritza eta abeltzaintza	
					1	Agricultura	Nekazaritza	
					2	Ganadería	Abeltzaintza	
				2	3	Selvicultura	Basogintza	
		2	2			Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura	
1				3	4	Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura	
						Industria y construcción	Industria eta eraikuntza	
	2					Industria	Industria	
		3				Industrias extractivas	Ateratze-industriak	
			3			Extracción de petróleo y gas	Petrolio eta gasa ateratzea	
				4	5	Carbones	Ikatzak	
					5	Extracción de petróleo y gas	Petrolio eta gasa ateratzea	
					6	Extracción de uranio	Uranio ateratzea	
				4		Min. metálicos y no metálicos	Metalezko eta ez-metalezko meak	
					7	8	Minerales metálicos	Metalezko meak
					8	9	Minerales no metálicos	Ez-metalezko meak
	4					Industria manufacturera	Manufaktura-industria	
			5			Industria de la alimentación	Elikagai-industria	
				9		Industria de la alimentación	Elikagai-industria	
					10	Industrias cárnicas	Okela-industriak	
					11	Industrias lácteas	Esne-industriak	
					12	Conservas de pescado	Arrain-kontserbak	
					13	Pan y molinería	Ogia eta errotaritza	
					14	Otras alimenticias	Bestelako elikagai-industriak	
					15	Bebidas	Edariak	
				10	16	Industria del tabaco	Tabakoaren industria	
			6			Textil y confección	Ehungintza eta jantzigintza	
				11	17	Industria textil	Ehunaren industria	
				12	18	Confección y peletería	Jantzigintza eta larrugintza	
			7			Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.	
				13	19	Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.	
			8			Industria de la madera	Zurgintza	
				14	20	Industria de la madera	Zurgintza	
				9		Papel, edición y gráficas	Papera, argitalpena eta grafikoak	
				15	21	Industria del papel	Papergintza	
				16	22	Edición y artes gráficas	Argitalpena eta arte grafikoak	
		10				Refino de petróleo	Petrolio fintzea	
				17	23	Refino de petróleo	Petrolio fintzea	
			11			Industria química	Kimika-industria	
				18		Industria química	Kimika-industria	
					24	Química básica	Oinarrizko kimika	
					25	Química industrial	Industri kimika	
					26	Química final	Azken kimika	
		12				Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak	
				19		Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak	
					27	Caucho y neumáticos	Kautxua eta pneumatikoak	
					28	Artículos de plástico	Plastikozko artikulua	
			13			Industria no metálica	Ez-metalezko industria	
				20		Industria no metálica	Ez-metalezko industria	
					29	Industria del vidrio	Beiragintza	
					30	Cemento, cal y yeso	Zementua, karea eta igeltsua	

			31	Otras no metálicas	Bestelako ez-metalezkoak	
	14			Metalurgia y artíc. metálicos	Metalgintza eta metalezko artik.	
2		21		Metalurgia	Metalgintza	
			32	Siderurgia	Altzairugintza	
			33	Metalurgia no férrea	Ez-burdinazko metalgintza	
			34	Fundición	Galdategiak	
		22		Artículos metálicos	Metalezko artikuluak	
			35	Construcción metálica	Metalezko eraikuntza	
			36	Forja y estampación	Forja eta estanzapuzioa	
			37	Ingeniería mecánica	Ingeniaritza mekanikoa	
	15		38	Artículos metálicos	Metalezko artikuluak	
		23		Maquinaria	Makineria	
				Maquinaria	Makineria	
			39	Máquina-herramienta	Makina erreminta	
			40	Aparatos domésticos	Etxeko aparatuak	
			41	Otra maquinaria	Bestelako makineria	
	16			Material eléctrico	Material elektrikoak	
		24	42	Maq. oficina y eq. informático	Bulego-mak. eta informatika-tres.	
		25	43	Material eléctrico	Material elektrikoak	
		26	44	Material electrónico	Material elektronikoa	
		27	45	Material de precisión	Doitasun handiko materiala	
	17			Material de transporte	Garraio-materiala	
		28	46	Automóviles y sus piezas	Automobilak eta horien piezaak	
		29		Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala	
			47	Construcción naval	Ontzigintza	
			48	Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala	
	18			Otras manufactureras	Bestelako manufactura-ind.	
		30		Fabricación de muebles	Altzarigintza	
			49	Fabricación de muebles	Altzarigintza	
			50	Otras manufactureras	Bestelako manufactura-ind.	
		31	51	Reciclaje	Birziklatzea	
5	19			Energía eléctrica, gas y agua	Energia elektrikoak, gasa eta ura	
		32		Energía eléctrica y gas	Energia elektrikoak eta gasa	
			52	Energía eléctrica	Energia elektrikoak	
			53	Gas y vapor de agua	Gasa eta ur-lurruna	
		33	54	Agua	Ura	
3	6	20		Construcción	Eraikuntza	
			34	55	Construcción	Eraikuntza
				Servicios	Zerbitzuak	
	4			Comercio, hostelería y transp.	Merkataritza, ostalaritza eta garra.	
		7	21	Comercio y reparación	Merkataritza eta konponketa	
			35	56	Venta y reparación automóviles	Automobilak saldu eta konpontzea
			36	57	Comercio al por mayor	Handizkako merkataritza
			37	58	Comercio al por menor	Txikizkako merkataritza
	8	22		Hostelería	Ostalaritza	
			38	59	Hostelería	Ostalaritza
	9	23		Transporte y comunicaciones	Garraioa eta komunikazioak	
			39		Transporte terrestre	Lehorreko garraioa
			60	Transporte ferroviario	Burdinbide-garraioa	
			61	T. mercancías carretera	Errepidezko zama-garraioa	
			62	Otro transporte terrestre	Lehorreko bestelako garraioa	
		40	63	Transporte marítimo	Itsasoko garraioa	
		41	64	Transporte aéreo	Aireko garraioa	
		42	65	Anexos al transporte	Garraioari erantsiak	
		43	66	Comunicaciones	Komunikazioak	
	5			Banca, seguros y ser. Empresas	Bankuak, aseguruak eta enp.zer.	
		10	24	Banca y seguros	Bankuak eta aseguruak	
			44	67	Banca	Bankuak
			45	68	Seguros	Aseguruak
			46	69	Auxiliares financieros	Finantza-laguntzaileak
	11	25		Servicios a empresas	Enpresentzako zerbitzuak	
			47	70	Actividades inmobiliarias	Onibar-jarduerak
			48	71	Alquiler de maquinaria	Makineria alokatzea
			49	72	Actividades informáticas	Informatika-jarduerak

		50	73	Investigación y desarrollo	Ikerketa eta garapena
		51	74	Otras actividades empresariales	Enpresen bestelako jarduerak
6				Otras actividades de servicios	Bestelako zerbitzu-jarduerak
	12	26		Administración Pública	Herri-administrazioa
			52	Administración Pública	Herri-administrazioa
3	13	27		Educación	Hezkuntza
			53	Educación	Hezkuntza
	14	28		Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
			54	Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
			77	Sanidad	Osasuna
			78	Servicios sociales	Gizarte-zerbitzuak
	15	29		Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
			55	79 Saneamiento público	Guztiantzako saneamendua
			56	80 Actividades asociativas	Elkarte-jarduerak
			57	81 Act. recreativas y culturales	Jolas- eta kultur jarduerak
			58	82 Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
	16	30		Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
			59	83 Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
	17	31	60	Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak
			84	Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa.
- Berrikuntzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio- metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura atera direnak. Prozesu, komertzializazio-metodo edo antolakuntza-metodo bat sartuta dagoela esan daiteke modu eraginkorrean sartzen denean enpresaren eginkizunetan.

Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoak eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkaturatu sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

LAN MERKATUA

BJA-RI (EUSTAT), BAI-RI (EIN) ETA LFS-RI (EUROSTAT) BURUZKO DEFINIZIOAK

- L.N.B. Biztanleria aktiboa. Lanaren Nazioarteko Bulegoaren arabera (LNB), ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko lan egiten duten pertsona guztiak dira, eta une horretan lanik ez dutenak, lan bila dabilenak eta lanean hasteko moduan daudenak. Biztanleria Landunak (LNB) eta Biztanleria Langabeak (LNB) osatzen duten multzoa da.
- L.N.B. Biztanleria ez-aktiboa: LNBren arabera, Biztanleria Aktiboa ez den biztanleria da. Talde hauetan sailkatzen dira: etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiroan daudenak, pentsiodunak, errentistak eta ezinduek.
- L.N.B. Biztanleria landuna. LNBren arabera, ordaindutako lana duten edo aparteko jarduera egin eta lanean ari diren pertsona guztiak dira, edo beren lanarekin lotura formala dutenak, edo oporregatik, gaixotasunagatik, lan-gatazkagatik, gorabehera teknikoengatik, etab. lanetik kanpora izandakoak.

- L.N.B. Langabezian dagoen biztanleria. LNBren arabera, soldatapeko lanik edo aparteko lanik ez duten pertsonak dira, egun lan bila ari direnak eta lanerako moduan daudenak.
- 2002. urteaz geroztik, langabe daude, aurreko baldintzak betetzeaz gain, aurreko lau asteetan lana bilatzeko aipaturiko erregelamendu horretan aktibotzat jotako pertsonen kudeaketaren bat egin dutenak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin kontaktatzea.
- Jarduera-tasa. Talde jakin baten jarduera-tasa da biztanleria aktiboan eta talde horren barruan dauden pertsonen proportzioa.
- B.J.A.n, 16 urte (urteak beteta) eta gehiagokoen gainean kalkulatzen dira.

$$\text{Jarduera-tasa} = \frac{\sum \text{aktiboak}}{16 \text{ urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

- L.N.B. Okupazio-tasa. Landun pertsonen adin horietako biztanleria osoarekiko proportzioa da okupazio-tasa. Lehenik eta behin, 16-64 urteko (adina beteta) biztanleen gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen ditu web guneak bere tauletan, halako moldez non bateragarria baita Eurostatek darabilen definizioarekin.

$$\text{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \text{landunak}}{16 - 64 \text{ urtekoak}} \times 100$$

Bigarrenik, 16 urtetik gorako (adina beteta) biztanleriarekiko kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du Datu-bankuak:

$$\text{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \text{landunak}}{16 \text{ urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

Alabaina, Europa 2020 helburuan, 20-64 urteko adin-tartea ezarri da.

- Langabezia-tasa. Langabezian dauden talde horretako pertsona aktiboen proportzioari deritza talde batekolangabezia-tasa
- B.J.A.n, 16 urte eta gehiagokoen (adina beteta) biztanleekiko kalkulatu dira.

$$\text{Langabezia-tasa} = \frac{\sum \text{langabeak}}{\text{aktiboak}} \times 100$$

LAN-KOSTUEI BURUZKO HIRUHILEKO INKESTA (EIN):

a) LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA

1. Lan egindako orduak

- Benetako orduak: egiaz lan egindako orduak dira, laneko ohiko aldietan nahiz aparteko lanaldian, lantokiak galdutako orduak barne; egiazko denbora da indarreko araudia dela bide. Itundutako orduen eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak; ordu horietatik kanpo gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetako lantzat jotzen baitira. Laburbilduz, lan egindako orduak dira (ohiko lanaldian edo apartekoan) ken lan egin gabeko orduak.
- Lanaldi itundua: langilearen eta enpresaren artean ahozko akordioaren, banako kontratuaren edo hitzarmen kolektiboaren bidez lege ezarritako orduak dira.
- Aparteko orduak: itundutako lanalditik gorako orduak dira, nahitaez egin beharrekoak (aparteko ordu estrukturalak) edo borondatezkoak (estrukturalak ez diren aparteko orduak).
- Ordu osagarriak: lanaldi partzialeko kontratuan itundutako orduak dira ohiko orduen osagarri gisa. Ohiko ordu gisa ordaintzen eta kotizatzen dira.

2. Lan egin gabeko orduak

2.1. Lan egin gabeko orduak eta ordainduak. Arrazoi hauengatik lan egin gabeko orduak sartzen dira:

- Oporraldiak eta hilean izandako jaiegunak.
- Aldi baterako ezintasun bajako egunak.
- Amatasun, adopzio eta norberaren arrazoiengatiko baimen egunak.
- Aparteko orduengatiko konpentsazioan emandako atsedenaldiak.
- Ordezkaritza sindikaleko orduak, ezinbesteko betebeharra betetzekoak eta azterketetara eta medikuaren bisitetara joatea, besteak beste.
- Arrazoi teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta lan egin gabeko orduak edo egunak dira: langileak zerbitzua emateari edo ondasunak ekoizteari aldi batez uztea (etenaldi egunak) edo lanaldi murrizketak (murrizpen orduak), enpresen krisialdiak gainditzeko xedearekin.
- Lantokian galdutako orduak: ez langileari ez enpresaburuari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik lan egin gabeko orduak dira hala nola lanera lantzean behin ez azaltzea, makinak haustea, lehengairik eza, ezbehar atmosferikoak, mugimendu-indarra edo bestelako ezinbesteko kausak. Lan egin gabeko ordu horiek berreskuratzea ahalbidetzen du legeak, egunean ordu bat lan eginda, baina aurretik jakinarazpena egin bada eta kontrako akordiorik ez badago. Berreskuratu ez diren orduak baizik ez dira biltzen osagai honetan eta, beraz, benetan lan egin gabeko ordutzat har daitezke.

2.2. Lan egin gabeko eta ordaindu gabeko orduak. Hauexek sartzen dira

- - Lan-gatazka: Grebengatik galdutako guztizko ordu kopurua da, greben toki, sektore edo enpresa eremukoak diren edo greba osoak edo partzialak diren aintzat hartu gabe. Ez da zenbatzen ondoren berreskuraturiko denbora.
- – Absentismoa; legezko zaintza; ugazaben itxiera....

Ugazaben itxieran, enpresaburuak lantokia ixten du talde-gatazkagatik, indarkeria edo kalte arriskuak daudenean, lantokia legez kanpo hartzen denean edo ekoizpenaren ohiko prozesua galarazten duten irregulartasunak direnean.

Legezko zaintza lanaldi murrizketa da berau eskatzen duten langileentzat, bere zaintzape zuzenean 6 urtetik beherako adingabea edo lanik egiten ez duen ezindu fisikoa edo psikikoa duelako.

b) LAN-KOSTUAK

Enplegatzaileak lan-faktorea erabiltzeagatik egiten duen kostuari deritzo lan-kostua. Bi ikuspegitik aztertzen da:

- **Lan-kostua lan unitateko:** langile eta hile bakoitzeko lan-kostua da. Langile bati hilabetean enplegua emateak enpresarioari dakarkion kostua neurtzen du.
- **Lan-kostua denbora unitateko:** benetako lan egindako ordu bakoitzeko lan-kostua da. Benetako lan ordu batekin enpresarioari dakarkion kostua neurtzen du.

Kopuru garbietan neurtu behar da kostua enplegatzailearentzat, hots, jasotako diru-laguntzak kenduta, eta partida-multzo zabala dakar, inkestak bi bloke nagusitan biltzen duena: lan-kostua eta beste kostu batzuk.

1. LAN KOSTUA

Inoren konturako laneko zerbitzuen lanbide prestazioagatik langileei eskudirutan edo gauzatan eginiko diru-kopuru guztiak biltzen ditu, dela benetan lan egindako lana ordaintzekoak, ordaintzeko era edozein delarik ere, edo lan gisa zenbaturiko atsedenaldikoak.

Hauexek biltzen dituzte **soldatako diru-kopuruak**: oinarrizko soldata, soldata osagarriak, aparteko orduen edota ordu osagarrien ziozko ordainketak, aparteko dohaintzak eta gauzatako soldata.

Aparteko orduen edota ordu osagarrien ziozko ordainketak: aparteko orduen ziozko ordainketei dagozkie, bai estrukturalak (nahitaezkoak), bai ez-estrukturalak (borondatezkoak), eta ordu osagarrien ziozko ordainketei dagozkie lanaldi partzialeko langileen kasuan.

Aparteko dohaintzak: hilabetetik gorako aldizkakotasuna duten ordainsariak dira: aparteko pagak, etekinetan, primetan eta helburuetan parte hartzearen ziozko ordainketak eta ezohiko bestelako edozein ordainketa.

Ordainketa atzeratuak: erreferentziako hilean ordaindu diren baina aurreko epealdian sortu diren ordainketa guztiak dira.

2. BESTE KOSTU BATZUK

Beste kostuek barne hartzen dituzte soldatakoak ez diren diru-kopuruak eta Gizarte Segurantzarako nahitaezko kotizazioak.

Soldatakoak ez diren diru-kopuruak: langilek jasotako diru-kopuruak dira, ez bere lan jardueragatik, baizik lana betearzteak eragindako gastuak konpentsatzeko edo langileari ezin egotz dakizkiokeen betebeharrak edo egoerak estaltzeko.

Gizarte Segurantzarako nahitaezko kotizazioak: lege ezarritako ekarpenak dira, enplegatzaileak bere langileen alde Gizarte Segurantzaren Sistemari eginikoak, Sistemak ezarritako prestazioak estaltzeko, eta egoera hauen ondoriozkoak dira: gaixotasuna, amatasuna, laneko istripuak, baliaezintasuna, erretiroak, familia, bizirik irautea, langabezia, lanbide heziketa, soldata bermea edo Gizarte Segurantzaren Sistemak estalitako bestelako edozein kontingentzia.

KALERATZE MOTAK ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

1. KALERATZE MOTAK

1.1. Diziplinazko kaleratzea: Enpresariaren aldebakarreko erabakia da, langilearen arau-hauste larri eta errudunaren ondorioz lan-kontratua suntsitzera daramana. Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. Artikuluak arautzen du. Honako hauek kontratuaren arau-haustetzat joko dira:

- a) Behin eta berriz eta justifikatu gabe berandu joatea edo ez joatea lanera.
- b) Diziplinarik eza edo desobedientzia lanean.
- c) Enpresariari edo enpresan lan egiten duten pertsoneri egindako irainak, ahozkoak zein fisikoak, bai eta pertsona horiekin bizi diren familiartekoei egindakoak ere.
- d) Kontratuaren fede ona urratzea nahiz lana gauzatzean konfiantza gehiegikeriak egitea.
- e) Lan errendimendu normala edo adostua modu jarraituan eta borondatez murriztea.
- f) Ohiko mozkorkeria edo toxikomania, baldin eta lanean negatiboki eragiten badute.
- g) Arraza edo etnia jatorria, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo orientazio sexuala dela eta egindako jazarpena eta jazarpen sexuala edo sexuagatikoa egitea enpresariari edo enpresan lan egiten duten pertsoneri.

1.2. Kaleratze objektiboa: (Kolektiboa edo banakakoa izan daiteke) enpresariaren aldebakarreko erabakia da, eta lan-kontratua suntsitzea dakar, enpresaren antolaketari edo funtzionamenduari eragiten dieten arrazoiengatik (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak). Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52 artikuluan arautzen da, eta horren bidez onesten da Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina. Kontratua honako arrazoi hauengatik suntsitu ahal izango da:

a) Langilearen trakestasunagatik, aurretiaz ezaguna edo enpresan eraginkorki kokatu ostean azaldutakoa izanda ere. Probaldi bat bete aurretik izandako trakestasuna ezin izango da alegatu hori bete ostean.

b) Langilea ez egokitzeagatik bere lanpostuan egindako aldaketa teknikoetara, baldin eta aldaketa horiek arrazoizkoak badira. Aurrez, enpresariak langileari ikastaro bat eskaini beharko dio, egindako aldaketetara egokitzea erraztuko duena. Prestakuntzari eskainitako denbora laneko denbora efektibotzat joko da beti, eta enpresariak ordura arteko batez besteko soldata ordainduko dio langileari. Enpresariak ezin izango du suntsitzea erabaki harik eta gutxienez bi hilabete igarotzen diren arte aldaketa txertatu zenetik edo egokitze prestakuntza amaitu zenetik.

c) 51.1 artikuluan aurreikusitako kasuren bat gertatzen denean eta suntsitzeak artikuluko horretan ezarritakoa baino pertsona kopuru txikiagoari eragiten dionean

Langileen ordezkariak lehentasuna izango dute enpresan gelditzeko atal honetan aipatzen den kasuan.

d) Lanera ez joateagatik, justifikatuta egon arren aldizka gertatzen denean eta bi hilabetez jarraian lansaio baliodunehuneko hogeira iristen denean. Hori guztia, baldin eta aurreko hamabi hilabeteetako asistentzia faltak, guztira, egun baliodunen ehuneko bostera iristen badira, edo ehuneko hogeita bostera hamabi hilabeteko aldiaren baitako lau hilabetez-jarraituan.

Ez dira asistentzia falta gisa zenbatuko, aurreko paragrafoko ondorioetarako, honako arrazoi hauen ondorioz gertatzen direnak: greba orokorra (greba horrek irauten duen bitartean); langileen legezko ordezkarien jarduerak gauzatzea; amatasuna, haurdunaldiko eta edoskitzeko arriskua; haurdunaldiak, erditzeak edo edoskitzeak eragindako gaixotasunak; aitatasuna; lizentziak eta oporrak; gaixotasuna edo lanekoa ez den istripua, baldin eta baja osasun zerbitzu ofizialek adostu badute eta hogeit egun baino gehiagoko iraupena badu; genero biolentziatik eratorritako egoera fisiko edo psikologikoak eragindako kasuetan, baldin eta arretako gizarte zerbitzuek edo osasun

zerbitzuek, kasuan kasu, egiaztatu badute.

Minbiziarengatik edo gaixotasun larri batengatik tratamendua hartzeagatiko hutsegiteak ere ez dira zenbatuko.

e) Irabazi asmorik gabeko erakundeek plan eta programa publiko zehatzak egikaritzeko zuzenean hitzartutako kontratu mugagabeen kasuan, zuzkidura ekonomiko egonkorrik ez dutenean eta administrazio publikoek finantzatzen dituztenean urteko aurrekontuko edo aurrekontuz kanpoko kontsignazioen bidez, izaera finalistako kanpo-ordainketen ondorio gisa, lan-kontratua mantentzeko beharrezko kontsignazioa nahikoa ez izateagatik.

Suntsitzeak 51.1 artikuluan ezarritako langile kopuruari edo gehiagori eragiten badie, artikuluko horretan aurreikusitako prozedurari jarraitu beharko zaio.

2.- BANAKAKO KALERATZEA VS KOLEKTIBOA

Kaleratzea banakakoa izango da langile bakarrari eragiten badio edo ez bada iristen 51. artikuluko atalaseetara. Kaleratze bat kolektibotzat jo daiteke soilik arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak baldin badaude tarteko, eta gutxieneko langile kopuru bati eragin behar dio.

Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 51. artikulua arabera, kaleratze kolektibotzat joko da arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolaketakoetan edo ekoizpenekoetan oinarritutako kontratu-suntsipena, laurogeita hamar eguneko tartean, honako hauei eragiten badie gutxienez:

- a) Hamar langile, ehun langile baino gutxiagoko enpresen kasuan.
- b) Langile kopuruaren ehuneko hamarra, ehun eta hirurehun langile artean dauzkaten enpresen kasuan.
- c) Hogeita hamar langile, hirurehun langile baino gehiagoko enpresen

kasuan Hau da, honako kasu hauetan jo behar da **kaleratze kolektibora**:

- Lan-kontratuen suntsitzeak, arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolaketakoengatik edo ekoizpenekoengatik, honako langile kopuru honi eragiten badio 90 eguneko tartean:
 - 10 langile, 100 langile baino gutxiagoko enpresen kasuan.
 - Langile kopuruaren % 10, 100 eta 300 langile artean dauzkaten enpresen kasuan.
 - 30 langile 300 langile baino gehiagoko enpresen kasuan.

Laneko kontratua suntsitzeak enpresako plantilla osoari eragiten dionean, baldin eta ukitutako langilekopurua bost baino handiagoa bada

3.- ENPLEGUA ARAUTZEKO ESPEDIENTEAK

Urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuaren bidez arautzen da kaleratze kolektiboen eta kontratuak etetearen nahiz jardunaldia murriztearen prozeduren araudia.

Hiru kasu hartzen dira aintzat:

a) Arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo ekoizpenekoengatik suntsitzea kontratuak

b) Lan-kontratua etetea ("Langileen Estatutuaren 47. artikuluan aipatzen diren arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo ekoizpenekoengatik eten ahal izango da lan-kontratua, kapitulu horretan aurreikusitako prozeduraren arabera, baldin eta langileak egiten zuen jarduera eteteak egun osoei, jarraituei edo txandakakoei eragiten badie, gutxienez lansazio arrunt batean zehar").

c) Jardunaldia murriztea arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo ekoizpenekoengatik (lansazioaren ehuneko 10 eta 70 arteko aldi baterako murrizketa, eguneroko, asteroko, hileroko edo urteroko lansazioaren oinarriaren gain kalkulatu).

HEZKUNTZA

- **Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuak (HNSN 2011) eta Hezkuntzaren Sailkapen Nazionalak (HSN 2014) honako kategorizazio hau ezarri dute:**

<i>HNSH 2011</i>	<i>HSN 2014</i>
0 Lehen haurtzaroko hezkuntza edo lehen hezkuntzaren aurrekoa	0 Haur hezkuntza
1 Lehen hezkuntza	1 Lehen hezkuntza
2 Bigarren hezkuntza baxua 3 Bigarren hezkuntza altua	2 Bigarren hezkuntzako lehen etapa edo antzekoa
4 DBH ondorengo hezkuntza ez tertziarioa	3 Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta antzekoa 4 Goi-mailakoa ez den DBH ondorengo hezkuntza
Hezkuntza tertziarioa edo maila handiagokoa 5 Ziklo laburreko hezkuntza tertziarioa	5 LHko irakaskuntzak, arte plastikoak eta diseinua eta goi graduako kiroletakoak eta baliokideak; batxilergo titulua behar duten unibertsitateko titulu propioak, 2 urtekoak edo luzeagoak
6 Hezkuntza tertziarioa edo maila baliokideko gradua	6 Gehienez 240 ECTS kredituko unibertsitate graduak, unibertsitate diplomaturak, adituaren edo espezialistaren unibertsitate titulu propioak eta antzekoak
7 Maisutzaren maila, espezializazioa edo baliokidea	7 240 ECTS kreditutik gorako unibertsitate graduak, lizentziaturak, Osasunaren Zientzietako masterrak eta espezialitateak egoitza sistemaren bidez eta antzekoak
8 Doktorego maila edo baliokidea	Doktorego irakaskuntzak 9 Hezkuntza ez formala

- **Unibertsitateko graduak jakintza-adarrei atxikitzea:**

JAKINTZA-ADARRAK				
ARTEAK ETA HUMNITATEAK	ZIENTZIAK	OSASUNAREN ZIENTZIAK	INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	GIZARTE ETA LEGE ZIENTZ.
Arte Gradua	Biologia Gradua	Osasun Biologiako Gradua	Arkitektura Gradua	Antropologia Sozialeko eta Kulturako Gradua
Arte Eszenikoetako Gradua	Biokimika Gradua	Erizaintza Gradua	Diseinua Gradua	Jarduera Fisikoko Zientzietako Gradua
Arte Ederretako Gradua	Bioteknologia Gradua	Farmazia Gradua	Informatika Gradua	Kirolaren Zientzietako Gradua
Dantzaren Zientzietako Gradua	Elikagaien Zientziako eta Teknologiako Gradua	Fisioterapia Gradua	Ingeniaritza Aeronautikoko Gradua	Lanaren eta Giza Baliabideen Zientzietako Gradua
Antzinateko Zientzietako eta Hizkuntzetako Gradua	Ingurumen Zientzietako Gradua	Logopedia	Ingurumen Ingeniaritza Gradua	Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua
Diseinua Gradua	Zientzia Esperimentaleko Gradua	Medikuntza Gradua	Ingeniaritza Biomedikoko Gradua	Lan Harremanetako eta Enpleguko Gradua
Barnealdean Diseinuko Gradua	Fisika Gradua	Giza Elikadura Dietetikako Gradua	Ingeniaritza eta Konputagailuen Gradua	Merkataritza Gradua
Moda Diseinuko Gradua	Geologia Gradua	Odontologia Gradua		Garapen, Merkataritza Kudeaketa eta Merkatuko Estrategietako Gradua
Multimedia Diseinu eta Diseinu Grafikoko Gradua	Estatistika Aplikatu Gradua	Optika eta Optometria Gradua	Eraikuntza Ingeniaritzako Gradua	Marketin Gradua
Espainiera Gradua: hizkuntza eta literatura	Matematika Gradua	Optika, Optometria eta Audiologia Gradua	Energjaren Ingeniaritza Gradua	Marketing eta Kudeaketa Komertzialeko Gradua
Asia eta Afrika Gradua: Arabiera, Txinera eta Japoniera	Matematika eta Estatistika Gradua	Podologia Gradua	Softwarearen Ingeniaritza Gradua	Kriminologia Gradua
Ikasketa Hispanikoetako Gradua:	Kimika Gradua	Psikologia Gradua	Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Zuzenbide Gradua

espainiera eta bere literaturak				
Ikasketa Ingelesetako Gradua: Hizkuntza, Literatura eta Kultura		Lan-terapiako Gradua	Komunikazioetako Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	Ekonomia Gradua
Filologia Klasikoko Gradua		Albaitaritza Gradua		Estatistika eta Enpresa Gradua
Filosofia Gradua			Komunikazio Zibiletako Ingeniaritza Gradua	Haur Hezkuntzako Gradua
Geografia eta Historia Gradua			Diseinu Industrialeko eta Produktuaren Garapeneko Ingeniaritza Gradua	Lehen Hezkuntzako Gradua
Kultur Kudeaketako Gradua			Industrial eta Produktuaren Garapena	Gizarte Hezkuntzako Gradua
Historia Gradua			Elektronika, Industria eta Automatika Ingeniaritza Gradua	Pedagogia Gradua
Artearen Historiako Gradua			Materialen Ingeniaritza Gradua	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua
Historiako eta Musikaren Zientzietako Gradua			Ikus-entzunekeko Sistemen Ingeniaritza Gradua	Enpresen Zuzendaritzako eta Sorkuntzako Gradua
Humanitate Gradua			Ikus-entzunekeko Sistemen Ingeniaritza eta Multimedia Gradua	Finantza Zuzendaritza eta Kontabilitateko Gradua
Hizkuntza eta Literatura Espainoleko Gradua			Komunikazio Sistemen Ingeniaritza Gradua	Finantza eta Kontabilitateko Gradua
Komunikazioan eta Marketinean Aplikaturiko Hizkuntzetako Gradua			Informazio Sistemetako Ingeniaritza Gradua	Merkataritza eta Finantza Kudeaketako Gradua
Hizkuntza Moderno eta Itzulpengintza Gradua			Soinu eta irudiaren Ingeniaritza Gradua	Geografia eta Lurraldearen Antolamenduko Gradua
Hizkuntza Modernoaren eta Bere Hizkuntzen Gradua			Teknologia Industrialeko Ingeniaritza Gradua	Hirigintza, Lurralde Antolamendu eta Iraunkortasuneko Gradua
Hizkuntza Moderno, Kultura eta Komunikazio Gradua			Telekomunikazio Teknologietako Ingeniaritza Gradua	Publizitate Komunikazioko Gradua
Paisajismo Gradua			Ingeniaritza Industrialeko Gradua	Ikus-entzunezko eta Multimedia Gradua
Itzulpengintza Gradua			Ingeniaritza Matematikako Gradua	Kazetaritza Gradua
Itzulpengintza eta Interpretazio Gradua			Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	Publizitate Gradua
			Ingeniaritza Kimikoko Gradua	Publizitate eta Harreman Politiketako Gradua
			Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua	Zientzia Politiketako Gradua
			Antolaketa Industrialeko Gradua	Zientzia Politikoko eta Administrazio Politikoko Gradua
				Zientzia Politikoko eta Merkataritza Kudeaketako Gradua
				Nazioarteko Harremanetako Gradua
				Soziologia Gradua
				Turismo eta Aisialdi Enpresen Nazioarteko Zuzendaritza Gradua
				Garraioaren eta Logistikaren Zientzietako Gradua
				Gizarte Laneko Gradua
				Informazio eta Dokumentazio Gradua

- **Adinkeria**

Adinaren ziozko diskriminazioa, ingelesezko "ageism" terminoarekin ere ezaguna (aldi berean, Europako Batzordeak «edaísmo» itzuli du gaztelaniara) adinaren zioz pertsonen edo taldeen kontra eginiko estereotipifikazioa eta diskriminazioa da. Pertsonak adinaren arabera diskriminatzen dituzten zenbait sinesmen, arau eta balio biltzen ditu adinkeriak.

- **Gizarte Babesaren Kontua¹.**

SEEPROS Gidaliburuaren arabera, hauexek biltzen ditu Gizarte Babesaren kontzeptuak: "ezarritako zenbait arriskuk edo beharrek familientzat eta banakoentzat dakarten karga arintzeko erakunde publikoek edo pribatuek eginiko esku-hartzeak, betiere aldibereko, elkarrekiko edo banako akordiorik ez badago". Banako "akordiorik" ez izateak berekin dakar taldeka egitea arriskuaren, kontingentziaren edo behararen estaldura, eta beraz, kanpoan gelditzen dira banako ekimenen, partikularren edo soilik bere alde hartutako familien ondoriozko balizko gastuak.

Soilik Gizarte Segurantzaren Sistemetako erakundeek buruturiko ekintzak biltzen dituzten gizarte babesaren arloko beste estatistika batzuen aurrean, hala nola Lanaren Nazioarteko Bulegoa, SEEPROS metodologian, definizio orokorreko beharkizunen arabera gizarte babesteko ekintzak burutzen dituen edozein erakundetara dago irekita behatze-eremua, publikoa nahiz pribatua.

Hona hemen Gizarte Babesaren kontzeptuaren barruko estaldura duten kontingentziak:

- **Gaixotasun funtzioa / Osasun arreta: Funtzio horretan, bi prestazio mota sartu behar dira:**
 - Gaixotasunaren ziozko sarreraren galera ordeztzeko eskudiruzko prestazioak.
 - Irizpide horrek berekin dakar baliaezintasunagatik edo amatasunagatik emandako laguntza funtzio horretan sartzeko baliaezintasunaren edo familiaren/semi-alaben ordeztze hurrenez hurren. Langileari enpresan emandako osasun arreta ez dago bilduta, ekoizpen prozesuko beharrezko input gisa hartzen baita; errendimendua lortzen du enpresarioak horregatik.
- **Baliaezintasun funtzioa:** funtzio horren barruan, bi mota handitan sailka daitezkeen hainbat prestazio biltzen dira:
 - Alde batetik, lan jarduera egiteko gaitasuna osorik edo zati batez galtzearen ziozko sarrerak murrizketa konpentsatzeko onuradunari emandako prestazio ekonomikoak, legerian ezarritakoaren arabera.
 - Bestalde, errehabilitazio zerbitzuak eta beste batzuk, gaixotasun / osasun arreta funtzioan zenbatzen den osasun laguntzakoak izan ezik.

Garrantzikoa da zehaztea soilik zenbatzen direla funtzio honetan erretiro adinera iritsi ez diren onuradunek jasotako baliaezintasun pentsioak. Adin hori gaindituta, zahartzaro funtzioari egozten zaio prestazioa. Era berean, ez dira hemen sartzen lan ezintasuneko aldietako diru eta laguntza prestazioak (legean ezarritako irizpideekin bat etorritik), gaixotasun / osasun arreta funtzioan.

- **Zahartzaro funtzioa:** zahartzaroaren ondorioak nolabait arintzeko sortutako prestazio multzo osoa hartzen du bere baitan, hauexek barne: sarreraren galera, ohiko atazak egiteko autonomia galera edo gizarte jardueraren gutxipena.

¹ http://www.eustat.eus/estadisticas/tema_94/opt_0/tipo_5/ti_Cuenta_de_la_Proteccion_Social/temas.html

ESSPROS 2008ko Gidaliburuan ezarritakoaren arabera, erretiro eta zahartzaro pentsioak eta baliaezintasun pentsioak biltzen ditu funtzioak, baldin eta onuradunak 65 urte edo gehiago badituzte.

- **Bizirik irauten dutenen funtzioa:** funtzio honetan, diru-iturri nagusia den senidearen edo pertsonaren galera izan dutenei emandako prestazio ekonomiko guztiak daude bilduta. ESSPROS 2008ko Gidaliburuan ezarritakoaren arabera, bizirik irauteari dagozkion pentsio guztiak daude bilduta.

Era berean, heriotzak eragindako kargak betetzeko zenbait konpentsazio biltzen dira, hala nola ehorztetxeko gastuak.

- **Familia / Seme-alabak** funtzioak: seme-alaben jaiotzak eta hazkuntzak dakartzan gastuak gutxitzeko familiei emandako diru-laguntzak sartzen ditu, baita familiako beste kide batzuen mantentzea ere. Emakume langileei erditu aurretik edo ondoren emandako errentak mantentzea ere sartzen da.

Halaber, funtzio honetan biltzen dira familia erakundea eta bereziki seme-alabak babesteko gizarte zerbitzu guztiak hala nola zentro espezializatuetako edo etxe partikularretako ostatu-hartzea, edo haurtzaindegi zerbitzuak.

- **Langabezia funtzioa:** SEEPROS 1996ko Gidaliburuan funtzio horrek, enplegu politiketako ohiko sailkapenaren arabera, neurri pasiboak biltzen dira alde batetik, hots, ordaindutako enplegurik ez izateak dakartzan ondorioak arintzeko –bereziki sarrera-iturri nahikorik ez izatearekin lotutakoak-, eta bestetik, neurri aktiboak, langabezia egoerei aurrea hartzeko edo gutxitzeko.

Horrenbestez, langabezia subsidioek (zati batekoa edo osoa), bizirik irauteko errentak edo erretiro aurreratuko pentsioak osatzen dute funtzioa, betiere erretiroa hartzeko arrazoia lan-merkatuaren egoeran badago, baita lanbide heziketako subsidioak eta onuradunak gaur egun eta geroan enpleguaren aldetik izan ditzakeen posibilitateak hobetzeko era guztietako laguntzak eta prestazioak. Horrez gain, INEMek bere kargura dauden langabeek zenbait onura jasotzeko duten eskubidea bermatzeko Gizarte Segurantzari eginiko kotizazioak zenbatzen dira funtzio honetan.

- **Etxebizitza funtzioa:** kasu honetan, etxebizitza gastuei aurre egiteko familiei emandako laguntzak dira. Okupatzaileentzako laguntzak izan behar dute, etxebizitzaren jabeak izan zein alokairuan izan, eta ez eraikitzaileentzat edo beren etxebizitzak okupatzen ez dituzten jabeentzat. Honakoak dira, funtsean, laguntzak: alokairu kostuak edo hipoteka interesen ordainketak gutxitzeko ohiko transferentziak.

Aurreko edizioen aldean, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloko eskumenak erabiltzearen ondoriozko gastuak biltzen dira edizio honetan. Ildo horretan, aldatu egin da serie osoa, emaitzak bateratuak izan daitezkeen denboraren aldetik. Metodologia dela-eta, etxebizitza eskuratzen dutenen aldeko zuzeneko diru-laguntzen eta interesen subsidioen zenbatekoak zenbatu dira soilik, baita alokairuko etxebizitzaren sustatzaileentzako eta eskuratzaileentzako laguntzak ere.

- **Beste tokiren batean sailkatu gabeko Gizarte Bazterketa funtzioa:** funtzio honen garrantzia oso txikia da SEEPROS 1996ko Gidaliburuak planteatzen duen eskema funtzionalaren eraketan. Beste ezein funtziotan sartzen ez diren arriskuekin eta beharrekin lotutako prestazioak daude bertan. Funtzioak, jakina, prestazio sorta heterogenoa biltzen du, zeinen ezaugarri komuna diru-baliabide urriarekin lotutako gizarte bazterketak galarazten edo arintzen saiatzea baita, edo osasunaren, hezkuntzaren edo enpleguaren arloko arazoaren presentziarekin loturikoak.

Bestalde, hona hemen sistemak eta sistema-taldeak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Babeseko Kontuan:

- **Gizarte Segurantzaren Sistema.** Gizarte Segurantzako erregimenek osatzen dute. Erregimen horiek kudeatzen dituzte Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Itsasoko Gizarte Institutuak eta laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateak. Gizarte segurantzaren familia-babesa dago bilduta berariazko sistema batean. Gizarte Segurantzaren Konpentsazio Fondoa fikziozko sistema da, gizarte

segurantzian superabita eta defizita duten erregimenen arteko transferentzien konpentsazio-ganbera gisa diharduena eta erregimen horien artean ezin bana daitezkeen gastuak eta sarrerak egozten zaizkionak.

- Enplegu Institutu Nazionala. Erakunde independente bat da eta garrantzi handia du langabeen gizarte-babesean.
- Funtzionario publikoen erregimenak. Epigrafe honetan Funtzionario Publikoen Araubide Berezia dagokien langileen gizarte-babeserako diru-sarrerak eta gastuak daude jasota. Horren barruan sartzen dira oinarritzko prestazioak deritzenak edo klase pasiboen erregimena, eta administrazio-mutualismoari dagozkionak, aipaturiko aldian indarrean dauden funtzionarioen hiru mutualitateek ordaindutakoak: Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitatea (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Erakundeak (ISFAS) eta Mutualitate Orokor Judiziala (MUGEJU). Multzo horretan sartzen da, baita ere, herri-administrazioek haien langileek aldi baterako ezintasunen bat dutenean edo seme- alabaren bat izaten dutenean haien soldata eta ordainsariei eusteko jartzen dituzten zenbatekoen balioespena.
- Bestelako Gizarte Babeseko Sistemak: askotariko sistemak eta erakundeek emandako gizarte babesa biltzen duen gainerako multzoa da eta, beraz, taldeetako heterogeneoa da. Hona hemen taldekatzen dituen sistemarik garrantzitsuenak:
- Osasun sistema publikoa, osasunaren arloko beren eskumenak direla bide euskal administrazioek eginiko jarduketak biltzen ditu.
- Gizarte zerbitzuen sistema publikoa, EAEko administrazioen maila desberdinek gizarte zerbitzuaren arloan dauden erantzukizunak biltzen dituena. Langileen enplegatzaileengandik zuzenean jasotzen dituzten eta prestazio horien nahitaezkotasunaren arabera bi sistematan banantzen direnak.
- Gizarte aseguru pribatuaren definizioari dagozkion aseguru fenomenoak, Kontuen Europako Sistemaren (KES-95) arabera, bereziki Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen zati bat (honelakotzat har daiteke).
- Gizarte babesaren arloan berariazko helburua duten erakunde publikoen ekintza, hala nola Soldatak Bermatzeko Fondoa (FOGASA).
- Gizarte zerbitzuen arloan diharduten Irabazteko Asmorik gabeko Erakunde Pribatuen jarduketa.